

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean.

100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta
metodo automatikoak baliatuz.

Izaskun Aldezabal Roteta

Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkezturiko

TESIA

Donostia, 2004ko urtarrila



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean.

100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta
metodo automatikoak baliatuz.

Izaskun Aldezabal Rotetak Patxi
Goenaga Mendizabalen eta Kepa
Sarasola Gabiolaren zuzendaritzapean
egindako tesia, Euskal Herriko
Unibertsitatean Euskal Filologian
Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2004ko urtarrila

Etxekoei;

batez ere aitaxo eta amatxori.

Zuek erakutsi eta eman didazuenak

ez du ordainik.

Eskerrak ematen

Zuzendariei, Kepa eta Patxiri. Nor bere alorrari loturik, labirintoaren bide zuzenetik eraman nautelako beti.

Ixa taldeari. Tesi honek ez luke argirik ikusiko Ixa taldearen ikerkuntza-grinari esker izan ez balitz.

Ixakideei; direnei eta izan direnei. Lana, lankidetzeta eta aiXialdia uztartzea posible eta beharrezkoa dela erakutsi didatelako. Tesia bukatzen hasi nintzenetik, denok erakutsi didate beharrezkoa den lan-giro eta babes.

Maxux, Xabier, Mikel, Itziar, Aitziber, Koldo, Ricardo eta Txankarri, egin dizkidaten zuzenketa eta iradokizun on eta argigarriengatik. Eta, batez ere, beraiengandik jasotutako dudak bultzada, animo eta elkartasunagatik.

Nire alboan egotea tokatu zaien informatikariei; beti laguntzeko prest. Zenbat ikasi dugun elkarrekin!

Lagunei, beti hor egoteagatik.

Joni, igoera luuuuuuuuuuuzee honetan sokalagun nekaezina izan dudalako.

BETI GORA, BETI AURRERA!

AURKIBIDEA

Aurkibidea	1
I Ikerlanaren aurkezpen orokorra	5
I.1 Gaiaren kokapena eta motibazioa	5
I.2 Helburuak	9
I.3 Tesi-txostenaren eskema	12
I.4 Tesi honekin loturiko argitalpenak	15
II Azpikategorizazioaz historia apur bat	19
II.1 Azpikategorizazioaren ikuspegi tradizionala	19
II.2 <i>Government and Binding</i> (GB) teoriaren ikuspegia	25
II.3 Joera berriak: semantika eta sintaxiaren arteko elkarreragina	36
II.3.1 Hale & Keyser, 1987	36
II.3.2 Jackendoff, 1990	37
II.3.3 Pustejovsky, 1995	39
II.3.4 Levin, 1993	42
II.3.5 Aplikazio konputazionalan baliatzen diren zenbait sistema	43
II.3.5.1 Lexical Functional Grammar (LFG)	43
II.3.5.2 Generalized Phrase Structure Grammar (GPSG)	45
II.3.5.3 Head-Driven Phrase Structure Grammar (HPSG)	45
II.4 Ondorioak	47
III Azpikategorizazio-informazioa corpusetik erazteko emandako pausoak	51
III.1 Ibilbide konputazionala	51
III.2 Azpikategorizazio-informazioa corpusetik erazteko emandako pausoak	54
III.2.1 Erazketa automatikorako aurreprozesuak	54
III.2.1.1 Kasu-bilketa	54
III.2.1.2 Kasuen berreskuratzea kate sintaktikoetan	59
III.2.1.3 Aldez aurretik bazterturiko kate sintaktikoak	59
III.2.2 Emaita estatistikoak	60
III.3 Ondorioak	66

IV Abiapuntua: Levinen <i>Verb classes and alternations</i> (1993) lanaren azterketa	69
IV.1 Oinarri teorikoak	69
IV.1.1 Ezagutza lexikala	69
IV.1.2 Alternantziak eta osagai semantikoak	71
IV.2 Edukia	75
IV.3 Levinen azterketak dituen arazoak	76
IV.3.1 Alternantzia kontzeptuaren definizioa eta izaera	76
IV.3.2 Aditz-multzokatzeak ez dira beti egiten konpartitzen dituzten alternantzien arabera	80
IV.4 Ondorioak	83
V Alternantzia kontzeptuaren zehaztapena eta alternantzien berrazterketa: Levinen (1993) alternantziak euskaraz	85
V.1 Alternantzia kontzeptuaren zehaztapena	86
V.2 Levinen (1993) alternantziak euskaraz	90
V.2.1 Iruzkina orokorrak	90
V.2.2 Aldez aurretik baztertu ditugun alternantziak	93
V.2.2.1 Inpersonea, pasiboa, antipasiboa, erreziprokoa eta erreflexiboa	93
V.2.2.2 Kasu baztertuak	101
V.2.3 Hautatutako alternantzien azterketa	102
V.2.3.1 Aldaketa balentzialak dituzten alternantziak	105
1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa (L 1.1.2.1)	105
2 “Middle” alternantzia (L 1.1.1)	115
3 Objektu inespezifikoa (L 1.2.1) eta Objektu barneratuaren egitura (L 7.1)	118
4 Agentearen ezaugarri arrunta (L 1.2.6.1)	132
5 Instrumentuaren ezaugarri arrunta (L 1.2.6.2)	133
6 Zeharkako subjektuak: Denborazko subjektua (L 3.1) eta Kausa abstraktuzko subjektua (L 3.4)	135
7 Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa (L 1.2.4)	138
8 Alternantzia erreziprokoak: erreziproko simple iragankorra (L 2.5.1) eta erreziproko simple iragangaitza (L 2.5.4)	140
9 Gorputz-atalaren igoera (L 2.12), Atributu-objektua (L 2.13.2), Jabe-subjektua (L 2.13.4)	143
V.2.3.2 Balentzia aldatu gabe, sintagma motak (Kasuak) aldatzen dituztenak	149
1 Substantzia/Iturria alternantzia (L 1.1.3)	149
2 Alternantzia konatiboa (L 1.3)	151
3 Preposizio lokatiboaren galera (L 1.4.1)	153
4 “With” preposizioaren galera (L 1.4.2)	156
5 Alternantzia lokatiboa: Spray/Load alternantzia (L 2.3.1)	157
V.3 Laburtuz	160
V.4 Ondorioak	167

VI Gure lana osatze aldera: 100 aditzen azterketa, corpusean oinarrituta	171
VI.1 Aditzen hautaketa.....	172
VI.2 Informazioa gordetzeko datu-basea	176
VI.2.1 Balio sintaktiko/semantikoen (<i>bss</i>) antolaketa	177
VI.2.2 Ezaugarriak eta markaketa-sistema	179
VI.2.3 Mugak	190
VI.3 Datu estatistikoak.....	192
VI.4 Emaidzak	193
VI.4.1 Datu orokorrak	194
VI.4.2 Agertu zaizkigun alternantzien inguruan.....	197
VI.4.2.1 Agertu zaizkigun alternantziak	198
VI.4.2.2 Alternantzia motak	213
VI.4.2.3 Kasuistika sintaktiko berria alternantzietan	217
VI.4.3 Adiera orokorrak edo predikatu mota nagusiak eta horiei loturiko osagai semantikoak.....	220
VI.4.4 Izan ditugun arazoak eta hartutako erabakiak	224
VI.4.5 Zenbait kontu aipagarri	237
VI.4.5.1 Kasu batzuen arteko dependentzia.....	237
VI.4.5.2 Ondoz ondoko ekintzak adierazteko ahalmena	238
VI.4.6 Aztertutako Kasuek izan ditzaketan osagai semantikoak	239
VI.5 Azpikategorizazioa gure ikuspegitik.....	242
VI.6 Corpusaren erabilera dela eta	243
VI.7 Azterketa konputazionaleri begira interesgarriak eta aplikagarriak izan daitezkeen datuak.....	245
VI.6.1 100 aditzak berrerabiltzea	245
VI.6.2 100 aditzetatik ateratako informazio orokorra baliatuz, beste aditz batzuei buruzko informazioa atera	247
VII Zabaldutako ikerlerroak eta ondorio nagusiak. Aurrera begirakoak	253
VII.1 Zabaldutako ikerlerroak eta ondorio nagusiak.....	253
VII.1.1 Baliabide automatikoen erabilera.....	253
VII.1.2 Levin (1993) lanaren azterketa	254
VII.1.3 100 aditzen azterketa zehatza.....	254
VII.2 Aurrera begirakoak	255
Bibliografia	259
A eranskina: Aditzak bere <i>bs</i> ekin, laburrean	275
B eranskina: Euskarri elektronikoan sortu ditugun baliabideak lortzeko modua	295

I IKERLANAREN AURKEZPEN OROKORRA

I.1 Gaiaren kokapena eta motibazioa

Hemen aurkezten dugun lana, duela hamabost urte inguru hasitako kate luze baten beste kate-begi bat da: Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa ikerkuntza taldeak hizkuntzalaritza arloan zabaldutako ildo konputazionalan beste urrats bat.

Hizkuntzalaritza konputazionala deritzan hizkuntzalaritzaren adar hau, hitzek berek adierazten duten bezala, hizkuntza (edota *lengoaia naturala* arlo honetan, bestelako lengoaia formalen bereizgarri) ulertu ahal izateko, ordenagailu batek beharrezko dituen baliabide linguistiko eta automatikoak uztartzen diharduen hizkuntzalaritza mota da; alegia, diziplinartekoa. Hala, hizkuntzalaritza konputazionalak, ahal duen neurrian, hizkuntzalaritza orokorretik edan eta gero hori guztia konputazionalki tratagarri izango den modu batean jartzen du.

Ahal duen neurrian diogu. Izan ere, gizakiok hainbat ezagutza mota erabili behar ditugu gure hizkuntza-prozesuak gauzatzeko. Horretarako lexikoa, morfologia, sintaxia, semantika, pragmatika eta munduaren ezagutza erabiltzen ditugu, baina ez ditugu ezagutza horiek guztiak modu errazean konbinatzen; elkarrekintza handiak daude haien artean. Horrek ikaragarri zailtzen du prozesu horien simulazio automatikoa. Eta ondorioz, askoz errazagoa da modulu independenteak sortzea ezagutza mota bakoitza lantzeko, eta gero beste modulu batek hauek koordinatzea. Hizkuntzalaritza konputazionalak, orduan, dagoen hizkuntzazko informazioa baliatuz, hainbat tresna, oinarri eta baliabide eraikitzen ditu; eta horrek, azken batean, bere ildo propioa eraikitzen darama. Hala ere, automatizazio-prozesua, hizkuntzalaritza orokorraren lagungarri bihurtzen da; izan ere, fenomeno linguistiko jakin bat

definitzerakoan beharrezko diren ezaugarri eta prozedurak —gizakiok geure kabuz beharbada erreparatuko ez genizkienak— argitan jartzen dizkigu. Hizkuntzalaritza orokorra, beraz, iturria da, baina automatizazioak bere garapenean laguntzen du askotan. Hortxe ageri zaigu diziplinarteko lana; azken batean, baliabide linguistikoak eta automatikoak konbinatzerakoan, batak zein besteak eskaintzen dituzten ahalmen eta mugak neurtu eta konbinatu beharra.

Ixa taldean, hortaz, hizkuntzaren atal desberdinak (ortografia, morfologia, sintaxia, eta semantika batez ere) ikusitako hizkuntzalaritza konputazionalaren ikuspegia jarraituz landu ditugu. Horretarako, hizkuntzazko ekoizpen idatzi errealetatik abiatu gara, eta ekoizpen linguistiko horietako bakoitza hitz-kate jarraitu gisa analizatu dugu. Ondorioz, lehendabiziko eginkizuna hitzen¹ osaera aztertzea izan da, hau da, Morfologia aztertzea.

Hitz hauek beti testuinguru jakinetan agertzen dira, eta ondorioz hitz bakoitzak besteekin harremanetan izan ditzakeen interpretazio guztiak aurreikusi beharra dago, Morfologiaren modulua independentea izango bada. Azken batean, hitz bat bere interpretazio guztiekin analizatu nahi dugu testuingurua kontuan hartu beharrik gabe. Adibide batera joaz, *iritzi* hitza, izena zein aditza izan daiteke, baina horretaz gain, kontuan hartu behar da *zenbait iritzi* edo *iritzi bat* segidak ditugunean, lehenengoan *iritzik* Kasu-marka² (ez-ageria) daramala, eta, aldiz, bigarrenean, *ez*; edota *iritziak* hitza, *Alkatearen iritziak herritarrek harritu ditu* edo *Egunkariak herritarren iritziak plazaratu dituzte* gisako esaldietan ager daitekeela, hau da, ergatibo singular gisa (subjektu) nahiz absolutibo plural (objektu) gisa. *Iritzi* aditza denean ere, *iritzi dio* bezalako segida batean, partizipio burutu gisa erabilia dagoela adierazi beharra dago. Horrek guztiak esan nahi du, *iritzi* eta *iritziak* hitzek testuinguru desberdinetan hainbat interpretazio izango dituztela; bestela esanda, anbiguoak izango direla, eta aukera horiek Morfologia moduluak eman behar ditu.

Anbiguotasun mota hau oinarrizkoa da hizkuntzalaritza konputazionalan. Hizkuntzaren alor orokorretan, berriz, planteatu ere ez da egiten, sorkuntzatik abiatu, ez zaiolako testuinguruari erreferentziarik egiten, eta, besterik gabe, sortzetik, delako interpretazioarekin datorrela suposatzen da. Planteatzen diren anbiguotasunak, egitura sintaktikoen barruan gertatzen direnak dira soilik; esaterako, bi izenlagunez osaturiko sintagma batean, izenlagun bakoitzak zein zatiri laguntzen dion zehazterakoan aurkitzen den anbiguotasun mota (adib.,

¹ *Hitz* kontzeptuaren definizioa eman beharko genuke hemen. Ez da zailtasunik gabeko auzia, baina guk Fontenelle-k (Fontenelle et al., 1994) ematen duena egingo dugu geure, ikuspegi konputazionalari begira duen zehaztasunagatik. Honelaxe definitzen du autore honek *hitz* kontzeptua: “any string of characters between two blanks”. Definizio honen arabera, orduan, *hitzak* ez du beti bat egin beharrik unitate lexikalarekin ez eta unitate sintagmatikoarekin (batzuetan bat egin arren). Hizkuntza baten tratamendu konputazionalan *hitza* guk definitu dugun moduan izan ohi da aztergai. Izan ere, konputagailuek karaktere-segidak baino ez dituzte ulertzen, eta zurigunea da testu-hitzen bereizgarri grafikoa. Kontua da euskara bezalako hizkuntza eranskarietan, testu-hitz batek informazio ugari duela, eta hortik abiatuta sintaxira hurbiltzeko urratsak eman daitezkeela.

² Kasu-markei erreferentzia egiteko, *Kasu* maiuskulaz idatziko dugu, beste *kasu* izen arruntetik bereiztearren.

gure munduaren ezagutza [gure munduaren] [ezagutza] edo [gure] [munduaren ezagutza] izan daiteke). Hizkuntzalaritza konputazionalan, berriz, horrelako anbiguotasun-kasuetan edo baten alde egiten da, edo anbiguotasuna bere horretan uzten da, desanbiguazioa ez delako beti testuinguru linguistikoetan oinarritzen.

Morfologia moduluaren emaitzen gainean, berriz, hitz batek izan ditzakeen interpretazio guztietatik delako testuinguruari dagokiona hautatu behar da; alegia, deskribatutako interpretazio guztiek eragindako anbiguotasuna desanbiguatu beharra dago. Horretarako, mekanismo desanbiguatzaileak jarri behar dira martxan, eta helburua interpretazio bakarrarekin geratzea da.

Desanbiguatzea, batzuetan testuinguru hurbileko hitzetan eta hauek dakarten informazio morfosintaktikoan oinarrituz egin daiteke, baina, beste batzuetan, ezinezkoa gertatzen da aditzei dagokien informazio lexikala edo azpikategorizazioari dagokiona izan gabe. *Liburua ekarri duela esan dit* esaldiko *-ela* erlazio-atzizkia *esane*k eskatzen duela eta konpletiboa dela zehaztuta ez badago lexikoan, zail da *-ela* hori konpletiboa edo modu-denborazkoa den desanbiguatzea. Areago, **gurasoek etortzean abiatuko gara* moduko esaldi bat zuzentzat joko dugu, *etorrik* bere baitan ez badu zehaztuta ergatiboa ez duela onartzen.

Hala ere, informazio lexikalaren beharra ukatu gabe baina hori guztia izateari itxaron gabe, syntaxian aurrera egin da taldean, eta *sintaxi partziala* deritzona landu da. Hitz bitan esateko, *sintaxi partziala* perpausaren *analisi osoari* kontrajarria ulertu behar da; izan ere, perpausaren ulerkuntza osoa lortu gabe, zenbait mekanismo eta teknikaren bidez (Abney 1991, 1997) analisi sintaktiko tradizionalaren informazio-zati erabilgarriak lortzen dira. Hau da, analisi osoa lortzerik ez dagoenean, gutxienez, tarteko emaitzak aurkezten dira, analisi-aukera anbiguoak modu xeheago eta erabilgarriagoan erakutsiz. Horrelako mekanismoei esker, posible da esaldi batean aditzak eta honen inguruan agertzen diren sintagmak dagokien informazio morfosintaktikoarekin identifikatzea. Hain zuzen ere, horiexek baliatu dira azpikategorizazioaren azterketan lagungarri izateko (Arriola eta Soroa, 1996; Aldezabal et al., 2000, 2001b, 2001c). Sintaxi partzial honi ekiteko bi bide jarraitu dira: bata Murriztapen-Gramatika (MG) (Constraint Grammar; Karlsson et al., 1995), eta bestea Baterakuntzan oinarritutako PATR II Formalismoa (Shieber, 1986). Guk azken honen alderdi linguistikoa definitzen parte-hartze zuzena izan dugu, eta berau da gure tesi-lanean baliatu duguna. Formalismo honen bidez, alde batetik, sintagmak ezaugarri-egituren bidez osatzen dira, behin desanbiguazio morfosintaktikoa egin eta gero; eta bestetik, aditzaren eta sintagma hauen artean sortzen diren egitura sintaktiko ugarietatik, batzuk alde aurretik baztertzen dira, zenbait mekanismo automatiko aplikatuz.

Aipatu ditugun analizatzaile guztien oinarria Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL) deritzoguna dugu (Agirre et al., 1994, Aduriz et al., 1998, Aldezabal et al., 1999a, Aldezabal et al., 2001a). EDBL, lexikoari buruzko informazioa modu egituratuan kodetzeko euskarri

informatikoa da, eta etengabe berrituz eta osatuz doa, aipaturiko lanen emaitzak nahiz Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioak agertu ahala. Datu-base lexikal honen alderdi linguistikoan ere parte-hartze zuzena izan dugu. Ikusiko dugun bezala, EDBLren diseinua eta edukia analisi morfosintaktikoari zuzenduta dago batez ere.

Semantikari bakarrik loturik, berriz, Wordnet-en (Fellbaum, 1998) moduko euskarazko sare semantikoa (Euskal Wordnet) da taldean garatzen ari den beste oinarri bat. Bertan sarrerak kontzeptuka antolatuta daude, eta kontzeptu hauen arteko harremanen berri ere ematen da (sinonimia, hiperonimia/hiponimia...). Honek, EDBLren ondoan, ez du aplikaziorik oraindik, eta aztertze dago bi oinarrien —EDBL eta Euskal Wordnet-en— arteko lotura.

Aipatutako ikerketa konputazionalaren fruitu izan dira taldean egin diren tesi-lanak, tresnak eta aplikazioak:

Euskararen morfologiaren inplementazioa eta formalizazio linguistikoa dute tesi-gai Alegria (1995) eta Urkiak (1997), hurrenez hurren. Hauen emaitza izan dira MORFEUS analizatzaile morfologikoa (Alegria et al., 1996) eta hau oinarrian duen XUXEN zuzentzaile ortografikoa (Aduriz et al., 1997).

Maritxalarrek (1999) bigarren hizkuntza irakasteko sistema bat diseinatu zuen alde morfologikoa landuz.

Morfologia aztertzen duten lan hauek sintaxiaren eremurantz hurbiltzen badira ere —euskararen kasuan, morfologia eta sintaxiaren arteko bereizketa hain baita lausoa batzuetan—, sintaxiaren bidea irekitzen dutenak, Sarasola (1988), Gojenola (2000), Arriola (2000) eta Adurizen (2000) tesiak ditugu. Sarasolaren azterketa domeinu espezifikoko batean eta gaztelaniaren gainean eginga da. Gojenola, Arriola eta Adurizen lanetan, berriz, euskara da hizkuntza aztergaia, eta sintaxiaren tratamendu orokorra planteatzen da. Adurizek Murriztapen-Gramatikaren euskararako egokitzapena proposatzen du. Arriolak, formalismo berori erabilia, eta *Euskal Hiztegiko* adibideetan oinarrituta, azpikategorizazioari buruzko informazioa osatzeko bidea jorratzen du. Eta Gojenolak, PATR II Formalismoan oinarrituz, euskararako gramatika bat osatzen du. Guk era bateko parte-hartzea izan dugu gramatika honen alderdi linguistikoa deskribatzen eta formalizatzen.

Semantika eta lexikografiari loturik, azkenik, Diaz de Ilarraza (1990), Artola (1993), Arregi (1995) eta Agirre (1999) lankideen tesiak ditugu, eta bidean dira beste hainbat proiektu.

Puntu honetara iritsita, eta egun testu errealak tratatzeko garatu ditugun tresna konputazionalen ahalmenak kontuan izanda, azpikategorizazioaren beharra ezinbestekoa gertatzen da, aditzaren eta bere inguruko sintagmen artean sortzen diren egitura sintaktikoen

aukerak (anbiguotasuna) ahalik eta gehien murrizteko. Adurizen tesi-lanean planteatzen diren etorkizuneko lanetan aurki dezakegu horren aldarrikapen argia:

Hizkuntza aldetik: aditzen azpikategorizazioaren lana burutzea da memento honetako helbururik premiazkoena, oro har syntaxiko tratamendu osorako (esate baterako, funtzio sintaktikoen desanbiguaziorako), eta konkretuki mendeko esaldien eta esaldi nagusien arteko erlazioak hobeto zehazteko.


Aduriz, 2000: 192

Tesi-lan hau, orduan, taldeak garatutako bideak erabilgarri ditugula, lexikoa syntaxiari begira lantzen hasiko garen unean kokatu behar da. Taldean garatu ditugun tresnek, beraz, batetik, guk azterkizun dugun gaiari buruzko informazioa dute beharrezko aurrerapausoak emateko, baina, bestetik, baliagarri izango zaizkigu horixe bera lortzeko.

I.2 Helburuak

Helburua, esan dugun bezala, syntaxian aurrera egin ahal izateko beharrezkoa den informazio lexikala lantzea eta eskaintzea da, lortutako emaitzekin tratamendu automatikoaren atalak — syntaxia eta semantika, batez ere— hobetzeko, eta oinarri sendoago batekin aurrera egin ahal izateko. Zehazkiago, emaitza hauek oraindaino garatu ditugun oinarri eta tresnetan txertatuz, ondoren zerrendatzen ditugun eginkizunetan lagungarri izatea espero dugu:

- Osagai sintagmatikoak dagozkion aditzarekin lotzeko eta egiturazko anbiguotasuna jaisteko. Adib.: ondorengo adibidean *etxera* osagaia zeini dagokio, *ikusiri* edo *etorriri*?




Ama ikusi du etxera zetorreanean

Ikusik adlatiborik onartzen ez duela definituta izango bagenu lexikoan, *etxera* zuzenean *etorririk*ekin lotuko genuke. Aldi berean, *etorrik* adlatiboa onartzen duela ere definituta izan beharko genuke.


- Goikoarekin lotuta, aditz bat baino gehiagoko esaldietan, perpaus bakoitza bereizten dituzten mugak ezartzeko. Adibide bera baliatuz, *ikusi* aditzari dagokion perpausa *etxera* sintagman moztuko litzateke:

Ama ikusi du // *etxera* zetorreanean

- Esaldi batean aurkitzen ditugun osagai sintagmatikoek aditzarekiko duten garrantzia definitzeko. Adib.: *asteartean kotxez eramango du haurra ikastolara*. *Haurra* eta *ikastolara eramane*n semantikari lotuago daudela esan daiteke; aditzak eskatuak direla, alegia. *Kotxez* eta *asteartean*, berriz, aditza modifikatzen duten hautazko elementuak dira:



Garrantzi maila hori definituz gero, bi aditzeko esaldi batean egitura baten aldeko hautua egin daiteke. Adib.: *Haurra ikastolara eramane zuen futbolean jokatzeko*. Hemen, *futbolean* (inesiboa alegia) *jokaturen* berezkoa dela markatuta izango bagenu, *eramane* aditzari ez genioke inesiboa lotuko (nahiz eta badakigun Kasu hori onargarri duela).



Aipatutako helburu guztiak ikusita, argi dago gure azterketa ez dela mugatuko aditz iragankor eta iragangaitzak bereiztera, aditz batek inesiboa edo adlatiboa eskatzen duela esaterakoan hori baino gehiago esaten baitugu. Izatez, azaleko sintaxiaren *analisi osoaren* bidea jorratzea dugu azken helburu; hau da, oraindano landu den sintaxi partzialetik osorako bidea urratzen hastea. Gojenolak azpikategorizazioaren lanketa aipatzen du hori lortzeko zeregin garrantzitsuenetako bat bezala. Hona bere hitzak tesi-lanean landutako gramatikari buruz mintzatzen denean:

Gramatika partziala da, baina corpusetan agertzen diren osagai sintaktiko nagusiak deskribatzen ditu (horien artean izen-sintagmak, adizlagunak, esaldi sinpleak eta mendeko esaldiak), eta horrela esaldien analisi sakon eta osorako lehen pausoa eman da. Analisi osoari ez ekiteko bi arrazoi aipatu dira. Batetik, EDBLren erabilera sendotasuna eta estaldura lexikal zabala eskaintzen duen arren, oraingo informazio sintaktiko garrantzitsuen gabezia ere kontuan hartu behar izan dugula (aditzen azpikategorizazioari buruzkoa, adibidez). Bestetik, sintaxiaren eremu zabalak tesi honetan tratatzeko osagaiak mugatzera eramán gaituela. Une honetan, analizatzailea gai da corpus handiak modu eraginkorrean tratatzeko eta corpus horietatik osagai sintaktiko nagusiak ateratzeko.

Gojenola, 2000: 180

Beraz, gure ekarpena lexikoa osatzean datza; alde batetik, aurretik egin diren lanen jarraipen modura, eta bestetik, ondoren egingo diren lanetarako erabilgarri eta aberasgarri.

Sintaxi osoa zuzenki eraikitzeke baliagarri den aldetik, okerrak detektatzeko ere baliagarria da, behin zuzena dena definituta okerrak markatu eta proposamen egokia eman baitaiteke.


Gojenolaren tesian, aditzen azpikategorizazioa landuta izanez gero ekidingo lirakeen zenbait errore aipatzen dira. Esaterako:

<i>*nik gizonak ikusi ditut</i>	(<i>ikusik</i> ergatibo bakarra)
<i>*esan du etorri da</i>	(<i>esanek -ela</i> konpletiboa)
<i>*horrena mintzatuko gara</i>	(<i>mintzatuk</i> instrumentala)

Azpikategorizazioaren informazioarekin, errore hauek ez lirake gertatuko, ondoko arrazoiengatik: lehenengo adibidean, aditz batek bi ergatibo onartzea ez delako zilegi; bigarrenean, *esan* aditzak mendeko perpaus bat hartzen duenean, erlazio-atzizkiren bat behar duelako (adibideko kasuan, *-ela* erlazio-atzizki konpletiboa); eta hirugarrenean, *mintzatu* aditzak instrumentala eskatzen duelako subjektua ez den osagaian.

Bestalde, esaldietan hitz ezezagunak (lexikoan sarrerarik ez dutenak) analizatzerakoan egiten diren proposamenen artetik balizkoa ez dena baztertzeko erabil daiteke. Adib.:

Barak etorri da Euskal Herrira



Etorrik ez duenez ergatiboa onartzen, lehenengo aukera hasieratik baztertuko genuke.

Honenbestez, azpikategorizazioa landua izateak ondoko zereginetan laguntzen du:

- Osagai sintaktiko eta egitura sintaktiko batzuen desanbiguazioan.
- Zenbait erroreren zuzenketan.
- Hitz ezezagunetan proposamen okerrak baztertzen.

Lan hau ahalik eta orokorren eta konputazionalki baliagarrien izateko, ondorengo lerroak jorratu ditugu:

- Tresna konputazionalen erabilera. Batetik, eskura ditugun tresna automatikoak baliatu ditugu lanean. Eta bestetik, corpus errealerako esaldi-agerraldietan oinarritu gara. Arriolak bere lana hiztegian oinarrituta egin zuen; guk corpuseko agerpen eta erabilerak aztertu ditugu, Arriolaren lanaren osagarri modura.
- Azpikategorizazioa aztertzeko dauden teoria eta formalismoen azterketa: taldean ditugun baliabideak kontuan hartuta, egokiena hautatzen saiatu gara.
- Aditzen azterketa orokorra: formalismoak eta teoriak aztertzekoan aipatutako aditzez gain, 100 aditz landu ditugu, kasuistika aberatsa biltzeko helburuaz.

Bukatzeko, azpimarratu beharrekoa da gure taldean euskara batua edo estandarra dugula langai, eta horri jarraiki, lan honetan aurkezten dugun aditzen azterketa ere horretara mugatu dugula. Hori dela eta, euskalkietako berezitasunak alde batera utzi ditugu (muga, askotan, argia ez den arren). Horretaz gain, erabilera berezituak zein hedatuak ere bazterrean uzten saiatu gara, hau ere zailtasunik gabeko eginkizuna ez dela dakigun arren. Horra hor, lanari muga jartzearen ezinbestekotasuna, bidean egiteko asko uzten dituen.

I.3 Tesi-txostenaren eskema

II. kapituluaz azpikategorizazioaz jardungo dugu luze; hizkuntzalaritzan —orokorrean nahiz konputazionalan— izan duen lekuaz eta berau lantzeko garaian izan diren gorabeheraz. Chomsky-tik (1968) hasita gaurdaino izan diren ikuspegiak eta aurkitu ditugun arazoak argitan jarriko ditugu. Azpikategorizazioa zer den argi badago ere, teoriaren arabera ez da modu berean landu eta ez zaio garrantzi bera eman. Horretaz gain, aditz baten osagai hautatuak zeintzuk diren eta zergatik esatean fenomeno linguistiko asko kontuan izan behar direla agerian jarriko dugu.

III. kapituluaz, eta eskuzko ikerketa honekin paraleloan, gure tresneria konputazionalaren bidez azpikategorizazioaren informazioa erazteko egindako lanen berri emango dugu. Taldean dugun tresneria konputazionalaren bidez lortzen ditugun emaitzak, eta hortik abiatuta zein datu mota atera daitezkeen azalduko dugu. II. eta III. kapituluetan ikusitakoen

ondorio bezala, Levin hizkuntzalariaren lan-ildoan hautatuko dugu. Autore honen ustez, aditz baten semantikak aditz berorren jokaera sintaktikoa mugatzen du hein handi batean, eta, honenbestez, egitura sintaktiko berak erakusten dituzten aditzek klase semantiko bera osatzen dute. Honek esan nahi du, egitura sintaktiko hauen azterketak aditzak semantikoki sailkatzeko bidea emango digula, eta horrekin, lexikoia antolatzeke oinarri bat. Horretaz gainera, lan hau beste hainbat hizkuntzaren azterketa egiteke oinarritzat hartu izan da — gaztelania eta katalanerako (Taulé, 1995; Vázquez & Fernández, 2000); frantseserako (Saint Dizier, 1995); alemana, koreera eta bengalerako (Jones et al., 1994), besteak beste—, eta aplikazio konputazionalak ere izan ditu (Dorr, 1993; Saint Dizier, 1996a).

IV. kapituluaren Levenen lana izango dugu aztergai: *English verb classes and alternations* (1993). IV.1 puntuan bere oinarri teorikoak aztertuko ditugu. IV.2 puntuan labur-labur liburuaren edukiaren nondik norakoak ikusiko ditugu. IV.3 puntuan, bere lanean aurkitu ditugun hutsuneak edo inkonsistentziak erakutsiko ditugu. IV.4 puntuan, ondorio gisa, hutsune horiek osatzeko *alternantzia* kontzeptua zehaztu beharra dagoela azpimarratuko dugu, eta aldi berean, alternantziak modu horretara berraztertzeke beharra ere bai.

V. kapituluaren —eta tesiaren atal nagusi bat osatuz—, lehenik, *alternantzia* kontzeptua zehaztuko dugu. Horretarako, Vázquez et al.-en (2000) eta Rebolledo-ren (2002) lanak erreferentzia izango dira guretzat, hauek ere Levenen lanean geuk ikusitako hutsuneak azpimarratzen dituztelako. V.2 atalean, Levinek ingeleserako proposatzen dituen alternantziatik euskaraz onartzen direnak aztertuko ditugu zehaztutakoaren arabera. V.3 atalean, ikusitako guztiaren laburpena egingo dugu, eta V.4 puntuan, bukatzeke, ondorio batzuk aterako ditugu. Ondorio hauetan ikusiko dugu alternantzia mota desberdinak daudela, eta ez diotela denek aditzaren semantika orokorrari erreferentziarik egiten. Bestalde, alternantzia esanguratsuen bidez aditz sail batzuk defini daitezkeela argitan jarriko dugu, baina, aldi berean, balio semantiko hori izateke aditzek ez dutela nahitaez alternantziarik onartu behar erakutsiko dugu. Bestalde, aditz baten osagai azpikategorizatu nagusien berri eman arren, osagai guztien berri emateke mugak dituztela azpimarratuko dugu. Ondorioz, gure azterketa osatzeari begira 100 aditzen azterketa zehatza egitea proposatuko dugu, aditz bakoitzarentzat balio semantiko/semantiko gisa (*bss*) definitu duguna landuz.

VI. kapituluaren —eta tesiaren bigarren atal nagusia osatuz—, 100 aditzen azterketa aurkeztuko dugu. Azterketa zehatzak tesi-lan honekin batera doan C eranskinean du lekua berez. Guk kapitulu honetara puntu aipagarrienak ekarri ditugu. VI.1 atalean 100 aditzak hautatzeko erabili ditugun irizpideak azaltzen ditugu. VI.2 atalean, aditzei buruzko informazioa gordetzeko egin dugun datu-basearen berri ematen dugu: *bss*ak antolatzeke modua, erabilitako ezaugarriak eta markaketa-sistema, eta dituen mugak. VI.3 atalean, zeregin honetan baliatu ditugun datu estatistikoak aipatuko ditugu. Horren ondoren, VI.4 puntuan, lanean lortu ditugun emaitzak ikusiko ditugu. Ondokoak, zehazki: zenbait datu

orokor; agertu zaizkigun alternantzien ingurukoak; azterketaren ondoren atera zaizkigun adiera edo predikatu mota orokorrak, eta hauei loturiko osagai semantikoak; izan ditugun arazoak eta hartutako erabakiak; zenbait kontu interesgarri; eta bukatzeko, aztertutako Kasuek izan ditzaketen osagai semantikoak aipatuko ditugu laburki. VI.5 atalean, gure ustez azpikategorizazioa zertan datzan argituko dugu. VI.6 atalean, corpusaren erabilerak dituen abantaila eta desabantailak argitan jarriko ditugu. Eta, azkenik, VI.7 atalean, azterketa konputazionaleri ekiteko bideak proposatuko ditugu.

VII. kapituluan, bukatzeko, zabaldu ditugun ikerlerroak, atera ditugun ondorio nagusiak eta aurrera begirakoak aipatuko ditugu.

Gainontzean, hiru eranskinek osatzen dute tesi-lan hau:

A eranskinean, aztertu ditugun 100 aditzen *bssak* modu laburrean ematen ditugu.

B eranskinean, egindako lanari lotuta euskarri elektronikoan sortu ditugun baliabideak lortzeko modua azaltzen da. Baliabide hauen artean ditugu:

- Aditzekin egindako datu-basea. Etorkezun hurbilean Internet-en atzigarri jartzea da asmoa, baina, bitartean, aplikazio independente modura gordeta dugu (FileMaker sistemarako).
- *Euskaldunon Egunkariko* esaldietan, aditzen inguruko Kasuak eta hauei loturiko guneak kontsultatzeko *Adibide meategia* deitu dugun aplikazioa. Gerta daiteke guk tesian erabilitako adibideak ez aurkitzea bertan, aplikazio honek oinarrian duen lagina beste data bati dagokiolako. Beraz, aplikazio honek tesiarentzako datu osagarriak eskaintzen ditu, berez.
- Hitz edo lema batek corpusean dituen agerraldiak automatikoki bistartzeko eta modu grafiko erosoan ikusteko aplikazioa. Tesi-lan honetan aditzen agerraldiak prozesu erdi-automatikoz lortu dira, eta grafikoki modu ikusgarrian jartzeko prozesua erabat eskuzkoa izan da. Beraz, aplikazio hau ere tesiarentzako baliabide osagarria da.
- Tesi-txostenarekin batera doan C eranskina.

C eranskinean, 100 aditzen azterketa deskriptibo xehea egin dugu. Azterketa hau, esana dugun bezala, corpusaren gainean egin da; zehazki, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoko* nahiz *Euskaldunon Egunkariko* lagin batzuetako esaldi-agerraldien gainean³.

³ *XX mendeko euskararen corpus estatistikoa* garai bateko EEBS (Egungo Euskararen Bilketa Sistemakoa) corpusaren izen berria da. Nolanahi ere, tesi honetan aurkezten den aditzen azterketa, 1900etik 1994ra bitarteko testuen gainean egin da (corpusa oraindik EEBS zenean), euskara batu gisa sailkatutakoan oinarrituta. Egun, jakina, guztia dago kontsutagai Internet-en (<http://www.euskaracorpora.net>). *Euskaldunon Egunkariari*

Deskribapenaren azalpena antolatzeko, beharrezkoa izan da aditzak multzotan azaltzea. Honenbestez, azterketa honetan nolabaiteko sailkapena ere egin dugu, azken batean. Eranskin hau bigarren liburuki gisa doa tesi-txostenarekin batera.

I.4 Tesi honekin loturiko argitalpenenak

Sarrera-kapitulu honi bukaera emateko, jarraian aurkezten ditugun I.1 eta I.2 tauletan, tesi honekin lotuta dauden argitalpenen berri ematen dugu. Lehenean, argitalpenen zerrenda aurkezten dugu, eta bigarreanean, argitalpen bakoitza zein kapitularekin lotuta dagoen zehazten dugu.

Egileak	Argitalpenak
Aduriz et al., 1994a	EUSLEM: "Un lematizador/etiquetador de textos en euskera". <i>SEPLN X</i> , Córdoba, Julio 20-22, 1994
Aduriz et al., 1994b	"Euskararen Normalizazioa eta Linguistika Konputazionala" <i>Euskera</i> , 1579-88 or., Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra, Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea, urriak 3-7, 1994.
Aduriz et al., 1996a	"EUSLEM: A Lemmatiser /Tagger for Basque", Seventh EURALEX International Congress. Goteborg, Suedia. August 13-18, 1996.
Aduriz et al., 1996b	"Multiword Lexical Units in EUSLEM: A Lemmatiser/Tagger for Basque" COMPLEX'96 Forth Conference on Computational Lexicography and Text Research. Budapest, Hungaria. September 15-17, 1996.
Aduriz et al., 1996c	"Del analizador Morfológico al Etiquetador/Lematizador" <i>SEPLN XII</i> . Sevilla. Septiembre 11-13, 1996.
Aduriz et al., 1998	"EDBL: a Multi-Purposed Lexical Support for Treatment of Basque" <i>First International Conference on Language resources and evaluation</i> Granada, May 28-30, 1998.
Aduriz et al., 1999	<i>Morfeus: Euskararako analizatzaile morfosintaktikoa</i> Barne-txostena. Informatika Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea. 1999ko urtarrila.
Aduriz et al., 2000a	"A word-level Morphosyntactic Analyzer for Basque" <i>Proceedings of Second International Conference on Language Resources and Evaluation</i> . Volume II. Athens, Greece. 31 May-2 June, 2000.
Aduriz et al., 2000b	"A word-grammar based morphological analyzer for agglutinative languages" <i>Proceedings of COLING 2000</i> . Saarbrücken, Germany.

dagokionez, esan behar da azterlan hau egin zen mementoan 1999ko urtarriletik 2000ko maiatza bitarteko aleak genituela eskura euskarri elektronikoan. Egun, lagin handiagoa dugu bilduta.

Egileak	Argitalpenak
Agirre et al., 1998	"A framework for the automatic processing of Basque" <i>Proceedings of Workshop on Lexical Resources for Minority Languages</i> . Granada. 1998.
Aldezabal et al., 1998	"Subcategorización verbal vasca: propuesta inicial y herramienta de validación". SEPLN'98. Alicante. 23-25 de Septiembre, 1998.
Aldezabal, 1998	"Levin's verb classes and Basque. A comparative approach". Colloquium series of the Department of Computer Science at UMIACS. December, 1998.
Aldezabal et al., 1999a	<i>Euskararen datu-base lexikala (EDBL): eskema berriaren proposamena</i> Barne-txostena. Informatika Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea. 1999ko urtarrila.
Aldezabal et al., 2000	"A Bootstrapping approach to parser development" International Workshop on Parsing Technologies (IWPT 2000). Trento (Italy) 2000
Aldezabal et al., 2001a	"EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque" IRCS Workshop on Linguistic Databases. December 13-15, Philadelphia, 2001.
Aldezabal et al., 2001b	"Applications of Finite State Transducers to the Acquisition of Verb Subcategorization Information" <i>Finite State Methods in Natural Language Processing</i> , ESSLLI Workshop, August 20–24, Helsinki 2001
Aldezabal et al., 2001c	"Extracción masiva de información sobre subcategorización verbal vasca a partir de corpus" SEPLN'2001, Septiembre 12–14, Jaén 2001
Aldezabal et al., 2002	Levin-ek <i>English verbs classes and alternations</i> (1993) liburuan ingeleserako proposatzen dituen alternantziak euskararekin parekatuz. Barne-txostena.
Aldezabal et al., 2002	"Learning argument/adjunct distinction for Basque" <i>ACL'2002 SigLex Workshop on Unsupervised Lexical Acquisition</i> . July 8-13. Philadelphia.
Aldezabal et al. 2003a	"Baterakuntzan oinarritutako euskararen analizatzailea". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) <i>Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian</i> . Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.
Aldezabal & Goenaga, 2003	"Analizing verb subcategorization aimed at its computational application". In B. Oyharçabal (eds.) <i>Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque</i> . ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
Aldezabal et al., 2003b	"PATRixa: a unification-based parser for Basque and its application to the automatic analysis of verbs". In B. Oyharçabal (eds.) <i>Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque</i> . ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.

Egileak	Argitalpenak
Aldezabal et al., 2003c	“Learning argument/adjunct distinction for Basque”. In B. Oyharçabal (eds.) Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
Agirre et al., 2003	“A pilot study of English selectional preferences and their cross-lingual compatibility with Basque”. An International Conference on Text Speech and Dialogue. Ceske Budejovice. Czech Republic.

I.1 taula. Tesiarekin lotutako argitalpenak.

Kapitulua	Argitalpenak
III	Aduriz et al., 1994a Aduriz et al., 1994b Aduriz et al. 1996 Aduriz et al., 1996c Aduriz et al., 1998 Aduriz et al., 1999 Aduriz et al., 2000a Aduriz et al., 2000b Agirre et al., 1998 Aldezabal et al., 1999a Aldezabal et al., 1999b Aldezabal et al., 2000 Aldezabal et al., 2001a Aldezabal et al., 2001b Aldezabal et al., 2002 Aldezabal et al., 2003a Aldezabal et al., 2003b Aldezabal et al., 2003c
IV	Aldezabal, 1998
V	Aduriz et al., 1996b Aldezabal et al., 2002
VI	Aldezabal et al., 1998 Aldezabal et al., 2001c Aldezabal & Goenaga 2003 Agirre et al., 2003

I.2 taula. Kapitulua bakoitzarekin lotutako argitalpenak.

II AZPIKATEGORIZAZIOAZ HISTORIA APUR BAT

Azpikategorizazioa definitzeko ez dira beti ezaugarri berak ez eta adierazpide bera erabili. Azter ditzagun, bada, sakonkiago kontzeptu honi buruz esan direnak, hizkuntzalaritzaren ibilbidean apur bat atzera eginez.

II.1 Azpikategorizazioaren ikuspegi tradizionala

Azpikategorizazioaren azterketa, lexikoari garrantzia ematearekin batera hasten dela esan daiteke. Izan ere, lexikoaren autonomia planteatzen hasten den unean ageri zaigu lehen aldiz kontzeptua, Chomskyk bere bigarren liburua *Aspects of the Theory of Syntax* (Chomsky, 1965) argitaratzen duenean, berau aitzindari duen korrante linguistikoaren hastapenetan, hau da, Hizkuntzalaritza Sortzailearen baitan⁴.

Hizkuntzalaritza Sortzailearen aurreko hizkuntza-teorietan —eta atzeregi joan gabe Estrukturalismoan, esaterako—, hizkuntza, gutxi gorabehera modu sistematikoan antolatuta zegoen fenomeno linguistikoen zerrenda huts gisa ulertzen zen. Egun, ordea, hizkuntzaz hitz egitea, zientzia gramatikalaz hitz egitea da. Hizkuntza, gizakiaren jaiotzezko beste gaitasunetako bat da, eta gaitasun horren deskripzio esplizitua egiterakoan, edozein zientzian erabiltzen den metodologia berari jarraitzen zaio, datu enpiriko anitzetatik ahalik eta printzipio orokorrenak definitzeko saioa eginez. Planteamendu honek, hizkuntza-sisteman

⁴ Lehenago ere *rekzioa* edota *erregimena* gisako kontzeptuak ageri zaizkigu, aditz batek eskatzen (“gobernatzen”) dituen preposizio/postposizioak definitzeko zeregin gisa. Gure azterketaren abiapuntua, ordea, aipatu dugun Chomskyren lanean jarriko dugu, terminoa, berez, orduan ageri baitzaigu.

bi plano bereiztea ekarriko du: *gaitasuna (competence)*, gizaki orok dugun gaitasunaren errepresentazio abstraktua, printzipio orokor horiek osatuko luketena, eta *ariketa (performance)*, gaitasun horren gauzapean zehatza, hizkuntza desberdinen arabera azaleratuko dena. Hizkuntza, ondo egituratutako mekanismo sortzailea da, teorian perpaus multzo infinitua sortzeko ahalmena ematen diguna, baina praktikan batzuk bakarrik erabiltzera mugatzen gaituena. Honenbestez, hizkuntza errepresentatzeko saioak ideia horren inguruan murgilduko dira, eta berau osatzen duten atal desberdinak (lexikoa, morfologia, sintaxia...) ikuspegi honetatik aztertuko dira. Halere, atal bakoitzari ematen zaion garrantzia aldatuz joango da hizkuntza-teoria garatu ahala.

Chomskyren lehenengo lanean, *Syntactic Structures* (1957), lexikoak ez du garrantzia handiegirik, eta ez da atal autonomotzat jotzen; lexikoa hitzen gordailua besterik ez da, eta sintaxiko erregeletan dago definituta. Aipaturiko *Aspects of the Theory of Syntax* (Chomsky, 1965) lanean, berriz, lexikoa bere lekua hartzen joango da. Pieza lexikalek informazio fonologikoa eta kategoria sintaktikoari dagokiona izango dute, eta aditzaren kasuan, horretaz gainera, azpikategorizazio-informazioa eta argumentuei dagozkien hainbat hautapen-murriztapen nahiz testuinguruko ezaugarri zehaztuko dira⁵. Gramatikan, berriz, perpaus-egiturazko erregelak daude (*erregela sintagmatikoak, erregela sortzaileak* edota *berridazketa-erregelak* ere deituak), sintagmen artean hierarkia bat definituz perpaus-egiturak eta hauei dagozkien zuhaitz sintaktikoak sortzen dituztenak. Egitura hauetan, kategoriek posizio jakina dute, eta posizio horrek beren funtzioen berri (subjektua, objektua...) ematen dute. Perpausa osatzerakoan, orduan, lexikoa egitura hauetan txertatzen da, eta *erregela transformatzaile* edo *bihurtzaileen* bidez, aditz bakoitzari dagozkion egiturazko murriztapenak aplikatzen zaizkio, azaleko egiturara iritsiz. Hau guztia dela eta, gramatika eredu honi Gramatika Transformazionala deitu zaio.

Ikuspegi honetatik datoz, hain zuzen ere, azpikategorizazioaz ezagutzen ditugun definizio tradizionalak.

Dubois et al.-ek (1973) egindako *Dictionnaire de Linguistique* hiztegiaren gaztelaniazko bertsioan, esaterako, hauxe dugu *subcategorización* kontzepturako ematen den definizioa:

En gramática generativa, se llaman reglas de subcategorización las reglas que imponen una limitación a la elección de los morfemas en razón de su distribución en subcategorías gramaticales. Los verbos (categorías gramaticales) pueden subdividirse (subcategorizarse) en transitivos e intransitivos: si tenemos una oración del tipo SN + Aux + V + SN, el verbo no podrá ser un verbo intransitivo. Las reglas de subcategorización distinguen, por lo tanto, subcategorías

⁵ Hautapen-murriztapen eta testuinguruko ezaugarri hauek erabat formalizatzen ez badira ere, hauek izango dira semantika tratatzeko lehen urratsak Gramatika Sortzailean.

dentro de una categoría. Así, hay varias subcategorías de nombres propios y nombres comunes, contables y no contables:

N -> [N común]
[N propio]

N común -> [N contable]
[N incontable]

(Para rasgos de subcategorización estricta, véase RASGO).

Dubois et al., 1973: 583-583

Eta hauxe da *rasgo sarrerapean azpikategorizazio hertsizko* ezaugarrien definizioan aurkitzen duguna:

a) los *rasgos de subcategorización estricta*, que indican que el morfema en cuestión debe ir seguido o precedido de tal o cual categoría sintáctica: definen el contexto del morfema en terminos de categoría. Así el verbo *pensar* exige un sintagma preposicional (*pensar en alguien*) como complemento, posee el rasgo sintáctico [__SP], indicando el guión largo el lugar del verbo.

Dubois et al., 1973: 514

Definizio hauetan ikus dezakegunez, azpikategorizazioa (edota azpikategorizazio-erregelak) lantzea, terminoak berak adierazten duen bezala, kategoria baten barruan azpisailkapen bat, kategoria murrizte bat egitean datza: “Las reglas de subcategorización distinguen, por lo tanto, subcategorías dentro de una categoría”.

Azpikategorizatze hau, ordea, ez dirudi berdin aplikatzen denik kategoria guztiekin. Izan ere, aditzaren kasuan azpikategorizazioa lantzea, aditzak inguruan behar dituen osagaiak dagokien kategoria “sintaktiko”aren (berez sintagmatikoaren) arabera zehaztea da. Gainera, azpikategorizatze honek, aditzak bi motatara mugatzen ditu: iragangaitzak eta iragankorrak (“Los verbos —categorías gramaticales— pueden subdividirse (subcategorizarse) en transitivos e intransitivos”). Izenen kasuan, berriz, azpikategorizazioa lantzea arrunt/berezi, zenbakarri/zenbakaitz... diren zehaztea dela dirudi (“...hay varias subcategorías de nombres propios y nombres comunes, contables y no contables”). Azpikategorizazioaren definizioa bera, orduan, ez da argi geratzen, eta berez edozein pieza lexikali dagokion ezaugarri gisa zehazten bada ere (“el morfema en cuestión” diotenean ikus daitekeenez), aditzaren ikuspegia da gailentzen dena: aditzek inguruko morfemei ezartzen dieten murriztapenei egiten zaie erreferentzia azken batean, bestelako pieza lexikoen azpikategorizazioaz ari

denean, besterik gabe, tasun semantikoak zehaztu baizik ez baitira egiten, inguruan har ditzakeen elementuei buruz ezer ere esan gabe.⁶

Azpikategorizazioaren azterketa, orduan, hertsiki hartuta, pieza lexikalaren (esan dugun bezala, gehienetan aditzaren) inguruko elementuen kategoria gramatikala, kategoria sintagmatikoa zehaztea da.

Baina aipatu behar da, azpikategorizazioaren ikuspegi zabalago batean oinarrituta, kategoria sintagmatikoaz gain, bestelako ezaugarri batzuk ere hartu izan direla aztergai, beti ere jokaera sintaktikoaren murriztaile diren neurrian: *ezaugarri murriztaileak* —*hautapen-murriztapenak* ere deituak— (*rasgos selectivos*). Horien artean ditugu [\pm biziduna], [\pm zenbakarria]... moduko tasunak. Bechert et al.-ek (1970) honelaxe diote tasun hauei buruz:

+ animado, – animado... se consideran rasgos sintácticos en tanto entran directamente en la descripción de las regularidades sintácticas.

Bechert et al., 1970: 63

Ordea, betiko auzia izan da, benetan zein neurritaraino diren soilik tasun sintaktiko edota baita semantiko ere. Aipagai dugun hiztegian, esaterako, ezaugarri hauek sintaktiko eta semantikotzat hartzen dira:

b) los *rasgos selectivos*, que definen el contexto del morfema en términos de rasgos sintácticos y semánticos; por ejemplo, *pensar* es, como acabamos de ver, [+animado] Aux_].⁷

Dubois et al., 1973: 514

Antzeko eztabaida planteatzen da perpaus mailako osagarriei dagokienez ere (Grimshaw, 1979); hots, perpaus izatea ezaugarri sintaktikoa edo semantikoa den.

Auzi honen korapiloa, berez, hartzen den ikuspegiaren baitan dagoela esan genezake. Izan ere, ezaugarri hauek, aditza ez den pieza lexikalari dagozkion berezko ezaugarri semantikoak dira, guk munduaz dugun ezagutzatik deduzi daitezkeenak. Baina, berez, aditzaren beraren eskakizun lexiko-semantikoen arabera definitzen dira, eta, hortaz, horien baitan daude. Hala,

⁶ Egun gauza jakina da, aditzek ez ezik, bestelako pieza lexikalek ere (izenek, adjektiboek, atzizki lexikalek...) egitura konplexua dutela. Egitura konplexu honetan (eta jadanik azpikategorizazioaren azterketa tradizionala alde batera utzia dela, argumentu-egituraz ordezkaturik), argumentuei buruzko zehaztasunak aurkituko ditugu, aditzen kasuan bezalaxe. Ildo horretatik, Demontek (1999) "Semántica composicional y gramática: los adjetivos en la interficie lexico-sintaxis" artikuluan, Pustejovsky-ren (1995) *The Generative Lexicon* lanaren ikuspegia oinarri harturik, adjektiboen azterketarako proposamena egiten du. Bestetik, bada atzizki eta aurrizkiei buruzko lan bat, gaztelania, katalana eta euskara aztergai hartuta, atzizkiek argumentuen proiektzioan duten eragina aztertzen duena (Gràcia et al., 2000). Euskal atzizkiei buruzko azterketa zehatzak, berriz, badira Azkarate, 1990, Uribarren, 1992, eta Artiagoitia, 1995 lanetan.

⁷ Hauxe da alde zuretik adierazpide honi buruz ematen duten azalpena: "el guión va precedido por Aux (auxiliar), lo que indica que se trata de un verbo, y el [+animado] indica que su sujeto, colocado adelante, debe ser un sustantivo que posea este rasgo".

azpikategorizatutako elementuen ezaugarri baino, aditzaren edota predikatuaren ezaugarri izango dira gehiago. Horregatik, nahiz eta ezaugarri semantikoak izan, syntaxian duten eragina da axola duena, eta gramatikari begira, neurri horretan dute garrantzia, munduaz dugun ezagutzara jotzea beharrezkoa izan gabe. Aditzaren ikuspegitik, beraz, ezaugarri sintaktiko-semantikoak dira, eta zentzu horretan, azpikategorizazioaren azterketan badute lekurik.

Testuinguru honetan ulertu behar da euskararen kasuan nahitaez aipatu beharreko erreferentzia nagusia, Goenagaren *Gramatika Bideetan* lana (Goenaga, 1980). Goenagak, Chomskyk proposatutako Gramatika Sortzailea euskarara egokitzen du, eta *berridazketa-erregelak* nahiz erregela *bihurtzaileak* planteatzen ditu euskarazko syntaxia gauzatzeko.

Azpikategorizazioa, berriz, perpausen gramatikaltasunaz diharduela, azaldu baizik ez du egiten, burutu gabeko gramatikaren atal gisa aurkeztuz. Ekar ditzagun bere hitzak gurera:

a) Guk lehen honako erregela batzu eman ditugu:

I --> gizon, mendi,...

A --> bizi da, dago, dabil

eta abar. Pentsa genezake berridazketa erregelen bidez sartzea hitz horiek zuhaitzean. Horrela egin dugu lehen eta horrela lortu dugu, hain zuzen ere, nahi genuen perpausa, alegia, **gizon hau etxean bizi da** perpausa. Horretarako, aski izan dugu lehendabizi agertzen zen izenaren azpian **gizon** aukeratzea eta bigarrenaren azpian, berriz, **etxe** izena. Baina nork esaten digu, adibidez, lehenbiziko izenaren azpian **etxe** eta bigarrenaren azpian **gizon** ezin dugula txertatu? Kontrakorik esaten ez dugun bitartean hori zilegi da. Horrela, honako perpaus hau lortuko genuke: **etxe hau gizona bizi da**. Perpaus hori ez-gramatikala da. Hortaz, gramatika egoki batek perpaus ez-gramatikalik sortu behar ez badu, gure gramatikari bideren batzu hertsu behar zaizkio.

Goenaga, 1980: 34-35

Azpikategorizazioari buruzko definizioetan ikusi dugunarekin bat datorrelarik, gakoa, bidea ixtean datza; alegia, “kontrakorik esaten ez dugun bitartean” zein egitura oker onartzen ditugun aztertu eta saihestean. Bide ixte hau, arrazoi desberdinek bultzatu dezakete, Goenagak azaltzen digun bezala:

(23) Andreak erlojua saldu du

(24) *Erlojuak andrea saldu du

(25) *Erlojuak katua edan du

(26) *Edertasunak andrea etorri da

Euskaraz dakien edonork daki lehendabiziko perpausa zeharo gramatikala dela, baina beste guztiak zeharo ez-gramatikalak. Baina zergatik dira ez-gramatikalak? (24) perpausaren ez-gramatikaltasuna **saldu** aditzak gizakia den sujetoa eskatzen duelako da. (25) perpausa ere arrazoi beragatik da ez-gramatikala **edan**-ek sujeto biziduna eta objeto edangarria, edo likidoa, eskatzen duelako. Eta zergatik ote da ez-gramatikala (26) perpausa? Arrazoi bat behintzat oso bistakoa da: **etorri da** aditz iragangaitza edo intransitiboa dela esan ohi da eta, horrenbestez, ez dezake

objektorik onar. **Andrea** izango litzateke objektua eta **edertasunak**, sujetoa. **etorri da**-ren orde **liluratu du** aditza balu, perpausa zeharo gramatikala izango litzateke:

(27) Edertasunak andrea liluratu du

Azken batean, badirudi komuntadura mota baten aurrean gaudela: aukeratzen ditugun morfemak eta hitzak inguruan aukeratu ditugunen arauera aukeratu behar ditugu.”

Goenaga, 1980: 35

Beraz, ikusten dugu perpaus batzuen “gramatikaltasuna”, pieza lexikal batek bere baitan izan beharko litzatekeen ezaugarrien arabera erabakitzen dela hainbat arrazoi direla medio: gerta liteke aditz bat ez dagokion egitura sintaktikoan erabiltzea (26), edota egitura sintaktiko zuzenean erabilia ere, alderdi semantikotik okerra izatea (24 eta 25). Ondorioz, Goenagak dioskun moduan “guk orain ditugun erregelekin bakarrik ezin gara oso urruti joan. Beraz, beste era bateko erregelak behar ditugu” (*Gramatika bideetan*, 36 or.)

Goenagak sintaxiaren atal nagusi bat moldatzen du euskararako, erregela sortzaile eta bihurtzaileez osatutako gramatika bat, baina ohartarazten du oinarrian egongo litzatekeen hiztegia osatu beharra dagoela, gero sintaxian eraikitako zuhaitzen tasunekin bat etorri ahal izateko.

Hitz egokia txertatu ahal izateko, hiztegiaren hitz horrek dituen tasunak eta zuhaitzean SK⁸-ak dituenak ados etorri behar dute. Esan beharrik ez dago era honetako hiztegiarik oraindik ez dagoela, ez euskaraz ez beste hizkuntzetan. Baina, gero agertuko diren zenbait arazo hobeto ulertu ahal izateko, egoki iruditu zait subkategorizapenaren arazo honetaz zerbait esatea.

Goenaga, 1980: 41

Alegia, azpikategorizazioa egiteke dagoen atal beharrezkoa da, eta, azken batean, “arazoa da ea nola jaso dezakeen kontu hori gure gramatikak” (*Gramatika bideetan*, 36 or.).

Argi dago Gramatika Sortzailearen hasierako eredu honek oso sistema sortzailea eta deskribatzailea bermatzen duela (teoriaren izenari kasu eginez, hain zuzen ere). Baina horrek, era berean, alderdi murriztailea osatu beharra ekartzen du, eta hori ez da guztiz definitu eta burututako atala. Ikusi dugun bezala, aditzak iragankor eta iragangaitzetan azpikategoriza daitezkeela esaten denean, bi egiturei baino ez zaie egiten erreferentzia: ‘IS + A + IS’ eta ‘IS + A’. Ordea, definizioetan aipatu dugun “*pensar en alguien*” modukoetan, bestelako egitura baten aurrean aurkitzen gara, eta iragankortasun edo iragangaiztasun hori ilun geratzen da, aipatutako egiturak oinarri hartuta, bederen. Horretaz gain, egitura arrunt horietatik aldentzen diren kasuak ere badirela ohartzen hasiko dira ikertzaileak (*irakin, iraun, dimititu...*

⁸ SK sinboloak “sinbolo konplexua” adierazten du Goenagak erabiltzen duen sinbolo sortan.

modukoez ari gara hemen), laguntzaile eta subjektu iragankorrak izanik ere, objektua erakusten ez duten aditzekin topo egiterakoan. Horrelako aditzen kasuak, hain zuzen ere, aipatzen dira dagoeneko *Gramatika bideetan* lanean, eta jakina, arautik aldendu eta nolabaiteko markaz deskribatu eta murriztu beharreko kasu gisa planteatzen dira⁹.

Bestalde, osatzen den gramatika, hizkuntza jakinaren idiosinkrasiari lotuegia dago, hizkuntza bakoitzeko perpaus-egiturak, transformazioak eta behar lexikoak definitu behar baitira; eta gerta daiteke, esaterako, hizkuntza batean aurkitzen dugun transformazioa beste batean ez agertzea, edota hizkuntza batean pieza lexikal baten eskakizuna bestean ez izatea. Bestela esanda, gramatikaren eredu honek ahalmen esplikatiboa falta duela esaten da, ez duelako azaltzen perpausak zergatik eta nola sortzen diren.

Ondorioz, beste galdera batzuk planteatzen hasiko dira gramatikaren alderdi esplikatibo hori asetze aldera: egitura eta transformazio horietatik guztietatik ba ote dago hizkuntza guztietarako baliagarri izango den mekanismo orokorragorik ateratzerik? Zein hizkuntza mailatan (lexikoan, sintaxian...) gertatzen dira fenomeno linguistiko desberdinak? Azken finean, ba al da gramatika sinplifikatzeko, murrizteko modurik?

Honek guztiak, hizkuntza osatzen duten atalak berraztertzea eta berrantolatzea ekarriko du. Garai honetan sortzen dira Hipotesi Lexikalista eta ondorengo Hipotesi Lexikalista Hedatua, Chomskyren “Remarks on nominalization” (Chomsky, 1970) lanean dutenak abiapuntua. Hipotesi hauen arabera, erregela sintaktiko desberdinek ezin dute hitz barruko fenomeno guztien berri eman; hala, sintaxitik banatuta dagoen aparteko atal bat proposatuko da sistema linguistikoan: morfologia. Halere, ez da eztabaidarik gabeko auzia, eratorpen-morfologia eta morfologia flexiboa non kokatu behar diren eztabaida piztuko baita (honen berri zehatzago izateko, jo bedi Urkiaren tesiko “Morfologia Gramatika Sortzailean” atalera, (Urkia, 1997: 19).

II.2 *Government and Binding* (GB) teoriaren ikuspegia

Goian aipaturiko testuinguruan, Fillmore-k 1968an “The case for case” (Fillmore, 1968a) artikulua idazten du, eta hau funtsezkoa izango da teoria linguistikoaren hurrengo urrats nagusirako. Autore honen ustez, *subjektua*, *objektua* eta gisa honetako kontzeptuak ez dira

⁹ Horiei buruzko zehaztasunerako jo bedi aipaturiko gramatikan “aditz sintagmaren egitura” atalean, egitura sintaktiko orokorra eta honetan oinarrituriko transformazioari (“ergatiboaren transformazioa”) buruz ematen dituen zehaztapenetara (*Gramatika bideetan*, 119-120 or.).

nahikoa perpaus barruko elementuen arteko erlazioen berri emateko. Bere ustez, erlazio hauek ez dira erlazio formal hutsak, baizik eta eduki semantikoa dute. Erlazio hauei *Kasu* deitzen die, eta honek *agentibo*, *onuradun* eta gisa honetako kontzeptuak erabiltzera eramango du. Fillmore-ren *Kasu* kontzeptua oinarritzat hartu eta berera moldatuko du Chomskyk. Chomskyk moldatutako kontzeptu hau Hizkuntzalaritza Sortzailean mugarri izango den *Gobernu eta Uztarduraren Teoriako Teoria Tematikoa* moduluaren oinarria izango da (Chomsky, 1981).

Gobernu eta Uztarduraren Teoria (*Government and Binding*, ingelesez; GB aurrerantzean) mugarria dela diogu, gramatikaren ikusmoldea aldatzea ekarriko duelako. Izan ere, hemendik aurrera, gramatika ez da izango erregela multzo batez osatutako sistema bat, baizik eta printzipio batzuen arabera parametrizagarri izango den sistema modularra¹⁰.

Este modelo (...) es el que concibe esa gramática abstracta como un *sistema de principios* (como una entidad “modular”) y no ya un sistema de reglas.

Demonte, 1995:10

Printzipio eta parametroen eredu hau, aurreko eredu sortzailearen erredundantziari eta idiosinkrasiari erantzuna ematera dator, gramatika orokor eta sinplifikatu bat planteatuz. Ideia horrekin lotuta, gramatika *sistema konputazional* gisa ulertzeari arreta berezia jartzen hasten zaio, alegia, orokorra den aldetik, antolamendu eta funtzionamendu konputazionala duen mekanismo gisa aztertzen hasiko dira. Gramatika, sistema konputazional horrek osatuko du¹¹.

Teoriaren eredu berri honetan, orduan, gramatika moduluka antolatuta dago, eta modulu hauek printzipio unibertsal batzuez osatuta daude. Printzipio bakoitza parametro baten bidez definituta dago, eta hizkuntza espezifiko bakoitzari parametro horren balio zehatz bat egokituko zaio. Hala, perpausak printzipio eta parametro horien arabera osatuko dira hizkuntza bakoitzean. Laburki esateko, printzipioek adierazten dute perpausa osatzeko zer, noiz, non eta nola kendu, mugitu edo erantsi behar den; eta kentze, mugitze eta eranste hori *mugi alfa* deritzon erregela bakarraren bidez gauzatuko da. Hain zuzen, *mugi alfa* erregelak, transformazio desberdin guztiek egiten zutena (ariketa bera: kendu, gehitu, aldatu...) egingo du.

¹⁰ Azpimarratu behar dugu, lan honetan azalduko dugun *Gobernu eta Uztarduraren* ereduak, hasierako ideietan oinarrituta dagoela; hau da, ez ditugu teoriak garai desberdinetan izan dituen aldaketa edo berrikuntza guztiak mintzagai izango. Lekuak mugatzen gaituela kontuan izanik, guk azaldu nahi dugunerako argigarri delakoan gaude.

¹¹ Bide batez, esan dezagun ikertzaile askok *gramatika* edo *sistema konputazional* kontzeptuen pareko darabilte *sintaxi* terminoa; eta horren ondorioz nahasteak sortu izan dira *sintaxi* terminoarekin. Chomskyk berak nahiago du berez *sistema konputazional* terminoa erabili, gaitasun linguistikoaren arau eta errepresentazio multzoa adierazteko egokiagoa delakoan (Chomsky, 1982: 114).

Hortaz, Gramatikaren helburua izango da printzipio unibertsal sintaktiko horiek definitzea, beti ere hizkuntza espezifiko bakoitza azaltzeko gai izango diren parametro -balioak kontuan hartuz.

Printzipioak asko eta maila desberdinetakoak dira, baina guztiak banan-banan azaldu gabe eta guri dagokigunera mugatuz, nagusietariko bat X-barra teoriatik datorriguna dela esango dugu. Teoria honen arabera, sintaxia lexikotik proiektatzen da. Hala, kategoria lexikoak (izena, aditza, adjektiboa, preposizioa/postposizioa, adberbioa) kategoria sintagmatiko gisa proiektatzen dira sintaxian (X^o kategoria lexikotik X'' kategoria sintagmatikora). X'' kategoria honek, modu egokian osa dadin, gune lexiko bat izan behar du ardatz (goian aipaturiko kategoria lexikalekoa den elementuren bat), eta sintagma mailara iristeko bidean beste hainbat elementu bil ditzake, baldin eta elementu hauek lexikoan definituta badaude. Guk hemen emango ditugun azalpenetan aditzaz arituko gara, baina teorian dauden azpiteoriak kategoria lexiko guztiei dagokiela suposatzen da.

Teoria honetan batez ere lexikotik datorren informazio hori sintaxian nola gauzatzen den aztertzen da. Hala, *Sakoneko mailatik Azaleko mailara* iristeko mekanismo sintaktikoak aztertzen dira gehien bat. *Sakoneko maila* hiztegiaren informazioa huts-hutsean hartzen duen maila da; horregatik, "hiztegiarekiko elkargunea" dela esaten da. Sistema konputazionalak, orduan, informazioa modu horretan hartzen du, eta hortik abiatuta *Azaleko mailarako* bidea egiten hasten da, beste hainbat modulu jartzen direlarik martxan.

Lexikoaren atalean, eta sakoneko egiturara iragan baino lehen, *Teoria Tematikoa* deritzana arduratzen da hitz baten informazio lexikoa osatzeaz. Berorretan definitzen dira aditzaren elementuen ezaugarri argumental-semantikoak eta beraien gauzapean sintaktikoa (sintagma mailan). Ondoren, *Kasu teoriaren* bidez, izen-sintagmen zilegiztatze formalak definitzen dira; hots, sintagma hauen Kasu mailako gauzapena definitzen da. Ezaugarri argumental-semantiko hauek definitzeko *rol tematikoak* proposatuko dituzte. Rol hauek, Fillmoreren ideiarri jarraiki, aditzen beharrezko osagai bakoitzaren funtzio semantikoak dira, eta aditz baten azaleko erabilera desberdinen sakoneko adierazpidea osatzen dute. Egitura argumental-semantiko honi oro har *argumentu-egitura* deitzen zaio. Eta aditzak 'modu honetako edo besteko argumentu-egitura du'ela esaten da.

Argumentuen rol hauek guztiz finkatuta ez badaude ere, bada, oro har, zerrenda bateratu bat, zortzi bat rolez osatua dena¹²:

¹² Bateratua diogu oinarrizko rol tematikotzat hauek jotzen direlako. Baina aldi berean, zerrenda irekiztat jotzen da. Alde batetik, beharrak hala eskatuta, besteren bat eranstea posible delako (esaterako, *tresna, jabea*, e.a.), eta bestetik, zenbaitzuk bikoteka bereizten direlako. Esaterako, *egilea/kausa, helburua/hartzailea* bikoteetan [+biz] tasuna litzateke bereizlea ([+biz] -> agentea, hartzailea; [-biz]-> kausa, helburua); eta *gaia/jasailea* bikotean, ekintza ulertzeko modu xeheagoa (gaia -> mugitzen den entitatea, jasailea -> aditzak adierazten duen ekintza jasaten edo sufritzen duena).

Agentea edo **egilea**: predikatuak adierazten duen ekintza nahita eragiten eta burutzen duena. [+giz], edo behintzat [+biz], tasunduna dela esan ohi da, burutzen den ekintza nahita egiten den aldetik (adib.: *Pedrok atea bota zuen*).

Kausa: predikatuak adierazten duen ekintzaren eragilea. Oro har, goiko egileari kontrajarria, ekintza nahigabe, berez, gertatzen dela adierazten du. (adib.: *Haizeak leihoa hautsi du*).

Gaia: predikatuak adierazten duen ekintzaren ondorioz ukitua edo eragina gertatzen den entitatea, bai egoeraz aldatzen delako (adib. *Haurrak leihoa puskatu du*); bai kokapena aldatzen duelako (adib. *liburuak apalean jarri zituen*).

Esperimentatzailea: predikatuak adierazten duen egoera (psikologikoa) jasaten duen entitatea edo egoera psikologiko baten hartzailea (*anaiari laranjak atsegin zaizkio*). Egoera psikologikoa den aldetik, [+giz] tasuna dagokiola esan ohi da, nolabait ere, goiko *gaiari* kontrajarria.

Onuraduna: predikatuak adierazten duen ekintzaren onura lortzen duena (adib. *anaiari aprobatzea komeni zaio*).

Helburua: predikatuak adierazten duen ekintza zuzentzen zaion entitatea (adib. *anaiari paketea eman zioten*).

Iturria: predikatuak adierazten duen mugimenduzko ekintzaren iturburua edo jatorria. (adib. *Donostiatik abiatu ginen*).

Lokazioa edo **kokapena**: Predikatuak adierazten duen ekintza edo egoera non kokatzen den adierazten duena (adib. *Pello Parisen bizi da*).

Nahiz eta aditz bakoitzak bere *argumentu-egitura* izan lexikoan, rol tematikoak ez dira modu berean ezartzen. Teoria tematikoaren arabera, aditzak bere *argumentuei rol tematiko* bakarra esleitzeko gaitasuna du, eta baita rol tematiko hori sintaxian gauzatuko duen Kasua ezartzekoa ere (*Kasu-iragazkiaren printzipioa*). Kasu hauek, azken batean argumentuak azaleko syntaxira iristeko aditzak ezartzen dituen markak baino ez dira, posizio jakin batean funtzio jakin bat adierazten dutenak. Batzuetan ageriko markaz azaleratzen dira (morfologia aberatseko hizkuntzetan normalean; esaterako, euskaraz, *nik esan dut* adibideko *-k*

Azalduriko rol tematikoen zerrenda hau Gruber (1965), Jackendoff (1972) eta Grimshaw-en (1990) tipologiatik dator, eta definizioak nahiz adibideak Fernández & Anula (1995) eta Grácia et al. (2000) liburuetatik hartu ditugu. Azpimarratu behar dugu, halere, rol tematikoen inguruan badirela bestelako proposamenak ere, besteak beste, Dowty (1991) eta Van Valin-enak (1993). Autore hauek, rolen hierarkia eskala gradual batean antolatzen dute, *proto-rol* kontzeptuan oinarrituta; hierarkiaren bi muturretan bi rol orokor (protorol) proposatzen dituzte, eta gradazio horretan +/- ezaugarri binomikoen bidez, gainontzeko rolak eraikitzen dira. Dowtyk *proto-agent* delakoa proposatzen du hierarkian lehena, eta *proto-patient*, berriz, azkena; Van Valinek gauza bera adierazteko *actor* eta *undergoer* terminoak darabilzki.

ergatiboak erakusten duenez), eta beste batzuetan ageriko markarik gabe (morfologia ahuleko hizkuntzetan normalean; esaterako, gaztelaniazko *yo he dicho* adibideko *yo*-k ez du inongo markarik ageri). Hori dela eta, ageriko markak izendatzeko, *Kasu gramatikalak* terminoa erabili ohi da, eta agerikoak ez direnei erreferentzia egiteko, *Kasu abstraktuak*. Kasu hauek Izen Sintagmei (IS)¹³ lotzen zaizkiela esango da¹⁴.

Argumentu-egituraren parte diren beste osagaiak, berriz, beste baliabidez gauzatzen dira.

Batzuetan, *postposizio* baten bidez iristen dira azaleko egiturara, eta horrexegatik osatzen dute Postposizio Sintagma (PS) deritzan kategoria gramatikala (*Mikelek liburua poltsan sartu du* esaldiko *poltsan*, esaterako; edo aldeaz aurretik agertu zaigun *pensar en alguien* adibideko *en alguien*). Kasu hauetan, orduan, postposizioa da ISri rol tematikoa ematen diona. Baina postposizio-sintagma hauek delako aditza agertzen denean bakarrik agertuko direnez, aditzaren eta ISren artean bitarteko lana egiten duten elementutzat jotzen dira¹⁵.

Beste batzuetan, berriz, PSk ez dira nahitaezkoak, perpausaren esanahian laguntzen duten elementuak baizik. Hauek *adjuntu* deituko dituzte, eta normalean argumentuei kontrajarriak aurkeztuko dira, argumentu-egituraren parte direnak eta ez direnak bereizteko. PS adjuntu hauetan, nahitaezko PSetan ez bezala, postposizioa bakarrik da rol tematikoa ematen diona laguntzen dion ISri; alegia, postposizioak berezko eduki semantikoa du, eta, aditzaren baitan ez dagoenez, bera da rol tematiko ezarlar¹⁶.

Azkenik, badira rolak predikazio mailan esleitzen direnak. Hots, perpauseko beste elementuen konbinazioaren ondorioz, zeharka. Hori da subjektuaren kasua. Hala ere, esan

¹³ IS, PS eta AS sinboloak erabiliko ditugu Izen Sintagma, Postposizio Sintagma eta Aditz Sintagma kontzeptuak adierazteko, hurrenez hurren.

¹⁴ Argumentu hauen kategoria gramatikalar buruzko eztabaidak izan dira, halere. Egun, oro har onartzen da IS izan beharrean Determinatzaile Sintagma (DS) dela berez argumentuen kategoria gramatikala; hala, DSn, determinatzailea da burua, eta IS bere osagarria (Abney, 1987; Artiagoitia 1997). Guk, ordea, IS erabiltzen jarraituko dugu, lexikografia munduan oraindik ere horixe erabiltzeaz gainera, gure tresnetan ere horrela definitu dugulako. Bestalde, azpimarratu behar dugu, beste kategoriako sintagmak (Adjektiboez eta Adberbioez osaturiko sintagmak, alegia) gutxi aipatzen direla teoria orokorrean.

¹⁵ Honi jarraituta (hau da, argumentua aditzaren nahitaezko elementua dela onartuta), gure ustez, ezin izango da esan argumentuak IS kategoriakoak bakarrik direnik.

¹⁶ Puntu honetan garrantzitsua iruditzen zaigu ohar bat egitea. PS batzuk argumentu badira, gramatika tradizionalen *adizlaguntzat* jotzen ziren guztiak ez dira maila berekoak. Honek, era berean, terminologia nahasteak ekarriko ditu; osagarriak ez baitira bakarrik objektu, subjektu eta zehar objektutzat jotzen direnak. Horretaz gainera, X-barra teoriaren planteamenduak (alegia, kategoria guztietarako zuhaitz-egitura berbera erabiltzeak, eta zuhaitzeko elementuak izendatzeko terminologia berbera erabiltzeak —espezifikatzailea, osagarria—), are gehiago zailtzen du *osagarri* kontzeptuaren definizioa. Izan ere, aditzaren osagarriak beti dira beharrezkoak, baina ez, ordea, izenarenak (adjektiboak, esaterako) ez eta adberbioarenak (mailakatazaileak, esaterako). Hau da, azken batean, badirudi *osagarri* izateak ez duela lotura zuzena “beharrezkotasunarekin”, baina, bestalde *osagarri* terminoa (osagarria aditzaren argumentua den aldetik) *adjunturen* parean erabiltzen da, azken hauen ezaugarri nagusia “hautazkoa” izatea delarik. Hori dela eta, askotan nahasteak sortzen dira egituraz ari garen, edo aditzen beharrezko argumentuez.

behar da, rol hau zeharka ezartzen dela badiote ere, ez dela garbi geratzen nola, eta azkenean argumentu-egituran definituta ageri dela, bereziki markatuta.

Rolen esleipena eta gauzatze sintaktikoa beti modu berean egiten dela esango da, eta ideia horrekin *Egitura Gauzatze Kanonikoa* (EGK) deituriko printzipioa sortuko da. Honen ondorioz, informazio hori lexikoan kodetu beharrik ez dagoela esango da¹⁷.

Horrekin batera, hautapen-murritzapenen baliagarritasuna ere zalantzan jarriko da, goikoaren ildo bertsutik, rol tematikoetatik tasun semantiko jakinak ere deduzi daitezkeela esaten baita. Honela, esaterako, *Mikelek liburua poltsan sartu du* adibideko *sartu* aditzak *Mikel* gisako subjektua onartuko du, *Mikel* [+biz] eta [+giz] izaki, *egile* rol tematikoa bete dezakeelako; alegia, *egile* rolak zilegitzen du, berez, entitate bizidun eta gizaki bat izatea subjektu¹⁸.

Bestalde, rol tematikoa esleitzeko moduak direla eta, rolak “domeinu desberdinetan” ezartzen direla esaten da. Argumentuek rola aditzetik edo preposiziotik jasotzen duenean, aditzaren domeinupean sortzen dela esaten da. Zeharka eta predikazioko beste elementuen baitan lortzen direnean, perpausaren domeinupean (ASTik kanpo) sortzen dela esango da. Hori dela eta, Williams-ek (1987) *barne-argumentu* eta *kanpo-argumentuaren* arteko bereizketa planteatuko du. Hain zuzen ere, barne-argumentuak izango dira aditzaren domeinupean sortzen diren argumentuak, eta kanpo-argumentuak, perpausarenean sortzen direnak. Kanpo-argumentu hau, azken batean, perpausaren subjektua izango da, eta barne-argumentua(k), berriz, *osagarria(k)* deitzen dituztenak, subjektutik bereizteko.

Kanpo- eta barne-argumentu kontzeptu hauen bidez, azken batean, aditzarekiko hurbiltasun txikiagoa edo handiagoa adierazi nahi da. Horretan oinarrituta, rolen artean hierarkia bat proposatuko dute, eta hierarkia hau izango da, hain zuzen ere, argumentuen kokagune sintaktikoa definituko duena, hots, argumentuen funtzio sintaktikoaren berri emango duena.

¹⁷ Esan behar da, dena den, azpikategorizazioa definitzea beharrezkoa dela defendatzen duten autoreak badirela (besteak beste, Grimshaw, 1990; Rothstein, 1992); izan ere, zenbait aditzek, nahiz eta argumentu kopuru eta rol tematiko berak izan, kategoria desberdinez gauzatzen dute horietako bat. Grimshaw-k berak ematen duen adibidea *ask* eta *wonder* aditzena da, lehenengoak IS nahiz Mendeko Perpaus gisa gauzatu baitezake objektu-argumentua, eta besteak, berriz, IS gisa soilik. Honen ondorioz, zenbait ikerlarik planteatuko dute, kategoria hauek rol tematikoetatik deduzitu beharrean, berez alderantziz gertatzen dela, alegia, kategoriek mugatzen dituztela rolak.

¹⁸ Azpikategorizazioaren beharra defendatzen dutenen ildo beretik, zenbait autorek beharrezkotzat jotzen dituzte hautapen-murritzapenak ere, besteak beste, Gràcia-k (1989). Autore honek *asesinar* eta *matar* ematen ditu adibideen artean (Gràcia, 1989:113); *asesinar* aditzak bi osagai azpikategorizatzen ditu, *matar* aditzak bezalaxe, baina lehenengoaren kasuan bi osagaiak [+gizakia] tasuna bete behar dute, eta bigarrenaren kasuan, berriz, [+biziduna], horixe izanik bi aditzak bereizten dituena. Chomskyk berak, gerora, Lasnik-ekin batera idatzitako liburuan (Chomsky eta Lasnik, 1993) polemika aztertu eta gero, azpikategorizazioari buruzko informazioa eta hautapen-murritzapenena aditzen errepresentazioan mantentzea defendatzen du, ezagutzaren garapenean laguntzeko elementu baliagarri gisa.

Hierarkia hau definitzerakoan, halere, badira desberdintasunak autoretik autorera. Grimshaw (1990) eta Speas-ek (1990) proposatutakoak, esaterako, ez datoz bat:

Grimshaw:

(egilea(esperimentatzailea(helburua/iturria/lokazioa/(gaia))))

Speas:

egilea<esperimentatzailea<gaia<helburua/iturria/lokazioa<modua/denbora

Halere, bada ideia bat bietan agertzen dena eta axola duena berez: *egile* rol tematikoa duen argumentua gauzatuko da subjektu bezala; *egile* rola egon ezean, hurrengo hautagaia *esperimentatzailea* da, eta horrela, planteatzen den hierarkiako rolik baxuenera iritsi arte. Beraz, azken batean, inportanteena rol tematikoen balio erlatiboa da, ez balio absolutua.

Honela, GB teoriaren ildotik proposatzen diren aditz-sarrerak modu honetakoak dira. *Sartu* hartuta adibidetzat:

Sartu: <1 2 3>

(Agentea Gaia Lokazioa)

⇒

Argumentu kopurua, eta egitura tematikoaren hierarkia esplizituki markatuz

Sartu: <1 2 3>

⇒

Argumentu kopurua adieraziz eta subjektua dena azpimarratuz, egitura tematikoa, ezarritako hierarkiaren arabera esleituko delarik.

Sartu: X ((Y) Z))

⇒

Argumentu kopurua esplizituki adierazi gabe, parentesi bidez adieraziz egitura tematiko hierarkikoan parte hartuko duten argumentuak.

Esplizitu egiten ez den informazioa modu orokorrean kodetuta dagoela suposatzen da.

Ondorioz, aurrerantzean azpikategorizazioaz hitz egitea, aditzak duen argumentu-egituraz hitz egitea da. Alegia, aditz batek X eta Y argumentuak azpikategorizatzen dituela esango da, beren gauzapan sintaktikoa (azpikategorizazio hertsizko informazioa) mekanismo sintaktiko orokorren baitan geratzen delarik.

Argi geratu da teoria sortzailearen eredu berrietan, lexikoan egon beharreko informazioa gorabehera, interes behinena sakoneko egituratik azaleko egiturara iristeko mekanismo sintaktikoek hartzen dutela, eta eztabaida edo azterketa guztiak gauzatze modu horren harian sortzen direla. Lexikoa, dagoeneko zedarrituta dagoen ataltzat jotzen da, eta hortaz, ez da aztergai nagusia.

Sintaxiko proiektzio honetan, nahiz eta aditzak hainbat rol tematiko izan, Kasu jakin batzuk aztertzea mugatzen dira gehienbat: Kasu absolutiboa eta ergatiboa (edo akusatibo eta nominatiboa, bestelako hizkuntzetan). Kasu hauek aztertzean, aditz iragankor, aditz ez-ergatibo eta aditz ez-akusatiboen proiektatze sintaktikoa da batez ere ardura duena, eta hiru aditz mota horiek bereizteko azalpenak ematen dira batez ere. Hortik sortuko dira Perlmutter-en Hipotesi ez-akusatiboa (1978), eta ildo honetatik Levinek proposatzen duen NOR aditzen Hipotesia (Levin, 1983).

Horrek, ordea, kasu asko uzten ditu aztertzeke, eta bitarte horretan mugatua gertatzen da edozein azterketa orokorrerako. Esan daiteke, eredu sortzailearen hastapenetik (hau da, eredu transformatzailetik) oraingo azterbideetaraino, lexikoari ematen zaion garrantzia aldatu egin dela, saiakera gehienak alderdi sintaktikoa azaltzera alderatuz. Honekin, eredu tradizionalen topatzen genuen arazoak bere horretan dirau oraindik ere: lexikoko informazioa, edonolakoa delarik ere, landu beharra dago, syntaxira oinarri egokiarekin abiatuko bada.

Bestalde, gutxi gorabeherako sare tematikoa proposatzen bada ere, zalantzak daude horiek aditz bakoitzean zehatz-mehatz zehazteko eta aplikatzeko garaian. Izan ere, askotan, aztergai den aditzaren arabera, zail gertatzen da aditzaren osagai bat *helburua*, *onuraduna*, *esperimentatzailea*, *kausa*, *gaia* edo dena delakoa den esatea. Ikusi besterik ez dago gaur egun oraindik rolen inguruan egiten diren proposamen desberdinak (aipatu dugun Dowty-rena, esaterako).

Bestetik, ikusi dugu, azpikategorizazioaren zehaztapena egitura argumental eta tematikoaren itzaletan geratu dela, edo nolana ere, *Egitura Gauzatze Kanonikoa* (EGK) deituriko printzipioaren baitan geratu dela. Ordea, printzipio hau ere ez da arazorik gabekoa.

Ildo honetatik, Demonte-k (1991) dagoeneko planteatzen ditu zenbait arazo, zehazki gauzaren sintaktikoentzat ematen diren erregelen aurrean:

Formuladas y aplicadas las reglas básicas de enlace [entre léxico y sintaxis], varios son los problemas empíricos que quedan aún pendientes. Una pregunta que puede suscitarse, pongamos, es por qué en numerosos casos en que el verbo toma un único argumento interno éste no se realiza de manera directa sino que regido por una preposición. Me refiero a los verbos de régimen preposicional exclusivo como los que se enumeran a continuación:

(6) *abstenerse de*, *acordarse de*, *constar de*, *atenerse a*, *abundar en*, *jactarse de*, *arrepentirse de*, *carecer de*, *redundar en*, *abogar por*, etc.

[...] Resulta enigmático asimismo el asunto, estrechamente ligado al anterior, de por qué un mismo verbo parece admitir en ciertos casos la elección entre una proyección con argumento directo y otra con uno indirecto. Tengamos presentes formas como *pensar una palabra* y *pensar en una palabra*, *soñar un hecho horrible* y *soñar con un hecho horrible* respecto de las cuales sería de dudosa credibilidad la afirmación de que se trata de dos verbos distintos.

[...] Por otra parte, un conjunto restringido de los verbos que seleccionan dos argumentos internos: aquellos que describen el cambio de lugar de una substancia o entidad por medio de la acción de un agente, parece poder optar también entre la realización de cada uno de ellos bien como directo o como indirecto, y configuran lo que se suele llamar **las alternancias locativas**. Un ejemplo conocido es el que produce en el par de oraciones de (7):

- (7) a. *Luisa cargó (las) uvas en el camión*
b. *Luisa cargó el camión con uvas*

[...] Una cuestión emparentada con la que acabo de esbozar es la que concierne a la **alternancia dativa** —o la de las construcciones de doble objeto—, de interés para la gramática comparativa porque el español, a diferencia del inglés, no parece poseerla, al menos en apariencia. [...]:

- (8) a. *Mary gave a book to John*
b. *Mary gave John a book.*

Demonte, 1991: 32-34

Teoria Sortzailean bertan ohartzen dira horrelako arazoez. Zehazki *aditz psikologikoak* deritzanak aztertzen dituztenean. Hauetan, egitura argumental eta tematiko bereko aditzek islapen sintaktiko desberdinak dituztela ohartzen dira (gaztelaniazko ohiko adibideetara joaz, *María teme el castigo* eta *A María le asusta el castigo* perpauseko egitura tematikoa “esperimentatzailea, gaia” da, baina lehenengoan esperimentatzailea da subjektu gisa gauzatzen dena eta bigarrenean, berriz, gaia). Horren aurrean, iritzi desberdinak plazaratzen hasiko dira, eta gauzape hori sare tematikoko rolek ez baizik eta aspektu semantikoko ezaugarriek baldintzatzen dutela argudiatzen hasiko dira (Grimshaw, 1990; Belletti eta Rizzi, 1988)¹⁹).

Gauzak horrela ez dago garbi zerk eragiten duen aditz batek sarrera bat edo gehiago izatea lexikoian; edota aditzek erakusten dituzten egitura sintaktikoen artean zein harreman dauden, edo harremanik baden.

Bestalde, badira zenbait osagai argumentu kontzeptuan sartzen ez direnak baina beharrezkoak direnak aditz batzuen erabileran, hala nola, izenki-predikatuak (adib, *gorri jarri zen*). Horrelako elementuentzako rol tematiko egokirik ere ez dago; izatez, izenki-predikatuak argumentuei dagozkien osagaitzat hartzen dira. Baina gauza da, izenki-predikatu hori agertzeko, argumentuaz gain, aditza ere beharrezkoa dela esaldian, eta beraz, biek,

¹⁹ Guk hemen aipatu baino ez ditugu egingo, aspektu semantikoaren gai hau ikergai baita egun. Azpimarratu behar dugu, halere, bide berri bat ireki duela aditzaren azterketan, eta geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela gure ikerketa-gaiaren eremuan; alegia, aditz-sailkapenean eta aditzen lexikoko informazioa osatzerakoan kontuan hartu beharreko ezaugarri gisa.

argumentuak eta aditzak, eskatua dela. Hori dela eta, aditzak eskatzen dituen elementu guztiak izendatzeko *argumentu* kontzeptua ez da guztiz orokorra gertatzen.

Aditzaren elementuen beharrezkotasunaz hitz egiterakoan sortzen den beste arazo bat da beharrezkotasun hori zein mailatan kontsideratzen dugun; ez baita gauza bera elementu bat beharrezkoa izatea aditzaren sakoneko errepresentazioan, eta elementu berori azalean halabeharrez gauzatzea. *Pro-drop* fenomeno aski ezagunak argitan jartzen du aditzak sakonean objektu, subjektu (eta, euskararen kasuan, zehar objektu) bat badu ere, fonetikoki azaleratu beharrik ez dutela: aditzak Kasu hauekiko komunztadura du, eta horrek ematen du elementu “ezkutu” hauen berri. Ordea, ez da ezer esaten aditzarekin komunztatzen ez duten osagaiak direnean beharrezkoak eta esaldian agertzen ez direnean.

Azkenik, bada beste kontu bat oso argi ez dagoena. GB teoriak diotenaren arabera, sintaxia lexikotik proiektatzen da; hau da, lexikotik dakartza sakoneko egiturako abiapuntu izango diren ezaugarriak. Teoria honetan, ordea, lexikoaren egitura eta edukia zein den ez da argi geratzen. Zenbait autorek, GB teorian planteatzen den lexikoa (*hiztegia*) hizkuntza bakoitzaren ezaugarri idiosinkrasikoen gordailutzat jotzen dute; hizkuntza bakoitzean ikasi beharreko ezagutza mota ez-innatotzat. Zentzu honetan, sistema konputazionala ez bezala, hizkuntza bakoitzari lotuta dago eta horrexegatik jotzen da sistema konputazional horren kanpoko ataltzat:

En términos más concretos, la gramática está integrada por dos componentes, el léxico y el sistema computacional (véase Chomsky y Lasnik, 1993). El primero (también denominado vocabulario, diccionario o lexicón) tiene como misión el almacenamiento de las unidades significativas básicas de la gramática, con las cuales el segundo componente, caracterizable de un modo global como un conjunto de operaciones o “reglas” y de principios, genera las estructuras de las expresiones lingüísticas.

Fernández & Anula, 1995: 70-71

El léxico, como hemos señalado en el 2.4.1, es una especie de diccionario o glosario en cuyas entradas se especifican las propiedades idiosincrásicas de las piezas o elementos léxicos de una lengua: (...)

Fernández & Anula, 1995: 87

Halere, sintaxia (orokorra eta sistema konputazionalaren atala) lexikotik proiektatzen bada, lexiko horrek ere nolabaiteko egitura izan behar duela dirudi.

Eredu sortzailearen ondorengo pausu garrantzitsuak, Programa Minimalistak (Chomsky, 1992) (oraindik gorpuzten ari dena, eta hortaz, aipatu baino ez duguna egingo), beste eredu bat planteatzen du. Eredu berri honek *ekonomiaren baldintza* hartuko du printzipio nagusitzat; hau da, gramatikako mekanismoak ahalik eta sinpleen, errazen (“minimalisten”)

egitearena. Honen adierazle garbia, errepresentazio sintaktikorako maila bakarra eta bi interfaze maila (Forma Logikoa eta Forma Fonetikoa) planteatzearena da (Sakoneko eta Azaleko mailak alboratuz). Honekin, ez da proiektzioaren printzipioaren beharrik izango, eta hitzak bere informazio guztiarekin sortuko dira errepresentazio sintaktiko bakar horretan; gero, ezaugarriok, Forma Logiko eta Fonetikorako bidean egiaztapenen bidez, ekuazioaldagaien modura desagertuz joango dira (ingelesez *feature checking* gisa ezagutzen dena)²⁰. Ikuspegi berri honetan orduan (bere hastapenetan, bederen), nahiz eta mekanismo sintaktikoen gauzatzeak GBrekiko alde handia dakarren, lexikoan beharrezkoa den informazio hori guztia ere dagoeneko antolatua eta emana datorrela suposatzen da, eta ez zaio ere lexikoari arreta berezirik jartzen.

Euskaraz, lan asko eta asko egin dira GB teoriaren eredu jarraituta, eta berauetan, planteatzen diren printzipioak euskaraz nola gauzatzen diren eta ondorioz zein zehaztapen egin beharra dagoen azaltzen dute. Horien artean, ezin aipatu gabe utzi Ortiz de Urbinaen *Some Parameters in the grammar of Basque* tesi-lana (Ortiz de Urbina, 1986). Autore honek, Goenagak bere garaian egin zuenaren antzera, euskara garaiko eredu linguistikoaren arabera aztertu zuen, eta GBk euskararen azterketari eskaini ziezaiokeena aztertzeaz gain, euskarak GBri eskaini ziezaiokeena ere agerian utzi zuen. Hala, euskara, hizkuntza erromantze eta germanikoen hain bestelakoa izanik ere, GBn planteatzen diren printzipio eta parametro gehienekin bat datorrela erakutsi zuen —printzipio eta parametro hauen unibertsaltasuna berretsiz—, baina aldi berean, euskarak zenbait alderditan erakusten dituen fenomenoak aztertuta, GB ereduari gehiago sakondu beharrekiko ikerkuntza-gaiak azpimarratzen ditu, hala nola, ergatibitatea eta akusatibitatea; hitz-ordena librea eta konfigurazionalitatea; objektuaren komuntadura eta pro-drop parametroa; eta azkenik, galderak eta fokuen osaera, eta honekin loturiko parametroak. Lexikoari dagokionez, eta, jakina, GBren proiektzioaren printzipioa jarraituz, predikatuek lexikoan bere osagarriari esleituko dien rol tematikoak definiturik dituztela esango du. Hala, lexikoaren definizioari dagokigunez, teoria linguistiko orokorrak dienez at, ez dugu bestelako argibiderik aurkitzen.

Artiagoitiak (2002) berriki argitaratu duen *Hatsarreak eta Parametroak lantzen* lanean, guk ikusitako rolez gain beste batzuk ere proposatzen ditu; hala nola, *jasalea*, (*onuraduna*)/*kaltetua*, *bitartekoa* eta *proposizioa*. Hala ere, rol tematikoen arteko bereizketa arazo gisa hartu ordez hizkuntzaren konplexutasunaren ispilu modura ikusi behar dela dio. Hortaz, hemen ere ez da argitzen zerk baldintzatzen duen rol bat edo bestea izatea aditz

²⁰ Zentzu honetan, badira lanak, Minimalismoa tradiziozko Kategoria Gramatikekin konparatu dituztenak. Lan hauek agerian jarri dute, bi teoriak ikuspuntua eta abiapuntua desberdina izan arren, zenbait puntutan bat egiten dutela eta antzekotasunak uste baino ugariagoak direla. Zehazki, 11th *European Summer School in Logic, Language and Information*, ESSLLI'99 kongresuko *Resource Logics and Minimalist Grammars* workshop-ean hainbat hitzaldi izan ziren horren inguruan (Retoré eta Stabler-ek, eta Lecomte-k emandakoak, besteak beste).

batek. Beti egitura mailako printzipioak dira eztabaidatzen direnak, eta aditz baten lexikoko informazioa zein den ez da guztiz argi geratzen.

II.3 Joera berriak: semantika eta sintaxiaren arteko elkarreragina

Planteatutako arazoak direla-eta, ikuspegi berriak sortzen joango dira, eta sintaxia eta lexikoaren arteko banaketa hain garbia ez dela erakutsiko dute. Bestalde, lexikoan ere erregulartasunik badela argudiatzen hasiko dira zenbait autore. Erregulartasun hauek, hain zuzen ere, semantika eta sintaxiaren artean elkarreragina dagoelako ideiatik etorriko dira. Ideia hau defendatzen duten autoreen artean, besteak beste, Hale & Keyser (1987), Jackendoff (1990), Pustejovsky (1995) eta Levin (1993) ditugu. Autore hauen ustez, pieza lexikalek ezaugarri mota desberdin ugari dute beren baitan, eta ezaugarri horien guztien arteko harremanek, pieza lexikalaren gauzapean sintaktiko egokia baldintzatzen dute. Ikuspegi honekin, lexikoaren azterketa bilakatzen da aztergai nagusia, eta prozedura sintaktikoak horien baitan definitzen dira. Lexikoan definitzen diren ezaugarrien artean, pieza lexikalen gauzapean sintagmatikoa ere definituko da; hau da, azpikategorizazioa zehaztearen beharra agertuko da.

Aplikazio konputazionalerako sortzen diren ereduak ere, ikuspegi honexekin bat egingo dute, eta hala, ereduaren arteko diferentziak planteamendutako lexiko eta mekanismo sintaktikoetan egongo dira, batez ere.


Ikus ditzagun, bada, labur, aipatutako autoreen planteamenduak eta aplikazio konputazionaletan baliatu diren eredu ezagunenak.

II.3.1 Hale & Keyser, 1987

Autore hauek izan ziren semantika eta sintaxiaren arteko loturan gauzak argitu beharra zegoela ikusi zuten lehenengoetarikoak. Autore hauek oinarrizko galdera bat egin zuten: Hizkuntza hain konplexua eta sortzailea izanik, zer dela eta da rol tematikoen kopurua hain txikia? Zergatik esleitzen dira rol tematiko hauek hizkuntza guztietarako baliagarri den hierarkia unibertsal bati jarraituta, eta ez ausaz, esaterako?

Rol tematikoa ez ezik, kategoria lexikoak (izena, aditza, adjektiboa eta postposizioa/preposizioa) ere oso gutxi direla-eta, bien arteko harremana aztertzen hasi ziren, eta rol tematiko bakoitza, kategoria sintagmatikoen konbinazio jakin baten arabera ezartzen zela ikusi zuten. Azterketa horretan oinarrituta, kategoria lexiko bakoitza, *kategoria nozional*

jakin batekin lotuta dagoela ondorioztatu zuten; hala nola, izena, *entitate* kategorია nozionalarekin, adjektiboa, *egoerarekin*, postposizioa/preposizioa *erlazioarekin* eta aditza *gertakizunarekin*. Horrela, erlazio semantiko bakoitzari proiektzio sintaktiko jakin bat egokituko zaio, eta rol tematikoak, hain zuzen ere, proiektzio sintaktiko horretan sortuko lirateke. Esaterako,



erlazio sintaktikoari legokiokeen erlazio semantikoa

e1 --> e2

litzateke, eta konbinazio horretatik *kausa* delako erlazioa sortuko litzateke. Hau da, aditzak (V) adierazten duen gertakizuna (e1) aditz sintagmak (VP) adierazten duen gertakizunarekin (e2) konbinatzen denean, kausalitate-harremana sortzen da.

Honenbestez, autore hauen ustez, rol tematikoak ez dira primitibo semantikoak, erlazio nozionalen eta sintaktikoen arteko harremana errepresentatzeko etiketa hutsak baizik. Hala, erlazio semantiko bakoitzeko erlazio sintaktiko baten bila jotzen dute, erlazio horietatik eratortzen diren rol tematikoak definituz. Esan behar da, hala ere, azkenean, *kausa*, *gaia* eta *egile* rolak direla batez ere sakonki azaltzen dituztenak.

Autore hauek, erlazio sintaktikoei *Lexical Relational Structures (LRS)* deitzen diete, eta LRS horiek *maila prelexikoa* deitzen dutenean kokatzen direla diote, nonbait sintaxi aurreko maila bati erreferentzia egin nahian. Ordea, erlazio semantikoak eta erlazio sintaktikoak harremanetan badaude eta LRSak maila prelexiko bati badagozkio, ez da argi geratzen mekanismo guztiak nola gauzatzen diren perpausa osatzeko prozesu osoan; ez da garbi azaltzen pieza lexikalari dagokion sarrera zein izan beharko litzatekeen.

Hala eta guztiz ere, ikertzeko bide berri baten lehen pausuak izango dira.

II.3.2 Jackendoff, 1990

Jackendoffek, lexiko-semantikak sintaxian duen eragina aitortuz, lexikoa errepresentatzeko egitura abstraktuago bat proposatzen du, *Egitura Lexiko-Kontzeptuala (ELK)* deritzona. Egitura hau hainbat primitibo semantikotan (GO, STAY, CAUSE, TO, FROM, TOWARD, AWAY-FROM, VIA) deskonposatzen da, eta primitibo semantiko hauek, aldi berean, kategoría kontzeptual orokorragoei dagozkie (*Thing* —edo *Object*—, *Event*, *State*, *Action*, *Place*, *Path*, *Property*, *Amount*). Esaterako, TO, FROM, TOWARD, AWAY-FROM, VIA

primitiboak, *Path* delako kategoria kontzeptualari dagozkio; GO, STAY, CAUSE primitiboak, berriz, *Event* delakoari. Horretaz gain, korrespondentzia sintaktikoa ere maila lexikal honetan definitzen da. Alegia, IS batek *Thing* (adib. *the dog*), *Event* (adib. *the war*) edota *Property* (adib. *redness*) kategoria kontzeptualei erreferentzia egin diezaieke, eta ildo beretik, PS batek *Place* (adib. *in the house*), *Path* (adib. *to the kitchen*) edota *Property* (adib. *in luck*) kategoria kontzeptualei. Hala, sarrera lexikal bakoitza, kategoria kontzeptual eta primitibo hauen arabera eta horiei azalean dagozkien egitura sintaktikoen arabera definituko da.

Esan daiteke, hortaz, lexikoia, egitura kontzeptualaren eta sintaktikoaren arteko korrespondentzia gauzaten deneko lekua dela. Ikus dezagun adibide bat.

[P[IS John] AS[ran [PS into [IS the room]]]]

egitura sintaktikoari

[Event GO ([Thing JOHN], [Path TO ([Place IN ([Thing ROOM])])])]

egitura kontzeptuala dagokio. Eta, hauexek lirarteke, esaterako, *into* eta *run* pieza lexikalei dagokien sarrera (beste bi osagaiek —*John* eta *room*— *Thing* eta *Place* ezaugarria eta IS kategoria sintagmatikoa izango lukete definituta):

$$\left(\begin{array}{l} \text{into} \\ \text{P} \\ \text{—— IS } j \\ \text{[Path TO ([Place IN ([Thing]j)])}] \end{array} \right)$$

$$\left(\begin{array}{l} \text{run} \\ \text{V} \\ \text{—— } \langle \text{PS } j \rangle \\ \text{[Event GO ([Thing]i, IN ([Path]j))}] \end{array} \right)$$

Rol tematikoei dagokienez, autore honek dio, aditz mota arruntetan, prototipikoetan, oinarrituta definitu direla, eta ondorioz, argumentu ez-arrunt bat ageri denean, rol egokirik gabe geratzen dela. Hori dela eta, rol tematikoak gehiago ikusten ditu posizio adierazle gisa, primitibo semantiko gisa baino. Honen bidez, argumentu ez-arrunt bat agertzen denean, ez dago etiketa berriak asmatzen ibili beharrik, delako posizio horri dagokion rola izango baitu. Honen arabera, rolek teoria sintaktikoko subjektu, objektu eta gisa honetako erlazioekin dute zerikusi handiago.

Jackendoffek kategoria kontzeptualak zerrenda itxi gisa planteatzen ditu, baina primitiboak zehazteko orduan, behararen arabera jokatzeko du gehiago. Honek aukerak zabaltzea ekarriko du. Hau da, Hale & Keyseren joera murriztailearekin alderatuz, hau askoz ere laxoagoa da. Alde horretatik, fenomeno linguistikoak tratatzeko garaian, biek arazo kontrajarriak planteatuko dituzte: bata aukera mugatuak ditu, eta besteak, berriz, gehiegizkoak.

Jackendoffek azterketa sakona egiten du sarreren ELKak definitzen. Baina, esan behar da, helburu horretara lotuegia-edo, korrespondentzia sintaktiko batzuk baino ez dituela kontuan hartzen, eta alderdi hori, azkenean, ez duela bestea bezainbeste lantzen. Bestalde, aditz bakoitzak zein ELK dituen edo izan ditzakeen ez da berez zehazten; ELKak modu orokorrean planteatzen dira, eta aditz jakin batzuk izanda gogoan batez ere.

II.3.3 Pustejovsky, 1995

Pustejovskyk *Lexiko Sortzailea (Generative Lexicon)* delakoa proposatzen du. Autore honen ustez, lexikoak sistema kognitiboaren oinarritzko egitura kontzeptualen berri eman behar du; hots, oinarri lexiko-semantikoa izan behar du. Horrekin batera, lexiko sortzaile honek egitura kontzeptualak semantikoki zuzen osatzeko ahalmen sortzailea izan behar du. Horretarako, azpiegitura sendoa planteatuko du, deskonposaketa semantiko aberats eta errekurtsiboan oinarrituta. Autore honen ustez, sarrera lexikalaren balioa desberdina izan daiteke agertzen den egitura sintaktikoaren eta konbinatzen den hitzen arabera; ondorioz, sarrerak egitura sintaktiko eta konbinazio desberdin horiek ulertzeko/sortzeko moduan antolatuta egon behar dute. Horretarako, lexikoan lau errepresentazio maila proposatzen ditu: *Argumentu-egitura (Argument Structure)*, *Gertakizun-egitura (Event Structure)*, *Qualia-egitura (Qualia Structure)* eta *Heredentzia lexikalaren egitura (Lexical Inheritance Structure)*.

Argumentu-egituran, hitz baten semantika lexikal desberdinak adieraziko dituen gutxieneko espresioa definitzen da. Aditzen kasuan, esaterako, azpikategorizaturiko argumentuen kopurua eta hauen mota definitzen dira. Argumentu motak, sintagmatikoki gauzatzeko dauzkaten aukeren arabera bereizten ditu. Alde horretatik, azpimarratzekoa da

autore honen ekarpena. Izan ere, argumentuen beharrezkotasunaz mintzatu garenean ikusi ditugun zenbait arazori aurre egiten die. Hala, lau argumentu mota bereizten ditu:

1- Egiazko argumentuak (*true arguments*): sintaktikoki gauzaturiko argumentuak (ARG gisa adieraziak). Adib. *John arrived late*.

2- Besterik ezeko argumentuak (*default arguments*): qualia-egituran agertzen diren argumentuak, baina hautazkoak direnak; hots, ez direnak nahitaez sintagmatikoki gauzatu behar (D-ARG gisa adieraziak). Adib. *John built the house out of bricks*.

3- Argumentu ezkutuak (*shadow arguments*): item lexikalean inkorporatuta dauden argumentuak, bakarrik espezifikaziozko edota azpimotak definitzeko ariketez ager daitezkeenak (S-ARG gisa adieraziak). Adib. *Mary buttered the toast with an expensive butter*.

4- Egiazko adjuntuak (*true adjuncts*): egoeraren berri ematen dutenak eta ez dutenak inongo item lexikalean parte hartzen. Autoreak gertakizunaren espazioari eta denborari erreferentzia egiten dioten osagaiak sartzten ditu hemen, beti ere item jakin baten parte hartzaile ez diren neurrian. Adib. *John sleep late on Tuesday*.

Gertakizun-egituran Pustejovskyk pieza lexikalen aspektuari buruzko informazioa formalizatzeko lehen saioa aurkezten du. Aspektuak predikatuaren gertakizun motak adierazten ditu (egoerak, prozesuak eta trantsizioak), eta gertakizun mota hauetako batzuen azpian azpigertakizunak bereizten ditu. Gertakizunak eta azpigertakizunak erlazionatuta daude erlazio desberdinak direla medio (prozesuak eta egoerak). Hala ere, aditz ez diren pieza lexikalen aspektu-ezaugarrietan sakontzen du batez ere.

Qualia-egituran, pieza lexikalen esanahia (*Qualia*) definitzen duten lau alderdi definitzen ditu: konstitutiboa, formala, telikoa eta agentiboa. *Qualia-egitura* sarrera guztiek badute ere, lau alderdi hauek ez dira beti baterik agertu behar.


- Alderdi *konstitutiboan*, objektuaren (item-aren) eta berau osatzen duten parteen arteko harremana adierazten da. (Adib. *novel* hitzak *narrative* harremana izango luke).
- Alderdi *formalean*, objektua domeinu zabalago baten barruan sailkatzen da. (Adibide berarekin segituz, *novel book* delako domeinuan). Aditzen kasuan, *meta-sarrera* (*meta-entry*) —edo *paradigma lexiko-kontzeptuala* (*lexical conceptual paradigm* (*lcp*)) —, adierazten da. *Meta-sarrera* hauetan, testuinguru sintaktiko eta semantiko desberdinetan hitz batek erakusten dituen jokaera erregularrak kodetzen dira.

- Alderdi *telikoan*, objektuaren helburua eta funtzioa definitzen da (*novel -> reading*).
- Alderdi *agentiboan*, objektua sortzeko beharrezkoak izan diren faktoreak definitzen dira (*novel -> writing*).

Heredentzia lexikalaren egituran, mota semantikoaren sarea adierazten da, non mota eta azpimotak erlazionatuta dauden, eta horrela informazioa heredatzea posible da. Honen bidez, pieza lexikalaren informazioa sinplifikatzen du.

Argumentu-, *Gertakizun-* eta *Qualia-egitura* harremanetan jartzeko, eta beraz hitzek testuinguruan duten semantika konposatzeko, printzipio edo *transformazio semantiko* batzuk (*coercion*, *selective binding* eta *co-composition*) proposatzen ditu autoreak. Horrela, item lexikalen Qualia-egiturako semantika, beste bi mailetako informazioarekin murrizten da beste item lexikalekin konbinatzen denean esaldian. Ondorioz, hitzak testuinguruan hartzen duen forma sintaktikoa orduantxe definituko da. Hala ere, forma sintaktiko hau nolakoa behar duen izan ez du guztiz argitzen. Autoreak mota semantiko bakoitzak *egitura sintaktiko kanoniko* bat (*canonical syntactic form (csf)*) duela dio, baina azpimarratzen du mota semantiko bat ez dela modu sintaktiko bakarrean gauzatzen.

Ikus dezagun *build* hitzaren sarrera lexikala (Pustejovsky, 1995, 82. or.)



II.3.4 Levin, 1993

Levinen kasua apur bat desberdina da. Levinek ingeleseko aditzak aztertzeko egiten duen lanean, alegia, *English verbs classes and alternations* liburuan (1993) —dagoeneko hainbat hizkuntzaren erreferentzia-puntu bilakatu denean— ez du zehazten pieza lexikalari legokiokoen sarreraren itxura (berak aitortzen duen modura), baizik eta sarrera hori antolatze bideak ezartzen ditu. *Ezagutza lexikalaren* teorian oinarrituta, aditzen semantikaren eta sintaxiaren arteko harremanek aditz multzoak osatzeko bidea ematen dutela defendatzen du. Autore honen ustez, izaera semantiko bereko aditzek egitura sintaktiko berak onartzen dituzte. Hiztun natibo bat gai da aditz jakin batek zein egitura sintaktiko onartzen dituen eta zein ez esateko. Ondorioz, egitura sintaktiko horiek identifikatu, eta beroietan oinarrituta, aditzak multzoka daitezke, multzokatze hauek semantikoak gertatzen direlarik. Egitura desberdin hauek *diatesi-alternantzia* modura planteatzen ditu. Ekar ditzagun bere hitzak hona:

Verbs, as argument-taking elements, show especially complex sets of properties. As shown in B. Levin (1985b, in prep.) and other works, native speakers can make extremely subtle judgments concerning the occurrence of verbs with a range of possible combinations of arguments and adjuncts in various syntactic expressions. For instance, speakers of English know which *diathesis alternations* —alternations in the expressions of arguments, sometimes accompanied by changes of meaning— verbs may participate.

Levin, 1993: 2

If the distinctive behavior of verb classes with respect to the diathesis alternations arises from their meaning, any class of verbs whose members pattern together with respect to diathesis alternations should be a semantically coherent class: its members should share at least some aspect of meaning.

Levin 1993: 14

Behin aditz klase horiek osatuta, pieza lexikala osatuko luketen osagai semantikoen bilaketari heldu ahal izango zaio. Hala, aditzak onar ditzakeen diatesi-alternantzia horiek, pieza lexikala osatzen duten elementu semantikoen berri emateko baliabide bihurtzen dira:

Once such a class is identified, its members can be examined to isolate the meaning components they have in common. Thus diathesis alternations can be used to provide a probe into the elements entering into the lexical representation of word meaning.

Levin, 1993: 14

Ondorioz, lehenengo lana egitura sintaktiko horiek bilatzea da, gero horietan oinarrituta, aditzak multzokatzeko eta euren osagai semantikoak aztertzeko. Behin aditz-multzokatzeari lortuta, pieza lexikalen osagai semantiko esanguratsuak bila daitezke, gero horiekin pieza lexikalaren osaera eta antolamendua bideratzeko.

Bere lanaren ekarpena, hortaz, planteatzen duen metodologian dagoela esan daiteke.

II.3.5 Aplikazio konputazionaletan baliatzen diren zenbait sistema

Aplikazio konputazionaletan baliatzeko helburuaz sortu diren formalismoen artean, garrantzitsuenak eta erabilienak Lexical Functional Grammar, LFG (Bresnan eta Kaplan, 1982), Generalized Phrase Structure Grammar, GPSG (Gazdar et al., 1985), eta Head-Driven Phrase Structure Grammar, HPSG (Pollard eta Sag, 1987, 1994)) ditugu.

Formalismo hauek asmo eraikitzaileaz eginak dira, eta testuingururik gabeko gramatiketan oinarritzen dira, egitura sintaktikoak osatzeko baterakuntza-erregelak erabiltzen dituztelarik. Baterakuntza-erregelak aplikatu ahal izateko, hain zuzen, sarrera lexikalak ezaugarri-egitura modura planteatzen dituzte²¹.

Ikusiko dugunez, teorien arteko desberdintasun nagusia hautatzen dituzten ezaugarriak antolatzeko moduan datza. Sistema batek, hartzen dituen ezaugarriak hartzen dituela, syntaxirako beharrezkoa den informazio gehiena lexikoan bertan kokatzen du, honela, erregela sintaktiko sinpleak planteatuz; besteak, berriz, informazio hori erregela sintaktikoetan zehaztuko du (horregatik bihurtzen dira, neurri handi batean, erregela lexikal) eta lexiko sinpleagoa osatzen du. Edonola ere, zehaztaperen lexikoak egitea beharrezkoa gertatzen da guztietan.

II.3.5.1 Lexical Functional Grammar (LFG)

Lexical Functional Grammar (LFG aurrerantzean) formalismoan GBren egitura modularra segitzen da, baina honekiko diferentzia nabarmen bat du: ez dago mugimendu edo transformaziorik; azaleko egitura errepresentatzeko, maila bakarra planteatzen da. Bertan zehazten dira pieza lexikalen azaleko portaera baldintzatzen duten ezaugarriak. Honekin, lexikalismoaren barruan sartzeko da bete-betean.

²¹ Baterakuntza-erregelak erabiltzen dituzten gramatikei buruzko zehaztasunetarako, jo bedi Gojenolaren (2000) tesi-lanera.

Hiru motako egiturak definitzen dira: *Egitura lexikala (Lexical Structure)* , *Osagai-egitura (Constituent Structure)* eta *Funtzio-egitura (Functional Structure)*. *Egitura lexikalean* ondoko informazioa du pieza lexikalak: kategoria sintaktikoa, eduki semantikoa, argumentu-egitura —subjektua barne— eta funtzio gramatikalak (subjektua, objektua...). *Osagai-egituran* egitura sintagmatikoa zehazten da. Eta *Egitura funtzionalean*, *Egitura lexikaleko* eta *Osagai-egiturako* ezaugarriak integratzen dira, ezaugarri-egituren bidez.

Teoria honetan funtzio sintaktikoak primitibo bezala tratatzen dira, eta rol tematikoekin lotuta daude, sintaxia eta semantikaren arteko interfazea bideratzeko.

Atal lexikoaren barruan, erreduzantzia lexikaleko erregelak egongo dira, eta hauek orokortasun linguistikoen berri emango dute, objektu multzo bati aplikatzen baitzaizkio. Esaterako, alternantzia pasiboa aditz iragankor guztiei aplikatzen zaie. Erregela hauek, beste hainbat fenomeno ere deskribatzen dituzte, hala nola, eratorpeneko, elkarketako eta flexio erregularreko prozedurak, eta baita erlazio semantikoak ere (sinonimia, antonimia...). Hala, morfemak (lexema eta atzizkiak) hartzen dituzte unitate lexikotzat, eta horien konbinazioek unitate berriak sortuko lituzkete. Unitate hauek gero zuhaitz sintaktikoetan sartzen dira.

Hona, adibide gisa, *zeramazkieten* pieza lexikalaren sarreratzat joko litzatekeena:

kat	aditza		
pred	eraman <subj obj obj2> egilea, gaia, helburua		
subj	kasua	erg	
	perts	3	
	num	pl	
obj	kasua	abs	
	perts	3	
	num	pl	
obj2	kasua	dat	
	perts	3	
	num	pl	

II.3.5.2 Generalized Phrase Structure Grammar (GPSG)

Generalized Phrase Structure Grammar (GPSG aurrerantzean) teoriak, oro har, GBren X-barra teoriaren printzipioak jarraitzen ditu, eta LFGn bezalaxe, lexikoari ematen zaion garrantzia dela-eta, ez dago transformaziorik. GBren eredua jarraituz, kategoriak, ezaugarrien arabera definitzen dira (aditza, esaterako, [-N] eta [+V] ezaugarrien bidez), eta subjektua ez dute sartzen azpikategorizazioaren barruan. Aditz-sarrerek ez dute azpikategorizazio-informaziorik; horren ordez, sarrerek adierazle bat dute, eta adierazle horren bidez, aparteko erregela batean definituta dagoen azpikategorizazio-eskema batekin jarriko dute harremanetan. Horretaz gain, *meta-erregelak* deritzanak proposatzen dituzte, eta horren bidez egitura sintagmatikoen gramatika osatzen da.

Montague-k (1970) proposatzen duen semantikako eredua erabiltzen dute, eta semantika eta sintaxiaren arteko harremana erregela sintaktiko eta semantikoen arteko korrespondentziaren bidez gauzatzen da. Hala ere, predikatuen adiera ez da inon adierazten, eta besterik gabe sarreran horri erreferentzia egiten dion operatzaile bat (') ezartzen dute. Hauxe litzateke *zeramazkieten* pieza lexikalari legokiokeen sarrera:

```
< zeramazkieten  
    [[-N], [+V], [BAR 0], [VFORM FLEX] [SUBCAT 35]],  
    ø,  
    zeramazkieten'>
```

Azpikategorizazio-eskema definituko lukeen erregela, berriz, ondokoa litzateke:

```
SV -> H[35, IS, IS]
```

Esan behar da, seguruenez HPSGk egin dion itzala dela-eta, formalismo hau baztertuxea geratu dela gaur egun.

II.3.5.3 Head-Driven Phrase Structure Grammar (HPSG)

Head-Driven Phrase Structure Grammar (HPSG aurrerantzean) formalismoak, azkenik, aipatutako teoria hauetatik guztietatik edango du, baina alde nabarmena egongo da puntu batean: teoria honek sintaxia eta semantika erabat integratuta lantzen ditu, bata bestea gabe ezin uler daitekeela uste baitute. Azpikategorizazioari buruzko informazioa sarrera lexikalean bertan definitzen da, subjektua barne. LFGn bezala, egitura desberdinak erredundantziatzko

erregela lexikalen bidez lortzen dira eta objektu-multzo bati aplikatzen zaizkie. Baina badu berezitasun bat goiko bien aldean: ezaugarri-egiturak tipoka, motaka sailkatuta daude, eta gainera modu hierarkikoan, pieza lexikoen ezaugarri morfologiko, sintaktiko eta semantikoen arabera. Honela, mota baten azpian dauden azpimotek mota nagusi horren ezaugarriak heredatuko dituzte beren propioak izateaz gain. Honen bidez, erredundantzia asko jaisten da, eta sarrera lexikalen informazioa sinplifikatu egiten da. Sarrerako informazio sintaktiko eta semantikoa indize batzuen bidez erlazionatzen da, honela bi modulu hauen arteko harremana argitan utziz. Ikuspegi hierarkiko hau, Pustejovskyren planteamenduetara hurbiltzen da. Hautatutako eredu semantikoa, berriz, Barwise & Perry-rena (1983) da.

Hona *zeramazkieten* aditzaren sarreratzat joko litzatekeena:

PHON	zeramazkieten		
SYN LOC	HEAD	MAJ	aditza
		VFORM	jokatua
		AUX	-
		PRD	-
	SUBCAT	< NP [abs, 3, pl, NORM (1)] NP [erg, 3, pl, NORM (2)] NP [dat, 3, pl, NORM (3)]>	
SEM	CONT	RELN	eraman
		ekarlea	(2)
		ekarria	(1)
		hartailea	(3)
	IND	(RESTRICTIONS ...)	

II.4 Ondorioak

Ikusi ditugun eredu guztiak aztertuta, esan dezakegu, batetik, guztiak ados daudela *azpikategorizazioaren kontzeptua* ulertzean, eta bestetik guztiak ez datozela bat *azpikategorizazioa zein hizkuntza-ataletan definitu behar den eta nola*. Horretaz gain, teoria bakoitzean sakonki lantzen den atalaren arabera, *azpikategorizazioa lantzeari garrantzi gutxiago edo gehiago eman zaio*. Ikus ditzagun laburki aipatutako hiru alderdi hauek:

- Adostasuna azpikategorizazioaren kontzeptua ulertzean

Teoria guztietan azpikategorizazioaren kontzeptua berdina da: pieza lexikalen gauzapean sintaktikoa. Hala ere, aditz batek —edota beste pieza lexikal batek— X elementu “azpikategorizatzen” dituela esatean, gauzapean sintaktikoa baino gauza gehiago adierazten da. Izan ere, lexikoan dauden ezaugarriak nahasten dira, argumentuen kategoria sintagmatikoari, argumentuen tasun semantikoei eta argumentu kopuruari dagozkion zehaztapenak ulertzen baitira bere baitan.

Azpikategorizazio-informazioa ematea eta beraz “azpikategorizazioa lantzea”, berez, pieza lexikalek, bere baitan duten orotariko informazioa kontuan hartuta, esaldian gauzaterakoan hartzen duten itxura sintaktikoaren errepresentazioa da. Hori dela eta, esan daiteke, pieza lexikalaren sakoneko errepresentazioa azalertzeko modua adierazten duela.

- Ezadostasuna: azpikategorizazioaren informazioa hizkuntzaren zein ataletan definitu behar den eta nola

Gauzapean sintaktikoa, teoria desberdinen arabera, zenbait ezaugarri baldintzatzen dute, eta hori dela eta azpikategorizazioaren informazioa hizkuntzaren atal desberdinetan kokatu izan da.

Ikuspegi tradizionalen, lexikoko ezaugarritzat jotzen zen, eta zehaztapen horiei esker gramatikako erregela orokorretan murriztapenak aplikatzen ziren forma zuzenera iristeko.

GB teorian, informazio hori printzipio semantiko eta sintaktiko orokorren bidez lortzen da. Printzipio hauek, besteak beste, pieza lexikalen rol tematikoak, hauen arteko hierarkia eta gauzapean sintaktikoa arautzen dituzte. Ondorioz, azpikategorizazioa lexikoan zehaztea ez da beharrezkoa.

Azken joeretan, berriz, lexikoak protagonismo handia hartzen du eta ezaugarri asko biltzen dira bertan. Azpikategorizazioa, ezaugarri hauen guztien konbinazioaren fruitu izango

da, eta pieza lexikalaren balio bakoitzari egokituko zaio. Hala, gehienek lexikoko ezaugarri gisa landuko dute. Sistema gehienek, hala ere, lexikoko informazioaz gain, erregela lexikoak proposatzen dituzte (normalean objektu mota baterako), eta horien bidez bestelako egitura sintaktikoak eratzen dituzte.

- Azpikategorizazioaren azterketari ematen zaion garrantzia

Eredu tradizionalen aztertzen ziren egiturak aditz iragankorrak eta iragangaitzak bereiztera mugatzen ziren, objektua hartzen zuten ala ez kontuan hartuta.

GB eta bere ildotiko ereduetan batez ere IS kategoria sintagmatikoaz osatutako egiturei erreparatzen zaie; hala, aditz iragankorrak, aditz ez-ergatiboak eta aditz ez-akusatiboak dituzte aztergai batez ere.

Jackendoffen ereduari, jadanik aditzen jokamolde anitzari erreparatuta, azterketa sakona egiten da sarreren ELKak definitzen, baina, esan dugun bezala, helburu horri lotuegia-edo, korrespondentzia sintaktiko batzuk baino ez ditu kontuan hartzen, eta alderdi hori, azkenean, ez du bestea bezainbeste lantzen.

Pustejovskyren saioak dirudi gauzapean anitz hau bideratzeko mekanismoak gehien aztertzen dituenak. Ustez, gauzapean honetan eragina duten ezaugarri guztiak kontuan hartuta, lexikoaren eredu konplexua proposatzen du, printzipio multzo baten bidez sarrera bakoitzari dagokion gauzapean sintaktikoa egokituz.

LFG, HPSG eta GPSG formalismoetan, lexikoan definitzen diren egituretan, aditzen jokaera prototipikoa hartzen dute oinarritzat, eta erregela lexikoen bidez ere egitura sintaktiko prototipikoak analizatzera mugatzen dira batez ere (inbertsonala, pasiboa).

Argi dago, orduan, zein ereduaren murgiltzen garen, gauzapean sintaktiko hau baldintza gehiagoren edo gutxiagoren baitan dagoela, eta egitura bat edo bestea analizatzeari ematen zaiola garrantzia.

Esandako guztiak argi uzten du pieza lexikalen barne-osaketa oraindik ikertze bidean dagoela, eta ikusitako teoriaren azpian ideia antzekoa nabarmentzen dela: pieza lexikalek hainbat ezaugarri mota dituzte beren baitan, eta ezaugarri horien guztien arteko harremanek, pieza lexikalaren gauzapean sintaktiko egokia baldintzatzen dute. Hala ere, ez dira irizpide garbiak ematen aditz batentzat zein egitura diren esanguratsuak jakiteko, eta ez dira adierazten ere aditz beraren egitura sintaktiko desberdinen arteko harremanak, edo harremanik baden ere. Azkenik, ez da argi geratzen ere pieza lexikal baten deskribzioa egiteko zergatik erabiltzen diren ezaugarri batzuk eta zergatik jotzen dituzten pertinentetzat; hainbat motako ezaugarriak deskribatzen dira, baina euren arteko elkarreragina ez da formalizatzen. Vázquez et al.-ek (2000) ere hutsune berak ikusten dituzte:

En las propuestas presentadas en el capítulo anterior²², aunque se establecen relaciones entre una estructura sintáctica y su semántica no se tratan ampliamente la interconexión entre estos dos niveles: no se explica de qué modo afectan al significado de la oración las diferentes combinaciones entre las unidades semánticas (roles, componentes de significado tipos semánticos o eventivos) y su expresión sintagmática. Como consecuencia, las generalizaciones que se obtienen no permiten predecir el comportamiento de la pieza léxica desde el punto de vista de su uso en un contexto sintagmático.

Vázquez et al., 2000: 40

Hurrengo kapituluan, azpikategorizazioan dagoen hutsunea osatze aldera, gure tresneria konputazionalaren bidez lortzen ditugun emaitzak ikusiko ditugu. Lan hau eskuzko lanarekin batera, paraleloki, egin da, eta berez egun jorratzen dugun bide nagusietako bat da. Ondorio gisa, ikusitako teoria guztietatik gurera gehien egokitzen dena, eta azpikategorizazioaren aldetik osoena dena hautatuko dugu.

²² GB, Jackendoff (1983 eta 1990), LFG, GPSG, HPSJ eta Pustejovsky (1995) aipatzen dituzten batez ere.

III AZPIKATEGORIZAZIO- INFORMAZIOA CORPUSETIK ERAUZTEKO EMANDAKO PAUSOAK

Aditzek egitura sintaktiko ugari izan ditzaketela jakinda, eskuzko azterketa egin bitartean eta paraleloki, hori bera automatikoki eskuratzeko saioak egin ditugu; izatez, gaur egun beste lan-ardatz nagusietako bat da taldearen ikerkuntzan.

Hori azaltzeko, lehenik eta behin, gogora ditzagun euskararako garatu ditugun oinarri eta tresnak, eta zein emaitza sintaktiko lortzen ditugun horien bidez.

III.1 Ibilbide konputazionala

Hitzak esaldietan aztertzeko, ondoko pausuak emanak ditugu:

a) Esaldiko hitz bakoitza morfologikoki segmentatzeko eta analitzatzeko informazioa dugu EDBLn (Euskararen Datu-Base Lexikalean) (Aldezabal et al., 2001a). Pieza lexikal bakoitza bere kategoria eta azpikategoria lexikal edo morfosintaktikoaren arabera sailkatuta dago (kategoria morfosintaktikoak direnak, kategoriaz gain, dagokien informazioz hornituta daude: Kasua, aspektua, numeroa, mugatasuna, funtzioa...), eta pieza hauen arteko lotura (morfotaktika) bideratzeko moduan antolatuta dago, Koskenniemi-k (1983) garatutako Bi Mailatako Morfologiaren arabera (Alegria, I. 1995, Urkia, M. 1997). Hau da, morfemen arteko lotura lexikoan gauzatzen da, morfema-segidetan murriztapenak ezartzen dituen aipatutako bi mailatako formalismoari jarraituta. Honekin, hitz mailako osaera morfologikoa lortzen dugu.

b) Datu-basean dauden morfema eta morfema-kateaketa hauek, hitz batek analisi bat baino gehiago izatea dakar emaitza gisa; hots, anbiguotasuna. Eta ondorioz, hizkuntzaren analisi automatikoan aurrera joan ahal izateko, anbiguotasun hori ebatzi beharra dago.


Anbiguotasun hori ebazteko, Constraint Grammar (CG) Formalismoa (Karlsson et al., 1995) —euskarazko lanetan Murriztapen Gramatika (MG)— hautatu da Ixa taldean Formalismo honek, testuinguruan oinarritutako erregelak definituz, hitzen interpretazioak murrizten ditu, eta interpretazio zuzenarekin geratzea du helburu. Kategoria mailan ia erabatekoa da desanbiguazioa, baina bestelako ezaugarriak sartzen direnean jokoan, hala nola, Kasua edota funtzioa, anbiguotasun guztia ebaztea ezinezkoa da, bestelako informazioa baita beharrezko. Beharrezko informazio horren artean, hain zuzen ere, aditzak beharrezko dituen elementuen zehaztapena dugu, azpikategorizazio-informazioa.

c) Hala eta guztiz ere, desanbiguazio fasea erabatekoa ez izan arren, eta azpikategorizazioaren informazioaren beharra dagoela kontuan izanda, aurrera egin da sintaxian, eta horretarako bi bide segitu dira. Batetik, MG formalismoaren hedaduraz sortu den egoera finituko sistema (Tapanainen, 1996); eta bestetik, baterakuntzan oinarritutako PATR II formalismoa (Shieber, 1986). Lehenengoak, morfemen funtzioan oinarrituta, sintagmak osatzeko etiketa berriak sortzen ditu, esaldia morfosintaktikoki etiketatuta geratuz (Aduriz, 2000; Arriola 2000; Aduriz & Ilaraza, 2003). Bigarrenak, morfemen lexikoko ezaugarriak erabiliz, baterakuntza-erregelak definitzen ditu, eta erregela hauetan hitz mailako nahiz sintagma mailako loturak bideratzen dira, baterakuntza-ekuazioak baliatuz (Gojenola, 2000; Aldezabal et al., 2003a, Aldezabal et al., 2003b). Honen bidez, esaldiak partzialki etiketatuak geratzen dira.


d) Formalismo hauek aplikatuta lortzen diren emaitzak ez dira erabilgarriak. Batetik, desanbiguazio morfologikoaren pausuan zenbait interpretazio desanbiguatzeko geratzen direlako, eta bestetik, baterakuntzan oinarritutako gramatikak, esaldiko elementuen arteko konbinazio ugari (egiturazko anbiguotasuna, alegia) eragiten dituelako. Hori neurri batean ebazteko, automata eta trasduktoreetan oinarritutako egoera finituko teknika aplikatzen da, eta horren bidez, anbiguotasuna asko jaistea lortzen da. (Aldezabal et al., 1999b, Aldezabal et al 2000, Aldezabal et al, 2001b).

Gauzak honela, corpus bateko esaldi bat sintagmaka analizatzen dugu, eta sintagma horrek bere baitan duen informazio morfosintaktiko guztia dugu eskura. Batzuetan, hala ere, sintagma batzuek interpretazio bat baino gehiago dute, desanbiguazio morfosintaktikoa ez delako erabatekoa izan.

Ikus dezagun lehenengoz prozesu hori orokorrean irudi batean, eta ondoren, adibide baten gainean aplikatuta (anbiguotasuna albo batera utzita).



III.1 irudia: Esaldia analizatzeko sistemaren eskema orokorra.



III.2 irudia. Analizatzailearen emaitzaren adibide bat.

III.2 Azpikategorizazio-informazioa corpusetik erauzteko emandako pausoak

Emaitza hauek izanda, hainbat aukera daude aditzei buruzko informazioa erauzteko, baina metodoen eta baliabide estatistikoen baliagarritasuna oso aldakorra izan daiteke hautatzen den abiapuntuko datuen arabera. Horregatik, lehenik eta behin, datu horiek ahalik eta modu baliagarrienean jarri nahi izan ditugu.

III.2 puntu honetan, hortaz, gure tresnen bidez azpikategorizazio-informazioa erauzteko zein aurreprozesu aplikatzen ditugun eta horrela zein informazio lagungarri lortzen dugun aztertuko dugu (Aldezabal et al., 2001c). Era berean, azpikategorizazio-informazioa osatzeko zein behar dauden erakutsiko dugu. Bestek beste, ateratzen ditugun emaitza estatistikoak oraindik ez direla nahi bezain baliagarriak, eta darabilzkgun baliabide automatikoez gain, bestelakoak ere (horien artean tesi-lan honetatik aterako diren emaitzak) beharrezkoak direla agerian jarriko dugu.

III.2.1 Erauzketa automatikorako aurreprozesuak

Hiru dira aplikatu ditugun aurreprozesuak, ondorengo ataletan aztertzen ditugunak.

III.2.1.1 Kasu-bilketa

Lehenik eta behin, gure lexikotik eta gramatikatik sortzen diren Kasuekin multzoak egin ditugu, guk Kasu-bilketa deitu duguna. Guztira landuta dauzkagun 88 Kasuak 47 Kasu orokorragoetara ekarri ditugu²³. Hemen azpimarratu behar dugu *Kasu* terminoa zentzu orokor batean erabiltzen dugula, ondorengo guztiak sartzen baititugu kontzeptu berean²⁴:

²³ EDBL euskararen datu-base lexikala, esan dugun bezala, etengabe aberastuz eta egokituz goaz, ikerketalanetik ateratzen den informazio eta behar berriei erantzuteko, alde batetik, eta Oracle datu-base sistemak dituen hobekuntzetara egokitzeko bestetik. Horrek datu-basearen bertsioak markatu behar izatea eskatzen du, egiten diren aplikazio desberdinek zein datu maneiatzen dituzten argi izateko. Azpikategorizazioaren informazio-erauzketari dagozkion esperimendu hauek EDBLren 2.2.1 bertsioaren gainean egin dira. Bertsio honetan, 55 Kasu daude landuak, gainontzeko guztiak sintaxiko tresnen bidez osatzen diren Kasu konplexuak dira.

²⁴ Jakin badakigu Hizkuntzalaritza Teorikoan Kasuak eta postposizioak bereizi egiten direla, lehenengoak izen-sintagmen zilegiztapenak diren aldetik (zilegiztapen hau aditzarekiko komunztadura bidez egiten delarik), eta bigarrenak lexikoak diren aldetik (PS osatuz). Guk, horrelako bereizketan sartu gabe, esaldian ageri diren sintagmak zein markaz edo atzizkiz agertzen diren aztertu nahi dugu, eta marka edo atzizki horri oro har erreferentzia egiteko baliatu dugu Kasu terminoa. Horretaz gain, Baterakuntzan oinarrituta garatu dugun analizatzaile sintaktikoan (Gogenola, 2000; Aldezabal et al., 2003a eta 2003b) ISK sinboloa (izen sintagma kasuduna) darabilgu unitate sintaktikoari erreferentzia egiteko, eta, hain zuzen, Kasu horren baitan sartzen ditugu deklinabide-atzizki oro. Azken batean, garrantzitsuena iruditzen zaigu argi uztea lan honetan zer adierazi nahi izan dugun Kasu terminoaren bidez. Hala ere, etorkizunean aztertzekoa da elementu hauek guztiak besarkatzen dituen etiketa egokiago bat erabiltzea: *flexio-atzizki* edo *sintaxi-atzizki*, esaterako.

- (a) gramatikaltzat jotzen diren Kasuak —ergatiboa, absolutiboa eta datiboa— nahiz gainontzeko deklinabide-atzizkiak (inesiboa, ablatiboa...)
- (b) euskal gramatiketan postposizio deitzen dituztenak; azken batean, deklinabide-kasu konposatutzat har daitezkeenak (bidean zehar, etxetik at...)
- (c) mendeko perpausak osatzen dituzten atzizkiak, simple nahiz konposatuak (*duela, duenean, duen bitartean...*)²⁵.

Kasu hauen artean bilketa egiteko, esaldian izan ohi duten funtzioan eta balio semantikoan oinarritu gara. Hau da, Kasuek esaldian funtzio eta balio semantiko bertsua dutenean, bildu egin ditugu. Esaterako, denborari erreferentzia egiten dioten mendeko Kasu guztiak (*-nean, -(z)ean, -rako, -terakoan, -takoan, -ino, -netik* eta *-neko*) Kasu bakartzat jo ditugu, guztiak *denb* izendaturiko Kasu orokorragoaren bidez adieraziz. Jakina da, halere, tesi-lan honen II. puntuan ikusi dugun bezala, funtzio eta balio semantiko bera duten elementuak zehaztea zaila dela. Horregatik, zalantza izan dugunean, bereizteko joera hartu dugu. Esaterako, ez dugu Kasu-bilketarik egin mendeko Kasuen eta deklinabide-kasuen artean; bai, ordea, deklinabide-kasu sinpleen eta Kasu konposatuen artean, gutxitan bada ere.

Hemen aurkezten duguna, honenbestez, lehendabiziko hurbilpenean egindako bilketa da, printzipioz gure lanerako baliagarri izango delakoan egindakoa. Bildutako multzo bakoitzerako, izen bat edo parafraasi bat hautatu dugu, eta bakoitzerako laburdura bat erabili dugu (arestian aipatutako *denb* genuke horietako bat), lan honetako hainbat ataletan nahiz C eranskinean erabiliko direnak, hain zuzen. Beheko taulan (III.3 irudia) ikus daiteke zein izen edo parafraasi erabili dugun bildutako Kasu bakoitzerako, zein laburduraz adierazi dugun, eta zein Kasu biltzen diren bere baitan. Oro har, Kasu konplexuak dira parafraisien bidez adierazi ditugunak.

²⁵ Mendeko Kasu konposatuak ez ditugu berez konposatu gisa landuak gure tresnetan, baina hauxe da horiek biltzeko egiten dugun proposamena. Bestetik, esan behar dugu, konpletiboak ez diren mendekoak ia gehienetan ez direla azpikategorizatzen. Horrek esan nahi du azpikategorizazioaren erauzketari begira ez dutela zeregin handirik.

KASUA	LABURDURA	BILDUTAKO KASUAK
Ablatiboa	ABL	-tik
Absolutiboa	ABS	Ø, -ik
Adlatiboa	ALA	-ra
Datiboa	DAT	-i
Destinatiboa	DES	-rentzat
Ergatiboa	ERG	-k
Hurbiltze-adlatiboa	ABZ	-rantz
Inesiboa	INE	-n
Instrumentala	INS	-z
Motibatiboa	MOT	-gatik (-i + esker + -ak) (-i + esker)
Muga-adlatiboa	ABU	-raino
Prolatiboa	PRO	-tzat
Soziatiboa	SOZ	-ekin
Inesiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	INE_POST 1 ²⁶	(-tik/-etatik + at/barna/gora/kanpo/zehar/landa) (-n + barrena/gora/zehar) (-Ø + barna) (-Ø + gora)
Inesiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	INE_POST 2	(-z + batera/bestalde/kanpo/landa/gain)

²⁶ *ine_post*, *ala_post*, *abl_post* eta *ins_post* moduko laburdurek ondokoa adierazten dute: Kasu konposatuaren balioa, etiketaren lehen parteak adierazten duen Kasu sinplearen antzekoa da (adib., *ine_post* 1-en balioa *ine_k* izaten duenaren antzekoa da). Aldiz, *en_aurka* eta *i_buruz* modukoetan, *en* eta *i* horrek adierazten dute postposizioa osatzeko lehenengo sintagmak genitiboa edo datiboa behar duela. Halaxe definitu eta izendatu ziren Gojenolaren (2000) tesi-laneko gramatikan, eta guk hemen bere horretan erabili ditugu. Hona *ine_post* 1 eta *en_aurka* Kasu konposatuaren adibide bana:

Ikasle asko lehiaketatik at geratu dira
ine_post 1
Realak Madril en_aurka jokatu du gaur
en_aurka

KASUA	LABURDURA	BILDUTAKO KASUAK
Inesiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	INE_POST 3	(-a/-ak + inguru/alde + -n/-ra)
Inesiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	INE_POST 4	(∅ + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/barru + -n) (-en + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/mende/truke/buru/leku + -n)
Adlatiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	ALA_POST 1	(-tik/-n + atze/aurre/behe/landa + -ra)
Adlatiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	ALA_POST 2	(∅ + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/barru + -ra) (-en + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/mende/truke/buru/leku + -ra)
Ablatiboaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	ABL_POST 1	(∅ + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/barru + -tik) (-en + alde/antz/arte/atze/aurre/azpi/barne/gain/goi/inguru/ondo/oste/pe/pare/mende/truke/buru/leku + -tik)
Instrumentalaren antzera jokatzeko duen Kasu konplexua	INS_POST1	(∅ + bide + -z)
<i>gisa</i> modukoekin osaturiko Kasu konplexua	GISA	(∅ + gisa) (∅ + bezala) (∅ + legez) (∅ + legez) (-en + gisa)
<i>Bilarekin</i> osaturiko Kasu konplexua	BILA	(∅ + bila) (-en + bila)
<i>en_aurka</i> modukoekin osaturiko Kasu konplexua	EN_AURKA	(-en + aurka) (-en + kontra) (-en + alde)
<i>en_bizkar</i> modukoekin osaturiko Kasu konplexua	EN_BIZKAR	(-en + bizkar) (-en + esku) (-en + gain) (-∅ + gabe)
<i>en_jabe</i> modukoekin osaturiko Kasu konplexua	EN_JABE	(-en + jabe) (-en + zale)
<i>en_mende</i> modukoekin osaturiko Kasu konplexua	EN_MENDE	(-en + mende) (-en + pare)
<i>trukez</i> osaturiko Kasu konplexua	TRUK	(∅ + truk)
<i>eskez</i> osaturiko Kasu konplexua	ESKE	(∅ + eske)
<i>i_buruz</i> Kasu konplexua	I_BURUZ	(-i + buruz)

KASUA	LABURDURA	BILDUTAKO KASUAK
<i>i_begira</i> Kasu konplexua	I_BEGIRA	(-i + begira)
<i>en_arabera</i> Kasu konplexua	EN_ARABERA	(-en + arabera)
<i>en_ordez</i> Kasu konplexua	EN_ORDEZ	(-en + orde + -z)
<i>en_truke</i> Kasu konplexua	EN_TRUKE	(-en + truke)
<i>en_zain</i> Kasu konplexua	EN_ZAIN	(-en + zain)
Kontsesiboa	AGATIK	-agatik
Denborazko mendekoak	DENB	-tean -tzean, -takoan, -terakoan, -nean, -ino, -netik, -neko
Helburuzko mendekoak	HELB	-tzera -tera, -teko
<i>-tekotan</i> mendekoa	TEKOTAN	-tekotan
Moduzko mendekoak	MOD	-ik, -z, -ta, -az
Kausazko mendekoak	KAUS	-lako -nez
<i>-tea</i> konpletiboa	TEA_KONP	-tea, -tzea, -terik, -tzerik
<i>-ela</i> konpletiboa	ELA_KONP	-la, -nik, -na
<i>-n</i> konpletiboa	N_KONP	-n
<i>-ten</i> konpletiboa	TEN_KONP	-ten, -tzen
<i>-teko</i> konpletiboa	TEKO_KONP	-teko, -tzeko
Modu/denborazko mendekoak	MODDENB	-la, -larik

III.3 irudia: Kasu-bilketaren proposamena.

III.2.1.2 Kasuen berreskuratzea kate sintaktikoetan

Aditz laguntzaileak Kasu ergatibo, absolutibo eta datiboaz gauzatzen diren osagai sintagmatikoei egiten die erreferentzia. Hala, testuan sintagma hori esplizituki agertzen ez bada ere, aditz laguntzaileak horri buruzko informazioa ematen digu, eta jakin badakigu elementu hori eliditua egon arren, aditz horri dagokiola (*pro-drop* hizkuntzen ezaugarria); hots, berreskura daitekeela. Hau, ordea, ez da beti gertatzen, aditz ez-ergatiboetan, aditz laguntzailean absolutiboaren marka ageri den arren, ez dagoelako syntaxian eliditua. Horren ondorioz, absolutiboa ez dugu inoiz berreskuratu aditza iragankorra denean. Hau kontuan hartuz, ondoko kate sintaktikoetan egin dugu berreskuratzea:

- Aditz laguntzailea DU motakoa bada, ergatiboa beti berreskuratzen da. Esan beharra dago, fenomeno meteorologikoak adierazten dituzten aditzen kasuan, berreskuratze hau okerra izango dela, jakin baitakigu hauetan subjektua ez dela inoiz agertzen sintagmatikoki errepresentatua. Hala ere, horrelako aditzak ez direnez gehiegi eta *a posteriori* detektatzen errazak direnez, Kasu ergatiboa orokorrean berreskuratzea kaltegarria baino gehiago onuragarria delakoan gaude.
- Aditz laguntzailea DIO motakoa bada, ergatiboa eta datiboa beti berreskuratzen da.
- Aditz laguntzailea ZAIO motakoa bada, datiboa eta absolutiboa beti berreskuratzen dira. Hemen aipatu behar da, aditz batek bere erabileraren batean objektu gisa mendeko esaldi bat hartzen duenean, absolutiboa oker berreskuratzen dela. Horrela jokatu dugu, horiek *a posteriori* detektatzea erraza dela uste dugulako.
- Laguntzailea DA motakoa denean, absolutiboa beti berreskuratu da. Hemen ere badago kasu bat oker egingo duguna: aditza iragangaitza izanik inpersonalean erabilia dagoenean. Hauek ere, hortaz, *a posteriori* tratatzekoak izango dira.

III.2.1.3 Aldez aurretik bazterturiko kate sintaktikoak

Azkenik, gure tresna sintaktikotik eratorritako zenbait akats (besteak beste, azpikategorizazio-informazioa ez edukitzearen ondorioz, mendeko perpausaren eta perpaus nagusiaren elementuak oker banatzeagatik) aldez aurretik baztertzen ditugu. Zenbait Kasu eta aditz laguntzaile esaldi berean ezin dira agertu. Ondokoetan, hain zuzen:

- Kasu ergatibo bat ezin izango da inoiz agertu ez DA motako aditz laguntzaile batekin, ez eta ZAIO motako batekin.
- Aditz berari bi ergatibo edo bi datibo egokitzea ezinezkoa da.
- Bost sintagma baino gehiagoko egiturak ez dira ohikoak izaten, eta ia beti erroreren baten fruitu dira. Ondorioz, bost sintagma baino gehiago dituzten esaldiak baztertu egin ditugu.

III.2.2 Emaidza estatistikoak

Aipatutako prozedura hauek aplikatu ostean, esan bezala, aditz bakoitzerako zenbait datu estatistiko atera daitezke, eta gure helburuaren arabera batzuk edo besteak interesatuko zaizkigu.

Tesi-txostenean jarri ditugun helburuetara gehien hurbiltzen direnak ondokoak dira²⁷:

- 1- Aditz-adibide guztietan agertu diren Kasuen maiztasuna eskura daiteke. Ikus, esaterako, *abestu*, *abiatu*, *apurtu*, *bete* eta *ahaztu* aditzen emaitzak:

```
abestu-en_arabera % 1,2054
abestu-abs % 331015
abestu-dat % 4,2188
abestu-ins % 2,4108
abestu-ine % 9,6430
abestu-erg % 47,0097
```

```
abiatu-mod % 0,2914
abiatu-gisa % 0,0971
abiatu-en_aurka % 0,0971
abiatu-en_bila % 0,2914
abiatu-ins % 0,3885
abiatu-ala % 3,3020
abiatu-abl % 16,8016
abiatu-abs % 43,1408
abiatu-ela_konp % 1,7481
abiatu-abu % 0,0971
abiatu-bila % 0,0971
abiatu-dat % 0,3885
abiatu-denb % 0,2914
abiatu-helb % 0,0971
abiatu-soz % 0,9712
abiatu-ine % 14,9563
abiatu-des % 0,0971
abiatu-abz % 1,0683
abiatu-erg % 13,5441
```

```
apurtu-ins % 0,6135
apurtu-ala % 0,6135
apurtu-abl % 0,9203
apurtu-abs % 43,4998
apurtu-ela_konp % 2,7609
apurtu-dat % 3,1531
apurtu-soz % 6,4421
apurtu-ine % 4,6015
apurtu-erg % 36,1680
```

²⁷ Datu estatistiko hauek 2002ko maiatzaren 22an lortutakoak dira.

bete-en_bide % 0,0995
 bete-**ins** % **6,4183**
 bete-ala % 0,3980
 bete-abl % 0,7961
 bete-mot % 0,0995
 bete-kaus % 0,1990
 bete-**abs** % **43,6221**
 bete-ela_konp % 1,9902
 bete-abu % 0,4478
 bete-dat % 0,8734
 bete-denb % 0,4478
 bete-helb % 0,0498
 bete-soz % 0,8956
 bete-des % 0,1493
 bete-**ine** % **6,0203**
 bete-**erg** % **35,6027**

ahaztu-en_aurka % 0,4167
 ahaztu-ins % 2,0833
 ahaztu-abl % 0,8333
 ahaztu-kaus % 0,4167
 ahaztu-**abs** % **40,8594**
 ahaztu-**ela_konp** % **6,0000**
 ahaztu-tea_konp % 3,5600
 ahaztu-ten_konp % 1,4400
 ahaztu-dat % 2,8581
 ahaztu-denb % 0,4167
 ahaztu-**ine** % **5,0000**
 ahaztu-**erg** % **35,0326**

Emaizta hauek begiratuta, zera da esan dezakeguna:

- *abestu* aditzean **erg**, **abs** eta **ine** direla maiztasun handieneko Kasuak (ordena horretan)
- *abiatu* aditzean **abs**, **abl**, **ine** eta **erg** direla maiztasun handienekoak (ordena horretan)
- *apurtu* aditzean **abs**, **erg** eta **soz** direla maiztasun handienekoak (ordena horretan)
- *ahaztu* aditzean **abs**, **erg**, **ine** eta **ela_konp** direla maiztasun handienekoak (ordena horretan)

Datu hauek interesgarriak dira jakiteko delako aditzak zein Kasu “nahiago” izaten duen. Baina Kasuak bakarka aztertzea (eta ez konbinazioka), informazio osatugabea eskaintzen du. Izan ere:

- ezin da jakin *abiatu*, *apurtu*, *bete* eta *ahazturen abs* guztiak zein erabilerari dagozkion: iragankorreko objektuari edo iragangaitzeko subjektuari. Beste era batera esanda: ez dakigu *abs erg_abs* konbinazioan agertu den edo **abs** soil gisa. *Abesturen* kasuan ez dago zalantzarik *abs* objektua denik, guk jakin baitakigu *abs* beti objektua dela aditz honekin; baina izatez arazoa berdina litzateke.

- *ahazturen* kasuan areago:
 - ezin da jakin *abs* **abs_dat** konbinazioan agertu den (*liburua ahaztu zait*) edo **abs_ins** (*lagunaz ahaztu da*) konbinazioan .
 - ezin da jakin *erg* berez ezinezkoa dela *ins* edo *dat* agertzen direnean esaldian (*liburua ahaztu dut; *liburuaz ahaztu dut; *liburua ahaztu diot*)
 - ezin da jakin *ahaztuk abs, ela_konp* eta *ins* onartzen baditu ere, ezin direla hiru Kasu hauek esaldi berean agertu aparteko sintagma gisa (*liburua etxean utzi zuela / liburua / liburuaz ahaztu*).

Ikusten dugu, orduan, aditz baten portaera sintaktiko osoaren berri emateko, konbinazioka aztertzea beharrezkoa dela, aditzak hautatzen dituen Kasuak zeintzuk izan daitezkeen ez ezik, Kasuen artean dauden murriztapenak ere zehaztu behar direlako.

2- Hori lortze aldera, esaldi bakoitzean agertu diren Kasuak eta laguntzailea zehatz daitezke; eta horien maiztasunak atera. Datuak, orduan, horrelakoak liriateke:

abestu

% 39,1544	DU-erg-abs
% 25,3676	DU-erg
% 11,7647	DU-erg-abs-ine
% 4,5955	DU-erg-ine
% 3,4007	DA-abs
% 3,1249	ZAIO-dat-abs
% 2,3897	DU-erg-soz
% 2,3897	DU-erg-en_arabera
% 2,3897	DU-erg-soz-ine
% 2,3897	DU-erg-abs-ins

abiatu:

% 40,0051	DA-abs
% 26,3426	DA-abs-abl
% 12,0984	DU-erg-abs
% 8,02688	DU-erg
% 4,3559	DU-erg-abl
% 2,0131	DA-abs-abz
% 1,9711	DA-abs-abl-abs
% 1,7740	DA-abs-abs
% 0,8918	DU-erg-abs-abl
% 0,5913	DU-erg-dat-abs
% 0,5396	DA-abs-mod

apurtu:

% 49,1677	DU-erg-abs
% 22,4711	DA-abs
% 7,3303	DU-erg
% 5,4737	DU-erg-abs-soz
% 3,6171	DIO-erg-dat-abs
% 3,2010	DA-abs-abs
% 3,1370	DU-erg-soz
% 1,7285	DA-abs-soz
% 0,8322	DIO-erg-dat-soz
% 0,6402	DA-abs-abs-soz
% 0,6402	DU-erg-dat-abs-soz

bete:

% 49,2751	DU-erg-abs
% 20,9749	DA-abs
% 8,1115	DU-erg
% 5,3115	DU-erg-ins
% 4,0548	DA-abs-ins
% 2,9764	DA-abs-abs
% 2,9368	DU-erg-abs-ins
% 1,3581	DU-erg-abs-mod
% 0,6940	DIO-erg-dat-abs
% 0,5952	DU-erg-dat-abs
% 0,5258	DA-abs-abu

ahaztu:

% 30,2314	DU-erg-abs
% 23,3133	DA-abs
% 15,0238	DU-erg
% 7,6527	DU-erg-ela_konp
% 5,0446	DA-abs-ten_konp
% 4,9222	DU-erg-abs-ela_konp
% 2,8529	DU-erg-abs-helb
% 2,1550	ZAIO-dat
% 1,7876	DU-erg-abs-ins
% 1,1142	ZAIO-dat-tea_konp
% 1,0285	ZAIO-dat-abs
% 0,7836	DA-abs-abs
% 0,7836	DU-erg-dat-abs

Datu hauekin ondorio batzuk atera ditzakegu. Esaterako:

- *abiatu* aditzaren *abs* ia gehienak subjektu dira, ia beti DA laguntzailearekin agertzen direlako. Era berean, aditz hau gehienetan iragangaitz gisa erabiltzen dela esan dezakegu.
- *apurtu*, *bete* eta *ahaztu* aditzetan, berriz, erabilera iragankorra da maiztasun handienekoa, eta hortaz, agertzen diren *abs* gehienetan objektuak izango dira.

Hala ere, *ahaztuz* esan duguna —hots, *erg* ezinezkoa dela *ins* edo *dat* daudenean esaldian—ez dela betetzen ikusten dugu. Izan ere, **DU-erg-abs-ins** moduko egitura bat agertu zaigu (*ins* eta *erg* batera, alegia). Eta hori horrela izateko bi arrazoi egon daitezke:

1- Analizatzaileak *ins* gaizki hartu izana perpaus horretan. Hau da, analizatzaile sintaktikoak gaizki banatu ditu perpausak, eta orduan, *ins* ere *ahazturi* dagokion perpausean hartu du, oker. Adib.:

[Anderrek liburua ahaztu zuen telefonoz] ohartarazi banion ere

2- Instrumental horrek beste gauza bat adieraztea. Adib.:

bigarrenez ahaztu du liburua

Hemen instrumentalak denborazko balioa du.

Bestalde, azalean Kasu-konbinazioa berdina izanik, fenomeno desberdinen berri ematen dela jakitea ezinezkoa da. Esaterako, *apurtu* aditzaren **DU-erg** “patroian” absolutiborik agertu ez arren, badakigu **DU-erg-abs** patroia parekotzat jo behar dugula, aditz honetan *abs* beti berreskuratzen baita elipsiaren bidez (hots, erreferentziakidetasunez²⁸). Ordea, *abestu* aditzean bestelakorik dugu: **DU-erg** patroia berezkoa da, *absek* ez duelako agertu beharrik, eta izatez ez agertzea delako arruntagoa. **ZAIO-dat-abs** patroiarekin ondokoa gertatzen zaigu: *lagunari liburua ahaztu zaio* eta *haurrei abesti bana abestuko zaie* perpausentzat balio du berdin-berdin.

Eta azkenik, garrantzi desberdineko Kasu-konbinazioak agertzen dira. Adib. *abestu* aditzean:

% 39,1544	DU-erg-abs
% 25,3676	DU-erg
% 11,7647	DU-erg-abs-ine
% 4,5955	DU-erg-ine

Ikus daitekeenez, aditz honetan **DU-erg-abs** konbinazioa da nagusiena, baina *inek* ere nagusitasuna du, eta orduan patroia nagusi bezala ere ageri da. Intuizioz badakigu, ordea, *ine* aditz honetan lekuaren adierazlea dela, eta berez ez dirudiela aditzak eskatutako argumentua. Maiztasunak, orduan, ez du beti aditzak “nahiago” dituen osagaien berri ematen.

Ikusitako alderdi konplexu hauek guztiak kontuan izanda, argi dago aditz baten Kasuak eta Kasu-konbinazioak zehaztea ez dela besterik gabe azaleko agerpenen zerrenda ematea.

Vázquez et al.-ek (2000) dioten bezala, aditzen portaera sintaktikoa definitzeko egitura sintaktiko esanguratsuak zehaztu behar dira:

Un denominador común a los diferentes tipos de léxicos es que no suelen proporcionar una lista exhaustiva de las posibles alternancias que permiten los predicados. [...]. La ausencia de la especificación del conjunto completo de estructuras en que participa un verbo es un problema que

²⁸ Honen inguruko xehetasunak tesiko hainbat ataletan ikusiko ditugu.

se da también en los léxicos computacionales. Relacionamos también este vacío con la falta de una propuesta concisa, desde un punto de vista teórico, de la lista de construcciones relevantes para la descripción del comportamiento verbal. No se trata de indicar todas las posibilidades existentes en la sintaxis, es decir, no se trata de elaborar una lista abierta al estilo de gramáticas léxicas (Gross 1975), sino de proporcionar el conjunto de construcciones relevantes para describir el comportamiento verbal.

Vázquez et al. 2000: 37-38

Hain zuzen, gaur egun, aditzaren berezko argumentuak eta adjuntuak bereizteko algoritmo estatistikoak probatzen ari gara (Aldezabal et al., 2002; Aldezabal et al., 2003c). Egindako lehen saio hauek agerian jartzen dute emaitza egokiak lortzeko, informazio esanguratsuagoa beharrezkoa dela. Hots, alde zuzenetik eskuz landuriko gutxiengo informazioa beharrezkoa dela, gero horrekin esperimenduak egiteko. Gojenolaren (2000) tesian jadanik horrelako kontuak aipatzen dira. Autore honek azpikategorizazioaren erauzketan egindako erroreak zerrendatzen ditu, eta errore horien iturri garbien artean azpikategorizazioari berari buruzko informazioa ez edukitzea aipatzen du:

Baterakuntzan oinarritutako gramatikaren hutsuneekin lotutako erroreak (32 errore). Errore mota hauek ematen dituzte analisi partzialaren mugak. Errore hauetatik erdia baino gehiago gramatikaren atal batzuetan landu gabeko aspektuak dira, eta arazo handirik gabe konpon litezke gramatika zabalduz gero, baina beste batzuek aldaketa kualitatiboak beharko lituzkete, aditzaren azpikategorizazioari buruzko informazioa txertatzea kasu.

Gojenola, 2000: 126

Azpiesaldien erabakia doitasun altuaz egiten den arren, badaude asmatzeko zailak diren kasuak. IV.7 adibideak erakusten duen bezala²⁹, adizlagunak eta aditz-sintagmak bi aditzen artean daudenean ezin da erabaki zein aditzekin lotu osagaiak. Gure sistemaren errore batzuk horrelako esaldietan sortu dira. Modu honetako esaldiak hobeto banatzeko azpikategorizazioari berari buruzko oinarritzko informazioa edukitzea beharrezkoa dela pentsaten dugu³⁰.

Gojenola, 2000: 121

Bestetik, argi dago ere zaila izango dela emaitza esanguratsuak lortzea semantikari erreferentziarik egin gabe, sintaxia hutsez ezin baita adierazi aditz batek Kasu bera onartu ahal izatea zeregin desberdinetarako; batean azpikategorizatua eta bestean ez (gogoratu *lagunaz ahaztu / bigarrenaz ahaztu*). Gojenolaren (2000) tesian ere horrelako kontuak iradokitzen dira:

²⁹ Hauxe da IV.7 adibidea: ...*beharrezko ikusi zen Pirineotako bazter honetan erakunde bat sortzea*.

³⁰ Ez dugu uste Gojenolak ematen duen adibidea egoki denik azpikategorizazioaren bidez konpon litekeen kasua errepresentatzeko. Egokiago deritzogu tesi honen sarreran aipatu dugun adibideari: *Haurra ikastolara eramanez zuen futboleko jokatzeko*. Adibide honek Gojenolak dioena egokiago azaltzen duela uste dugu.

III.3 Ondorioak

- Azterketa bibliografikoan ikusi dugunez, aditz baten azpikategorizazioa lantzea beharrezkoa da sintaxi osoa lantzeko pausuetako bat bezala. Baina bestetik, ez dago argi —edo bederen ez dago bateratasun handirik— non, nola eta zein ezaugarrik baldintzatzen duten hori.
- Prozedura automatikoen bidez datu interesgarriak lortzen dira, baina esan dugun bezala, aditzen portaera sintaktiko esanguratsua emateko informazioa falta dute.
- Ixa taldean dugun lexikoari dagokionez (EDBL), pieza lexikalen kategoria, azpikategoria eta hitz mailan onartzen diren kateatze-aukerak (morfotaktika) baino ez ditugu definituta (Aldezabal et al., 2001a). Argi dago, beraz, oso urrun dagoela II kapituluaren zehar ikusi ditugun lexikoen osiera konplexutik, eta ez diela inolako erreferentziarik egiten hautatzen dituen osagaiei. Horrek esan nahi du, etorkizun hurbilean aditzen lexikoa osatu nahi badugu, asmo xumeagoetara zuzendu behar ditugula gure esfortzuak. Alegia, jakinda ere idealena teorikoki proposatu diren lexikoiengan egon daitekeela, praktikotasunak, helburuak mugatzera garamatza. Lehenik eta behin guri interesatuko zaiguna da esaldi mailan osagai horiek izango duten forma zehaztea. Azken batean, azpikategorizazioaren informazio hertsira alderatzen gara.
- Honek guztiak Leinen lana kontuan hartuz eraman gaitu. Autore honek, esan bezala, metodologia interesgarria eskaintzen du. Izan ere, aditzen osakeraren konplexutasunaz jabeturik, konplexutasun hori aditzen azaleko gauzaren sintaktiko desberdinek eta hauek osatzen duten alternantziek islatzen dutela argudiatzen du. Gainera, alternantzia berak konpartitzen dituzten aditzek talde semantikoak osatzen dituztela defendatzen du. Hori dela eta, lehenik eta behin alternantzia-egiturak aztertzen ditu, eta gero, horietan oinarrituta, aditz multzoak proposatzen ditu. Pieza lexikalen osiera espezifikatzea, berriz, hori egin osteko lan gisa uzten du.

Bere lanak, beraz, interes bikoitza du:

- batetik, aditzen egitura sintaktiko asko aztertzen dira, eta egiturotan parte hartzen duten osagai sintaktikoak elementu azpikategorizatuak direla suposatzen da. Eta

hau bibliografian ikusitako hutsune bat betetzera dator: egitura sintaktiko ohikoez gain, beste hainbat ere tratatzen dira.

- bestetik, egitura hauek aditz multzoei aplikatu dakizkieke. Horrek esan nahi du egitura bakoitza zein aditzei egokitzen zaien zehaztuta, lexikoa sinplifikatu daitekeela erredundantzia ebatziz. Hots, bere azterbidea lexikoa antolatzeari begira dago.

Horregatik bere lana sakonki aztertu, eta eskaintzen dituen abantailak eta desabantailak neurtu nahi izan ditugu. Gainera, esana dugun bezala, Levinen lana beste hizkuntza batzuetako aditzak aztertzeko abiapuntu izan da; gaztelania eta katalanerako (Taulé, 1995); frantseserako (Saint Dizier, 1995); alemana, koreera eta bengalerako (Jones et al., 1994), besteak beste. Gaztelania eta katalanerako ikerketa-lanak, gainera, aipamen berezia merezi dute, hauen autoreekin dugun lankidetzaren harremana dela medio, gertutik ezagutzeko aukera izan baitugu; areago, askotan, hauen eskarmentua gure ikerketa-lanen gidari izan da (Vázquez et al., 2000).

Hurrengo atalean, beraz, autore honen lana albait sakonkien aztertuko dugu. Azterketa sakon honen ondoren ikusiko dugu Levinen lanak hutsuneak dituela, eta ondorioz *alternantzia* kontzeptua egokitu eta aditzak kontzeptu zehatzago horren arabera aztertu behar direla, benetan semantikoki esanguratsuak izango diren aditz multzoak erdiesteko.

IV ABIAPUNTUA: LEVIN-EN *VERB CLASSES AND ALTERNATIONS* (1993) LANAREN AZTERKETA

IV.1 Oinarri teorikoak

IV.1.1 Ezagutza lexikala

Esana dugu dagoeneko autore honek sintaxiaren eta semantikaren arteko elkarrekintza defendatzen duela, eta sintaxi-egiturak hartzen dituela bere helburua lortzeko —alegia, talde semantikoak osatzeko— abiapuntu. Horren arrazoia, bere liburuko sarrera mardulean agertzen du, gizakiak bere baitan duen *ezagutza lexikalaz* jarduten duenean. Levinen ustez, hitzunek pieza lexikoak erabiltzen dituztenean erakusten duten ezagutza kontuan hartuta, hitz bakoitzaren ezaugarri espezifiko eta idiosinkrasikoetatik harantzago doan beste ezagutza orokorrago bat dago, eta ondorioz, pieza lexikalen azterketa osotasun-ikuspegi batetik egin beharra dagoela azpimarratzen du.

Autore honen ustez, hitzun natibo bat gai da hizkuntzako hainbat fenomenoz jabetzeko:

- Batetik, gai da aditz batek onartzen dituen egitura desberdinak —batzuetan adieraldaketa dakartenak— erlazionatzeko eta, aldi berean, zein aditzek zein egitura onar ditzaketen eta zeintzuk ez esateko. Berak aipatzen duen adibide arrunt batera joz, hitzun batek badaki *poltsa hautsi da* eta *ahizpak poltsa hautsi du* esaldiak erlazionatuta daudela, eta bata bestea bezain zilegi dela; baina, era berean, badaki, *poltsa agertu da* esaldia zuzena izanik ere, **ahizpak poltsa agertu du* esaldia ezinezkoa dela, eta ez dagoela lehenengo adibideen arteko erlazio bera; alegia, badaki bata (*hautsi*) iragankor nahiz

iragangaitz modura erabil daitekeela, eta, bestea (*agertu*), berriz, ez³¹. Harremanetan dauden egitura pare hauek izendatzeko erabiltzen du *diatesi-alternantziak* (*diathesis alternations*) terminoa. Gogora ditzagun berriz ere Levinen hitzak :

Verbs, as argument-taking elements, show especially complex sets of properties. As shown in B. Levin (1985b, in prep.) and other works, native speakers can make extremely subtle judgements concerning the occurrence of verbs with a range of possible combinations of arguments and adjuncts in various syntactic expressions. For instance, speakers of English know which *diathesis alternations* —alternations in the expressions of arguments, sometimes accompanied by changes of meaning— verbs may participate.

Levin, 1993: 2

- Bestetik, gai da hitz eratorri zuzenak sortzen dituzten prozesu morfologikoak antzemateko; hots, sortutako eratorria zuzena den ala ez epaitzeko. Aditzei gagozkiela zehazki, hiztunak badaki zein oinarrik erator dezakeen aditz bat eta zeinek ez. Hale & Keyserrek (1992) diotena berretsiz eta euren adibidera baliatuz, *church* hitza aditz gisa **They churched the money* moduko perpaus batean ‘elizari eman’ adierazteko ezin erabil daitekeela dio. Aldiz, *modem* hitza erabil daiteke *I’ll modem you* gisako perpaus batean ‘modenaz bidali’ esateko³².
- Eta azkenik, gai da Levin & Rappaport-ek (1988) *extended meaning* terminoaz izendatu dutena ulertzeko³³. Alegia, aditz batzuk, normalean, modu batera erabiltzen dira, baina batzuetan erabilera berezituagoak dituzte. Hala ere, hasiera batean ezaugarri berekoak diruditen aditzek, ez dute gaitasun bera erakusten fenomeno honekiko. Esaterako, *whistle* eta *roar* aditzek, oinarrian, ‘soinu jakin bat igortzea’ adierazten dute hiztegi-tako definizioen arabera; baina batzuetan, delako soinu hori igortzen doan objektu baten mugitze-ekintza ere deskriba dezakete, *The bullet whistled through the window* edota *The car roared up the driveway* adibideetan ikus daitekeenez. Ordea, *bark* aditzak zakurren zaunka-soinua adierazten du, baina ez du erakusten aipatu dugun beste erabilera hori (**The dog barked down the street behind the jogger*).

Hiztunak erakusten duen gaitasun hori, baina, zertan oinarritzen da? Zergatik da gai gizakia epai horiek egiteko?

Levinen ustez, **aditzak duen esanahiak halaxe agintzen** diolako da gai epai horiek egiteko. Hiztunak, aditzak halako multzo semantikoetan dauzka gordeta bere ezagutzan, eta

³¹ Euskaraz, badakigu *agertu* aditzak onartzen duela erabilera iragankorra. Hala ere, Levinek darabilen adibide zehatzean, gure ustez, erabilera iragankorra okerra edo, behintzat, ez-arrunta da. Beraz, azken batean adibidea balizkoa dela esan genezake.

³² Levinek berez esaten ez badu ere, fenomeno hau *inkorporazio* gisa ulertu izan da hizkuntzalaritzan, syntaxiko elementu bat aditzean txertatzen baita prozedura morfologiko batzuen bidez.

³³ Apresjan-ek (Apresjan, 1973) kontzeptu bera adierazteko *regular polysemy* terminoa darabil.

aditz bat multzo jakin batekoa dela uste duenean, egitura batzuekin baino ez du onartzen edo aurreikusten. Hots, halako multzo semantikoa, halako jokaera sintaktikoa.

Honi segituta, esanahi jakin bateko aditzak biltzen dituen egitura desberdin horiek aztertzea izango da esanahi hori eskuratzeko bidea eta giltza. Hain zuzen ere, hiztunak lehendabizikoz agertu zaion aditz bat ezagutzen ez duenean, zein egituratan agertu den ikusi ondoren, egitura berori onartzen dutenen multzokotzat hartzen du intuizioz.

Baina nolakoa da delako semantika horren izaera? Izan ere, *whistle*, *roar* eta *bark* aditzen bidez ikusi dugunez, hasiera batean “antzekoak” diruditen arren, ez dute jokaera bera azaltzen. Nola definitzen da aditzak batzen dituen “semantika” hori?

IV.1.2 Alternantziak eta osagai semantikoak

Levinek, beste hizkuntzetan ere aztergai izan diren *break* (‘hautsi’), *cut* (‘moztu’), *hit* (‘jo’) eta *touch* (‘ukitu’) aditzen bitartez ilustratzen du semantika konpartitze horri dagokion ideia. Azter dezagun, laburki³⁴.

Lau aditz hauek subjektu eta objektu gisa gauzatzen diren bi argumentuko aditz iragankorrak dira:

Margaret cut the bread (‘Margaretek ogia moztu zuen’)

Janet broke the vase (‘Janetek lorontzia hautsi zuen’)

Terry touched the cat (‘Terryk katua ukitu zuen’)

Carla hit the door (‘Carlak atea jo zuen’)

Hala ere, ez dituzte diatesi-alternantzia berak onartzen. Hala, *cut* eta *break* aditzek “Middle alternation” delakoa ametitzen dute; beste biek, aldiz, ez:

The bread cuts easily (‘ogia erraz mozten da’)

Crystal vases break easily (‘kristalezko lorontziak erraz hausten dira’)

**Cats touch easily* (‘katuak erraz ukitzen dira’)

**Door frames hit easily* (‘ate-markoak erraz jotzen dira’)

Bestetik, *cut* eta *hit* aditzak “Conative alternation” delakoan agertzen dira; *break* eta *touch*, aldiz, ez:

³⁴ Adibide bakoitzaren alboan emango dugun euskarazko ordaina literalki ulertu behar da; gure asmoa ez da euskarazkoa zuzena edo okerra den epaitzea.

Margaret cut at the bread ('Margaretek ogian moztu zuen')

**Janet broke at the vase* ('Janetek lorontzian hautsi zuen')

**Terry touched at the cat* ('Terryk katuan ukitu zuen')

Carla hit at the door ('Carlak atean jo zuen')

Azkenik, *cut*, *hit* eta *touch* aditzek "Body-part possessor ascension alternation" delakoa onartzen dute; *break*ek, aldiz, ez.

Margaret cut Bill's arm ('Margaretek Billen besoa moztu zuen')

Margaret cut Bill on the arm ('Margaretek Bill besoan moztu zuen')

Janet broke Bill's finger ('Janetek Billen behatza hautsi zuen')

**Janet broke Bill on the finger* ('Janetek Bill behatzean hautsi zuen')

Terry touched Bill's shoulder ('Terryk Billen sorbalda ukitu zuen')

Terry touched Bill on the shoulder ('Terryk Bill sorbaldan ukitu zuen')

Carla hit Bill's back ('Carlak Billen bizkarra jo zuen')

Carla hit Bill on the back ('Carlak Bill bizkarrean jo zuen')

Hau kontuan hartuta, hiru alternantzia hauen aurrean duten jokaeraren arabera desberdindu daitezke lau aditzak:

	touch	hit	cut	break
"conative"	ez	bai	bai	ez
"body-part possessor ascension"	bai	bai	bai	ez
"middle"	ez	ez	bai	bai

Honen arrazoia ondokoa da sakonean: alternantzia bera ametitzen duten aditzek **osagai semantikoren bat dute batera**³⁵, eta hain zuzen ere, alternantzia jakin horiek dira osagai semantikoaren berri ematen digutenak.

³⁵ Hau horrela dela frogatzen duten lanak badira; Fillmore (1967), Guerssel et al., (1985) eta Hale & Keyser-en (1986, 1987) lanetan, aipatutako lau aditzak eta horien sailekoak sakonki aztertu dira.

If the distinctive behavior of verb classes with respect to the diathesis alternations arises from their meaning, any class of verbs whose members pattern together with respect to diathesis alternations should be a semantically coherent class: its members should share at least some aspect of meaning.

Levin 1993: 14

Hau da, alternantzia bakoitzak osagai semantiko jakin batetiko sentiberatasuna adierazten du edo adieraz dezake; hala, aztergai ditugun lau aditz hauen arteko desberdintasuna arrazoitu ahal izango dugu baldin eta agertzen dituzten alternantziak osagai semantikoren batekiko sentiberak badira.

Levinek, segidako azalpenean, alternantzia hauek “ezkututzen” dituzten osagai semantikoak azaltzen ditu. Hala, eta azalpena sinplifikatuz, “Body-part possessor ascension alternantziak, aditzek aditzera ematen duten gertakizunean *kontaktua* dagoela adierazten du. *Break* aditzak alternantzia hori erakusten ez duenez, osagai semantiko hori bere berezko esanahiaren parte ez dela esan nahi du; hau da, haustearen ekintzak ez duela nahitaez *kontaktua* eskatzen, nahiz eta askotan horrela gertatu. Hortaz, dirudienez, “Body-part possessor ascension” alternantzia erakusten duten aditzek *kontaktuaren* nozioa dute berezko esanahian.

“Conative” alternantziak, berriz, *mugimendua* eta *kontaktua* adierazten du. Horregatik onartzen dute *hit* eta *cut* aditzek. Aldiz, *touchek kontaktua* bakarrik adierazten duenez eta *breakek* ez mugimendua ez kontaktua, ez bata ez besteak ez dute alternantzia hau erakusten. Honi segituta, mugimendu hutsa adierazten duten aditzek ere alternantzia hau ez onartzea espero izatekoa da; eta izatez, halaxe dela dio Levinek (*Jean moved the table* ‘Janek mahaia mugitu zuen’, baina **Jean moved at the table* ‘Janet-ek mahaian mugitu zuen’).

“Middle” alternantziari dagokionez, azkenik, *egoera-aldaketa* adierazten duten aditzek erakusten dutela dio. Hala, *touch* eta *hit* aditzek alternantzia hau erakusten ez dutenez, egoera-aldaketarik adierazten ez dutela ondoriozta daiteke; alderantziz, *break* eta *cutek*, biek, alternantzia hau erakusten dutenez, egoera-aldaketa aditzak izango dira. Horretaz gain, biek dute, ingelesez, izen eratorri bat (*a cut* ‘mozketa’ eta *a break* ‘haustura’), egoera-aldaketa horren emaitza adierazten duena; *touch* eta *hitek* osatzen duten izen eratorriek (*a touch* ‘ukitzea’ eta *a hit* ‘jotzea’), berriz, ekintza bera adierazten dute, ez emaitza. Hala ere, ikusi dugun bezala, *cutek*, egoera-aldaketa baino zerbait gehiago adierazten du: *kontaktua* eta *mugimendua* (“conative” alternantzia onartzeak erakusten duenez); eta horrek egoera-aldaketa hutseko aditza ez izatea ekartzen du. *Breakek*, aldiz, “conative” alternantzia ez du onartzen, baina azalpen honetan oraindik aipatu ez dugun “alternantzia kausatibo/inkoatibo” ezaguna onartzen du. *Cutek* ez, ordea:

The window broke / The little boy broke the window

(‘Leihoa hautsi da / Mutikoak leihoa hautsi du’)

*Margaret cut the string / *The string cut* (hizpide dugun interpretazioan)

(‘Margaretek haria moztu du / Haria moztu da’)

Honek, alternantzia kausatibo/inkoatiboa, egoera-aldaketa hutseko aditzen ezaugarri bihurtzen du. Hots, *cutek* egoera-aldaketa adierazten du, baina baita aldaketa hori gertatzen den modua ere. Guerssel et al.-ek (1985) halaxe azaltzen dute *break* eta *cut* bezalako aditzen arteko desberdintasuna: *cut* gisakoek *modu* hori errepresentatzen duen instrumentu edo tresna bat dute beharrezko ekintza gauzatzeko, eta ondorioz baita, halabeharrez, instrumentu hori erabiliko duen agente edo eragilea ere. Hala, *cut* oinarrian bi argumentuko aditz iragankorra da, eta ondorioz ez da inoiz alternantzia inkoatiboan azalduko. Aldiz, *break* oinarrian argumentu bakarreko aditza da, gero eragile edo kausa bat erantsita iragankor bilakatzen dena. “Middle” alternantzia, berriz, biek onartzen dute, alternantzia hau irekita dagoelako egoera-aldaketa adierazten duten aditzei, hauek modua agertzen duten ala ez alde batera utzita.

Laburbilduz: *touch*, kontaktu hutseko aditza da; *hit*, mugimendu baten ondoriozko kontaktu-aditza; *cut*, ukipenezko mugimendu baten ondorioz entitate baten egoera-aldaketa eragiten duen aditza; eta azkenik, *break*, egoera-aldaketa hutseko aditza.

Semantikak sintaxia baldintzatzen duelako ideia hau ez dela eztabaidarik gabekoa aitortzen du autoreak, eta hain zuzen, zenbait ikertzailek hipotesi honen kontra ematen dituzten adibideak aipatzen ditu. Rosen-ek (1984), esaterako, italierazko *russare* (‘zintz egin’) eta *arrossire* aditzak (‘gorritu’) konparatzen ditu, eta biak “gorputzaren prozesuak deskribatzen dituzten” aditz multzokoak izaki, alternantzia desberdinak onartzen dituztela argudiatzen du, *russare* aditza egitura ez-ergatiboan agertzen baita, eta *arrossire*, berriz, ez-akusatiboan. Levinek adibide berori erabiltzen du ezaugarri semantiko egokiak identifikatzeak duen inportantzia azpimarratzeko. Hasiera batean antzeko diruditen bi aditz hauen arteko desberdintasunek adierazten dute, hain zuzen ere, “gorputzaren prozesuak izatea” ez dela semantikoki esanguratsua. Aditzon arteko desberdintasuna azaltzeko beste modu bat badago, Vendler-ek (1967) proposatzen duenaren ildotik. Ingeleseko *snore* aditzak *jarduera* bat adierazten du; *blush*, berriz, *jarduera* nahiz *egoera-aldaketa* interpretazioetara irekita dago. Eta, beraz, *jarduera* eta *egoera-aldaketa* izatea dira benetan esanguratsuak.

Era berean, talde semantikoak ezin dira bakarrik introspekzioz egin, hau da, hiztegi-tako definizioetatik antzeman daitekeen semantikatik abiatuz. Batzuetan, gainera, multzo batekotzat ala bestekotzat hartu behar diren ere ez da argi geratzen. Levinek, ingelesezko *whistle* aditzaren *The bullet whistled through the air* erabilerrako bi hiztegi- ematen duten

definizioak aipatzen ditu. Webster's Ninth (Mish, 1996) hiztegiak halaxe definitzen du: 'to make a shrill clear sound, esp. by rapid movement'. Collins English Dictionary-k (Hanks, 1986), berriz, honelaxe: 'to move with a whistling sound caused by rapid passage through the air'. Definizio hauetatik abiatuta, ez dago argi aditz hau mugimendu-adierazle edota soinu-adierazle den, eta intuizioak honen aurrean ezer gutxi laguntzen digu. Diatesi alternantziak, orduan, hau erabakitzeko proba edo helduleku garrantzitsu gisa ageri zaizkigu.

Ikus daitekeen bezala, autore honek, bere liburuaren sarreran, aditzek onartzen dituzten alternantzia batzuk aztertzen ditu, eta hauek islatzen dituzten osagai esanguratsuak bilatzen saiatzen da. Beraz, gakoa izango da osagai semantiko jakinen isla diren alternantziak identifikatzea, alternantziaren forma bera baino areago. Alegia, ez du esan nahi hizkuntza guztietan agertuko zaigun alternantzia sorta berbera izango denik.

IV.2 Edukia

Sarreran Ezagutza Lexikalean oinarritutako teoria sakonki azaldu eta gero, bi zati nagusitan banatzen du lana Levinek. Lehendabizikoan, ingelesean aurkitu diren alternantziak azaltzen ditu, hauetako bakoitzaren ezaugarri sintaktiko, semantiko eta —hala dagokionean— morfologikoak deskribatuz; eta, horretaz gain, horietan parte hartzen duten aditzak zerrendatzen ditu. Guztira, 80 alternantzia aurkezten ditu, 8 multzo nagusitan —eta hauen barruan, beste zenbait azpimultzotan— banatuta. Ez ditugu hemen guztiak zerrendatuko; ideia orokor bat izateko, 8 multzo nagusiak aipatuko ditugu:

- 1- Transitivity alternations
- 2- Alternations involving arguments within the VP
- 3- "Oblique" subject alternations
- 4- Reflexive diathesis alternations
- 5- Passive
- 6- Alternations involving postverbal "subjects"
- 7- Other constructions
- 8- Verbs requiring special diatheses

Bigarren zatian, alternantzia horietan oinarriturik, talde semantikoak aurkezten ditu. Guztira, 191 azpisail semantiko egiten ditu, 49 sail nagusiagotan multzokatuta. Hemen denak zerrendatzea gehiegitxo litzateke (horretarako, jo bedi bere lanera), baina ideia orokor bat egiteko, hona zenbait:

- 9- Verbs of putting³⁶
- 10- Verbs of removing
- 11- Verbs of sending and carrying
- 12- Verbs of exerting force: *Push/Pull* verbs
- 13- Verbs of change of possession
- 14- *Learns* verbs
- 15- *Hold* and *Keep* verbs
- 16- Verbs of concealment
- 17- Verbs of throwing
- 18- Verbs of contact by impact
- 19- *Poke* verbs
- ...

Ondorengo puntuan ikusiko dugun bezala, ez dago garbi klase hauek benetan alternantzien arabera osatzen diren ala ez.

IV.3 Levinen azterketak dituen arazoak

IV.3.1 Alternantzia kontzeptuaren definizioa eta izaera

Diatesi-alternantziak sail semantikoak egiteko baliabide gisa erabil daitezkeela defendatu arren, Levinek ez du kontzeptu hau argi eta garbi definitzen. Gogora ditzagun bere hitzak:

For instance, speakers of English know which *diathesis alternations* —alternations in the expressions of arguments, sometimes accompanied by changes of meaning— verbs may participate in.

Levin, 1993: 2

Beraz, dioenaren arabera, aditz beraren bi egitura alternantziatzat jotzeko lehenik eta behin biak egitura zuzenak —balizkoak— izan behar dira.

Ordea, zenbaitetan hori ez du betetzen; batez ere, *L 7* eta *L 8* sail nagusietan³⁷:

³⁶ Alternantzien eta aditz klaseen zenbaketa jarraia da Levinen lanean. Horregatik hasten dira klaseak 9 zenbakiarekin (eta ez lekin).

³⁷ Autoreak bere liburuan erabiltzen duen zenbaketa erabiliko dugu hemen alternantziak eta aditz multzoak aipatzean; hori adierazteko, zenbaki bakoitzari *L* jarri diogu aurretik. Atal honetan ez ditugu itzuliko alternantzien eta aditz multzoen izenak (V.2.3 puntuan, berriz, bai; eta hantxe azalduko ditugu itzultzeko hautatu ditugun irizpideak). Ingelesezko adibidearen azpian euskarazko itzulpena jarri dugu.

“Alternantzia” batzuek egitura bakarria dute, adib *L 8.4*³⁸:

L 8.4: “Expletive *It* object”:

They’ve got it made ->

Egina dute

Beste batzuek bi egitura dute, baina horietako bat okerra da; adib. *L 7.7*³⁹:

L 7.7: “Bound nonreflexive anaphor as Prepositional Object”.

Amanda_(i) carried the package with her_(i) / *herself_(i) ->

Amandak_(i) paketea ekarri zuen berarekin_(i) / *bere buruarekin

Bi egitura onargarriz osatutako alternantzietan ere badago desberdintasunik: batzuetan osagai sintaktiko bat galtzen da egitura batetik bestera, adib. *L 1.1.2.1*⁴⁰:

L 1.1.2.1: “Causative/inchoative alternation”.

Janet broke the cup / The cup broke ->

Janetek katilua puskatu zuen / Katilua puskatu zen

Beste batzuetan osagai bat eransten da, adib *L 7.1*⁴¹:

L 7.1 “Cognate object construction”.

Sarah sang / Sarah sang a ballad / Sarah sang a song ->

Sarah-k abestu zuen / Sarah-k balada bat abestu zuen / Sarah-k abesti bat abestu zuen

Beste batzuetan, osagairik galdu gabe, gauzapen sintaktikoa da aldatzen dena, adib. *L 1.4.2*⁴²:

L 1.4.2: “*With* preposition drop alternation”.

Jill met with Sarah / Jill met Sarah ->

Jill Sarahekin topatu zen / Jillek Sarah topatu zuen

Azkenik, badago osagai sintaktikoen ordena baino aldatzen ez den alternantzia bat:

³⁸ Horrelakoxeak dira *L 7.4*, *L 7.5*, *L 7.6.1* eta *L 7.6.2* ere.

³⁹ Horrelakoxeak dira *L 2.3.3*, *L 3.3.5*, *L 8.1*, *L 8.2*, *L 8.3*, *L 8.5* eta *L 8.6* ere

⁴⁰ Horrelakoxeak dira *L 1.1.1*, *L 1.1.2.2*, *L 1.1.2.3*, *L 1.2.1*, *L 1.2.2*, *L 1.2.3*, *L 1.2.5*, *L 1.2.6.1*, *L 1.2.6.2*, *L 1.2.7*, *L 1.2.8*, *L 2.4.4*, *L 2.5.2*, *L 2.5.5*, *L 2.5.6*, *L 3.1*, *L 3.2*, *L 3.3*, *L 3.4*, *L 3.5*, *L 3.6*, *L 3.7*, *L 3.8*, *L 3.9*, *L 6.1* eta *L 7.3* ere.

⁴¹ Horrelakoxeak dira *L 2.4.3*, *L 2.4.4* eta *L 7.2* ere.

⁴² Horrelakoxeak dira *L 1.1.3*, *L 1.2.4*, *L 1.3*, *L 1.4.1*, *L 1.4.2*, *L 2.1*, *L 2.2*, *L 2.3.1*, *L 2.3.2*, *L 2.3.4*, *L 2.4.1*, *L 2.4.2*, *L 2.5.1*, *L 2.5.4*, *L 2.6*, *L 2.7*, *L 2.8*, *L 2.10*, *L 2.11*, *L 2.12*, *L 2.13.1*, *L 2.13.2*, *L 2.13.3*, *L 2.13.4*, *L 2.13.5*, *L 2.14*, *L 3.10*, *L 4.1*, *L 4.2*, *L 5.1*, *L 5.2*, *L 5.3* eta *L 5.4* ere.

L 6.2: “Locative inversion”

An old woman lives in the woods / In the woods lives an old woman
Emakume heldu bat bizi da oihanean / Oihanean emakume heldu bat bizi
da

Osagai galtzea adierazten duten zenbait alternantziatan, azpikategorizatutzat ematen ez den elementu bat beste aldaeran osagai azpikategorizatu bihurtzen da, subjektuaren izaera aldatzen delarik; halako subjektuei *subjektu oblikuo* deitzen die Levinek; guk *zeharkako subjektu* deituko ditugu. Adib.:

L 3.1: “Time subject alternation”.

The world saw the beginning of a new era in 1492 / 1492 saw the
beginning of a new era ->
Munduak aro berri baten hasiera ikusi zuen 1492an / 1492k aro berri
baten hasiera ikusi zuen

Gainontzeko alternantzietan osagaiak azpikategorizatuak direla suposatzen da.

Beraz, alternantzia kontzeptua beti berdin ez erabiltzeaz gain, bi egitura zilegi jokoan direnean ere, kasuistika desberdina dugu.

Bestalde, autoreak dio alternantzia edo egitura horiek semantikoki esanguratsuak izateko, osagai semantikoren bat izan behar dutela batera.

Ordea, ez ditu esplizituki bereizten benetan semantikoki esanguratsuak diren alternantziak (alegia, osagai semantiko batekiko sentsibilitatea erakusten dutenak) eta besterik gabe egitura sintaktiko bikoteak baino ez direnak. Alternantzien sailkapena egiten duenean, sailak ondoko modura banatzen ditu. Ikus, esaterako, lehendabiziko sail nagusia:

L 1 Transitivity Alternations

L 1.1 Object of Transitive = Subject of Intransitive alternations

Eta L 1.1 sail honetan, iragankorraren objektuak eta iragangaitzaren subjektuak *rol semantiko bera* duten egiturak sartzen ditu:

This subsection includes transitivity alternations taking the form of ‘NP V NP’, where the semantic role of the subject on the intransitive use is the same as the semantic role of the object of the transitive use of the verb.

Levin, 1993: 25

Bigarren sail nagusia, L 1.2, honela adierazten du: Unexpressed Object alternations. Eta aditzaren erabilera iragankorrean eta erabilera iragangaitzean subjektuak aditzarekiko *erlazio semantiko bera* duten egiturak sartzen ditu:

This section includes transitivity alternations where the subject of the transitive use of verb bears the same semantic relation to the verb as the subject of the intransitive use does.

Levin, 1993: 33

Hasteko, ikusten dugunez, L 1.1 alternantzian *rol semantiko* terminoa aipatzen du eta L 1.2 alternantzian *erlazio semantiko*. Eta ez da garbi geratzen rol edo erlazio semantiko horiek zein lotura duten alternantziekin edo alternantziaren semantikarekin. Alternantzia bakoitzean erabiltzen den rol semantiko/tematiko hori, aditzen definiziotik abiatuta lortzen dituela dirudi. Aditzen berezko semantika hori osagai sintaktikoetan nola kodetzen den, nola gauzaten den ez da azaltzen.

Gabezia hau Rebolledok (2002) eta Vázquez et al.-ek (2000) ere azpimarratzen dute, Levinen lanak dituen zailtasunak aipatzen dituztenean:

Pero el problema principal que presenta el modelo de Levin es la carencia de justificación a la hora de atribuir rasgos semánticos a las pruebas sintácticas o alternancias. La identificación de dichos rasgos no deja de ser una tarea intuitiva, y en muchos casos derivada del significado léxico del verbo, como se puede apreciar examinando el apartado que Levin dedica a exponer los rasgos semánticos que las alternancias ponen de manifiesto. En él nos encontramos, en primer lugar, una serie de datos sobre los roles semánticos que rige el verbo, en términos muy similares a los casos propuestos por Fillmore (1968), y en segundo lugar, el aspecto más importante de las pruebas, las notas de su contenido. Por ejemplo, los comentarios que la autora hace a la alternancia vista más arriba, *with/against*, son los siguientes:

The verbs showing this alternations take three arguments that as a first approximation might be characterize as agent, a location and an instrument. *The instrument is moved by the agent into contact with the location* (Levin, 1993: 67-68. La cursiva es mía)

Parece claro que la inclusión de los *hit verbs* dentro de la clase verbal de “Contacto por impacto” se deriva de la información que hemos destacado con cursiva, información previa al establecimiento a las alternancias y que, por tanto, no se deriva de la estructura sintáctica en sí, sino del conocimiento previo que el investigador posee a cerca del significado del verbo.

Rebolledo, 2002: 8

En la clasificación de esta autora los predicados se distribuyen directamente en subgrupos según sus características sintácticas y, por tanto, no se explicita el comportamiento que comparten todos los verbos de una clase.

Vázquez et al., 2000: 41

IV.3.2 Aditz-multzokatzeak ez dira beti egiten konpartitzen dituzten alternantzien arabera

Bere teoriaren arabera, alternantzia berdinak erakusten dituzten aditzekin multzo semantiko koherenteak osa daitezke, eta bere liburuko bigarren atalean hori egiten saiatzen da. Baina ikusten dugu hori ez dela beti betetzen:

- Esaterako, *L 9.1 (Put verbs)* eta *L 10.1 (Remove verbs)* azpisailetako aditzek ez dute desberdintasunik onartzen dituzten alternantziei dagokienez, baina Levinek aparteko taldeetan banatzen ditu. Gauza da *L 9.1* azpisailekoek ‘put an entity at some location’ adierazten dutela, eta *L 10.1* azpisailekoek, berriz, ‘remove an entity from a location’. Eta hori, azken batean, aditz azpisail horien oinarriko egituraren agertzen den preposizio motak bereizten du.
- Bestetik, autoreak esan digu hiztun natiboaren beste gaitasunetako bat prozesu morfologikoez jabetzeko gaitasuna dela. Hain zuzen ere, prozesu morfologiko horiek aintzat hartzearen ondorioz, osagai semantiko bat barneratzen (inkorporatzen) duten aditzak aparteko azpisail semantiko bihurtzen ditu, barneratzen den osagaia desberdina delako. Esaterako, *L 10.4.1 (Manner subclass)* eta *L 10.4.2 (Instrument subclass)* azpisaileko aditzek alternantzia berak onartu eta baztertzen dituzte, baina ageri denez, bi multzotan banatzen ditu:

L 10.4.1 Brian wiped the fingerprints from the counter
Brianek salmahaitik hatz-markak kendu zituen trapu batez

L 10.4.2 Carla shoveled the snow from the walk
Carlak elurra bidetik kendu zuen pala batez

L 9.1 (Put verbs) eta *L 9.10 (Pocket verbs)* azpisailak ere bereiz jartzen ditu, *L 9.10*eko aditzek osagai bat barneratzen dutelako:

L 9.1 I put the book on the table
Liburua mahaian jarri nuen

L 9.10 Lydia pocketed the change
Lydiak ganbioak poltsikoratu zituen

Argi dago *L 9.10* moduko aditz eratorriek eta *L 9.1* moduko ez-eratorriek argumentu kopuru desberdina dutela azalean, eratorrietan argumentuetako bat aditzean txertatuta dagoelako (euskaraz, gainera, are garbiago ikusten da hori, batzuetan atzizkia ere ageri delako: poltsikoratu). Baina horrek ez du nahitaez esan nahi ez dituztela alternantzia berak onartzen.

Aditz eratorrien eta ez-eratorrien arteko aldea, eta baita eratorrien artekoa ere ukatu gabe, halako desberdintasunak beste modu batean markatu beharko liratekeela iruditzen zaigu. Izatez, eratorpeneko joerak desberdinak izan daitezke hizkuntza batean eta bestean; ingelesez eratorpen bidez gauzatzen dena beste hizkuntza batean egitura sintaktiko hutsez emana ager daiteke. Euskaraz, esaterako, *L 9.9 (Butter verbs)* eta *L 9.10 (Pocket verbs)* azpisailetan, jokaera bera aurkitzen dugu azpisaileko aditz guztietan:

L 9.9 Lora buttered the toast
Lorak ogia gurineztatu zuen

L 9.10 Lydia pocketed the change
Lydiak ganbioak poltsikoratu zituen

Berriz, *L 10.4.1 (Manner subclass)* eta *L 10.4.2 (Instrument subclass)* azpisailetako aditz asko, bai eta *L 37.3 (Verbs of manner of speaking)* eta *L 37.4 (Verbs of instrument of Communication)* azpisailetako beste asko, aditzetik banatuta dagoen osagai sintagmatiko batez eta aditzaz itzuli behar dira. Adib.

L 10.4.1 Brian wiped the fingerprints from the counter
Brianek salmahaitik hatz-markak kendu zituen trapu batez

L 10.4.2 Carla shoveled the snow from the walk
Carlak elurra bidetik kendu zuen pala batez

L 37.1 Susan whispered
Susanek ahapetik esan / xuxurlatu zuen

L 37.2 Heather cabled the news
Heather-ek berriak telegrafoz bidali zituen

Hala izanik, ingelesez azpisaile "semantiko" bat dena euskaraz hala izateko arrazoirik ez dagoela dirudi. Fenomeno morfologiko hauek, hortaz, beste modu batera aztertu behar lirateke. Nolabait markatu beharra dagoela ukatu gabe, ez dugu uste aditz eratorriak *sail semantiko* gisa multzokatu behar direnik, baizik eta sail semantiko baten barruan halako ezaugarri morfologiko bat agertzen duten aditz multzo gisa.

- Zenbait sail semantikok ez dute inongo alternantziarik erakusten. Bitxia bada ere, aipatu ditugun *L 9.1* azpisaileko aditzek ez dute onartzen Levinek aztertzen dituen alternantziatik bat ere ez. Orobat gertatzen da, esaterako, *L 52 Avoid verbs* sailekoekin edota *L 54.2 Cost verbs* azpisailekoekin. Horrek esan nahi du sail horretako aditzek ez dutela berez alternantziarik onartzen eta, hortaz, ezin dutela

“sailik osatu”, beti ere Levinen metodologiari jarraituta. Honek erakusten digu, bere liburuaren lehenengo zatian aztertu dituen alternantziatan ez daudela aditz sailen abiapuntuko egitura gisa hartu diren egitura guztiak. Orduan, badirudi zenbait sail dagoeneko zedarrituta daudela aldeztu aurretik, eta ez zaiela alternantzien irizpidea aplikatzen.

Ideia hau hainbat autoreen lanetan aurki dezakegu. Rebolledorenean (2002) eta Vázquez et al.-enean (2002), esaterako:

El modelo de Levin no deja de plantear problemas severos. En primer lugar destaca la aplicación de alternancias a grupos de verbos preseleccionados sin un criterio claro. Es decir, aunque se afirma que las alternancias son la herramienta empleada para organizar las clases verbales, en la práctica se parte de grupos de verbos preestablecidos intuitivamente según su significado léxico, sin ninguna regla que justifique una selección y no otra.

Rebolledo, 2002: 6

Esta autora considera que los verbos que pertenecen a la misma clase presentan los mismos componentes de significado y participan en las mismas alternancias de diátesis. Por el contrario, en casi ninguna de las 49 clases propuestas se especifican qué componentes de significado las caracterizan, y además la mayoría de los grupos no son homogéneos con respecto a las diátesis. [...] Teniendo en cuenta que estas dos características se repiten a lo largo de toda la obra, creemos razonable suponer que las clases se han delimitado de forma apriorística, según criterios nocionales correspondientes a campos semánticos y que la información sintáctica se incluye *a posteriori*, para justificar la clase semántica en función de la metodología anunciada.

Vázquez et al., 2000: 157

Gauzak horrela, Levinek aurkezten dizkigun aditz multzoak izaera desberdinekoak dira. Badirudi, sail nagusiak osatuak daudela aldeztu aurretik. Azpisailak egiteko, berriz, baliabide desberdinak aplikatzen ditu: prozesu morfologikoen ondoriozko osagaien txertaketa; onartzen diren preposizio-sintagma desberdinak, etab. Honenbestez, esan daiteke berez ez duela bere oinarri metodologikoa aplikatzen, eta egiten dituen talde semantikoak guztiz argi azaltzen ez duen *clustering* bat aplikatu ondorengo emaitza direla. Hain zuzen ere, autoreak berak ondorengo hitzak jartzen ditu bere liburuko sarreran:

The verb classes that are identified in this book should be “handled with care”, since there is a sense in which the notion of “verb class” is an artificial construct. Verb classes arise because a set of verbs with one or more shared meaning components show similar behavior. Some meaning components cut across the classes. For instance, the meaning component contact and motion are common to the *hit* verbs and the *cut* verbs, as manifested by their participation in the conative alternation. However, the meaning component contact alone would also have picked out the *touch* verbs, as well as the *hit* and *cut* verbs. Thus, since most verbs are characterized by several meaning components, there is potential for cross-classification, which in turn means that other,

equally valid classification schemes might have been identified instead of the scheme presented in Part II of the book.

Levin, 1993: 17

Beraz, autorea bera jabetzen da egiten dituen klase semantikoak ez direla behin-betikotzat hartu behar, eta aukera asko daudela multzoak egiteko.

Ordea, osagai semantiko esanguratsuen identifikazioa sail semantikoak egin osteko lan bezala jotzen badu⁴³, ez dirudi sail semantikoak edonolakoak izan daitezkeenik. Izan ere, osagai semantiko horien zehaztapena oso desberdina izango da hautatzen den talde semantikoaren —eta honenbestez alternantzi(ar)en— arabera. Prozedura honekin, orduan, are ilunago geratzen da alternantzia bat noiz jo behar den esanguratsutzat eta noiz ez. Rebolledok ondo jasotzen du ideia hau:

El grupo verbal del que se parta es fundamental para la operatividad de la teoría, ya que según sea un grupo u otro los contrastes de significado variarán, y por consiguiente se establecerán distintos componentes semánticos.

Rebolledo, 2002: 7

Gure ustez, orduan, Levinen talde semantikoak ez dira hartu behar osagai semantikoak bereizteko abiapuntu gisa. Horretaz gain, zein alternantzia den esanguratsua eta zein ez zehaztu gabe, multzo semantikoak egitea ez da oso zentzuzkoa gertatzen. Lehenik eta behin, garrantzitsuena izango da zehaztea zeintzuk diren alternantzia esanguratsuak.

IV.4 Ondorioak

Gauzak horrela, Levinen lana erabilgarri den zalantza sortzen da. Nolanahi ere, berak planteatzen duen oinarri teorikoa beste hainbat autorek ere bere egiten dute. *Verb classes and alternations* liburuak dituen alderdi zailez jabeturik, Levinek ilun uzten dituen alderdiak argitzen saiatzen dira, Levinek aipatzen dituen alternantzietatik hizkuntza bakoitzean ageri direnak landuz. Honenbestez, Levinen lana baztertu ez baizik eta moldatu, egokitu egiten dute, eta Levinek zerrendatzen dituen alternantziak delako hizkuntzan aztertzen dituzte. Hori da, esaterako, Saint Dizier-ek (1996) eta Vázquez et al.-ek (2000) egiten dutena.

Hori dela eta, Levinen metodologia eta kontzeptzio teorikoa onartuta printzipioz, euskaraz ere saio bat egitea erabaki dugu. Horretarako, esan dugun bezala, talde semantikoak alde

⁴³ Gogora ditzagun II.3.4 puntuko hitzak: “Once such a class is identified, its members can be examined to isolate the meaning components they have in common.” (Levin, 1993:18)

batera utzi eta alternantzien atalari erreparatuko diogu. Alternantzia bat nola definitzen dugun eta semantikoki esanguratsua izateko zer den beharrezkoa argitzen saiatuko gara. Horretarako, oso kontuan izango dugu Vázquez et al.-en (2000) lana, esan dugunez, autore hauek ere Levinen lanaren hutsunez jabetzen direlako. Gainera, haiekin dugun lankidetzaren dela medio, hurbiletik ezagutzen dugu euren lana, eta askotan haien eskarmentua gure gidari izan da. Hala ere, ikusiko dugu Vázquez et al.-en (2000) lanean ere badirela kontzeptzio teorikoarekin guztiz bat ez datozen alderdiak. Rebolledo (2002) dioen bezala, Vázquez et al.-ek (2000) alternantzia esanguratsuak landu behar direla diote, baina aztertzen dituzten alternantzia guztiak ez daude ikuspegi horretatik landuak:

Además de la variedad de entornos que propone, el modelo de Vázquez et al. (2000) presenta, desde mi punto de vista, otro problema importante: la falta de definición del significado que plantean algunas alternancias.

Rebolledo, 2002: 94

Ondorioz, guk geuk azken batean gure erabaki propioak hartuko ditugu.

Behin alternantzia zer den argituta, Levinen (1993) ageri diren alternantzietatik euskaraz *ere* onartzen direnak aztertuko ditugu bakarrik, beste autoreek egin duten bezala. Hau egiteko bi arrazoi ditugu:

- Alternantzia bat ingelesez eta euskaraz egoteak berez ematen die orokortasuna egituroi. Ondorioz, azterketa interlinguistikoa da, eta ez bakarrik euskarari dagokiona.
- Euskara aztertzea da gure interes behinena; hortaz, lan hau euskararen oinarritzea beharrezkotzat jo dugu. Beste hizkuntzetan ere halaxe egin dute.

Hala, hurrengo atal nagusian alternantziaren kontzeptu egokituarekin egin dugun azterketa azaltzen dugu.

V *ALTERNANTZIA* KONTZEPTUAREN ZEHAZTAPENA ETA ALTERNANTZIEN BERRAZTERKETA: Levinen (1993) alternantziak euskaraz

Levinek proposatutako talde semantikoek dituzten zailtasunak ikusita, argi geratu da gure interesa Levinek planteatzen dituen alternantziak modu egoki batean aztertzea dela. Horretarako, lehenik eta behin, alternantzia kontzeptua argitzen saiatuko gara, eta alternantzia bat semantikoki esanguratsua izateko nola aztertu behar den argituko dugu. Horretarako Vázquez et al.-en lana (2000), Gràcia et al.-ena (2000) eta Rebolledorena (2002) baliatuko ditugu batez ere.

Levinek ingeleserako proposatzen dituen alternantzietatik euskaraz aurkitu ditugunak aztertuko ditugu, horretarako Aldezabal et al.-en (2002) barne-txostena hartuz oinarri bezala. Barne-txosten honetan Levinek proposaturiko ingeleserako alternantziak euskaraz ageri direnentz aztertzen da⁴⁴.

Hala ere, ez ditugu kontuan hartuko euskaraz onartzen diren alternantzia guztiak. Horietako zenbaitzuk aldeaz aurretik baztertuko ditugu. Batetik, alternantzia definitu dugun moduan, ez dutelako lekurik; eta bestetik lanari muga bat jartzearen. Muga hori jartzeko, tresna informatikoez baliatuko gara, corpusean maiztasun handienaz agertu diren Kasuak hautatuz.

⁴⁴ Aldezabal et al. (2000) lanean azpimarratzen den bezala, baieztapen hauek eztabaidagarriak dira erabat. Guk, bestetik gabe, horietan esaten dena onartu dugu. Hala ere, beste hizkuntzetarako egin diren lanetan ikusi ahal izan dugunez (bengalera edota gaztelaniarako egin diren konparaketa-lanetan, esaterako (Taulé, 1995; Jones et al., 1994)), ingelesezko alternantzia asko ez dira onartzen; eta, aldiz, euskaraz onartzen diren ia guztiak —gehi beste hainbat— onartzen dira haietan ere.

V. kapitulu hau, honenbestez, honela banatu dugu:

V.1 puntuan, alternantzia nola definitzen dugun zehaztu dugu.

V.2 puntuan, Levin (1993) laneko alternantziak guk zedarritutakoaren arabera aztertu ditugu, euskarari aplikatuz. Hala ere, lehendabizi Aldezabal et al.-en (2000) iruzkin orokorrak aipatuko ditugu (V.2.1); ondoren, aldez aurretik baztertu ditugun alternantziak (V.2.2); eta, horren ostean, hautatutako alternantzien azterketari ekingo diogu (V.2.3).

V.1 *Alternantzia* kontzeptuaren zehaztapena

Esan dugun bezala, Vázquez et al.-ek (2000) Levinen premisa teorikoa onartzen dute. Ondoko hitzak dira horren erakusgarri:

Consideramos que el comportamiento diatéutico es el que vincula la interacción entre sintaxis y semántica en el comportamiento verbal y, por ello, constituye un aspecto básico en la construcción de un modelo para la descripción y clasificación de los predicados.

Como consecuencia del criterio adoptado, hemos seleccionado aquellas construcciones sintácticas que se han considerado relevantes desde el punto de vista del significado, es decir, aquellas que son pertinentes en relación a la información semántica que aportan, y las hemos agrupado en función de las oposiciones que expresan. Esta propuesta proviene de un concepto de diátesis revisado y renovado.

Vázquez et al. 2000: 13

Garrantzitsuena, beraz, alternantzia esanguratsuak definitzea da. Hona nola definitzen duten alternantzia:

En nuestra propuesta entendemos las diátesis como la expresión sintagmática de diferentes oposiciones semánticas motivadas por distintas estrategias comunicativas. Es por este motivo que estas construcciones son consideradas en pares alternantes, donde cada una de las estructuras relacionadas expresa uno de los significados de la oposición.

Vázquez et al. 2000: 90

Autore hauek diotenaren arabera, diatesiek *oposizio semantiko* bat adierazi behar dute eta diatesien bi egiturek (*pares alternantes*) oposizioaren esanahi bat adierazten dute. Oposizio semantiko hori zein motatakoa den ondorengo parrafoan aipatzen dute:

Teniendo en cuenta nuestro propósito de generalización y, a partir del estudio interlingüístico realizado, hemos seleccionado aquellas oposiciones semánticas que consideramos relevantes para

discriminar el comportamiento verbal en función de si responden a necesidades básicas, como pueden ser la expresión o no de una causa, la generalización o especificación de la información, etc. Siguiendo la misma línea, de entre las posibles alternancias que dan cuenta de dichas oposiciones, se han tomado en consideración aquellas que afectan a un número significativo de verbos⁴⁵.

Vázquez et al. 2000: 94

Rebolledok (2002) esaten duenarekin bat etorriz, alternantzia esanguratsuak hautatzeko arrazoiak ez dira guztiz garbi geratzen hitz horietan, baina esan behar da beste inongo autorek ez duela alternantzien hautapena arrazoitzen:

Es cierto que, como justificación única de la selección de alternancias, el párrafo anterior [arestikoa, alegia] puede resultar insuficiente. Sin embargo, debemos recordar que ninguno de los modelos revisados fundamenta, por ejemplo, la selección que realiza de los esquemas sintácticos que emplea.

Rebolledo, 2002: 89

Oposizio semantikoa horrela definituta, *mintzaira-egiturako* ordena-aldaketek eragiten dituzten aldaketa semantikoen antza du (esaldiko zein elementu fokalizatzen den, informazioa orokorrago edo zehatzago den...).

Hala izan arren, hemen diferentzia da aztertzen diren alternantzietan aldaketa sintaktikoren bat gertatzen dela; hots, aditzaren osagaien Kasuetan nahiz balentzian aldaketak daude. Eta horrek islatzen du, hain zuzen, oposizio semantikoa. Ondorioz, baliabide sintaktiko ageriez adierazten diren oposizio semantikoak dira aztertzen direnak. Hain zuzen, horregatik jotzen dituzte alternantziak aditzaren semantika eta sintaxia harremanetan jartzen dituzten baliabide linguistikotzat.

Vázquez et al.-ek (2000) alternantziei buruz hori esan arren, aztertutako alternantzia batzuetan ez da garbi geratzen zein den oposizio semantiko hori, ez eta zein osagai semantikoren bidez adierazten den. Bestalde, zenbait alternantzia, oposizio semantiko berean aztertzen dituzte, baina berez egitura batzuk beste batzuk baino orokorragoak dira, edota oposizioaren alderdi bat betetzea falta zaie. Esaterako, alternantzia inkoatiboa eta inperzonalaren oposizio semantiko beraren barruan lantzen dituzte: kausatibitatearekin loturiko foko-aldaketa oposizioaren barruan (*Cambio de foco relacionado con la causatividad*). Baina gauza da inkoatiboan —*alternancia anticausativa prototípica*, Vázquez et al.-en (2000) terminologian— objektuak/gaiak beti izan behar duela *ukitua*, eta inperzonallean, berriz, izan daitekeen arren, ez da nahitaez hala izan behar.

⁴⁵ Ikusten denez, hiru terminoak, *dialesia*, *dialesi-alternantzia* eta *alternantzia*, gauza bera adierazteko erabiltzen dituzte.

Rebolledo (2002) ere bat dator guk diogunarekin:

[...] Pero a pesar de lo adecuado del planteamiento este modelo presenta dos problemas básicos: en primer lugar, no en todas las alternancias queda claro el significado sobre el que se articulan; en segundo lugar, en aquellas en las que sí queda claro, la variedad estructural es demasiado amplia como para que resulten operativas con claridad.

Rebolledo, 2002: 89-90

El significado de esta alternancia [anticausativa prototípica] se define por presentar un objeto afectado y por la irrelevancia del carácter causativo o agentivo de su iniciador. [...]. Puesto que las oraciones impersonales también desfocalizan el componente iniciador, han sido incluidas en este apartado⁴⁶ a pesar de que no existe un objeto afectado:

2. a. Alguien ha mentido
b. Se ha mentido

Rebolledo, 2002: 91

Pasiboarekin ere antzekoa gertatzen da. Pasiboetan, subjektuaren desfokalizazioa gertatzen da, baina objektuak ez du nahitaez ukitua izan behar. Rebolledok dioenaren arabera, pasiboak duen baldintza bakarra da subjektuak biziduna izan behar duela. Hortaz, pasiboak ere ez ditu betetzen berez oposizio semantikoaren alderdi guztiak. Ondorioz, Vázquez et al-ek (2000) egitura sintaktiko gehiegi sartzen dituzte oposizio semantiko beraren barruan, eta horrek sistema ezegonkortu egiten du. Hona, berriz ere, Rebolledoren hitzak:

Para que este método resulte operativo [la asignación de un significado a un esquema sintáctico y el estudio de su compatibilidad con una clase verbal] es necesario que la delimitación del significado estructural sea lo más concreta posible, a pesar de que, efectivamente, sean varias las estructuras que presentan la posibilidad de codificar un mismo significado. La delimitación del significado de las estructuras es una tarea delicada, puesto que se define confrontándolas con los verbos que en ellas se insertan y la admisión de una estructura por parte de una clase verbal es, en gran medida, una cuestión de grado. La mera enumeración de todas estructuras que una clase verbal admite nos llevará simplemente —como vimos en la anticausativa— a dar un listado demasiado amplio, y por consiguiente, poco significativo. Por tanto, se trata de delimitar la estructura que codifica el significado relevante de manera prototípica, y no de enumerar todas aquellas que lo hacen.

Rebolledo, 2002: 101

Ondorioz, guk alternantziak aztertzerakoan geure erabaki propioak hartu ditugu, eta Levinen (1993) liburuko alternantzietatik zenbait aldez aurretik baztertu ditugu, nahiz eta

⁴⁶ Alternantzia antikausatiboen atala, alegia.

euskaraz ere onartzen diren eta orokorrak diren. Beste alternantziatarako, berriz, Vázquez et al.-en (2000) iritzia kontuan hartu dugu, bai eta Rebolledorena (2002) ere.

Bestetik, bada garrantzitsua iruditzen zaigun puntu bat, Vázquez et al.-ek (2000) azpimarratzen dutena, bai hasieran bai bukaeran:

Hay autores que consideran que las alternancias diatéticas se corresponden con sentidos distintos de un verbo. Por ejemplo, en el caso de *romper* se distinguen distintas acepciones en función de su uso causativo o no causativo (*romperse*). Desde nuestro punto de vista ambos verbos expresan el mismo significado básico pero focalizan diferentes componentes del evento según la estructura sintáctica en que participen.

Vázquez et al., 2000: 12

Por último, las fuentes que se utilizan en la adquisición automática y la etiquetación y desambiguación semántica de corpus (WordNet, MRD, etc.) ponen de manifiesto la carencia de una definición clara y objetiva de lo que es un sentido [...]. Tal y como hemos presentado en este trabajo, las alternancias sintácticas expresan matices de un mismo sentido y, por tanto, pueden tomarse ya como un criterio.

Vázquez et al., 2000: 207

Guk baieztapen honekin bat egiten dugu, eta horrekin alternantziak bereizteko arrazoi bat gehiago argitan jartzen dugu. Alegia, alternantziak aditz-multzoak egiteko baliagarriak izan daitezke, baina era berean aditzaren zentzu edo adiera bat islatzen dute. Jakina den bezala, aditz berak adiera bat baino gehiago edukitzea oso ohikoa da hizkuntzan. Bada, aditz baten diatesi-alternantziak direnak eta ez direnak bereiztean, adierak ere nolabait bereizten ditugu.

Beraz, laburtuz, egitura sintaktikoak **diatesi-alternantzia esanguratsuak** (*relevante*) **izateko**, ondoko ezaugarriak dira beharrezkoak:

- Aditz beraren bi balizko egitura sintaktiko erlazionatu behar dira. Alternantziaren egituretako bakoitza *aldaera* deituko dugu, aditz beraren egitura sintaktiko ez-alternanteetatik bereizteko.
- Bi egitura horiek oposizio semantiko bat adierazi behar dute.
- Aditzaren adiera bati erreferentzia egiten diote. Ondorioz, oposizio semantikoa adierazten duten aldaerak eta oposiziorik adierazten ez dutenak elkarren artean nolabait bereizi behar dira. Hori bereizteko, gure ustez, beharrezkoa da osagai sintaktikoak semantikoki deskribatzea. Hain zuzen, alternantzia baten aldaerak oposizioa definitzen duten osagai semantikoez definituta egongo dira; gainontzeko egiturek, bestelako osagai semantikoak izango dituztela suposatuko da.

Behin alternantzia kontzeptua guk nola erabiliko dugun argituta, Levinen (1993) laneko alternantziak aztertzeari ekingo diogu.

V.2 Levinen (1993) alternantziak euskaraz

Alternantzia guztiak aztertzen dituen lana, esan dugun bezala, Aldezabal et al.-en (2002) aurkitzen dugu.

Hori oinarri hartuta, euskaraz ageri direnei bakarrik erreparatuko diegu. Baina horietatik batzuk zuzenean baztertuko ditugu:

- batetik, planteatutako alternantzia kontzeptuaren arabera, zenbaitzuk ez dutelako lekurik gramatiketan esaten denari jarraituz gero.
- bestetik, ez ditugulako Kasu guztiak kontuan hartuko. Ondorioz, horrelakorik duten alternantziak ere azterketatik kanpo utzi ditugu zuzenean.

Esan dugun bezala, Aldezabal et al. (2002) lanean egindako konparazioaren ikuspegi orokorra eman nahi dugu, eta horretarako *Iruzkin orokorrak* atala ekarri dugu hona. Hori da V.2.1 atalean ikusiko duguna.

V.2.2 atalean, aldez aurretik bazterturiko alternantziez arituko gara. Eta, azkenik, V.2.3 atalean hautatutako alternantziak gure alternantzia kontzeptuaren arabera aztertuko ditugu.


V.2.1 Iruzkin orokorrak

- Esan dugun bezala, Levinek 80 alternantzia proposatzen ditu. Alternantzia hauek 8 multzotan banatzen ditu, eta horietatik lehenengo hirurak dira multzorik handienak eta nagusienak. Gainontzekoak mugatuagoak eta anitzagoak dira. Bere hitzetan:

The alternations are subdivided into groups on the basis of the syntactic frames involved. The first group includes transitivity alternations, while the second group covers alternate expressions of arguments (mostly within the verb phrase) that do not affect transitivity. A third group includes alternations that arise when verbs permit “oblique” subjects. These major groups of alternations are followed by a variety of other types.

Levin, 1993: 22


Ikus sailkako proportzioak honako irudi grafikoan:



V.1 irudia: Levinen liburuko alternantzien proportzioa sailka.

80 alternantzia hauetatik, 24 ditugu euskaraz. Hain zuzen, horietatik gehienak goian aipatutako multzo nagusietakoak dira; aldiz, autoreak proposatzen dituen *L* 4., *L* 6. eta *L* 8. sailekorik bat ere ez da onartzen; ez eta gainontzeko sailetako zenbait ere.

Hona, grafikoki irudikatua, Levinen sail bakoitzean euskaraz onartzen diren alternantzien kopurua:



V.2 irudia: Euskaraz sail bakoitzean onartzen diren alternantzien kopurua.

Ingelesez ageri diren alternantzia asko euskaraz ez egoteko arrazoiak ondokoak dira:

- Gehienetan alternantziako bi aldaerak edota aldaeretako batek ez du zentzurik itzulpena egiterakoan. Adib.:

L 1.2.7: “Way object alternation”

They pushed their way through the crowd / They pushed through the crowd

‘*Haiek euren bidea jendearen artean bultzatu zuten /

? Haiek jendearen artean bultzatu zuten’⁴⁷

- Beste gutxi batzuk, euskaraz, osagai sintagmatiko berberen leku-aldatzeak dira, besterik gabe. Adib.:

L 2.1: “Dative alternation”

Bill sold a car to Tom / Bill sold Tom a car

‘Billek auto bat saldu zion Tomi / Billek Tomi auto bat saldu zion’⁴⁸

- Beste batzuek, euskaraz, gure ustez, aldaera batetik bestera elipsia baino ez dute erakusten. Adib.:

L 1.2.2: “Understood body-part object alternation”

I flossed my teeth / I flossed

‘Hortzak setazko hariz garbitu nituen / setazko hariz garbitu nituen’⁴⁹

- Beste asko, zalantzazkoak gertatzen dira, alde batetik, erdaretako kalkoen mugetan gaudela dirudielako; eta bestetik, euskaraz antzeko zentzua lortzeko ez delako ingeleseko baliabide eta aditz-forma bera erabiltzen. Adib.:

L 2.13.5: “Possessor subject (intransitive)”

Meat fell in price / The price of meat fell

‘? Haragiak behera egin du prezioan / Haragiaren prezioak behera egin du’

⁴⁷ Halakoxeak ditugu *L 1.2.3, L 1.2.5, L 1.2.7, L 2.3.2, L 2.3.3, L 2.3.4, L 2.3.5, L 2.4.1, L 2.4.2, L 2.4.3, L 2.4.4, L 2.5.2, L 2.5.3, L 2.5.5, L 2.5.6, L 2.6, L 2.7, L 2.8, L 2.9, L 2.10, L 2.11, L 3.2, L 3.3, L 3.5, L 3.6, L 3.7, L 3.8, L 3.9, L 4.1, L 4.2, L 5.1*eko zenbait, *L 5.2, L 5.3, L 6.1, L 7.2, L 7.3*, eta *L 7.8* ere.

⁴⁸ Horrelakoxea da *L 6.2* ere.

⁴⁹ Horrelakoxea da *L 1.2.8* ere.

L 1.1.2.2: “Induced Action alternation”

Sylvia jumped the horse over the fence / The horse jumped over the fence

‘*Janetek zaldia hesirantz salto egin zuen / Zaldiak hesirantz salto egin zuen’⁵⁰

- Besteren batean, ingelesez lexikoki aditz berarekin adierazten dena, euskaraz aditz diferentziaz adierazten da. Euskaraz, beraz, ezin esan aditz berari dagokion alternantzia denik; horixe da L 3.10 alternantziaren kasua:

L 3.10: “Source subject alternation”

The middle class will benefit from the new tax laws / The new tax laws will benefit the middle class

‘Klase ertainak onura jasoko du zergen arau berrietatik / Zergen arau berriek klase ertainari onura ekarriko diote’

- Eta azkenik, badira alternantzia batzuk ez dituztenak bi egitura bikote onargarri harremanetan jartzen; aditz jakinek onartzen duten egitura bereziak egiaztatu baino ez dira egiten, batzuetan egitura bakarra adieraziz eta beste batzuetan egitura zuzenaren parean egitura okerra jarritz⁵¹.

V.2.2 Aldez aurretik baztertu ditugun alternantziak

V.2.2.1 Inpertsionala, pasiboa, antipasiboa, erreziprokoa eta erreflexiboa

Izenburuan aipatu ditugun bost egiturak alternantziatzat jo genitzake gure definizioan jarri dugun lehenengo baldintzaren arabera: aditz beraren bi egitura zilegi erlazionatzen dira.

Ordea, oposizio semantikoari dagokionez, ez dirudi hauetako batek ere horrelakorik erakusten duenik. Euskarari dagokionez, zehazki, euskal gramatiketan ez da horrelakorik aipatzen, eta aditz beraren balizko egitura sintaktikotzat jotzen dituzte, besterik gabe. Hala ere, gramatiketan ez dira kontzeptu edo atal beraren azpian tratatzen.

Euskal Gramatika laburrean (Euskaltzaindia, 1993), esaterako, **inpertsionala**, **erreflexiboa** (edo bihurkaria) eta **erreziprokoa** (edo elkarkaria) *Sail-aldaketak* atalean aipatzen dira. Jakina sail-aldaketak aipatzeko, aldez aurretik aditzak sailka multzokatzen

⁵⁰ Horrelakoxeak dira L 5.1eko zenbait eta L 1.1.2.3 ere.

⁵¹ Jo bedi IV.3.1 puntura horrelakoen adibideak gogoratzeko.

dituzte, eta sail horiek Kasu gramatikalen arabera egiten dituzte⁵². Hala ere, egitura erreflexiboa eta erreziprokoa aipatu baino ez dira egiten, eta beste atal batean aztertzen dira sakonago (Izenordainen atalean); izatez, fenomenoak ezin delako aditz sail oso batera hedatu, baizik eta aditzez aditz aztertu beharreko egiturak dira.

Inpertsionalari dagokionez, *nor-nork* saileko aditza inpertsional bihurtzean *nork* sintagma desagertzen dela diote, eta orduan berez *nor-nork* sistemakoa den aditza *nor* sistemako bihurtzen dugula. Euren adibideak erabiliz:

(53) dendariak sagarrak garesti saltzen dituzte

(54) sagarrak garesti saltzen dira

Nor sistemako aditzak ere inpertsional izan daitezkeela diote, eta honakoetan *nor* sintagma da desagertzen dena⁵³. Hona berriz ere gramatikan erabilitako adibideak:

(55) Hemendik joaten da autobusa egunero Donostiara

(56) Hemendik joaten da Donostiara

Nor sistemakoetan, ordea, inpertsional bihurtzeak beste zenbait konturekin lotura duela diote. Hala ere, ez dute sakontzen kontu horietan, eta besterik gabe *aspektua* aipatzen dute horietako bat bezala:

Aditzak inpertsional bihurtzea beste zenbait konturekin loturik dago (aspektuarekin esaterako):

(57) *Hemendik joan da Donostiara.

Jakina; perpaus hori gramatikala da pertsonala baldin bada, baina [...] irakurketa inpertsionala eginez gero, ezin da gramatikala izan. Bestela esanda, (56) perpausa pertsonala nahiz inpertsionala izan daiteke. (57), aldiz, beti pertsonala.⁵⁴

Euskaltzaindia, 1993: 209

⁵² Gramatikan ageri den izenburuak hori adierazten badu ere (9.2 Aditz motak kasu gramatikalen arabera), aztertzen diren *motetan* —batzuetan *mota* terminoa darabilte, beste batzuetan *sistema*— kasu inesiboa ere aipatzen da (objektu funtzioa duela esanez); edota itxuraz *nor* sintagma dirudiena berez *zenbat* galderari erantzuten dion sintagma adberbiala dela ere esaten da. Beraz, gauza desberdinak nahasten dira egindako sailetan.

⁵³ Esan behar da inpertsionala adierazteko beste modu batzuk ere badirela, ez dutenak aditzaren saila aldarazten (ikus Euskaltzaindia, 1993: 211-212, 9.2.2.3 puntua). Bertan irakur dezakegunez, hauetan bestelako murriztapenak dira jokoan; hala nola, perpausoko *nor* sintagma hirugarren pertsonakoa bakarrik izatea, edota, hala ez izatekotan, subjektua zehazgabea izatea, nahiz eta *dute* adizkia agertu esaldian.

⁵⁴ Gure ustez *nor* aditzei buruz dihardute berez. Izan ere, *nor-nork* sailekoak DA laguntzailearekin ageri direnean, beti dira inpertsionalak: *erabaki asko hartu dira / erabaki asko hartzen dira*.

Hortaz, esan dezakegu inbertsonaltasuna erraz defini daitekeela aditzaren sail sintaktikoa kontuan hartuta⁵⁵; alegia, aditzen semantikari inolako erreferentziarik egin gabe. Horrela, araua horrelaxe planteatzen da gramatikan:

[Nor (Nork)] -> [nor, inbertsonala]⁵⁶

Pasiboa eta **antipasiboak**, berriz, ondoko puntuan aztertzen dituzte: *1.2 Perpaus sailkapena predikatuen arabera*. Egiturok azaltzerakoan, aktibotik pasibora edo antipasibora aldatzerakoan gertatzen diren egitura-aldaketak azaltzen dituzte. Laburki esateko —eta euskarazko berezko pasibo eta antipasiboetara mugatuz—, egitura antipasiboek eta pasiboek egitura atributiboa dutela diote. Egitura atributibo horretan subjektu bati buruz predikatzen da. Pasiboan, subjektu hori egitura aktiboko objektua da; antipasiboan, berriz, egitura aktiboko subjektua. Hona gramatikako adibideak:

Pasiboa:

(106) Anttonek etxe hori egin du → (107) etxe hori, Anttonek egina da

Antipasiboa:

(110) nik gauza asko ikusi dut → (111) ni, gauza asko ikusia naiz

Erreziprokoak eta **erreflexiboak**, esan dugun bezala, izenordainen atalean aztertzen dira gramatikan. Ordea, atal honetan aztertzerakoan, egitura erreziprokoak eta erreflexiboak osatzeko baliabide sintaktiko bakarrari erreparatzen zaio: izenordain erreflexiboa (*-en burua*) edo erreziprokoa (*elkar*) duen egitura iragankorrari. Zeharka ordea, gauza bera adierazteko beste baliabidea ere aipatzen da: izenordainik gabeko erabilera (morfologikoki) iragangaitza.

Hala, badira aditzak baliabide bakarra onartzen dutenak, eta beste batzuk bi baliabideak onar ditzaketenak. Semantikari dagokionez, hala ere, ez dago argi bi baliabideez osaturiko egiturek berbera adierazten duten ala ez. Hona zer dioen Euskaltzaindiak (1993) bihurkariei buruz:

Gaur egun bada joera bat, hala ere, bihurkari hau baztertzea. Hori dela eta, zenbait hiztunek nahiago izaten du (103) esan (102) baino:

(102) neure burua ikusten dut egunero ispiluan

(103) egunero ikusten naiz ispiluan

⁵⁵ Hala ere, *nor-nork* eta *nor* aditzak bakarrik hartzen dira kontuan.

⁵⁶ Arau hau, hala ere, ez da oso garbia. Izan ere, esan badugu *nor* saileko aditzetan *nor* sintagma dela desagertzen dena, *nor inbertsonaleko nor* hori aukerazko gisa agertu beharko litzateke. Beste gauza bat da *nor* horrekin adierazi nahi izatea aditzaren laguntzaileak *izan* modukoa izan behar duela; hau da, *nor* sintagma egon ala ez *izan* laguntzailea ageri zaigula. Hala balitz, *Nor(Nork)* diotenean ere gauza bera pentsa genezake. Hots, aditz laguntzailea **edun* (DU) edo *izan* (DA) duten aditzak adierazi nahi dituztela. Ez dugu uste, ordea, hau zuzena denik; izan ere, *nor-nork* sailekoak diotenean, aditzak *nor* eta *nork* sintagmak —biak— agerian duten aditzei erreferentzia egiten diete.

Esanahiaren aldetik badirudi nahiko kideak direla bi perpaus horiek. Dena dela, hori ezin da beti egin, gauza bat baita “gizon horrek bere burua hil du” eta bestea “gizon hori hil da”. Aditzez aditz ikusi behar, horregatik, zer gertatzen den eta noiz aldatzen den esanahia.

Euskaltzaindia, 1993: 68

Orobat gertatzen da elkarkariekin:

Kontua da, alabaina, aldaketa hori ezin dugula beti egin. Esate baterako, (114) eta (115) ez dira berdinak esanahiaz.

(114) elkar hilko dugu gero

(115) gero hilko gara

Berdin beste bi hauek ere:

(116) elkar jantziko dugu gela horretan

(117) gela horretan jantziko gara

Beti bezala, aditzez aditz aztertu behar da arazo hau, eta zeinek onartzen duten aldaketa eta zeinek ez, ikusi.

Euskaltzaindia, 1993: 69-70

Kasu hauetan, argi geratzen denez, fenomeno sintaktiko berak ez die semantikoki berdin eragiten aditz guztiei. Horregatik, ezinezkoa da orokortzea, eta bestetik, ez dirudi semantika jakin batekin lotura dutenik.

Etxeparek *A grammar of Basque* (2001) liburuan hauen inguruko azterketa interesgarria aurkezten du (“Reflexives and Reciprocals”: 293). Bertan oraintsu esandakoak berrets ditzakegu (ez direla egitura orokorrak eta ez diotela semantika jakin bati kasu egiten). Etxeparek, hala ere, saio bat egiten du aditz batzuk zerrendatzen, aditzek erreziprokotasuna edo erreflexibotasuna adierazteko erabiltzen dituzten baliabideen arabera. Semantika desberdineko aditzek baliabide bera erabiltzen dutela dio; eta, Euskaltzaindiak dioenarekin bat etorritik, bi baliabideak onartzen dituzten aditzetan semantika desberdina dela ere bai. Gainera, bi fenomenoak (erreflexibotasuna eta erreziprokotasuna) aditzetan bat ez datozela erakusten du. Izan ere, zenbait aditzek erreflexibotasuna aditza iragangaiztuz egin badezakete ere, erreziprokotasunarekin ez da hala gertatzen:

Reciprocal reading also arise either through a specific reciprocal argument *elkar* ‘each other’ or by detransitivizing the verb. The distribution of the two strategies however, is somewhat different when compared to reflexivization. Detransitivizing is not available with verbs whose intransitive forms are inchoative (see above). It is possible with some of the stative verbs: *maite izan* ‘love’, *ezagutu* ‘know’, *miretsi* ‘admire’; but not others: *atsegin izan* ‘like’, or *hobetsi* ‘prefer’. (...) Intransitive reciprocals are also available with verbs expressing representation, such as *irudikatu* ‘picture’, *errepresentatu* ‘represent’ or *margotu* ‘paint’. Those predicates whose

reciprocal argument is mapped into a grammatical function which is not marked absolutive require an overt reciprocal argument, as reflexives do. Finally, among the set of predicates that allow both a reflexive argument and detransitivization, all complex events require an overt reciprocal (in this set I include *bota* ‘throw’, *libratu* ‘set free’, *armatu* ‘arm’, *babestu* ‘protect’, *engainatu* ‘deceive’, *prestatu* ‘prepare’, *saldu* ‘sell to the enemy’, *defendatu* ‘defend’. Other verbs such as *estimatu* ‘appreciate’, *zaindu* ‘take care of’ can be reciprocalized with the intransitive auxiliary. These are events which do not have an explicit endpoint.

Etxepare, 2001: 296

Etxeparek dioenaren arabera, badirudi erreflexibotasuna eta erreziprokotasuna bat datozela aditz batek absolutiboa ez den beste Kasu batez eraikitzen dituenean egiturok. Horrelakoetan beti da beharrezkoa erabilera iragankorra eta izenordain erreflexibo edo erreziprokoa: *burlatu* (instrumentala), *leporatu* (datiboa), *egotzi* (datiboa), *galdetu* (datiboa), *fidatu* (instrumentala), *sinetsi* (inesiboa)...

Vázquez et al.-ek (2000) ere, egitura hauetan oposizio semantikorik gertatzen ez dela diote. Besterik gabe, gaztelaniaz eta katalanez, aldaera iragangaitzeko erreferentziakidetasuna *se* elementu pronominalaren bidez osatzen dela diote, funtzioetan eta argumentu-kopuruan aldaketarik gertatu gabe:

En nuestra opinión, el sujeto de las oraciones reflexivas y recíprocas (124b, 125b) es el mismo que el de las construcciones no pronominales (124a, 125a)⁵⁷, es decir, se mantiene en la posición A1. Estas construcciones se caracterizan por el hecho de que el sujeto y el objeto (directo o indirecto) presentan correferencia de entidades, pero, desde nuestro punto de vista, las dos funciones están presentes en la oración. Según esto, el pronombre, que expresa esta correferencialidad, se corresponde con el argumento A2:

(126) [Magda_i]_{A1} [se_i]_{A2} lava

(127) [[Juana y Claudia]_i]_{A1} [se_i]_{A2} lavan

⁵⁷ Hauexek dira adibideak:

(124) a. [[Magda]_{A1} peina [a Magda]_{A2}
b. [Magda]_{A2} se peina

(125) a. [Juana]_{A1} peina [a Claudia]_{A2} y [Claudia]_{A1} peina [a Juana]_{A2}
b. [Juana y Claudia]_{A2} se peinan

La forma pronominal de las oraciones reflexivas y reciprocas es una consecuencia de referentes, que en español y en catalán se materializa con el uso de pronombres anafóricos, y no el resultado de un cambio en la disposición de los argumentos en la oración. Así pues, en las construcciones mencionadas no se da ninguno de los fenómenos característicos de las pasivas y las anticausativas (el cruce argumental y la elisión valencial), de modo que no deben considerarse esquemas equivalentes. En definitiva, la diferencia fundamental entre las construcciones reflexivas y reciprocas, por un lado, y las pasivas y anticausativas, por otro, es que en las primeras no se produce ninguna oposición semántica entre las oraciones alternantes (Khrakovsky 1979).

Vázquez et al., 2000:117-118

Ez dagoenez inolako oposizio semantikorik, ez dituzte alternantzia esanguratsutzat jotzen. Hala ere, aditzen sarrera lexikalean zein aditzek onartzen dituzten egiturek eta zeintzuk ez markatu behar litzatekeela azpimarratzen dute:

Aunque según lo expuesto, las construcciones reflexivas y reciprocas no serán analizadas como alternancia de diátesis en este libro, creemos que en la entrada léxica debe darse cuenta de qué verbos admiten estas construcciones.

Vázquez et al., 2000:117-118

Euskaraz ez dago marka morfologiko espliziturik erreferentziakidetasuna adierazteko. Erreferentziakidetasuna adizkiaren morfologiatik deduzi dezakegu, baina ez dago gaztelaniaz edo katalanez bezala aparteko elementu sintaktiko bat (klitikoa) horren berri ematen duena. Kasu hauetan, orduan, bi funtzioak, subjektua eta objektua, osagai sintaktiko berean — absolutiboz gauzatutako sintagman— daude. Erreflexiboetan, entitate bera da subjektua eta objektua, eta erreziprokoetan bi entitate desberdin. Hala ere, ez dugu hemen gehiago sakonduko, gai irristakorra izateaz gain, esan dugun bezala, ez duelako oposizio semantiko baten berri ematen.

Bukatzeko, esan dezagun, Euskaltzaindiaren gramatikan oposizio semantikoari buruzko aipamen bakarra *aditz inkoatibo* -> *aditz arazle* sail-aldaketa azaltzerakoan ageri dela. Hain zuzen egitura inpersonalarekiko desberdintasunak azaltzen dituztenean. Oposizio horren esanahia, ordea, ez da garbi geratzen. Badirudi, batetik, abiapuntuko egiturearekin duela zerikusia:

9.2.2.2 Konpara ditzagun ondoko bikote hauek:

(58) aitona zaharra *hil da*
aitona zaharra *hil dute* zakur basati horiek

(59) mendia elurrez *zuritu da*
lagun horiek beren etxeetako hormak kisuarekin *zuritu dituzte*

(60) putzua gaur goizean *bete da*
gure umeak ontzia urez *bete du*

- Bikote hauen artean gertatzen den oposizioa ez da goikoa⁵⁸ bezalako: han *nor-nork* sistematik *nor* sistemara pasatu bagara (inbertsonaltasuna eskuratuz horrela), hemen ez. Hemen, alderantzizko zerbait gertatu dela ematen du: badirudi lehenik *nor* sistema dugula oinarrian eta hortik *nor-nork* sistemara igaro garea. Ohart gaitezen, nolana ere, hasierako *nor* horrek ez duela nahitaez balio inbertsonala. Konpara ditzagun ondoko bi perpaus hauek:

(61) ontzia *bete da*

(62) ontzia gaur *saldu da*

Bigarrena bakarrik da inbertsonala, ikus daitekeenez, ezin baitugu pentsatu, perpaus horien aurrean, zehaztugabeko batek bete duela ontzia. Ontziak bakarrik bete daitezke (kanpoan utzi eta euria egiten badu, esaterako) baina ez dira bakarrik saltzen. Orduan, zer nolako aldaketa suertatzen da “zuritu da” bezalako batetik “zuritu du” bezalakora igarotzen garenean? Edo, bestela esanda, zer alde dago “aitona zaharra hil da” eta “aitona zaharra hil dute” bezalako esaldien artean?

Euskaltzaindia, 1993: 209-211

Eta bestetik, egitura iragankorrekiko harremanarekin du zerikusia. Harreman hori azaltzerakoan, aditzaren lexikoko semantikari egiten zaio erreferentzia.

- Aditzen semantika kontuan hartzen badugu, mota askotako aditzak ditugu (informazio hori, hain zuzen, hiztegiak eman behar digunez, ez dugu guk hemen kontuan hartuko, aditzen forma edo itxuran eraginik ez duen bitartean). Horietako batzuk *inkoatibo* deitzen ditugu. Aditz inkoatiboak dira egoera aldaketa adierazten dutenak, edo ekintzaren hasiera adierazten dutenak: “ontzia bete da” diogunean edo “aitona hil da” diogunean, argi ikusten da hor egoera aldaketa bat suertatu dela: hutsik zegoen ontzia lehenik, eta orain betea dago; aitona bizirik zegoen, baina orain ez da bizi.
- Aditz inkoatiboek *nork* sintagma bat hartzen dutenean, aditzaren ekintza berez suertatu beharrean norbaitek bortxaturik gertatu dela adierazi nahi dugu, aldaketa horrek eragileren bat izan duela edo, esanez. Honenbestez, aditz inkoatiboak aditz *arazle* bihurtzen direla esan daiteke. Hauxe da euskaraz dugun beste sail aldaketa argi bat:

[nor inkoatiboa -> nor-nork, arazlea]

[...] hemen argi utzi nahi dena da *nor* aditz baten eta *nor-nork* aditz baten arteko erlazioa, sarritan, aditz inkoatibo baten eta nolabaiteko aditz arazole baten artekoa izan daitekeela.

Euskaltzaindia, 1993: 209-211

⁵⁸ Inbertsonalaz ari dira hemen.

Honi segituta, aditz inkoatibotik sortutako aditz arazlea aldi berean inbertsonal bilaka daiteke, eta orduan egitura iragangaitza dugunean anbiguotasuna sortzen da (inkoatibo eta inbertsonalaren artean):

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu orain *nor-nork* sistemakoa dugun aditz hau inbertsonal bihur dezakegula, *nor* erakoa berriro. Baina orduan, jakina, anbiguetatea sortzen zaigu, *nor* erako aditz honen oinarrian aditz inkoatibo bat (*nor* sistemakoa) edo aditz arazle bat (*nor-nork* sistemakoa) inbertsonal bat izan baitezakegu:

(63) noiz hiltzen dira zerriak zure herrian?

Perpaus horrek bi interpretazio ditu: zerriak berez hiltzen dira, aditz inkoatiboa; edo zehazten ez dugun norbaitek zerriak hiltzen ditu, aditz arazlea.

Euskaltzaindia, 1993: 211

Hitz hauetan ikus daitekeenez, aditzek balio inkoatiboa badute (berez suertatzen den egoera-aldaketa edo ekintza-hasiera adierazten badute), aditz inkoatibotzat hartzen dira. Ondorioz, egitura iragangaitza hartzen da oinarritzotzat. Batzuetan, ordea, eragile bat onartzen da ekintza norbaitek bortxaturik gertatu dela adierazteko; horrek, orduan, *nor-nork* saileko bihurtzen ditu aditzak. Ondorioz, *nor-nork* sailekoak inbertsonal izan daitezkeenez, eragilea onartzen duten aditz inkoatiboetan, egitura inbertsonalaren eta inkoatiboaren artean anbiguotasuna sortzen da.

Hala ere, berezko balioa inkoatiboa izan eta gero arazle bihurtzeko aukera izatea, ez da guztiz garbi dagoen kontua. Gure ustez, zenbait kasutan (adib. puskatu DA/DU) ez dago garbi *nor* inkoatiboa edo *nor-nork* arazlea den jatorritzotzat jo behar dena. Bi balioak aditzaren lexikoan definituta edukiz gero (hots, erregela lexikoak baliatzeko beharrik izango ez bagenu) ez genuke bata edo bestea aukeratu beharrik izango (*puskatu*, inkoatiboa eta kausatiboa litzateke).

Gauza da azken sail-aldaketa hau azaltzeko semantikari egiten zaiola erreferentzia. “Oposizioa” zertan datzan, berriz, ez da garbi adierazten. Horixe da, hain zuzen, Levinen alternantziak euskaraz aztertzen ditugunean argitzen saiatuko garena.

Hemen azaldu dugun guztiagatik, honenbestez, inbertsonalak, pasiboak eta antipasiboak orokorrak direla esango dugu aditz askok onartzen dituztelako, baina ezaugarri sintaktikoak bakarrik islatzen dituztela. Erreflexiboak eta erreziprokoak aditz banakoari dagozkio eta alde horretatik ez dira orokorrak; semantikoki, berriz, ez dago hain argi zer inpliketzen duten. Hori dela-eta, hauek denak ez ditugu alternantzia esanguratsutzat hartu.

V.2.2.2 Kasu baztertuak

Levinen (2000) alternantzietan Kasu asko agertzen dira eta euskaraz ere argi dago Kasu asko daudela (areago guk automatikoki Kasutzat zer hartu dugun kontuan izanda⁵⁹). Azpikategorizazio aldetik Kasu guztiak aztertzea oso interesgarria dela dakigun arren, lanari muga bat jarri nahi izan diogu.

Horretarako, gure baliabide automatikoetara jo dugu, eta *Euskaldunon Egunkariko* corpusetik % 1etik gorako maiztasuna erakutsi dutenak bakarrik hautatu ditugu; gure ustez hortxe kokatzen da jauzi kuantitatiboa: % 1,28etik % 0,52ra pasatzen da maiztasuna (ikus V.3 irudia behean). Etorkizunean azterketa zehatzagoak egin ahal izango dira. Oraingo azterketa mugatu honen emaitzak, etorkizuneko azterketen oinarri izango direlakoan gaude.

Hona maiztasunari dagozkion emaitzak eta guk hautatutako 9 Kasuak lauki batez bereizita:

absolutiboa	% 41,79
ergatiboa	% 36,37
inesiboa	% 6,38
datiboa	% 3,61
ela_konpletiboa	% 2,70
instrumentala	% 1,77
soziatiboa	% 1,52
ablatiboa	% 1,34
adlatiboa	% 1,28
teko_konpletiboa	% 0,52
motibatiboa	% 0,18
kausalak	% 0,13
destinatiboa	% 0,06
prolatiboa	% 0,05
adl. bukatuzkoa	% 0,04
adl. norabide zuzenezkoa	% 0,0084
...	

V.3 irudia: Kasuen maiztasuna (lehenengo 16ak) eta guk hautatutako 9 Kasuak griseskaz bereizita.

⁵⁹ Gogora dezagun *Kasu* terminoa zentzu zabal batean erabiltzen dugula. [III. kapitulu](#)an esan dugunari jarriki, Kasuen artean sartzen ditugu: a) Kasu gramatikalak nahiz gainontzeko deklinabide-kasuak, (b) postposizioak (edo deklinabide-kasu konposatuak) eta (c) mendeko Kasu sinpleak nahiz konposatuak.

Ez dira asko Kasu-hautaketaren ondorioz gure azterketatik kanpo geratu diren alternantziak. Ondoko biak:

L 2.2 “Benefactive alternation”:

Adib.

Ing. Martha carved a toy for the baby / Martha carved the baby a toy

Eusk. Marthak jostailu bat zizelatu zuen haurarentzat / Marthak haurari jostailu bat zizelatu zion.

L 2.14 “As alternation”:

Adib.

Ing. The president appointed Smith press secretary / The president appointed Smith as press secretary

Eusk. Lehendakariak Smith idazkari hautatu zuen / *Lehendakariak Smith idazkaritzat hautatu zuen

baina

Neskame hartu dute Inixi / Neskametzat hartu dute Inixi (Euskaltzaindia, 1993: 492)

V.2.3 Hautatutako alternantzien azterketa

Baztertu ditugun alternantziak kontuan izanda, euskaraz onartzen diren 24 alternantzietatik 18 aztertuko ditugu hemen.

Levin, alternantziak sailkatzeko, beroietan parte hartzen duten egitura sintaktikoetan oinarritzen da. V.2.1 puntuko hitzak birgogoratzuz:

The alternations are subdivided into groups on the basis of the syntactic frames involved. The first group includes transitivity alternations, while the second group covers alternate expressions of arguments (mostly within the verb phrase) that do not affect transitivity. A third group includes alternations that arise when verbs permit “oblique” subjects. These major groups of alternations are followed by a variety of other types.

Alternantziak hiru sail nagusitan daude banatuta; gainontzeko sailak ez dira oso homogeneous. Lehenengo sailean, iragankortasunean aldaketak eragiten dituzten alternantziak sailkatzen dira. Bigarrenean, iragankortasuna aldatu gabe, AS barruan (normalean) egitura-aldaketak erakusten dituztenak. Eta hirugarrenean, aditzek zeharkako objektuak onartzen dituztenean gertatzen diren egitura-aldaketak.

Hona, esaterako, iragankortasunean eragina duten alternantziak nola definitzen dituen:

This section includes alternations involving a change in a verb's transitivity. These alternations take the form 'NP V NP' alternating with 'NP V' or else 'NP V NP' alternating with 'NP V PP'.

Levin, 1993: 24

Ikus daitekeenez, iragangaiztea batzuetan esaldiko elementu bat desagertzearen ondorioz gertatzen da, eta beste batzuetan abiapuntuko egituran objektu gisa ageri den IS PS bihurtzearen ondorioz. Horrela izanik, iragangaiztasun balentziala eta morfologikoa multzo berean aztertzen ditu.

Bigarren zatian, berriz, iragankortasunean aldaketarik eragiten ez duten egiturak (AS barruan gertatzen direnak normalean) aztertzen direla dio. Ordea, zenbait alternantziatan *transitive* edo *intransitive* jartzen du parentesi artean. Bere ustez, iragangaitz gisa markatzen dituen alternantzia hauek AS barruan landu daitezke, aditzak ez-akusatibotzat joz gero; hots, azalean ageri den IS subjektua berez sakoneko objektua dela kontsideratuta:

A few of these alternations also show a second form involving intransitive verbs that can be seen as parallel to the alternation with transitive verbs if the subject of the transitive verb plays the role of the object of transitive verb in the alternation. If these intransitive verbs are said to be unaccusative verbs, so that their surface subject is an underlying object, then both the intransitive and intransitive forms of these alternations included in this section can be said to involve alternate expressions of VP-internal arguments.

Levin, 1993: 45

Guk, aniztasun horren aurrean, nahiago izan dugu alternantziak ikuspegi zabalago batetik aztertu. Iragangaiztasun edo iragankortasun morfologikoari erreparatu gabe, eta aditza ez-akusatiboa den ala ez zehaztu beharrik gabe, alternantziako aldaeren artean argumentuen balentzia (osagai sintagmatiko kopurua) aldatzen den ala ez hartuko dugu kontuan. Hala, lehenengo sorta nagusian, aldaketa balentziala erakusten duten alternantziak aztertuko ditugu, eta bigarrean, aldaketa balentzialik gertatu gabe sintagma motak (Kasuak) aldatzen dituztenak.

Horretarako, argumentu gehien dituen aldaera hartuko dugu abiapuntutzat. Horrek ez du esan nahi horixe jotzen dugula arruntentzat. Sailkapena egiteko irizpide formal bat baino ez da. Beroietan gertatzen diren fenomeno semantiko eta sintaktiko zehatzagoak, hain zuzen, azalpenetan ikusiko ditugu. Honekin, Vázquez et al.-en (2000) jokaerarekin bat gatoz:

Habitualmente se ha considerado un esquema de subcategorización como el más básico y, en general, en los modelos gramaticales, se parte de una estructura para generar, a través de mecanismos diversos, el resto de los patrones de subcategorización. En nuestro modelo, si bien se

ha descrito un patrón de subcategorización y se obtienen los diferentes esquemas a través de reglas léxicas que actúan sobre el primero, se trata de una cuestión puramente táctica y, en ningún caso, se concibe como más elemental una construcción por encima de las otras.

Vázquez et al., 2000: 38

Hala, aldaketa balentzialak dituzten alternantzien artean ondokoak aztertuko ditugu⁶⁰:

- 1- Alternantzia kausatibo/incoatiboa (L 1.1.2.1)
- 2- “middle” alternantzia (L 1.1.1)
- 3- Objektu inespezifikoa (L 1.2.1) eta Objektu barneratuaren egitura (L 7.1)
- 4- Agentearen ezaugarri arrunta (L 1.2.6.1)
- 5- Instrumentuaren ezaugarri arrunta (L 1.2.6.2)
- 6- Zeharkako subjektuak: Denborazko subjektua (L 3.1) eta Kausa abstraktuzko subjektua (L 3.4)
- 7- Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa (L 1.2.4)
- 8- Alternantzia erreziproko sinpleak (L 2.5.1 eta L 2.5.4)
- 9- Gorputz-atalaren igoera (L 2.12), Atributu-objektua (L 2.13.2) eta Jabe-subjektua (L 2.13.4)

⁶⁰ Oraindaino, Levinek ematen dituen ingelesezko izenak erabili ditugu alternantziak izendatzeko; atal honetan, berriz, euskarazko itzulpena emango dugu. Horretarako, hauxe erabaki dugu: guztiak alternantziak direnez, ez dugu *alternantzia* hitza erabiliko bakoitza izendatzerakoan, salbu adjektiboz edo aposizioz osatuak direnetan (adib., alternantzia kausatibo/incoatiboa, alternantzia datiboa, “Middle” alternantzia...). Bestalde, Levinek batzuetan hitz zehatzak erabiltzen ditu alternantziak izendatzeko (*Spray/Load* alternation); kasu horietan geuk ere hitzok bere horretan utzi ditugu. Azkenik, termino bat itzultzeko zailtasunak izan ditugunean, ingelesezkoa utzi dugu, komatxo bikoitzen artean (adib. “middle” alternantzia). Bestalde, alternantzia hauetan aditz multzoak aipatzen ditu Levinek. Horiek itzultzeko ere hainbat irizpide erabili ditugu:

- Levinek aditz sail nagusiak izendatzen dituenean, izen orokorrak erabiltzen ditu gehienetan, eta izen hauek adierari lotuta daude. Adib., L 9 saila: “Verbs of putting”. Horrelakoak izendatzeko, parafraisi hau erabiliko dugu: “‘X’ adierako aditzak” (adibideari jarraiki, “‘jarri’ adierako aditzak”). Zenbait sail orokorren izenak ezagunak dira eta finkatuak daude dagoeneko; esaterako, “Psych-verbs” edo “Aspectual Verbs”. Halakoetan, euskarazko itzulpena emango dugu: “aditz psikologikoak”, “aditz aspektualak”. Aditz sail nagusi batzuetan, hala ere, aditz zehatz bat erabili du; esaterako, L 46 saila: “Lodge Verbs”. Hala izanik ere, guk adieraren parafraisia erabiliko dugu; hots, “‘ostatu eman’ adierako aditzak”. Aditz banakoaren itzulpena egiterakoan, orduan, delako adierari lotzen zaion euskarazko ordaina eman dugu. Esaterako, ‘jarri’ adierako aditzen arteko *put, jarri* da.
- Azpisailak izendatzen dituenean, berriz, aditz zehatzak erabiltzen ditu gehienetan (metahizkuntza darabil, alegia). Aditz zehatz horren bidez, azpisail horretan dauden aditzak molde (sintaktiko?) berekoak direla adierazten du. Adib., L 9 sail nagusiko L 9.1 *Put* verbs azpisaila. Horrelakoetan, Levinek darabilen hitz zehatzaren euskarazko itzulpena (sail nagusiko adierari lotua dagoena) baliatu dugu, ondoko parafraasian: “X motako aditzak”, hots, “‘jarri’ motako aditzak”. Hala ere, Levinek batzuetan ez du hitz bakarra erabiltzen azpisailak izendatzeko, eta bestelako parafraisien beharra dago. Esaterako, L 47.6: “Verbs of Spatial Configuration”, “espazioan kokatzea adierazten duten aditzak”. Azkenik, badira azpisail batzuk, sail nagusiak bezalaxe, izen orokorragoez izendatzen dituenak. Adib., L 45.3 azpisaila: “Cooking verbs”; horrelakoetan, “‘X’ adierako aditzak” parafraisia erabili dugu (“‘kozinatu’ adierako aditzak”, alegia). Kontuan izan behar da ingelesez molde berekoak diren aditzak euskaraz ez direla zertan izan. Horixe da, hain zuzen, atal honetan (IV.2.3) aztertu nahi duguna. Gu, besterik gabe, itzulpenak modu logiko batean egiten saiatu gara.

Balalentzia aldatu gabe, sintagma motak (Kasuak) aldatzen dituzten artean, berriz, ondokoak:

- 1- Substantzia/Iturria alternantzia (L 1.1.3)
- 2- Alternantzia konatiboa (L 1.3)
- 3- Preposizio lokatiboaren galera (L 1.4.1)
- 4- *With* preposizioaren galera (L 1.4.2)
- 5- *Spray/Load* alternantzia (L 2.3.1)

Hauetako bakoitza aztertzerakoan, lehenik Levinek alternantzia jakin horretan ematen duen adibidea eta azalpena emango dugu. Ondoren, alternantzian aipatzen dituen ingelesezko aditz batzuk hartu eta euskaratu egingo ditugu⁶¹, alternantziak euskaraz zenbaterainoko lekua duen ikusteko. Horrekin, gure ustez alternantzia horrek inplikatzeko dituen alderdi semantikoak definitzen saiatuko gara, eta ondorio gisa aditzen semantika orokorrari erreferentzia egiten dioten ala ez esango dugu. Azter ditzagun, bada, banan-banan proposatutako bi multzo handien barruan.

V.2.3.1 Aldaketa balentzialak dituzten alternantziak

1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa (L 1.1.2.1) (Causative /Inchoative Alternation)

Adib.

Ing. Janet broke the cup / The cup broke

Eusk. Janetek katilua puskatu zuen / Katilua puskatu egin zen

Levinen azalpena

Alternantzia kausatiboa/inkoatiboa deitura desberdinak jaso ditu autoreen arabera, hala nola, *alternantzia antikausatiboa* edota *alternantzia ergatiboa*⁶². Deiturak gorabehera, alternantzia hau erakusten duten aditzek egoera-aldaketa eta kokapen-aldaketa adierazten dute.

Ingelesezko aditzak

Alternantzia hau onartzen duten aditz multzoen artean hauexek sartzen ditu Levinek:

⁶¹ Aditz hauen itzulpena emateko, *Morris* hiztegiak (Morris, 1996) baliatu gara batez ere.

⁶² Smith-ek (1970) luze jarduten du terminologia-auzi honen inguruan.

- *Break Verbs (L 45.1)* (“*puskatu* motako aditzak”). Adib.:

break	45.1	hautsi, puskatu, apurtu
chip	45.1	ezpaldu, akastu, koskatu
crack	45.1	zartatu, printzatu, kraskatu
crush	45.1	zapaldu, zanpatu; zehatu, txikitu
rip	45.1	urratu

- *Bend verbs (L 45.2)* (“*okertu* motako aditzak”). Adib.:

bend	45.2	okertu, makurtu, gakotu, konkortu
crease	45.2	zimurtu
fold	45.2	tolestu, tolestatu

- *Roll Verbs (L 51.3.1)* (“*errodatu* motako aditzak”). Adib.:

revolve	51.3.1	biratu, jiratu
float	51.3.1	flotatu, igeri egon
roll	51.3.1	errodatu, pirritatu

- *Other alternating verbs of change of state (L 45.4)* (“Egoera-aldaketazko bestelako aditzak”): *abate* (*arindu*, *eztitu*), *blast* (*lehertu*), *blunt* (*kamustu*), *burn* (*erre*)...; adjektibo bat oinarri duten aditz eratorriak; kolore bat oinarri duten aditzak; hainbat atzizkiz eraturakoak: *-ify*, *-en*, *-ize*, *-ate* (euskaraz *-tu* atzizkiz egiten ditugunak, aurreko asko bezalaxe). Adib.:

abate	45.4	arindu, eztitu, baretu
blast	45.4	lehertu
blunt	45.4	kamustu
burn	45.4	erre
calcify	45.4	kaltzifikatu
change	45.4	aldatu
char	45.4	kiskali
chill	45.4	hoztu
clean	45.4	garbitu
close	45.4	itxi, hertsi
darken	45.4	ilundu
democratize	45.4	demokratizatu
desintegrate	45.4	desintegratu
dirty	45.4	zikindu
fill	45.4	bete

- *Amuse verbs (L 31.1)* (“*entretenu* motako aditzak”). Adib.:

abash	31.1	lotsatu
affect	31.1	hunkitu
afflict	31.1	nahigabetu, atsekabetu
affront	31.1	mindu, samindu
aggravate	31.1	sumindu, asaldatu, amorratu
amuse	31.1	entretenu, ongi pasarazi

Ohartzen bagara, hauen artean ez dago kokapen-aldaketarik adierazten duen aditzik. Baina liburuaren bigarren zatiko aditz sailak begiraturaz gero, hainbat motako aditzek

erakusten dute alternantzia kausatibo/inkoatiboa; horien artean kokapen-aldaketa adierazten dutenak:

- *Verbs of putting* (“‘jarri’ adierako aditzak”) *L 9* sail nagusiko *L 9.2* (*Verbs of Putting in a Spatial Configuration*, “ezpazioan modu jakin batean jartzea adierazten duten aditzak”) eta *L 9.6* (*Coil verbs*, “*lotu* motako aditzak”) azpisailak.. Adib:

dangle	9.2	zintzilikatu
hang	9.2	eseki, zintzilikatu
lay	9.2	zabaldtu, etzan
sit	9.2	eseri, jarri
stand	9.2	zutitu
coil	9.6	lotu
curl	9.6	biribildu, kiribildu, karabilkatu

- *Verbs of removing* (“‘kendu’ adierako aditzak”) *L 10* sail nagusiko *L 10.3* (*Clear verbs*, “*garbitu* motako aditzak”) azpisaileko aditz gehienak. Adib.:

clean	10.3	garbitu
clear	10.3	garbitu
empty	10.3	hustu

- *Verbs of Sending and Carrying* (“‘bidali’ eta ‘ekarri’ adierako aditzak”) *L 11* sail nagusiko *L 11.2* (*Slide verbs*, “*lerratu* motako aditzak”) azpisaila. Adib.:

bounce	11.2	bote/pinpa egin
move	11.2	mugitu
roll	11.2	biraka/pirritan eraman, pirritatu
slide	11.2	txirristatu, lerraka/txirristaka joan/eraman

- *Verbs of Combining and Attaching* (“‘konbinatu’ eta ‘lotu’ adierako aditzak”) *L 22* sail nagusiko *L 22.1* (*Mix verbs*, “*nahastu* motako aditzak”) eta *L 22.2* (*Amalgamate verbs*, “*elkartu* motako aditzak”) azpisailak. Adib.:

add	22.1	gehitu, gaineratu
blend	22.1	nahastu, nahasi
combine	22.1	konbinatu, nahasi
amalgamate	22.2	bateratu, elkartu
associate	22.2	elkartu

- *Verbs of Separating and Disassembling* (“‘bereizi’ adierako aditzak”) *L 23* sail nagusiko *L 23.1* (*Separate verbs*, “*bereizi* motako aditzak”) azpisaileko aditz batzuk; eta *L 23.2* (*Split verbs*, “*banatu* motako aditzak”) azpisaileko gehienak. Adib.:

distinguish	23.1	bereizi, nabarmendu
divide	23.1	zatitu, banatu

break	23.2	hautsi, puskatu
split	23.2	banatu; pitzatu, zartatu, urratu

- *Verbs of Creation and Transformation* (“‘kreatu’ eta ‘transformatu’ adierako aditzak”) sail nagusiko L 26.2 (*Grow verbs*, “‘hazi motako aditzak”) azpisaila; L 26.5eko (*Knead verbs*, “‘oratu motako aditzak”) zenbait aditz, eta L 26.6 (*Turn verbs*, “‘bihurtu motako aditzak”) azpisaileko gehienak.

develop	26.2	garatu
evolve	26.2	garatu
grow	26.2	hazi
bend	26.5	tolestu, makurtu, okertu
freeze	26.5	izoztu
convert	26.6	bihurtu, bilakatu
turn	26.6	bihurtu

- *Verbs Involving the body* (“‘Gorputzarekin zerikusia duten aditzak”) L 40 sail nagusiko L 40.7 azpisaila (*Suffocate verbs*, “‘ito motako aditzak”).

drown	40.7	ito
suffocate	40.7	arnasa estutu, arnasbehartu

- *Verbs of Grooming and Bodily Care* (“‘orraztu’ eta ‘gorputza zaindu’ adierako aditzak”) L 41 sail nagusiko L 41.1.1 (*Dress verbs*, “‘jantzi motako aditzak”) azpisaila. Adib.:

disrobe	41.1.1	erantzi
dress	41.1.1	jantzi

- *Verbs of Emission* (“‘igorri’ adierako aditzak”) L 43 sail nagusiko L 43.1 (*Verbs of Light Emission*, “‘argia igortzea adierazten duten aditzak”) azpisaileko aditz batzuk; 43.2 (*Verbs of Sound Emission*, “‘soinua igortzea adierazten duten aditzak”) azpisailekoak; eta L 43.4 (*Verbs of Substance Emission*, “‘substantzia igortzea adierazten duten aditzak”) azpisaileko batzuk. Adib.:

beam	43.1	(suak) distiratu, distira egin
blaze	43.1	(suak/eguzkiak/begieak) distiratu /distira egin
beat	43.2	kolpea eman, kolpatu
beep	43.2	txistukatu, txistu egin
pour	43.4	jario, jariatu, isuri
puff	43.4	kea bota

- *Verbs of Change of State* (“‘egoera-aldaketa’ adierako aditzak”) L 45 sail nagusiko L 45.3 (*Cooking Verbs*, “‘kozinatu’ adierako aditzak”) azpisaila.

boil	45.3	irakin
brown	45.3	gorritu, xigortu

- Lodge verbs (“‘ostatu’ adierako aditzak”) L 46 sail nagusiko aditz batzuk. Adib.:

lodge	46	ostatu
settle	46	jarri, kokatu

- *Verbs of existence* (“‘existitu’ adierako aditzak”) L 47 sail nagusiko L 47.3 (*Verbs of Modes of Being Involving Motion*, “Mugimendu jakin bat eginez egoteko modua adierazten duten aditzak”), L 47.5.2 (*Herd verbs*, “*taldekatu* motako aditzak”) eta L 47.6 (*Verbs of Spatial Configuration*, ‘Espazioan kokatzea adierazten duten aditzak’) azpisaileko batzuk. Adib.:

jiggle	47.3	astindu, mugitu
rock	47.3	kulunkatu, zabunkatu
amass	47.5.2	metatu, pilatu
cluster	47.5.2	multzokatu, taldekatu, bildu
hang	47.6	zintzilikatu, eseki
kneel	47.6	belaunikatu

- *Verbs of Lingering and Rushing* (“‘atzean gelditzea eta presa izatea’ adiera duten aditzak”) L 53 sail nagusiko L 53.2 azpisaila (*Verbs of Rushing* ‘presa izatea’ adiera duten aditzak”). Adib.:

hasten	53.2	bizkortu, azkartu, lastertu, aurreratu
hurry	53.2	presaka/bizkor ibili

- *Aspectual Verbs* (“aditz aspektualak”) L 55 sail nagusiko L 55.1 azpisaileko (“*Begin verbs*”, “*hasi* motako aditzak”) zenbait aditz. Adib.:

begin	55.1	hasi
end	55.1	bukatu, amaitu

Hau ikusita, nahasia ageri da autore honek eman nahi duen ideia: alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen duten aditzak egoera- eta kokapen-aldaketa adierazten dutela dio. Alternantzia aztertzerakoan batez ere egoera-aldaketa adierazten duten sailak aipatzen ditu. Aldiz, bigarren partean osatu dituen aditz sailak begiratuta, hauetako askok alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen dutela ikusten dugu. Eta hau zergatik egiten duen ez dugu oso ondo ulertzen. Beharbada, aditz multzo hauentzat alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzeak ez du, bere irudiz, hainbestearainoko garrantzirik, beste alternantzia batzuk direlako oinarritzokoagoak. Gauza nabarmena da, behintzat, alternantzia hau oso orokorra dela, multzo semantiko askoko aditzak hartzen baititu bere baitan. Bestalde, argi dago ere ez dela garbi geratzen benetan zertan datzan alternantzia hau onartzen duten aditzek egoera- eta kokapen-aldaketa adieraztea.

Euskaraz

Euskarari dagokionez, Levinek aipatzen dituen aditz sailtako askok onartzen dute alternantzia hau, eta azpimarratu behar da, asko eta asko eratorpen bidez sortuak direla. Beraz, euskaraz ere alternantzia hau oso orokorra da. Hala ere, hau gauza jakina da, berau izan baita, beharbada, hizkuntza guztietan gehien aztertu den alternantzia, eta denek onartzen dutena alternantzia semantikoki esanguratsu gisa. [V.2.2.1](#) puntuan ikusi dugu Euskaltzaindiak (1993) dioena. Bestalde, euskal hiztegietan DA/DU modura adierazi ohi direnak ditugu horrelakoxeak. Beraz, bi egitura hauek aspaldi agertu dira harremanetan beste hizkuntzetan ez ezik, euskaraz ere.

Alternantziaren azterketa

Levinek dioena gorabehera, eta bigarren zatian egiten dituen aditz sailak kontuan hartzeak dituen mugak ikusita (hemen eta [IV.3 puntuan](#) argi geratu denez), alternantzia honen inplikazio semantikoak sakonago aztertu behar dira.

Literatura asko dago idatzia alternantzia honen eta beronetan inplikaturik dauden fenomeno semantikoez. Batzuk aipatzearen, hor ditugu Pustejovsky (1995), Talmy (1985), Croft (1997), Mendikoetxea (1999a), Reinhart (1997), Levin & Rappaport (1992b), Gràcia (1989) eta Pesetsky-ren (1987) lanak.

Guk ez dugu gehiegi sakonduko hemen; besterik gabe hurbilagoetik ezagutzen ditugun autore batzuen hitzak geureganatu eta gure lanerako aukera bat egingo dugu.

Hasteko, sintaxiari lotuta batez ere, Levinek ondokoa dio alternantzia honetan parte hartzen duen aditzei buruz:

This pattern has led some researchers to suggest that this verbs are unaccusative in their intransitive use; that is, the surface subject in the intransitive use has been claimed to be an underlying object”.

Levin, 1993: 25

Horrexegatik sailkatzen du autore honek alternantzia hau “aldaera iragankorraren objektuak eta aldaera iragangaitzaren subjektuak aditzarekiko erlazio semantiko bera duten” alternantzien artean.

Gràcia et al. (2000) lanean, aditzen tipologia mintzagai dela, ildo beretik mintzo dira *Tipos sintácticos* puntuaren barruan aztertzen duten *Inacusativo* kontzeptuari buruz (nahiz eta terminoa aldaera iragankorrik erakusten ez duten aditzetara mugatzen duten):

Inacusativo: Término adoptado por la gramática generativa para indicar aquellos verbos no transitivos que carecen de argumento externo. El sujeto superficial de estos verbos es un sujeto

derivado, esto es, proviene de la posición de objeto (es un argumento interno). De un modo más específico, nosotros reservamos este término exclusivamente para aquellos verbos que, cumpliendo la condición citada, además no poseen la contraparte transitiva [...]:

caer / caure / erori, jausi

[...]

Gràcia et al., 2000: 9

Hain zuzen, aldaera iragankorra duten aditzak *ergatiboak* deitzen dituzte (Adib.: *Juan rompió el vaso / El vaso se rompió*), eta esplizituki diote, gainera, euskaraz aditz *ergatiboak* direla subjektuari Kasu absolutiboa esleitzen dioten aditzak, pareko iragankorra dutenak.

Ergativo: Término adoptado por la gramática generativa para indicar aquellas formas verbales no transitivas que carecen de argumento externo; el sujeto de estos verbos es un sujeto derivado, esto es, proviene de la posición de objeto (es un argumento interno cf. Burzio, 1986). De un modo más específico —que es el que adoptamos aquí—, se limita a los verbos que, cumpliendo la condición citada, además poseen una contraparte transitiva. Esta es la característica que los distingue de los inacusativos. En vasco son verbos ergativos los intransitivos con contraparte transitiva que asignan caso absoluto al sujeto.

Gràcia et al., 2000: 10

Hortaz, aditzak *inacusativo* edo *inergativo* gisa izendatu, fenomeno sintaktikoa berdina da aldaera iragankorra dutenetan eta ez dutenetan.

Egitura hauen semantikari buruz mintzatzerakoan, berriz, *incoativo* edo *anticausativo* eta *causativo* terminoak aipatzen dira.

Gràcia et al.-ek (2000) hauxe diote *causativo* terminoari buruz:

Causativo: Cuando hablamos de construcciones causativas, nos referimos a aquellas estructuras sintácticas en las que, desde un punto de vista semántico, hay un argumento agente-causa y otro argumento afectado por la acción causada por el primero [...]:

- (11) hervir Alguien hierve la leche
 (<alguien causa> la leche hierve)
- romper El niño rompe el vaso
 (<alguien causa> el vaso se rompe)
- [...]

Es evidente que no todas las formas verbales transitivas pueden entrar en construcciones causativas, por más que tengan un argumento agente, pues deben contener, además de un argumento agente “causante”, un argumento “causado”:

- (12) leer El lee un libro
 (*<él causa> la libro se lee)
- lavar Juan lava los platos
 (*<Juan causa> los platos se lavan)

Gràcia et al., 2000: 11-12

Antzekoa diote Vázquez et al.-ek (2000) *kausatibitateaz* ari direla:

Existe una relación entre el concepto de causatividad y el de afectación: los verbos causativos presentan un objeto claramente afectado (87a), mientras esto no ocurre con los verbos agentivos (87b) vs. (87c)⁶³.

Vázquez et al., 2000: 102

Hauxe, berriz, Gràcia et al.-ek (2000) *incoativo* kontzeptuari ematen dioten definizioa:

Incoativo: Utilizamos este término para referirnos al valor semántico-aspectual que caracteriza a las formas sintácticamente ergativas:

- (14) romperse / trencar-se / apurtu
 fundirse / fondre's / urtu

Gràcia et al., 2000: 12

Vázquez et al.-ek (2000) *anticausativo* terminoa darabilte *incoativoren* ordez. Honela mintzo dira zehazki *construcción anticausativa prototípica* deitzen duten egitura azaltzerakoan:

Esta construcción se corresponde con un tipo de oración típicamente intransitiva donde el constituyente que ocupa la posición de sujeto se corresponde semánticamente con la entidad afectada.

Vázquez et al., 2000: 109

Hala, alternantzia kausatibo/incoatiboa onartzen duten aditzek bi egitura hauen ezaugarri semantikoak dituzte.

⁶³ Hauexek dira adibideak:

- (87) a. El viento rompió los cristales
 b. Juan limpió la mesa
 c. El niño bebió

Esan behar dugu, hala ere, *limpiar* aditza agentibotzat jotzea gehiegi orokortzea iruditzen zaigula.

Verbos con alternancia transitivo/ergativo (o causativo/incoativo):

Son los verbos que aceptan tomar parte de dos construcciones distintas. Una es la que corresponde a una estructura sintácticamente transitiva y semánticamente causativa y la otra es ergativa desde el punto de vista sintáctico e incoativa desde una perspectiva semántica:

romper (romper, romperse)
fundir (fundir, fundirse)
hervir (hervir, hervir)

Gràcia et al., 2000: 12

Hortaz, argi dagoenez, egitura kausatibo batean *kausaa* gisa jokatzeko duen elementu batek eta honen ondorioz *ukitua* gertatzen den beste batek hartzen dute parte.

Ikus dezagun, bada, segidan, zer dioten bi kontzeptu hauei buruz (*kausaa* eta *gai ukituaz* alegia).

Vázquez et al.-ek *kausaren* azterketa sakona egiten dute, eta *kausaa* zuzena (*causa directa*) eta zeharkakoa (*causa indirecta*) bereizten dituzte. Guk, hala ere, *causa directaren* definizioari erreparatuko diogu, beraiek dioten bezala, hauxe delako aditzaren semantikari lotuta dagoena; bestea berriz, ez⁶⁴. Hona, beraz, *causa directaren* definizioa:

Causa directa: Definimos causa directa como aquel participante que provoca la acción denotada por el verbo, que puede ser tanto causativo como agentivo, pero que actúa sin la intervención de un mediador [...].

Vázquez et al., 2000: 104

Ikusten dugun bezala, *kausaa* agentiboa edo kausatiboa izan daiteke.

Gai ukituari dagokionez, ordea, gauzak ez daude garbi. Hortxe ditugu xehetasunetarako Tenny (1987) eta Pesetsky (1990) autoreen lanak, besteak beste. Vázquez et al.-en 2000 lanean, esaterako, ez dute *gai* hau modu sakonean aztertzen:

⁴En este libro no vamos a tratar el tema de la afectación en detalle, ya que sobrepasaría los objetivos que nos hemos marcado.

Vázquez et al., 2000: 101

Eta oro har ondokoa diote:

⁶⁴ Xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo bedi aipatu laneko 103-106 orrietara. Dena den, ekar ditzagun bi hitz *kausaa* ez-zuzeneko egituraz eta balio inkoatiboaz mintzo diren pasartetik: "Consideramos oraciones anticausativas solamente aquellas que son variantes alternantes de los esquemas causativos directos que hemos visto en el apartado anterior, y no de los indirectos."

Por lo que se refiere al objeto de estas construcciones [egitura kausatibo arruntez ari dira], éste puede estar más o menos afectado por el evento. Los objetos no afectados tienen, en general, menos relevancia en la frase que los afectados, hasta el punto de que habitualmente sólo los primeros pueden llegar a eliminarse.

Vázquez et al., 2000: 101

Alegia, objektua zenbat eta ukituago, orduan eta garrantzitsuago esaldian. Aldiz, afektazioak garrantzia galdu ahala, esaldian ez agertzeko aukera ere areagotu egiten da. Hori, hain zuzen, erabat lotuta dago [Objektu inespezifikokoaren alternantziako](#) objektuarekin.

Alternantzia kausatibo/inkoatiboa egoera- eta kokapen-aldaketa aditzek erakusten dutenez, oro har, ukitutasuna horrekin lotzen da: gai bat egoeraz edo kokapenez aldatzen denean, ukitua dela esaten da. Beraz, azalpena nahikoa ziklikoa dela esan daiteke.

Vázquez et al-ek (2000) dioten bezala, ez da beharrezkoa aldaera kausatiboa edukitzea egitura inkoatibo baten aurrean gaudela esateko:

¹⁸Consideramos también la posibilidad de identificar construcciones anticausativas incluso en los casos en que no es posible asociar ningún tipo de esquema causativo alternante.

Vázquez et al., 2000: 109

Gure ustez, orobat gertatzen da alderantziz ere. Hots, egitura bat kausatibotzat jo daiteke nahiz eta ez eduki aldaera inkoatiborik.

Ondorioak

Ikusitako guztia kontuan izanda, kausatibitatean parte hartzen duen subjektuari erreferentzia egiteko, ez dugu uste beharrezkoa denik ekintza nahita egiten den ala ez, gizakia den ala ez... zehaztea. Askotan aditz berak bietarikoak onartzen ditu, eta horretaz gain, *kaus*a gizakia izanda ere, borondatez jarduten duen ala ez esatea ez da beti erraza, askotan esaldiaren testuinguruak berak ematen baitu horren berri. Hala, alternantzia kausatibo/inkoatiboko subjektua bestetik gabe *kaus*a dela esango dugu, horrekin biziduntasuna eta borondatasuna markatu gabe.

Objektuari dagokionez, berriz, *gai ukitua* dela esango dugu. Era berean, *kausan* bezalaxe, ez dugu bereiziko *gai ukitu* hau biziduna edo bizigabea den; askotan aditz berak bietarikoak onar baititzake. Honek esan nahi du, alde batetik ez dugula *esperimentatzaile* terminoa erabiliko “gai ukitu biziduna” adierazteko (sarrerako kapituluan rol tematikoen zerrenda eman dugunaren definizioaren kontra), eta bestetik, honelako *gai ukituak* ez direnak bestelako gaitzat joko ditugula⁶⁵.

⁶⁵ Beste alternantziak aztertzean garbiago ikusiko da bereizketa.

Kausa, euskaraz, Kasu ergatiboz adierazten da eta *gai ukitua* absolutiboz. Hala ere, gure ustez, alternantzia honetan benetan *afektibotasuna* da azpimarratzen dena. Izan ere, sintagma ergatiboa desagertu arren, *kausa* beste Kasuren batekin adieraz daiteke esaldian. Horrek esan nahi du *kausa* osagaia ez dela zertan desagertu, baizik eta desfokalizatu egiten da *gai ukituari* garrantzia emateko. Esandakoa bat dator Vázquez et al.-ek (2000) egitura inkoatiboaz diotenarekin:

Algunos autores, como Zubizarreta 1987, interpretan la construcción anticausativa prototípica como un tipo de oración en la que la causatividad está ausente, ya que consideran que la acción que denota se realiza de forma instantánea, sin la intervención de un elemento causante. Desde nuestro punto de vista, la posibilidad de expresar la causa del evento mediante un complemento adjunto (103b)⁶⁶ es un argumento en contra de esta hipótesis. Así pues, no entendemos el concepto de anticausatividad como la ausencia del elemento causa sino como un cambio en la focalización de los participantes de la frase, cambio en el que la causa pierde relevancia en beneficio de la entidad que resulta afectada por la acción.

Vázquez et al., 2000:109

Hortaz, alternantzia honetan *argumentuen* balentzia aldatzen da, baina *kausa* osagaiak ez du zertan desagertu. Argumentuen balentzia aldatzea, kausaren desfokalizazioaren fruitu da.

Azkenik, ontzat ematen dugu alternantzia hau egoera- eta kokapen-aldaketa aditzek erakusten dutela. Baina gure ustez, egoera edo kokapena den aditzaren barruko semantikak zehazten du, ez alternantziak. Alternantziak berez *aldaketa* bat gertatzen dela jartzen du agerian. Hori horrela izanik, alternantzia honetako bi egitura hauetan ondoko osagai semantikoak eta Kasuak ditugu oro har:

kausA_ERG; gai ukitua_ABS -> aldaera kausatiboa

kausA(_ERG); gai ukitua_ABS -> aldaera inkoatiboa

Era berean, esan dugun bezala, ez da beharrezkoa aditz batek bi egiturak erakutsi behar izatea osagai semantiko hauek izateko. Ondorioz, egoera- edo kokapen-aldaketa adierazten duten aditz orok izango ditu osagai hauek gutxienez.

2 “Middle” alternantzia (L 1.1.1) (Middle alternation)

Adib.

Ing. Janet broke the crystal / Crystal breaks at the slightest touch

Eusk. Janetek ispilua puskatu zuen / Ispilua ukiturik leunenarekin puskatzen da

⁶⁶ Hauxe da adibidea:

(103b) La pared se ha ennegrecido (a causa de la humedad)

Levinen azalpena

Alternantzia honek erakusten dituen ezaugarriak ondokoak dira: ez dago denboraren inongo erreferentziarik; esaldian agerian ez dagoen agente bat ulertutzat jotzen da; eta askotan, moduzko elementu edo adberbioren batekin batera agertzen da.

Hiru ezaugarri hauek, alternantzia kausatibo/inkoatibotik bereizten dute. Hau da, alternantzia kausatibo/inkoatiboko aldaera inkoatiboak, ez du agente ulertu bat behar; izan dezake denboraren erreferentziarik; eta ez du moduzko elementurik edo adberbiorik beharrezko. Hala ere, zenbait autorek zalantzan jartzen dute bi aldaera hauek benetan desberdinak diren edota bat bezala hartu behar diren. Kontua da alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen duten aditzek “middle”a ere onartzen dutela, baina, aldiz, badira “middle”a erakusten duten aditz asko ez dutenak alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen. Gogora dezagun, bestalde, alternantzia honen inguruan Guerssel et al.-ek (1985) ziotena. Autore hauen iritziz, zenbait aditzek, adierazten duten ekintza gauzatzeko tresna bat dute beharrezko, eta ondorioz baita tresna horri eragingo dion eragile bat ere. Hori dela eta, alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen ez duen baina “middle” alternantzia onartzen duen aditz bat, *cut* (*moztu*) esaterako, oinarrian bi argumentuko aditz iragankorra da, eta ondorioz ez da inoiz alternantzia inkoatiboan azalduko; aldiz, biak onartzen dituen *break* (*hautsi*) bezalako aditz bat, oinarrian argumentu bakarreko aditza da, gero eragile edo kausa bat erantsita iragankor bilakatzen dena. Ohar gaitezen, Levinek berak “middle”a ez duela alternantzia kausatiboen artean sailkatzen; besterik gabe, egitura iragankorreko objektuak eta iragangaitzeko subjektuak aditzarekiko erlazio semantiko bera agertzen duten alternantzien artekotzat jotzen du.

Ingelesezkako aditzak

Levinek alternantzia hau azaltzerakoan, ez du inongo klase semantikorik aipatzen. Horrek esan nahi du, “middle” alternantziak ez duela, antza, aditz sailak osatzeko gaitasunik. Guk, halere, “middle”a onartzen duten aditzak ikuskatu ditugu, eta autoreak dioen bezala, alternantzia kausatibo/inkoatiboan zerrendatzen ez diren aditzak badira:

- *Verbs of Cutting* (“‘moztu’ adierako aditzak”) L 21 sail nagusiko L 21.1 (*Cut verbs*, “*moztu* motako aditzak”) eta L 21.2 (*Carve verbs*, “*zaticatu* motako aditzak”) azpisailak. Adib.:

chip	21.1	ezpaldu
cut	21.1	moztu, ebaki
saw	21.1	zerratu, zerraz moztu
snip	21.1	guraizez/artaziez moztu
carve	21.2	zaticu, zaticatu, ebaki
chop	21.2	aizkoraz moztu, txikitu, xehatu
crush	21.2	zehatu, txikitu, birrindu

- *Verbs of Combining and Attaching* (“‘konbinatu’ eta ‘lotu’ adierako aditzak”) L 22 sail nagusiko L 22.3 (“*Shake verbs*”, “*eskua eman* motako aditzak”) eta L 22.4 (“*Tape verbs*”, “*lotu* motako aditzak”) azpisailak. Adib.:

beat	22.3	irabiatu
cluster	22.3	multzokatu, taldekatu, bildu
mass	22.3	pilatu, metatu
shake	22.3	eskua eman (?), bostekoa eman(?); astindu(?), eragin(?)
button	22.4	(botoiak) lotu, botoitu
cement	22.4	zementatu, zementoa jarri
clip	22.4	klipaz lotu (?), klipa jarri (?)
tape	22.4	zintaz lotu (?)

- *Verbs of Separating and Disassembling* (“‘bereizi’ adierako aditzak”) 23 sail nagusiko L 23.3 (“*Disassemble verbs*”, “*askatu* motako aditzak”) azpisailak. Adib.:

disassemble	23.3	askatu
partition	23.3	zaitu, banatu
unbutton	23.3	botoiak askatu
unzip	23.3	kreamailera askatu

Baina badira ere alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen duten aditz sailak “middle”a onartzen ez dutenak. Esaterako⁶⁷:

- *Break Verbs* (L 45.1) (“*puskatu* motako aditzak”)
- *Bend verbs* (L 45.2) (“*okertu* motako aditzak”)
- *Roll Verbs* (L 51.3.1) (“*errodatu* motako aditzak”)
- Other alternating verbs of change of state (L 45.4) (“Egoera-aldaketazko bestelako aditzak”)
- *Amuse verbs* (L 31.1) (“*entretenu* motako aditzak”)
- L 9.2 (*Verbs of Putting in a Spatial Configuration*, “ezpazioan modu jakin batean jartzea adierazten duten aditzak”)
- *Verbs of removing* (“‘kendu’ adierako aditzak”) L 10 sail nagusiko L 10.3 (Clear verbs, “*garbitu* motako aditzak”) azpisailako aditz gehienak;
- *Verbs of Sending and Carrying* (“‘bidali’ eta ‘ekarri’ adierako aditzak”) L 11 sail nagusiko L 11.2 (Slide verbs, “*lerratu* motako aditzak”) azpisaila
- *Verbs of Creation and Transformation* (“‘kreatu’ eta ‘transformatu’ adierako aditzak”) sail nagusiko azpisailakoak.

⁶⁷ Jo bedi alternantzia kausatibo/inkoatibora aditz sail hauen adibideak ikusteko.

- *Verbs of Grooming and Bodily Care* (“‘orraztu’ eta ‘gorputza zaindu’ adierako aditzak”) L 41 sail nagusiko azpisailetakook
- *Verbs of Emission* (“‘igorri’ adierako aditzak”) L 43 sail nagusiko azpisailetakook.
- *Lodge verbs* (“‘ostatu’ adierako aditzak”) L 46 sail nagusietakook
- *Verbs of existence* (“‘existitu’ adierako aditzak”) L 47 sail nagusiko azpisailetakook.
- *Verbs of Lingering and Rushing* (“‘atzean gelditzea eta presa izatea’ adiera duten aditzak”) L 53 sail nagusiko azpisailetakook
- *Aspectual Verbs* (“aditz aspektualak”) L 55 sail nagusiko azpisailetakook

Hau ikusita, zalantzarria gertatzen da benetan “middle” alternantzia orokorragoa den.

Nolanahi ere, ez dirudi alternantzia bereizgarria.

Euskaraz

Euskaraz “middle” alternantzia ageri zaigu, Levinek zerrendatzen dituen sailtako aditz askok euskaraz ere hala jokatzeko baitute.

Alternantziaren azterketa

Levinen aditz sailak gorabehera, “middle” alternantzia kausatibo/inkoatiboa baino orokorragoa dela uste dugu, eta, Guerssel et al.-ek (1985) diotenarekin bat, badirudi aditzak adierazten duen ekintza gauzatzeko beharrezkoa dela tresna eragingo duen gizaki bat. Zentzu horretan, inbertsonaletatik edo pasiboetatik hurbilago ikusten dugu. Diferentzia bakarra da aldaera iragangaitzean elementu adverbial bat eransten dela, eta benetan azpimarratu nahi dela gertakizuna nola gauzatu den, norik gauzatu duen axola gabe. Hala izanik, inbertsonala, pasiboa eta antipasiboa esan dugun bezalaxe, uste dugu ez dela hartu behar alternantzia esanguratsu gisa. Vázquez et al.-ek (2000), hain zuzen, alternantzia pasiboen artean aztertzen dute egitura hau, eta alternantzia kontzeptuaren zehaztapenean (V.1 atalean) esan dugun bezala, egitura hauek ezin dira kausatibo/inkoatiboen maila semantiko berean aztertu.

3 Objektu inespezifikoa (L 1.2.1) (Unspecified Object Alternation) eta Objektu barneratuaren egitura (L 7.1) (Cognate object construction)

Alternantzia hauek batera aztertu ditugu, gure ustez bi alternantziek islatzen duten fenomeno semantikoa antzekoa delako. Izatez, Levinek alternantzia batean eta bestean zerrendatzen dituen aditz batzuk berdinak dira.

Ikus dezagun lehendabizi Levinek (1993) alternantzia hauetan jartzen dituen adibideak eta ematen dituen azalpenak. Eta ondoren, Vázquez et al.-en (2000) lanean esaten dena.

Objektu inespezifikoaren alternantzia:

Adib.

Ing. Mike ate the cake / Mike ate (Mike ate a meal or something one typically eats.)

Eusk. Mikek opila jan zuen / Mikek jan zuen

Objektu inespezifikoaren alternantziako objektuak, delako aditzarentzat tipikoa den zerbait adierazten du. Halere, eztabaidak daude objektu honen interpretazioari dagokionez. Eztabaidagai da ere objektu hau esplizituki errepresentatuta dagoen, maila sintaktikoan nahiz adierazpide lexikoan. Objektuari ematen zaion interpretazioa dela-eta —tipikoa izatea, alegia—, *Definitugabeko objektua (Indefinite object)* nahiz *IS definitugabearen ezabaketa (Indefinite NP deletion)* ere deitu izan zaio alternantzia honi. Alternantzia hau *jarduera* adierazten duten aditz askok onartzen dute⁶⁸.

Hona bere hitzak:

This alternation is manifested with a range of activity verbs. Despite the lack of overt direct in the intransitive variant, the verb in the variant is understood to have as object something that qualifies as a typical object of the verb; however, there is some discussion concerning how best to characterize this interpretation. There is also some debate about whether the understood object is or is not explicitly represented at some level of syntactic or lexical representation. This alternation also often goes by names such as “indefinite object” or “indefinite NP deletion” alternation.

Levin, 1993: 33

⁶⁸ Esan behar da zenbait autorek (Van Valin & Lapolla, 1997, besteak beste) objektu ageriko zenbait erabilera inespezifikatutzat jotzen dituztela, objektu hau zehaztugabea delako. Adib.: *Jonek etxea margotu du* (espezifikoa) vs *Jonek etxeak margotzen ditu* (inespezifikoa). Ez Levinek (1993) ez Vázquez et al.-ek (2000) ez dituzte kasu hauek objektu inespezifikoaren alternantzia aztertzen. Azken hauek diotenez, halakoetan gertakizun-egitura aldatzen da. Aldaketa hauek argumentuen ezaugarri inherenteek eragiten dituzte, eta ez dute eraginik aditzaren azpikategorizazioan. Nolanahi ere, guk ere ez ditugu horrelako kasuak alternantzia honetan sartu, eta objektua esaldian ez agertzearekin bakarrik lotu dugu.

Objektu barneratuaren egitura:

Adib.

Ing. Sarah smiled / Sarah smiled a charming smile /?? Sarah smiled a smile

Eusk. Sarah-k barre egin zuen / * Sarah-k barre xarmagarri bat barre egin zuen / * Sarah-k barre bat barre egin zuen

Ing. Sarah sang / Sarah sang a ballad / Sarah sang a song

Eusk. Sarah-k abestu zuen / Sarah-k balada bat abestu zuen / Sarah-k abesti bat abestu zuen

Zenbait aditzek objektu bat dute barneratuta, baina, objektu horren modifikazio edo espezifikazio modura, onar dezakete objektu bat perpausean. Objektu hau batzuetan objektu barneratua bera da, baina hau izan ezean, objektu barneratuaren hiponimoa da. Ikus bere hitzak:

Some basically intransitive verbs take as their object a noun that is zero-related to the verb—a so-called “cognate object.” Usually, the cognate object itself does not appear to make a contribution to the meaning of the sentence. However, cognate objects are best when they are modified by an adjective or other modifier, and the modifier makes a contribution to the meaning of the sentence: the modifier functions rather like an adverbial. Most verbs that take cognate objects do not take a wide range of objects. Often they only permit a cognate object, although some verbs will take as object anything that is a hyponym of the cognate object.

Cognate objects are found with many verbs of non verbal expressions, as well as with a variety of other activity verbs.

Levin, 1993: 95-96

Konpara ditzagun bi alternantziak.

Hasteko, bi alternantzietan, oinarritzotzat hartzen den egitura desberdina da. Inespezifikazioan objektudun egituratik abiatzen da, eta bigarren aldaeran objektua desagertu egiten da. Objektu barneratuaren egituren objekturik gabeko egituratik abiatzen da, eta gero aldaera gisa jartzen ditu objektu barneratua sintaktikoki gauzaturiko egitura eta objektu barneratuaren modifikazioa adierazten duen beste egitura bat.

Bestetik, objektu inespezifikokoan zalantzan jartzen da objektua mailaren batean (sintaktikoan ala lexikoan) esplizituki errepresentatu behar den. Objektu barneratuaren egituren argi dago objektua “lexikoki” txertatua dagoela aditzean, eta beraz, errepresentatuta geratzen da bertan.

Azkenik, objektuaren interpretazioan ere termino desberdinak erabiltzen dira: inespezifikazioan, objektu *tipikoa* aipatzen da, eta objektu barneratuan, objektu barneratua bera edo honen *hiponimoa*.

Vázquez et al.-ek (2000) objektu inespezifikoaz diotenari erreparatzen badiogu, ikusten dugu Levinek objektu barneratuari buruz diotenaren antzekoa planteatzen dutela. Objektu inespezifikoa *tipikoa* baino gehiago *orokorra* dela diote, hiperonimo modukoa, hain zuzen.

La tipología de construcciones relacionadas con el fenómeno de la infraespecificación parte de la etiqueta verbal que tradicionalmente se ha asociado al verbo (transitivo vs. intransitivo). Los objetos que participan en la alternancia de infraespecificación se caracterizan por aparecer subespecificados, ya sea porque se ha utilizado un hipónimo (en (155a), *chocolate* es hipónimo de *comida*) o porque van acompañados de un modificador (en (155b), *muy sabrosa*):

- (155) a Julia comía chocolate
b Julia comía una comida muy sabrosa

Vázquez et al., 2000: 130

Autore hauen ustez, ez da ohikoa objektu orokor hiperonimo hau sintaktikoki gauzatzea, semantikoki ez-arrunta gertatzen delako:

Así la aparición del objeto genérico da lugar a oraciones semánticamente anómalas, como es el caso de (156):

- * (156) Julia comía comida

Vázquez et al., 2000: 130

Horrekin lotuta, ez dute bereizten objektua lexikoki txertatuta dagoen ala ez, eta ondorioz, ez dituzte desberdintzat jotzen objektu barneratua duten aditzak eta besteak:

Como sabemos la frontera de la transitividad es muy difícil de establecer: no existe un criterio claro y coherente que permita asignar la etiqueta de *intransitivo* a un verbo como *cantar* (147) y *transitivo* a un verbo como *leer* (148):

- (147) a. Montse canta un bolero
b. Montse canta

- (148) a. Juan lee un libro
b. Juan lee

Desde nuestro punto de vista nos hallamos ante el mismo fenómeno: la posibilidad de expresión o eliminación, dependiendo del punto de vista que se adopte, de un objeto, la presencia del cual especifica de forma más detallada la acción que denota un verbo. Según esto, en este trabajo hemos convenido considerar que tanto los objetos como los verbos que presentan estas características son del mismo tipo y que, por tanto, no se les debería asociar nombres distintos.

Vázquez et al., 2000: 126-127

El tipo de objetos ejemplificados en estas oraciones⁶⁹ suelen recibir el nombre de *objetos cognados* (Givón 1993, Levin 1993) o *objetos* o *acusativos internos* (Pottier 1970, Cano Aguilar 1981) y suelen ser propios de verbos que expresan actividades.

Vázquez et al, 2000: 129

Beraz, autore hauen iritziz, objektua sintaktikoki gauzatzeko eta ezabatzeko aukera, eta aldaketa sintaktiko horren bidez aditzera ematen den oposizio semantikoa da garrantzitsuena (espezifikoa vs. orokorra).

Hain zuzen ikusten dugu, bai alternantzia batean bai bestean, Levinek *activity verbs* direlakoak aipatzen dituela alternantzia hauetan parte hartzen duten aditz mota arrunt gisa, eta baita Vázquez et al.-ek ere (*verbos que expresan actividades*).

Guk Vázquez et al.-ekin (2000) bat eginez, uste dugu fenomeno sintaktiko eta semantikoa berdina dela, garbiki eratorriak direnetan eta ez direnetan ere. Ondorioz, alternantzia bera tratatzen da bi kasuetan, eta, hortaz, ez da aditzen artean bereizketarik egin behar.

Ingeleseko aditzak

Esandakoaren arabera, alternantzia inespezifikoaren barruan aditz ez-eratorriak (edo itxuraz halakoxeak direnak) aipatzen ditu, eta objektu barneratuaren barruan aditz eratorri garbiak.

Horrela izanik, oro har ez ditu sail semantikoak aipatzen, baizik eta aditz banakoak. Aditz banako horiek, liburuaren bigarren zatian, sail semantiko batzuetan daude. Ikus alternantzia inespezifikoaren barruan zerrendatzen dituen aditz banakoak eta horiek zein sailetan dauden⁷⁰:

- *bake* ('labean egin'). L 26.1 (Build verbs), L 26.3 (*Verbs of preparing*)
- *carve* ('zura/harria landu', 'tailatu'). L 26.1 (Build verbs)
- *clean* ('arraina, oilaskoa... garbitu'). L 26.3 (*Verbs of preparing*)
- *clear* ('bikorrak kendu'). L 26.3 (*Verbs of preparing*)
- *cook* ('haragia... prestatu, egin'). L 26.3 (*Verbs of preparing*)
- *crochet* ('gakorratzez egin'). L 26.1 (*Verbs of preparing*)
- *chop* ('aizkoraz moztu, txikitu, xehatu'). L 21.2 (*Carve verbs*)
- *drink* ('edan'). L 39.1 (*Eat verbs*)
- *eat* ('jan'). L 39.1 (*Eat verbs*)

⁶⁹ Hauexek dira esaldiak:

(152) a. La debutante cantó un aria
b. La debutante cantó

(153) a. Mi abuelo ha dormido la siesta
b. Mi abuelo ha dormido

⁷⁰ Hemen aditz banakoen itzulpenak emango ditugu bakarrik; sailenak ez.

- *fish* ('arrantza egin'). L 35.1 (Hunt verbs)
- *hunt* ('ehizatu'). L 35.1 (Hunt verbs)
- *read* ('irakurri'). L 14 (Learn verbs)
- *sing* ('abestu'). L 26.7 (Performance verbs)
- *sketch* ('zirriborratu', 'zirriborroa egin'). L 25.2 (Scribble verbs)
- *study* ('ikasi'). L 14 (Learn verbs)
- *sweep* ('erratzaz garbitu', 'erratzatu'). L 10.4.1 (Manner subclass)
- *teach* ('irakatsi'). L 37.1 (Verbs of transfer of a message)
- *type* ('idazmakina idatzi'). L 25.2 (Scribble verbs)
- *vacuum* ('xurgagailuz garbitu'). L 10.4.1 (Manner subclass)

Aipatzen dituen sailak, berriz, ondokoak:

L 40.2 *Verbs of nonverbal expression* (batzuk). Adib.:

chortle	40.2	gustura barre egin
cry	40.2	negar egin
growl	40.2	marmar egin, purrust egin
jeer	40.2	iseka egin, burla egin, trufa egin
laugh	40.2	barre egin
moan	40.2	kexuka/erostaka esan
smile	40.2	irribarre egin
whistle	40.2	txistu egin

L 51.5: *Waltz verbs*. Adib.:

boogie	51.5	boogia dantzatu, boogian aritu
cancan	51.5	kankana dantzatu, kankanean aritu
dance	51.5	dantzatu
waltz	51.5	baltsa dantzatu, baltsan aritu

Other verbs:

dream:	amets egin
fight:	borrokatu
live	bizitu
sing:	abestu
sleep:	lo egin
think:	pentsatu

Ikus dezakegunez, oro har mantentzen da esandakoa: objektu barneratua dute azken hauek, eta besteek ez. Baina badira aditzak bi alternantzetan aipatzen direnak (adib., *sing*). Bestalde, objektu barneratuko azken sortan (*Other verbs*) ez dago garbi objektu barneratua dagoen ala ez (adib. *live*, *think*). Azkenik, objektu inespezifikoa onartzen duten aditz asko L 26 sorta nagusiko aditzak dira: *Verbs of creation and transformation*. Eta hauek, azken batean, *jarduerak* dira.

Euskaraz

Euskaraz, *objektu barneratuaren egituran* zerrendatzen dituen aditzen artean, asko ‘iz. + egin’ modukoak dira. Horrelako aditzek, ez dute oro har inolako objekturik onartzen; objektuak, aditzarekin batera, unitate bat osatzen du, baina sintaktikoki existitzen da egituran, eta hortaz ez dago beste inongo objektuentzako lekurik. Objektu berori modifikatzen da, baldin eta modifikatzerik baden: ? *Sarah-k barre eder bat egin zuen*. Beste aditz batzuetan, ingelesez aditzean txertatuta dagoen izena, euskaraz aparteko sintagma batean adierazi behar da; hori da *Waltz verbs* delakoetan gertatzen dena. ‘iz + egin’ egitura ez dutenak, berriz, jokamolde laxoagoa dute (*Other verbs* sortakoek, alegia); hots, objektu gehiago onartzen dituzte.

Objektu inespezifikoko aditzen artean, berriz, bada gauza ageri bat: hauetako aditz asko eta asko euskaraz hitz bat baino gehiagoz —hau da, aditza gehi beste osagai sintagmatikoren batez— itzuli beharra dago askotan⁷¹. Osagai sintagmatiko hau *tresna/baliabidea/modua* adierazten duen osagai sintaktiko bat da askotan:

crochet → ‘gakorratzez egin’

chop → ‘aizkoraz moztu, txikitu, xehatu’

sweep → ‘erratzaz garbitu’ (baina *eskobatu* ere bai)

type → ‘idazmakinez idatzi’ (baina *pikatu* ere bai (Ipar.))

Aparteko osagai hori batzuetan objektua da (objektu barneratuaren egituran bezalaxe):

fish → ‘arrantza egin’

knit → ‘puntua egin, gakorratz-lana egin’

Beraz, ikusten da euskaraz eta ingelesez objektuak aditzarekin bat egiteko moduak ez direla beti berdinak (‘iz. + aditza’ vs. ‘aditza (ø?)’) ez dela modu berean txertatzen aditz guztietan. Eta bestetik, badela osagai bat (*tresna/bitartekoa/modua* adierazten duena gehienetan) ingelesez askotan aditzean txertatuta dagoena eta euskaraz ez. Moduzko elementu hau lexikoki txertatua dagoenean, objektua ezabatzeko aukerak ugariagoak dira. Gainontzean, juxtu alderantzizkoa gertatzen dela esango genuke; euskaraz bederen. Eta jakina, objektua aparteko osagai sintaktikoa denean, ezinezkoa da ezabaketa⁷².

⁷¹ Gainera, zenbaitetan, euskaraz hauetako batzuek ez dute adiera “berezia” edo egina jaso. Adib. *crochet*: ‘gakorratzez egin’; *chop*: ‘aizkoraz moztu, txikitu, xehatu’; *nurse*: ‘-en erizain izan’).

⁷² Horixe da, hain zuzen, Levinek inespezifikazio-kasuen artean aipatzen dituen zenbait alternantzietan gertatzen dena, eta horrexegatik alboratu direnak Aldezabal et al.-en (2002) barne-txostenean. Hona alternantziok:

Objektu ulertuzat gorputz-atala duen alternantzia (L 1.2.2):

I flossed my teeth / I flossed

‘Hortzak zetazko hariz garbitu nituen / zetazko hariz garbitu nituen’

Eta Instrukziozko inperatiboa (L 1.2.8):

Bake the cake for 30 minutes / Bake for 30 minutes

Baina honetaz gain, ohar batzuk egin beharrean gaude; areago, euskara bezalako hizkuntza *pro-dropen* aurrean. Izan ere, Levinek alternantzian jartzen duen adibide zehatzari begira jarrita (*Mike ate a cake / Mike ate*), euskaraz, printzipioz elipsi-kasu bat baino ez dugula ematen du (*Mikek opila jan zuen / Mikek jan zuen [opila]*). Gure ustez, kasu honetan objektua ezabatu egiten da eta horrek *Mike* automatikoki foko edo galdegai bihurtzen du, aditzaren aurrean suertatzen delako. Hala —beste inolako zeinu testualik gabe—, *Mikek*, eta ez beste inork, *opila jan duela* adierazten da. Gauza bera gertatzen da Levinek objektu inespezifiko alternantzien artean zerrendatzen dituen beste aditzekin: *edan*, *irakurri*, *marraztu*, *brodatu*, *pintatu*, *jokatu*, *josi*... Aditz hauek guztiak aipaturiko egituran jartzen baditugu, elipsiaren interpretazioa da hartzen duguna:

Mikek ardoa *edan* zuen / Mikek *edan* zuen
Mikek liburua *irakurri* zuen / Mikek *irakurri* zuen
Mikek irudia *marraztu* zuen / Mikek *marraztu* zuen
Mikek letra *brodatu* zuen / Mikek *brodatu* zuen
Mikek pareta *pintatu* zuen / Mikek *pintatu* zuen
Mikek pilota-partida *jokatu* zuen / Mikek *jokatu* zuen
Mikek botoia *josi* zuen / Mikek *josi* zuen

Argi dago, orduan, ingelesez aditzera ematen den inespezifikazioaren interpretazioa ezin dela berdin-berdin gauzatu euskaraz (objektuaren ezabaketa hutsez).

Ingelesez objekturik gabeko egiturek beti esanahi berezia dute, hizkuntza hau *pro-drop* ez izaki, sintaxi agerian objekturik ez agertzea ez baita arrunta; horrelako kasuetan, elipsi-prozesuz azal ezin daitezkeen bestelako fenomenoak ditugula badakigu.

Euskaraz, gauzak ez dira hain garbiak, elipsi bidezko elementuen desagerpena oso fenomeno arrunta baita; eta hori horrela izanik, batzuetan zail gertatzen da elipsi-kasuak elipsi ez direnetatik bereiztea⁷³.

Gure ustez, euskaraz ingeleseko balioa lor dadin —hau da, aditz hauek objekturik gabe azaldu eta zentzu inespezifiko bat izateko—, aditza, lehenik eta behin, ohitura adierazten duen elementuren batekin agertu behar da: partizipio ez-burutua, *ohi*, *izan*, *beti*... Eta bestetik, subjektuak mintzagai hanpatua izan behar du. Subjektua mintzagai hanpatua izanik, perpausean geratzen den beste elementua, aditza, galdegai bihurtzen da (edota aditzaren baieztapena edo ukapena). Horrela, aditzak adierazten duen ekintza azpimarratzen da, eta objektua ulertutzat ematen da alde zurretik aipatu beharrik gabe:

‘Eduki opila labean 30 minutuz / Eduki labean 30 minutuz’

⁷³ Horixe gertatzen zaigu arestiko oin-oharrean aipatu ditugun alternantzietan.

Mikek, jaten du / Mikek, jan egiten du / Mikek, ez du jaten

Horrek esan nahi du, behintzat aztertu ditugun aditz hauen kasuan, inespezifikazio-kasuak esaldiko osagaien mintzaira-egiturarekin zein aspektu kontuekin oso lotuta daudela, eta ezin dugula inespezifikazioaz hitz egin esaldiko antolaketa markatua eta bestelako ezaugarriak (aspektua kasu honetan) kontuan hartu gabe. Esan behar da, objektua lexikoki barneratua duten aditzetan baldintza hau ez dela beharrezkoa, hain zuzen, arruntena objekturik gabe azaltzea delako, eta ondorioz ez dago elipsirako dudarik.

Objektu inespezifikoa frogatzen duen beste baliabide bat ere bada: *objektu absolutuaren* erabilera. Inespezifikazioa onartzen duten aditzek *objektu absolutua* (*gutxi, asko...*) onartzen dutela esaten da (Cano Aguilar, 1981; Gràcia et al., 2000). Nolabait, espezifikatu ez den objektuaren neurri orokorra, zehaztugabea, ematen du, eta, azken batean, objektua agertzen ez denez, badirudi aditzak adierazten duen ekintza dela modifikatzen duena, maiztasuna adieraziz, nolabait.

Beraz, inportantea da bereiztea zer den elipsia eta zer inespezifikazioa aditzak bere testuinguruan aztertzen direnean. Lehenengoa bai baita testuala⁷⁴, bestea, berriz, aditzari eta bestelako ezaugarriari (mintzaira-egiturari eta aspektuari, alegia) lotuta dago.

Vázquez et al.-ek (2000) ere bi kontzeptu hauen arteko bereizketa egin beharraz ohartarazten dute, eta horretarako Lyons-en (1968) definizioaz baliatzen dira:

Creemos necesario diferenciar el fenómeno de supresión de constituyentes que define la alternancia de infraespecificación con el que se produce en la elipsis. [...]. La característica definitoria de la elipsis según Lyons 1968 es que siempre es posible recuperar el elemento elidido, es decir, se trata de un elemento que ya ha aparecido anteriormente y, por lo tanto tiene un carácter definido. [...]. Frente a la elipsis, en la infraespecificación el contenido no expresado se recupera de forma general, es decir, no se identifica el referente exacto, de manera que se establece un contraste de significado entre dos construcciones en las que se opone un evento específico a otro infraespecificado.

Vázquez et al., 2000: 132

Hitz hauek onarturik, inespezifikazio eta elipsia ondoko modura defini ditzakegu, laburki:

Inespezifikazioa, aditz-balentziako elementuren bat kentzen delarik, egitura espezifikoko baten eta egitura orokorrago baten artean oposizio semantiko bat gertatzean datza. Elementu-kentze hau, autonomia da, hau da, ez da aurrekaririk beharrezko elementu-kentzea gertatu ahal izateko. Adib.:

⁷⁴ Euskaraz bada tesi bat elipsi mota zehatz bat tratatzen duena, Amundarain-en (1997) *Juntadura eta elipsia euskaraz*. Bertan, juntadura-egituretan elipsia gertatzeko agertzen diren mekanismo gramatikalak azaltzen dira.

Pelloc idatzi egiten du --> badakigu Pellok *prosa, poesia* edo horrelako zerbait idazten duela.

Elipsia, aditz-balentziako elementuren bat kentzean datza, baina elementu hori beti da berreskuragarri, aldez aurretik aipatu delako testuan; alegia aurrekari bat duelako, eta honenbestez, erreferente zehatz bat duelako. Ondorioz, elipsidun egitura eta elipsigabea gauza bera dira. Adib.:

(Liburua; mahai gainean dago;) Pellok ekarri du [pro=liburua];

Pelloc ekarri du esaldia bakarrik hartuz gero, ezin dugu jakin Pellok zer ekarri duen, baina badakigu testuinguruaren arabera gauza zehatz bat dela eta aditz horren objektua dela. Azken batean *pro-drop* fenomenoaren aurrean gaude.

Elipsiaren harira, bada argitu beharreko beste puntu bat: testuinguru estralinguistikoa oinarritutako elipsia edo *elipsi pragmatikoa* deritzana. Esan dugun bezala, elipsiak beti du erreferente zehatz bat, baina batzuetan erreferente zehatz hori testuan ez baizik eta testutik kanpo dago. Ekar dezagun, berriz ere, Vázquez et al. (2000) autoreek diotena elipsi mota honen inguruan:

En ocasiones, para recuperar el contenido del elemento elidido a través de la elipsis, es necesario recurrir al contexto extralingüístico, es decir, al conocimiento pragmático.

Vázquez et al., 2000: 133

Ikus ditzagun autore hauek erabiltzen dituzten zenbait adibide euskarara egokituta:

Nire aitak ez du edaten

Gainditu dut azkenean

Ez dut ikasi / Pasaia Lizeoan ikasi nuen⁷⁵

Irabazi dugu

Kasu hauetan guztietan, jarrera sozial baten ondorioz sortutako ohiturak direla-eta, esaldi hauen azpian dauden objektuak, *alkohola, azterketa/proba, ikasgaia/batxilergoa*, eta *kirol-probaren bat* direla jakin dezakegu arazo handirik gabe; eta, ez, adibidez, *ura, depresioa, josten* edota *dirua*. Hau da, oso testuinguru zehatzetan gaude. Hortaz, hasiera batean, objektu tipikoko inespezifikazio-erabilera baten aurrean gaudela dirudien arren, berez ez da hala, erreferentea zehatza delako (eta ez orokorra):

⁷⁵ Izatez, zenbait hiztunek kasu honetan *ikasi* baino gehiago *estudiatu* erabiltzen dute, *estudiatu* beti estudiatzen baita *ikasgaia/batxilergoa*. Hau horrela denik ukatu gabe, balio berori *ikasirekin* ere ontzat ematen dugu guk.

Tanto en la elipsis de tipo pragmático como en la infraespecificación, el argumento elidido no ha sido especificado en el contexto, por lo que ambos fenómenos pueden confundirse. Las restricciones de selección que asocia el verbo a sus argumentos nos permiten diferenciar estos dos tipos de elisiones. Así, para que se considere un caso de infraespecificación, es necesario que el elemento suprimido pueda relacionarse con una clase de objetos. Así, el verbo *comer* admite como argumento tipos de comida, el verbo *bailar* tipos de baile, etc. En el caso de la elipsis pragmática, en cambio, el objeto elidido se corresponde con una entidad muy concreta, como hemos visto en los ejemplos de (163)⁷⁶.

Vázquez et al., 2000: 133

Gauza da, nahiz eta elipsi-kasu baten aurrean egon, testugintzari begira objektu hori berreskuratu nahi badugu, ez dugula joan beharko testuko inongo aurrekariren bila. Eta objektu hori nolabait aditz horren erabilera jakin horretan suposatutzat eman behar da. Hala, elipsi pragmatikoaren kasuan, testuinguru estralinguistikoaren bidez eskura dezakegu objektu elidituaren interpretazioa.

Cano Aguilar-ek (1981), *objeto sobreentendido* izena ematen dio pragmatikari loturiko elipsi mota honetako objektuari. Guk, Cano Aguilarri jarraituz, objektu mota honi *objektu jakina* deituko diogu euskaraz.

Fenomeno hau gertatzen denean, aditzak balio berezituago bat hartzen du; hots, polisemia sortzen da. Izan ere, nahiz eta aditzak normalean era askotako objektuak onartu, objektu jakineko erabileran balio semantiko baten espezializazioa adierazten du, portaera sintaktiko jakin batez baliaturik (argumentu baten desagertzeaz, alegia):

En estos casos los verbos pueden considerarse polisémicos, puesto que admiten un número amplio de argumentos y, en ocasiones, pueden presentar una especialización del sentido. Cuando esto ocurre, puede ser que el verbo adopte un comportamiento peculiar y permita la elisión del complemento, que es lo que ocurre en el tipo de elipsis pragmática.

Vázquez et al., 2000: 133

Ondorioz, aditz batek balio semantiko orokor bat badu ere, elipsi pragmatikoaren eraginez, bestelako balioa har dezake. Esaterako, *galduk* edota *errek*, oro har egoera-aldaketa adierazten dute (alternantzia kausatibo/inkoatiboak agerian jartzen duenez: *liburua galdu dut/da*; *kotxea erre dut/da*), baina *Errealak Athleticen kontra galdu zuen* [partidua] eta *aitak ez du erretzen* [tabakoa] esaldietan, balio hori galdu eta *jarduerazkoak* bilakatzen direla esan daiteke.

⁷⁶ Hauexek dira (163)ko adibideak:

- a. Pedro abandonó
- b. Juan sacó
- c. He aprobado

Eta hauexek a, b eta c esaldiei dagozkien objektu jakinak: *la pelea*, *pelotas*, *asignatura/examen*.

Honenbestez, hiru gauza bereizi behar dira:

- objektu orokorreko inespezifikazioa,
- objektu jakineko (*sobreentendido*) inespezifikazioa edo elipsi pragmatikoa,
- eta elipsi testuala.

Izan ere, hirurak desberdinak dira testugintzari begira, eta honenbestez *corpusa* aztertzeari begira:

- Elipsia testuari lotuta dago, eta, beraz, eliditutako osagaia hortik berreskura daiteke.
- Inespezifikazio orokorra eta inespezifikazio jakina (edo pragmatikoa) ezin dira testutik berreskuratu, baina biek ez dute gauza bera adierazten:
 - objektu inespezifikatuak objektu orokor bat adierazten du;
 - elipsi pragmatikoan, ageri ez den objektua jakina da, eta horrek beste balio bat ematen dio edo eman diezaioke aditzari (polisemia sortuz).Hauek elkarren artean bereiztea, ordea, ez da beti erraza⁷⁷.

Honek esan nahi du, objekturik gabeko egitura iragankorrek anbiguoak direla aditz batek aztertutako hiru fenomenoak adieraz ditzakeenean.

Alternantziaren azterketa

Ikusitako guztiarekin, argi dago objektu inespezifikoaren (edo barneratuaren) alternantziak zein oposizio semantiko adierazten duen:

La infraespecificación consiste en la no expresión sintagmática de un miembro de la valencia combinatoria del verbo, produciéndose una oposición semántica entre una construcción más específica y otra más general.

Vázquez et al., 2000: 133

⁷⁷ Uste dugu objektu desagertze hauek badutela harremana Oregik (1975) —eta baita Euskaltzaindiak (1993) ere— aditzen sailkapena egiterakoan aipatzen duten *nor izunarekin*; edo bederen *nor izuneko aditz gisa sailkatzen dituzten zenbait aditzen objektuarekin*. Nor izuneko aditzak azaltzeko ondokoa diote EGLUn: “Sistema honetako [nor-nork sistemaz ari dira] aditz batzuek, ordea, ez dute benetako nor sintagmarik onartzen, nahiz itxuraz adizkia nor sintagma dugunean bezalakoxea izan” (206. or). Aipatzen diren *nor izuneko aditz batzuk* begiratura, objektu barneratukoak badira (adib. *afaldu, bazkaldu...*); eta bestalde, baita *nor-nork erabilera arrunta* ere badutenak (adib. *ikasi: josten ikasi du / matematika ikasi du*). Aditz hauetaz, orduan, ezin esan daiteke ez dutela onartzen objekturik, zenbaitetan objektua zilegi baita. Bestalde, ez dira aipatzen alternantzia honetan ikusi ditugun beste aditz batzuk, zeintzuek zenbaitetan ez duten nor sintagmarik erakusten eta objektu jakin bat “ezkututzen” duten (*erre, galdu, jokatu...*). Oregik aditz mota estatusa ematen dio objektu izuneko aditzari. Gauza da zenbait aditz jokaera bikoitzekoak direla. Ondorioz, aditz-forma bera mota desberdinekoa litzateke, objektua hartzen duen ala ez kontuan hartuta. Ordea, alternantzia honen azterketan ikusi dugu, erabilera bikoitzeko aditz batzuetan motaren aurrean baino gehiago informazio orokor / informazio espezifiko oposizioaren aurrean gaudela. Oregik, seguruenez, beti nor izuna erakusten duten aditzak ditu gogoan.

Egitura batean aditzaren balio orokorra ematen da ekintza azpimarratuz, eta bestean ekintza espezifikatzen da. Hori dela eta, ez elipsi testualak ez pragmatikoak ez dute oposizio semantiko orokor hau adierazten.

Bestalde, argi geratu da objektu inespezifikatua onartzen duten aditzek —eta areago objektu barneratua dutenek— objektu mugatuak onartzen dituztela; eta horrek semantikoki mugatuagoak bihurtzen ditu. Bai Levinek (1993) bai Vázquez et al.-ek (2000) diotenez, aditz hauek *jarduera* (*activity*) adierazten dute, eta hain zuzen *jarduera* horretan tipikoa den zerbait da inespezifikatzen edo barneratzen den objektu hori⁷⁸. Sintaxian objektua agertzen denean, objektu inespezifikokoarekiko edo barneratuarekiko hiponimoak izaten da. Beraz, lehenik eta behin, objektu hiperonimo hori (aditz batzuetan lexikoki txertatua dagoena, eta beste batzuetan aditzaren semantikaren baitan) zein den jakitea izango da garrantzitsuena, eta gero zeintzuk diren bere hiponimoak. Hala, delako aditzaren objektu-aukerak murriztuko genituzke. Halako erlazio semantikoak dituzte aztergai, besteak beste, hiztegiak eta lexikografia lanetan diharduten ikertzaileek. Ixa taldean bertan, Sarasolaren *Euskal Hiztegia* oinarri hartuta, halako harreman semantikoak aztertzen eta definitzen dihardugu, Wordnet-en (Fellbaum, 1998) moduko euskarazko sare semantikoa eraikitzekeko urrats garrantzitsu gisa. Jakina, aditzean bertan baldin badago objektua, hiperonimia-homonimia erlazio hori agerikoa izango da, printzipioz.

Guk, inespezifikazioaren edo objektu barneratuaren alternantzia onartzen duten aditzak *jarduerazko* aditzat hartuko ditugu. Ekintza horretan subjektuaren esperimintatzeak garrantzia duela uste dugu; aldiz, objektuaren parte hartzeak galdu egiten du garrantzia. Van Valin & Lapolla-k (1997) eta Mendikoetxeak (1999a), esaterako, horrelako objektuak ekintzaren parte hartzailetzat ez direla jo behar esaten dute. Gure ustez, ordea, Vázquez et al.-ekin (2000) bat eginez, objektu honen izaerak ez du kentzen aditzaren semantikaren baitakotzat hartzea; besterik gabe inespezifikaziorako gaitasuna azaltzen dute:

Desde nuestro punto de vista, la condición interna de estos constituyentes no los excluye de la caracterización semántica de los verbos, sino más bien explica la posibilidad de omisión.

Vázquez et al, 2000: 126

Hala, *jarduera* honetan ekintza burutzen duena ekintzaren *esperimintatzailea* dela esango dugu⁷⁹, eta desager daitekeen objektu hori *gaia*. Honela, aurreko alternantzia

⁷⁸ Vázquez et al.-ek (2000) objektu inespezifikokoaren alternantzia sakonki aztertzen badute ere, gero ez dute erabiltzen beren sailkapen semantikoan, sailkatzen dituzten aditzen artean ez daudelako guk hemen *jarduerazkotzat* jo ditugun aditzak.

⁷⁹ *Esperimintatzailearen* ordez *agentea* jar genezakeen agian. Ordea, *kausa* agentiboa edo kausatiboa dela esan dugunez, hartatik argiago bereizi nahi izan dugu. Garrantzitsuena da bereiztea subjektu hau alternantzia kausatibo/inkoatiboan ikusi dugunetik desberdina dela, eta *jarduerei* dagokiela.

kausatibo/inkoatiboan parte hartzen duten elementu nagusietatik bereizi nahi ditugu. Han esan dugunari jarraiki, gainera, *gai ukituek* ezabatzeko gaitasunik ez dutela dirudi, eta espero izatekoa da alternantzia kausatibo/inkoatiboa erakusten duten aditzek, objektu inespezifikoa / objektu barneratuaren alternantzia ez onartzea. Honi segituta, aldi berean, *kokapen-* edo *egoera-aldaketa* moduko gertakizunak *jardueretatik* bereizten ditugu. Laburtuz, alternantzia honetako bi egitura hauetan ondoko osagai semantikoak eta Kasuak ditugu:

esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS -> ekintza zehaztua

esperimentatzailea_ERG -> ekintza orokorra

Bestalde, hemen ere alternantzia kausatibo/inkoatiboan egin dugun ohar bera egin nahi dugu: aditz batek adierazten duen ekintza jarduera gisa definitzeko ez da nahitaezkoa izango inespezifikazioaren alternantzia onartzea.

Laburbilduz

- Levinek planteatzen duen objektu inespezifikazioaren alternantzia aztertzeko, lehenik eta behin elipsiaren eta inespezifikazioaren artean berezi beharra dago. Bestetik, elipsi moten artean, objektu jakineko inespezifikaziotzat jo dugun elipsi pragmatikoa ikusi dugu. Hala ere, horiek guztiak —*elipsi arrunta, objektu orokorreko inespezifikazioa, objektu jakineko inespezifikazioa*— batzuetan zail dira bereizten.
- Bestetik, objektu orokorreko inespezifikazio-kasuak esaldiko osagaien mintzaira-egiturarekin zein aspektu kontuekin oso lotuta daudela ere azpimarratu dugu.
- Objektu inespezifikoaaren alternantziaren eta Objektu barneratuaren egituraren arteko antzekotasunak erakutsi ditugu. Areago, batzuetan aditz berak bi alternantziatan agertzen direla ikusi dugu, elementu bat lexikoki txertatua dagoen edo ez jakitea ez baita beti argia ('iz. + egin' modukoak salbu). Inespezifikazio-egituran ulertutzat ematen den objektu orokorraren eta fonetikoki gauzatzen den objektuaren artean dagoen harremana, objektu barneratuaren eta honen modifikatzaile izan daitezkeen objektuen artekoaren pareko dela ikusi dugu: hiperonimia-hiponimia mailakoa. Bestalde, objektua barneratua dutenek mintzaira-egiturako murriztapenen beharrik ez dutela ere esan dugu.
- Levinen (1993) eta Vázquez et al.-en (2000) lanean adierazten denez, eta oro har ere onartzen denez, *jarduerazko* aditz mota askorekin ageri dira hemen aipatu ditugun bi alternantziak. Guk ondoko osagai semantiko eta Kasuez errepresentatuko ditugu: **esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS / esperimentatzailea_ERG**.

4 Agentearen ezaugarri arrunta (L 1.2.6.1) (Characteristic Property of Agent Alternation)

Adib.

Ing. That dog bites people / That dog bites

Eusk. Zakur horrek jendeari hozka egiten dio / Zakur horrek hozka egiten du

Levinen azalpena

Alternantzia honetako aldaera iragankorra nahiz iragangaitza erabiltzen dira subjektuak ekintza egiteko joera duela adierazteko; hots, ekintza bera subjektuaren ezaugarri bat izan ohi da. Adibideari jarraiki, “hozka egitea” “txakurraren” ezaugarri bat da nolabait. Subjektuak ez du zertan biziduna izan. Aldaera iragangaitzean ulertutzat ematen den objektua *people* (‘jendea’) gisa interpreta daiteke.

Ingelesezkoaditzak

Alternantzia honetan ere ez ditu aditz sailak aipatzen Levinek, aditz banakoak baizik. Honek berriz ere agerian jartzen digu alternantzia hau ez duela erabili berez sail semantikoak bereizteko. Izatez, zortzi aditz baino ez ditu zerrendatzen: *bite, butt, itch, kick, pinch, prick, scratch, sting*.

Euskaraz

Levinek aipatzen dituen aditzak euskarara itzultzerakoan, asko konposatu gisa eman behar dira. Esaterako, *kosk egin (bite), talka egin (butt), azkura eman (itch), ostikoa eman (kick), atximur egin (pinch)*... Baina badira ere hitz bakarrean adieraz daitezkeenak: *ostikatu, atximurkatu, atzamarkatu, eztenkatu, haginkatu, ziztatu*.

Ondorioz, ‘iz. + egin’ modukoetan objektuaren lekua hartuta dago eta ulertutzat ematen den “objektu” hori gehienetan Kasu datiboz gauzatu behar da (jendeari hozka egin). Aditz sinpleetan, berriz, absolutiboz gauzatzen da (jendea \emptyset hozkatu)⁸⁰. Gure ustez, orduan, aditz hauetan ulertutzat ematen den elementuak *helburuzko* balioa du objektu edo *gaiarena* baino gehiago.

Alternantziaren azterketa

Levinek berak ematen duen azalpenean ikus dezakegu alternantzia honetan ez dela aditzaren semantika orokorrari buruzko ezaugarriarik ematen. Aditzek onartzen duten subjektuek ekintzarekiko duten joera adierazten da. Hori dela eta, ez dugu uste alternantzia esanguratsua denik multzo semantikoak egiteko. Izatez, Levinek ere ez du horretarako baliatzen.

⁸⁰ Esan behar da, hala ere, horrelakoetan datiboa erabiltzeko joera (okerra?) dagoela.

Bestetik, “aditzak adierazten duen ekintzarekiko joera” zer den zehaztea falta dela iruditzen zaigu. Izan ere, Levinek zerrendatzen ez dituen beste hainbat aditzek ere gaitasun bera dutela iruditzen zaigu, hartzen duten subjektuaren arabera: *zelo honek ez du itsasten, mahai honek ez du eusten, altzairu honek markatu egiten du...* Areago, *Hautemate* aditz gisa ezagutzen diren aditzek (*entzun, ikusi...*). alternantzia honetan azaltzen dena adieraz dezaketela uste dugu. Aditz hauek gizakien hautematezko gaitasunak adierazten dituzte (alegia, “aditzak erakusten duen ekintzarekiko joera” adierazten dute), eta gaitasun horrekiko ezintasuna edo iaioitasuna adierazi nahi denean, objekturik gabeko egituretara jotzen da (*katu honek ez du ikusten; aitonak ezkerreko belarritik ez du entzuten*).

Beraz, fenomeno aditz gehiagotara orokortu daitekeela uste dugu; baina nolahi ere, alternantzia honetan planteatzen den interpretazioa aditzak hartzen duen subjektu konkretuaren baitan dago. Bestalde, objektu inespezifikokan ikusi dugun bezala, mintzaira-egitura eta aspektu jakin bat (subjektua mintzagai hanpatua eta aspektua burutugabea izatea) beharrezkoak dira. Ondorioz, horrelakoetan anbiguotasuna sortzen da objektu orokorraren, objektu jakinaren eta elipsi testuala adierazten duten egituren artean.

5 Instrumentuaren ezaugarri arrunta (L 1.2.6.2) (Characteristic Property of Instrument Alternation)

Adib.

Ing. This knife cuts the bread / This knife doesn't cut

Eusk. ?Labana honek ogia mozten du / Labana honek ez du mozten

Levinen azalpena

Alternantzia iragangaitzak, instrumentu batek ekintza jakin baterako duen egokitasuna adierazten du. Agentearen ezaugarri arruntaren barruan (L 1.2.6.1) ez aztertzearen arrazoia haxe da: alternantzia honetan nahitaezkoa izaten da instrumentuari eragiten dion agente bat. Hori dela eta, instrumentua onar dezaketen mota askotako aditzekin ageri da, eta horregatik ez da erraza multzoa mugatzea.

Ingelesezko aditzak

Alternantzia honetan ere ez ditu Levinek sail semantikoak aipatzen, aditz banakoak baizik. Zehazki hamaika aditz zerrendatzen ditu: *clip, cook, cut, hammer, record, slice, pinch, prick, scratch, sting, write*.

Ikus daitekeenez, goiko alterantzian zerrendatutako batzuk ere badira (*pinch, prick, scratch, sting*). Honek aditzera ematen digu alternantzia baten eta bestearen arteko muga

garbirik eza. Eta bestetik, goikoan esan dugunari jarraiki, ez dela esanguratsua sail semantikoak egiteko.

Euskaraz

Euskaraz, hasteko, objekturik gabeko egituran subjektua instrumentua izatea bitxi samarra gertatzen da; askozaz ohikoagoa da instrumentua egitura iragangaitz inpersonal batean Kasu soziatibo edo instrumentalaz agertzea (adib. *ogia labana honekin mozten da*), edota egitura iragankor batean baina tresnaren erabilgarritasuna bera deskribatuz (adib. *labana honek ogia mozteko balio du*).

Bestalde, ingelesez bezalaxe, zenbait aditzetan modua aditzean txertatuta dago, eta askotan moduzko *-ka* atzizkiz osatutako hitz bat da: *mailukatu/kolpekatu* (*hammer*), *eztenkatu* (*sting*). Beste batzuetan onomanopeia moduko hitzak dira (*zizt*). Hitz bat baino gehiagoz adierazi behar direnak ere badaude: *ilea/adarra moztu*, *kimatu* (*clip*), *xerretan moztu* (*slice*). Eta azkenik, badira horrelakorik ez dutenak: *moztu* (*cut*), *idatzi* (*write*), *grabatu* (*record*). Beraz, batzuek besteek baino aukera gehiago dituzte objektua onartzeko.

Alternantziaren azterketa

Gure ustez, alternantzia honen eta arestian aztertu denaren artean ez dago alderik. Hemen ere subjektuak (kasu espezifiko honetan tresnak) ekintza bat egiteko duen baliagarritasuna azpimarratzen da, egitura sintaktiko baten bidez: objektuaren desagertzeaz. Horretan gain, arestikoan bezalaxe, subjektuak mintzagai hanpatua eta aspektuak ez-burutua izan behar du. Izatez, esan dugun bezala, goiko sailean zerrendatzen dituen aditz batzuk ere aipatzen ditu hemen; hala nola, *pinch* (*atximurkatu*), *prick* (*ziztatu*), *scratch* (*atzamarkatu*), *sting* (*eztenkatu*).

Gure ustez, bai alternantzia honetan bai goikoan, egitura iragangaitzaren (objekturik gabekoaren) bidez aditzera ematen dena ez dago aditzaren baitan, baizik eta aditzak subjektu gisa onartzen dituen entitateen baitan. Hots, aditzari baino gehiago entitate jakin batzuei lotuta dago. Horregatik diogu, berez, aditz gehiagok izan behar luketela lekua hemen. Horri segituta, aditzak multzo semantiko desberdinekoak dira.

6 Zeharkako subjektuak: Denborazko subjektua (L 3.1) (Time Subject Alternation) eta Kausa abstraktuzko subjektua (L 3.4) (Abstract Cause Subject Alternation)

Adib.

Ing. The world saw the beginning of a new era in 1492 / 1492 saw the beginning of a new era

Eusk. Munduak aro berri baten hasiera ikusi zuen 1492an / 1492ak aro berri baten hasiera ikusi zuen

Adib.

Ing. He established his innocence with the letter / The letter established his innocence

Eusk. Bere errugabetasuna gutunaren bidez/gutunarekin frogatu zuen / Gutunak bere errugabetasuna frogatu zuen

Levinen azalpena

Zenbait aditzek subjektu agente kanonikoa (gizakia) dutenean, onar dezakete sintagma preposizional bat, zeinak batzuetan subjektu gisa funtziona dezakeen, eta ondorioz agentea esaldian agertzea eragozten duen. Subjektu hori izendatzeko erabiltzen da *oblique* (*zeharkako*) adjektiboa. Horregatik dio Levinek aldaera batean azpikategorizatutzat ematen ez den sintagma preposizionala beste aldaeran osagai azpikategorizatu bihurtzen dela, eta aditzen elementuen kopuruan aldaketa bat gertatzen dela. Aditzak zerrendatzean, berriz, errepresentatiboan zerrendatzen ditu. Aipa ditzagun hemen bere hitz zehatzak, esan duguna argiago ulertuko delakoan:

The alternations found in this section [“Oblique subject alternations”] do not involve a change in transitivity, but they do a change in the number of noun phrases found with the verb: the verb is found with one less noun phrase in one variant than in the other. These alternations involve verbs that have “agent” subject, but that alternatively may take as subjects noun phrases that can be expressed in some type of prepositional phrase when the verb takes its canonical “agent” subject. Such subjects have been referred to as “oblique” subject because certain prepositional phrases, particularly those expressing nonsubcategorized arguments, are sometimes referred to as oblique phrases. When the verbs take the oblique subject, the “agent” is no longer expressed. This section only includes a subset of the verbs that show this phenomenon, listing some of the major subtypes.

Levin, 1993: 79

Levinek zeharkako objektuetan zerrendatzen dituen alternantzietatik bi dira euskaraz onargarritzat jo direnak Aldezabal et al.-en (2002); puntu honexetan jarri ditugunak, alegia.

Guk biak batera aztertu ditugu, implikazio sintaktikoak eta semantikoak berdinak direla uste dugulako.

Ingeleseko aditzak

Levinek argi dioen moduan ez dira zerrendatzen alternantziak onartzen dituzten aditz guztiak, errepresentatiboena baizik. Honek berriz ere agerian jartzen digu ez duela alternantzia hau erabiltzen multzo semantikoak zehazteko.

Denborazko subjektua onartzen dutenen artean lau baino ez ditu aipatzen: *see, find, mark, catch*. Kausa abstraktuzko subjektua onartzen dutenen artean gehiago zerrendatzen ditu: *assert, confirm, demonstrate, establish, explain, imply, indicate, justify, nullify, obscure, proclaim, predict, prove, reveal, show, suggest*.

Euskaraz

Euskaraz ere modu honetako erabilerarik aurkitzen dugu, alternantzia honetan zerrendatzen diren aditzak euskaratuta eta alternantziako adibideetan txertatuta konproba dezakegunez: *see (ikusi), find (aurkitu), mark (markatu), catch (ulertu/harrapatu); baietsi (assert), baieztatu (confirm), erakutsi (demonstrate), erabaki (establish), adierazi/azaldu (explain), inplikatu/ekarri (imply), adierazi (indicate), justifikatu (justify), baliogabetu (nullify), ilundu/oztopatu (obscure), aldarrikatu (proclaim), aurrean (predict), probatu (prove), adierazi (reveal), erakutsi (show), iradoki (suggest)*.

Hala ere, zenbaitetan arruntagoa da bestetan baino (*ulertu, aurkitu, ikusi* aditzekin, esaterako, ez da oso arrunta hori gertatzea).

Alternantziaren azterketa

Alternantzia honetan planteatzen den fenomenoak gure ustez aditzera ematen duena da, besterik gabe, zenbait aditzek ez dituztela bakarrik subjektu agenteak (gizakiak) onartzen, nahiz eta normalena hori izan. Subjektua gizakia ez denean, esaldian ezin da gizakirik agertu beste inolako Kasurekin. Era berean, subjektua denborazkoa edo kausazkoa bada, balio horiek ezin dira agertu beste inolako Kasurekin esaldian. Nolanahi ere, subjektua gizakia edo bestelakoa izateak, gure ustez, ez du eragiten aditzaren semantika orokorrean.

Gainera, uste dugu hemen ageri ez diren beste aditz askok dutela gaitasun hori, iragankorrak edo iragangaitzak izan. Esaterako, *ekarri, eraman, etorri, joan, eskatu, hautsi*.... Hona zenbait adibide:

Gidariak *trenez* eraman ditu bidaiariak /
Trenak eraman ditu bidaiariak

Haurrak *autobusean* etorri dira /
Autobusa etorri da

Misiolariek *Afrikan* justizia gehiago eskatu dute /
Afrikak justizia gehiago eskatu du

Haurrak *kolpe batez* hautsi zuen leihoa /
Kolpe batek hautsi zuen leihoa

Hala izanik, zeharkako subjektu honen izaera *denborazkoa*, *kausazkoa* edo dena delakoa den sintagma ergatiboaren barruko item zehatzak mugatuko du, agentearekin gertatzen den bezalaxe. Honek, aldi berean, erakusten du aditz batek subjektu agentea (gizakia) eskatzen duela esaten dugunean, zurrunezi izateko arriskua dugula.

Gogora dezagun, bestetik, alternantzia hauek *balentzian aldatetak dituztenen* artean jarri ditugula. Honakoan, ordea (alternantzia kausatibo/inkoatiboan ez bezala), aldaketa balentziala argumentuena izan beharrean osagai *ez-azpikategorizatuena* da. Alternantzia honetan nabarmendu nahi dena da *agentea* (gizakia) desagertu egiten dela alde batetik bestera.

Vázquez et al.-ek ere (2000) zeharkako subjektuen alternantziak Levinek planteatzen dituen *L 1.1* alternantziekin parekatzen dituzte:

⁶Como puede observarse, este grupo de alternancias⁸¹ son similares a la alternancia definida en el grupo 1.1, con la salvedad de que el argumento que se desplaza a la posición de sujeto en el caso del grupo 3 es un SP mientras que en 1.1 es un SN⁷.

La subclasificación propuesta en este caso tiene una base semántica relacionada con los tipos de complementos afectados y no con el significado del verbo. Así, por ejemplo, se diferencian subgrupos en función de si el complemento oblicuo es de tipo instrumental (62) o locativo (63):

- (63) a. I filled the pail with the water
b. Water filled the pail

Vázquez et al., 2000: 84

Hori dela eta, alternantzia hauek ez dituzte bereziki tratatzen; *L 1.1* sailekoen barrukotzat jotzen dituztela suposatzen da.

Autore hauek *L 3* taldeko alternantziak *L 1.1*ekoekin parekatzerakoan, bertan partaide diren osagai guztiak argumentutzat jotzen dituzte, 1.1eko objektua (IS) eta 3ko objektu oblikua (PS) maila berean tratatzen dituztelako. Ez dugu uste, ordea, hori hain argi

⁸¹ Zeharkako subjektuen alternantzia sorta, alegia. Adibide gisa ondokoa ematen dute: *David broke the window with the hammer / the hammer broke the window*]

dagoenik. Zenbait aditzetan PS horrek ez du beharrezkoa ematen. Zehazki, Levinek jartzen duen adibideari heltzen badiogu (The world saw the beginning of a new era *in 1492*), denborazko PS hori aditzaren argumentua ez dela ikusten dugu. Aldiz, *fill* aditzarekin (euskaraz *beterekin bezalaxe*) agertzen den PS, aditzaren berezko argumentua dela dirudi; izatez *gai* moduko zerbait adierazten duelako (eta ez modua edo tresna). Argumentutasun kontuak gorabehera, gurekin bat datoz esatean alternantzia hauetan osagarrien ezaugarriak aditzera ematen direla, eta ez aditzaren semantikaren ezaugarriak. Aurrerago ikusiko dugun *Jabe-subjektuaren* (L 2.13.4) alternantziak antzeko zerbait adierazten du. Izatez, Levinek berak zalantzak izan ditu alternantzia hau zeharkako subjektuen sortan sartu ala ez⁸².

7 Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa (L 1.2.4) (Understood Reciprocal Object Alternation)

Adib.

Ing. Anne met Cathy / Anne and Cathy met

Eusk. Annek Cathy topatu zuen/ Anne eta Cathy topatu ziren

Levinen azalpena

Aldaera iragangaitzak ekintza erreziproko bat adierazten du, eta hala izanik, *each other* (*bata eta bestea / elkar*) izenordain erreziprokoa erabiliz eta aditza modu iragankorrean jarrita parafrasea liteke (*Anne and Cathy met each other*). Aditz hauek iragangaitz gisa erabiltzean, subjektuak plurala izan behar du (*Anne and Cathy / Friends*); eta bestetik, subjektuek murriztapenak dituzte: ekintzako partaide guztiek estatus berekoak izan behar dute. Adib. *meet* ('topatu') aditzeko bi argumentuak bizidunak dira, eta ekintza egiteko gaitasuna dute.

Ingelesezko aditzak

L 36 sail nagusiko (*Verbs of social interaction* 'elkarrekintza soziala adierazten duten aditzak') *Marry verbs* (L 36.2) ("Ezkondu motako aditzak") eta *Meet verbs* (L 36.3) ("Topatu motako aditzak") azpisailak aipatzen ditu hemen. Adib.:

divorce	36.2	dibortziatu
cuddle	36.2	lausengatu
embrace	36.2	besarkatu
hug	36.2	besarkatu
kiss	36.2	musukatu
marry	36.2	ezkondu
pet	36.2	laztandu

⁸² Han ikusiko dugun bezala, gure ustez, zalantza hauek sortzen zaizkio, jokoan diren Kasuak berdinak direlako (ingelesez zehazki *with*). Kasu honek, ordea, ez du beti osagai semantiko bera adierazten.

battle	36.3	borrokatu
meet	36.3	topatu/aurkitu
play	36.3	jokatu/jolastu
visit	36.3	bisitatu

Baita *Verbs of contiguous location* saileko batzuk ere:

cross	47.8	zeharkatu (?)
hit	47.8	jo (?)
intersect	47.8	elkar gurutzatu (?)
meet	47.8	topatu (?)
miss	47.8	jo (?)
touch	47.8	ukitu (?)

Honek, berriz ere, erakusten du azpisailok ez dituela multzokatzen aztergai dugun alternantziaren arabera (bestela ez lituzke sailak bereiziko; guztiak bakarrean emango lituzke). Bestetik, *L 36* sail nagusiko *L 36.1* azpisaileko aditzek (Correspond *verbs*, “*egokitu* motako aditzak”), ez dute alternantzia hau onartzen (horrexegatik ez ditu aipatzen). Hortaz, ez *L 36* sail nagusiarentzat ez barruko azpisailentzat alternantzia hau ez da esanguratsua berez.

Euskaraz

Euskaraz ere ageri zaigu alternantzia hau, ingelesezko aditzak itzuli eta egituretan sartuta baiezia dezakegunez. Baina ingelesez baino aditz gutxiagok erakusten dute. *Borrokatu*, *topatu*, *besarkatu*, *musukatu* eta *laztandu* aditzek bi aldaerak onartzen dituzte; gainontzekoek bakarrik aldaeretako bat onartzen dute. Esaterako, *gurutzatuk*, *ezkonduk* eta *dibortziatuk* aldaera iragangaitza bakarrik onartzen dute; *bisitatu* eta *lausengatuk* bakarrik aldaera iragankorra. *Gurutzatuk*, *ezkonduk* eta *dibortziatuk*, erabilera iragankorra badute, baina ez dira erabilera iragangaitzeko subjektuen erreferentziakide. Hots, hauen egitura iragankorrean, batetik, subjektu bat dago, eta bestetik objektu plural bat, ekintza bi partaideengan —eta ez bakarrarengan— egiten den seinale; baina beti ere objektu plural horrek erakutsiko luke ekintza erreziprokoa (adib. *Osaba apaizak nire lagunak ezkondu ditu*).

Aldaera iragangaitzeko subjektuen estatusaz dioena, euskaraz ere betetzen da. Aldaera iragankorrean, aukera gehiago daude. Adib.:

Irakasleak ikaslea aurkitu du / Irakaslea eta ikaslea aurkitu dira

*Irakasleak liburua aurkitu du / *Irakaslea eta liburua aurkitu dira*

Alternantziaren azterketa

Levinek alternantzia honetan bi egitura jarri baditu ere, gehienbat aldaera iragangaitzaz eta honen ezaugarriez mintzatzen da. Izatez, izenean ere horri egiten zaio erreferentzia (Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa). Beraz, alternantziak berak zer adierazten duen ez da esaten. Eta horregatik ez dakigu benetan zer adierazi nahi den berarekin.

Gauza argia da osagai sintagmatikoen berregituratze bat gertatzen dela, eta berregituratze horretan osagaien balentzian aldaketak gertatzen direla, horietako bat plural bihurtzen delako. Horrek zein inplikazio semantiko dituen, berriz, ez dago argi. Besterik gabe, ekintzaren ikuspegi desberdina ematen zaigu: batean subjektuetako baten ikuspegitik adierazten da ekintza, eta bestean biotatik. Ordea, bi subjektuek ekintzan modu berean parte hartzen dutela dirudi. Hala ere, diferentziak egon daitezke aditzetik aditzera. *Topatu* aditzean, esaterako, bi subjektuek ekintza modu berean egiten dutela esan daiteke, aldaera iragangaitzean nahiz iragankorrean. *Besarkatu* aditzean, aldiz, aldaera iragangaitzean bai, baina iragankorrean ekintza subjektu bakarraren borondatez gertatzen dela ematen du; bestearna ez da garbi geratzen.

Nolanahi ere, ekintza nork hasi eta zein borondatez egiten duen kontu irristakorrak dira, eta aditzez aditz doala ematen du. Hortaz, zaila da alternantzia honetako egiturei beti balio semantiko bera ematea. Horregatik esango dugu alternantzia honetan besterik gabe osagai sintaktikoen berregituratze bat gertatzen dela eta horrek balentzian eragiten duela, aditzaren semantikari buruz ezer esan gabe.

8 Alternantzia erreziprokoak: erreziproko simple iragankorra (L 2.5.1) (Simple Reciprocal Alternation) eta erreziproko simple iragangaitza (L 2.5.4) (Simple Reciprocal Alternation)

Alternantzien adibideak:

Erreziproko simple iragankorra:

- Ing. I separated the yolk from the white / I separated the yolk and the white
- Eusk. Goringoa zuringotik bereizi nuen / Goringoa eta zuringoa bereizi nituen

- Ing. I mixed the sugar into the butter / I mixed the sugar and the butter
- Eusk. Azukrea gurinarekin nahastu nuen / Azukrea eta gurina nahastu nituen

- Ing. I confused Maria with Anna / I confused Maria and Anna
- Eusk. Maria Anarekin nahastu nuen / Maria eta Ana nahastu nituen

Erreziproko simple iragangaitza:

- Ing. Brenda agreed with Molly / Brenda and Molly agreed
- Eusk. Brenda Mollyrekin ados zegoen / Brenda eta Molly ados zeuden

- Ing. The oil separated from the vinegar / The oil and vinegar separated
- Eusk. Olioia ozipinetik banandu zen / Olioia eta ozipina banandu ziren

Levinen azalpena

Alternantzia hauek *Reciprocal alternations (L 2.5) (Alternantzia erreziprokoak)* sortaren barruan kokatzen ditu Levinek. Guk batera landu ditugu, Levinen azalpenen arabera, biotan fenomeno sintaktiko/semantiko bera gertatzen delako: aldaera batetik bestera PS bat desagertzen da, eta PSrik gabeko aldaeran IS bat kolektiboa izan behar da. Horrek eragiten du balentzia-aldaketa:

- 1-(IS) IS₁ A IS₂ [_{PS} P IS₃]
- 2-(IS) IS₁ A [_{IS} IS₂ and IS₃].

Eta bestetik, IS kolektiboa osatzen duten partaide guztien estatusa konparagarria izan behar da, [goiko](#) alternantzian ikusi dugun bezala.

Autoreak berak dio aldaera iragangaitzeko subjektua sakoneko objektua dela kontsideratuta (hots, aditza ez-akusatibotzat hartuta) alternantzia iragankorra nahiz iragangaitza alternantzia bakartzat jo daitezkeela, desberdintasun bakarra egilea izatean edo ez izatean datzala. Hala eta guztiz ere, aipatzen ditu elkarrekintza sozialeko hainbat aditz — *talk (hitz egin)* eta *chitchat (berriketan aritu)*— zeintzuek ez duten balio ez-akusatiboa, euren subjektua arrunki biziduna eta borondateduna delako (ez-akusatiboetan normalean gertatzen ez den bezala). Horretaz gainera, aipatutako aditz hauek ez dute pareko kausatiborik, gutxi batzuek salbu —*marry (ezkondu)* eta *divorce (dibortziatu)*—. Hori horrela den gorabehera, gure ustez bi alternantzietan gauza bera adierazten da⁸³.

Beraz, goiko alternantzian bezalaxe, hauetan benetan ez da erreziprokotasunarekin zerikusia duen ezer aditzera ematen.

Areago, *Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzian (L 1.2.4)* ere gauza bera adierazten dela esan daiteke. Alde bakarra da *L 1.2.4* alternantzian IS bat dugula abiapuntuko aldaeran, eta *L 2.5.1 / L 2.5.2* alternantzietan PS bat. Gainera, azpimarratu behar da, *L 2.5.1 / L 2.5.2*ko adibideei erreparatuz gero, PS horrek preposizio desberdinak izan ditzakeela. Eta horrelakoetan ez du alternantzia desberdinik proposatzen. Hots, IS edo PS izan, alternantzia desberdinak planteatzen ditu; ez, ordea, PS horrek preposizio desberdinak dituenean. Baina gogora dezagun, *L 9.1 (Put verbs)* eta *L 10.1 (Remove verbs)* sailak PSren preposizio desberdinagatik bereizten dituela. Beraz, azken batean alternantzia hauetan zer aztertzen den ez dago argi. Fenomeno sintaktiko orokorra berdina da (sintagma bat galtzen da aldaera batetik bestera), eta erreziprokotasunaz ez da ezer esaten.

⁸³ Gogoratu behar dugu guk ez dugula nahitaezkoa ikusten aditz bat kausatiboa edo inkoatiboa izateko aldaera iragankorra eta iragangaitza, biak, izatea.

Ingelesezko aditzak

Levinek ez ditu sailak aipatzen (ez *L. 2.5.1* alternantzian ez *L. 2.5.4an*), aditz banakoak baizik. Hala ere, aditz hauek Amalgamate verbs (*L. 22.2*) (“*elkartu* motako aditzak”), Mix verbs (“*nahastu* motako aditzak”) eta Separate verbs (“*bereizi* motako aditzak”) sailetakoak direla dio.

affiliate	22.2	afiliatu, kide
alternate	22.2	txandakatu
amalgamate	22.2	bateratu, elkartu
associate	22.2	elkartu
coalesce	22.2	fusionatu, bat egin, elkartu
add	22.1	gehitu, gaineratu, batu
blend	22.1	nahastu, nahasi
combine	22.1	konbinatu, nahasi
distinguish	23.1	bereizi
divide	23.1	zaitu, banatu
divorce	23.1	dibortziatu, banandu, banatu
separate	23.1	banandu, bereizi

L. 2.5.4 alternantzian, horietaz gain, *Correspond* (“*egokitu* motakoak”), *Meet* (“*topatu* motakoak”), *Talk* (“*hitz egin* motakoak”), *Chitchat* (“*berriketari*” motakoak) eta *Differ* (“*desberdindu* motakoak”) verbs sailekoak aipatzen ditu; hain zuzen, erabilera iragankorra ere badutenak (ingelesez). Adib.:

argue	36.1	eztabaidatu
bargain	36.1	negoziatu
correspond	36.1	-egokitu, bat etorri
fight	36.3	borrokatu
meet	36.3	topatu, aurkitu
play	36.3	jokatu, jolastu
speak	37.5	hitz egin, mintzatu
talk	37.5	hitz egin, mintzatu
argue	37.6	argudiatu, adierazi
chat	37.6	berriketari egin, hizketari aritu
chitchat	37.6	berriketari aritu
differ	23.4	bereizi, desberdindu
diverge	23.4	bereizi, desberdindu

Honek erakusten digu ez duela ez bata ez bestea sail oso bat multzokatzeko erabiltzen.

Oro har, ‘bereziketa’ adierazten dutenak *from* preposizioa hartzen dute (gutxiagotan *into* eta *to*), eta ‘batzea’ adierazten dutenak *with*.

Euskaraz

Adibideak ikusita, euskaraz ere egitura hauek agertzen direla ikusten dugu. Eta batzea adierazten dutenak normalean Kasu sozietiboz gauzatzen dira (gutxiagotan datiboz), eta bereizketa adierazten dutenak ablatiboz.

Aipatu beharra dago, alternantzia honen harira, euskara arkaikoan bazela koordinazio mota zahar bat non sozietiboa baliatzen zen *eta* kopulatiboaren ordeaz (Lakarra, 1983). Lakarrak dioskun bezala, hauexek dira parekatzen ziren egiturak:

IS [I-kin/gaz I-dek.atz.] -> IS [I-dek.atz. *eta* I-dek.atz.]

XVI. mendeko Miserere baten azkeneko ahapaldian ikus dezakeguna, esaterako:

GLORIA PATRI/Biz gloria Aitearekin semearentzat (-> aita eta semearentzat)

Beraz, badirudi bi egitura desberdin baina semantikoki paretsuz ari garela azken batean. Kasu ablatiboarekin ez dago horrelakorik.

Alternantziaren azterketa

Levinek egitura hauek erreziprokotzat jotzen ditu, bigarren aldaeran *elkarren artean* izenordain erreziprokoa ulertutzat eman behar delako. Baina, esan dugun bezala, berez alternantziako bi aldaeretan ez dira parekatzen erreziprokotasun gisa aztertu ohi diren egiturak. Euskara arkaikoan ikusi ditugun adibideetan oinarrituta, bi aldaeretan koordinazio moduko egiturak ditugula esan daiteke.

Beraz, badirudi alternantzia hauetan, besterik gabe, beharrezko zenbait osagaien berri ematen dela (gutxienez bi, alegia), semantikoki inolako ezaugarriarik adierazi gabe.

9 Gorputz-atalaren igoera (L 2.12) (Body-Part Possessor Ascension Alternation), Atributu-objektua (L 2.13.2) (Attribute Object), Jabe-subjektua (L 2.13.4) (Possessor Subject)

Alternantzien adibideak:

Gorputz-atalaren igoera:

Ing. Selina touched the horse on the back / Selina touched the horse's back

Eusk. (Lit.) Selinak zaldia ukitu zuen bizkarrean; (libr.) Selinak zaldiari bizkarra ukitu zion
/ Selinak zaldiaren bizkarra ukitu zuen

Atributu-objektua:

Adib.

Ing. I admired his honesty / I admired the honesty in him

Eusk. Bere zintzotasuna miresten nuen / Beregan zintzotasuna miresten nuen

Jabe-subjektua:

Adib.

Ing. The clown amused the children with his antics / The clown's antics amused the children

Eusk. Pailazoak (bere) bihurrikeriekin haurrak entretenitu zituen / Pailazoaren bihurrikeriek haurrak entretenitu zituzten

Levinen azalpena

Alternantzia hauek batera aztertuko ditugu, goikoetan gertatzen den bezalaxe, gure ustez ezaugarri sintaktiko eta semantiko berak adierazten dituztelako: posesio-harremanak bi egitura sintaktikoren bidez. Levinek berak adierazten du oso antzekoak direla. Desberdintasuna da *L* 2.12 alternantzian jabea eta honen gorputz-atalak direla posesio-harremanetan daudenak, eta besteetan jabea eta honen atributuak. Eta bestetik, ez dira preposizio berak erabiltzen hiruretan: *L* 2.12 alternantzian lokatiboak; *L* 2.13.2 alternantzian lokatiboak nahiz *for*; eta *L* 2.13.4 alternantzian *with*.

Aldaketa sintaktikoak ondokoak dira: aldaera batean, gorputz-atala/atributua ISren buru bezala gauzatzen da, eta gorputz-atal/atributu horren jabea, IS horren barruko izenlagun gisa. Beste aldaeran, berriz, bi aparteko sintagma daude: bata, gorputz-atalaren/atributuaren jabea, IS gisa gauzatzen dena, eta bestea, gorputz-atala/atributua bera, PS batez gauzatzen dena; hots, gorputz-atala/atributua IStik kanpo gauzatzen da. Hortik, *L* 2.12 alternantziaren izena:

IS $IS_{[IzIg][jabea]}_{IzIg}$ gorputz-atala/atributua]_{IS} A

IS $IS_{[jabea]}_{IS}$ PS[$IS_{[gorputz-atala/atributua]}_{IS}$ P_{lok}]_{PS} A

Bestalde, gogoratu behar dugu Levinek zalantzan jartzen duela *Jabe-subjektua* zeharkako subjektuen alternantzien barruan aztertu behar ote den (nahiz eta azkenean aparteko alternantzia gisa landu). Gure ustez, gauza desberdinak dira bi alternantzietan azaltzen direnak. Hartan, esan dugun bezala, agentea desagertzen da; hala izanik, ezinezkoa da posesio-harremanez hitz egitea. Hauetan agentea ez da desagertzen —aditz-balentzian aldaketak egon arren—; agente hori ISren izenlagunean adierazten da. Izenlagun batek posesio-harremanak adierazten ditu gehienetan. Bada, alternantzia hauetan erakusten zaigu zenbait aditzek posesio-harreman horiek aparteko sintagmetan adieraz ditzaketela. Aparteko

sintagmak ageri direnean, posesio-harremana gorputz-atal / jabe (hots, parte/oso) edo atributu/jabe erlazioen bidez atzeman daiteke. PS horren ISren gunean den izenaren arabera, azken batean. Autorearen zalantza beste arrazoi honengatik ere bada: L 2.13.4 alternantzia atributua baino gehiago *jarduera* da adierazten dena. *Jarduera* adierazten duen ISren barruan izenlaguna agertzeak esan nahi du *jabetza* baino areago agente horrek sortutako/egindako ekintza bat dela; eta, jakina, norbaitek zerbait sortzen duenean, bere jabea ere badela esan daiteke.

Ingeleseko aditzak

Hiru alternantzietan ez ditu aditz berak zerrendatzen, eta bestetik, aditz sortak aipatzeaz gain, aditz banakoak ere zerrendatzen ditu. Argi dago, orduan, alternantzia hauek ez dituela multzo bat osatzeko erabiltzen.

Aditzak desberdinak dira, posesio-harremanak aparteko sintagmetan adieraz ditzaketan aditz guztiek ez dutelako preposizio berdina erabiltzen. Bestalde, ikus dezakegunez, PSdun aldaerak iragankorra izan behar du (objektuduna, alegia). Beraz, alternantzia hau onartzeko, aditzek gutxienez iragankorrak izan behar dute. Gainontzean, ez dago argi zergatik aditz batzuek onartzen duten eta beste batzuek ez. Hona hiru alternantzietan zerrendatzen dituen aditz sortak eta zenbait aditz banako:

Hona *Gorputz-atalaren igoeran* zerrendatzen dituenak:

Touch verbs (L 20) (“ukitzea adierazten duten aditzak”). Adib:

caress	20	laztandu, ferekatu, balakatu
graze	20	igurtzi
kiss	20	igurtzi, doi-doi ukitu
lick	20	milikatu, lamikatu
pinch	20	atximurkatu
touch	20	ukitu

Verbs of contact by impact (L 18) (“inpaktuzko kontaktua adierazten duten aditzak”) saileko azpisail gehienak. Adib.:

Hit verbs (L 18.1):

beat	18.1	kolpatu
bump	18.1	talka egin
hammer	18.1	mailukatu
hit	18.1	jo, kolpatu
kick	18.1	ostikada eman/jo

Swat verbs (L 18.2):

bite	18.2	kosk egin
peck	18.2	mokokatu
stab	18.2	sastatu, sastakatu, ziztatu

Spank verbs (L 18.3):

birch	18.3	zehatu, astindu, jipoitu
clobber	18.3	astindu, jipoitu
club	18.3	makilatu

Poke verbs saila (L 19) (“zerbait nonbait sartzea adierazten duten aditzak”). Adib.:

dig	19	iltzatu, sartu
jab	19	ziztatu
pierce	19	zulatu
poke	19	behatza begian sartu

Cut verbs saila (L 21.1) (“moztu motako aditzak”). Adib.:

chip	21.1	ezpaldu
clip	21.1	(ilea) moztu, (adarra) moztu, kimatu
cut	21.1	moztu, ebaki
saw	21.1	zerratu, zerraz moztu
scratch	21.1	urratu, zarrastatu, (diskoa) urratu

Atributu-objektuaren alternantzia ez ditu sailak aipatzen. Admire verbs (L 31.2) (“miretsi motako aditzak”) azpisailetik, aditz psikologiko positiboak eta negatiboak zerrendatzen ditu, eta, bestetik See verbs (L 30.1) azpisailekoak (“Ikusi motako aditzak”). Adib.:

admire	31.2	miretsi, ederretsi
appreciate	31.2	estimatu
deplore	31.2	gaitzetsi, deitoratu
despire	31.2	mesprezatu, gaitzetsi, erdeinatu, arbuiatu
detest	31.2	gaitzetsi, arbuiatu
enjoy	31.2	gozatu, atsegin izan
hate	31.2	gorrotatu, gorroto izan
like	31.2	atsegin izan, gogoko izan
love	31.2	maitatu, maite izan, oso gustuko izan
detect	30.1	sumatu, hauteman
feel	30.1	sentitu, nabaritu
hear	30.1	entzun, aditu
notice	30.1	ohartu
see	30.1	ikusi

Euskaraz

Goian aipatutako zenbait aditzei helduta, ikusten dugu euskaraz ere horrelako egiturak onartzen direla, baina arruntagoa da gorputz-atala Kasu absolutiboarekin gauzatzea, eta jabea datiboarekin (jabea absolutiboan eta gorputz-atala inesiboan agertu beharrean). Hori gertatzen da, esaterako, *ukitu*, *laztandu*, *ferekatu*, *balakatu*, *igurtzi*, *milikatu*, *atximurkatu*, *astindu*, *zanpatu*, *moztu*, *ebaki* eta *urratu* aditzekin.

Beste zenbaitetan, Kasu lokatiboa da arruntagoa. Adib. *jo* aditzean (*buruan jo nau / (?) burua jo dit*).

Beste aditz batzuek biak onartzen dituzte: *musukatu*, *ziztatu*. Adib. *masailean musukatu nau / masaila musukatu dit; besoa ziztatu didate / besoan ziztatu didate*.

Seguruenez, joera hauek erabateko lotura dute aditzaren osaera morfologikoarekin. Aditz batzuek modua dute txertatuta, eta horiek objektua onartzen dute (*musukatu*, *ziztatu*, *atximurkatu...*); modua barruan ez dutenek ere onartzen dute objektua, baina horrelakoetan arruntagoa da jabea datiboan agertzea (*ukitu*, *moztu*, *astindu...*). Azkenik, objektua onartzeko zailtasuna dutenetan (*jo* adib.), pentsa daiteke ulertutzat ematen den objektu bat izatea berezkoa —nahiz eta agerian ezin gauzatu— eta horrek beste edozein objekturako lekurik ez uztea: *jo*: [kolpea] *jo* -> *besoan jo nau*; **besoa jo dit*)⁸⁴.

Alternantziaren azalpena

Goiko puntuetan esandakoarekin, argi dago alternantzia hauek ez dutela berez aditzaren semantikarekin zerikusia duen ezaugarriarik aditzera ematen. Erakusten dutena da posesio-harremanak ez direla izenlagunen bidez bakarrik adierazten, baizik eta argumentu-egituran bertan ere kodetzen direla Kasu jakin batzuekin eta izen jakin batzuekin (gorputz-atalekin, atributuekin eta jarduerekin). Honek iradokitzen digu, zuhaitz sintaktikoa egiteari begira, gorputz-atala/atributua/jarduera PS batean gauzatzen direnean, PS hori aditzarekin lotu beharrean egokiago litzatekeela objektuarekin (jabearekin) lotzea.

Vázquez et al-ek (2000) alternantzia hau —eta baita arestiko Erreziproko simple iragankorra (L 2.5.1) eta iragangaitza (L 2.5.4) — *Holistica* delako alternantzia sortan aztertzen dituzte, eta besterik gabe esaten dute aldaera batean entitate bat bere osotasunean adierazten dela, eta bestean entitate horren zati bati ematen zaiola garrantzia:

En la alternancia holística que hemos definido en este libro se produce un cambio de foco entre los componentes de un argumento que denota una entidad compleja, es decir, se manifiesta una oposición entre una estructura en que se focaliza una entidad presentada como un todo (*sus padres*) (135a) y otra construcción en la que se pone énfasis en un aspecto relacionado con esa entidad, como una propiedad que la caracteriza (*la generosidad de sus padres*) (135b):

- (135) a. Juan alaba a sus padres por su generosidad
b. Juan alaba la generosidad de sus padres

[...] tiene lugar una reducción de argumentos que da como resultado un único constituyente sintácticamente más complejo en una de las estructuras.

Otro mecanismo que se utiliza para construir la oración que focaliza la entidad como un todo es la coordinación. En estos casos el elemento que actúa de complemento preposicional en la oración no coordinada (137a) y (138a) se encuentra en la posición de objeto en la oración

⁸⁴ Izatez, hori adierazi nahi denean, *eman* aditza erabiltzea da jatorrena (*kolpea eman*, eta ez *kolpea jo* (?))

alternante (137b) o bien en la de sujeto (138b), coordinándose respectivamente con los constituyentes que ya ocupan estas posiciones:

- (137) a. He mezclado la harina con azúcar
b. He mezclado la harina y el azúcar

- (138) a. Ana se encontró con Esther
b. Ana y Esther se encontraron

Vázquez et al., 2000: 122-123

Gure ustez, osotasunaren eta partearen fokalizazio hori 9 puntu honetan zerrendatu ditugun alternantzieta mugatzen da (horregatik ez dugu autore hauen zita han jarri). Koordinaziozkoetan, berriz, ekintzan modu berean parte hartzen duten argumentuak jartzen dira argitan, baina osotasun zentzua ez da nahitaezkoa, eta batzuetan gainera, (138ko adibideei erreparatuta) nahitaezkoa ez ezik, ilun samarra gertatzen da. Nolanahi ere, ez dugu uste aditz sail semantikorik osatzeko gaitasuna dutenik.

Rebolledok (2002) ere bat egiten du gurekin esatean Vázquez et al.-ek (2000) ez dituztela argi uzten egitura hauen inplikazio semantikoak. Eta orobat gertatzen da geroago ikusiko dugun alternantzia lokatiboarekin (Vázquez et al.-ek (2000) *Inversión* deitzen dutena). Ikus Rebolledoren hitzak:

Siguiendo con el primer grupo, la alternancia Holística y la Inversión manifiestan de una manera muy poco clara el significado que codifican. En la Holística se tienen en cuenta el grado de focalización de la entidad, que puede ser total (10a) o parcial (10b):

- (10) a. Juan alaba a sus padres por su generosidad
b. Juan alaba la generosidad de sus padres

No queda claro del todo si el significado que codifica la alternancia se limita a la posibilidad de expresar un argumento de manera parcial o total, y, de ser así, por qué este significado es relevante para el verbo. Parece más bien que se trata de una posibilidad del argumento, que puede focalizarse de diversas formas por estar formado por una parte y el todo en el que se inserta.

Rebolledo, 2002: 95

Gure ustez, beraz, alternantzia hauetan posesio-harremanen gauzapean sintaktiko desberdinak islatzen dira.

V.2.3.2 Balalentzia aldatu gabe, sintagma motak (Kasuak) aldatzen dituztenak

1 *Substantzia/Iturria alternantzia (L 1.1.3) (Substance/Source Alternation)*

Adib.

Ing. Heat radiates from the sun / The sun radiates heat

Eusk. Beroa eguzkitik irradiatzen/isurtzen da / Eguzkiak beroa irradiatzen/isurtzen du

Levinen azalpena

Alternantzia hau, substantziaren bat igortzea adierazten duten aditzek bakarrik erakusten dute. Aditz hauek bi argumentu dituzte: bata iturria (*source/emitter*), eta bestea iturri honek jariatzen duen substantzia (*substance*). Bestelako alternantzia kausatiboetatik bereizten dituen da (alternantzia kausatiboen artean sailkatzen baitu Levinek alternantzia hau) bi aldaeretan bi argumentuak ageri direla⁸⁵.

Ingeleseko aditzak

Autoreak dioenari jarraiki, alternantzia honetan *Verbs of Substance Emission (L 43.4)* direlakoak ('Substantzia bat jariatzea adierazten duten aditzak') aipatzen ditu. Adib.:

bleed	43.4	odola erion
dribble	43.4	adurra/lerdea jario
emanate	43.4	jario, jariatu, igorri
exude	43.4	jarion, jariatu
ooze	43.4	jariatu
pour	43.4	jario, jariatu, isuri
puff	43.4	kea bota
radiate	43.4	irradiatu, jario
shed	43.4	(malkoak) jario; (odola) isuri
slop	43.4	jario, jariatu, isuri
steam	43.4	lurrina jario
sweat	43.4	izerditu, izerdia bota/jario (?)

Beraz, honakoan, bai, alternantzia hau badarabil multzo semantiko bat bereizteko.

Euskaraz

Euskaraz, ikusten dugu, *jariatu* eta *isuri* aditzek izan ezik, gainontzekoak edo konposatu gisa itzuli behar direla ('iz. + *isuri/jario*' segidaz) edo eratorriak direla (*izerditu*, *argitu*). Beraz, eratorriena ez gainontzeko aditzen jokaera sintaktikoa aztertzea, azken batean *isuri* eta *jarioren* jokaera sintaktikoa aztertzea da, aditz konposatuak izan arren objektuak objektu sintaktiko gisa jokatzeko baitu⁸⁶.

⁸⁵ Hain zuzen, horrexegatik sartu dugu guk balentzian aldaketarik izan gabe Kasuak aldatzen dituztenen artean.

⁸⁶ Euretako asko, gainera, ez dira "kontzeptu eginak" euskaraz.

Eratorriek, berriz, [objektu barneratuaren egituran ikusi dugun bezala](#), jokaera sintaktiko desberdina erakusten dute, aditzaren osagaietako bat aditzaren barruan egoteagatik; hain zuzen, ez dute erakusten hemen aztertzen ari garen alternantzia. Beraz, alde batera uztekoak dira alternantziari begira.

Jariatu eta *isuri* aditzei helduz, hortaz, esan behar dugu bi aditzok ez dutela joera bera erakusten aldaera iragankor eta iragangaitzarekiko. *Jariaturen* kasuan arruntagoa dirudi iragangaitza, nahiz eta iragankorra ere ageri den. Izatez, Sarasolaren *Euskal Hiztegian jariaturen* erabileretan balio iragangaitza da adibide gehien dituen. Ikus erabilera bakoitzeko adibide bana:

Iragg.: Ahotik odola jariatzen bazaio (*Euskal Hiztegiko* adibidea)

Iragk.: Guruin batek jariatzen duen gaia (*Euskal Hiztegiko* adibidea)

Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegiko* (Mitxelena, 1987-) *jario* aditzaren azalpenetan irakur dezakegunez (*jariatutik jaria* bidaltzen baitu), erabilera iragankorra askozaz ere berriagoa da; hots, iragangaitza da betidaniko erabilera:

En cuanto a su uso trans. o intrans., los testimonios más antiguos, tanto al Norte como al Sur, corresponden a construcciones intransitivas con complemento dativo y es este uso el más frecuente en ambas tradiciones. Hay testimonios de construcciones transitivas desde principios del s. XIX.

Mitxelena, 1987-: 100

Isuriren kasuan, berriz, erabilera iragankorra da *Euskal Hiztegian* agertzen den bakarra; [XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa](#), ordea, bietarikoak ageri zaizkigu, gehienak erabilera iragankorrak diren arren:

Iragg.: Bertatik argi izpi indartsu batzuk **isurtzen** dira eta elkartzen diren puntuan izar bat osatzen dute.

Iragk.: Ahaztuta zeneukan zineman azkeneko ilaran eseri , eta eskutik helduta egote hutsak, parekoari begietatik miresmena dariola ikusteak, edo "egunen batean ez nauzu maiteko" esanez gero malkoak **isurtzen** dituela konturatzeak eragiten duen poza.

Horiek gorabehera, gauza bera adierazteko (*iturria*, alegia) ergatiboa (*norbaitek malkoak isuri*; *Guruin batek gaia jariatu*), ablatiboa (*bertatik argi izpi indartsu batzuk isuri*), datiboa (*ahotik odola jariatu [HARI]*) ageri zaizkigula ikusten dugu. Hau da, normalean ergatiboa agentetasunarekin edo kausarekin lotzen bada ere, hemen zentzu hori ez dago hain argi. Horregatik darabil, seguruenez, *iturri* —eta ez *kausa*— terminoa Levinek.

Alternantziaren azterketa

Levinekin bat eginez, aditz hauetan substantzia bat isurtzea adierazten dela uste dugu. Levinek, alternantzia kausatiboetan lantzen du. Guk, ordea, kausatibitatean *aldaketa* bat gertatzen dela esan dugu, horretarako *kausua* eta *gai ukitua* beharrezkotzat jotz. Aditz hauek adierazten dutena, berriz, ez dugu ulertzen *aldaketa* bezala; gehiago ikusten dugu *sortze-prozesu* bat bezala. Ondorioz, ez dugu uste hemen kausatibitatean ikusitako erlazio semantikoa dagoenik. Horri segituta, alternantzia honetako partaideak *iturri* eta *gai sortu* gisa aztertzea egokiagoa deritzogu; *substantzia* terminoa espezifikoezia iruditzen zaigu, lotuago baitago osagarrien tasun semantikoekin aditzaren semantika orokorrarekin baino. Vázquez et al.-ek (2000) ere *gai sortuak* *gai ukituetatik* bereizten dituzte:

Por otro lado, distinguimos entre entidades afectadas y efectuadas, es decir, las de nueva creación. Así, consideramos que no podemos hablar de la afectación de una entidad que no existe con anterioridad al evento.

Vázquez et al., 2000: 163

Autore hauek diotenarekin bat eginez, ez dugu uste *ukipenaz* hitz egin daitekeenik entitatea ez badago sortua ekintza gertatu baino lehen. Esan dugun bezala, Levinek ez du *kausua* terminoa erabiltzen aditz hauen subjektua definitzeko (nahiz eta alternantzia kausatiboen artean landu).

Dena dela, euskaraz oso mugatua dela ematen du, *jario* eta *isuri* aditzetan agertzen baita bakarrik. Beraz, euskaraz ez luke oso multzo semantiko orokorra egingo alternantzia honek.

Nolanahi ere, alternantzia honetan berez erakusten zaiguna da *iturri* osagaia Kasu desberdinez gauzatzen dela, eta Kasu desberdina agertzeak zerikusia duela sintagma horretan ageri den izenarekin: Kasu ablatiboa agertzen bada, *iturria* ez-biziduna da beti; datiboa ageri denean gehienetan biziduna da; eta ergatiboa agertzen denean, izena orotarikoa izan daiteke. Horrek esan nahi du *iturri* osagai semantikoan Kasuaren hautapenak izenaren biziduntasunarekin zerikusia duela. Bestalde, *iturria* biziduna edo bizigabea izan, objektu sortu hauek ez dira oso ugariak izaten. Hots, *eguzkiak argi izpiak* sor ditzake eta *animaliek malkoak* sor ditzakete; baina *eguzkiak* ezin ditu *malkoak* sortu ez eta *animaliek eguzki-izpiak*. Ondorioz, biziduntasunaren arabera, aditz hauetan *gai sortuak* ere normalean mugatuak dira.

2 Alternantzia konatiboa (L 1.3) (Conative alternation)

Adib.

Ing. Paula hit the fence / Paula hit at the fence

Eusk. Paulak hesia jo zuen / Paulak hesian jo zuen

Levinen azalpena

Abiapuntuko egiturako objektua, bigarren aldaeran preposizio sintagmaren objektu bihurtzen da; preposizio hau *at* izan ohi da, baina zenbait aditzekin *on*. Abiapuntuko egiturak ekintza bat egiteko saiakera adierazten du, ekintza burutzen den ala ez zehaztu gabe. Badirudi, alternantzia hau erakusten duten aditzek, mugimendu eta kontaktu osagaiak dituztela beren esanahian. Sarreran aipatzen dira alternantzia honen ingurukoak.

Ingelesezko aditzak

Hainbat aditz dira aipatzen dituenak sail honetan. Ez ditugu sail guztietako aditzen adibideak emango, aurreko alternantzietan dagoeneko aipatu direlako (hauek zerrendatu baizik ez ditugu egingo). Besteetan zenbait aditz jarriko ditugu. Dagoeneko aipatutakoak: Hit *verbs* (L 18.1), Swat *verbs* (L 18.2), Poke *verbs* (L 19), Cut *verbs* (L 21.1), Eat *verbs* (L 39.1).

Spray/Load *verbs* (batzuk) (L 9.7) (“betetzea adierazten duten aditzak”). Adib.:

brush	9.7	eskuilatu
cultivate	9.7	(soroa/lurra) landu, laboratu
dab	9.7	igurtzi
daub	9.7	lardatu, igurtzi, koipeztatu
hang	9.7	apaindu
load	9.7	kargatu
plant	9.7	(soroa) landu/erein
pump	9.7	(airez) puztu
spray	9.7	lainoztatu, ihinzatu

Push/Pull *verbs* (L 12) (“bultzatzea/zapaltzea adierazten duten aditzak”):

press	12	zanpatu
pull	12	tiratu
push	12	bultzatu, sakatu

Euskaraz

Euskaraz, Levinek zerrendatzen dituen aditz guztietatik oso gutxik erakusten dute alternantzia hau. Ikus ditzagun zenbait adibide:

Adib.

Ing. Margaret cut at the bread / Margaret cut the bread

Eusk. *Margaretek ogian moztu zuen/ Margaretek ogia moztu zuen

Adib.

Ing. Paula pushed at/on/against the table / Paula pushed the table

Eusk. Paulak mahaiaren kontra bultzatu zuen / Paulak mahaia bultzatu zuen

Adib.

Ing. The mouse nibbled at/on the cheese / The mouse nibbled the cheese

Eusk. Saguak gazta hozkatu zuen / ?? Saguak gaztan hozkatu zuen (literala)

Saguak gaztari hozka egin zion (ordaina)

Ikus dezakegunez, *jo* aditza dugu horietako bat. *Bultzatuk* ere onartzen du, baina honakoan -*en kontra* postposizioa du beharrezkoa (inesiboarekin arraroagoa da: (??) *atean bultzatu*). Beste guztietan (*hozkatu, moztu, igurtzi, kargatu...*) ez da alternantzia ageri.

Euskaraz, beraz, oso mugatua da alternantzia hau.

Alternantziaren azterketa

Ingelesez askotan eta sakonki azterturiko alternantzia da hau. Ordea, euskaraz ez da alternantzia orokor bat. Areago, beste hainbat hizkuntzatan —hala nola, gaztelaniaz, katalanez eta bengaleraz— ez da onartzen.

Bestalde, semantikari erreparatuta, egia da ekintzak mugimendua eta mugimendu horretan ukipena egotea adierazten duela. Baina horretaz gain, objektuaren izaeraren berri ere ematen digu: tope egiten duen azalera minimoko entitate solidoa behar du izan; hain zuzen ere, entitatea ez bada solidoa, ez zaigu alternantzia ageri (**ura/*urean/*uraren kontra bultzatu/jo*). Ohar gaitezen, bestalde, euskaraz *borrokatu* aditzak ere ageri duela antzeko zerbait, *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideak lekuko: *Norbait jo, borrokatu edo arramaskatu dezu?* (Argi DL27)⁸⁷ / *Moruen aurka borrokatzera joateko asmoa artu zun* (Etxde Alost 66).

Honenbestez, alternantzia honek berez ondokoa adierazten du: ekintza batean —mugimenduzkoa irudiz—, ekintzaren helburuaren eta ekintza egiten duenaren artean kontaktua dagoela, baina helburu horrek solido eta topea izan behar duela. Hots, alternantzia honek, ez du aditzaren semantika orokorraren berri ematen. Arestiko alternantzian ikusi dugun bezala, aditzak onartzen dituen argumentuen xehetasun semantikoak jartzen ditu argitan.

3 Preposizio lokatiboaren galera (L 1.4.1) (Locative Preposition Drop Alternation)

Adib.

Ing. Martha climbed up the mountain / Martha climbed the mountain

Eusk. Martha mendira igo zen / Marthak mendia igo zuen

⁸⁷ *Orotariko Euskal Hiztegi*an autoreen obrak erreferentziatzeko modua da hau.

Levinen azalpena

Alternantzia hau, norabidezko preposizio-sintagma bat hartzen duten mugimenduzko zenbait aditzek erakusten dute. Aldaera iragangaitza norabidezko sintagma batez osatzen da, eta aldaera iragankorra, *bidea*, *helburua* edota gutxiagotan *iturria* adierazten duen objektu batez. Alternantzia honek, alternantzia lokatiboarekin (gero aztertuko dugunarekin) lotuta dagoen *efektu holistik/partitiboa* deritzona duela esaten da; hots, aditzak adierazten duena guztiz bete delako interpretazioa. Alternantzia honetan, zehazki, *bidea* edo *helburua* objektu gisa gauzatzen denean ageri da interpretazio holistikoa (“mendia igotzea” mendira igo eta jaistea esan nahiko luke, ez bakarrik igotzea).

Ingelezko aditzak

Ondoko sailak aipatzen ditu alternantzia honetan: Run *verbs* (batzuk) (L 51.3.2) (“*korritu* motako aditzak”); *Verbs that are Vehicle names* (batzuk) (L 51.4.1) (“Ibilgailua barneratua duten aditzak”); eta *Verbs of inherently directed motion* (batzuk) (L 51.1) (“Norabide jakineko mugimenduzko aditzak”). Argi dago, orduan, alternantzia hau onartu ahal izateko, lehenik eta behin, aditzak mugimenduzkoa izan behar duela. Ondoren, sail nagusi horretatik azpisail batzuk bakarrik, eta azpisail horietan aditz batzuk bakarrik zerrendatzen ditu. Berriz ere esan dezakegu ez duela alternantzia hau aparteko sail semantiko bat egiteko erabiltzen. Hona zerrendatutako zenbait aditz:

climb	51.3.2	igo
fly	51.3.2	hegan egin
run	51.3.2	korrika/lasterka egin
swim	51.3.2	igeri egin
travel	51.3.2	bidaidatu, bidaia egin
walk	51.3.2	(oinez) ibili
bicycle	51.4.1	bizikletaz ibili/joan/eraman
bike	51.4.1	bizikletaz ibili/joan/eraman
canoe	51.4.1	kanoaz/piraguaz ibili/joan/eraman
ascend	51.1	igo
depart	51.1	joan, irten, atera
descend	51.1	jaitsi
leave	51.1	irten, abiatu

Euskaraz

Euskaraz ere badago alternantzia hau. Hala ere, ingelezko aditz asko eta asko konposizioz itzuli behar dira, eta haietan *ibili/joan/eraman* aditzak baliatzen dira. Beraz, euskaraz, aditz horiek aztertzea da azken batean.

Nolanahi ere, euskaraz —eta ingelesez ere zalantza dugu— aditz gutxik dute aukera objektuan *bidea*, *helburua* edo *iturria* adierazteko. Eta uste dugu, gainera, posible denetan, zentzu holistikoa beti gertatzen dela.

Adibidez, *igo* eta *jaitsi* aditzetan, objektua izan daiteke *bidea*. Levinek jarritako adibidean, *mendia* “zeharkagarria” da eta, ondorioz, aldaera iragankorrean, *mendia*, *bide* gisa ulertzen da. Eta horretaz gain, zentzu holistikoa du; hots, *mendia* *igo* eta *jaitsi* egin dela ulertzen da. Izen honekin, *igo* aditzean aldaera iragangaitzak ere *bidearen* interpretazioa hartzen du; *jaitsi* aditzean, berriz, ez:

mendia *igo* zuen / mendira *igo* zen

↓

↓

mendia *igo* eta *jaitsi*= *bidea*

mendia *jaitsi* dut / mendira *jaitsi* naiz

↓

↓

bidea

helburua

Aldapa izenarekin, berriz, PSdun aldaeran ez da posible *bidearen* interpretazioa, ez *igon* ez *jaitsin*:

aldapa *igo/jaitsi* dut / aldapara *igo/jaitsi* naiz

↓

↓

bidea

helburua

Saltatuk ere bi aldaerak onartzen ditu, aldaera iragankorreko objektua beti da *bide* modukoa (*hesia/putzua saltatu*); PSdun aldaeran, berriz, *helburua* baizik ezin du adierazi (*hasira/putzura saltatu*).

Levinek zerrendatzen dituen ia gainontzeko aditz guztiek (*zeharkatu*, *joan*, *irten*...) ez dute alternantzia erakusten. Besterik gabe, aldaeretako bat bakarrik onartzen dute. Esaterako, *zeharkatuk* aldaera iragankorra bakarrik onartzen du, eta hartzen duen objektuaren interpretazioa beti da *bide* modukoa, *zeharkatuk* berez ‘espazio bat alde batetik bestera — alegia, zeharka— pasatzea’ esan nahi baitu. Hala, *helburua* adierazten duen PSdun aldaera ez da arrunta, okerra ez esatearren.

Alternantziaren azterketa

Alternantzia hau, gure ustez, lehenik eta behin, objektuan *bidea* onar dezaketen mugimenduzko aditzetara mugatzen da.

Baina, esan behar da, ez dugula garbi ikusten zer den alternantzia honen bidez adierazi nahi dena. Izan ere, ematen diren azalpen guztiak (*bidea/helburua/iturria* balioak eta interpretazio holistikoa) aldaera iragankorrari bakarrik dagozkio. PSdun aldaera ez da ezertarako aipatzen. Beraz, Levinek esaten duenean alternantzia hau erakusten dutela PS lokatiboa onar dezaketen mugimenduzko zenbait aditzek, ez dugu uste funtsezkoa denik

alternantzia honetan adierazten dena azaltzeko. Badirudi, bene-benetan erakutsi nahi dena dela aldaera iragankorreko *bidea* eta honen zentzu holistikoa PSdun egituran ere posible izan daitekeela; eta hori, berez, *igo* aditzean eta gainera izen jakin batzuekin (*mendi*, adibidez) bakarrik da zilegi. Gainontzerakoan, *bidezko* objektuak eta aldaera iragangaitzeko PSk harremanik eta zerikusirik ez dutela ematen du.

Jar dezagun, esaterako, *bidea* izateko aukera gutxiago duen objektu bat, *mahaia* esaterako:

mahaia igo dut / mahaira igo naiz / mahaitik igo naiz

mahaia jaitsi dut / mahaira jaitsi naiz / mahaitik jaitsi naiz

Adibideotan *mahaia* objektu arrunta da ‘mahaia norabait igo/jaitsi dudala’ adierazi nahi baita; eta aldaera iragangaitzeko PSk, izen berarekin, helburu hutsa adierazten du⁸⁸. Areago, *mahaia igo dut* adibidean PS lokatibo bat zilegi da: *mahaia igo dut ganbarara*. Objektua *bidea* denean, berriz, aukera hau ezinezkoa da: **aldapa igo dut tontorrera*.

Nolanahi ere objektua *bide* edo *gai* modukoa izatea item lexikalaren baitan dago, mugimezduzko aditzaren semantika orokorraren eta honek hartzen duen PS lokatiboaren baitan baino gehiago. Hortaz, alternantzia honek ez dio aditzen semantika orokorrari erreferentziarik egiten, eta bestetik, ez dago argi zer adierazi nahi den. Guk esan duguna adierazi nahi bada (hots, *bidea* objektua nahiz PS izatea), oso kasu gutxitan gertatzen da, eta hitz konkretuen baitan dago; ez aditzarenean. Ez bada guk esaten duguna, hemen aurkezten diren xehetasun semantikoak, alternantziarekin ez baizik eta aldaera iragankorarekin bakarrik dute lotura.

4 “With” preposizioaren galera (L 1.4.2) (With Preposition Drop Alternation)

Adib.

Ing. Jill met with Sarah / Jill met Sarah

Eusk. Jill Sarahrekin topatu zen / Jillek Sarah topatu zuen

Levinen azalpena

Alternantzia hau, potentzialki erreziproko diren aditz multzo txiki batek erakusten du. Aldaera iragankorraren esanahia eta *with*dun sintagma preposizionaleko aldaera iragangaitzaren esanahia bertsua dela esan ohi da. Alternantzia hau erakusten duten aditzek,

⁸⁸ *Bidearen* interpretazioa ere izan dezake oso testuinguru jakinetan: *mahaitik igo ginen balkoira*, non adierazi nahi den mahaia erabili genuela balkoira igotzeko.

elkarrekintza sozial moduko bat adierazten dute. *With* preposizioa hartzen duten aditz gutxik onartzen dute preposizio galera hau.

Ingelesezko aditzak

Elkarrekintzazko aditzen sailetik Meet verbs (L 36.3) (“*topatu* motako aditzak”) azpisaila aipatzen du Levinek: *battle* (*borrokatu*), *box* (*boxeatu*) *consult* (*kontsultatu*), *debate* (*eztabaidatu*); *fight* (*borrokatu*); *meet* (*topo egin* / *topatu*), *play* (*jokatu*, *jolastu*), *visit* (*bisitatu*, *bisita egin*). Beraz, badirudi, azpisail hau bereizteko baliatzen duela alternantzia.

Euskaraz

Euskaraz, zerrendatzen diren aditzetako batzuek baino ez dute erakusten hemengo egitura bikotea: *topatu* eta *borrokatu*⁸⁹. Aditz hauek ikusita, ez dirudi alternantziak elkarrekintza soziala adieraztearekin zerikusia duenik, eta ingelesez baino murriztapen gehiago jartzen ditu.

Alternantziaren azterketa

Ikusi dugunez, euskaraz oso mugatua da alternantzia hau, eta ez da nahikoa esatea aditzok elkarrekintza sozial bat adierazten dutela. Ordea, aditz hauek bi egiturak zergatik erakusten duten azaltzea ez da erraza. Besterik gabe, ematen du aldaera iragankorrean ekintza nork hasten duen zehazteak axola duela; bestean, ekintza nork hasten duen gorabehera, modu berean parte hartzen duten bi entitateak azpimarratzen dira. Aditzaren semantika orokorrari dagokionez, ordea, ez da ezer esaten.

5 Alternantzia lokatiboa: Spray/Load alternantzia (L 2.3.1) (Spray/Load alternation)

Adib.

Ing. Jack sprayed paint on the wall / Jack sprayed the wall of paint

Eusk. *Jackek horman pintura ihinzatu zuen/ Jackek horma pinturaz ihinzatu zuen

Beste aditz batekin, ordea, bai:

Baserritarrak soroan garia *erein* du / Baserritarrak soroa gariz *erein* du⁹⁰

Alternantzia hau *Locative alternations* deiturikoen sortan lantzen du Levinek. Euskaraz, sorta horretatik bakarrik *Spray/Load* alternantzia ageri zaigu, baina izatez sorta guztiari dagozkion ezaugarri sintaktiko eta semantikoak erakusten ditu. Hori dela eta, Levinek alternantzia sorta honi buruz oro har esaten duena jarriko dugu azalpenean.

⁸⁹ Gogoratu alternantzia konatiboan *borrokatu* aditzerako eman ditugun *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideak: *Norbait jo, borrokatu edo arramaskatu dezu?* (Argi DL27) / *Moruen aurka borrokatzera joateko asmoa artu zun* (Etxde Alost 66).

⁹⁰ Etxeparengandik hartutako adibide-parea (*A grammar of Basque* (2001): 301).

Levinen azalpena

Alternantzia lokatiboa onartzen duten aditzek, substantziaren bat azaleraren batean jartzea nahiz substantziaren bat azaleraren batetik kentzea adierazten dute. Clark & Clark-en (1979) terminologiari jarraiki, alternantzia hauetako bi aldaeretan *locatum* argumentua eta *location* argumentua daude; hots, leku batetik bestera mugitzen den substantzia (*locatum*), eta substantzia hori kokatua den lekua (*location*).

Alternantzia hauen beste ezaugarri bat, arestiko alternantzian aipatu dugun zentzu holistiko/partitiboa izatea da. *Locatum* argumentua objektu gisa gauzatzen denean, interpretazio holistikoa jasotzen da; hots, delako lekuak aditzak adierazten duen ekintza “guztiz” jasaten du. Preposizio baten objektua denean, berriz, interpretazio hau ez da nahitaezkoa. Dena den, interpretazio holistikoaren izaera gehiago zehaztu beharra dagoela aipatzen du Levinek, guk geuk ere iradoki dugun bezala.

Spray/Load alternantzian, *with* preposizioa erabiltzen da *locatum* PSn. Horretaz gain, substantziaren bat azaleraren batean “jartzea” edo “azaleraren bat substantziaren batekin estaltzea” aditzera ematen da, eta zentzu holistiko/partitiboa du. Aditz iragankorrek nahiz iragangaitzek onartzen dute, baina Levinek dio alternantzia beraren aurrean geundekeela aditz iragangaitz hauek ez-akusatibotzat hartuz gero.

Ingelesezko aditzak

Spray/Load verbs azpisaila (L 9.7) aipatzen du alternantzia honetan. Adib.:

brush	9.7	eskuilatu
crowd	9.7	pilatu
drape	9.7	(oihalez) estali
dust	9.7	azukreztatu/arineztatu
hang	9.7	apaindu
load	9.7	kargatu/zamatu
pack	9.7	bete
plaster	9.7	igeltsuz estali
seed	9.7	erein
settle	9.7	(lurraldea) jendeztatu
spatter	9.7	zipriztindu
spray	9.7	ihinztatu
stock	9.7	hornitu, zuzkitu
smear	9.7	zikindu, lohitu

Beraz, esan daiteke azpisail hau egiteko baliatzen duela alternantzia hau.

Euskaraz

Aditzok euskaraz aztertzen baditugu, gutxi ditugu hemen aurkeztzen den alternantziaren parte-hartzaile; *kargatu* eta *erein*, zehazki. Eta instrumentala da erabiltzen den postposizioa. Horren erakusgarri dira, batetik, *Euskal Hiztegian kargatu* aditzerako ematen diren

adibideak, eta bestetik, Etxeparek *A grammar of Basque* (2001) liburuan *erein*entzat emandakoak:

Abrahamek egurraz kargatu zuen Isaak / Bi zaku sagar gurdian kargatu
(*Euskal Hiztegiko* adibideak)

Baserritarrak soroan garia *erein* du / Baserritarrak soroa gariz *erein* du
(Etxepareren adibidea)

Beste zenbait, hala nola, *jendeztatu*, *zipriztindu*, *ihinztatu*, aditz eratorriak direla ikusten dugu, eta eratorpen-prozesu horretan *locatum* argumentua aditzaren baitan geratu da, *location* argumentua izanik objektu gisa gauzatzen dena. Ondorioz, ez dago beste aldaerarako lekurik. Beste batzuek aldaeretako bat erakusten dute bakarrik: *estali*, *bete*, *hornitu*, *apaindu*, *zikindu*. Eta beste zenbaitek ez dute ez bata ez bestea erakusten: *eskuilatu*, *pilatu*.

Euskaraz, beraz, mugatua da oso alternantzia honen hedadura. Ordea, *locationa* objektu deneko egitura, aditzetako askok onartzen dute, eta haien adiera *kargatu* eta *erein* aditzenarekin pareka daiteke, hemen darabilgun ‘*locatuma location* batean jartze’ zentzuan.

Bestetik, aipatu beharra dago badela, euskaraz, ‘jartzea’ gabe ‘kentzea’ adierazten duen aditz bat, *hustu*, hemen aztertzen ari garen egituretako bat erakusten duena. Ikus *Euskal Hiztegiko* adibide hauek:

Botila, zakua hustu

Bazterrak oro euskaldunez hustu eta gaskoiez betetzen

Alternantziaren azterketa

Ikusitakoaren arabera, ez dirudi alternantzia honek semantika jakineko sailak biltzen dituenik, baizik eta semantika jakin baten barruko aditz batzuk; euskararen kasuan, gutxi gainera.

Bestetik, alternantziari esleitzen zaion balioa (‘entitate bat nonbait jartzea’ eta zentzu holistikoa) berez aldaera bati bakarrik dagokio. Alternantzia honetan, berez, objektu lokatiboaren afektazio mailak aditzera ematen dira: aldaera batean objektu lokatiboa guztiz ukitua dago (holistikoa: *locatuma* instrumentala denean) eta bestean ez (*locatuma* absolutiboa denean).

9 puntuko alternantzietan esan dugun bezala, Vázquez et al.-en lanean (2000) ere ez da garbi adierazten alternantzia lokatiboak zer islatzen duen. Autore hauek *Inversión* delakoaren azpian tratatzen dituzte alternantzia lokatiboko egiturak (beste batzuen artean). Hauen

ezaugarria da funtzio-aldaketak gertatzeaz gain, afektazioaren graduak desberdinak direla aldaera batean eta bestean, guk esandakoaren ildotik. Oin-ohar batean adierazten dituzte hauei buruzko xehetasunak:

³⁰Además del cambio de foco, en este par de oraciones [*El mozo cargó el camión de patatas / El mozo cargó patatas en el camión*] se produce otra diferencia en la lectura de las dos variantes en relación al grado de afectación de la entidad (efecto holístico o partitivo).

Vázquez et al., 2000: 124

Rebolledok ere (2002) gauza bera dio Vázquez et al.-ek (2000) alternantzia lokatiboez diotenari buruz:

Por su parte, la Inversión recoge la posibilidad de que se inviertan las funciones sintácticas propias de los argumentos actanciales de un verbo sin perder contenido comunicativo. Tampoco aquí queda claro en qué medida la inversión está vinculada al significado verbal o depende sólo de la posibilidad que presente el argumento de escindir en dos elementos que mantengan entre sí relaciones de contigüidad lógica. La falta de claridad de en cuanto a los rasgos de significado que estas alternancias [Vázquez et al.-en (2000) *holística* eta *inversión* alternantziez ari da] ponen de manifiesto se refleja en la debilidad que ambas presentan como criterios clasificadores, puesto que ninguna de las dos es una alternancia definitoria de una clase verbal.

Rebolledo, 2002: 96

V.3 Laburtuz

Ikusitakoarekin, argi geratu da alternantziek aditzaren ezaugarri desberdinak islatzen dituztela, eta ezaugarri horiek hainbat baliabide sintaktikoz gauzatzen direla (batzuetan baliabide horiek berdinak, eta beste batzuetan desberdinak).

Laburtzeko, ikusiko dugu zeintzuk diren alternantziak erakusten dituzten ezaugarri semantiko horiek eta zein baliabide sintaktiko (ageri)z gauzatzen diren. Baliabide sintaktikoen artean ondokoak izango ditugu kontuan: osagaien balentzian aldaketarik dagoen ala ez; Kasu desberdinak inplikutzen diren ala ez; eta aditz laguntzailea aldatzen den ala ez.

Aztertu ditugun 19 alternantzietatik, gutxik dute zerikusia aditzen semantika orokorrarekin. Bik zehazki:

- Alternantzia **kausatibo/inkoatiboa**: *aldaketa*-aditzek dutena (*kausai _gai ukitu* osagai semantikoez adierazia)
- **Objektu inespezifikoaren / objektu barneratuaren** alternantzia: *jarduera*-aditzek dutena (*esperimentatzaile _gai* osagai semantikoez adierazia).

Bi alternantzia hauek elkarren artean baztertzailak direla ematen du. Hots, kausatibo/inkoatiboa onartzen duten aditzek ez dute objektu inespezifikoaren edo barneratuaren alternantzia onartzen.

Bi alternantziatan, beraz, zehaztu ditugun osagai semantikoak daude jokoan. Aldaketa sintaktikoei dagokionez, berriz, ondokoak dira agerian ikusten ditugunak:

Bietan argumentuen balentzian aldaketak daude; Kasuetan, berriz, ez:

Alternantzia kausatibo/inkoatiboan Kasu ergatiboa desagertzen da. Honek aditz laguntzailea bi aldaeretan desberdina izatea eragiten du: DUtik DAra pasatzen da. Adib.:

[HaurraK] [jostailuaØ] puskatu DU -> [jostailuaØ] puskatu DA
1 2 1⁹¹

Objektu inespezifikoaren edo barneratuaren alternantzian Kasu absolutiboa desagertzen da. Honek ez du eragiten aldaketarik laguntzailean (DU izaten jarraitzen du): Adib:

[HaurraK] [zopaØ] jan DU -> [HaurraK], jaten DU
1 2 1

Beste alternantzia batean zalantzazkoa da inplikazio semantikoa; ez dago argi orokortzat jo behar den ala ez. Hori da Alternantzia **lokatiiboaren** kasua.

Badirudi alternantzia honetan argumentu lokatiiboaren afektazio mailak aditzera ematen direla. Horrela izanda, argumentu baten ukikutasunari buruzko zehaztasunak, eta ez aditzarenak, ematen dira. Ondorioz, Alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen duten aditzek (edo zenbaitek) alternantzia lokatiiboa onartzea espero izatekoa da.

Alternantzia honek ez du balentzia-aldaketarik ekartzen, ez eta laguntzaileena ere (oinarrizko egitura DA bada, DA izaten jarraitzen du; oinarrizko egitura DU bada, DU izaten jarraitzen du). Kasuena bai. Adib:

Anderrek [soroaØ] [gariZ] erein DU -> Anderrek [soroaN] [gariaØ] erein DU
1 2 3 1 2 3

Gainontzekoek aditzaren semantikari zuzenean ez dagozkion bestelako ezaugarriak adierazten dituzte:

Zenbaitzuk aditzen argumentuen ezaugarri semantikoekin dute lotura:

⁹¹ Zenbaki hauek ez dute aldaeren osagaien arteko indizekidetza adierazten, argumentu-kopurua baizik.

- **Zeharkako subjektuen** alternantziek (Denborazko subjektua eta Kausa abstraktuzko subjektua), aditzaren argumentuetako baten tasun semantikoak erakusten dituzte; eta era berean agente (edo gizakiaren) desagerpena azpimarratzen dute. Tasun hauek zehazki *kausazko* osagai semantikoari dagozkio. Kausa osagaiaren tasun semantikoen berri emateko, alternantziaren aldaera batean agentea (gizakia) eta beste osagai lokatibo/denborazko/kausazko... bat ezartzen ditu autoreak, eta beste aldaeran osagai lokatibo/denborazko/kausazko hori sintagma ergatiboan eta agentea desagerturik. Hori dela eta, alternantzia hauetan balentzian aldaketa gertatzen da (nahiz eta ez izan argumentu mailakoa); Kasuetan ez dago aldaketarik eta laguntzailean ere ez. Adib.:

[AbokatuaK] [errugabetasunaØ] [gutunarEKIN] frogatu zuen ->

1 2 3

[GutunaK] [errugabetasunaØ] frogatu zuen

1 2

- **Substantzia/Iturria** alternantzian *iturria* osagai semantikoa biziduna den ala bizigabea den adierazten da. Aldaera batean *iturriak* beti izan behar du bizigabea, baina bestean bietarikoak ager daitezke. Euskaraz, gainera, hirugarren aldaera bat badago ezaugarri hauek erakusten dituen: *iturria* datiboz gauzatzea. Horrelakoetan iturria biziduna izaten da. Hiru aldaeratan Kasuak aldatu egiten dira, baita laguntzailea ere. Balentzian, berriz, ez dago aldaketarik. Adib.:

[EguzkiaK] [beroaØ] isurtzen DU

[AnimaliaK] [malkoakØ] isurtzen DITU ->

1 2

[EguzkiTIK] [beroaØ] isurtzen DA

1 2

[AnimaliarI] [malkoakØ] isurtzen ZAIZKIO

1 2

- Alternantzia **konatiboa**: mugimendu eta kontaktuzko aditzen gaiaren tasun semantikoak aditzera ematen ditu: solidoa eta topea izatea. Kasuetan aldaketak dakartza, baina balentzian eta aditz laguntzailean ez. Adib.

[PaulaK] [hesiaØ] jo ZUEN -> [PaulaK] [hesiaN] jo ZUEN

1 2 1 2

- **Preposizio lokatiboaren** galera: Kokapen-aldaketazko aditzen objektua bide *bide* gisakoa izan daitekeela jartzen digu agerian. Alternantziaren bidez zer adierazi nahi

den, ordea, ez dago argi. Agian *bide* hau batzuetan absolutiboz gauzatzen dela eta beste batzuetan PS batez (euskaraz adlatiboz). Hala, alternantzia honek Kasuetan eta aditz laguntzailean aldaketak ditu, baina ez argumentuen balentzian. Adib.:

[MarthaØ] [mendiRA] igo ZEN -> [MarthaK] [mendiaØ] igo zuen
 1 2 1 2

Beste batzuk subjektuek ekintzarekiko duten joera adierazten dute:

- **Agentearen ezaugarri arruntaren** alternantzia
- **Instrumentuaren ezaugarri arruntaren** alternantzia

Biotan ez dago aldaketarik ez Kasuetan ez eta laguntzailean ere, baina bai balentzian. Adib.:

[Zakur horreK] [jendeaØ] hozkatzen du -> [Zakur horreK] hozkatu egiten du
 1 2 1

[Labana honeK] [ogiaØ] mozten du -> [Labana honeK] ez du mozten
 1 2 1

Beste zenbaitzuk argumentuen kopuruarekin dute lotura:

- Alternantzia **erreziproko sinpleak** (iragankorra eta iragangaitza)
- **Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa** duen alternantzia
- **With preposizioaren galera** alternantzia

Alternantzia erreziproko sinpleetan Kasuak eta laguntzailea ez dira aldatzen, baina bai balentzia. Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzian, Kasuak ez dira aldatzen, baina bai laguntzailea eta balentzia. Azkenekoan, berriz, Kasuak aldatzen dira, laguntzailea ere bai, baina ez balentzia. Adib.:

Alternantzia erreziproko sinpleak:

[NiK] [OlioØ] [ozpinetikTIK] bereizi NUEN -> [NiK] [OlioØ eta ozpinaØ] bereizi NITUEN
 1 2 3 1 2

[OlioØ] [ozpineTIK] banandu ZEN -> [OlioØ eta ozpinaØ] banandu ZIREN
 1 2 1

Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia:

[AnneK] [CathyØ] topatu ZUEN -> [Anne eta Cathy] topatu ZIREN
 1 2 1

With preposizioaren galera:

[JillØ] [SarahREKIN] topatu ZEN -> [JilleK] [SarahØ] topatu ZUEN
1 2 1 2

Azkenik, posesio-harremanak adierazten dituztenak ditugu:

- **Gorputz-atalaren igoera** alternantzia: jabea eta gorputz-atalen arteko harremana adierazten da.
- **Atributu-objektuaren** eta **Jabe-subjektuaren** alternantziak: Jabea eta atributuen arteko harremanak adierazten dira.

Hauetan guztietan balentzia-aldaketak daude, baina Kasuak eta laguntzaileak ez dira aldatzen. Adib.:

Gorputz-atalaren igoera:

[ZaldiaØ] [bizkarreaN] ukitu ZUEN -> [Zaldiaren bizkarraØ] ukitu ZUEN
1 2 1

Atributu-objektua:

[BeregaN] [zintzotasunaØ] miresten ZUEN -> [Bere zintzotasunaØ] miresten ZUEN
1 2 1

Jabe-subjektua

[PailazoaK] [bihurrikeriEKIN] [haurraØ] entretenitu zituen ->
1 2 3

[Pailazoaren bihurrikerieK] [haurrakØ] entretenitu zituzten
1 2

Bukatzeko, “**midde**” alternantzia inbertsonalen parekotzat jo dugu, eta ondorioz, ez dugu semantikotzat jo zuzuzenean.

Ikus, beheko irudian, esandakoa, eskematikoki :

L zk.	Alternantziaren izena	Aditzaren semantikari loturikoa BAI/EZ, eta zer adierazten duen	Adibidea euskaraz	Kasuak aldatu BAI/EZ	Balentzia aldatu BAI/EZ	Lag. aldatu BAI/EZ
1.1.1	“middle”	EZ. Inpersonalaren antza	Janetek ispilua puskatu zuen / Ispilua ukiturik leunenarekin hausten da	EZ	BAI	BAI
1.1.2.1	kausatibo/inkoatiboa	BAI. Aldaketa	Haurrak jostailua puskatu du / Jostailua puskatu da	EZ	BAI	BAI
1.1.3	Substantzia/iturria	EZ. Argumentuen izaera semantikoa	Eguzkiak beroa isurtzen du / Eguzkitik beroa isurtzen da / Animalari malkoak isurtzen zaizkio	BAI	EZ	BAI
1.2.1	Objektu inespezifikoa	BAI. Jarduera	Haurrak zopa jan du / Haurrak, jaten du	EZ	BAI	EZ
1.2.4	Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia	EZ. Argumentu kopurua	Annek Cathy topatu zuen / Anne eta Cathy topatu ziren	EZ	BAI	BAI
1.2.6.1	Agentearen ezaugarri arrunta	EZ. Subjektuak ekintzarekiko joera	Zakur horrek jendea hozkatzen du / Zakur horrek, hozkatu egiten du	EZ	BAI	EZ
1.2.6.2	Instrumentuaren ezaugarri arrunta	EZ. Subjektuak ekintzarekiko joera	Labana honek ogia mozten du / Labana honek ez du mozten	EZ	BAI	EZ
1.3	Alternantzia konatiboa	EZ. Argumentuen izaera semantikoa	Paula hit at the fence / Paula hit the fence	BAI	EZ	EZ
1.4.1	Preposizio lokatiboa galtzea	EZ. Argumentuen izaera semantikoa	Martha mendira igo zen / Marthak mendia igo zuen	BAI	EZ	EZ
1.4.2	With preposizioa galtzea	EZ. Argumentu kopurua	Jill Sarahekin topatu zen / Jillek Sarah topatu zuen	BAI	EZ	EZ
2.3.1	Spray/load alternantzia	?. Argumentu baten afektazio maila	Anderrek soroan garia erein du / Anderrek soroa gariz erein du	BAI	EZ	EZ
2.5.1	Alternantzia erreziproko sinplea (Iragankorra)	EZ. Argumentu kopurua	Olioia ozpinetik bereizi nuen / Olioia eta ozpina bereizi nituen	EZ	BAI	EZ
2.5.4	Alternantzia erreziproko sinplea (Iragangaitza)	EZ. Argumentu kopurua	Olioia ozpinetik banandu zen / Olioia eta ozpina banandu ziren	EZ	BAI	EZ
2.12	Gorputz-atal osagaiaren igoera alternantzia	EZ. Posesio-harremanak	Selinak zaldia bizkarrean ukitu zuen / Selinak zaldiaren bizkarra ukitu zuen	EZ	BAI	EZ

L zk.	Alternantziaren izena	Aditzaren semantikari loturikoa BAI/EZ, eta zer adierazten duen	Adibidea euskaraz	Kasuak aldatu BAI/EZ	Balentzia aldatu BAI/EZ	Lag. aldatu BAI/EZ
2.13.2	Atributu-objektua	EZ. Posesio-harremanak	Beregan zintzotasuna miresten nuen / Bere zintzotasuna miresten nuen	EZ	BAI	EZ
2.13.4	Jabe-subjektua (Iragankorra)	EZ. Posesio-harremanak	Pailazoak bihurrikeriekin haurrak entretenitu zituen / Pailazoaren bihurrikeriek haurrak entretenitu zituzten	EZ	BAI	EZ
3.1	Denborazko subjektua	EZ. Argumentuen izaera semantikoa	Munduak aro berri baten hasiera ikusi zuen 1492an / 1492k aro berri baten hasiera ikusi zuen	EZ	BAI	EZ
3.4	Kausa abstraktuzko subjektua	EZ. Argumentuen izaera semantikoa	Abokatuak errugabetasuna gutunarekin frogatu zuen / Gutunak errugabetasuna frogatu zuen	EZ	BAI	EZ
7.1	Objektu barneratua	BAI. Jarduera	Sarah-k waltza dantzatu du / Sarah-k, dantzatzen du	EZ	BAI	EZ

V.4 Ondorioak

Alternantzia guztiak aztertu eta gero hainbat dira atera daitezkeen ondorioak. Ondorio garrantzitsuenak aipatzeko ondoko bi puntuetan oinarrituko gara. Alde batetik, planteatutako kontzeptzio teorikoak (alternantzia berak konpartitzen dituzten aditzak osagai semantiko berak konpartitzen dituztela dioena), eta bestetik, horrek zein eragin duen gure abiapuntuko gaian, aditzen azpikategorizazioan, alegia.

Kontzeptzio teorikoari dagokionez:

Alternantziak aztertu eta gero, argi dago alternantzia guztiek ez diotela erreferentzia egiten aditzaren semantika orokorrari. Gehienek aditzaren bestelako informazioaren berri ematen dute. Aldi berean, aditzen semantikari erreferentzia egiten diotenak orokorragoak dira; hau da, aditz gehiagok onartzen dituzte. Besteak aditz banakoari lotuago daudela esan daiteke. Horrek esan nahi du, alternantzia hauek konpartitzen dituzten aditzak, lehenik eta behin adiera semantiko jakin bat dutela, eta gero, alternantzia zehatzago hauek konpartitzeak azpimultzotan banarazten dituztela: argumentu kopuruen arabera, argumentuen izaera semantikoren arabera, ekintzaren hasiera markatzen den arabera eta abar.

Bestetik, ikusi dugu nahiz eta alternantzia semantikoki esanguratsuen bidez aditz mota batzuk deskribatu, aditz guztiek ez dutela alternantzia hori bete behar delako mota semantikokoa izateko. Gogoratu esaterako: (kokapen-)aldaketa adierazten duten aditzen artean baditugu *atera DA/DU* modukoak, baina balio semantiko berori badute *ekarrik*, *joanek* edota *erorik* ere, nahiz eta ez dituzten alternantzian aztertutako bi aldaera sintaktikoak. Honenbestez, alternantziarik konpartitzen ez dituzten aditzen kasuan mota batekoa edo bestekoa den esatea intuizio eta logikazko aukera bat da. Esan daiteke alternantziek aditzen balio batzuk argitara ematen dituztela, baina ezin da esan balio hori lortzeko aditzen egitura sintaktiko hutsean oinarritu gaitezkeenik. Hots, aditzen semantika ezin da guztiz deduzitu syntaxian bakarrik oinarrituta. Hona Levinek berak (1993) eta Vázquez et al.ek (2000) diotena honi dagokionez:

Although no one is likely to deny that words with similar meaning show at least some tendency toward displaying the same syntactic behavior, the hypothesis that the syntactic behavior of word is fully semantically determined is not uncontroversial. Many researchers have argued that this hypothesis must be rejected, citing numerous purported counterexamples to it. Nevertheless, the meaning of verbs does have considerable predictive ability, as the examples above and examples cited in the work illustrate, suggesting that the ties between a verb's meaning and its syntactic behaviour cannot be simply be ignored.

Levin, 1993: 12

Consideramos que no es posible determinar el comportamiento sintáctico a través de la semántica de forma absoluta. Levin aplica este criterio y el resultado es que define clases semánticas basadas en criterios nocionales cuyos verbos se presentan en subgrupos según criterios sintácticos; no existe, de hecho, conexión entre sintaxis y semántica.

Vázquez et al., 2000: 41

Beraz, argi dago alternantziak inportanteak badira ere, ezin dela horietan bakarrik oinarritu aditzak sailkatzeko.

Hari beretik, ohartzen gara aditzaren semantika orokorrari dagozkion alternantzietan *prozesuak* bakarrik azaltzen direla. Hots, ez dago entitate baten egoera, deskribapena, existitze hutsa adierazten duenik. Ez dago ere *sortzezko* balioa argitan jartzen duenik. Hor, beraz, beste hutsune bat dago.

Azpikategorizazioari dagokionez:

Azpikategorizazioa definitu dugu bezala (pieza lexikalen gauzapean sintaktikoa), planteatzen diren alternantzia guztiek garrantzia dute, aditz beraren forma sintaktiko desberdinak diren neurrian.

Alternantzia orokorrek, ezaugarri sintaktikoez gain, ezaugarri semantikoak ere islatzen dituzte; guk esplizitu egin ditugu. Baina ez dituzten aditzaren ezaugarri guztiak definitzen, nagusienak baizik. Alternantzia kausatibo/inkoatiboan esan dugun bezala, *aldaketa* egoerazkoa edo kokapenezkoa den aditzaren barruko semantikak zehazten du. Bestetik, ikusi dugu aditzaren semantika orokorrari erreferentziarik egiten ez dioten alternantzietan, beste hainbat osagai agertzen direla aditzarekin. Horiek aditzaren eskakizunekin zein harreman duten zehaztu beharra dago, eta izatez, kapitulu honetan hori egiten saiatu gara.

Beraz, aditz baten azpikategorizazio-ezaugarriak (sintaxiko gauzapena) definitzeko, egiturak ematen dituen ezaugarriak eta aditzak berezkoak dituenak konbinatu behar dira. Hala izanik, *Construccionismoaren* ideiak onartzen ditugula esan daiteke. Halaxe laburtzen du Rebolledo (2002) korrante honen ideia nagusia:

El Construccionismo asocia el significado del verbo –que se admite como algo conocido, pero que es necesario organizar– con el de la construcción, entendida como un signo independiente, y afirma que el significado oracional es el resultado de integrar ambas unidades.

Rebolledo, 2002: 65

Hori kontuan izanda, aditzen azpikategorizazio-patroiak, gure ustez, egitura orokorren nahiz aditzen ezaugarri semantikoak eta ezaugarri hauen gauzapena zehazten duten egiturak dira. Horregatik, *azpikategorizazio-patroi* eta *alternantzia* kontzeptuak ez dira nahastu behar.

Rebolledok (2002) ere ohar bera egiten du zenbait autorek *alternantzia* terminoari ematen dioten erabileraren harira:

¹⁵Faber y Mairal mantienen el término de “alternancia” pero, como veremos, no se trata ya de pares de estructuras que alternen, sino de estructuras únicas que se asocian a una plantilla léxica, y por tanto sería más correcto denominarlas sencillamente “estructuras”.

Rebolledo, 2002: 56

Azpikategorizazio-egitura hauek ezaugarri sintaktiko eta semantikoak dituztenez, *aditzen balio sintaktiko/semantikoak* direla esango dugu.

Horrela izanik, alternantziak bakarrik aztertzea ez da nahikoa azpikategorizazioa lantzeko. Hots, alternantzien azterketa egokia izan daiteke aditz multzo orokorrak egiteko, baina azpikategorizazioaren ikuspegitik ez da osoa. Horregatik, gure lanari osotasuna emateko, zenbait aditzen gainean azterlan bat burutzea egoki iruditu zaigu; baina *corpusean oinarrituta*. Honen bidez, alde batetik orain arte esandakoak betetzen diren ikusi nahi dugu, eta bestetik, falta dena ahal den neurrian osatzen saiatu nahi dugu. Eta inportanteena: gure lan-eremura (hizkuntzalaritza konputazionalera) gehiago hurbiltzen gara, testu libre eta errealak aztertzen ditugun aldetik. Izatez, erreferentzia gisa hartu ditugun lanetan, teoriarik egiten dituzten baieztapen guztiak lan deskriptibo baten bidez egiaztatze beharra azpimarratzen dute.

Evidentemente, este trabajo deberá ser continuado mediante una parte descriptiva que permita constatar todas las hipótesis teóricas que hemos ido barajando hasta aquí.

Rebolledo, 2002: 120

Zeregin horretan, jakina, kontuan izango ditugu alternantzietan proposatutako osagai semantikoak eta aztertutako ezaugarriak.

Hortaz, aditz baten azpikategorizazio-egiturak, berez, *egitura sintaktiko/semantikoak* dira, eta egitura horiek aditz baten *balio sintaktiko/semantikoak* definitzen dute, beraien artean alternantzia osatu ala ez. Alternantzia baten aldaera diren egitura sintaktiko/semantikoek osagai semantiko berak izango dituzte (edo hauetakoren bat faltako dute, balentzia-aldaketa gertatzen denean). Elkarren artean alternantzia osatzen ez dutenek, ez dituzte osagai semantiko berak izango. Hau bat dator [V.1](#) puntuan esan dugunarekin.

VI kapituluan, honenbestez, aditzen balio sintaktiko/semantikoak lantzeko modua eta azterketa horretatik atera ditugun fenomeno aipagarrienak azalduko ditugu.

VI GURE LANA OSATZE ALDERA: 100 ADITZEN AZTERKETA, CORPUSEAN OINARRITUTA

Alternantzien azterketan argi geratu da beroien lanketa interesgarria bada ere, aditzen azpikategorizazioari buruzko zati bat baino ez dutela ematen. Aditzek informazio hori kodetzen dute, baina berezko informazio gehiago ere badute.

Corpus bidezko azterketa honen bidez, aditzek bere baitan duten informazio guztia erdiestea dugu helburu. Baita esan ditugunak betetzen diren ala ez egiaztatzea. Corpusa erabiltzeak, gainera, eremu konputazionalera hurbiltzen gaitu, esaldi errealak aztertzen diren aldetik. Eta hori oso inportantea da gure ikuspegitik.

Azterketa burutzeko, eskura dugun hainbat corpus hartu dugu oinarriztat. Sarreran esan dugun bezala, *XX mendeko euskararen corpus estatistikoko* 1900etik 1994ra bitarteko testuak eta *Euskaldunon Egunkariko* 1999ko urtarriletik 2000ko maiatza bitarteko aleak erabili ditugu.

Aditz bakoitzari buruzko informazioa modu antolatu batean gordetzeko, datu-base bat egin dugu. Datu-base honen helburua da aditz bakoitza definitzea alternantzietan zehaztu ditugun ezaugarriez eta azterketa deskriptiboan zehaztuko ditugunez. Horregatik, datu-basearen diseinua eta eremuak definitu baditugu ere, eremu guztien balioak ez daude zehaztuta aldeztu aurretik, hain zuzen aztertze-prozesuan balio berriak definitzea aurreikusten delako. Esan daiteke, orduan, datu-base hau datuak gordetzeko baliabidea izan dela batez ere. Gure helburua ez da izan hasiera batetik datu linguistikoak modu sinplifikatuen eta antolatuenean jartzea, baizik eta garapenean den ikerketa baten emaitza modu esplizitu eta erabilgarrian kodetzea.

Eremu horiek betetzen laguntzeko, III.2.2 puntuan azalduko datu estatistikoak ere baliatuko ditugu.

Sarreraren esan dugun bezala, 100 aditz horiekin egin dugun azterketa zehatza ez dugu tesi-lan honetan txertatu. Tesi-lan honekin batera doan C eranskinean du lekua (*100 aditzen azterketa zehatza*). Horren ordez, hemen, 100 aditz horien azterketan ikusitako fenomeno garrantzitsuenak eta ateratako ondorio nagusiak azalduko ditugu.

Aditzen azterketari ekiteko, beroien hautua izan da lehendabiziko eginkizuna. Horretarako erabili ditugun irizpideez mintzatuko gara atal honetako lehenengo puntuan (VI.1).

VI.2 atalean, aditzen informazioa gordetzeko eraiki dugun datu-basea azalduko dugu. VI.2.1 puntuan aditzen balio sintaktiko/semantikoak definitzeko eremuak eta markatzeko sistema izango dugu mintzagai. Datu linguistikoak gordetzeko dauden mugak ere aipatuko ditugu, VI.2.1 puntuan.

VI.3 atalean, aditz bakoitzeko baliatu ditugun datu estatistikoak azalduko ditugu laburki.

VI.4 puntuan, emaitzak erakutsiko ditugu. VI.4.1 puntuan datu orokor batzuk emango ditugu; VI.4.2 puntuan, agertu zaizkigun alternantzien inguruan arituko gara; VI.4.3 puntuan, oro har zein adiera eta zein osagai semantiko atera zaizkigun aztertuko dugu; VI.4.4 puntuan, horiek guztiak zehazterakoan izan ditugun arazoak eta erabakiak hartzeko arrazoiak azalduko ditugu; VI.4.5 puntuan, zenbait kontu interesgarri aipatuko ditugu; eta, azkenik, VI.4.6 puntuan, Kasuek zein osagai semantiko izan ditzaketen azalduko dugu laburki.

VI.5 puntuan, aditz baten azpikategoriazioa zehazteko zein ezaugarri diren beharrezko argituko dugu.

VI.6 puntuan, corpusaren erabilerak dituen abantailak eta mugak aipatuko ditugu.

Eta azkenik, VI.7 puntuan azterketa konputazionaleri begira interesgarriak eta aplikagarriak izan daitezkeen datuak aurkeztuko ditugu.

VI.1 Aditzen hautaketa

Aditzak aztertzeko lehenengo eginkizuna beraien hautua izan da.

Horretarako, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* baliatu dugu. Bertatik, 22.000 hitzeko lagin bat oinarri hartuta, aditzak maiztasun handienetik txikienera zerrendatu ditugu (622 guztira), eta horietatik, 100 hautatu. Hautapena egiteko irizpideen artean, lehenik eta behin, aditzak baztertzeko erabili ditugunak zerrendatu ditugu:

- Eratorpen-prozesu garbi eta emankor baten ostean sortutako zenbait aditz bazterturik. Levinen alternantziak eta aditzak aztertzerakoan, ikusi dugu aditz eratorri eta ez-eratorriek azaleko egitura sintaktiko desberdina dutela, baina horregatik ez direla semantika desberdinekoak. Horretaz gain, argi geratu da eratorpenerako joerak desberdinak izan daitezkeela hizkuntza batetik bestera: hizkuntza batean aditzean txertatuta dagoena, bestean aparteko sintagma batez adierazten da. Beraz, lehenik, inportanteena iruditzen zaigu txertaketa edo inkorporazio garbirik ez duten aditzen egitura aztertzea, eta gero osagai bat txertatzen denean egon daitezkeen erregulartasunak bilatzea.

Eratorpen-prozesua, ordea, ez da beti hain agerikoa. Askotan aditzaren osaeran parte hartzen duten osagaiak ez dira hain garbi antzematen, euren sorrera oso atzera dagoelako historian, seguruenez. Gràcia et al.-en (2000) irakur dezakegunez, euskal aditz eratorriak *-tu* atzizkiaren bidez sortzen dira (bigun + *-tu*; zigor + *-tu*...), baina horretaz gain, atzizki honek beste zeregin batzuk ditu. Berez, latinetiko *-tumetik* dator, eta literatura aurreko mailegutan nahiz euskararen berezko hizkiei itsatsirik ageri zaigu. Liburuko adibideak baliatuz:

aditu < auditum

deitu < dictum

sartu < sar + *-tu*

Bestetik, gaur egun maileguak hartzeko dagoen atzizki bakarra da:

transformatu, suposatu

Eta, horretaz gain, behin aditza osatzen denean, *-tu* atzizki flexiboaren pare-pareko jokaera du.

Argi dago, beraz, *-tu* morfemak zeregin asko dituela, eta horrek fenomenoak nahastea dakarrela.

Aipaturiko liburuan, hala ere, *-tu* atzizkiaz osaturiko eratorrien sailkapenak proposatzen dira. *-Tu* atzizkiari lotzen zaion oinarriaren arabera, 12 *-tu* proposatzen dituzte. Semantikari begiratuz, berriz, 6 sail proposatzen dituzte:

- Egoera/kualitate-aldaketa (*-tu1, -tu2, -tu3, -tu8, -tu9*): *gizondu, izoztu, beldurtu, lotsatu, zatitu, puskatu, lasaitu, garbitu, mailakatu, lerrokatu...*
- Kentzea (*-tu4*): *larrutu, lumatu*
- Ematea (*-tu7*): *babestu, zigortu, aholkatu...*

- Leku-aldatzea (-tu6, -tu11, -tu12): *baztertu, saihestu, alboratu, kaiolaratu, beruneztatu, ureztatu...*
- Errepikapena, (tresna baten bidez egiten den) jarduera (-tu10): *mailukatu, mokokatu...*
- Lokazioa (lokazio hori betetze zentzuan) (-tu5): *lumatu, hostatu...*

Bestalde, Levinen aditz multzoak aztertzerakoan, sail hauetan aipatzen ez diren beste eratorpen-forma garbi eta erregular batzuk ere aurkitu ditugu. Ondoko morfemez osaturikoak, alegia: *-etsi (onetsi, handietsi), -ztatu (ureztatu, irineztatu) eta -gabetu (hezurgabetu, gazgabetu)*.

-Tu atzizkiak erakusten duen aniztasunaren aurrean, gure hautua izan da bai Gràcia et al.-en (2000) lanean bai Levinenean (1993) ageri diren eratorpen-prozesuz sorturiko zenbait aditz ez hartzea azterkizun. Ondokoak, alegia: alde batetik, txertatutako osagaiak atzizki garbi bat ageri duenean (*-tuz* gain): *-ratu, ztatu, gabetu*; *-Etsi* atzizkia dutenak; eta, azkenik, emankorrek ez diruditenak: *-tu* 4 motakoak. Hauek guztiak nahiko erregularrak direla esan daiteke, aditz ez-eratorrian dagoen osagai bat besterik gabe txertatu egiten delako aditz eratorria osatzeko.

Esan behar dugu, hala ere, eratorpen-prozesu hauek erregularrak izan arren, ez direla hain modu sinplean gertatzen. Esaterako, *sartu* eta *poltsikoratu* aditzak hartuz adibide gisa, badakigu *sartu* aditzak Kasu adlatiboaz gain ablatiboa ere onartzen duela, batez ere *bidea* adieraziz; aldiz, *poltsikoratuk* ablatiboa nekez hartzen duela dirudi. Beraz, sakonki aztertzeke fenomenoak dira⁹².

- Osagai bat baino gehiagoz osaturiko aditzik ez. Ildo beretik, hautatuen artean ez dago osagai bat baino gehiagoz osaturiko aditzik (adib., *lo egin, zain egon, axola izan, ari izan, barre egin, bat egin, gogora ekarri, merezi izan...*). Honelako aditzetan, aditzarekin batera ageri den osagaiak aditzarekiko oso lotura estua erakusten du, eta horrek unitate semantiko bakartzat jotzera eramaten gaitu.

Horrelako zenbait unitate lexikalek ez dituzte onartzen aditz sinpleak orokorrean onartzen dituen egitura berak. Esaterako, *gogora ekarrik -ela* konpletiboa hartzeko gaitasuna eta beharra du; *ekarrik*, aldiz, bere balioetako batean badu gaitasuna (*etxea botako dutela*

⁹² Odriozolaren (2003) lanean (“Verb-deriving processes in Basque”), erregularitasun hauen berri sakona ematen da, aspektu lexikalaren ikuspegian oinarrituta. Bestalde, Ixa taldean ere besteak beste *-tuz* osaturiko aditzen inguruan eginak ditugula zenbait ikerketa-lan, hitz eratorriaren eta beren oinarrien arteko erlazio lexiko-semantikoak kontuan hartuta (Lersundi, 2001).

dakar egunkariak), baina balio berorretan ez du adlatiborik onartzen, ez eta ablatiborik ere. Beste zenbaitetan aditzarekin batera ageri den elementu hori ez da aditz horrek bere erabilera arruntean onartzen duena; esaterako, *hegaz eginen* kasuan instrumentala ageri zaigu Kasu beharrezko gisa, eta *eginek* oro har ez du instrumentala Kasu beharrezko gisa hartzen (Rodríguez & García Murga, 2003).

Guk, gure azterketan, horrelakoxeak aipatuko ditugu, baina batez ere guk planteatutako egitura orokorretik baztertzen diren neurrian, eta egitura orokor horren justifikazio gisa. Esan behar da, badirela hitz anitzeko unitate lexikalak bat datozenak aditzak oro har hartzen duen egitura sintaktikoarekin. Horrelakoetan, guk, besterik gabe, osagai horiek aditzaren balizko elementu gisa hartuko ditugu; unitate gisa duen balio semantikoa beste nolabait azaldu beharra dago.

Hala ere, horrelako unitate anitzen inguruan oraindik asko geratzen da aztertzeke, eta ez da inondik ere erraza bereiztea zer dagokion unitate anitzari eta zer aditzari berari. Espero dugu gure azterketa baliagarri izatea osagai anitzeko unitate hauen lanketan⁹³.

Aditzak baztertzeke irizpide hauek aplikatuta, ondorengo irizpide hauek jarraitu ditugu:

- Maiztasuna. Zerrendatutakoaren artean daude hauen iturri gisa hartu dugun corpusean % 1 baino maiztasun handiagoa erakutsi dutenak, proportzio hori baita salto kualitatiboa markatzen duena: *izan*⁹⁴(% 20,72), *egin* (% 6,98), *egon* (% 4,44), *esan* (% 2,40), *ikusi* (% 1,75), *eman* (% 1,61), *joan* (% 1,49), *jarri* (% 1,29), *aritu* (% 1,16), *hartu* (% 1,12). Hurrengoak, esaterako, *hasi* (% 0,98) eta *etorri* (% 0,94) dira.

⁹³ Esan dezagun, hala ere, emanak ditugula urrats batzuk horrelako Hitz Anitzeko Unitate Lexikalak —laburtuz HAUL deitzen ditugunak— lantzen (Aduriz et al., 1996); eta horretaz gain HAULak aztergai dituen tesi-lan bat ere bada bidean (Urizar, R., *Kolokazioak euskaraz*). Zabalak ere badu lan interesgarri bat aditzarekin osaturiko unitate konplexuen inguruan: “Predicados complejos en vasco” (Zabala, 2002, eskuizkribua). Bertan, aipatu ditugun fenomenoak ageri dira beste batzuen artean.

⁹⁴ *Ukan* ere maiztasun handikoen artean dago (*ukan* % 6,34), baina guk *izanen* barruan landu dugu, hortaz *izanen* maiztasunari gehitu diogu *ukanen* maiztasuna.

- Gure azterketaren ikuspegitik interesgarriak: % 1etik beherako maiztasuna dutenen artetik, berriz, [V. kapitulu](#)an aipatu diren aditz batzuk hautatu ditugu, baina baita beste batzuk ere. Horrela, aztertutako fenomenoak betetzen diren konprobatu ahal izango dugu, eta bestetik fenomeno berriak agertzen diren ikusi.

Irizpide hauek kontuan hartuta, honenbestez, 100 aditzeko ondoko zerrenda osatu dugu:

- | | | | |
|-------------|--------------|-------------|----------------|
| • abestu | • egon | • haserretu | • jokatu |
| • adierazi | • ehizatu | • hasi | • jolastu |
| • afaldu | • ekarri | • hautatu | • kezkatu |
| • agertu | • elkartu | • hautsi | • kokatu |
| • ahaztu | • eman | • hazi | • konparatu |
| • aldatu | • entzun | • hil | • konturatu |
| • amaitu | • erabili | • hornitu | • landatu |
| • argitu | • eragin | • hustu | • landu |
| • aritu | • eraman | • igo | • laztandu |
| • asmatu | • erantzun | • ikasi | • loratu |
| • atera | • erre | • ikusi | • lortu |
| • aurkitu | • erreparatu | • irakin | • mintzatu |
| • baieztatu | • esan | • irakurri | • moztu |
| • banandu | • eskaini | • irau | • mugitu |
| • barkatu | • eskatu | • iritsi | • nahastu |
| • bazkaldu | • etorri | • isildu | • onartu |
| • besarkatu | • eutsi | • isuri | • oroitu |
| • bete | • existitu | • izan | • otu |
| • bilakatu | • ezkondu | • jaitsi | • pasatu |
| • bisitatu | • flotatu | • jan | • sartu |
| • dedikatu | • gaingitu | • jarri | • topatu |
| • deitu | • gertatu | • jasan | • ukitu |
| • edan | • gosald | • jaso | • ulertu |
| • egin | • grabatu | • jo | • zeharkatu |
| • egokitu | • hartu | • joan | • zintzilikatu |

VI.2 Informazioa gordetzeko datu-basea

V. kapituluaren ondorioetan esan dugun bezala, aditz baten azpikategorizazio-egiturak aditzaren *balio sintaktiko/semantikoak* dira (aurrerantzean *bss*⁹⁵). Horiek landu ahal izateko, hautatutako aditz bakoitzak testuetan dituen adibideetan oinarritu gara.

Aditz bakoitzaren *bssak* gordetzeko datu-base bat eraiki dugu, informazioa egituratuz eta bilaketak egiteko modu erosoan jarritz. Ondorengo puntuetan datu-basearen nondik norakoak

⁹⁵ Laburtzapen hau honelaxe irakurri behar da: /be-ese-ese/. Deklinabide-atzizkia horren arabera lotuko diogu, eta izen arrunta izango balitz bezala deklinatuko dugu: *bssa*, *bssan*, *bsssek*...

azalduko ditugu: *bssen* antolaketa; datu-basea osatzen duten ezaugarriak eta hauek markatzeko sistema; eta datu linguistikoak gordetzeko dauden mugak.

VI.2.1 Balio sintaktiko/semantikoaren (*bss*) antolaketa

Datu-basearen lehenengo bertsio honetan, aditz baten *bss* guztiak aditz bakoitzean (eta ez aparteko modulu batean) landu dira banan-banan.

Bestetik, ez dugu esplizituki bereizi aditz beraren alternantziak diren egiturak eta ez direnak. Hori inplizituki bereizten da egitura horietan dauden osagai semantikoaren arabera. Bi egituratan osagai semantikoak berdinak badira, edo horietako bat desagertzen bada, esan nahiko du alternantzia osatzen dutela; gainontzean ez. Hots, ez ditugu aditzak adieraren arabera bereizi, eta gero adiera horri alternantziak lotu. Guztiak izango dira aparteko *bss* (*bss-1*, *bss-2*, *bss-3*... *bss-n*: joan-1, joan-2, joan-3, joan-4)⁹⁶. A eranskinean ikus daitezke aditzak eta beren *bss* guztiak modu laburrean. Ekar dezagun, halere, adibide gisa, *etorri* aditza (azalpen osoa ikusi eta gero, hobeto ulertuko dena):

<i>bssak</i>	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	kasu azpikategorizatuen osagai semantikoak eta hautapen-murriztapenak	<i>bssaren balio semantikoa</i>
etorri-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuak kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa (hona=deiktikoa)
etorri-2	√	-	-	-	+	+	+	√	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria [-biz]_abl	Entitate baten sortzea
etorri-3	√	-	-	-	√	+	+	-	-	edukia [-biz]_abs; edukitzailea [-biz]_ine	Entitate bat edukitzea
etorri-4	√√	-	-	-	+	-	-	-	-	gaia_abs; ezaugarria_abs	Entitate baten deskribapena
etorri-5	√	-	√	-	+	+	+	+	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria [+biz]_dat	Entitate baten sortzea

Esan dugu aztertutako alternantzia guztiak direla interesgarriak azpikategorizazioaren aldetik. Hala ere, ez ditugu alternantzia guztien aldaerak landuko *bss* gisa.

⁹⁶ Gogoan izan behar da, orduan, gure lanean definitu ditugun *bssek* ez dutela nahitaez bat etorri behar hiztegietan definitzen diren adierekin.

Bss gisa markatuko ditugu alde batetik, aditzaren semantikari erreferentzia egiten dioten alternantzieta bi egiturak; alegia, *alternantzia kausatibo/inkoatiboak* eta *objektu inespezifikoa* nahiz *barneratuarenak*.

Aditzaren semantikari erreferentziarik egiten ez diotenen aldetik, aldaera batetik bestera Kasu-aldaketak, edo Kasu-aldaketak eta balentzia-aldaketak dituztenak markatuko ditugu: *Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa*, *Substantzia/Iturria alternantzia*, *Alternantzia konatiboa*, *Preposizio lokatiboaren galera*, *With preposizioaren galera* eta *Spray/Load alternantzia*.

Aldaera batetik bestera balentzia bakarrik aldatzen dutenetan, aldaera bakarra (argumentu gehien dituen) landuko dugu *bss* gisa. Horrelakoak dira *Alternantzia erreziproko sinple iragankorra*, *Alternantzia erreziproko sinple iragangaitza*, *Agentearen ezaugarri arrunta*, eta *Instrumentuaren ezaugarri arrunta* alternantziak. *Alternantzia erreziproko sinple iragankor eta iragangaitzean*, ikusi dugun bezala, argumentuen kopurua berresten da; eta bi aldaeren arteko desberdintasunak dira: argumentuen estatus semantikoa eta ekintza hasteari begira subjektuek duten fokalizazio maila. Argumentuen kopurua egitura bakarrarekin adierazten da; eta bestetik, argumentu gehien dituen aldaeran ekintza nork hasten duen fokalizatzen da, eta osagaien estatusak ez du hainbesteko murriztapenik. Hau horrela izanik, bi egiturak markatzeari ez deritzogu beharrezkoa azpikategorizazioari begira. Hala ere, alternantziaren bigarren aldaera testuan agertu denean, oharretan aipatuko dugu. *Agentearen ezaugarri arrunta* eta *Instrumentuaren ezaugarri arrunta* alternantzietan, ez dago desberdintasunik aldaera kausatiboarekiko, *kausaa* adierazten duen entitatearen tasun semantikoak aldatzen baitira, ez osagai semantikoa bera.

Azkenik, *Gorputz-atalaren igoera*, *Atributu-objektua* eta *Jabe-subjektua* alternantzieta bi egitura bat ere ez da landuko. Esan dugun bezala, hauek posesio-harremanak adierazten dituzte, eta ageri den PSk lotura handiago du osagarriarekin aditzarekin baino.

Bestalde, egitura guztiak lexikoan definitzen ditugunez, ez dugu alternantziaren aldaera bat oinarritzkoagotzat jotzen; biak, besterik gabe egitura balizkoak dira delako aditzarentzat. Joera hau, hain zuzen, EAGLES⁹⁷en proposamenekin bat dator:

⁹⁷ EAGLES (Expert Advisory Group on Language Engineering Standards), Europa mailako hizkuntzak automatikoki lantzeko eta kodetzeko proposamenak egiten dituen taldea da. Bertan, hizkuntza guztiak kontuan harturik, hizkuntzaren mailatan landu beharreko ezaugarriak proposatzen dira, besteak beste, azpikategorizazioan. Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://www.ilc.pi.cnr.it/EAGLES/home.html>.

EAGLES recommends specification of diathesis alternation and argument optionality in the lexicon, although is not universal adopted practice, as witnessed by those lexicons which list alternating frames as completely separate and unrelated lexical entries (e.g. Eurotra).

In EAGLES, diathesis alternation phenomena are captured at the `frame_list` level, which can be interpreted as a paradigm structure, where all alternants are encoded on a par. The main advantage of this encoding scheme is that all possible alternation are entered in a lexicon on a par, meaning that no single alternant is given a privileged estatus, say as a base from which all other alternants are derived through some lexical rule. As for argument optionality two alternative ways of encoding it are made available: either as a particular case of frame alternation (which requires listing of two distinct frames), or as a single frame where the optional argument is marked for optionality through feature specification.

EAGLES: 81 (*Recommendations on subcategorization*. Version of 31st August, 1996)

Ikus daitekeenez, ez zaie erreferentziarik egiten adierei. Guk, esan bezala, hori osagai semantikoetan islatzen dugu.

Etorkizun hurbilean, azkenik, Internet-en atzigarri jarriko dugun datu-basean adieren bereizketa emana etorriko da, eta adiera horri lotutako egitura guztiak alternantziak izango dira.

Azpimarratu beharrekoa da, hala ere, ez dugula deskribatu corpusean ageri ez den *bssrik*, nahiz eta egon daitekeela jakin.

VI.2.2 Ezaugarriak eta markaketa-sistema

Datu-baseak taula bakarra du, eta *bssa* lantzeko ondoko eremuak ditu:

- Laguntzaile mota
- Kasuak
- Osagai semantikoak
- Azalpena
- Oharrak
- Adibideak

Ikus ditzagun eremu hauen balioak eta horiek markatzeko hautatu dugun modua.

- **Laguntzaile mota**

Aditzak *bss*an erabiltzen duen laguntzaile mota markatzen da. Adierazpen ezaguna erabiliz: DA, DU, ZAIIO edo DIO. ‘√’ ikurraz markatu da *bss* bakoitzean erabiltzen den laguntzailea, nahiz eta jokatu gabe agertu esaldian.

- **Kasuak:**

Alternantzien azterketa mugatzeko zerrendatu ditugun bederatzi Kasuak tratatzen dira: ABS, ERG, DAT, ELA_KONP, INE, INS, SOZ, ABL, ALA.

Kasu batzuk *azpikategorizatutzat* (aditzaren berezkotzat) jo ditugu, beste batzuk *onartutzat*, eta azkenik, beste batzuk *onartugabetzat*. Izan ere, Kasu bat azpikategorizatuta ez dagoenean, ez du esan nahi *bss* horretan ezinezkoa denik. Batzuetan hala izango da, baina besteetan, aditzaren baitako informazioa ematen ez duen arren, onargarria da erabilera horretako esaldian. Hau oso garrantzitsua da ikuspegi konputazionalari begira, zilegi dena definitzeak bezainbesteko garrantzia baitu zilegi ez dena zehazteak.

Kasua azpikategorizatua denean, ‘√’ ikurraz markatu dugu, eta ikur horren bidez ondokoa adierazten dugu: “ager daiteke eta garrantzitsua da”. Hau da, corpuseko esaldian agertu ala ez, Kasu hori aditzaren *bssa* zehazteko beharrezkoa da.

Kasua onartua denean, ‘+’ ikurraz markatu dugu.

Kasua onartzen ez denean, ‘-’ marka erabili dugu.

Hala ere, Kasu ergatibo, absolutibo eta datiboak bereziak dira. III. kapituluan eta alternantziatan ikusi dugunez, laguntzailearekin komunztadura egiten duten aldetik, elipsi arrunterako aukera dute (*pro-drop*). Baina baita inespezifikatzekoa ere. Ondorioz, kasu hauetan ‘√’, ‘-’ eta ‘+’ markek esanahi mugatuagoa dute. Ikus dezagun segidan.

ABSOLUTIBOA ETA ERGATIBOA

Absolutiboari eta ergatiboari ‘√’ marka jartzerakoan, automatikoki ulertu behar da delako aditzak Kasu hori beharrezkoa duela, baina askotan ez dela agertzen elipsi-prozedurak direla tarteko. Hau da, bi kasu hauetan «ager daiteke» zentzua oso jakina da: agertzen ez denean, elipsi arruntaren ondoriotzat ulertu behar da (*pro-drop* fenomenotzat). Aldiz, elipsia ez den bestelako fenomenoak ditugunean⁹⁸, beste *bss* bat markatuko dugu eta horretan absolutiboak edo ergatiboak ‘-’ ikurra izango du, erabilera horretan ezin ager daitekeela adierazteko. Laguntzailearen aldetik, berriz, aditzak delako *bss*an duena markatuko da.

⁹⁸ Gogoratu *Objektu inespezifikoa* (L 1.2.1), *Objektu barneratuaren egitura* (L 7.1), *Agentearen ezaugarri arrunta* (L 1.2.6.1), *Instrumentuaren ezaugarri arrunta* (L 1.2.6.2) alternantziak, baita Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika laburra* (1993) liburukiko 9.2.1 *Nor eta Nor-Nork motako aditzak*.

DATIBOA

Datiboa ere adizkiarekin komunztadura egiten duen Kasua da⁹⁹; baina besteak baino konplexuagoa. Izatez, Euskaltzaindiak (1993) perpausen sailkapena egiten duenean, datiboa kanpoan uzten du:

Euskaraz, jakina, badugu beste osagarri bat ere datiboan ematen duguna. Argumentu hau, normalean, aukerakoa da, nahiz eta aditz batzuek nahitaez eskatzen duten. Perpausen arteko sailkapena ahalik eta modurik garbienean egitearren ez dugu kontuan hartuko nori saileko argumentua eta goian emandako adibideek erakusten dizkiguten perpaus motetara bakarrik mugatuko gara.

Euskaltzaindia, 1993: 9

Horren ondorioz, sailak laburbiltzen dituztenean, ondoko ohar hau egiten dute:

Kontuan izan eskema honen barnean ez direla aditz guztiak sartzen: *jakin, ahaztu* —batzuetan, nor-nori sisteman ageri denean—, *ihardun*, e.a.

Euskaltzaindia, 1993: 15

Guk, ordea, datiboa aztertuko dugu, eta ondorengo egiten saiatuko gara.

Datiboari ‘√’ marka jarriko diogu:

- Batetik, aditz batek datiboa onartuz gero, erabilera datibogabeko Kasu-konbinazioan eransketa hutsa ez denean. Adib.:

Pello adiskideen izenez ahaztu da->

**Pello adiskideen izenez ahaztu zaizkio Anderri*

(Egitura zuzena: *Pellori adiskideen izenak ahaztu zaizkio*)

- Bestetik, datiboa onartzen denean bakarrik. Adib.:

Ekin genion lasterrari (Euskal Hiztegiko adibidea)

-> **ekin genuen lasterra*

⁹⁹ Iparraldean, hala ere, komunztadura ez da beti gertatzen.

- Eta azkenik, datiboa eransketa izanda ere, ia beti agertzen denean. Adib.

Lehen saria eman zioten (Euskal Hiztegiko adibidea)

Azken honetan corpusari eta gure intuizioei erreparatuko diegu (hau da, corpusean datiboa oso-oso maiz agertzen bada, eta guri ere beharrezkoa iruditzen bazaigu, azpikategorizatutzat joko dugu).

Eransketa hutsa izanik azpikategorizatzen ez diren datiboak, berriz, ‘+’ ikurra izango dute. Jakina, ezinezkoa denean ‘-’ marka izango du datiboak.

Bestalde, guk “datibo etiko” gisa ulertzen duguna ere ez dugu kontuan izango. Gure ustez datibo etikoak ez dio erreferentziarik egiten aditzaren barruko informazioari. Adizki alokutiboekin gertatzen den antzera (Oyharçabal, 1993), datibo honek zerikusia du perpaus kanpoko hizketakideen harremanarekin (lagunartekoa, lanekoa, familiartekoa... adib., *ume honek ez dit bazkaltzen*). Hortaz, aditz batek datibo hori bakarrik onartzen duenean ‘-’ balioa izango du Kasu datiboan. Hala ere, batzuetan ez da erraza horrelako datibo baten aurrean gauden ala ez bereiztea. Era berean, erabilera alokutiboetan kontuan izan behar da, nahiz eta adizkian komunztadura-markak ageri, hizketakideari erreferentzia egiten dion markak ez duela bere baliokide sintagmatikoa, eta berez, erabilera neutroaren parekoa dela azpikategorizazioari begira.

Datiboa markatzeak, ordea, ez du beti isla izango laguntzailean. Datiboa eransketa denean (bai ‘+’ gisa ‘√’ gisa) edo ezinezkoa denean (‘-’), DA edo DU laguntzaileak markatuko ditugu. Gainontzekoetan, berriz, ZAIO edo DIO gisa markatuko ditugu, eta horrek esan nahiko du *bss* horretan beti behar dela datiboa.

Laburtuz, orduan, hauexek dira laguntzailea eta komunztaduradun Kasuak markatzerakoan ditugun aukera guztiak:

	ABS	ERG	DAT
DA	√, -	-	√, +, -
ZAIO	√, -	-	√
DU	√, -	√, -	√, +, -
DIO	√, -	√	√

Aukerak horiek diren arren, laguntzaile gisa DA eta ZAIO markatuta duten *bss* gehienek ‘√’ izango dute absolutiboan; aditzen azterketa zehatzean (eta baliabide automatikoen azalpenean ikusitakoaren arabera), aditz batek *-ela* konpletiboa ageri duenean bakarrik gertatuko da absolutiboak ‘-’ izatea. DU modukoetan, berriz, alternantzien azterketan ikusi dugunez, arruntagoa da absolutiboa ‘-’ izatea. Eta azterketa zehatzean ikusiko dugun bezala, baita DIO modukoetan ere.

Ergatiboa ere gutxitan izango da ‘-’. DIO aditz laguntzailea markatzen dugunean ergatiboa beti izango da ‘√’; DU aditz laguntzailea markatzen dugunean ere ia beti izango da ‘√’; ‘-’ oso kasu bakanetan izango da: eguraldiari buruz predikatu ahal duten aditzetan eta aditz oso jakinetan (hauek guztiek azterketa zehatzean dute lekua).

Bestelako Kasuetan, esan bezala, ez dugu bereiziko printzipioz elipsia edo inespezifikazioa den “ez-agertze” fenomeno hori. Izatez, horrelakoak ere azterketa honen emaitza izatea espero dugu.

• Osagai semantikoak

Kasu azpikategorizatu bakoitzak osagai semantiko bat du loturik. Eredu honetan daude alternantzietan definitu ditugun osagai semantikoak eta azterketa honen emaitza izango diren beste hainbat. Hots, eremu honen balioak aditzak landu ahala formalizatzen joan gara, eta azterketaren helburu nagusietako bat izan dira. Guztien zerrenda, VI.3 puntuan ematen da, eta, jakina, horien artean daude alternantzietan jada agertu direnak (*kausa*, *gai ukitua*, *esperimentatzailea*, *gaia*, *iturria*, *gai sortua*, *bidea*, *helburuko kokapena*).

‘√’ ikurra duen Kasu orori osagai semantiko bat edukitzea behartuko zaio. ‘+’ duenari ez zaio behartuko, baina oharretan emango dira horiei buruzko xehetasunak. Hala ere, jakina da, denborari erreferentzia egiten dioten osagai sintagmatikoak onar ditzaketela aditz gehienek, eta zentzu hori hainbat Kasu izan dezaketela —hala nola, inesiboak, ablatiboak, adlatiboak, instrumentalak, sozietiboak: *gauean*, *igandetik*, *igandera*, *arratsaldez*, *bi orduz*, *igandearekin*, *bi egunetan*...—. Hori horrela dela onartuko dugu, eta Kasu batek *bss* batean denborazko balioa bakarrik izan badezake, onartugabetzat joko dugu. Salbuespen bakarra egingo dugu: denborazko balio hori komunztadura egiten duen Kasuren batek adierazten badu; horrelakoetan, jakina, azpikategorizatutzat joko dugu (adib. *iraun*: *bi urte iraun zuen*: ABS √_denbora).

Objektu jakineko inespezifikazioa dugunean, berez osagai semantiko orokorrago baten zehaztapena da. Hori adierazteko, osagai semantikoa, gai jakina eta kortxeteak erabiliko ditugu. Adib.: ABS√_[*gaia*: *batxillergo*].

Aditz batean osagai semantiko bati lotutako hautapen-murriztapen edo tasun semantikoak zehaztu badaitezke, zehaztu egingo ditugu. Esaterako, *bete* aditzaren *bss* batean gaia [-konkr] da. Hori osagai semantikoarekin batera emango dugu. Adib: *bete*: ERG√_esperimentatzailea; ABS√_gaia [-konkr].

- **Azalpena**

Bss bakoitza markatzeko arrazoiak ematen dira; hots, *bss* bakoitzean markatu ditugun Kasuak eta bakoitzari lotu dizkiogun osagai semantikoak arrazoitzen dira. Zeregin honetan, sintagmen guneetan ageri diren hitzen tasun semantikoak aipatuko ditugu, askotan horiek baldintzatzen dutelako zenbait Kasuren presentzia, aditzaren balio semantikoa eta, honenbestez, Kasuen osagai semantikoak.

- **Oharrak:**

Datu-basean islaturik geratzen ez diren fenomeno linguistiko aipagarriak azaltzen dira; besteak beste, hemen zehazten da delako *bssak* beste *bss* batekin alternantzia osatzen duen ala ez. Bestetik, ezaugarri hauen bidez adierazi ezin daitekeen informazio interesgarria aipatuko da.

- **Adibideak:**

Aditza lantzeko baliatu diren adibideak zerrendatzen dira. Esana dugun bezala, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* eta *Euskaldunon Egunkaria* izan dira adibide-iturriak. 1667 adibide daude guztira (nahiz eta esku artean askozaz gehiago erabili), aditz bakoitzerako adierazgarria iruditu zaizkigunak hautatu baititugu. Hala ere, aditz batzuetan adibide eskasekin topo egin dugu.

ETORRI ADITZAREN BI BSS-EN ADIBIDEAK, OSORIK

Hona etorri-1 eta etorri-2 *bssak* nola landu ditugun.

ADITZA: etorri-1		
LAGUNTZAILE MOTAK: DA ✓ DU ZAI O DIO		
KASUAK	✓, +, -	OSAGAI SEMANTIKOAK
ABS	✓	gai ukitua
ERG	-	
DAT	+	
-ELA_KONP	-	
INE	+	
SOZ	+	
INS	+	
ABL	✓	abiapuntuko kokapena / bidea
ALA	✓	helburuko kokapena

AZALPENA:

Entitate baten kokapen-aldaketa (hona=deiktikoa).

*Etorri*ren balio honetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten da. Horretarako, entitate desplazatua –**ABS**z gauzatua–, abiapuntuko kokapena / bidea –**ABL**z gauzatua– eta helburuko kokapena –**ALA**z gauzatua– dira beharrezko elementuak.

ABS entitatea orotarikoa izan daiteke: askotan izaki biziduna da ((1302-1315)); mekanismo jakin bati esker mugitzen den entitate bat ere izan daiteke ((1301)); izaki bizigabe konkretua ((1316), (1317)), nahiz eta gizakien ezaugarriekin eta zereginekin zerikusia duten entitateak izan; eta baita izaki bizigabe abstraktua ere, normalean zentzumenezko ekoizpenekin (soinua, argia...) zerikusirik dutenak ((1320-1323)).

ABL eta ALA entitateak, normalean, leku fisikoak dira, baina badira jarduera moduko izen abstraktuak, zeintzuek bi gauzak, jarduera eta jarduera hori egiten den lekua, adierazten duten batera, azken batean ((1313), 1314)).

Badira adibide batzuk ALArik ez ABLrik ez dutenak. Horrelakoetan badirudi ALArik agertu ez arren, helburuko kokapena ulertutzat ematen dela. Vázquez et al.-ek (2000) *ir* eta *venir* aditzak amaiera-puntua lexikoki fokalizatzen duten aditzen artean sartzen dituzte. Beren arrazoiketari jarraituz, lexikoki elementu bat fokalizatzen duten aditzek, elementu fokalizatu horri dagokion osagai sintaktikoa gauzatzen ez denean, bestelako mekanismoak jartzen dira martxan informazio hori berreskuratzeko: elipsia eta testuinguru pragmatikoa; alegia, inespezifikazioa ez diren mekanismoak.

Beraz, aditz honen kasuan, *ekarri*-n bezalaxe, elipsi deiktikoa gertatzen dela dirudi; hau da, helburuko kokapen hori hiztuna dagoen lekua dela suposatzen da (Jo bedi *ekarri* aditzera fenomeno honen inguruko xehetasunak gogoratzeko). Izatez, badira *hona* sintaktikoki ageri duten adibideak ((1302)).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek, **IN**EK eta **SO**Zek beren ohiko balioak izan ditzakete.

DATek, dagoeneko hainbat desplazamenduzko aditzetan esana dugunez, ALA entitatearekiko jabetzako harreman bat duela dirudi, harekin batera azaltzen denean esaldian; eta jabetza ALA entitatearekikoa ez bada, ABSrekikoa dela dirudi. Nolanahi ere, ez dugu alternantzia gisa planteatu, dagoeneko esan dugun bezalaxe, bi osagaiak batera agertu daitezkeelako, eta bien artean nolabaiteko harremana dagoela iruditzen baitzaigu (Jo bedi berriz ere *ekarri* aditzera honen ingurukoak gogoratzeko).

OHARRAK:

Aipatu behar da badirela adibide batzuk, non ALAren bidez ez den helburuko kokapena adierazten (*harira etorri, norbere onera etorri...*). Horrelakoetan, ABLk ezinezkoa dirudi. Hala ere, oso kasu bakanak eta anitzak dira (hau da, ALAk ez du beti balio bera). *Ekarri* aditzean, berriz, badirudi egoera berri moduko bat adierazten dela beti (horrexegatik orokortu dugun *bss* gisa). Hala, *etorri*ekin egiten direnak gehiago daude HAULen mugetan, balio orokor bat osatzen baino. Izatez, hauetako askok HAUL gisako sarrera dute hiztegiatan (*Euskal Hiztegi*an, esaterako). Gainera, ez datoz *etorri*ren azpian, baizik eta ALAren gunean den izenaren edota ALAdun adberbioaren sarreraren azpian.

ADIBIDEAK:

- (1301) Itsasuntziak itsasotik lehorrera etortzean, porturatu egiten dira, hau da, portura datoz. (EusCor)
- (1302) Euskal Herritik hona etorri ziren euskaldun haiek - esan dezagun duela bi belaunaldi - artzain moduan hasi, baina negozio-jende arrakastatsuak bilakatu dira gaur egun ". (EusCor)
- (1303) Eta handik, Tibetetik, mezu batekin etorri da gure Euskal Herri honetara. (EusCor)
- (1304) Texasetik etorri da astebete pasa lagunen etxera, baina jadanik ez dabil lagunekin, samoarrarekin baizik. (EusCor)
- (1305) Ni atzo presaka etorri nintzen menditik. (EusCor)
- (1306) 1930. urtean Iruñera [HURA] etorri zelarik hasi zen Zeruko Argian lanok argitaratzen. (EusCor)
- (1307) Eta [HURA] etorri zen bidetik abiatu zen atzera. (EusCor)
- (1308) Jon Goikoetxeak Euskera aldizkarian kontaktzen duenez, sendagile bizkaitar bat etorri omen zen behin Gipuzkoako herri industrial batera, eta Charles Dickens-en nobeletako egoera gogorarazi zioten, antza, han ikusitako eri-itxurako haurrek: (EusCor)
- (1309) Eta zergatik ez zatoz Talgoan? [ZU] (EusCor)
- (1310) - Mikel, aspaldiko laguna, etorriko balitzait [NIRI], ezagutu egingo nuke. (EusCor)
- (1311) Egun batean bi emakume etorri zitzaizkion [HARI] elkarren artean zeukaten auzian epaile izateko eskatuz. (EusCor)
- (1312) Gero, handik egun batzuetara, Joxe etorri zitzaidan etxera. [NIRI] (EusCor)
- (1313) Soldaduzkatik etorri zenetik, goizero-goizero, tronpeta joka hasten duk zazpietan. (EusCor)
- (1314) Baina gerratik maingu etorritz gero, non ereriko zitzaizkion emakume haiek guztiak? (EusCor)
- (1315) Abadinotik Urolaldeko erromerietara, dultzainero oso on eta ospetsu bat, Julian Azurmendi, etortzen omen zen, bere emazte, seme eta alabarekin. (EusCor)
- (1316) Orduan airetik esku bat etorri zen eta urrezko txarrantxa kendu egin zion. (EusCor)
- (1369) Mendizabalen txanda etorri zen eta honek igo zuen listoia gora. (EusCor)
- ...

ADITZA: etorri-2		
LAGUNTZAILE MOTA: DA √ DU ZAIO DIO		
KASUAK	√ / + / -	OSAGAI SEMATIKOAK
ABS	√	gai sortua [-konkr]
ERG	-	
DAT	+	
-ELA_KONP	-	
INE	+	
SOZ	+	
INS	+	
ABL	√	iturria [-biz]
ALA	-	

AZALPENA:

Entitate baten sortzea.

Bigarren balio semantikotzat jo dugun honetan, gure ustez sortze-prozesu bat adierazten da. Beharbada planteaz zitekeen desplazamendu abstratu gisa, baina hori gehiegi orokortzea iruditzeaz gain, balio honetan ALAk agertzeko dituen mugak direla eta, goiko baliotik urruntzen dela uste dugu. Horretaz gain, aditzaren denbora gehienetan puntukaria dela ikusten dugu, nolabait denbora zehaztetik kanpo dagoen gertakizun bat adierazten den seinale.

Beraz, balio semantiko honetan *iturri* bat eta *gai sortu* bat ikusten ditugu.

Etorri-DA-2n iturria **ABL**k adierazten du, eta etorri-ZAIO-5en **DAT**ek; gai sortua, berriz, **ABS**z gauzatzen da bietan. Desberdintasuna, dirudienez, iturri hau biziduna edo bizigabea izatean datza: DAT entitatea biziduna da eta ABL entitatea gehienetan abstraktua, edo horrela ulertu behar da.

Agertzen diren gaiak ere ez dira edonolakoak. Goiko balioarekin parekatuz, etorri-DA-2n beti entitate abstraktuak ditugu ABSren gunean. Eta abstraktua ez denean, zentzu abstraktuan ulertu behar da; hau da, erreferente zehatzik ez duen entitate bat bezala.

Etorri-ZAIO-5en, berriz, gorputz-prozesuak edo giza pentsamenduarekin zerikusia duten zer abstraktuak adierazten dira; DAT entitatea gizakiak nahi gabe edo naturaz sortzen dituenak, azken batean.

ALAren presentzia oso mugatua da; izan ere, gizakiaren gorputz-atal bat adierazten duenean agertzen da.

Hala ere, horrelako kasuak lehenengo balioarekin nahasgarri gertatzen dira, ABS entitatearen arabera.

Etorri-ZAIO-5n **ABL** agertzen denean, orduan, iturria ez den beste zerbait izaten da: sortze-prozesu horretan jokoan izan den bitartekaria edo kausa.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**k, **INSE**k eta **SOZE**k beren ohiko balioak adieraz ditzakete; **INSE**k eta **SOZE**k, kausa eiteko zerbait ere adieraz dezakete.

Hala ere, badira **ABL**rik eta **DAT**ik gabeko adibideak. Adibide hauetan, denborazko elementu bat ageri da askotan. Kasuotan, badirudi, sortu den ABS entitate hori dela azpimarratu nahi dena, zein iturritik datorren axolarik izan gabe. Hala ere, kasu hauek etorri-DA-1 baliokotzat jo zitezkeen, iturria izan beharrean axola ez duena, kausa hipotetikoa litzatekeela. Izatez, ABS entitatea abstraktua denean sortzen dira zalantza hauek.

OHARRAK:

etorri-5ekin alternantzia osatzen du: ABL eta DATen arteko alternantzia iturria osagaien.

ADIBIDEAK:

- (1335) Konponbidea Nazio Curriculumaz ezartzearen bidetik etorri zen lehenik; (EusCor)
(1336) Oro har, iturri zaharra grekoa denean, amaierako - o gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean. (EusCor)
(1337) Horrela, harrijasotzea, idi probak eta gizon probak harginen (harriaren langileen) lanetik datoz. (EusCor)
(1338) Hortik dator, hain zuzen ere, izena. (EusCor)
(1339) Hitz hori Matxin (Martin) hitzetik dator, hau da, olagizonen zaindariaren izenetik. (EusCor)
(1340) Tajinearen osagaiak haragia edo arraina eta barazkiak dira eta izena, prestatzeko erabiltzen den ontzitik datorkio. (EusCor)
(1341) Zain edo erro berberetik datozela guztiak somatzen da, nahiz eta gero bakoitzaren bilakaera ezberdina izan eta batetik bestera ezberdintasunak sortzen joan. (EusCor)
(1342) Hau idazten duena ebaluazioaren mundutik dator, eta era berean gogorarazten dizue gezur haundiak eta estatistikak esistitzen direla. (EusCor)

...

Ikusten dugunez, bi *bss* hauetan *ekarriren* bi adiera bereizi ditugu: batek *kokapen-aldaketa* adierazten du, eta beste batek *sortzea*. Horrexegatik dira osagai semantikoak desberdinak. Hala ere, *etorrik* badu *bss* bat, desplazamenduzko *ekarri*-1en alternantzia osatzen duena (C eranskineko 101 orritik aurrera aurki daitezke *etorri* aditzari buruzko xehetasun guztiak).

VI.2.3 Mugak

Datu-basea diseinatu dugun bezala, zenbait muga ditu. Ikus ditzagun zeintzuk diren eta zein erabaki hartu dugun horien aurrean.

Kasurik gabeko sintagmak

Sintagma batzuk ez dira Kasu bidez osatzen; adberbio-sintagmak alegia. Adberbio-sintagmak beti hartu izan dira aditzaren izaerari ezer gutxi ekartzen dioten elementu gisa. Jakina da, halere, adberbioak mota desberdinetakoak izaki, esaldian funtzio desberdina izan dezaketela, eta ez direla beti hain esangura gutxikoak aditzari begira. Har ditzagun, esaterako, *pasatu* eta *jokatu* aditzak ondoko esaldian: *Pellok [ondo/gaizki...] pasatu/jokatu zuen aldi hartan*. Esaldi honetan *ondo/gaizki* kenduko bagenu, *Pellok pasatu/jokatu zuen aldi hartan*, guztiz bestelako irakurketa egingo genuke; seguruenek, elipsi bat ulerturik, ‘zerbait pasatuko/jokatuko zuela’ pentsatuko genuke. Guk, ordea, horrelakoak albo batera utzi ditugu, ez dutelako agerian Kasurik erakusten. Horrek esan nahi du, aditz batzuen balizko *bss* batzuk kanpoan geratuko direla.

Unitate lexikalizatuak

Hautatu ditugun Kasu asko eta askok, lotutako lemarekin batera lexikalizaziorako joera erakusten dute, bai hitz bakun gisa bai hitz anitzeko gisa¹⁰⁰. Esaterako, inesiboak (joera gehien erakusten duenak, beharbada) *orduan, sekulan, patxadan, marmarrean, azken batean, hitz batean*, bezalakoak lexikalizatu ditu; ablatiboak *gogotik, horratik, aspalditik, inondik ere...*; adlatiboak *gora, ahoz behera, hankaz gora...*; instrumentalak, *adibidez, negarrez, beldurrez, hankaz gora...*

Bestetik, III. kapituluaren ikusi dugun bezala, postposizio deiturikoen zati izanik, Kasu konposatu bat osa dezakete : *-i buruz, -tik at, -n zehar...*

Beste batzuetan, konposizioko egitura batzuetan parte hartzen dute; instrumentalak, esaterako, *etxez etxe, mendiz mendi* modukoetan.

Azkenik, gerta daiteke “sintagma konplexu”en parte izatea: “bostetik bi”, “zazpitik lau”, “lurretik bost metrora”, “egunetik egunera”, “onenetik onena”, “goitik behera”...

Hauek guztiak, beraz, forma lexikalizatu edo oso gisa hartu behar lirateke —hots: [-i buruz] [-tik -ra], [-tik ø], [-z ø], [goitik behera]... —, eta bere osotasunean dagokien osagai semantikoa lotu.

Hori dela eta, aditz batek Kasu simple bat goiko egituretan bakarrik onartzen badu, Kasu hori onartugabetzat jo dugu. Esaterako, *lurretik bi metrora zegoen* adibidean ablatiboa eta adlatiboa zilegi dira, baina ez aditzak eskatzen dituelako, baizik eta biek unitate gisa jokatzeko dutelako, eta horrela bakarrik lortzen dutelako kokapenezko zentzua *egon* aditzarentzat. Hortaz, *egon* aditzean, ablatiboa eta adlatiboa onartugabeak dira.

Esan behar dugu, halere, unitate hauen guztien lexikalizazio maila erabakitzea ez dela inondik ere erraza. Hain zuzen, gure ustez, unitate anitz hauek lexikalizaziora iristeko arrazoia Kasuek aditz gehienekin izan ohi duten baliotik urruntzearekin dago lotuta. Esaterako, eta gure azterketan ikusi duguna aurreratuz, ablatiboak oro har *abiapuntuko kokapena / bidea*¹⁰¹ / *kokapen estatikoa* adierazten du, eta adlatiboak *helburuko kokapena*; baina tarteka bestelako baliorik ere erakusten dute: *modua*, esaterako: *gogotik; hautura*. Hori gertatzen denean, hain zuzen, lexikalizazioa gertatzen dela ematen du.

¹⁰⁰ Ikus Euskaltzaindian (1993) *Adberbio sintagma: adizlaguna* atala (463 or.).

¹⁰¹ Azkarate & Altunaren (2001) lanean, *-tik* atzizkiak ari direla, *balio prosekutiboa* erabiltzen dute guk *bidetzat* jotzen duguna adierazteko, Irigoienaren (1978b) Mitxelenaen (1977) eta Lafonen (1975) iritzietan oinarrituta (128. or.).

Orobat gertatzen da Kasu konplexuetan nahiz sintagma anitzeko unitateetan ere. Esaterako, *Goitik behera busti zuten* adibidean *modua* da sintagma konposatu horrek adierazten duena. *Leihotik behera bota zuten* adibidean *norabidea* da [-tik behera] unitateak adierazten duena. Alegia, bi adibide hauetan ez ditugu *abiapuntuko kokapena* eta *helburuko kokapena* adierazten duten bi aparteko sintagma. Hain zuzen, horrexegatik uste dugu hartu behar direla unitatetzat kasuotan. Garai & Ibarretzek (2002) honen inguruko lanak egin dituzte; zehazki sintagma anitzeko egituren osotasuna ikuspegi semantiko eta pragmatikotik aztertzen dute.

Kasu bera behin bakarrik *bss* bakoitzean. Salbuespena: absolutiboa

Bssetan ez dugu Kasu bat behin baino gehiagotan markatu. Markatzekotan, Kasu horrek adieraz ditzakeen osagai semantiko desberdinak zehaztuko dira. Esaterako, ablatiboak ezagun dituen bi balioak —*abiapuntuko kokapena* eta *bidea*— ablatiboaren bi osagai semantiko gisa markatu ditugu “/” ikurraz adieraziz aukera hori (ABL: √; *abiapuntuko kokapena / bidea*). Honen bidez adierazi nahi dugu Kasu ablatiboa azpikategorizatua dela delako *bssan*, batzuetan balio bat edo bestea duela, baina gerta daitekeela bi balioak adieraztea perpaus batean bi sintagma ablatiboen bidez. Kasu batekin, ordea, salbuespena egingo dugu: absolutiboarekin. Absolutiboa *bss* berean bi aldiz markatuko dugu. Adjektiboek nahiz izenek izenki-predikazioa deritzana osatzeko gaitasuna dutela jakina da, eta hauek Kasu absolutiboz gauzatzen direla esan ohi da (absolutibo mugagabea askotan)¹⁰². Izenki-predikatu hau lehenengo mailakoa bada (hots, azpikategorizatua bada) bi absolutiboak nahitaez agertu behar dira esaldian *bssa* osatzeko. Honenbestez, absolutiboa bi aldiz markatzeko beharra dago. Bi aldiz markatzen ez denean, automatikoki suposatu behar da *bss* horretan izenki-predikatua ez dela azpikategorizatua, edo ezinezkoa dela.

VI.3 Datu estatistikoak


Gure azterketara gehien hurbiltzen diren datuak direlakoan, hiru datu estatistiko mota erabili ditugu:

- alde batetik, aditz bakoitzarekin agertu diren laguntzaile moten ehunekoa.
- bestetik, guk aztergai hartu ditugun Kasuek aditz bakoitzarekin izan duten maiztasuna.

¹⁰² Zabalak bere tesian (*Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua)*, 1993) sakon aztertzen ditu predikazio harreman oro, eta hainbat proposamen egiten ditu erlazio hori gauzatzen duten elementuei dagokienez.

- eta azkenik, aditzak laguntzaile mota bakoitzarekin erakutsi dituen Kasuen maiztasuna. Azken honetan, ikus daitekeenez, ez dugu ematen markatutako *bss* bakoitzerako eskema sintaktikoaren maiztasuna. Ondorengo lana izango da Kasu-konbinazioei dagozkien datuak ateratzea.

Hauek denak grafikoaren bidez adierazten dira, gure erraztasunerako. Hauexek dira, esaterako, *ikusi* aditzean ageri zaizkigun datuak:



DA	27,35%	ins	2,52%	ala	4,73%	abl	3,83%	abs	100,00%	komp	19,67%	soz	1,41%	ine	24,37%				
DU	70,91%	ins	5,06%	ala	0,89%	abl	2,11%	abs	56,95%	komp	18,44%	soz	0,81%	ine	17,94%	erg	100,00%		
DIO	1,16%	ins	1,52%	ala	0,16%	abl	5,34%	abs	63,83%	komp	32,52%	dat	100,00%	soz	0,16%	ine	10,07%	erg	100,00%
ZAIO	0,57%	ins	1,39%	ala	0,16%	abl	0,48%	abs	100,00%	komp	42,75%	dat	100,00%	soz	0,16%	ine	4,98%		

VI.4 Emaitzak

Esan bezala, ondorengo gaiez mintzatuko gara:

- datu orokorrak
- agertu zaizkigun alternantziak
- aditzen *bss*etatik atera ditugun osagai semantikoak eta horiei loturiko adiera orokorrak
- izan ditugun arazoak eta hartutako erabakiak
- zenbait kontu aipagarri
- aztertutako Kasuek izan ditzaketan osagai semantikoak

VI.4.1 Datu orokorrak

Aztertutako 100 aditzetatik, 279 *bss* atera zaizkigu. Horrek esan nahi du aditz bakoitzeko *bssen* batez bestekoa 2'79koa dela.

Batez bestekoa albo batean utziz, badira *bss* bakarreko aditzak; ondoko 20ak: *bisitatu*, *dedikatu*, *egin*, *erabili*, *eskaini*, *flotatu*, *gainditu*, *gosaldu*, *hautatu*, *irakin*, *jasan*, *konparatu*, *landu*, *laztandu*, *loratu*, *lortu*, *moztu*, *otu*, *ukitu*, *zeharkatu*.

Bss bakarrekoen parean, berriz, badira bostetik gora *bss* dituztenak: *agertu* (6), *aldatu* (5), *atera* (8), *bete* (6), *deitu* (6), *egokitu* (5), *elkartu* (5), *etorri* (5), *igo* (5), *jaitsi* (5), *jarri* (6), *jo* (10), *jokatu* (6), *pasatu* (6). Hain zuzen, hauexetan izan dugu alternantzia-egiturak bereizteko zailtasunik handiena.

DA, DU, ZAIO eta DIO aditz-laguntzaileei dagokienez, hauexek dira bakoitzarekin atera zaizkigun *bssen* kopuruak:

DU: 178 *bss*

DA: 76 *bss*

ZAIO: 12 *bss*

DIO: 13 *bss*

Argi dago, aditz laguntzaile iragankor datibogabea (DU) dela besteen artetik gailentzen dena. ZAIO eta DIO laguntzaileko balioak, berriz, mugatuenak dira. Eta iragangaitz datibogabea (DA), azkenik, tartean geratzen da. Hala ere, gogoan izan behar dugu DA eta DU gisa landuta dauden *bss* askok datiboa ere onartzen dutela Kasuen artean (eransketa direlako).

Aditz batzuek laguntzaile mota bakarra erabiltzen dute beren *bss(et)an*; beste batzuek, berriz, desberdinak. Hauxe da aurkitu dugun kasuistika onartzen dituzten laguntzaileak kontuan izanda:

- DU laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak:

abestu, *adierazi*, *afaldu*, *argitu*, *asmatu*, *baieztatu*, *bazkaldu*, *bisitatu*, *edan*, *egin*, *ehizatu*, *ekarri*, *eman*, *entzun*, *erabili*, *eraman*, *erantzun*, *eskaini*, *eskatu*, *flotatu*, *gainditu*, *gosaldu*, *grabatu*, *hautatu*, *hartu*, *ikasi*, *ikusi*, *irakin*, *irakurri*, *iraun*, *jan*, *jasan*, *jaso*, *konparatu*, *landatu*, *landu*, *laztandu*, *lortu*, *moztu*, *onartu*, *ukitu*, *ulertu*, *zeharkatu*

Guztira 43. Kasu hauetan, hortaz, hauxe da esan dezakeguna: aditz hauek, morfologikoki bederen (hots, aditz laguntzaileari begiratuta), beti dira iragankorrak.

Hauetako batzuek adiera bakarra dute, batzuetan alternantzia osatzen duten aldaerak dituztela:

abestu, adierazi, afaldu, argitu, asmatu, baieztatu, bazkaldu, bisitatu, edan, egin, ehizatu, entzun, erabili, erantzun, eskaini, eskatu, flotatu, gainditu, gosaldtu, grabatu, hautatu, ikasi, ikusi, irakin, irakurri, iraun, jan, jasan, konparatu, landatu, landu, laztandu, lortu, moztu, onartu, ukitu, ulertu, zeharkatu

Eta datiboa ez dute onartzen ondokoek: *afaldu, bazkaldu, ehizatu, flotatu, gainditu, gosaldtu, irakin, konparatu*.

Gainontzeko 5ek adiera bat baino gehiago dute:

ekarri, eman, eraman, hartu, jaso

Adiera batzuetan datiboa onargarria da, eta beste batzuetan ez.

- DA laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak:

aritu, egon, gertatu, konturatu, loratu

Guztira 5. Goian esan dugun bezalaxe, honen aurrean esan dezakeguna da aditzok morfologikoki beti izango direla iragangaitzak.

Adiera bakarrekoak hauexek dira:

aritu, konturatu, loratu

Hauetatik datiboa ez du onartzen *konturatu*k.

Beste biak, berriz, adiera bat baino gehiago adierazten dute:

egon, gertatu

Egonek ez du onartzen datiboa inongo baliotan, eta *gertatu*k, berriz, guztietan onartzen du.

- ZAIO laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak:

Aditz bakarra ageri zaigu ZAIO laguntzailea bakarrik erabiltzen dutenen artean, eta adiera bakarrekoa da:

otu

- DIO laguntzailea bakarrik onartzen dituzten aditzak:

Hemen ere aditz bakarra ageri zaigu, eta adiera bakarrean:

dedikatu

- DA eta DU laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak:

agertu, aldatu, amaitu, aurkitu, banandu, besarkatu, bete, bilakatu, erre, existitu, ezkondu, haserretu, hasi, hautsi, hazi, hil, hornitu, hustu, igo, iritsi, isildu, isuri, izan, jaitsi, jokatu, jolastu, kezkatu, kokatu, mugitu, nahastu, oroitu, sartu, topatu, zintzilikatu

Guztira 34.

Adiera bakarrekoak hauexek dira:

besarkatu, bilakatu, erre, existitu, ezkondu, haserretu, hasi, hautsi, hazi, hil, hornitu, hustu, igo, iritsi, isildu, jaitsi, jolastu, kezkatu, kokatu, mugitu, oroitu, sartu, topatu, zintzilikatu

Hauetatik datiboa ez dute onartzen inongo bsetan ondokoek: *besarkatu, existitu, jolastu, haserretu (?)*, *kezkatu (?)*. Oroitu eta topaturen kasuan, berriz, datiboa DU laguntzaileko bssan bakarrik da onargarri.

Besteek, berriz, adiera bat baino gehiago dute:

agertu, aldatu, amaitu, aurkitu, banandu, bete, isuri, izan, jokatu, nahastu

Eta hauetan, datiboa batzuetan onartzen da eta beste batzuetan ez.

- DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak:

barkatu, deitu, eragin, erreparatu, esan, eutsi, jo

Guztira 6.

Adiera bakarrekoak hauexek dira:

barkatu, eragin, erreparatu, eutsi

DU laguntzaileko bssan *eraginek* bakarrik onartzen du datiboa.

Besteek, berriz, adiera bat baino gehiago dute:

deitu, esan, jo

DU bsetan, datiboa batzuetan onartzen dute eta besteetan ez.

- DA eta ZAIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak:

etorri, joan, mintzatu

Guztira 3.

Adiera bakarra batek bakarrik du:

mintzatu

Honek, DA *bssan* ez du datiboa onartzen.

Etorri eta *joan* aditzen DA *bssetan*, datiboa ez da beti onartzen.

- DA, DU eta ZAIIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak:

ahaztu, elkartu

2 guztira.

Ahaztu adiera bakarrekoa da; *elkartuk* berriz, gehiago ditu.

DA eta DU *bssetan ahaztuk* ez du datiboa onartzen; *elkartuk*, berriz, *bss* batzuetan bai eta beste batzuetan ez.

- DA, DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak:

Aditz bakarra topatu dugu hemen:

pasatu

Bere *bssetan* adiera bat baino gehiago adierazten ditu; eta datiboari dagokionez, ez da beti onartzen.

- DA, DU, ZAIIO eta DIO laguntzaileak onartzen dituzten aditzak:

atera, egokitu, jarri

Guztira 3.

Beren *bssetan* adiera bat baino gehiago adierazten dituzte. Datiboari dagokionez, DA eta DU *bssetan jarrik* guztietan onartzen du; besteek, berriz, batzuetan bai eta besteetan ez.

VI.4.2 Agertu zaizkigun alternantzien inguruan

Atal honetako lehendabiziko puntuan zein alternantzia atera zaizkigun ikusiko dugu. Ondorengo puntuan, alternantzia hauen izaeraz mintzatuko gara, Levinen alternantziak ikusi ditugunekin konparatuz eta guk geuk atera ditugun emaitza berriak azalduz. Azkeneko atalean, alternantzietan ikusitako kasuistika sintaktiko berriak azalduko ditugu.

VI.4.2.1 Agertu zaizkigun alternantziak

Aztertutako aditzetan, markatzeko genituen 9 alternantziak agertu zaizkigu. Hona alternantziak eta hauek onartzen dituzten aditzak:

- *Alternantzia kausatibo/inkoatiboa*

Adib.: *hil* (hil-1/hil-2)¹⁰³ eta *kokatu* (kokatu-1/kokatu-2)¹⁰⁴:

(586) - Triste al hago [HURA] **hil** zelako?- galdetzen dio Juttak. (EusCor)

(587) Bi tiroz **hil** zuten [HAIEK] [HURA]. (EusCor)

(595) Gure ustez, Pasaiaiko badien, aurreneko bizileku iraunkorrak badiaren bi muturretan **kokatu** ziren [HAIEK], Lezon eta Herreran, han egin zitezkeen eta itsasontzientzako babeslekurik seguruenak. (EusCor)

(601) Amsterdam-en edo Argentinan kokaturiko narrazio bat sinesgarria gerta balekigu ere, agian ez genuke sinestuko Euskal Herriko herri txiki batean **kokatuko** bagenu [HURA] [GUK]. (EusCor)

- *Objektu inespezifikoaren alternantzia / Objektu barneratuaren egitura*

Adib.: *abestu* (abestu-1/abestu-2) eta *jan* (jan-1/jan-2)¹⁰⁵:

(172) Gaztetxe bakoitzeko partaide batek bertso bat abestu eta txiste bat kontatu zuen. (EusCor)

(173) Zenbaitzuek ongi **abesten** dute, baina beste batzuek ez - adierazi zuen Alexanderrek -. (EusCor)

(178) - Bai, **edango** dugu ardo pixka bat [GUK]. (EusCor)

(179) Guk edaten dugu! (EusCor)

- *With preposizioaren galera:*

Aditz bakarrarekin aurkitu dugu alternantzia hau: *topatu* (topatu-1/topatu-2):

(724) Arrazoia, "bortitzkeria garaiotan haserre dagoen serbiarren batekin topatu zaitezke". (EG)

(726) Johan Van der Velde belgikarra igaro zen lehena goitik, alde handiarekin, baina beherakoan infernuarekin topatu zen. (EG)

(733) Tunelaren erdian, txori bat topatu zuten, bide erdian eroria. (EusCor)

(729) Eskolan gaztelaraz irakurtzean hitz arrotz asko topatzen genituen. (EG)

¹⁰³ Bssek alternantzia osatzen dutenean ‘/’ batez elkartuko ditugu. Adib.: hil-1/hil-2.

¹⁰⁴ Askok dira alternantzia hau erakusten duten aditzak: *aldatu, amaitu, atera, banandu, bete, egokitu, elkartu, erre, ezkondu, hautsi, hasi, hazi, hil, hornitu, hustu, igo, isildu, jaitsi, mugitu, nahastu, jarri, pasatu, sartu, zintzilikatu*.

¹⁰⁵ Hau ere aditz askok erakusten dute: *afaldu, barkatu, bazkaldu, edan, ehizatu, eragin, entzun, grabatu, ikasi, ikusi, irakurri, jan, onartu, ulertu, deitu, jo*.

- *Spray/Load alternantzia:*

Bi aditzek erakutsi dute alternantzia hau: *landatuk* (landatu-1/landatu-2) eta *hustuk* (hustu-2/hustu-3):

- (278) Sekula ez dugu honelako ontzian **landatuko** [hura]; (EusCor)
- (279) Oihana munduko bazter guztietatik ekarritako askotariko espeziez **landatu** zuten fraide belarzale haiek erabiltzen zuten bera, trufa puska eta guzti. (EusCor)
- (777) Nork **hustuko** dizu limosnen kutxatila / (kutxatila limosnez?) (EG)
- (781) Kanalako agureak txakolina **hustu** digu [edalontzian?], hiruroi edalontzi bete bana. (EusCor)

- *Substantzia/iturria alternantzia:*

Hiru aditzetan agertu zaigu alternantzia hau. Euskaraz, gainera, alternantzia hau aztertu dugunean ikusi dugun bezala, aldaera gehiago ditugu, *iturria* datiboa ere izan daitekeelako. Hauexek dira hiru aditzak: *isuri* (isuri-1/isuri-2)¹⁰⁶, *atera* (atera-2/atera-4/atera-6), eta *etorri* (etorri-2/etorri-5). Adib.:

- (1007) Bertatik argi izpi indartsu batzuk **isurtzen** dira eta elkartzen diren puntuan izar bat osatzen dute. (EusCor)
- (1008) Pintura batzuek etengabe **isurtzen** dituzte sustantzia kutsakorrak (EusCor)
- (1593) Ganbelu baten hezur bat eclipta prastata landarearen uretan sartzen da, gero erre, eta hortik **ateratzen** den margogaia ganbelu hezurrez egindako kutxa batean gordetzen da. (EusCor)
- (1606) Piratak hogeita bost xentimo **ateratzen** ditu egunero. (EusCor)
- (1598) Usaina berezi nahian luzaz egon eta gero, garaipen-oihua **atera** zaio amonari: (EusCor)
- (1337) Horrela, harrijasotzea, idi probak eta gizon probak harginen (harriaren langileen) lanetik **datoz**. (EusCor)
- (1343) Baina une horretan bertan inspirazioa **etorri** zaio [HARI] eta paper bat atereaz, notak idazten hasi da. (EusCor)

¹⁰⁶ Alternantzia aztertu dugunean *isurirekin* datiboa zilegi dela ikusi badugu ere, ez zaigu adibiderik agertu corpusean.

- *Preposizio lokatiboaren galera:*

Iritsi (iritzi-1/iritzi-2) aditzean bakarrik agertu zaigu alternantzia hau, eta gainera adibide bakarrean. Adib.:

(708) Zenbat arima iritsiko liratekeen santutasunera, ongi zuzenduak balira! (EusCor)

(723) Pfister, Munchen 1978, 45-87 eredutzat har daiteke bitarte berberaz [HARK] iritsitako aberasteaz; (EusCor)¹⁰⁷

- *Alternantzia konatiboa:*

Hau ere aditz bakarrean agertu zaigu, *jon* (jo-5/jo-7), eta adibide bakarrean. Adib.:

(1239) Atea jo genduan da Santa Ageda aizkolariaren semea, Timoteo, atera zitzaigun. (EusCor)

(1255) - Atean jo dute, etxeakoandre. (EusCor)

- *Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa*

Alternantzia *besarkatu* aditzean bakarrik agertu zaigu (besarkatu-1/besarkatu-2)¹⁰⁸:

(674) Karelean jarriak zituen nebak ukondoak, emakumeak besarkatu egin zuen [NEBA] eta musu eman zioten elkarri. (EusCor)

(671) Zer esan ez zekielarik, "hodei zoragarri horiek" esan zion Albertori, eskuaz seinalatuz, Pepe tabernako atean ikusitakoan, eta ozta-ozta eutsi zien malkoei besarkatu zirenean [HAIEK]. (EusCor)

Alternantziatako aldaera bakarra markatu dugunetik ondokoak agertu zaizkigu:

- *Alternantzia erreziproko sinple iragankorrekoa:*

Konparatu (konparatu-0), *banandu* (banandu-3), *ezkondu* (ezkondu-1), *nahastu* (nahastu-3) eta *jokatu* (jokatu-3) aditzek erakutsi dute. Ikus *konparatu* eta *nahasturen* adibide bana:

(83) Aliantza prest dago erasoak gogortzeko, eta Kosovoko egoera Kanputxeako genozidioarekin konparatu du [HARK]. (EG)

¹⁰⁷ Esan behar dugu adibide hau ez dela guztiz argia, erlatibozko perpaus bat izanik ezin baita berez jakin zein egitura dagoen azpian: X Yra iritsi ALA Xk Y iritsi.

¹⁰⁸ Alternantzia hau aztertu dugunean, ikusi dugu *topatu* aditzak ere onartzen duela. Eskuarlean izan dugun corpusean, ordea, ez zaigu agertu.

(1078) Ondoren, kontu handiz **nahastu** gorringoekin txokolate beroa [ZU/ZUEK], gurinarekin eta irinarekin batera. (EusCor)

Hala ere, koordinaziozko nahiz sintagma kolektiboko egiturak oso arruntak dira. Adib.:

(78) Erakundeak argudiatu duenez, epaileak fiskala "aintzat hartu gabe" agindu zuen Pinochet atxilotzeko Entzutegi Nazionalako fiskalak diktadore ohia eta Espainiako erregea konparatu dituela ukatu du Estatuko fiskalburuak Pinocheten alde egitean "diktadura eta demokrazia nahastea" egotzi diote Pedro Rubira fiskalari Agentziak / Madrid. (EG)

(84) Borrellen eta Josep Pique Industria ministroaren kasuak konparatu zituen. (EG)

(982) Hauek ezin ditugu **banandu** metodo fisikoak erabiliz. (EusCor)

- *Alternantzia erreziproko simple iragangaitzekoa:*

Alternantzia hau *nahastu* (nahastu-1), *banandu* (banandu-1), *jokatu* (jokatu-1), *ezkondu* (ezkondu-1) eta *topatu* (topatu-1) aditzek erakutsi dute. *Topaturen* kasuan *With preposizioaren galerako* aldaeretako batek balio du adibide gisa. Zenbait adibide:

(697) Edurnezuri printzearekin ezkondu zenean, zazpi ipotxek edateari eman zioten. (EusCor)

(1076) -Ez zaitetz jende horrekin nahastu [ZU], mesedez. (EusCor)

Horietaz gain, guk geuk aurkitu ditugu beste batzuk; guztira 31.

Gaia ez diren osagaien inespezifikazio-kasuak aurkitu ditugu.

- *Jardueraren inespezifikazioa: aritu* (aritu-1/aritu-2) eta *asmatu* (asmatu-1/asmatu-2) aditzetan. Adib.:

(513) Etengabeko borrokan arituko da bere amarekin egin behar dizkion bisitei buruz eta, ... (EusCor)

(521) Lasai eta konfiantzaz **aritu** zen Arteakoa, presaka eta ideiarik gabe Errandonea. (EG) -> INESP.

(381) Lehenengo zatian Realekoek ez zuten **asmatzen paseetan**, eta ondorioz gora ez zen baloi garbirik iritsi. (EG)

(376) Saiatu, gogotik saiatu ziren, baina ez zuten **asmatu**, huts ugari egin zuten, eta hor egon zen bi taldeen arteko aldea. (EG) -> INESP

- *Enuntziatuaren inespezifikazioa:*

Erantzun (erantzun-1/erantzun-2) aditzean agertu zaigu. Adib.:

(266) NATOk, bestetik, UCK gerrillaren aurkako erasoek jarraitzen duten probak badituela erantzun zuen. (EG)

(267) "Beste esku sartze edo erasorik bada, Albaniako herriak indar handiz **erantzungo** du", esan zuen Mejdanic. (EG) -> INESP.

- *Helburuaren inespezifikazioa:*

deitu-1/deitu-2/deitu-3:

(1150) Horregatik, aurki Sabin Intxaurrea Eusko Jaurlaritzako Lan sailburua bilera batera **deituko** du Pimentel ministroak, gai hori jorratu eta transferentzien arazoari irtenbideren bat ematen saiatzeko. (EG)

(1160) Lanuztera **deitu** zuten sindikatuek euren balorazioa kaleratu zuten atzo, eta bertan oso baikor azaldu ziren. (EG) -> INESP.

(1156) -Lizarra Garaziko Akordioaren sinatzaileek, atzoko manifestazioaz gain, biharko lanuzteak **deitu** zituzten Euskal Herri osoan abiatutako prozesu politikoaren alde. (EG) -> INESP.

- *Osagai lokatiboen inespezifikazioa (eta elipsia):*

Zenbait aditzek, kokapen-aldaketa adieran, gaitasuna dute osagai lokatibo bat inespezifikatzeko. Hala ere, Vázquez et al.-ekin (2000) bat etorritik, ez dirudi aditz bakoitzean edozein osagai lokatibo inespezifikatu daitekeenik. Izan ere, batzuetan elipsia gerta daiteke, objektuarekin (*gaiarekin*) gertatzen den bezala. Hots, osagai lokatibo horrek aldeaz aurretik aipatu den erreferente zehatz bat du. Hona Vázquez et al.-en (2000) hitzak:

Cuando un verbo puede expresar sintagmáticamente diferentes subcomponentes de la trayectoria, hay restricciones sobre cuál de ellos puede infraespecificarse [...]. Inicialmente parece que el verbo *venir*, al contrario que *carretear*, admite todas las posibilidades de omisión. Ahora bien, si analizamos con detalle los ejemplos, observamos que, aunque en las oraciones 257c [*Claudia ha venido del gimnasio caminando*] y 257d [*Claudia ha venido caminando*] no se expresa el destino del recorrido, éste tiene un referente asociado. Según esto, para los verbos que focalizan el punto final de la trayectoria, como *venir*, la inexpressión de este subcomponente no se corresponde con una infraespecificación, sino que se trata de una omisión por elipsis (v. Ap. 5.1.2).

[...]

Al igual que los verbos que focalizan el destino, los verbos que focalizan el origen no admiten la infraespecificación del componente incorporado. Así, en el caso de que éste no se exprese, el procedimiento utilizado es de nuevo la elipsis:

- (260) a. Andrea se aleja (de la casa)
b. El profesor ha sacado un libro (de la maleta)

Vázquez et al., 2000: 194-195

Bestalde, aditz batzuetan, elipsi *deiktikoa* deitzen dena dago. Elipsi deiktikoaren bidez, aditzak adierazten duen ekintzan *helburuko kokapena* zein den jakin daiteke, hiztunak perpausa ekoizterakoan dagoen lekua dela suposatzen delako. Beraz, kasu hauetan ez dago aldeaz aurretik aipaturiko osagai lokatiborik; aditzek berez kodetuta duten informazioarengatik jakin dezakegu hori. Horregatik, horrelako aditzek bere semantikan

hona gisako elementu deiktiko bat dutela esaten da. Ikus, berriz, Vázquez et al.-en (2000) hitzak:

Dentro del estudio de la elipsis deben incluirse también los casos de no expresión sintagmática de los argumentos por deixis, ya que presentan la misma característica esencial: el elemento deíctico eliminado es siempre interpretado y asociado con un referente:

(164) Inés ha llegado (aquí)

En los casos de elipsis deíctica, el verbo, que típicamente pertenece al grupo de verbos llamado de desplazamiento o de cambio de posesión, incorpora en la pieza léxica la información para interpretar el argumento elidido a partir del contexto extralingüístico.

Vázquez et al., 2000: 133

Elipsi deiktikoa, beraz, testuinguru linguistikotik kanpo geratzen da, baina pieza lexikalak horri buruzko informazioa izan behar du.

Vázquez et al.-en (2000) hitzetan ikus dezakegunez, kokapen-aldaketazko aditz batzuek *helburuko kokapena* “fokalizatzen” dute, beste batzuek *abiapuntuko kokapena* eta beste batzuek *bidea*. Hala izanik, fokalizatzen ez den beste osagai lokatiboak (baldin eta baden) inespezifikatzeko aukera duela diote; elementu fokalizatua, berriz, ez. Adibidez, *salir* eta *sacar* aditzak *abiapuntuko kokapena* lexikoki fokalizatua duten aditzen artean sailkatzen dituzte (195. orrialdea); hala, *abiapuntuko kokapen* hau beti jakina dela suposatzen da; *helburuko kokapena*, berriz, inespezifikatuta gelditzen dela. Hala ere, horretarako aurreko testuingurua beharrezkoa da, eta guk aditz bakoitzaren esaldiak bereizita ditugu. Nolanahi ere, euskaraz ere horrelako fenomenoak baditugula dirudi. Esaterako, *joan* aditzak *helburuko kokapena* elipsi bidez berreskuratzen duela ematen du, *abiapuntuko kokapena*, berriz, inespezifikatuta geratzen dela. Ondoko adibideak elkarren segidako esaldiak dira, eta esandakoa betetzen da:

(1115) Banekien bion arteko azken agurra zela hura, biharamun goizean familia osoa Bilbora zihoan-eta. (EusCor)

(1116) Nire agindutara hago, eta hi ere **joan** egingo haiz! [BILBORA] (EusCor)

Beste hauetan ere horrelako zerbait gertatzen dela pentsa genezake:

(1411) **Joango** zela, noski ... (EusCor)

(1412)-Bazekien ni **joango** nintzela. (EusCor)

(1413) Haritschelhar eta J.L. Lizundia **joan** dira. (EusCor)

(441) Oso momentu berezian **eraman** ninduten nire alaba jai berria baitzen, eta nik ikusteko bisitara eramateko asmoa zuten. (EG)

Goiko esaldietan adlatiboa agertu ez bada ere, badakigu dena delakoa “leku jakin batera” joan edo eraman dutela.

Hurrengo adibidean, berriz, elipsi deiktikoari esker, anderea “hiztuna dagoen lekura” ekarri duela badakigu.

(468) Esaten omen zuen: "Iadanik ez nau maite, ziudadetik beste andere bat ekarri du".
[HARK] (EusCor)

Osagai lokatiboren baten inespezifikazioa onartzen duten aditzen artean ditugu: *atera, joan, etorri, ekarri, eraman, jo, jaitsi, igo, jaso, mugitu, sartu eta pasatu*.

Kokapen-aldaketa adieraz dezaketen beste aditzetan, elipsia gertatzen dela dirudi: *jarri, kokatu, zintzilikatu, hartu, landatu*. Areago, *jarri* aditzean, osagai lokatiboa (*helburuko kokapena*) esaldian nahitaez agertu behar dela ematen du, kokapen-aldaketa adiera izateko.

Hona kokapen-aldaketa adierazten duten aditzen kasuistikako zenbait adibide :

(478) "Ba nik ekarriko dizut" [HURA] [ZURI] [HONA]. (EusCor)

elipsi deiktikoa + *abiapuntuko kokapenaren inespezifikazioa* + *gai ukituaren elipsi arrunta*

(407) Andereñoak Kepa besoetan hartu eta autobuseko lehenengo eserlekura eraman zuen [HARK] [HURA], haizeak jotzeko. (EusCor)

abiapuntuko kokapenaren inespezifikazioa + *kausala* eta *gai ukituaren elipsi arrunta*

(430) Eta beste errore estrategiko ez txikiagoa, bestearen korolaria edo "anphora" hautsiaren zatiak lurretik jaso eta haiek berritsatsi nahi izatean? (EusCor)

helburuko kokapenaren inespezifikazioa + *kausala* eta *gai ukituaren elipsi arrunta*

(1658) Bakalao musika hori jartzen dute eta ni aluzinatuta geratzen naiz, lur jota. (EusCor)

Kokapen-aldaketa adieran *helburuko kokapenaren inespezifikazioa*? ala Hitz Anitzeko Unitate Lexikala (*musika jarri*)?

Kokapen-aldaketazko aditz batzuetan, *norabidea* da aditzaren semantikan kodetuta dagoena; hala nola, *igo* eta *jaitsi* aditzetan. Hori hala dela onartu dugu, Vázquez et al.-en (2000) hitz hauetan oinarrituta:

La dirección puede expresarse sintácticamente a través de un SP introducido por la preposición *hacia* o la locución prepositiva *en dirección a* o puede presentarse también incorporado en la pieza léxica, como en el caso de los verbos *subir*, *avanzar* o *caer*, los cuales indican léxicamente la orientación del desplazamiento, que en este caso es vertical (v. Dervillez-Bastuji 1982, Boons 1987).

Vázquez et al., 2000: 187

Euskararen kasuan norabidezko balioak adierazteko hainbat aukera ditugu: hemen aztergai ez dugun hurbiltze adlatiboa (-rantz) batetik, eta zenbait Kasu konplexu, bestetik. Kasu konplexu hauek Kasu adlatiboa duten hitzez osatzen dira. (adib. -ø + alde(ra)/atze(ra), goi(ra), behe(ra)). Horregatik, batzuetan, *helburuko kokapena* eta *norabidea* nahasgarri gertatzen dira¹⁰⁹. Aditz hauetan, *bertikalitatea* da norabide horretan adierazten dena; zehazkiago esanda, behetik gorako bertikalitatea dugu *igon* eta goitik beherako bertikalitatea *jaitsin*. Hala, perpausean *gora* edo *behera* moduko bat agertzen denean, ez da berez *helburuko kokapena* adierazten, baizik eta goitik beherako edo behetik gorako norabide bertikala. *Jaso* aditzak ere *igoren* ezaugarriak dituela dirudi. Horrela izanik, aditz honek *norabidea* ere bere semantikaren baitakoa du. Hala ere, bi osagai hauek — *norabidea* eta *helburuko kokapena*— ezin dira perpaus berean agertu. Vázquez et al.-ek (2000) diotenez, horren arrazoia da bi osagai hauen interpretazioa oso hurbilekoa dela:

Esta incompatibilidad parece estar relacionada con el hecho de que la interpretación de estos dos subcomponentes, destino y direccionalidad, es muy cercana. Así, por un lado, el segundo suele estar incluido en el primero (si alguien va a un lugar suele implicar que va en dirección a ese lugar) y, por otro, el lugar que indica la dirección puede coincidir con el destino: si alguien se dirige hacia un lugar puede ser que éste sea su destino.

Vázquez et al., 2000: 185

Ondorioz, perpausean edo *norabide* osagaia agertuko da edo *helburuko kokapena*.

- *Helburuko egoeraren* inespezifikazioa

Hau *egokitu* aditzean gertatzen da. Adib.:

(1616) Lehen gazteek beraiek **egokitzen** zituzten euren arauak unean uneko egoerara. (EusCor)

(1614) Beraz, neskak eredu horretara **egokitzen** badira irakasleen onespena jasoko dute. (EusCor)

(1618) Betaurrekoak **egokitu** zituen. (EusCor)

(1619) Hala bada, egunkari moduan idatzirik diren oharrek, nik neuk deskodifikatu, transkribatu eta **egokitu** ditut. (EusCor)

(1618) eta (1619) adibideetan, *helburuko egoera* perpausean agertzen ez delarik, *helburuko egoera* hori “egokia” dela esan nahi da. Agertzen denean, egoera “egoki” hori zein den espezifikatzen da. Beraz, *objektu barneratuarekin* ikusi dugun bezala, hemen ere

¹⁰⁹ Izatez, VI.2.3 puntuan *Unitate lexikalizatuak* aipatzerakoan esan dugun bezala, horixe da Kasu konplexu eta Kasu adlatibo sinplearen arteko desberdintasunetako bat. Alegia, Kasu konplexuek *norabidea* adierazten dute eta Kasu adlatibo sinpleak ez.

ematen du *egoera* barneratua dagoela, eta batzuetan espezifikatu egiten dela. Bestelako egoera-aldaketa aditzetan ez dugu horrelako espezifikazio-kasurik aurkitu.

- *Denboraren inespezifikazioa*

Hau *iraun* aditzean gertatzen da.

(365) Itsumendiko gure bizikera hark — nahiz eta tokiz aldatu— sei edo zazpi urtetan iraungo zuen. (EusCor)

(366) Gerra urte hartako uztailean altxatu zen eta hiru urtez iraun zuen. (EusCor)

(368) Saia zaitez jakiten gaur egun zein herrixkatan **irauten** duen ikazkintzak lanbide bezala eta mapa batean adieraz ezazu non dauden herrixka horiek. (EusCor)

(369) Arrunta zen buru-ehiza, haien ustez, garezurraren barruan gordetzen zen gizakiaren nortasunak bertan **ziraue**lako, heriotzaren ondoren. (EusCor)

Besteak, Kasuetan aldaketak dituztenak dira¹¹⁰:

- ABSren eta DATen alternantzia *helburu* osagaian:

deitu-4/deitu-6

(1171) Nouvelle vagueko amona **deitu** izan dute [HURA]. (EG)

(1179) Museoaren ondoren eraiki asmo duten prestakuntza zentroa ere nazioartekoa izango litzateke (Diseinu Zentro Internazionala **deitu** diote egitasmoari); (EG)

- ERGen eta ABSren arteko alternantzia *gai ukitu* osagaian:

igo-1/igo-5, jaitsi-1/jaitsi-5, pasatu-1/pasatu-4

(793) Abere hauek, gaueko iluntasun eta bakardadearen babesean, mendiko belarretatik herri inguruetako soroetara [HAIEK] **jeisteko** joera dute eta hauetara etortzen badira, kalte handiak egiten dituzte, bertan aurkitzen dutena jan eta zapalduz. (EusCor)

(824) Abenturazale amorratua zen eta besteak beste mountain bike-ez Laponian ibili zen, Nilo ibaia piraguaz **jeitsi** zuen [HARK] eta Artikotik Tropikora bidaia egin zuen. (EusCor)

(821) Neskak bira erdia egin eta atari-mailak **igo** zituen [HARK]. (EusCor)

(783) Hartz bihurtuko zarete eta zuhaitzetara **igoko** zarete [ZUEK], baina izeietara ez ". (EusCor)

¹¹⁰ Hemen, testua ez korapilatzearen, laburdurak erabiliko ditugu Kasua daraman osagai sintagmatikoari erreferentzia egiteko. Esaterako, sintagma absolutiboa adierazteko ABS erabiliko dugu. Zenbaitetan sintagmen gunean ageri diren entitateei egingo diegu erreferentzia, eta horretarako “ABS entitatea” gisako aposizioa erabiliko dugu. Bestetik, osagai lokatiboak adierazten dituzten Kasu inesiboa, ablatiboa eta adlatiboa batera erreferentziatuko ditugu batzuetan, eta horretarako “Kasu lokatibo” termino orokorragoa erabiliko dugu. Honek ere bere laburdura izango du “sintagma kasu lokatiboduna” adierazteko: LOK. Honenbestez, hauexek dira erailiko ditugun laburdurak: ABS, ERG, DAT, ELA_KONP, INE, INS, SOZ, ABL, ALA eta LOK. Kasuei bakarrik erreferentzia egin behar diegunean, Kasuaren izen osoa erabiliko dugu (hots, “absolutiboa”, “lokatiboa”...). Laburdurak izen berezi gisa deklinatuko ditugu, eta ondorengo moduan irakurri behar direla suposatuko dugu: ABS: /a-be-ese/; ERG: /erg/; DAT: /dat/; ELA_KONP: /e-la-konp/; INE: /ine/; INS: /ins/; SOZ: /soz/; ABL: /a-be-ele/; ALA: /ala/; LOK: /lok/. Hala, deklinabide-atzizkia laburdura esaten den moduari erreparatuta jarriko dugu (adib. ERGek; ABLk...)

(1501) Zentru honetatik urtean zehar 300 bat animalia pasatzen dira. (EusCor)

(1524)- Muga **pasa** al dugu? [GUK] (EusCor)

Aditz eta adibide hauek baliagarriak dira aipatuko dugun beste alternantzia batean (ABL +ALA eta ABSren arteko alternantzia *bidea* osagaian), harekin batera gertatzen baita.

- ERGen eta ABSren arteko alternantzia *gai* osagaian:

existitu-1/existitu-2

(653) Hau idazten duena ebaluazioaren mundutik dator, eta era berean gogorarazten dizue gezur haundiak eta estatistikak esisititzen direla. (EusCor)

(654) Baina estruktura diametralei dagokienean, desberdintasun horrek ez du beti **existitzen** eta, edonola ere, elkarrekikotasunez asebetarik dagoen haien naturatik ez da eratoritzen. (EusCor)

- ALAren eta INEren arteko alternantzia *helburuko kokapen* osagaian¹¹¹:

sartu-1-3/sartu-2-4¹¹² (bietan, aldi berean, alternantzia kausatibo/inkoatiboa dago):

(858) Xurgin eta Leireren gurasoak, Kosme eta Kandelari, tabernan sartzen dira (EusCor)

(866) Beldurtzen denean, dortoka oskolaren barrura sartzen da. (EusCor)

(865) Lilak eskua **sartu** zuen poltsan. (EusCor)

(870) Nekazariak, arraina Espainiara sartzen duten mandazainak, noiz untzigintza babesten noiz untiak bahitzen dituzten erregeak, erregeei eta marinelei pribilegioak eta dirua kendu nahi dizkieten burgesak, Eliza katolikoa bere erijioarekin eta dramaturgia mitiko-erriozkoarekin —esker— iritsi zen herri honentzat, modernitatean sartzean, ezaugarri nagusi bilakatu zen elementuetako bat: (EusCor)

- ERGen eta SOZen arteko alternantzia *kausa* osagaian:

haserretu-1/haserretu-2

(638) Zaplastada bat emango banizu, **haserretu** egingo zinateke nirekin. (EusCor)

(643) Egiaz, dexente motzago zegoen, eta horrek haserretu egin zuen. (EusCor)

¹¹¹ Esan behar da, badagoela beste ezaugarri bat bi aldaerak bereizten dituen: ALA azpikategorizatua den aldaeran ABL posible da, baina INE azpikategorizatzen den aldaeran ez dirudi. Adibide batzuek, hala ere, zalantzan jartzen dute baieztapen hau:

(873) - Argi izan behar du eszenatokian nondik sartu eta nondik irten. (EusCor)

(874) Airea sudurzuloetatik sartzen da zintzurrestean zehar bronkioetara iritsi eta handik biriketara zabaltzen da, birikak puztuz: (EusCor)

(873) adibidean, INE *sartu* aditzari edota *argi izan* aditzari dagokion zalantzarria da; eta (740) adibidean, berriz, *helburuko kokapena* ALAz edo INEz gauzatu behar den/daitekeen ez dago argi.

¹¹² Batzuetan gertatzen da alternantzia bat posible izatea beste alternantzia baten aldaeretan. Esaterako, aztergai dugun alternantzia hau alternantzia kausatibo/inkoatiboko bi aldaeretan gertatzen da; horrek esan nahi du aldaera kausatiboan eta inkoatiboan aipatu behar dela. Hori adierazteko, adierazpide hau erabili dugu: sartu-1-3/sartu-2-4, non 1-3 alternantzia kausatibo/inkoatiboaren aldaera inkoatiboak diren eta 2-4 aldaera kausatiboak.

- ERGen eta INSen arteko alternantzia *kausa* osagaian:

kezkatu-1/kezkatu-2

(629) Han ziren beste bi euskal presoak De Juanaren egoeraz kezkatu ziren, burua handitzen ari baitzitzaion, ez baitzuen ikusten eta ubeldurak nabarmenak baitziren. (EG)

(630) Euskal Herrian bizi den egoera politikoak ez zaitu **kezkatzen**, edo beldurtzen hautetsi batzuk agertzen duten gisara? (EG)

- INEren eta DATen arteko alternantzia *gai* osagaian:

erreparatu-3/erreparatu-4

(1141) Leihotik begiratu eta paisaian erreparatzen du, mendi lerroan. (EusCor)

(1142) Eta errepasso horretan Lizarra Garaziko hitzarmenari erreparatu zioten. (EusCor)

- ABSren eta DATen arteko alternantzia *gai* osagaian:

erreparatu-1/erreparatu-4, eutsi-1/eutsi-2

(1136) Bere bila beldurrik gabe eta hotza, beroa edo euria erreparatu gabe joango da. (EusCor)

(1149) Aldi berean, lanera bidean zihoazen beharginei erreparatu zien [HARK], eta haiengan antzeman zuen alaitasunaz hunkiturik, zera deliberatu zuen bere artean: (EusCor)

(1121) Argazkian, goikaldeko bobeda eutsiko duten hamabi zutabeak ikusten dira. (EusCor)

(1125) Martin Mc Guinness Sinn Feineko buruzagiak ildo horri eutsi zion atzo, eta deklarazioak Ostiral Santuko Akordioari aldaketak egiten dizkiola gaineratu. (EG)

- ABSren eta INEren arteko alternantzia *gai* osagaian:

erreparatu-1/erreparatu-3

Goian jarritako adibide batzuk berreskura ditzakegu hemen, aditz honek goiko alternantzia onartzen baitu (*eutsik* ez).

(1136) Bere bila beldurrik gabe eta hotza, beroa edo euria erreparatu gabe joango da. (EusCor)

(1141) Leihotik begiratu eta paisaian erreparatzen du, mendi lerroan. (EusCor)

- DATen eta SOZen arteko alternantzia *helburu* osagaian:

mintzatu-1/mintzatu-2

(1292) Visoki Decain monasterioko kide da Sava Janjic, gurekin mintzatu den ordezkaria. (EG)

(1296) Luze **mintzatu** zaizkigu [GURI] politikaz , gerraz , bake prozesuaz. (EusCor)

- ABSren, INEren eta INSen arteko alternantzia *denbora* osagaian:

iraun-1/iraun-2/iraun-3

- (362) Oso etsai eta uzkur ageri ohi dira beste komunitate batzuekin, baina noizean behin lagun dituzten herrixketakoekin biltzen dira, eta hainbat egun irauten duten jaiak antolatzen dituzte; (EusCor)
- (365) Itsumendiko gure bizikera hark —nahiz eta tokiz aldatu— sei edo zazpi urtetan iraungo zuen. (EusCor)
- (366) Gerra urte hartako uztalean altxatu zen eta hiru urtez iraun zuen. (EusCor)
- ABSren eta INEren arteko alternantzia *jarduera* osagaian:
ikasi-1/ikasi-4, jokatu-2/jokatu-4

(461) Bigarren mailako hezkuntzan zientziak, matematikak eta hizkuntzak ikasle gutxi **ikasten** zituztela behatu zen, eta horretan ikusi zen beste herrialdeen aldean Ingalaterrak zeukan garapen ekonomiko urriaren kausa. (EusCor)

(464) "Parrandan ikasi ere gurekin egingo dek". (EusCor)

(1047) -Amets batean ibili nahi ez duela agertzen bazait behorra, hurrengo egunean ez dut lasterketarik jokatuko. (EusCor)

(1061) -Jontxu, bihar pilotan jokatuko dugu lehen ikusi dugun frontoian! (EusCor)
 - SOZen eta INEren arteko alternantzia *jarduera* osagaian:
hasi-2/hasi-3

(762) Pare bat egunez atsedean hartuko dut, ordutegira egokitu, eta gero **hasiko** naiz berriro lanean". (EG)

(763) Urrian **hasi** ziren prestaketarekin, eta Eguberriak pasata heldu zion lehen aldiz harriari. (EG)
 - ABSren eta ERGen arteko alternantzia *esperimentatzaile* osagaian:
jokatu-1/jokatu-3, jolastu-1/jolastu-2, oroitu-1-3/oroitu-2-4 (bietan, aldi berean, ELA_KONP eta ABSren alternantzia dago); ahaztu-1/ahaztu-3-4 (hemen ere ELA_KONP eta ABSren alternantzia dago, baina bakarrik ERG denean esperimentatzailea); topatu-1/topatu-2. *Topatu* aditzean *With preposizioaren galerako* adibideek balio dute, harekin batera gertatzen baita hau. *Oroitu* eta *ahaztu* aditzetan ere gauza bera gertatzen da segidan ikusiko dugun alternantziarekin (ABSren eta INSen arteko alternantzia *gai* osagaian).

(1466) Ilustratzaileez beti **ahaztu** egiten gara [GU]. (EG)

(1472) Zuek badakizue nik beti zintzo jokatu dudala eta gure lurralde hauetan zuei lehiakide indartsu bat irten zaizuen arren - Olentzerori nagokio, noski - nik ez ditut haurtzaroko lagunak **ahaztu**. (EusCor)

(1059) Gaur egoardian **jokatuko** dira Donosti'ko Atano III'nean, Errandonea eta Arretxe, eta irabaztunak, Eugi'rekin azkena jokatu bearko du maiatzaren 12'an. (EusCor)

(1061) -Jontxu, bihar pilotan **jokatuko** dugu [GUK] lehen ikusi dugun frontoian! (EusCor)

(660) Bainuan, ahateak xaplatzen, untxiak hondoratzen eta Elixa urpean **jolasten** denean, aitak dio (EusCor)

- (661) Gure haurtzaroan, Nafarroako Larraun eta Sakanaldean **jolasten** genuen halako txulubitekin [GUK]. (EusCor)
- (846) "Jendea nitaz **oroitzen** denean, profesional on bat izan nintzela esatea nahi dut, eta joaten naizenean egoera onean utzi nahi dut Athletic". (EG)
- (849) ETaren menia eta Lizarra Garazi ere **oroituko** nituzke [NIK]. (EG)
- INSen eta ABSren artean alternantzia *gai* osagaian:
ahaztu-1/ahaztu-2/ahaztu-3; oroitu-1/oroitu-3
- Esan dugun bezala goiko adibideak baliagarriak dira alternantzia honetan, harekin batera gertatzen baitira:
- (1466) Ilustratzaileez beti **ahaztu** egiten gara. (EG)
- (1473) Zuek badakizue nik beti zintzo jokatu dudala eta gure lurralde hauetan zuei lehiakide indartsu bat irten zaizuen arren - Olentzerori nagokio, noski - nik ez ditut haurtzaroko lagunak **ahaztu**. (EusCor)
- (846) "Jendea nitaz **oroitzen** denean, profesional on bat izan nintzela esatea nahi dut, eta joaten naizenean egoera onean utzi nahi dut Athletic". (EG)
- (849) ETaren menia eta Lizarra Garazi ere **oroituko** nituzke. (EG)
- ABSren, ERGen eta DATen artean alternantzia *esperimentatzaile* osagaian:
ahaztu-1/ahaztu-2/ahaztu-3
- Hemen goiko bi alternantzietako adibideak baliagarriak dira haiekin batera gertatzen baita alternantzia hau: DAT eta ERG *esperimentatzailea* denean *gaiak* ABS izan behar du; ABS *esperimentatzailea* denean, *gaiak* INS izan behar du:
- (1466) Ilustratzaileez beti **ahaztu** egiten gara [GU]. (EG)
- (1472) Zuek badakizue nik beti zintzo jokatu dudala eta gure lurralde hauetan zuei lehiakide indartsu bat irten zaizuen arren - Olentzerori nagokio, noski - nik ez ditut haurtzaroko lagunak **ahaztu**. (EusCor)
- (1470) Hilzorian, inoiz **ahaztu** [HARI] ez zaion lana bete zuen: (EG)
- SOZen eta DATen arteko alternantzia *gai ukitu* osagaian:
elkartu-1/elkartu-3
- (1479) Noizean behin, lankideekin **elkartzen** zen hizketaldiren bat izateko, eta hirurek otorduak, eta baita ibilaldiren bat edo beste ere, elkarrekin egiten zituzten. (EusCor)
- (1492) Bertan utziko zituela pentsatu zuen, emakume harekin alde egingo zuela, baina ez, Frantziara iristean berriro **elkartu** zitzaien [HAIEI]. (EusCor)
- SOZen eta ABSren arteko alternantzia *gai ukitu* osagaian:
amaitu-2/amaitu-3
- (957) 17:30etan hasi eta 19:00ak jota **amaitu** zuten mintzaldia. (EusCor)

(962) Bestalde, gatazkarekin negoziaketa bidez **amaitzeko** eskatu dio Italiako lehen ministroak Annani. (EusCor)

- ELA_KONPen eta ABSren alternantzia *gai* osagaian:

Nahiko aditz dira alternantzia hau erakusten dutenak

adierazi-1/adierazi-2, ahaztu-3/ahaztu-4, asmatu-1/asmatu-3, baieztatu-1/baieztatu-2, entzun-1/entzun-3, erreparatu-1/erreparatu-2, esan-1/esan-2, eskatu-1/eskatu-2, ikusi-1/ikusi-3, irakurri-1/irakurri-3, izan-2/izan-3, onartu-1/onartu-2, oroitu-3/oroitu-2-4 (aldi berean ERGren eta ABSren alternantzia onartzen du *experimentatzaile* osagaian), ulertu-1/ulertu-2.

Zenbait adibide:

(217) Emakume batek bere maitasuna edo nahia zeinu edo gorputzaren mugimendu bidez **adierazi** bazuen eta... (EusCor)

(218) Corcuera ministroak berak, Barcelona 92ko plangintzen egoera eta bere ustezko akatsak aipatze hutsak, segurtasun olinpikoaren eta Estatuaren arrakasta eraso terrorista posible batzuen aurrean oztopatzen duela **adierazi** du zenbait kasutan. (EusCor)

(847) **Oroitzen** naiz hitzeman zigutela 2. artikulua ez zuela ondorio latzik ekarriko beste hizkuntzei. (EG)

(848) Ziudade hartan gizonak, bere beste behar guziak eginda gero, emaztearen eskaria oroitu zuen eta, bapatean, hara non erreparatzen duen denda aurrekalde batetan ispilu bat, eta ispiluan ilargia. (EusCor)

(1031) "Hitzarmena **da bidea**" NAFARROAN langabezi kopuruak jaitsiera nabarmena izan du aurreko hilean (1.558 langabe gutxiago zenbatu ditu INEMek), eta hori emaitza "positiboa" da Miguel Sanz Foru Erkidegoko presidentearen ustez. (EG)

(1032) Ez zen batere nahastea (hanka-sartze bakarra **izan** zen Udal Agentziako zenbakia ematean partikular batena agertu zela). (EG)

- ELA_KONPen eta ABSren alternantzia *gai* *ukitu* osagaian:

Argitu aditzean markatu dugu hau:

(450) Euskal Herri osorako balio duten gauzak ez ditugu hemen **argituko**. (EusCor)

(453) Frantziar argitarapenean, Cannon-ek argitzen du Bernard izan zela lehena barne-ingurunearen egitekoa azpimarratzen, organismoan egoera egonkorrak ezarri eta mantentzeko. (EusCor)

- ABLren eta DATen arteko alternantzia *abiapuntu* *kokapen* osagaian:

atera-1-5/atera-3-8 (alternantzia kausatibo/inkoatiboaren bi aldaeretan gertatzen da); joan-1/joan-2

(1573) Orduan, Galtzagorri atera zen motxilatik, eta Jontxuren tripa gainera igo eta saltoka hasi zen, kili-kili egiten ... (EusCor)

(1586) Oharkabean, seinale bat bailitzan, ebaki luze bat egin zuen ezkerreko masailean, odola isurian **ateratzen** hasi zitzaion [HARI] zauritik eta tantaka erortzen okotzetik behera, mantxa gorriak iltzatuz azpileko ur gardenean, berehala zabaltzen eta desagertzen zirenak urpeko hodei baten antzera. (EusCor)

(1579) Nhamdi-ri hurbildu eta hura besotik hartuz gelatik **atera** zuen (EusCor)

- (1589) Animalia larrutu eta tripak **atera** ondoren [HARI], ondo garbitu (EusCor)
- (1473) Ez goaz hemendik, eta kito! [GU] (EusCor)
- (1410) Lilak maratila bihurtu zuen, eta atea eskuetatik **joan** zitzaion [HARI]. (EusCor)
- ABL +ALA eta INSen arteko alternantzia *aldaketa* osagaian:
aldata-1-3/aldata-2-4 (alternantzia kausatibo/inkoatiboaren bi aldaeretan gertatzen da)
 - (918) "Orduan bakarrik **alda** naiteke batetik bestera". (EusCor)
 - (930) - Zergatik **aldatzen** dira bizilekuz? (EusCor)
 - ABL +ALA eta ABSren arteko alternantzia *neurria* osagaian:
igo-1-3/igo-2-4, jaitsi-1-3/jaitsi-2-4 (bietan, aldi berean, alternantzia kausatibo/inkoatiboa dago)
 - (791) Anoi ematearekin, eta ONCE lasaitu delako, Txente Garciak 6tik 10era **igo** du aldea. (EG)
 - (818) EBZk puntu erdi **jaitsi** du interes tasa, % 2,5eraino, espero baino gehiago. (EG)
 - ABL +ALA eta ABSren arteko alternantzia *bidea* osagaian:
igo-1/igo-5, jaitsi-1/jaitsi-5, pasatu-1/pasatu-4
 - (793) Abere hauek, gaueko iluntasun eta bakardadearen babesean, mendiko belarretatik herri inguruetako soroetara **jeisteko** joera dute eta hauetara etortzen badira, kalte handiak egiten dituzte, bertan aurkitzen dutena jan eta zapalduz. (EusCor)
 - (824) Abenturazale amorratua zen eta besteak beste mountain bike-ez Laponian ibili zen, Nilo ibaia piraguaz **jeitsi** zuen eta Artikutik Tropikora bidaia egin zuen. (EusCor)
 - *Kausa eta gai ukitu* osagaiak ERGen:
hornitu-2/hornitu-3; bete-3/bete-5
 - (989) Betiereko Aberria dugu hautetsiz **beteko** [GUK]; (EusCor)
(helburuko kokapena; gai ukitua; kausa)
 - (992) Guri patinatzea gustatzen zaigu, baina jolas-orduetan ezin dugu egin, futbolean dabiltzanek jolas-leku guztia **betetzen** dutelako: (EusCor)
(kausa +gai ukitua ; helburuko kokapena)
 - (772) Instalazio tekniko hobez [HAIEK] [HURA] **hornitu** nahi dute, horrela "egunero zazpi ordu egiteko elkarrekin". (EusCor)
(helburuko kokapena; gai ukitua; kausa)
 - (773) Kasu batean eta bestean, eskulturak eta marrazkiak **hornitzen** dituzte bi espresio bide funtsezkoak; (EusCor)
(kausa +gai ukitua ; helburuko kokapena)

VI.4.2.2 Alternantzia motak

Agertu zaizkigun alternantziak ikusi eta gero, berrets dezakegu, alternantzia mota desberdinak daudela, eta batzuk beste batzuk baino orokorragoak direla. Orokorragoak, bi ikuspegietatik:

- batetik, aztertutako aditz askok konpartitzen dutelako.
- bestetik, aditz zehatzaren adieran orokorrean onartzen delako

Bi orokortasun maila hauek betetzen dituztenak ondoko alternantziak dira:

- Alternantzia kausatibo/inkoatiboa
- Objektuaren (*gaiaren*) inespezifikazioa
- Osagai lokatiboen inespezifikazioa

Gainontzekoak aditz gutxiagok onartzen dituzte, eta bestetik, alternantziaren aldaera bat eta bestea ez dira erabiltzen osagarri mota guztiekin berdin. Izatez, alternantzia batzuk horrexegatik sortzen dira: bi aldaeretan parte hartzen duten osagarriak mota semantiko desberdinekoak direlako (fenomeno hau agertu zaigu Levinen alternantziak azaltzerakoan: iturria/substantzia alternantzian). Beste batzuetan, aldaera bat orokorragoa da eta bestea zehatzagoa.

Esaterako, ondoko alternantziak daude osagarrien tasun semantikoen ondorioz Kasua aldatzen dutenen artean:

- Dagoeneko ikusitako Substantzia/iturria alternantzia, non *iturria* bizigabea denean ABLz gauzatzen den, eta biziduna denean DATez (adib. *isuri*).
- ABL eta DATen arteko alternantzia *abiapuntuko kokapena* osagaien, non *abiapuntuko kokapena* bizigabea denean ABLz gauzatzen den, eta biziduna denean DATez (adib. *joan*).
- ABS eta ELA_KONPen arteko alternantzia *gaia* osagaien, non *gaia* enuntziatua denean ELA_KONP ageri den, eta bestelakoa denean ABS (adib. *esan*).

Alternantziaren aldaera bat bestea baino orokorragoa direnen artean ondokoak:

- Alternantzia konatiboan, ABS entitatea INE entitatea baino askozaz anitzagoa da. Ordea, ez da erraza azaltzea INE entitateen ezaugarriak zeintzuk izan behar diren (Adib. *jo*: gizaki batØ / apostoluaØ / putre batØ / ateaØ / ertzaØ... vs ateaN).
- Ildo beretik, zenbait aditzetan, alternantziako bi aldaeretan parte hartzen duten *gai ukituak* normalean ez dira izaera semantiko berekoak. Esaterako, *jarri* aditzak kokapen-

aldaketa balioa duenean, aldaera kausatiboan gai ukitu bizigabeak nahiz bizidunak arruntak dira; bizigabeak apika arruntagoak; aldiz, aldaera inkoatiboan, bizidunak dira arruntenak:

(1630) Dirk gelara sartu eta ohearen ondoan jartzen da. (EusCor)

(1631) Eta atzeko parrilean jarri zinen [ZU] niri gerritik oso estu eultzirik, eta nik ez nuen etxera inoiz ailegatu nahi, ordurako orduak minutu bihurtzen bait zitzaizkidan zurekin nengoenean. (EusCor)

(1632) -Non jarri da argazkilaria, gozotegiaren barruan ala kanpoan? (EusCor)

(1633) Dirudienez, zibilizatua da zure ustez, erabaki unilateralak hartzea, kontratuen interpretazio unilateralez kontratuak amaitu egiten direla erabakitzea, eta ehun lagun kalean jartzea. (EusCor)

(1639) Izan ere, normalean, gutunak eta instantzien erantzunak banatzeko izen zerrenda bat jartzen dute lehiarrean. [HAIEK] (EusCor)

○ ABSren eta INEren arteko alternantzia *jarduera* osagaian, non bi Kasuek *jarduera* mota desberdinak adierazten dituzte. Hots, INE agertzeak mota bateko *jarduerak* inplikatzeko ditu, eta ABS agertzeak beste batekoak. Adibidez: *jokatu*: *pastorala*∅/*partidua*∅ vs. *pilota*N/*golfean*N. Hemen ere, desberdintasun horiek azaltzea ez da erraza.

Beste alternantzia gutxi batzuk, aditzak osagai semantiko bat txertatua/barneratua izateagatik sortzen diren nahasteen ondorio dira:

○ ABSren eta DATen arteko alternantzia *helburu* osagaian (*deitu* aditzean). Gogoratu adibideak:

(1171) Nouvelle vagueko amona **deitu** izan dute [HURA]. (EG)

(1179) Museoaren ondoren eraiki asmo duten prestakuntza zentroa ere nazioartekoa izango litzateke (Diseinu Zentro Internazionala **deitu** diote egitasmoari); (EG)

Batzuetan, alternantzia berak, aditzaren arabera, inplikazio desberdina du:

○ *Iturri* osagaian DATen eta ABLren arteko alternantzia dugunean, ia beti biziduntasunarekin du zerikusia (ikusita dugun bezala: *isuri*, *etorri*). Baina *atera* aditzean (*atera*-4/*atera*-6), badirudi *iturri* osagaia DAT edo ERG izateak bestelako ezaugarriekin duela lotura. Batzuetan *ezustearekin* edo *intenzionalitate ezarekin* zerikusia duela ematen du. Adib.:

(1602) Ia hankaz gora erori nintzen maisuak idatzitakoa denon aurrean irakurtzeko agindu zidanean, oso polita atera zitzaidalako idazlan hura. (EusCor)

(1604) Dena den, hurbilketa estrukturalak, etnometodologiatik (Garfinkel 1967) eratorritakoak hain zuzen ere, antolaketa eta eraikuntza sozialari buruz ondorioak ateratzen ditu, elkarrekintzaren soziolinguistikak bezala. (EusCor)

○ DAT eta ABL arteko alternantzia *abiapuntuko kokapen* osagaien ere biziduntasunarekin dago lotuta gehienetan. Baina badira kasuak entitatea bizigabea izanda ere DAT agertzen dena *abiapuntuko kokapen* osagai gisa; esaterako, *atera* aditzean. Eta hori parte-oso erlazioari zor zaiola dirudi:

(1587) Egarbeek (teilatuari hormatik kanpora **ateratzen** zaion azpiko aldea, horma euratik babesteko) ez dute hormarekiko 1,5 m-ko luzera gaindituko. (EusCor)

Eta beste askotan zaila da jakitea zein den inplikazio hori:

○ Ikusi dugu *ahaztu* eta *oroitu* aditzetan bi alternantzia batera gertatzen direla: batetik *esperimentatzailea* ERG izatetik ABS izatera pasatzen da, eta *gaia* ABS izatetik INS izatera. De Rijk-ek (2003) egiturek antipasibotzat jotzen ditu, hizkuntza ergatiboetan dauden antipasiboen Kasu-aldaketak gertatzen direlako: subjektu ergatiboa subjektu absolutibo izatera pasatzen da eta objektu absolutiboa zehar objektu (euskaraz INS): De Rijk-en adierazpidea erabiliz:

Trans:	IS1 + ERG	IS2 + ABS
	↓	↓
Antipas:	IS1 + ABS	IS2 + ZEHAR-KASUA

Hala izanik, aldaera sintaktiko hutsak direla ematen du; inolako inplikazio semantikorik gabekoak. Autore honek esplizituki esaten du hori: “Zehazkiroxe adierazita, Kasu-aldaketa sistema batez dihardugu, perpausaren barruko sintagmen eginkizun tematikoa — edo nahi baduzu funtzio sintaktikoa— ukitu gabeko kasu-aldaketa, aditzean ere markatu ohi dena” (De Rijk, 2003: 385). Guk hemen aztertu ditugun aditzak kontuan izanda, pentsa genezake gizakien erreakzio psikologikoak adierazten dituzten aditzak mugatzen dituela alternantzia honek (*ahaztu*, *oroitu*); hasteko, ERG entitatea beti da gizakia aditzotan. Ordea, De Rijk-ek jartzen dituen beste zenbait adibide ikusita, ezin esan horrelako aditzetara bakarrik mugatzen denik. Ikus De Rijk-ek jartzen dituen adibideak.:

Erdituko du semea (Mt. 1.21; Uriarte)

Erdituko da seme batez (Mt. 1.21; Dv.)

Ez dugu hitz hori baliatzen (BN Aiherra, Garate, *Erd* 38)

Ez gara hitz horretaz baliatzen

Aziendek orobat hautatzen dute bazka hobeena

Aziendak orobat hautatzen dira bazka hobeenez (Duvoisin *Lab.* 264)

Hauek azaltzeko arrazoi semantiko orokorrago bat beharrezkoa da. De Rijk-ek berak, Benveniste (1966) hizkuntzalariaren esanak onartuz, alternantzia honetan ondokoa gertatzen dela dio: “prozesuaren lekua subjektua da. Eta subjektu hori prozesuaren barrenean bezala kokaturik irudizta dezakegu” (De Rijk, 2003: 391). Nolanahi ere, nahiko

onartua dago gertakari lexikalak direla gaur egun; nahiz eta garai bateko euskarari leku handiago izan.

○ Badira, bestetik, kausalitate/afektazio erlazioa adierazten duten egiturak non *kausala* ez den desfokalizatzen, eta ERG izatetik INS edo SOZ izatera pasatzen den. Ikusi dugun bezala, egitura hauek *kezkatu* eta *haserretu* aditzetan agertu zaizkigu. Argi dago egitura hauek alternantzia kausatibo/inkoatibotik desberdinak direla, baina osagai semantiko berak daudela tartean. Adibideei erreparatuta, ordea, ABS entitatea beti gizakia da. Hala izanik, pentsa daiteke egitura hau aurkezten duten aditzek egoera-aldaketa adierazten dutela, baina gizakiei mugaturiko egoera-aldaketa; hots, egoera psikologikoaren aldaketa. Zilegi ematen du esatea alternantzia honek egoera-aldaketa aditzen artean azpimultzo bat egiten duela. De Rijk ere ildo beretik mintzo da, eta halako egiturak onartzen dituzten aditzek “gogo-egoera” adierazten dutela dio.

○ SOZen eta ABSren alternantzia dagoenean *gai ukitu* osagaian, badirudi *gai ukitua* SOZez gauzatzen denean, ekintza “obligazio/betekizun” moduko zerbait dela. Hau da, ABS agertzen denean, ekintza burutu egiten da, besterik gabe, eta SOZ agertzen denean, betekizun bat zena-edo burutzen da. Adibideak gogoratu:

(957) 17:30etan hasi eta 19:00ak jota **amaitu** zuten mintzaldia. [HAIEK] (EusCor)

(962) Bestalde, gatazkarekin negoziaketa bidez **amaitzeko** eskatu dio Italiako lehen ministroak Annani. (EusCor)

Orobat gertatzen da SOZen eta INEren alternantzia dagoenean *jarduera* osagaian. Adibideak gogoratu:

(760) Zinemagintzan **hasi** zinenean [ZU] Frantziako emakume zuzendari bakanetakoa izango zinen, ala? (EG)

(763) Urrian **hasi** ziren prestaketarekin [HAIEK], eta Eguberriak pasata heldu zion lehen aldiz harriari. (EG)

○ DATen eta ABSren alternantzia dagoenean *gai* osagaian, badirudi DAT agertzen denean, ekintzan nolabaiteko “esfortzua” egiten dela. Adibideak gogoratu:

(1119) Azkenean, emakumea bere guraria eta irrikia **etsi** ezinean jartzen denean, gizonak mundu guztia agurtuko du, eta bakoitzari loreak, ukenduak eta betel hostoak opari egingo dizkio. (EusCor)

(1123) Txosten horiek ikusita ere ezezkoari **etsi** zion. (EG)

Hala ere, esfortzu hori datiboa ez den beste Kasuarekin ere aditzera ematen da. Beraz, Kasu desberdintasunak baino gehiago, aditzaren semantikaren barrukoa dirudi. Kasu bat edo bestea agertzea, hortaz, ez dakigu zergatik den.

○ Azkenik, *gai ukitu* edo *gai* osagaietan ERGen eta ABSren alternantzia dagoenean, erdarako egituren eragina dagoela pentsa daiteke. *Aldatu* aditzean, Alberdik dioenaren ildotik, pentsa daiteke *cambiar* aditza erdaraz *se* klitikorik gabe erabiltzen denez (*ha cambiado de opinion/casa*) euskaraz aditz horren erabilera ez-ergatiboa egiten dugula¹¹³. Adib., existitu-1/existitu-2; aldatu-1/aldatu-4. Adibideak gogoratu:

(651) Gaztea zarenean aniztasuna ez da **existitzen**, ildo zehatz bati jarraitu behar izaten diozu. (EusCor)

(654) Baina estruktura diametralei dagokienean, desberdintasun horrek ez du beti **existitzen** eta, edonola ere, elkarrekikotasunez asebetarik dagoen haien naturatik ez da eratoritzen. (EusCor)

(918) "Orduan bakarrik **alda** naiteke batetik bestera". [NI] (EusCor)

(937) - [NIK] **Aldatzen** nuen bakoitzean txartel bat bidaltzen nion, badaezpada, egunen batean hots egin nahi bazidan non nengoen jakin zezan. (EusCor)

Existituren kasuan, , hala ere, zenbait hizkeratan oso berezkoa da bata edo bestea, eta horrek erdaratiko maileguren eragina den zalantza sortzen du.

Gainontzeko guztiak, aldaketa sintagmatiko hutsak direla dirudi. Edo bederen, guk ez dugu beroien arrazoieta gehiegi sakondu, eta bere inplikazio sintaktikoak islatzen saiatu gara bakarrik.

VI.2.2.3 Kasuistika sintaktiko berria alternantziatan

Levinen alternantziak aztertu ditugunean, hainbat balentzia-aldaketa mota ikusi ditugu. Batzuetan osagai sintaktiko bat desagertu egiten da, eta baita berak duen osagai semantiko ere. Beste batzuetan, ordea, balentzia-aldaketa gertatzen da aldaera batean aparteko PS dena, bestean IS baten barruko izenlaguna delako. Horrelakoetan, orduan, osagai semantikoa IS bakar horren barruan geratzen da.

¹¹³ Alberdik (Alberdi, 2003) dioenez, albo-erdaretan jokaera ez-ergatiboa erakusten duten aditzak *se* klitikorik gabeak eta aditz egiledunak dira gehien bat (*viajar, esquiar, descansar, bailar, correr...*), eta horren ondorioz, euskaraz ere horrelakoak ez-ergatibo gisa erabiltzera jo dela dirudi, tradizioko erabilera ez-akusatiboari bizkarra emanez (*saltatu da*→*saltatu du*, *deskantsatu da* → *deskantsatu du*, *dantzatu da*→ *dantzatu du*, *olgotu da* → *olgotu du*...). Badira ere albo-erdaretan egiletasuna ez baizik eta barne-kausaltate ere *se* klitikorik gabe eta ez-ergatibo gisa adierazten duten aditzak (*funcionar, cotizar, circular...*). Ondorioz, hauek ere euskaraz ez-ergatibo gisa bereganatzeko joera dago. Aldiz, Alberdiren esanetan, jokaera ez-ergatiboa pentsaezina da albo-erdaretan klitikoa berezkoa duten aditzak mailegatzean (*amotinarse, atreverse, quejarse...*), edota aditzaren adieretako bat klitikoduna denean (*amotinarse, fiarse, portarse, descuidarse, divertirse...*).

Guk aztertu ditugun zenbait aditzetan ere —hala nola, *hornitu* eta *beten*—halako zerbait gertatzen da, baina honakoan ez dago IS barruko inolako izenlagunik: osagai sintaktiko berak bi osagai semantiko adierazten ditu. Zehazki, *bete* eta *hornitu* aditzetan gertatzen dena, *kausa* eta *gai ukitu* osagaiak entitate berak, eta, honenbestez, osagai sintaktiko bakarrak (ERGeK), adierazten ditu. Hots, aditz hauetan normalean *gai ukitu* osagaia INSez gauzatzen da, eta *kausa* ERGez:

(990) Dinamakan mahats-pasez **betetzen** dituzte zerriak; [HAIEK] (EusCor)

(991) Asearen ziurtasunak atsedenez **betetzen** zuen haien bihotza eta ez zuten ezer berrirako jakinminik.

Baina batzuetan bi osagaiak bat datoz. Gogoratu adibideak:

(992) Guri patinatzea gustatzen zaigu, baina jolas-orduetan ezin dugu egin, futbolean dabiltzanek jolas-leku guztia **betetzen** dutelako: (EusCor)

(kausa +gai ukitua : *futbolean dabiltzanek*)

(993) Eta bertoko euskalari ikasi ezak agerian utzitako hutsunea atzerrikoek **bete** zuten oraingo epe honetan ere hein handi batean. (EusCor)

(kausa +gai ukitua : *atzerrikoek*)

(773) Kasu batean eta bestean, eskulturak eta marrazkiak **hornitzen** dituzte bi espresibide funtsezkoak; (EusCor)

(kausa +gai ukitua ; *eskulturak eta marrazkiak*)

Hori adierazteko, Kasu beraren azpian bi osagai semantiko definitu ditugu (ERG√_kausa+gai ukitua).

Fenomeno hau *conflation* gisa ezagutzen da. Cienfuentes-ek (1999) *amalgama* izenez itzuli du ingelesezko termino hau. *Conflation* fenomeno, Vázquez et al.-ek (2000) diotenez, mota desberdinekoa da:

- Batetik *inkorporazio* gisa ezagutzen dena dago (dagoeneko ikusi duguna osagai *barneratu* edo *txertatu* gisa), non osagai semantikoren bat —aditzaren oinarriko semantikari dagokiona eta ez dagokiona ere— aditzean bertan txertatuta dagoen. Ingelesean eta gaztelanian erabiltzen diren adibide tipikoak *run* eta *correr* dira. Aditz hauek, *kokapen-aldaketa* adierazteaz gain, hori egiten den *modua* ere lexikoan kodetuta dute.
- Bestetik, *erreferentziakidetasuna* edo *koindexazioa*, non osagai sintaktiko batek osagai semantiko bat baino gehiago adierazten duen.

Hain zuzen, azken hau da hemen azaltzen ari garena.

Beste batzuetan, ordea, alderantzizkoa gertatzen da: osagai semantiko bakarra dago tartean, baina aldaera batean bi osagai sintaktikoz adierazten da eta bestean bakarraz. Hori gertatzen da, *igo*, *jaitsi* eta *aldatu* aditzetan. *Igo* eta *jaitsi* aditzetan ABLk eta ALAk batera *gai ukituaren bidea* edota *neurria* adierazten dute; beste aldaeran, berriz, *bide* edo *neurri* hori ABSz adierazten da. Adibideak gogoratu:

(803) Generoetan, pisu handiena narratibak du, nahiz eta 1996tik 1997ra %72,5etik %61,8ra **jaitsi** den narratibagintza. (EG)

ABL√_abiapuntua; ALA√_helburua = neurria

(815) Azkenean, Dow Jones indizea % 0,15 **jaitsi** zen eta Nasdaq merkatu elektronikoa, berriz, % 1,20 igo. (EG)

ABS√_neurria = abiapuntua+helburua

(823) (...) Pito eta Poli lehenengoetakoak izaten ziren ikastetxe barruko harmailak **jaitsi** eta atariko zolua gurutzatzen, batik-bat eguerdietan non, arin ibili ezean, ate nagusiaren aurrean bildutako eskolier multzoarekin oztopatzen baitziren halabeharrez. (EusCor)

ABS√_bidea = abiapuntua+helburua

Aldatun, aldaera batean ABLren eta ALAren bidez *gai ukituaren aldaketa* (kokapen nahiz egoerazkoa) adierazten da, eta beste aldaera batean *aldaketa* INSez zehazten da:

(927) - Zergatik **aldatzen** dira bizilekuz? [HAIEK] (EusCor)

INS√_lekua (abiapuntua+helburua)

(918)"Orduan bakarrik **alda** naiteke batetik bestera". [NI] (EusCor)

ABL√_abiapuntua; ALA√_helburua = lekua

Dioguna bat dator, berriz ere, Vázquez et al.-ekin (2000):

Otro aspecto relevante respecto a la proyección en la sintaxis de los componentes de significado que proponemos es que permiten denotar objetos complejos. Esta complejidad se refleja en las siguientes oraciones:

- (11) a. Ana ha bajado las escaleras corriendo
b. Ana ha bajado corriendo del tercer piso hasta la planta baja
- (12) a. La simpatía de Pilar ha cautivado al público
b. Pilar ha cautivado al público con su simpatía

El componente que denota el espacio recorrido por una entidad puede descomponerse en términos de sus límites internos, como el origen y el final de la trayectoria (11b). Por otro lado, en (12b), se expresa en constituyentes separados (sujeto y SP) el elemento causante del evento. Como se observa en las oraciones alternantes el mismo componente semántico se puede expresar con un solo constituyente: *las escaleras* (11a) y *la simpatía de Pilar* en (12a).

Vázquez et al., 2000: 51

Gure ustez, Vázquez et al.-en (2000) (12)ko adibideak ez dira oso garbiak. Horrelako egituretan (alegia, Jabe-subjektua (L 2.13.4) eta Kausa abstraktuzko subjektua (L 3.4) alternantzietan ikusitakoetan), sintagma bakarra dago, baina sintagma hori konplexua da; berez, osagai semantikoak beren aparteko ordain sintaktikoa dutela esan daiteke. Aipagai ditugun beste kasu hauetan, ordea, ez.

Nolanahi ere, ikusitakoen ondorioz, alternantzien kasuistikan beste kasu hauek ere aurrikusi behar dira: batetik, bi osagai semantiko osagai sintaktiko bakarrean gauzatzea, eta bestetik osagai semantiko bat bi osagai sintaktikoen bidez gauzatzea.

VI.3.3 Adiera orokorrak edo predikatu mota nagusiak eta horiei loturiko osagai semantikoak

Aditz guztiak aztertu ondoren, eta agertu zaizkigun alternantzia guztiak kontuan hartuta, 13 adiera orokor edo predikatu mota nagusi definitu ditugu, horretarako 21 osagai semantiko baliatuz. Osagai semantiko hauek modu logiko eta bereizle batean konbinatuz lortzen dira predikatu mota nagusi hauek. Beraz, azken batean, predikatu nagusi hauek osagai semantikoez osatutako patroiak dira; gertakizun mota desberdinen errepresentazioak¹¹⁴.

Hauetara iristeko, lanean zehar argi geratu den bezala, iturri desberdinak erabili ditugu, nagusiki Vázquez et al.-en (2000) lana, Levinena (1993) eta Gràcia et al.-ena (2000). Hala ere, guk geuk corpusean ikusi dugunarekin, beste batzuk erantsi ditugu. Izan ere, lan hauetan zehazten dena ez da guk aurkitutako kasuistika guztiari aplikagarri. Zeregin horretan, Kasuen aldiberekotasun-murriztapenak kontuan izan ditugu. Hau da, Kasu batek beste baten presentzia eragozten duenentz aztertu dugu, gure ustez horrek alternantzia dena eta ez dena bereizten laguntzen baitu. Izan ere, aldiberekotasun-arazoak daudenean, bi gauza gerta daitezke:

¹¹⁴ Rätsep-ek (1973), Baker & Ruppenhofer-ek (2002), eta Gómez-ek (2003) ere antzeko zerbait egiten dute. Lehenengoak, aditzak adierazten dituen gertakizunak definitzen ditu *deep situations* izena emanez. Bigarrenak, *conceptual structures* (frames) direlakoak definitzen ditu hitz bakoitzarentzat, eta hitz multzoak *conceptual structure* horien arabera egiten ditu. Hirugarrenak, azkenik, *general predicates* direlakoak esleitzen dizkie aditzei.

- Kasu desberdinek osagai semantiko bera adieraztea.
- Kasu desberdinek osagai semantiko desberdina adieraztea.

Vázquez et al.-ek (2000) egiten duten bezalaxe, osagai semantiko hauek ez ditugu hartu gertakizun mota hauen semantikaren deskonposaketako pieza minimoak bezala. Gure helburua izan da osagai semantiko hauek sintaxiarekin ahalik eta modu argienean lotzeko baliagarri izatea. Ikus autore hauek osagai semantikoei buruz diotena:

Consideramos que los componentes de significado son primitivos en el sentido de que constituyen uno de los elementos sobre los que se basa nuestro modelo teórico, pero en ningún caso son tratados como piezas mínimas de la descomposición semántica de los predicados. [...]

En nuestra propuesta, el grado de descomposición no es tan elevado¹¹⁵, ya que nuestro objetivo es describir la semántica de los verbos a un nivel más general.

Vázquez et al., 2000: 44-45

“Describir la semántica de los verbos a un nivel más general” esaldia oso argia ez bada ere, bere teoriaren beharrei erantzuneko osagaiak definitzea izan da euren helburua. Eta guk ere jarrera bera hartu dugu. Eta gure helburu nagusia izan da osagai semantiko bakoitzari azaleko sintaxiko unitate bat egokitu ahal izatea.

Hona 21 osagai semantikoak eta 13 adiera orokorrak (gogoratu, azpikategorizatutzat jotako Kasuetan bakarrik definitu ditugula osagai semantikoak):

OSAGAI SEMANTIKOAK

- | | | | |
|--------------|------------------------|----------------------|------------|
| • gaia | • helburuko kokapena | • esperimantatzailea | • jarduera |
| • gai ukitua | • helburuko egoera | • kausa | • neurria |
| • gai sortua | • abiapuntuko kokapena | • iturria | • modua |
| • egoera | • bidea | • edukitzailea | |
| • kokapena | • abiapuntua | • edukia | |
| • denbora | • helburua | • ezaugarria | |

PREDIKATU MOTAK

- Entitate baten egoera-aldaketa
- Entitate baten kokapen-aldaketa
- Entitate baten aldaketa
- Entitate baten sortzea
- Entitate baten jarduera
- Entitate baten elkarraldatzea

Entitate bat edukitzea
Entitate bati ezaugarria esleitzea
Entitate baten izatea, existitzea
Entitate baten kokapena
Entitate baten egoera
Entitate baten deskribapena
Ustezko adierazpena

13 adiera orokor zerrendatu baditugu ere, bakoitzean ez dugu osagai semantikoen konbinazio bakarra planteatu. Izan ere, aditzen arabera eskakizunak aldatu egiten dira, beraien barne-osaketagatik eta azalean eskatzen duten argumentu kopuruarengatik. Hala, adiera bakoitza hainbat patroï semantiko z gauza daiteke, baina delako adiera izateko gutxieneko osagai semantiko batzuk izan behar ditu. Hauexek dira aditz guztietatik atera diren patroï semantikoak (alboan aditz bat jarri dugu adibide gisa):

Egoera-aldaketa:

kausa+gai ukitua (*hil*)
kausa+gai ukitua+gai ukitua (*banandu*)
gai ukitua (*irakin*)
kausa+gai ukitua+helburuko (*egokitu*)

Kokapen-aldaketa:

kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena (*ekarri*)
gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena (*joan*)
kausa+gai ukitua+helburuko kokapena (*jarri*)
gai ukitua+helburuko kokapena (*bisitatu*)
kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena (*hartu*)

Aldaketa:

Kausa+gai ukitua+abiapuntua/bidea+helburua (*aldatu*)

Entitate baten sortzea:

iturria+gai sortua (*isuri*)
iturria+gai sortua+kokapena (*eragin*)

Entitate baten jarduera:

esperimentatzailea+gaia (*abestu*)
esperimentatzailea+esperimentatzailea (*besarkatu*)
esperimentatzailea+jarduera (*aritu*)
esperimentatzailea+modua (*jokatu*)
esperimentatzailea+jarduera+denbora (*eman*)
esperimentatzailea+jarduera+helburua (*deitu*)
esperimentatzailea+gaia+gaia (*aldatu*)

¹¹⁵ Jackendoffez (1990) ari dira hemen.

Entitate baten elkarraldatzea:

abiapuntua+gaia+helburua (*eman*)

Entitate bati ezaugarria esleitzea:

abiapuntua+ezaugarria+helburua (*esan*)

Entitate bat edukitzea:

edukitzailea+edukia (*izan*)

edukitzailea+edukia+kokapena (*ekarri*)

Entitate baten izatea, existitzea:

gaia (*existitu*)

Entitate baten kokapena:

gaia+kokapena (*egon*)

Entitate baten egoera:

gaia+egoera (*egon*)

Entitate baten deskribapena:

gaia+ezaugarria (*izan*)

Ustezko adierazpena:

gaia (*eman*)

Adiera eta patroï semantiko batzuk beste batzuk baino arruntagoak dira aditz gehiagok erakusten dituztelako. Hain zuzen, griseskaz markatu ditugunak dira.

Esan dugun bezala, adiera bakoitza hainbat patroï semantikoz gauza badaiteke ere, delako adiera izateko gutxieneko osagai semantiko batzuk izan behar dituzte. Hala, patroï semantiko bat baino gehiago duten adieretan hauxe da nahitaezkoa:

- Egoera-aldaketetan *gai ukitua* izatea da nahitaezkoa:

Adib.: *hautsi, hazi, hil, isildu, kezkatu, haserretu, egokitu, aldatu, pasatu, igo, jaitsi...*

(586) - Triste al hago [HURA] **hil** zelako?- galdetzen dio Juttak. (EusCor)

- Kokapen-aldaketetan, *gai ukitua* eta *osagai lokatiboren bat*:

Adib.: *kokatu, zintzilikatu, sartu, iritsi, ekarri, eraman, etorri, joan, jarri...*

(1632) - **Non jarri** da argazkilaria, gozotegiaren barruan ala kanpoan? (EusCor)

- Sortzezkoetan, *gai sortua* eta *iturria*¹¹⁶:

Adib.: *egin, etorri, ekarri, atera, jarri...*

(1599) Horregatik hilekoa duen emakumeari maionesak ez zaizkio **ateratzen**. (EusCor)

¹¹⁶ Hemen salbuespena da *loratu* aditza; sortzekoa izanik ez duelako *iturria* behar.

- Edukitzeetan, *edukitzailea* eta *edukia*:

Adib.: *izan, ekarri, etorri, jaso, eraman, hartu...*

(1033) Problema gutxiago izan zuen zentsura frankistak. (EusCor)

(1375) Bigarren liburu honetan badatoz, gainera, aurrekoaren zuzenketak. (EusCor)

- Eta jardueretan, azkenik, *esperimentatzailea* eta, normalean, beste osagaien bat:

Adib: *erabili, abestu, afaldu, ehizatu, grabatu, jan, ikusi, asmatu, oroitu, ahaztu...*

(177) Eskolan **bazkaltzen** du [HARK] eta gehien gustatzen zaion janaria saltxitxak dira. (EusCor)

Hala izanik, *entitate baten aldaketa*, entitate baten *egoera- edo kokapen-aldaketa* ere bada (*gai ukitu* bat dagoelako). Gertatzen dena da *aldaketatzat* jo dugun predikatu motan aditzak ez duela berez egoera edo kokapenaren informazioa kodetuta; informazio hori sintagmek hartzen duten izenaren baitan dago. Adib:

(917) Karga negatibo, edo elektroiak, gorputz batetik bestera aldatzen direnean korrante elektrikoa sortzen dela esaten dugu. (EusCor)

gorputza: leku fisikoa -> kokapen aldaketa

(923) Izan ere, autonomi edo probintzia-mailara aldatu nahi baditugu, zatikaturiko inkestak ez dira lehen bezain adierazgarriak. (EusCor)

probintzia maila: ezaugarria -> egoera-aldaketa

Aditzek batzuetan adiera bakarra adierazten dute, eta horri loturiko alternantziak izan ditzakete; beste batzuek ez dute alternantziarik. Ondorioz, aditz batek adiera bakarra duenean, mota semantiko horretakotzat jotzen da (adib. *jan: jarduerazko* aditza). Ordea, aditz batzuek adiera bat baino gehiago adieraz dezakete, eta horiei loturiko alternantziak ere izan ditzakete. Horrelakoetan sortzen dira guztiak elkarren artean bereizteko zailtasunak (eta beharrak, aldi berean); eta aditz batzuk mota semantiko batekotzat jotzen badira ere (adib. *eman: elkarraldatzezko* aditza; *ekarri: kokapen-aldaketazkoa*), bestelako predikatu motetan ere parte hartzen dute (adib. *eman: jarduerazko* predikatu motan; *ekarri: sortzezko* eta *edutezko* predikatu motan). Horregatik bidezkoago iruditzen zaigu aditz motez hitz egin beharrean *predikatu motez* hitz egitea.

VI.4.4 Izan ditugun arazoak eta hartutako erabakiak

Aurreratu dugun bezala, aditz batzuek predikatu mota bat baino gehiago adierazteko gaitasuna dute. Hori dela eta, zailtasunak daude hainbat alderditatik begiratuta.

- Adiera baten alternantziako aldaera edo beste adiera bati loturiko egitura.

Aditz batzuetan zalantzarria suertatzen da adiera baten alternantziako aldaera baten aurrean gauden edo beste adiera bati loturiko egitura batenean. Hori gertatzen da kokapen-aldaketazkotzat jo ohi diren aditzekin. Zehazki *helburuko kokapena* ALA edo INEz adierazten duten aditzekin: *etorri*, *ekarri*, *isuri*, *jarri* eta *aterarekin*. Ondoko adibideei erreparatuta, ikusten dugu aditz hauetan azpikategorizatutzat jo ditugun Kasuak egiazki ezinezkoak direla; hots, ez dela osagai lokatiboaren elipsia edo inespezifikazioa gertatzen (adibide batzuk aipatu ditugu dagoeneko alternantziak zerrendatzerakoan):

- (490) Zigorak gogortasuna dakar. (EusCor)
- (1339) Hitz hori Matxin (Martin) hitzetik dator, hau da, olagizonen zaindariaren izenetik. (EusCor)
- (1343) Baina une horretan bertan inspirazioa etorri zaio [HARI] eta paper bat atereaz, notak idazten hasi da. (EusCor)
- (1007) Bertatik argi izpi indartsu batzuk isurtzen dira eta elkartzen diren puntuan izar bat osatzen dute. (EusCor)
- (1008) Pintura batzuek etengabe isurtzen dituzte sustantzia kutsakorak. (EusCor)
- (1659) Zu, ba, Alaska oinez zeharkatzen ari bagina izango genukeen hotzarekin pentsatzean oilo-larrua jartzen zait eta ... [NIRI] (EusCor)
- (1593) Ganbelu baten hezur bat eclipta prastata landarearen uretan sartzen da, gero erre, eta hortik ateratzen den margogaia ganbelu hezurrez egindako kutxa batean gordetzen da. (EusCor)
- (1599) Horregatik hilekoa duen emakumeari maionesak ez zaizkio ateratzen. (EusCor)
- (1606) Piratak hogeita bost xentimo ateratzen ditu egunero. (EusCor)

Hori gertatzen denean, *kokapen-aldaketa* balioa galdu eta *sortze-prozesuari* ematen zaio garrantzia, gure ustez. Horregatik, horrelakoetan osagai semantikoak sortze-prozesuan definitu ditugunetara aldatzen dira. *Isuri* aditzean, gainera, ikusi dugun bezala, sortze-adiera da gehien agertzen dena corpusean.

Esan behar da, sortzezko balio honetan, *etorri* eta *jarri* aditzetan INE edo ALA ager daitekeela berez, baina oso kasu mugatuetan: *iturria* gizakia izanik, honen parte bat adieraziz:

- (1349) - David ..., gogoratzen nola etorri zitzaizkigun hitzak ezpainera: [GURI] (EusCor)

Hala ere, horrelakoetan, parte adierazten duen ALAk edo INEk aditzarekin batera Hitz Anitzeko Unitate Lexikala sortzeko joera du. Adib:

- (1351) Seguraski ideia pila bat etorriko zaizkizu burura, baina guztiak nahasian, sailkatu gabe. (EusCor)

(1361) Julian kontea, noski, aita maitekorra izakita, ez bide zitzaion **gogora etorri** ere, egiazko erruduna, bere alaba izan zitekeanik.

Sortze balio honetan, *gai sortuak* ez dira edonolakoak. ABS entitatea normalean abstraktua da. Eta abstraktua ez denean, zentzu abstraktuan ulertu behar da berez; hau da, erreferente zehatzik ez duen entitate bat bezala.

Entitate abstraktu hauek askotan gorputz-prozesuak edo giza pentsamenduaren ekoizpenak dira, nahi gabe edo naturaz sortuak; hauetan, jakina, *iturriak* gizakia behar du izan, eta normalean biziduntasun horrek DAT izatea eskatzen du. Hala ere, *isuri* eta *ateran* ikusi dugun bezala, *iturria* biziduna denean DAT ez da beti beharrezkoa (ikus goiko (1008) eta (1606) adibideak); aldiz, DAT ageri denean, gehienetan biziduna da (ikus goiko (1343), (1659) eta (1599) adibideak).

Entitateak abstraktuak izanik, pentsa zitekeen kokapen-aldaketa “abstraktu” baten aurrean gaudela. Izatez, gure azterketan halakoxetzat jo ditugu sintagma lokatiboen gunean entitate abstraktuak daudenean, edota ABS entitatea abstraktua denean. Adib.:

(417) Gainera, horrek ez ninduke eramango nik pretenditzen nuen ironia eta fartsa sasi-burleskoaren bidetik. (EG)

(412) Gogoratuko denez, duela 16 hilabete CDNk, HBk, IUk eta Eak Rekarterekin elkarrizketatzeko proposamena eraman zuten Parlamentura, baina PSNk eta UPNk atzera bota zuten. (EG)

Ordea, leku-aldatzea abstraktutzat jotzeko arrazoa da Kasu lokatiboak onar daitezkeela; ondorioz, sortze-prozesuak ez du lekurik. Alternantzien azterketan esan duguna errepikatuz, *gai sortuak* ez ditugu *gai ukitutzat* hartu, Vázquez et al.-ek (2000) dioten bezala, ezin baita entitate baten ukitutasunaz (afektazioaz) hitz egin, ekintzaren aurretik ez bada existitzen.

Nolanahi ere, entitate abstraktuen izaera sakonkiago aztertu beharreko gaia dela deritzogu. Askotan, abstraktutasun horretan oinarriturik, gehiegizko orokortzeak egiten direla iruditzen zaigu, aditzen semantika mugimendu eta leku-aldatze ikuspegitik aztertu izan delako.

Balio semantiko honi erantzunez, orduan, atera-2/atera-4/atera-6/atera-7, ekarri-2, etorri-2/etorri-5, isuri-1/isuri-3 eta jarri-3 landu ditugu.

Beste zenbaitetan gauza bera gertatzen da (hots, azpikategorizatutzat jo dugun Kasu lokatiboa egiazki ezinezkoa izatea), baina, gainera, kokapen-aldaketazko balioan garrantzi berezirik ez duen Kasu inesiboak nagusitasuna hartzen du, ABS entitatearen kokapenari —subjektuaren edo objektuaren kokapenari— erreferentzia zehatza eginez.

Hori gertatzen da ondoko aditzetan: *etorri, ekarri, eraman, hartu, jaso*. Ikus ditzagun zenbait adibide:

- (1375) Bigarren liburu honetan badatoz, gainera, aurrekoaren zuzenketak. (EusCor)
- (497) Lehen estrofan bezala hirugarrenean bi errealitateen aipamen iradokiorra dakar, sinbolizatzaile bikoitza alegia, lehen bi bertso lerroetan. (EusCor)
- (419) EGLU IV liburuan esaten den bezala, ezkerrean izenlaguna eramateak asko errazten du izenak juntatzea, eta ez kasu-sintagmak. (EusCor)
- (444) 305. orrialdean, hala ere, nonbaitetik ateratako panfleto batek dioena jasotzen dute, itzuli gabe, ulertezinak direlako, eta hala dira. (EusCor)
- (297) Udalek bere gain hartuko dute zabortegiak egokitzeko gastuak. (EG)

Adibide hauetan guztietan, ABL edo ALA ezinezkoak dira

Fenomeno honek beste balio semantiko bat sorrarazten duela uste dugu; entitate baten *edukitzea* bezala izendatu dugun adiera, hain zuzen. Hala, aditza iragangaitza denean, ABSk *edukia* deitu duguna adierazten du, eta INEk *edukitzailea* deitu duguna. Iragankorretan, berriz, ERG da *edukitzailea* eta ABS *edukia*; INEk kokapen zehatzago bat adierazten du. Bestalde, INE eta ERG entitateen artean parte-oso harremana izatea oso arrunta da, edo, bederen, jabetza-jabe harremana ((497): *bertsoa-> bertsoaren hirugarren estrofa*).

Hala ere, batzuetan ERG eta INE entitateen izaerak nahasi egiten dira, ERG komunztadurarik gabe gelditzen delako:

- (498) Data hori dakar behintzat Gure Herria-n 1975ean (324-327. or.). (EusCor)

Adibide honetan *Gure Herria* da berez *edukitzailea* (eta ez edukitzailearen parte bat); hala ere, INE agertzen da. Horrelakoetan, badirudi, *kokatua egote* zentzuari erreparatu nahi zaiola gehiago; eta hori normalean leku fisiko eta INErekin adierazten denez, nahigabe INE ezartzen da, subjektua izatea arraroa balitz bezala. Argi dago, ordea, izaera horretako subjektuak posible direla, eta hain zuzen, horrek bereizten du kokapen-aldaketazko balioan duen *kaus*a osagai semantikotik, *edukia gai* ukitutik bereizten den bezalaxe.

Aditz iragankorretan, ordea, INE ez da beti agertzen perpausean; alegia, ez da zatirik espezifikatzen. Horrelakoetan, gure ustez *aldean / bere baitan / bere gain* moduko zerbait ulertu behar da. Hots, ERG entitatearen baitan, ABS entitateak beti kokaleku bat zehaztea beharko balu bezala:

- (420) Errekek [BERE BAITAN] zeramaten ur gehiena industrian eta etxeetan erabiltzeko hartu zen, arroak lehortuz, eta gelditzen zirenak zikinduz joan ziren, gure zakar eta zikinkerri guztiak batuz. (EusCor)
- (421) Futbol zale ia guztiak daramate bufanda [ALDEAN]. (EusCor)

(300) Gaur egun, Nazio Curriculumak ikastetxe publikoetako 16 urte bitarteko ikasle guztien hezkuntza hartzen du. (EusCor)

(440) Dokumentuek ez dute gizon-emakume txiro landerren eguneroko ariketa apal "interesgaberik" jaso, eta bein edo bein jaso ba'dituzte ez ditu edestiak aintzakotzat artu, orain arteko edestiak beintzat. (EusCor)

Egia da edukierazko zentzu hau errazago ulertzen dela ABS entitatea abstraktua denean (halaxe izaten da gehienetan), eta ERG entitatea ez-biziduna denean. ERG entitatea biziduna denean, desplazamendutik gertuago sumatzen da aditzaren balioa.

Hala ere, edukierazko balio hau bizidunekin ere zilegi dela bermatzen duen adibide garbirik badugu, zehazki Pasaiako hizkeran (Agirretxe et al., 1998: 197):

(503) Suk ez al dakisu arrandeya nun **tzekarren?**

Hortik sortu dira etorri-3, hartu-2, jaso-3, eraman-2 eta ekarri-3.

Ezin dugu esan, hortaz, *etorri, ekarri, eraman, hartu, jaso, isuri, jarri* edota *atera* aditzak desplazamenduzkoak bakarrik direnik.

- Alternantzia baten bi aldaera, edo egitura berean bi osagai.

Kokapen-aldaketazkotzat jotzen diren aditzetan berriz ere (*ekarri, etorri, jaitsi, igo, sartu, jarri, isuri, atera, hartu eta jaso*), DAT sar daiteke jokoan. DAT hau esaldian agertzen denean, LOKek bezalaxe (ABL, ALA edo INE, aditzaren arabera), ABS entitatearen *helburuko kokapena* edo *abiapuntuko kokapena* adierazten duela ematen du, eta beti izaki bizidun bat da. Hots, *helburu/abiapuntu bizidun* bat da, *helburu/abiapuntu fisikoaren* parean.

Hori, ordea, ez da eragozpena DAT hau perpaus berean LOKekin batera agertu ahal izateko (*liburua lagunari etxera eraman*). Horregatik, nahiz eta hasiera batean bi egiturak —DATEz osatua bata eta LOKEz osatua bestea— alternantziatzat jotzeko zalantza izan (*helburuko kokapena* edo *abiapuntuko kokapena* osagai semantikoan), ez dugu hala egin.

Izatez, uste dugu DAT eta LOK elkarrekin agertzen direnean, nolabaiteko erlazioa sortzen dela euren artean: LOKek entitate desplazatuaren *helburuko kokapena* adierazten gain, DAT entitatearen kokapena ere adierazten du gehienetan (*liburua lagunari etxera*: liburua etxera; laguna etxean). Gainera, jabetza-erlazioak ere gerta daitezke:

- LOK entitatearen eta DAT entitatearen artean;

amari etxera eraman: amaren etxea

-edo ABS eta DAT entitateen artean, baldin eta bestelakorik adierazten duen izenlagun posesiborik ez bada agertzen (X; Yren X);

maleta amari eraman: amaren maleta

-edo, ERG eta ABS entitateen artean:

nik maleta eraman: nire maleta

DAT eta LOK batera agertu zaizkigun adibide guztietan, DAT eta LOK entitateen artean berriazko jabetza-harremana dago, parte-oso entitateak daudelako jokoan. Adibideak:

(787) Azinbo belaunikatu zen eta Pigmeo ttikia igo zitzaion bizkarrera [HARI]. (EG)

(1014) Entzutean, uhin epelak bularraren kontra jo eta bihotz barrenera [HAIEK] [HARI] **isurtzen** zitzaizkiola sentitzen zuen; (EusCor)

Hala ere, zenbaitetan, bi helburu motak (fisikoa eta biziduna) entitate berean adierazten dira; eta horrelakoetan badirudi DATek leku gutxi duela. *Eraman* aditzarekin atera zaizkigun *parlamentu(ra)*, *gizarte(ra)*, *legebiltzarr(era)* genituzke horrelakoak, non *helburuko kokapena*, eta kokapen horretan dagoen jendea adierazi nahi den aldi berean. Adib.:

(414) Inolako zalantzarik gabe, Rafa Diez LABeko idazkari nagusiak ezetza eman zion 35 orduen alde PSE-EEK Legebiltzarrera eraman zuen proposamen mugatu eta moderatuari. (EG)

Osagai lokatiboen inespezifikazioaren alternantzia ikusi dugunean, esan dugu batzuetan osagai lokatiboen inespezifikazioa gertatzen dela baina beste batzuetan elipsia. Gure ustez, orduan, DAT bakarrik agertzen den kasuetan, helburu fisikoa ulertutzat eman behar da edo inespezifikatuta dagoela suposatu. Ondorioz, kokapen-aldaketazkoetan *bi helburu* onartzen ditugu, bata fisikoa eta bestea biziduna. Hala ere, azpikategorizatu bezala LOK bakarrik jarri dugu; DAT, berriz, Kasu onartu gisa, berez jabetzazko harremanen berri ematen duela iruditzen zaigulako; eta esana dugun bezala, jabetza-harremanak gehiago ikusten ditugu argumentuen arteko erlazioari lotuta aditzarekin baino.

- Bi adiera bi egituratan edo egitura bakarrean

Azkondu aditzak berez egoera-aldaketa adierazten du. Baina horretaz gainera, adieraz dezake aldaketa horren ondoren entitate ukituek duten kokapen berria ALA dagoenean esaldian:

(698) Beste ahizpa militar batekin Doneztebera ezkondu zena, eta Barbara bera. (EusCor)

Alegia, esaldi honen bidez ‘beste ahizpa militar batekin ezkondu’ eta ‘Doneztebera joan’ zela adierazten da (bizitzera, suposatzen da). Pentsa genezake ahalmen hau *ezkondu* bakarrik erakusten duela, gizartean egon diren ohiturak direla-eta (eta beraz, arrazoi pragmatikoak direla-eta) ezkontzeak beste leku batera bizitzera joatea suposatzen zuelako gehienetan. Baina guk aztergai ez ditugun beste aditz batzuek ere horretarako aukera badute; esaterako, *bildu* aditzak:

Elizara **bildu** (*Euskal Hiztegi*ko adibidea)

Hala ere, esan behar da, aukera hau aldaera inkoatiboan bakarrik dela onargarria; aldaera kausatiboan ezinezkoa dirudi.

Kokapen-aldaketazko balio hau syntaxian jasotzen duela ematen du, eta ez da batereazina egoera-aldaketaren osagaiekin. Hortaz, horrelako kasu baten aurrean aurkitu garenean, ALA ez dugu *Kasu azpikategorizatu* gisa jarri. Besterik gabe, *Kasu onartu* gisa jarri dugu, eta horren bidez balio semantiko hau syntaxian jasotzen duela adierazi nahi izan dugu. Hau da, ez dizkiogu aparteko bi *bss* landu.

- Aditzaren Kasua edo argumentuarena

Batzuetan, Kasu baten presentzia delako aditzak hartzen duen ABS entitatearen baitan dago. Hori gertatzen denean, delako aditz horretan oro har ontzat eman ez dugun Kasuren bat zilegi bilakatzen da, edota alderantziz, zilegitzat jotako Kasu bat ezinezko bihurtzen da. Adib.:

egin: adlatiboa eta ablatiboa:

(14) ... eta Artikotik Tropikora bidaiaria **egin** zuen. (EG)

Eginek, berez, ez du ALArik edo ABLrik azpikategorizatzen. (14) adibidean ageri direnak *bidaiari* dagozkio. Gainera, kasu honetan, *egini* onartu diogun datiboa (*helburu* balioa duena) ez da zilegi.

grabatu: adlatiboa:

(215) (Diskotik) zintara **grabatu** ditut lp zaharrak (adibide asmatua)

Grabatuk, normalean, ez du ALArik onartzen; (215) adibidean, objektua *lp zaharrak* izateak Kasu hauen agerpenarekin zerikusia duela dirudi

Horrelako kasuetan, Kasu jakin horiek ez ditugu onartutzat jo, aditzaren balio orokorrari baino aditzak hartzen duen osagai baten eskakizunak direla uste baitugu. Gainera, hori gertatzen denean, ez da izaten aditzari oro har markatu diogun balio semantikoa. (14) eta

(215) adibideetan, aditzak kokapen-aldaketa adiera hartzen du (fisikoa edo abstraktua); aditzak, ordea, oro har beste mota batekoak dira: *egin, sortzezkoa da; grabatu, jarduerazkoa*.

Beste aditz batzuetan, berriz, Kasu baten presentzia ez dago hitz jakin baten baitan, baizik eta gune mota jakin baten baitan.

Esaterako, zenbait aditzek —guk *jardueratzat* hartu ditugun askok (besteak beste, *laztandu, ukitu, abestu, adierazi, baieztatu, eskatu, onartu, erantzun, entzun, irakurri, ikusi, eman, argitu...*)— ABL onartzen dute, jarduera burutzen duen gizakiaren kokapena adierazteko (ohar bedi kokapen-aldaketa balioan azpikategorizatutzat jo dugun *abiapuntuko kokapenetik* desberdina dela). Adib.:

(205) Bertsolariak Udaletxeko balkoitik **abestu** zituen bertsoak

(353) Irratia gelatik **entzuten** dut

(355) Irratitik **entzun** nion

(357) Manifestariak mezua udaletxeko balkoitik **irakurri** du

(358) Partidua etxetik **ikusi** genuen

Horrelakoetan (hots, Kasu baten presentzia gune mota baten arabera denean), delako Kasua *onartuen* artean jarri dugu.

- Elkarraldatzea edo kokapen-aldaketa

Zenbait autorek *trayectoria* edo *transferencia* kontzeptu orokorraren baitan entitateen desplazamendu fisikoak nahiz abstraktuak sartzan dituzte, eta horren ondorioz, entitateen *desplazamendua* (‘desplazamiento’), *jabetzaren elkarraldatzea* (‘cambio de posesión’) eta *komunikazio-elkarraldatzea* (‘intercambios de comunicación’) adiera nagusi berean sartzan dituzte; esaterako, Vázquez et al.-ek (2000) (*trayectoria* terminoaz), eta Shank-ek (1975) (*transferencia* terminoaz).

Nahiz eta kontzeptu orokor bat proposatu, honen barruan azpisailak proposatzen dituzte, besteak beste azpimultzo hauek erakusten dituzten ezaugarri sintaktikoengatik. Gure ustez, edozein motatako elkarraldatzea (hau da, jabetzazkoa nahiz komunikaziozkoa) adierazten duten aditzak eta desplazamendua adierazten duten aditz gehienak elkarren artean nahiko desberdinak dira.

Hasteko, elkarraldatze kotzat jotzen direnetan, ez da ALA ageri ohi, DAT baizik. Bestetik, ez dute alternantzia kausatiboa/inkoatiboa erakusten, eta alternantzia hau aztertu dugunean ikusi dugunez, desplazamenduzko aditzek bai onartzen dute alternantzia hau.

Azkenik, gerta daiteke elkarraldatzen den gai hori ERG entitateak sortua izatea; eta gure ustez, entitate desplazatu batek ez du horretarako gaitasunik, *gai ukitu* den aldetik.

Horren ondorioz, guk *kokapen-aldaketa elkarraldatzetik* bereizi dugu, aditzek onartzen dituzten Kasu-konbinazioengatik eta alternantziatan nahiz *gaia* osagai erakusten dituzten desberdintasunengatik. Hala, *kokapen-aldaketan gai ukitua* eta osagai lokatibo bat jo dugu beharrezkotzat. *Elkarraldatze*koetan, berriz, *abiapuntu* bat, *helburu* bat eta *gai* bat proposatu ditugu. Alegia, elkarraldatzezko balio honetan ERG ez dugu *kausatzat* hartu; beti kontsideratu dugu *abiapuntua* edo *helburua* (aditzaren arabera).

Esan dugun bezala, kokapen-aldaketa adierazten duten aditzek DAT onar dezakete, eta askotan berau bakarrik ageri da *helburuko kokapen* gisa. Hau gertatzen denean, kokapen-aldaketazko balioa eta elkarraldatzezkoa nahastu egiten dira. Baina berez, gure ikuspegitik kokapen-aldaketazkoak izango dira. Gerta daiteke aditz berak kokapen-aldaketa eta elkarraldatzea adierazi ahal izatea (adib. *pasatu, jaso*); horrelakoetan, orduan, bi adiera bereizi ditugu bi *bssren* bidez.

- Kasu azpikategorizatu bat eta Kasu onartu bat, edo bi Kasu azpikategorizatu eta inespezifikazioa/elipsia

Zalantza hau DATekin gertatu zaigu batez ere. *Jarduerazkotzat* hartu ditugun aditz askok DAT onartzen dute (*abestu, irakurri, lortu, hautatu...*); beste batzuk ez (*jan, bazkaldu, jokatu...*). Horrek zalantza eragin digu DAT hau azpikategorizatutzat hartu behar den ala ez erabakitzean. Kasu hauetan corpusari begiratu diogu, eta erabaki dugu DATik gabeko erabilera nahiko maiztasunez agertzen bada, DAT ez jotzea azpikategorizatutzat. Hala, aditza berez *jarduerazkoa* dela, eta, ondoren, DAT onartu eta gero, *elkarraldatzezkoa* bihurtzen dela kontsideratu dugu. Hori adierazteko, datiboa Kasu onartu gisa jarri dugu.

Era berean, *elkarraldatzezkotzat* jo ditugun aditzetan perpausean DATik ageri ez denean, elipsia edo inespezifikazioa gertatzen dela suposatu dugu. Eta horretarako ere corpusari begiratu diogu.

Esan dugun bezala, Vázquez et al.-ek (2000) *elkarraldatzea* eta *kokapen-aldaketa* balio semantiko beraren azpian lantzen dituzte. Hala ere, osagai lokatiboen inespezifikazioa/elipsia ondo aztertzen badute ere, *elkarraldatzeetako helburuari* buruz ondokoa baino ez dute esaten:

Cabe decir, que con este tipo de verbos [*vender, regalar, decir...*] la omisión del constituyente [destino] puede interpretarse como un caso de elipsis: *Ha dicho que vendrá (a los que estábamos presentes)*.

Vázquez et al., 2000:196

Gure ustez, zalantzakoa da horrelakoetan benetan elipsiaren edo inespezifikazioaren aurrean gauden.

- Inespezifikazio orokorra edo inespezifikazio jakina

Esaterako, *aritu* eta *asmatu* aditzetan, *jarduera* osagaiaren inespezifikazioa markatu dugu. Hala ere, guztietan inespezifikatzen den *jarduera* jakina ez ote den zalantza dago; izan ere, esaldietan agertzen diren Kasuak, inespezifikatzen den osagai horri lotuta ulertzen dira, eta ondorioz *jarduera* jakina dela ematen du. Adib.:

(515) Ordudanik, Mitxelin, Kaiku, eta Zierbenako taldeetan **aritu** da entrenatzaile-arraunlari gisa. (EusCor)

(516) Txapelketei dagokienez, lehen postuetan **aritzeko** gai direnak joango dira soilik. (EusCor)

(517) Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Laguntzarako ordezkariak, oraingoan, laguntza humanitarioan **aritzen** direnen iritzia jaso baino ez du egin, bai Kosovoko inguruetan lanean ari diren nazioarteko elkarteena eta baita hemen bertako gobernu kanpoko erakundeena. (EG)

(521) Lasai eta konfiantzaz **aritu** zen Arteakoa, presaka eta ideiarik gabe Errandonea. (EG)

(522) Arrasatearrok gasaz disfrutatzeko genuen aukeraz eta honek eskaintzen zizkigun abantailez **aritu** ginen orduan. (EusCor)

(378) Saketik hasi behar da horretarako, eta ea **asmatzen** dudan sakearekin. (EG)

(379) Azken hamar urteotan Bayernek zazpi entrenatzaile izan ditu, eta Ottmar Hitzfeldekin **asmatu** egin du Beckenbauerrek. (EG)

(380) Erabakietan **asmatuko** dugu edo huts egingen dugu, baina inork ezin izanen du esan ez garenik saiatu. (EG)

(381) Lehenengo zatian Realekoek ez zuten **asmatzen** paseetan, eta ondorioz gora ez zen baloi garbirik iritsi. (EG)

Kasu hauetan guztietan, *jarduera* bat suposatu behar da: *Mitxelin, Kaiku, eta Zierbenako taldeetan [arraun egiten]; lehen postuetan [jokatzen]; laguntza humanitarioan [lan egiten]; hainbat arlotan [lan egiten]; lasai eta konfiantzaz [hitz egiten]; abantailez [hitz egiten]*. Hori dela eta, esaldian ageri diren INE batzuek *jarduera* balioa dutela ematen du (*postuetan, laguntza humanitarioan, hainbat arlotan*), baina berez, azpiko mendeko esaldiari dagozkion osagaiak dira.

Asmatu aditzeko adibideetan orobat: *sakearekin / Ottmar Hitzfeldekin / erabakietan / paseetan asmatu* diogunean, berez *sakearekin / Ottmar Hitzfeldekin / erabakietan / paseetan [ondo moldatzen] asmatu* edo horrelako zerbait dugula dirudi. Hots, gauza zehatz bat —eta ez orokorra—.

Mugituren kasuan ere zaila da jakitea osagai lokatiboen inespezifikazio orokorra edo jakina den. Izan ere, aditz honek desplazamendua adieraz dezake, baina ez nahitaez; desplazamendurik gabeko mugimendua ere posible baita. Hori horrela izanik, hasiera batean pentsa daiteke osagai lokatiboen presentziak baldintzatzen duela desplazamendua izatea ala ez, eta horiek agertzen ez direnean *bere baitan* moduko izenordain bat ulertutzat eman behar dela. Hori, ordea, ez da beti horrela, askotan munduaren ezagutza pragmatikoaren bidez baitakigu entitate bat desplazatzen den ala ez. Ikus ditzagun adibideetan agertu zaizkigun LOK entitate batzuk: *lurra* “bere baitan” mugitzen da, eta baita eguzkiaren inguruan (desplazatuz azken batean); *toraxa* “gora eta behera”; eta abar. *Lurraren* kasuan, hortaz, bere baitan edo eguzkiaren inguruan mugitzen den zehazteko, testuinguruan esplizitu ageri behar dira “bere baitan” ala “eguzkiaren inguruan”. Mugimendu jakinik ez duten entitateekin, berriz, —gizakiak adibidez— desplazamendua adierazteko ABL edo/eta ALA agertzea beharrezkoa izango da. Hala, mugimendu jakin bat duten entitateek beste mugimendu mota bat egiten dutenean, orduan esaldian esplizituki agertu behar da arrunta ez den mugimendu hori.

Beraz, esan daiteke mugimendua edo desplazamendua adieraztea, neurri handi batean LOK entitatearen baitan eta guk entitate horri buruz dugun ezagutza pragmatikoaren baitan dagoela. Hala ere, guk orokorrean *mugitu* kokapen-aldaketazko aditz gisa hartu dugu eta ALA eta ABL jarri ditugu Kasu azpikategorizatuen artean¹¹⁷.

Bete aditzean, *gai ukitua* agertzen ez denean, beti jakina dela dirudi, baina batzuetan zalantzak daude:

(994) Zakua **betetakoan**, besteak beretzat gorde. (EusCor)

(995) Lehen ez zuten sarerik izaten eta kontu handiz ibili behar izaten zen botilak **betetzerakoan** eta baita erabiltzerakoan ere. (EusCor)

(996) Horrela denbora, baliabide eta agirisorta estatistiko gutxiago erabiltzeko bidea eskaini nahi da, osasun-zentroek galdesortak **betetzerakoan** lan gutxiago izan dezaten. (EusCor)

(997) Bertsoa **betetzeko** modua da beste hori. (EusCor)

Galdesortak: erantzunez; *bertsoa*: hitzez-edo. Baina *zakua* eta *botilak*: testuinguruan agertuko zen zerbaitez?; edo, besterik gabe, zerbaitez?

Hustu aditzean ere orobat gertatzen da. Baina honetan badirudi beti dela jakina agertzen ez denean, eta hain zuzen hori da erabilerarik arruntena. Izatez, corpusean ez zaigu agertu

¹¹⁷Mugimenduaren eta desplazamenduaren arteko bereizketaz xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo bedi ondoko autoreen lanetara: Derville-Bastuji (1982), Vanderloise (1987), Jackendoff (1990), Cienfuestes (1999) eta Lamiroy (1991).

INSez gauzaturiko gai ukiturik, eta gure ustez horretarako arrazoi nagusia da beti dela jakina osagai hori. Corpuseko adibide batzuk baliatuz, *etxeak* “jendez” husten dira normalean; *parkea* ere “jendez” husten da normalean; *gurpila* “airez”, eta abar. Badirudi, INSen beharra dagoela, normalean esperoko genukeen entitatea ez denean (esaterako *etxea altzariz*; *parkea landarez*; *gurpilaren* kasuan, berriz, ezinezkoa litzateke beste ezerez). Hortaz, beharbada, *hustu* aditzean ere INS azpikategorizatu bezala markatu beharko genuke (ez baitugu ala egin), beti beharrezkoa dela suposatuz (dela agerian, dela inplizituki).

Bestelako Kasuak azpikategorizatzen dituzten aditzekin ere zalantza berak daude: *konparatu*, *ezkondu*, *nahastu*, *banandu*, *elkartu*, *mintzatu*, *jolastu*, *jokatu*... Aditzotan, komunztadurarik egiten ez duten Kasu azpikategorizatuak perpausean ageri ez direnean, zein motatako desagertzeen aurrean gauden sakonki aztertu beharko litzateke.

Honek erakusten digu inespezifikazioaren eta elipsiaren gaia oso konplexua dela, eta zaila dela jakitea osagai azpikategorizatu bat esaldian agertzen ez denean, informazio hori testuan agertzen den eta hortik berreskura daitekeen, ala ezagutza pragmatikoaren bidez eskuratzen dugun. Hori horrela izanik, nahiago izan dugu aditzak gertakizun bat adierazteko beharrezko dituen Kasuak azpikategorizatutzat ematea, desagertzeak elipsiak, inespezifikazio orokorrak edo inespezifikazio jakinak diren zehaztu gabe (salbu osagai horiek ABS edo ERGez gauzatzen direnean).

- Osagarrien tasun semantikoak edo hautapen-murriztapenak

Bssak lantzerakoan, aditzak hartzen dituen osagarrien tasun semantikoak zehaztu ditugu ahal izan dugun guztietan. Izan ere, gure erabakiaren arabera, alternantzia kausatibo/inkoatiboko *kausak*, esaterako, ez dio nahitaez entitate bizigabe bati erreferentzia egiten; edota *esperimentatzailea* ez da beti gizakia, nahiz eta askotan horrela izan. Orduan, aditz banakoak lantzean, murriztapena argia denean, jarri egin dugu.

Hala ere, aditz bakoitzari hautapen-murriztapenak markatzea ez da erraza, askotan gehiegi murrizteko arriskua dagoelako; jakina, erabilera metaforiko eta hedatuetan horixe da gertatzen dena. Guk erabilera hauek bazterrean uzten saiatu gara, eta hautapen-murriztapenak erabilera “arrunta”ren arabera markatu ditugu. Baina erabaki batzuk hartu beharrean aurkitu gara.

Aditz batzuek, *jarduera* adierazten dutenean, beti izaki bizidunak hartzen dituzte *esperimentatzaile* osagaian. Esaterako, *jokatu*, *bazkaldu*, *jan*, *ikusi*, *ulertu*, *agertu*, *hautatu*... Gertatzen dena da, horietako batzuetan, gizaki multzoak ordezkatzeko dituzten entitateak agertzen zaizkigula (erakundeak, alderdi politikoak, taldeak...). Adib.:

(904) Susak bi narrazio liburu **agertuko** ditu: Edorta Jimenezen.... (EusCor)

(53) Udaberrian gaude, eguzkiaren izpiak behar ditugu eta komunikabideek planeta honetako tokirik beroenak **hautatzen** dituzte. (EusCor)

(149) Erakundeek zein rol **jokatu** dute Historiaren ulermen zatitu horretan? (EG)

Izaki bizidunak eta horrelako entitateak bakarrik onartzen dituztenean, [+biz] edo batzuetan [+giz] jarri diogu *esperimentatzaile* osagaiari. Horrek esan nahi du, aipatu ditugun entitateei aukera hori nonbait definitu beharko litzaiekeela. Berriz, bestelako entitateak ere posible direnean, ez dugu ezer jarri.

Orobat *abiapuntu* eta *helburu* osagaietara dagokienez. Adibidez, *dedikatu* aditzak [+giz] du *abiapuntuan*, baina *eman* aditzak ez:

(390) Baina hala eta guztiz ere badago Euskal Herrian halako ezaugarri diferentzial sail bat, eta hauek [ezaugarri diferentzialek] gure argazkiari, oraindik oso gaztea delako, ez baldin badiote ere perfil propio bat **eman**, ez dago inongo dudarik **emango** diotela denborarekin. (EusCor)

Kausa osagai semantikoari dagokionez ere, aditz batek beti izaki bizidunak edo gizakiak bakarrik onartzen baditu, [+biz] edo [+giz] gisa markatu dugu (adib. *isuriri*); gainontzekoan ez dugu ezer jarri.

Bestalde, zenbait aditzek hautapen-murriztapenak ezarri egiten dituztela dirudi. Hau da, nahiz eta osagai semantiko baten azpian orotariko entitateak agertu, aditz jakin batzuekin horien izaera aditzak berak zehazten du. Ikus ditzagun adibide batzuk esandakoa ulertzeko. Esaterako, *jo* aditzarekin *bozina*, *txirrina* edo *gitarra* modukoak ageri zaizkigu *jarduera* balio semantikoko *gaia* osagaian. Jakin badakigu horrelakoetan entitate horien bidez sortzen den *doinua* dela berez adierazi nahi dena; alegia, entitate [-biz] eta [-konkr] bat; *gitarra*, ordea, entitate bizigabe konkretu bat da berez. Edota *landu* aditzean, *Mozart*, *Bethoveen* gisakoak ere agertzen zaizkigu; baina hauetan ere jakin badakigu, pertsona hauen lanak-edo direla berez lantzen direnak; alegia, entitate [-biz] eta [-konkr]ak; *Mozart* eta *Bethoveen*, ordea, gizakiak dira. Edota *etorri* aditzaren *sortzezko* balioan, nahiz eta *iturri* osagaiaren azpian entitate bizidunak agertu (adib. *tximino*) modu abstraktuan ulertu behar direla badakigu.

Horrelako kasuen aurrean aurkitu garenean, aditzak ezartzen duen hautapen-murriztapena markatu dugu.

Azkenik, erabilera hedatuak edo metaforikoak kontuan hartuko ez genituela esan badugu ere, aditz batzuetan gertatu zaigu corpusean balio metaforikoa baino ez zaigula agertu. Adib., *loratu* aditzean:

(508) taupadak neurritsuagoak ziren eta, aleak lur oparo hezetuan eta sakon goldatuan bezala, pentsamendu sortak bizkor eta aderez hazten ziren bihotz barruan, gozo eta eder **loratzen** ziren hitzak, soinuen indarrak ernaldurik. (EusCor)

Hauetan, orduan, ez ditugu definitu balio ez-metaforikoan izango lituzkeen hautapen-murriztapenak.

Hala ere, aditzez aditz gehiago sakondu dugu entitateen tasun semantikoetan. Hau da, entitate bat [\pm biz] edo [\pm konkr] dela esateaz gain, horien izaera semantiko zehatzagoa ere azaldu dugu (adib. *gai* abstraktuak: sentipenak..., *gai* konkretuak: gorputzari lotutako substantziak; likidoa, solidoa; topea...; *egoera*: esperientziak, sentipenak...)

VI.4.5 Zenbait kontu aipagarri

VI.4.5.1 Kasu batzuen arteko dependentzia

Kokapen- edo egoera-aldaketa adieraz dezaketen zenbait aditzetan, *aldatu* eta *pasatun* esaterako, badirudi Kasu azpikategorizatu guztiek ez dutela askatasun bera esaldian gauzatzeko. Aditz zehatz hauetan ABLk *iturburuko kokapena/egoera* adierazten duenean, *helburuko kokapenak/egoerak* beti agertu behar duela dirudi. Adib.:

(1509) Bata, lehen esan bezala, gaztelaniadunen ghetotik gure gizarte katalanera **pasatuko** direla persona batzuk, gazteak bereziki; (EusCor)

*Bata, lehen esan bezala, gaztelaniadunen ghetotik [~~gure gizarte katalanera~~] **pasatuko** direla persona batzuk, gazteak bereziki.

(917) Karga negatibo, edo elektroiak, gorputz batetik bestera **aldatzen** direnean korrante elektrikoa sortzen dela esaten dugu. (EusCor)

*Karga negatibo, edo elektroiak, gorputz batetik [~~bestera~~] **aldatzen** direnean korrante elektrikoa sortzen dela esaten dugu. (EusCor)

Ordea, ALAk ez du arazorik bakarrik agertzeko. Adib.:

(1513) Erran diot juristak errandakoa, eta berak oso argi utzi nahi izan dit ni 3. gradura **pasatzeko** fax-a heltzeko denbora materialik ez dela izan.

(924) Amona 1941ean Rigara erbesteratu zutenean, etxea kendu ziguten eta Goppingen-go etxe juduetara **aldatzera** behartu gintuzten. (EusCor)

Boons-ek (1987) egina du ikerketarik Kasuen arteko dependentzien inguruan. *Abiapuntua* eta *helburua* adierazten duten osagaien portaera asimetricoaz jabeturik, autore honek dio askotan abiapuntua adierazi ahal izateko beharrezkoa dela helburua ere adieraztea, baina ez alderantziz. Boonsek fenomeno honi “concepto de origen dependiente” deritzo. Guk, gure azterketan ez dugu horrelakorik markatu, baina etorkizunean aztertzeke fenomeno da.

VI.4.5.2 Ondoz ondoko ekintzak adierazteko ahalmena

Ikusi dugun bezala, egoera- edo kokapen-aldaketa adierazten duten aditzetan, entitate ukituaren hasierako egoera/kokapena eta ondorengoa predikatu berean adierazten dira, horixe izanik, gainera, beraien ezaugarria. Badira, ordea, edo bata edo bestea adierazi beharra dutenak; hots, bi gauzak predikatu berean adierazi ezin dituztenak.

Esaterako, *elkartu* eta *banandu* aditzetan, banantzearen/elkartzearen ekintza eta banandu/elkartu ostean entitateak duen egoera berria ezin dira aldi berean adierazi. Adib.:

(981) Oinarriak dira, besteak beste, Kosovo Serbiatik **banantzeko** saioari uko egitea eta Jugoslaviaren (Serbia eta Montenegro) batasuna azpimarratzea, ... (EusCor)

(983) Almeriako euskal presoek 22 egun daramatzate gose greban, modulo ezberdinetan **banandu** dituztelako. (EusCor)

(1481) Bi espermatozoide bi obulurekin **elkartu** eta bi arrautza sortzen dira. (EusCor)

(1493) 1991ko biztanleen zentsuaren kopuruaren arabera, Udalen ordena ezarri da eta 6 talde ezberdinetan **elkartu** dira, udal bakoitza talde horietako batean sartu delarik. (EusCor)

Egoera berria adierazteko INE da beharrezkoa, baina osagai honek ezin du aldi berean agertu ABLrekin (*bananduren* kasuan) edo SOZekin (*elkarturen* kasuan): **Kosovo Serbiatik banandu talde batean*; **Bi espermatozoide bi obulurekin elkartu bi osagaietan*.

Ondorioz, bi ekintza horiek egitura sintaktiko desberdinarekin adierazten dira. Eta guk hori bi aparteko *bss* gisa adierazi behar izan dugu. Ordea, nahiz eta bi aldaeretan osagai semantikoak eta Kasuak desberdinak izan (1- ABS√_gai ukitua, SOZ/ABL√_gai ukitua. 2- ABS√_gai ukitua, INE√_helburuko egoera), benetan adiera aldatzen den ez dago argi.

Aldiz, *ezkondu* aditzean, ikusi dugun bezala, entitate batzuen egoera-aldaketa adierazten da, baina horretaz gainera, aldaketa horren ondoren entitate ukituek duten kokapen berria adieraz daiteke ALA dagoenean esaldian:

(698) Beste ahizpa militar batekin Doneztebera **ezkondu** zena, eta Barbara bera. (EusCor)

Alegia, esaldi honen bidez ‘beste ahizpa militar batekin ezkondu’ eta ‘Doneztebera joan’ zela adierazten da.

VI.4.6 Aztertutako Kasuek izan ditzaketen osagai semantikoak

Aditz bakoitzerako Kasu azpikategorizatuak definitzeaz gain, Kasu onartuak ere aztertu ditugu (osagai semantiko bat lotu ez badiegu ere), haiek perpaus mailan duten papera agertuz.

Ergatiboa eta **absolutiboa** beti dira Kasu azpikategorizatuak, eta lanean zehar ikusi dugu zein osagai semantikori lotuta agertu diren. Bai bata, bai bestea, aditzaren arabera eta subjektua edo objektua den arabera, *esperimetatzaile*, *iturri*, *gai ukitu* eta *gaia* izan daitezke. Ergatiboa, horietaz gain, *edukitzaile* eta *kausa* izan daiteke. Absolutiboa, berriz, *eduki*, *gai sortu*, *denbora*, *neurria*, *bidea*, *ezaugarria*, *jarduera* eta *helburuko kokapena* ere izan daiteke.

Datiboa ez dugu beti Kasu azpikategorizatutzat jo, eta berau kontuan hartzeak gure lana zaildu duela esan beharra dago, bere balioak eta komunikazio-ekintzan parte hartzen duten entitateen arteko harremana desberdintzen zail delako batzuetan. Esan genezake datiboa beti izan daitekeela onargarri (oso behartuta bada ere) ekintza baten parte-hartzaileen arteko harreman berezi bat —lagunartekoa, familiarartekoa, lanekoa— adierazteko; hots, balio etikotzat jo duguna adierazteko.

Beste batzuetan, berriz, esana dugun bezala, datiboak esaldiko elementuren batekiko jabetzako harremana adierazten du, dela berariazkoa dela besterengarria. Horixe gertatzen da, gure ustez, oro har egoera-aldaketa adierazten duten aditzen kasuan. Kokapen-aldaketa adierazten duten aditzetan ere orobat gertatzen da; gure ustez, aditzotan aditzaren semantikaren baitan den *helburuko kokapena* edo *abiapuntuko kokapena* adlatiboak, inesiboak edo ablatiboak adierazten du. Datiboak, berriz, bigarren *helburuko kokapena* (biziduna) adierazten du, jabetza-harremanen bat azpimarratuz normalean. Horrelakoetan, ordea, ez dugu azpikategorizatutzat jo.

Goiko aditz motetatik kanpo, badirudi, elementuren baten *elkarraldatzea* eta *ezaugarri-esleitzea* adierazten denean datiboa beharrezkoa dela; baita *iturria*, *abiapuntuko kokapena*, *gaia*, *gai ukitua* eta *experimentatzailea* adierazten dituenen. Ondorioz, horietan Kasu azpikategorizatutzat jo dugu.

Nolanahi ere, datiboaz asko dago aztertzeke. Izatez, aditzarekin komunztadura egiten duen Kasurik konplexuena da, komunztadura agertu arren, ez dirudielako aditzaren semantikan beti parte hartzen duenik.

Gainontzeko Kasuei dagokionez, azterketa honetan ikusi dugu badirela zenbait Kasu aditz guztietan, edota ia guztietan, balio semantiko bera izan dezaketena, eta, hortaz, aditz ia

guztietan Kasu onartutzat jo ditugunak. **Inesiboa**, **instrumentala** eta **soziatiboa** ditugu Kasu horiek.

- **Inesiboak** espazioari eta moduari erreferentzia egiteko gaitasuna du
- **Instrumentalak** eta **soziatiboak** moduari.

Hala ere, espazioari eta moduari erreferentzia egiterakoan, bi aukera daude: batetik, ekintza egiten den kokapenari edo moduari oro har erreferentzia egitea. Bestetik, aditzaren osagarri bati zehazki erreferentzia egitea.

Ekintzari dagokionez, ez diote aditzaren berezko semantikari erreferentzia egiten; besterik gabe, ekintzak egiteko/gertatzeko beharrezkoak diren koordinatu espazialen (baita denborazkoen —hemen aztertu ez badugu ere—) eta modalen berri ematen dute.

Entitateei zehazki egiten dienean erreferentzia, aditzarekiko lotura izan beharrean, osagai azpikategorizatuarekiko lotura dugu, eta normalean honen presentzian bakarrik ager daitezke.

Modua, xeheagoki aztertuta, *tresna* (normalean subjektua gizakia denean: *mailuz*, *mailuarekin*), bitartekoa (hau ere oro har subjektua gizakia denean: *kotxez*, *autobusez*) konpainia (*amarekin*, *lagunekin*, *patatekin*) eta *kausa* eitekoa (*kolpearekin*, *kolpe batez*) izan daiteke. Jakina, modu desberdin hauek sintagmak gunean hartzen duen izenaren arabera definitzen dira.

Azpimarratu nahi dugu, bestalde, ez dugula aztertu moduzko balio hauen berri emateko zein Kasu, inesiboa, soziatiboa edo instrumentala, den ohikoagoa edo zuzenagoa. Gauza argi bakarra da, entitate baten konpainia adierazteko, soziatiboa dela erabiltzen dena; eta inesiboak batez ere espazioari egiten diola erreferentzia.

Hala ere, aditz guztiek oro har onar baditzakete ere, aditz batzuen *bssetan* ez ditugu onartu; batzuetan bat ere ez, eta beste batzuetan batzuk bakarrik (adib., *izan-2/izan-3*, *egon-2*, *jokatu-5*):

(1030) Egun seinalatua da igandekoa, Aberri Eguna baita, eta polita izango da ikurrina ateratzea ". (EG)

(1032) Ez zen batere nahastea (hanka-sartze bakarra **izan** zen Udal Agentziako zenbakia ematean partikular batena agertu zela). (EG)

(557) Hala ere, jarrera dibergentea eta kontzientzia desberdina izateko eskubidea badagoela uste dut, hau da, zoro [NORBAIT] egoteko eskubidea. (EusCor)

(1066) Eta egilearekin zintzo jokatu [HAIEK] dutenak txalotu bezala (EusCor)

Bestalde, gehienetan Kasu onartu gisa landu baditugu ere, aditz batzuetan Kasu azpikategorizatuak dira, aditz hauen semantikak halaxe eskatzen duelako (adib. *izan-1*, *egon-1*, *flotatu-0*, *gertatu-1*, *jokatu-6*):

(1099) Leopoldo, zu idazlea zara, baina zure familian idazle ugari izan dira, horrek zuregan eraginik izan du?. (EusCor)

(535) Ohean zegoen amona aurreko egunean Juttarekin telebista ikusten eta platera jaurtikitzen ari izana zen. (EusCor)

Bada bestalde, Kasu bat goiko Kasuak bezain orokorra ez izan arren, Kasu onartu gisa askotan jarri duguna: **ablatiboa**.

Ablatiboak, azpikategorizatua ez denean, entitate baten *kokapen estatikoa* adierazten du; hau da, ez dio ekintzari ez aditzaren semantikari erreferentzia egiten, baizik eta aditzaren osagarri bati. Hori horrela izanik, normalean entitate horrekin batera agertu behar da perpausean. Entitate hori, gainera, izaki biziduna izaten da. Adib.:

(1295) PSOEtik berdin **mintzatu** zen Rafael Estrella diputatua. (EG)

(353) Irratia gelatik entzuten dut (adibide asmatua)

Hala ere, honekin ere salbuespenak badira. Izan ere, aditz batzuetan, hala nola, *deitu* eta *zintzilikatun*, kokapen estatiko hau da burutzen den ekintzan nabarmendu nahi dena, besteak beste. Adib.:

(1166) Hoteletik deitu digutenean [HAIEK] [GURI] berehala joan naiz hara eta gela egoera penagarrian ikusi dut. (EusCor)

(626) Esaldi famatuko margarita horiek loreak direla uste du jende askok, baina garai batean emakumeek lepotik zintzilikatzen zuten perla-klase bati deitzen zitzaion margarita. (EusCor)

Balio horretaz gain, agertu zaizkigu definitzen zail diren beste batzuk:

Esaterako, *jan* eta *edan* aditzetan. Adib.:

(213) Imanolek irlandarren umore horretatik ere **edan** du dagoeneko. (EusCor)

(214) Bera bezalakoak izan ez gaitezen debekatu digu frutu horretatik jatea. (EusCor)

Edota, egoera-aldaketa adierazten duten zenbait aditzen kasuan, aldaketa hori zein puntutan gertatzen den adierazteko (*erditik/albotik... hautsi*); hau da, ABS entitateari lotutako xehetasun bat emateko. Horrelakoetan, Kasu onartu gisa landu ditugu.

Gainontzean, Kasu hauek bestelako balioak dituztenean, ia beti azpikategorizatuak dira, eta askotan alternantzia baten aldaeran parte hartzen dute:

Instrumentalak *kausaa*, *gaia*, *aldaketa* (egoera/kokapena) eta *denbora* adieraz dezake:

(629) Han ziren beste bi euskal presoak De Juanaren egoeraz kezkatu ziren, burua handitzen ari baitzitzaion, ez baitzuen ikusten eta ubeldurak nabarmenak baitziren. (EG)

(1466) Ilustratzaileez beti **ahaztu** egiten gara. (EG)

(930) - Zergatik **aldatzen** dira bizilekuz? (EusCor)

(366) Gerra urte hartako uztailean altxatu zen eta hiru urtez iraun zuen. (EusCor)

Inesiboak: *helburuko kokapena, edukitzailea eta jarduera* adieraz ditzake:

(1375) Bigarren liburu honetan badatoz, gainera, aurrekoaren zuzenketak. (EusCor)

(865) Lilak eskua **sartu** zuen poltsan. (EusCor)

(465) "Parrandan ikasi ere gurekin egingo dek". (EusCor)

Soziatiboak *jarduera, gai ukitua eta kausa* adieraz ditzake:

763)Urriari **hasi** ziren prestaketarekin, eta Eguberriak pasata heldu zion lehen aldiz harriari. (EG)

(1479) Noizean behin, lankideekin elkartzen zen hizketaldiren bat izateko, eta hirurek otorduak, eta baita ibilaldiren bat edo beste ere, elkarrekin egiten zituzten. (EusCor)

(638) Zaplastada bat emango banizu, **haserretu** egingo zinateke nirekin. (EusCor)

Ablatiboak *abiapuntua* edo *abiapuntuko kokapena* adieraz ditzake:

(436) Herriko oihua herritik jasotzen du [HARK] zuzen zuzenean eta herriari itzultzen dio berriz. (EusCor)

(1304) Texasetik etorri da astebete pasa lagunaren etxera, baina jadanik ez dabil lagunekin, samoarrarekin baizik. (EusCor)

Eta azkenik, aipatu ez ditugun **adlatiboa** eta **-ela konpletiboa**, agertzen direnean beti azpikategorizatuak dira¹¹⁸, eta ia beti balio bera dute. Adlatiboak *helburuko kokapena* adierazten du gehienetan, baina *helburuko egoera* eta *helburua* (*egoera-aldaketa* eta *aldaketa* adizetan, hurrenez hurren) ere adieraz ditzake. *-Ela* konpletiboak ia beti *gaia* adierazten du.

VI.5 Azpikategorizazioa gure ikuspegitik

Esandako guztiak kontuan hartuta, guretzat aditzen azpikategorizazioa definitzea da aditz bakoitzak adieraz ditzakeen predikatu motak sintaktikoki nola gauzatzen dituen zehaztea.

Aditz bakoitzak ez du jokaera bera predikatu mota edo balio semantiko jakin bat gauzatzeko: ez Kasu aldetik, ez osagai semantiko/sintaktiko kopuru aldetik, ez osagai semantiko horien azpian ager daitezkeen item lexikal aldetik, ez osagai semantiko horiek esaldian agertzeko eta berreskuratze gaitasun aldetik.

Beraz, azpikategorizazioa definitzeko:

¹¹⁸ *Ezkondur* aditzean ikusi dugu salbuespena.

- Lehenengo pausua, aditz bakoitzak zein predikatu mota adieraz ditzakeen zehaztu behar da.
- Ondoren, predikatu mota horiek gauzatzeko beharrezkoak dituen osagaien kopurua eta beren balio semantikoak definitu behar dira.
- Balio semantiko horiekin batera, hautapen-murriztapenak zehaztu daitezke, murriztapena argia denean, bederen, eta beste predikatu motetatik bereizten duen neurrian.
- Behin hori eginda, horiek syntaxian gauzatzeko eta syntaxian ageri ez direnean berreskuratzeko mekanismoak markatu behar dira:
 - Osagai semantikoaren Kasu mailako gauzapen desberdinak.
 - Osagai semantiko beharrezkoaren inespezifikazio- eta elipsi-gaitasunak. Datu estatistikoek horretan asko lagundu dezakete. Izatez, atera zaizkigun datuetan aditzaren berezko osagaitzat (Kasutzat, datu estatistikoei begira) hartu ditugunak maiztasun handienarekin agertzen dira. Eta horietatik maiztasun handiena dutenak elipsirako joera dutenak dira. Bestalde, inespezifikazioetarako hiperonimo-hiponimo harremanak kontuan izan behar dira; batez ere gaiaren inespezifikazioa dugunean. Erlazio hori zehaztuz gero, aditz horren objektu-aukeran murrizteko gai izango ginateke.
 - Kasuen artean dauden dependentzia-fenomenoak markatu behar dira.

Sintaxiko gauzapena zehazterakoan, ez dugu beharrezkotzat jotzen mailaketarik proposatzea alternantzien aldaeren artean. Hau, esan bezala, bat dator EAGLESen proposamenekin. Oraingoz, aldaera guztiak lexikoan landuz, ez dugu zertan baten aldeko hautua egin.

VI.6 Corpusaren erabilera dela eta

Corpusa iturri bezala hartzeak, bai estatistikak aplikatzeko bai eskuzko lanerako, mugak eta abantailak dituela ikusi dugu.

Ikuspegi estatistikotik begiratuta, Kasuen maiztasunak bakarrik atera ditugu. Ondorioz:

- Datuek aditzaren balio orokorra eta ohikoena islatzen dute.
- Horri segituta, aditzek bere semantikan fokalizatzen dituen osagai semantikoak agerian geratzen dira; gainera, esan dugun bezala, elipsirako gaitasuna duen osagaia da maiztasun handienekoa.
- Elipsi- eta inespezifikazio-fenomenoek ez dute islarik datuetan (Kasu ergatiboa eta datiboa dugunean salbu, guk aplikatutako hobekuntzei esker).

Lehendabiziko bi ondorioak abantaila gisa ikus ditzakegu orokortasunak bilatzen ditugun neurrian. Berriz, aditzen azterketa exhaustiboa badugu helburu, mugak izango lirateke, eta bestelako bide estatistikoak probatu behar lirateke. Hirugarren puntuari dagokionez, aditzarekin komunztatzen ez duten Kasuekin (eta hauekin ere batzuetan) ezinbesteko muga da.

Eskuzko lanean corpora erabiltzeak, berriz, ondorio hauek ditu:

- Subjektibotasunarekin egiten ditugun baieztapenen alboan, corpusak objektibotasuna eskaintzen du: baieztapen horiek kasu errealetan islarik duten ikus daiteke.
- Justu goikoaren kontrakoa genuke. Balizko hipotesi subjektiboek ez dute islarik. Hau hizkuntzalaritzaren oinarrizko arazoa da berez, baina bestalde corpus motak ere eragina izan dezake aurkituko ditugun erabileretan. Ikusi dugun bezala, aditz batzuek hedatutzat jo daitekeen balioa bakarrik erakutsi dute. Izatez, aditz horien jatorrizko erabilera aurkitzeko, gai edo arlo bati loturiko corpus espezifikoa beharko litzatekeela argi dago. Beraz, aukeratzen den corpus motak garrantzia handia du, atera nahi diren emaitzen fidagarritasuna, orokortasuna eta kalitatea bermatzeko.

Eskuzko lanari begirako bi ondorio hauek ere mugak eta abantailak dituzte. Lehenengoari dagokionez, balizko hipotesiak ez baiezta ahal izatea muga bat da, baina era berean, esan nahiko du fenomeno horrek, beharbada, ez duela konputazionalki garrantzia handirik. Bigarren puntuari dagokionez, berriz, azterketa sakona behar da zein corpus mota den egokiena aditzak ikuspegi orokorragotik edo mugatuagotik aztertzeko. Seguruenez, batzuetan aditz jakinak baldintzatuko du egokitasun hori.

Beraz, corpusak dituen mugak eta abantailak guk egindako lanarenak egiten ditugu.

VI.7 Azterketa konputazionaleri begira interesgarriak eta aplikagarriak izan daitezkeen datuak

Azterketa konputazionalak bi ikuspegitatik bidera daitezke:

- batetik, landutako 100 aditzak berrerabil daitezke.
- bestetik, landutako 100 aditzetatik informazio orokorra baliatuz, beste aditz batzuen informazio bila daiteke.

Bi ikuspegiak dira interesgarriak eta beharrezkoak. Ikus dezagun hau zehatzago.

VI.6.1 100 aditzak berrerabiltzea

Tesiaren motibazioan esan bezala, aditzen azpikategorizazioa beharrezkoa da perpausan ageri diren sintagmak zein aditzekin doazen erabakitzeke; perpaus mugak definitzeko; hitz ezezagunetan proposamen okerrak alde aurretik baztertzeko eta abar. Guk dagoeneko badugu proposamen bat 100 aditzentzat. Hala izanik, hainbat bidetatik ekin dakioke berrerabilpenari:

- Informazio hori guztia gure oinarri lexikoetan (EDBLn nahiz EusWNen) nola landu aztertu behar da. Hasteko, eta kontuan izanik EDBLn informazio semantikorik oraingoz ez dagoela¹¹⁹, *bs*etatik ateratzen diren patroik sintaktikoekin eta laguntzaileekin lanean hastea dirudi komenigarriena.
- Maiztasun handieneko *bs*etan oinarrituta, bestelako aditzen corpuseko agerraldiak hartu, eta landutako *bss*ren bat esleidi dakiekeen azter daiteke berrietan dagoen informazio guztia (osagai semantikoak, hautapen-murriztapenak, Kasuak eta laguntzaileak) kontuan hartuz. Horretarako maiztasun handienekoetatik has gaitezke.

Hona atera zaizkigun *bss*en maiztasunak, leku maiztasuna izan dutenak alde batera utzita:

¹¹⁹ Orainsu hasi gara [+biz] tasuna lantzen izenetan.

maiztasuna ¹²⁰	<i>balio sintaktiko/semantikoa (bss)</i>
P1. 9	DU esperimentatzailea [+giz]:erg; gaia:konp-ela
P2. 8	DU esperimentatzailea [+biz]:erg
P3. 7	DU gaia:abs; esperimentatzailea [+giz]:erg
P4. 7	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg
P5. 6	DU gaia:abs; esperimentatzailea:erg
P6. 6	DA gai_ukitua:abs; abiapuntuko_kokapena / bidea:abl; helburuko_kokapena:ala
P7. 5	DU esperimentatzailea [+giz]:erg
P8. 5	DA gaia:abs; kokapena:ine
P9. 4	DU gaia [-biz]:abs; esperimentatzailea [+biz]:erg
P10. 4	DA gai_ukitua:abs
P11. 3	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg; helburuko_kokapena:ine
P12. 3	DU gai_sortua [-biz]:abs; iturria [+biz]:erg
P13. 3	DA gai_ukitua:abs; helburuko_kokapena:ine
P14. 3	DA gai_ukitua:abs; abiapuntua/bidea:abl; helburua:ala
P15. 2	ZAIO gai_sortua [-konkr]:abs; iturria [+giz]:dat
P16. 2	DU gaia [-biz]:abs; esperimentatzailea [+giz]:erg
P17. 2	DU gaia [-biz]:abs; esperimentatzailea:erg
P18. 2	DU gaia [-biz; -konkr]:abs; esperimentatzailea:erg
P19. 2	DU gaia:abs; abiapuntua:erg; helburua:dat
P20. 2	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg; neurria:abs
P21. 2	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg; gai_ukitua:soz
P22. 2	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg; abiapuntuko_kokapena / bidea:abl; helburuko_kokapena:ala
P23. 2	DU gai_ukitua:abs; kausa:erg; abiapuntua/bidea:abl; helburua:ala
P24. 2	DU gai_ukitua:abs; helburuko_egoera:abs; kausa:erg
P25. 2	DU esperimentatzailea [+giz]:erg; gaia [-konkr]:abs
P26. 2	DU esperimentatzailea [+giz]:erg; gaia:abs
P27. 2	DU esperimentatzailea:erg; gaia:konp-ela
P28. 2	DU edukia:abs; edukitzailea:erg; kokapena:ine
P29. 2	DIO abiapuntua [+giz]:erg; helburua:dat; ezaugarria:abs
P30. 2	DIO abiapuntua [+giz]:erg; gaia [-biz]:abs; helburua [+giz]:dat
P31. 2	DA gaia:abs; ezaugarria:abs
P32. 2	DA gaia:abs
P33. 2	DA gai_ukitua:abs; neurria:abs
P34. 2	DA gai_ukitua:abs; helburuko_egoera:abs
P35. 2	DA gai_ukitua:abs; helburuko_egoera_ine
P36. 2	DA gai_ukitua:abs; gai_ukitua:soz
P37. 2	DA gai_sortua [-konkr]:abs; iturria [-biz]:abl
P38. 2	DA esperimentatzailea [+giz]:abs; gaia:konp-ela

VI.1 irudia: aditzei definitutako bssetik maiztasun handiena dutenak.

¹²⁰ Maiztasunaren zutabearen agertzen diren ezkerreko P eta zenbakiek (P1, P2...), maiztasuna aplikatu ondorengo ordena adierazten dute. P-k *patroi* adierazten du, *bssa* patroi (sintaktiko/semantiko) gisa ikusita.

100 aditzetan maiztasunak ateratzea ez da oso esanguratsua. Hala ere, ikus daiteke maiztasun handienekoak hasierako hamarrak erabiltzen direla.

Azkenik, iritsi garen abstrakzio maila kontuan izanik, beste hizkuntzetan egin diren azterketa paretsuekin lanean has gaitezke, itzulpengintzari begira. Hainbat aldiz aipatu ditugun Vázquez et al.-ekin (2000), esaterako. Itzulpengintzan planteatzen diren transferentzia mailetatik semantikoa oinarri gisa hartu eta gero sintaxia maila partikularrago batean landu daiteke.

VI.6.2 100 aditzetatik ateratako informazio orokorra baliatuz, beste aditz batzuei buruzko informazioa atera

100 aditzak zehatz-mehatz aztertzeak lan handia eskatzen duela esan beharrik ez da; tesi-lan honetan hori egin dugu eta kontua sinplea ez dela ikusi dugu. Bestalde, aditz batek azpikategorizatzen dituen Kasuak zehazteko semantikari begiratzea ezinbestekoa dela argi geratu da.

Corpusak masiboki lantzeko, aditz gehiagoren azpikategorizazioa lantzea beharrezkoa da, eta metodo automatikoak ustiatu behar dira.

Gure tresnei dagokionez, esana dugu gure lexikoan ezaugarri semantikoak ez daudela landuta. Hortaz, automatikoki informazioa eskuratzeko, ageriko sintaxiari bakarrik begiratuta egin dezakegu. Honetarako lehenengo urratsa izan daiteke landutako *bssetatik* patroï sintaktikoak ateratzea, eta horietan oinarrituta aditz berrientzat estatistikak ateratzea. Hipotesia da hemen agertu diren patroï sintaktikoak beste aditz askotan ere errepikatuko direla, eta horiek, zenbaitetan, mota semantiko bereko aditzak multzoka ditzaketela (nahiz eta beti horrela ez dela argi geratu den). Gainera, semantikoki koherenteak izan gabe ere, patroï sintaktikoak definitzea oso inportantea da tesi-lanean aipatutako helburuetara iristeko.

Hortaz, ikusitako adiera eta patroï semantikoek zein gauzapean sintaktiko izan ditzaketen adieraziko dugu lehendabizi, eta ondoren Kasu-konbinazio soilari begiratuta multzokatuko ditugu, patroï sintaktikoak ateraz.

Horretarako, 13 adieren patroï semantikoak oinarri gisa hartu, eta koadro batean adieraziko dugu zeintzuk diren patroï semantiko hori gauzatzeko erabili diren Kasuak eta patroï sintaktikoak. Patroï sintaktiko bakoitzaren alboan, berau betetzen duen adibide bat jarri dugu.

Adierak eta patroik semantikoak	Patroi sintaktikoak
Egoera-aldaketa:	
kausa+gai ukitua	(erg) abs (<i>hautsi</i>) erg ela_komp (<i>argitu</i>) ins abs (<i>kezkatu</i>) soz abs (<i>haserretu</i>) erg soz (<i>amaitu</i>)
kausa+gai ukitua+gai ukitua	(erg) abs abl (<i>banandu</i>) (erg) abs soz (<i>nahastu</i>)
gai ukitua	erg (<i>irakin</i>)
kausa+gai ukitua+helburuko egoera	(erg) abs ala (<i>egokitu</i>)
Kokapen-aldaketa:	
kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena	(erg) abs abl ala (<i>atera</i>)
gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena	abs abl ala (<i>etorri</i>) abs dat ala (<i>joan</i>)
kausa+gai ukitua+helburuko kokapena	(erg) abs ine (<i>kokatu</i>) (erg) abs abl (<i>zintzilikatu</i>)
gai ukitua+helburuko kokapena	erg abs (<i>bisitatu</i>)
kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena	erg abs abl (<i>hartu</i>)
Aldaketa:	
Kausa+gai ukitua+abiapuntua/bidea+helburua	(erg) abs abl ala (<i>pasatu</i>) (erg) abs ins (<i>aldatu</i>)
Entitate baten sortzea:	
iturria+gai sortua	erg abs (<i>isuri</i>) dat abs (<i>atera</i>) abl abs (<i>isuri</i>)
iturria+gai sortua+kokapena	erg abs ine (<i>eragin</i>)
Jarduera:	
esperimentatzailea+gaia	erg (abs) (<i>abestu</i>) abs ins (<i>ahaztu</i>) erg dat (<i>eutsi</i>) erg (ela_komp) (<i>erantzun</i>) abs ela_komp (<i>konturatu</i>)
esperimentatzailea+esperimentatzailea	erg abs (<i>besarkatu</i>) abs (<i>besarkatu</i>)
esperimentatzailea+jarduera	erg ine (<i>jokatu</i>) erg abs (<i>jokatu</i>) abs soz (<i>hasi</i>)
esperimentatzailea+modua	erg ine (<i>jokatu</i>) erg abs (<i>jokatu</i>)
esperimentatzailea+jarduera+denbora	erg abs ine (<i>eman</i>)
esperimentatzailea+jarduera+helburua	erg abs ala (<i>deitu</i>)
esperimentatzailea+gaia+gaia	erg abs abs (<i>aldatu</i>) erg abs soz (<i>konparatu</i>)
esperimetatzailea+esperimetatzailea+jarduera	erg soz ine (<i>jolastu</i>) abs soz ine (<i>jolastu</i>)
Elkarraldatzea:	
abiapuntua+gaia+helburua	erg abs dat (<i>eman</i>) abs ins soz (<i>mintzatu</i>) abs ins dat (<i>mintzatu</i>)

Adierak eta patroi semantikoak	Patroi sintaktikoak
abiapuntua+helburua+kokapena+kokapena	erg dat abl ala (deitu)
Ezaugarria esleitzea:	
abiapuntua+ezaugarria+helburua	erg abs dat (esan) erg abs abs (jo)
Edukitzea:	
edukitzailea+edukia	erg abs (izan) ine abs (etorri)
edukitzailea+edukia+kokapena	erg abs ine (ekarri)
Izatea, existitzea:	
gaia	abs (existitu) erg (existitu)
Kokapena:	
gaia+kokapena	abs ine (egon) erg ine (flotatu)
Egoera:	
gaia+egoera	abs abs (egon)
Deskribapena:	
gaia+ezaugarria	abs abs (izan) dat abs (etorri)
Ustezko adierazpena:	
gaia	ela_konp (eman)

VI.2 irudia: definitu ditugun predikatu mota orokorrak, hauei loturiko patroi semantikoak, eta patroi semantiko hauei loturiko patroi sintaktikoak. Patroi sintaktiko bakoitzaren alboan beraz betetzen duen adibide bat jarri dugu.

Kasu-konbinazio hutsa kontuan hartuta, ondoko patroi sintaktikoak ateratzen dira; ezkerreko zutabean bakoitzeko maiztasunak ageri dira 100 aditzak eta hauen *bss* guztiak kontuan hartuta.

maiztasuna	<i>Kasu-konbinazioak</i>
P1. 36	erg abs
P2. 13	erg
P3. 12	erg ela_konp
P4. 7	abs ine
P5. 6	abs abl ala
P6. 6	abs
P7. 6	erg abs dat
P8. 5	erg abs ine
P9. 6	abs abs
P10. 4	erg abs abl ala
P11. 3	erg abs abs
P12. 3	ins abs
P13. 3	erg ine
P14. 2	dat abs
P15. 2	erg abs soz
P16. 2	abs soz
P17. 2	abs abl
P18. 2	abs ela_konp
P19. 2	erg abs abl
P20. 1	erg abs ala
P21. 1	abs ala
P22. 1	abs dat ala
P23. 1	erg abs ins
P24. 1	erg dat
P25. 1	erg soz
P26. 1	erg abs ala
P27. 1	ela_konp
P28. 1	erg soz ine
P29. 1	abs soz ine
P30. 1	erg dat ala abl

VI.3 irudia: patroi sintaktiko guztiak eta euren maiztasuna.

Patroi sintaktiko batzuk behin bakarrik agertu dira. Logikoena da bi edo gehiago dituztenetik hastea erauzketa-prozesuan. Alegia, ondokoekin:

erg abs
erg
erg ela konp
abs ine
abs abl ala
abs
erg abs dat
erg abs ine
abs abs
erg abs abl ala
erg abs abs
erg ine
ins abs
dat abs
erg abs soz
abs soz
abs abl
abs ela konp
erg abs abl

VI.4 irudia: maiztasun handieneko patroï sintaktikoak.

Azterketa estatistiko hauetan guztietan, kontuan hartu behar da egitura asko anbiguoak direla azpian gordetzen duten semantikari begiratuta. Anbiguotasun hau areagotu egiten da inespezifikazio- eta elipsi-kasu asko daudelako.

VII ZABALDUTAKO IKERLERROAK ETA ONDORIO NAGUSIAK. AURRERA BEGIRAKOAK

VII.1 Zabaldutako ikerlerroak eta ondorio nagusiak

Tesi-lan honetan, azpikategorizazioak linguistikan izan duen ibilbidearen berri eman eta gero, hiru lerro nagusi izan ditugu ardatz:

VII.1.1 Baliabide automatikoen erabilera

Batetik, eta gure ikertaldearen lan-ildo konputazionala gogoan, orain arte garatutako tresnen bidez aditzen azterketarako erabilgarri ditugun baliabide automatikoen berri eman dugu; eta horiekin zein informazio mota lor dezakegun azaldu:

- Batetik, aditz bakoitzaren informazioa eskuratzeko **corpusa** dugu. Corpus hau oinarri hartuta, aditz bakoitzak izan dituen agerraldi guztiak eskuratu ditugu. Bi corpus izan ditugu iturri: batetik *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* eta bestetik *Euskaldunon Egunkaria*. Lehenengoak 4.658.036 hitz biltzen ditu eta bigarrenak 1.337.445. Tesi-lan honetan erabilitako adibide kopurua, zehazki, 1667 izan da.
- Bestetik, lantaldean garatutako tresna automatikoak azaldu ditugu. Tresna horien bidez lor daitezkeen emaitza estatistikoak azaldu ditugu, eta gure eskuzko azterketan, lortutako emaitza estatistiko batzuk txertatu ditugu: aditz bakoitzak agerraldietan izan dituen

laguntzaile eta Kasuen maiztasunak. Datu estatistiko hauek eskuratzeko hartu ditugun erabakien berri ere eman dugu (Kasu-bilketa, aditzarekin komunztadura egiten duten Kasuen berreskuratzea, erroreak ekiditeko zenbait iragazki). Emaitza hauek bakarrik *Euskaldunon Egunkariako* testuetan oinarrituta atera dira.

VII.1.2 Levin (1993) lanaren azterketa

Gure lanean abiapuntua izan den autore baten lana aztertu dugu: Levinen *Verb classes and alternations* (1993) liburua. Azterketa honetan ondoko hiru puntuak landu ditugu batez ere:

- Autore honek planteatzen duen teoria aztertu dugu.
- Aditzak sailkatzeko proposatzen duen metodologian hutsuneak daudela ikusi dugu.
- Hutsune horiek argitze aldera, alternantzia kontzeptua egokitu, eta ingeleserako definitzen dituen alternantzietatik euskaraz onartzen direnak landu ditugu horren arabera. Ondorio bezala, **alternantzien bidez sailak egiteak dituen zailtasunak adierazi ditugu, eta azpikategorizazioaren zati baten (eta ez guztiaren) berri ematen dutela agerian jarri dugu.**

VII.1.3 100 aditzen azterketa zehatza

100 aditzen eskuzko azterketa deskriptiboa egin dugu azpikategorizazio-informazioa osatze aldera. Deskribapen horretan aditz bakoitzaren balio semantiko/sintaktikotzat (bss) jo ditugunak definitu ditugu. *Bss* horien informazioa gordetzeko, datu-base bat eraiki dugu, eta berorretan hainbat ezaugarri eta markaketa-sistema bat proposatu ditugu. Halako deskribapen eta formalizazioa euskaraz ez da oraindano egin.

Aditzak hautatzeko, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoko* 22.000 hitzeko lagin bat erabili dugu, eta aditz zehatz horien hautapena egiteko hainbat irizpide erabili ditugu (eratorpen-prozesu garbien ondoriozko zenbait eratorri baztertzea; hitz anitzeko unitate lexikaltzat jotakoa ez izatea, maiztasuna, gure hipotesiak egiaztatzeke eta berriak proposatzeko aukera ematea).

Azterketa honen ondorio gisa:

- **Balio sintaktiko/semantikoetatik (bssetatik) 13 adiera edo predikaut mota** atera ditugu, 21 osagai semantikoen konbinazio logiko eta bereizle baten arabera. Horretara iristeko erabilitako iturrien berri eman dugu, eta izan ditugun arazoak eta hartutako erabakiak azaldu ditugu. Horretaz gain, azpikategorizatuak ez diren osagaiak ere aztertu ditugu.

- Ikusitako guztiak kontuan hartuta, guk **azpikategorizaziotzat zer jo dugun** azaldu dugu, eta osagai semantikoak sintaktikoki gauzatzeko dauden fenomeno linguistikoak azpimarratu ditugu (elipsia eta inespezifikazioa; Kasuen arteko dependentzia).
- Gure lana egin ondoren, bide konputazionala eta eskuzko azterketa uneotan elkarrengandik urrun samar daudela agerian geratu bada ere, **eskurapen automatikoari begira hainbat datu proposatu** ditugu. Bestalde, 100 aditzentzako informazio beharrezkoa eta aberatsa landu dugu horiek gure oinarri eta tresnetan baliatzeko.
- Gure ekarpen nagusia, beraz, **aditzen azpikategorizazioa zehazteko beharrezkoak diren ezaugarriak formalizatzea** izan da, aplikazio konputazionalari begira adierazpide deklarativo eta erabilgarri bat proposatuz. Lan hori burutzeko, euskarazko 100 aditz deskribatu ditugu, eta lan konputazionalerako oinarri bat jarri dugu.

VII.2 Aurrera begirakoak

Aditzen azpikategorizazioaren azterketak etorkizunean bide ugari jorratzeko aukera ematen du inondik ere, gauza asko baitaude aztergai. Guk lan honetan aztertutakoen ildotik, ondoko hauek proposatzen ditugu:

- VI.6 puntuan planteatutako lanei ekin. Hots:

100 aditzetarako landu ditugun balio semantiko/sintaktikoak taldearen oinarrietan eta tresnetan txertatu, horretarako bide egokienak zein diren ikertuz. Honen bidez, sintaxi partzialeko desanbiguzioa eta esaldien arteko mugak ebazten diren konprobatu.

Proposatutako *b*ssetan oinarrituz, beste hainbat aditz landu, eskuz.

Zehaztutako predikatu motetatik eratorritako patroik sintaktikoen bidez, aditz gehiago identifikatu. Zeregin horretan, metodo erdi-automatikoak aplikatu behar dira: lehendabizi aditz bakoitzerako balizko patroik sintaktikoak proposatu, eta ondoren eskuzko errebisioa egin (Gross-ek (1975) bere lanaren ondorioz iradokitzen duenaren ildotik, edota Saint-Dizier-ek (1996) egiten duenaren ildotik).

Itzulpengintzari begira, hizkuntza desberdinen arteko harremana maila semantikoan planteatu daiteke, eta ondoren, semantika horren sintaxia maila zehatzago batean espezifikatu daiteke. Horretarako beste taldeekin jarri behar gara harremanetan, beren baliabideak eta gureak konparatzeko eta hauen bateragarritasuna neurtzeko.

- Aztertu ez ditugun beste Kasuak lantzeari ekin. Horiek zein predikatu motetan parte hartzen duten, edo zein predikatu mota osatzen duten aztertu.

- Ikusitako elipsi eta inespezifikazio motak adibide gehiagoren aurrean aztertu, eta hemen esandakoak betetzen diren ikusi. Hori erraztuko duten metodologia automatikoak ikertu. Esku artean izan ditugun datu estatistikoek erakutsi digute aditzaren Kasu azpikategorizatutzat hartu ditugunetatik batzuk beste batzuk baino maiztasun handiagoarekin agertzen direla.
- 100 aditzen informazioa gordetzeko egin dugun datu-basea birfindu.
 - Alde batetik, *b*ssen artean, alternantziak osatzen dituzten aldaerak, eta alternantziarik osatzen ez dituztenak bereizi. Hau da, aditz bati dagozkion adierak bereizi, eta hauetako bakoitzari dagozkion alternantziak markatu.
 - Bestetik, informazio erredundantea eragozteko bideak jorratzen has gaitezke: aldaera diatetiko nagusienak lexikotik bereizi, eta nolabait kodetu. Kodeketa honen bidez, gero aditz bakoitzari dagozkionak esleitu ahal izango litzaizkioke.
 - Normalean azpikategorizatuak ez diren Kasuak, predikatu motetan orokorrean onartu, eta onartzen ez direnean bakarrik markatu lexikoan.
- Alboratu ditugun aztergaiei heldu:
 - Proposatutako adieretan egitura inbertsonalak, pasiboak, antipasiboak, erreflexiboak eta erreziprokoak nola gauzatzen diren aztertu. Guk aztertutako bestelako alternantziekin dituzten bateragarritasun edo murriztapenak ikertu.
 - Aditz eratorrien azterketa egin, barneratua duten osagai semantikoak ezartzen dituen murriztapen sintaktikoak kontuan hartuta.
 - Sintagma konplexuak eta Hitz Anitzeko unitateak identifikatu, halakoxetat hartzeko ezaugarriak definitzen saiatuz. Horiek unitate gisa izateak tresna automatikoetan huts asko ekidingo lituzke, eta unitate sintaktikoak egokiago identifikatuko lirateke.
 - Hitz Anitzeko aditzak aztertu (adib. *hitz egin*), syntaxian duten eragina ikertuz.
- Errore sintaktikoen azterketari ekin, landutako aditzek onartzen dituzten Kasu eta patroï sintaktikoetan oinarrituta. Hasteko, Kasuei bakarrik erreparatuta (eta ez Kasu hauek duten balio semantikoari), “–“ ikurra erabil daiteke, aditzaren balio semantiko guztietan azaltzen bada. Hala, beti iragangaitza den aditz batean (adib. *etorri*), ergatiboa okerra izango da (kausatibo morfologikoa ez bada); edota *ikusi* gisako aditz batean, Kasu adlatiboa okerra izango da. Patroi sintaktikoei erreparatuta ere proposa daitezke

zuzenketak. Adib., *hornitu* aditzean, instrumentalik gabeko abs-dat-erg egitura okerra da (*armak hornitu dizkiete soldaduei).

- Corpusaren erabilerak dituen abantailak ustiatu. Ikusi dugunez, alde batetik, aditzen balio semantikoetan azpikategorizatzen diren osagaiak detektatzeko iturri aberatsa da. Bestetik, corpus motak aditz baten deskribapen zehatzagoa edo orokorragoa egiteko aukera ematen du.
- Corpusaren erabilerak dituen mugak ikusita, aditzen lanketa beste iturriekin nola osatu eta hobetu daitekeen aztertu. Arriolak (2000) *Euskal Hiztegiaren* gainean ateratako emaitzekin erkatu eta bertan bereizten diren adiera eta patroiak gure lanarekin parekagarriak diren aztertu.
- Semantikan oinarritutako ezagutza-baseekin lanean hasi. Tesi-lanean aipatua dugun bezala, gure lan taldean mota honetako iturri lexikala eraikitzen dihardugu: EuroWNen oinarrituriko EusWN. Ezagutza-base honetan, aditzek eta bestelako kategoriako hitzek duten informazioa, guk aditzetan poposatutako informazioarekin harremana duen aztertu, eta hala bada, nola uztar daitekeen ikertu. Bestetik, guk egindako lana EusWNen txerta daitekeen azter daiteke.

BIBLIOGRAFIA

- Abaitua J. (1987a). *An LFG parser for Basque (I)*. *ASJU (XXI-1)*. Donostia. 105-134.
- Abaitua J. (1987b). *An LFG parser for Basque (II)*. *ASJU (XXI-2)*. Donostia. 565-598.
- Abaitua J. (1988). *Complex predicates in Basque: from lexical forms to functional structures*. Phd. Thesis, University of Manchester.
- Abaitua J., Ruiz J.C. & Zubizarreta J.R. (1991). "Un compilador de LFG y su aplicación al euskara". *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 9, 177-192.
- Abney S.P., (1987). *The English Noun Phrase in its sentential aspects*. Doctoral dissertation. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Abney S.P. (1991). *Parsing by chunks*. Berwick R.C., Abney S.P. & Tenny (eds.), *Principle-Based Parsing: Computation and Psycholinguistics*. Kluwer, Dordrecht.
- Abney S.P. (1997). *Part-of-Speech Tagging and Partial Parsing*. Young S. & Bloothoof G. (eds.), *Corpus-Based Methods in Language and Speech Processing*. Kluwer, Dordrecht.
- Aduriz I., Aldezabal I., Artola X., Ezeiza N. & Urizar R. (1996). "Multiword Lexical Units in EUSLEM: A Lemmatiser/Tagger for Basque". *COMPLEX'96 Forth Conference on Computational Lexicography and Text Research*. Budapest, Hungaria.
- Aduriz I., Alegria I., Artola X., Ezeiza N., Sarasola K., Urkia M. (1997). "A spelling corrector for Basque based on morphology". *Literary & Linguistic Computing*, Vol. 12, No. 1. Oxford University Press. Oxford.
- Aduriz I., Aldezabal I., Ansa O., Artola X., Díaz de Ilarraza A. & Insausti J. M. (1998). "EDBL: a Multi-Purposed Lexical Support for Treatment of Basque" *First International Conference on Language resources and evaluation*. 28-30. Granada.
- Aduriz, I., Agirre, E., Aldezabal I., Arregi X., Arriola J.M., Artola X., Gojenola K., Maritxalar A., Sarasola K. & Urkia M. (1999). *Euskararako analizatzaile morfosintaktikoa*. Barne-txostena. Informatika Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aduriz I. (2000). *EUSMG: Morfologiatik syntaxira Murriztapen Gramatika erabiliz*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aduriz I., Arriola J.M. & Díaz de Ilarraza A. (2003) "Desanbiguazio morfoloikoa, azterketa sintaktikoaren lehen urratsak eta aplikazioak Murriztapen Gramatikaren eredu konputazionala jarraituz". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.
- Aduriz I. & Ilarraza A. (2003) "Morphosyntactic disambiguation and shallow parsing in computational processing of Basque". In B. Oyharçabal (eds.) *Inquiries into the*

lexicon-syntax relations in Basque. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.

Agirre E., Arregi X., Arriola J.M., Artola X. & Insausti J.M. (1994). *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL)*. Barne-txostena (UPV/EHU(LSI/TR 8-94). Informatika Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Agirre E. (1999). Kontzeptuen arteko erlazio-izaeraren formalizazioa ontologiak erabiliaz: Dentsitate Kontzeptuala. Doktoretza-tesia. Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Agirre E., Aldezabal I. & Pociello E. (2003). "A pilot study of English selectional preferences and their cross-lingual compatibility with Basque". *An International Conference on Text Speech and Dialogue*. Ceske Budejovice. Czech Republic.

Agirretxe J.L, Lersundi M., Olaetxea O. (1998). *Pasaiako hizkera*. Pasaiako Udala. Euskara Batzordea.

Alberdi X. (2003). "Maileguzko euskal aditzen erregimena". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.

Albizu, P. (1990). "El caso Dativo en euskera", Eskuizkribua, Instituto Universitario Ortega y Gasset.

Aldezabal I., Gojenola K., Sarasola K. & Goenaga P. (1998). "Subcategorización verbal vasca. Propuesta inicial y herramienta de validación". Congreso SEPLN'98. Alicante. España.

Aldezabal I. (1998). "Levin's verb classes and Basque. A comparative approach". Colloquium series of the Department of Computer Science at UMIACS (University of Maryland Institute for Advanced Computer Studies).

Aldezabal I., Ansa O., Artola X., Ezeiza A., Gojenola K., Insausti J.M. & Lersundi M. (1999). (Aldezabal et al., 1999a). *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): eskema berriaren proposamena*. Barne-txostena. Informatika Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Aldezabal I., Gojenola K. & Oronoz M. (1999). (Aldezabal et al., 1999b). "Combining Chart-Parsing and Finite State Parsing". *Proceedings of the European Summer School in Logic, Language and Information (ESSLLI)*. Student Session. Utrecht, the Netherlands.

Aldezabal I., Ansa O., Arrieta B., Artola X., Ezeiza A., Hernández G. & Lersundi M. (2001). (Aldezabal et al., 2001a). "EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque". *IRCS Workshop on Linguistic Databases*. Philadelphia.

Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Gojenola K., Oronoz M. & Sarasola K. (2001). (Aldezabal et al., 2001b). "Applications of Finite State Transducers to the Acquisition of Verb Subcategorization Information". *Finite State Methods in Natural Language Processing*. ESSLLI Workshop. Helsinki.

- Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Goenaga P., Gojenola K. & Sarasola K. (2001). (Aldezabal et al., 2001c). "Extracción masiva de información sobre subcategorización verbal vasca a partir de corpus". *SEPLN'2001*. Septiembre 12-14. Jaén.
- Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A. & Lersundi M. (2002). *Levin-ek English verbs classes and alternations (1993) liburuan ingeleserako proposatzen dituen alternantziak euskararekin parekatuz*. Barne-txostena. LSI saila, EHU.
- Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Gojenola K. & Sarasola K. (2002). "Learning Argument/Adjunct Distinction for Basque". *ACL'2002 SigLex Workshop on Unsupervised Lexical Acquisition*. July 8-13. Philadelphia.
- Aldezabal I., Gojenola K. & Sarasola K. (2000). "A Bootstrapping approach to parser development". *International Workshop on Parsing Technologies (IWPT 2000)*. Trento, Italy.
- Aldezabal I., Gojenola K. & Sarasola K. (2003). (Aldezabal et al., 2003a). "Baterakuntzan oinarritutako euskararen analizatzailea". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.
- Aldezabal I. & Goenaga P. (2003). (Aldezabal et al., 2003b). "Analizing verb subcategorization aimed at its computational application". In B. Oyharçabal (eds.) *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Gojenola K., Sarasola K. (2003). (Aldezabal et al., 2003c). "PATRixa: a unification-based parser for Basque and its application to the automatic analysis of verbs". In B. Oyharçabal (eds.) *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Gojenola K., Sarasola K. (2003). (Aldezabal et al., 2003c). "Learning argument/adjunct distinction for Basque". In B. Oyharçabal (eds.) *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- Alegria I. (1995). *Euskal morfologiaren tratamendu automatikarako tresnak*. Doktoretza-tesia. Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alegria I., Artola I., Sarasola K. & Urkia M. (1996). "Automatic morphological analysis of Basque". *SEPLN'96*. Sevilla.
- Altonaga K., Enzunza M., Garcia J. & Etxebarria J.R. (1994). "Neurtu aditzaren erregimenaz". Euskaltzaindiaren 13. biltzarra. *Euskera*, 94-3, 1025-1027-1031.
- Altuna P. & Azkarate M. (2001). *Morfologiaren historia*. Elkarlanean. Donostia.
- Amberber M (1995). "The transitivity of verbs of saying revisited". *West Coast Conference on Formal Linguistics 14*: 1-15.
- Amundarain I. (1997) *Juntadura eta elipsia euskaraz*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Anderson S.R. (1971). *The grammar of Case: Towards a Localistic Theory*. Cambridge University Press.
- Apresjan J. (1973). *Principles and methods of contemporary structural linguistics*. The Hague: Mouton.
- Arregi X. (1995). *ANHITZ: Itzulpenean laguntzeko hiztego-sistema eleanitza. Doktoretza-tesia*. Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Arriola J.M. & Soroa A. (1996). "Lexical Information Extraction for Basque". Student Conference in Computational Linguistics. Canada.
- Arriola J.M. (2000). *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegi-ko informazio lexikalaren erauzketa erdi-automatikoa eta bere integrazioa sistema konputazional batean*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Artiagoitia X. (1995) "Garri atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den miragarria bezain mingarria". *ASJU* 29-2. 355-406.
- Artiagoitia X. (1997). "DP predicates in Basque". *Working Papers in Linguistics. University of Washington* 5. 161-198.
- Artiagoitia X. (2002). *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Arabako Foru Aldundia.
- Artola X. (1993). *Hiztegi-ezagumenduaren errepresentazioa eta arrazonamenduaren ezarpena/Conception et construction d'un système intelligent d'aide dictionnaire (SIAD)*. Doktoretza-tesia. Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aurnague J. (1995). "L'expression de l'espace en basque : a propos du genitif et de l'inessif". *Linguisticae Investigationes*, 19, fasc.1.
- Aurnague J. (1996). "Les Noms de Localisation Interne : tentative de caractérisation sémantique à partir de données du basque et du français", *Cahiers de Lexicologie*, 69, 1996-2.
- Azkarate M. (1990). "Euskal -garri vs. latinezko -bilis: bi balio desberdin". Pérez E. & Urkizu P. (eds.): *Patxi Altunari omenaldia*. Donostia. Mundaiz.
- Azkune I. (1994). "Neurtu aditzaren erregimenaz". *Euskaltzaindiaren 13. biltzarra, Euskera*, 94-3, 1025-1026.
- Bach E. (1986). "The algebra of events". *Linguistics and philosophy* 4: 5-16
- Baker F. & Ruppenhofer J. (2002). "FrameNet's Frames vs. Levin's Verb Classes". In Proceedings of the 28th Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society (BLS). Berkeley.
- Barwise, J. & Perry, J. (1983). *Situations and Attitudes*. Cambridge: MIT Press.

- Bechert J. et al. (1970). *Einführung in die generative Transformationsgrammatik*. Ein Lehrbuch, Munich, Hueber.
- Belletti A. & Rizzi L. (1988). "Psych-verbs and Theta-Theory". *Natural Language and Linguistics Theory* 6: 291-352.
- Bennett D.C. (1972) "Some observations concerning the locative-directional distinction". *Semiotica* 5: 58-88.
- Benveniste E. (1966). *Problèmes de Linguistique générale*. Paris.
- Boons J.P. (1987). "La notion sémantique de déplacement dans une classification syntaxique des verbes locatifs". *Langue Française* 76: 5-40.
- Brent M. (1991). "Automatic acquisition of subcategorization frames from untagged test". *Proceedings of the 29th Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics*, Berkeley, CA. 209-214.
- Bresnan J. & Kaplan R.M. (1982). "Introduction: Grammars as Mental Representations of Language". Bresnan J., ed., *The Mental Representation of Grammatical Relations*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Briscoe E.J. & Carrol J. (1997). "Automatic extraction of subcategorization from corpora". *Proceedings of the 5th ACL Conference on Applied Natural Language Processing*. Washington, DC. 356-363.
- Burzio L. (1986). *Italian syntax*. Dordrecht: Reider.
- Cano Aguilar R. (1981). *Estructura sintáctica transitiva del español actual*. Madrid: Gredos.
- Cifuentes J.L. (1999). *Sintaxis y semántica del movimiento. Aspectos de gramática cognitiva*. Alicante: Universidad de Alicante.
- Clark E.V. & Clark H.H. (1979). "When Nouns Surface as Verbs". *Language* 55, 767-811.
- Cook W.A. (1979). *Case Grammar: Development of the Matrix Model*. Washington: Georgetown University Press.
- Croft W. (1997). "Possible verbs and the structure of events". Tsohatzidis S.L., ed., *Meaning and Prototypes*. New York: Routledge.
- Cruse A. (1972). "A note of English causatives". *Linguistic Inquiry* 3: 522-528.
- Cruse A. (1973). "Some thoughts on agentivity. *Journal of Linguistics* 9: 11-23.
- Chafe W.L. (1970). *Meaning and the Structure of Language*. Chicago: Chicago University Press.
- Chomsky N. (1957). *Syntactic Structures*. The Hague: Mouton.
- Chomsky N. (1965). *Aspect of the Theory of Syntax*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

- Chomsky N. (1970). "Remarks on nominalization". Jacobs R.A. & Rosenbaum P.S., eds., *Readings in English Transformational Grammar*. Boston: Ginn & Company. 184-221.
- Chomsky N. (1981). *Lectures on Government and Binding. The Pisa Lectures*. Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- Chomsky N. (1982). *The Generative Enterprise. A discussion with R. Huybregts and H. van Riemsdijk*. Dordrecht: Foris.
- Chomsky N. (1992). "A Minimalist Program for Linguistic Theory". *MIT Occasional Papers in Linguistics*, 1.
- Chomsky N. & Lasnik H. (1993) "Principles and Parameters Theory". Jacobs J., von Stechow A., Sternefeld W. & Vennemann T., eds., *Syntax: An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin: de Gruyter.
- Deane P. & Wheeler R.S. (1984). "On the Use of Syntactic evidence in the Analysis of Word Meaning". *Papers from the Parasession on Lexical Semantics*. Chicago Linguistics Society . Chicago, IL. 95-116.
- Demonte V. (1990). "Transitividad, intransitividad y papeles temáticos". V. Demonte & Garza, eds., *Estudios de lingüística de España, México*. México: El Colegio de México. UNAM. 115-150.
- Demonte V. (1991). *Detrás de la palabra*. Alianza editorial. Madrid.
- Demonte V. (1994). "La semántica de los verbos de cambio". *Cuadernos de Lingüística del I.U. Ortega y Gasset* 2:55-82.
- Demonte V. (1995) *Teoría sintáctica: de las estructuras a la rección*. Colección Lingüística. Síntesis.
- Demonte V. (1999). "Semántica composicional y gramática: los adjetivos en la interficie lexico-sintaxis". *I Seminario de Gramática Generativa: 50 años de Gramática Generativa. Propuesta para el siglo XXI*. Sevilla.
- Dervillez-Bastuji J. (1982). *Structures de relations spatiales dans quelques langues naturelles*. Génova, París: Droz.
- Diaz de Ilarraza A. (1990). Diseño de un Módulo de Interacción Tutor-alumno para un sistema inteligente de enseñanza de la programación. Doktoretza-tesia. Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Dorr B. (1993). *Machine Translation. A view from the Lexicon*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Dowty D. (1989). "On the semantic content of the notion of thematic role". Chierchia, Partee & Turner eds., *Property Theory, Type Theory and Natural Language Semantics*. Dordrecht: Reidel/Kluwer. 69-130
- Dowty D. (1991). "Thematic protores and argument selection". *Language* 67: 547-619.

- Dubois J., Giacomo M., Guespin L., Marcellesi C., Marcellesi J.B, Mével J.B. (1973). *Dictionnaire de Linguistique* liburuarren erdal edizioa: *Diccionario de Lingüística* (1979). Alianza Editorial, Madrid.
- EAGLES (1996). *Recommendations on Subcategorization*. <http://www.ilc.pi.cnr.it>
- EAGLES (1999). *Preliminary Recommendations on Lexical Semantic Encoding*. <http://www.ilc.pi.cnr.it>
- Etxepare R. (2001). "Valency and Argument Structure in Basque Verb" Hualde J.I. & Ortiz de Urbina J., eds., *A grammar of Basque*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Euskaltzaindia (1985). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*. Nafarroako Foru Gobernua, Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1987). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1992). *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (I eta II)*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1993). *Euskal gramatika laburra. Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1999). *Euskal gramatika lehen urratsak-V (mendeko perpausak-1: osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (2000). *Hiztegi Batua. Euskera XLV, 2000, 2*.
- Fellbaum C. (1998). *WordNet: An Electronic Lexical Database*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Fernández M. & Anula R. (1995). *Sintaxis y cognición. Introducción al conocimiento, el procesamiento y los déficits sintácticos*. Editorial Síntesis.
- Fernández A., Martí M.A., Vázquez G. & Castellón I. (1999). "Establishing Semantic Oppositions for the Typification of Predicates: On the Concept of Diathesis Alternations as Semantic Oppositions". *Language Design* 2: 69-86.
- Fillmore C.J. (1967). "The Grammar of *Hitting* and *Breaking*". Jacobs R. & Rosenbaum P., eds., 120-133.
- Fillmore (1968a). "The Case for Case". Bach E. & Harms R.T., eds., *Universals in Linguistics*. New York: Holt, Rinehart, Winston. 1-88.
- Fillmore C. J. (1968b). "Lexical entries for verbs". *Foundations of Language* 4: 373-393.
- Fodor J.A. (1970). "Three Reasons for Not Deriving Kill from Cause to Die". *Linguistic Inquiry* 1, 429-438.
- Fontenelle, T.; Adriaens, G.; De Braekeleer, G. (1994). "The Lexical Unit in the Metal[®] MT System", *MT*. The Netherlands. v9. 1-19.

- Gazdar G., Klein E., Pullum G. & Sag I. (1985). *Generalized Phrase Structure Grammar*. Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press.
- Goenaga P. (1980). *Gramatika bideetan*. Erein, Donostia. (1985eko edizioa).
- Goenaga P.(1984). *Euskal sintaxia: Konplementazioa eta nominalizazioa*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gojenola K. (2000). *Euskararen sintaxi konputazionalerantz*. Doktoretza-tesia. Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gómez F. (2003). *Building verb predicates: A computational view*. Technical report, Dept. of Computer Science, SEECs, University of Central Florida. CS-TR-03-01.
- Gràcia L. (1989). *La teoría temática*. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona.
- Gràcia L., Azkarate M., Cabré M.T., Varela S. et al. (2000). *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. Resultados del proyecto de investigación DGICYT, PB93-0546-C04. Servicio editorial de la Universidad del País Vasco.
- Grimshaw J. (1979). "Complement Selection and the Lexicon". *Linguistic Inquiry*, 10, 279-326.
- Grimshaw J. (1990). *Argument Structure*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Gross M. (1975). *Méthodes en syntaxe. Régime des constructions complétives*. Paris: Hermann.
- Gruber J. (1965). *Studies in Lexical Relations*. Bloomington: Indiana University Linguistics Club.
- Guerssel M., Hale K., Laughren M., Levin B. & White Eagle (1985). "A cross-linguistic Study of Transitivity Alternations". *Papers from the Parasession on Causatives and Agentivity, CLS 21, Part 2*. Chicago, IL, 48-63.
- Hale K.L. & Keyser S.J. (1986). "Some Transitivity Alternations in English". *Lexicon Project Working Papers 7*. Center for Cognitive Science. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Hale K.L. & Keyser S.J. (1987). "A view from the middle". *Lexicon Project Working Papers 10*. Center for Cognitive Science. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Hale K.L. & Keyser S.J. (1991). "On the Syntax of Argument Structure". Unpublished ms., MIT, Cambridge, MA.
- Hale K.L. & Keyser S.J. (1992). "The syntactic character of Thematic Structure". Roca I.M., ed., (1992). 107-215.
- Halliday M.A.K. (1968). "Notes on transitivity and theme in English. Part 3". *Journal of Linguistics* 3: 37-81.
- Hanks P. ed. (1986). *Collins English Dictionary*. Collins Publishers. London and Glasgow.

- Hidalgo B. (1994). *Hitzen ordena euskaraz*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde J.I. & Ortiz de Urbina J. (2001). *A grammar of Basque*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Ibarretxe-Antuñano I. (2003). "Semantic motivation in Basque locational cases". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.
- Ibarretxe-Antuñano I. (2001). "An overview of Basque locational cases: Old descriptions, new approaches". *International Computer Science Institute Technical Report No. 01-006*. University of California at Berkeley.
- Ikegami Y. (1973). "A set of basic patterns for the semantic structure of the verb". *Linguistics 117*: 15-58.
- Irigoyen A. (1978b). "Deklinabideaz". *Euskera XXIV* (2. aldia). 737-759.
- Jackendoff R.S. (1972). *Semantic Interpretation in Generative Grammar*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Jackendoff R. (1983). *Semantics and Cognition*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Jackendoff R.S. (1990). *Semantic Structures*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Jackendoff R. (1996) "Conceptual semantics and cognitives Semantics". *Cognitive Linguistics 7*, 93-129 or.
- Jones D., Berwick R., Cho F., Khan Z., Kohl K., Nomura N, Radhakrishnan A., Sauerland U. & Ulicny B. (1994). *Verb Classes and Alternations in Bangla, German, English, and Korean*. Massachusetts Institute of Technology center for Biological and Computational Learning and the Artificial Intelligence Laboratory.
- Karlsson F. Voutilainen A., Heikkilä J. & Anttila A. (1995). *Constraint Grammar: A Language-independent System for Parsing Unrestricted Text*. Mouton de Gruyter, Berlin.
- King A. (1987). "Euskal aditzen deskribapenaren arazo nagusiak". P. Salaburu (arg.) *Euskal Morfosintaxia eta fonologia. Eztabaida gaiak*. EHUKo argitarapen-zerbitzua. 83-102.
- Korhonen A. (2001). *Subcategorization Acquisition*. PhD thesis. Trinity Hall, University of Cambridge.
- Koskenniemi K. (1983). *Two-level Morphology: A general Computational Model for Word-Form Recognition and Production*. PhD. thesis. University of Helsinki.
- Khrakovsky, V.S. (1979). "Diathesis". *Acta Linguistica Academiae Scientiarum Hungaricae 29(3-4)*: 289-307.
- Lafitte P. (1979). *Grammaire Basque. Navarro-Labourdin Littéraire, édition revue et corrigée*. Elkar, Donostia.

- Lafon, R. (1954a). "Le nombre dans la déclinaison basque". *Via Domitia I*, 112-121 (1999, *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, 209-217).
- Lafon, R. (1954b). "Comportement syntactique, structure et diathèse du verbe basque". *BSL* 50, 190-220 (1999, *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, 529-555).
- Lafon, R. (1955b). "Remarques complémentaires sur structure du verbe basque". *BSL LI*, 148-175 (1999, *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, 329-409).
- Lafon, R. (1960). "L'expression de l'auteur de l'action en basque". *BSL LV,1*: 186-221 (1999, *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, 601-629).
- Lafon, R. (1975). "Sur la déclinaison dans le biscayen du XVI^e siècle". *BSL LXX,1*, 2275-290 (1999, *Vasconiana Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia, 219-232).
- Laka I. (1993). "Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative", J. Bobaljik & C. Philips (eds.), *MITWPL 18: Papers on Case & Agreement I*. Cambridge. MITWPL, 149-172.
- Laka I. (1998). *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language*. HTML-ko dokumentua. Euskararako Errektoreordetza, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lakarra J.A. (1983). "Oharrak zenbait arkaismoz". *ASJU 17*, 41-68.
- Lakoff G. (1987). *Women, Fire and Dangerous Things*. Chicago: University of Chicago Press.
- Lamiroy B. (1991). *Léxico y gramática del español*. Barcelona: Anthropos.
- Langacker R.W. (1987). *Foundations of Cognitive Grammar*. Part 1. Stanford, California: Stanford University Press.
- Lecomte (1999) "Categorial minimalism". 11th *European Summer School in Logic, Language and Information, ESSLLI'99* kongresuko *Resource Logics and Minimalist Grammars*
- Lersundi M. (2001) *Hitz eratorri eta haien oinarrien arteko erlazio lexiko-semanticoa Euskal Hiztegia-ko definizioei erreparatuta*. Doktoretza-ikastaroetako defentsa-lana. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Levin B. (1983). *On the Nature of Ergativity*. PhD thesis: MIT Press.
- Levin B. & Rappaport H. (1988). "Lexical subordination". *CLS 24*, Part 1, 275-289.
- Levin B. & Rappaport H. (1992a). *Unaccusativity: At the syntax-Semantics Interface*. Unpublished ms.. Northwestern University and Bar Ilan University, Evanston, IL and Ramat Gan.
- Levin B. & Rappaport H. (1992b). "Lexical-semantics of verbs of motion". I. Roca, ed., *Thematic Structure: Its role in grammar*. Berlín: Mouton de Gruyter.

- Levin B. (1993). *English Verb Classes and Alternations. A preliminary Investigation*. Chicago and London. The University of Chicago Press.
- Lyons, J. (1968). *Introduction to Theoretical Linguistics*. Londres. Nueva York: Cambridge University Press
- Maritxalar M.(1999). *Mugarri: Bigarren Hizkuntzako ikasleen hizkuntza ezagutza eskuratzeko sistema anitzeko ingurunea*. Doktoretza-tesia. Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mejias-Bikandi E. (1990). “Construcciones causativas en euskera”. *ASJU* 24-3, 669-698.
- Mendikoetxea A. (1999a). “Construcciones inacusativas y pasivas”. Bosque I. & Demonte V., eds., *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa-Calpe. 1575-1630.
- Mendikoetxea A. (1999b). “Construcciones con ‘se’: Medias, pasivas e impersonales”. Bosque I. & Demonte V., eds., *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa-Calpe. 1631-1722.
- Meyers A., Macleod C. & Grishman R. (1994). “Standardization of Complement/Adjunct Distinction”. *Proteus Project Memorandum 64*. Computer Science Department. New York University.
- Mish F.C. ed. (1996). *Webster's Ninth New Collegiate Dictionary*. Merriam-Webster. Springfield, MA.
- Mitxelena, K. (1977). *Fonética Histórica vasca. 2ª edición, corregida y aumentada*. San Sebastián: Diputación de Guipuzcoa.
- Mitxelena K. (1987-). *Orotariko Euskal Hiztegia (I-XII liburukiak)*. Editorial Desclée de Brouwer. Ediciones Mensajero, Bilbo.
- Montague, R. (1970). “Pragmatics and intentional logic”. *Synthese* 22: 68-94.
- Morris hiztegia (1998). Klaudio Harluxet Fundazioa. Donostia.
- Mujika A. (1994). “Neurtu aditzaren erabilera berriaz”. *Euskaltzaindiaren* 13. biltzarra. *Euskera*, 94-3, 1023-1024.
- Odriozola J.C. (2003). “Verb-deriving processes in Basque”. In B. Oyharçabal (eds.) *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. ASJUren gehigarria. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- Oregi J. (1975). “Euskal aditzaren sailkapen jator baten bila”. *Euskera*, 359-372.
- Ortiz de Urbina J. (1989). *Parameters in the Grammar of Basque*. Studies in Generative Grammar 33. Foris, Dordrecht.
- Osa E. (1990). *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Doktoretza-tesia. EHUren Argitarapen Zerbitzua.

- Oyharçabal B. (1993). "Notion d'objet et cas absolutif en basque". *Le gré des langues*, 5, 30-49. Paris.
- Oyharçabal, B. (1993) "Verb agreement with non-arguments: On allocutive agreement" . Hualde J.L. & Ortiz de Urbina J., eds., *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 89-114.
- Perlmutter, D.M. (1978). "Impersonal Passives and the Unaccusative Hypothesis". *BLS* 4, 157-189.
- Pesetsky D. (1987). "Binding Problems with Experiencer Verbs". *Linguistic Inquiry* 18. 126-140.
- Pesetsky D. (1990). *Experiencer Predicates and Universal Alignment Principles*. Massachusetts: MIT Press.
- Pollard C. & Sag I. (1987). *An Information-Based Approach to Syntax and Semantics: Fundamentals*. Stanford: CSLI.
- Pollard C. & Sag I. (1994). *Head-Driven Phrase Structure Grammar*. The University of Chicago Press.
- Pustejovsky J. (1995). *The Generative Lexicon*. Cambridge, London: MIT Press.
- Rätsep H. (1973). "On deep situations and sentence patterns". Kiefer F. (eds.), *Trends in Soviet Theoretical Linguistics*. Dordrecht, Boston: Reidel. 105-122.
- Ravin Y. & Leacock C. (2000). *Polysemy. Theoretical and Computational Approaches*. Oxford University Press.
- Reinhart R. (1997). *Syntactic Effects of Lexical Operations: Reflexives and Unaccusatives*. Tech. Rep. OTS Working Papers in Linguistics. Utrecht.
- Retoré & Stabler (1999) "Resource logics and minimalist grammars: an introduction, with emphasis on the connections". *11th European Summer School in Logic, Language and Information, ESSLLI'99 kongresuko Resource Logics and Minimalist Grammars*.
- Rebolledo Lemus M. (2002). *Estructura sintáctica y significado verbal*. Tesina. Universidad de Santiago de Compostela.
- Rijk R.P.G. de (1988). "Basque Syntax and Universal Grammar" *II World Basque Congress. Conference on the Basque Language I*. Vitoria, 69-88. De Lingua Vasconum: Selected Writings. Supplements of the Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo" XLIII. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 251-270.
- Rijk, Rudolf P.G. de (1988). "Basque Syntax and Universal Grammar", *Euskara Biltzarra I*, 69-88.
- Rijk R.P.G. de (2003). "Euskarazko antipasiboez". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.

- Rodríguez S. & García Murga F. (2003). “Predicados ‘sustantivo + egin’ en euskara”. In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (eds.) *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika gaiak, Iker-14. Euskaltzaindia, Baiona.
- Rosen C. (1984). “The Interface between Semantic Roles and Initial Grammatical Relations”. Perlmutter D.M. & Rosen C., eds., (1984). 38-77.
- Rothstein S. (1992). “Case and NP Licensing”. *Natural Language and Linguistic Theory*, 10. 119-139.
- Saint Dizier P. (1995). *A semantic classification of French verbs based on B. Levin’s approach*. Research report. IRIT.
- Saint-Dizier P. (1996a). “Constructing verb semantic classes for French: Methods of English and its Application”. Proceedings of the Coling.
- Saint Dizier P. (1996b). Defining verb semantic classes for French and their semantic characterization”. *ALLC-ACH '96*.
- Saint-Dizier P. (eds.) (1996). *Predicative Forms in Natural Language and in Lexical knowledge bases*. International Workshop. Tolouse, France. August 1-2. Kluwer Academic Publisher, Netherlands.
- Sarasola I. (1997). “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes”. *ASJU XI*, 51-90.
- Sarasola I. (1997). *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa: Donostia.
- Sarasola K. (1988). *Caprate: Un sistema de Interpretación de Problemas en Lenguaje Natural/ Caprate: Lengoia Naturalez idatzitako problemen interpretazioarako sistema*. Doktoretza-tesia. Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Shank, R.C. (1975). *Conceptual Information Processing*. Amsterdam: Elsevier Science Publishers B.V.
- Shieber S.M. (1986). *An Introduction to Unification-Based Approaches to Grammar*. CSLI Lecture Notes 4, Stanford.
- Silverstein M. (1976). “Hierarchy of features and ergativity”. In R. M. W. Dixon (ed.), *Grammatical Categories in Australian Languages*, 112-171. Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies.
- Smith C.S. (1970). “Jespersen’s ‘Move and Change’ Class and Causative Verbs in English”. Jazayery M.A. , Palome E.C. & Winter W., eds., *Linguistic and Literary Studies in Honor of Archibald A. Hill*. Vol. 2: Descriptive Linguistics. Mouton, The Hague. 101-139.
- Speas M. (1990). *Phrase Structure in Natural Language*. Kruwer, Dordrecht.

- Talmy L. (1985). "Lexicalization patterns: semantic structure in lexical forms". Shopen T., ed., *Language Typology and Syntactic Description*. Cambridge University Press. 57-149.
- Tapanainen P. (1996). *The Constraint Grammar Parser CG-2*. Publications of the Department of General Linguistics, 27. University of Helsinki.
- Taulé, M. (1995). *Representación verbal en una Base de Conocimiento Léxico*. Ph.D. Barcelona.
- Tenny C. (1987). *Grammaticalizing Aspect and Affectedness*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Trask, R. L. (1995). "On the history of the Non-Finite Verb Forms in Basque". Hualde J. I., Lakarra J. & Trask R.L. (eds.), *Towards a history of the Basque language*. Benjamins, 207-234.
- Trask, R.L. (1990). "The -n class of verbs in basque". *Transactions of the Philosophical Society* 88 (1), 111-128.
- Uribarren P. (1992). "-le/-tzaile atzizkiak". Eskuizkribua. Euskaltzaindiaren Lexikografia sailean aurkeztua.
- Uribe-Etxebarria M. (1989). "On Noun Incorporation in Basque and Some of Its Effects for the Phrase Structure". Eskuizkribua. University of Connecticut.
- Urkia M. (1997). *Euskal Morfologiaren Tratamendu Automatikorantz*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Van Valin R.D & Lapolla J. (1997). *Syntax. Structure, Meaning and Function*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Van Valin R.D. (1993). *Advances in Role and Reference Grammar*. Amsterdam: John Benjamins Publishers.
- Vandeloise C. (1987). "La préposition à et le principe d'anticipation". *Langue Française* 76: 77-111.
- Vázquez G. & Fernández A. (2000). "Alternancias de diátesis: Estudio comparativo entre el comportamiento de los verbos en castellano e inglés. Hacia una propuesta de tipología de desajustes verbales" *X-TRACT Working Paper (Enero 2000), WP- 00/01*.
- Vázquez G. (1997). "El pronombre 'es' i la diàtesi anticausativa". *Sintagma* 9: 61-73.
- Vázquez G., Fernández A. & Martí M.A. (2000). *Clasificación verbal. Alternancias de diátesis*. Quaderns de Sintagma 3. Edicions de la Universitat de Lleida.
- Vendler Z. (1967). *Linguistics in Philosophy*. Ithaca: Cornell University Press.
- Villasante, L. (1978). *Estudios de Sintaxis Vasca*. Serie "Luis Eleizalde" 5. Oñate: Editorial Franciscana Aránzazu.

- Wechsler S. (1995). *The Semantic Basis of Argument Structure*. Center for the Study of Language and Information. Stanford, California.
- Willens D. (1981). *Syntaxe, lexique et sémantique. Les constructions verbales*. Gent: Rijksuniv. te Gent.
- Williams E. (1987). "Implicit Arguments, the Binding Theory and Control". *Natural Language and Linguistics Theory*, 5. 151-180.
- Williams E. (1994). *Thematic Structure in Syntax*. Linguistic Inquiry, Monograph Twenty-Three. MIT Press. Cambridge, Massachusetts.
- Zabala I. (1993). *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua)*. Doktoretza-tesia. Euskal Filologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zabala I. (2002). "Predicados complejos vascos". Eskuizkribua.
- Zubizarreta M.L. (1987). *Levels of Representation in the Lexicon and in the Syntax*. Dordrecht: Foris.

A ERANSKINA:
Aditzak bere *bssekin*, laburrean

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
abestu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
abestu-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
adierazi-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz; -konkr]_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
adierazi-DU-2	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea_erg; gai a konp-ela	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
afaldu-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia [-biz; +konkr]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
afaldu-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
agertu-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
agertu-DA-2	√	-	+	√	+	+	+	-	-	gaia_konp-ela; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
agertu-DA-3	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
agertu-DA-4	√√	-	+	-	+	-	+	-	-	gaia [+giz]_abs; egoera_abs	Entitate baten egoera
agertu-DU-5	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gaia [-biz]_abs ; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
agertu-DU-6	-	√	+	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
ahaztu-DA-1	√	-	-	-	+	√	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia [+giz?]_ins	Entitate baten jarduera, erreakziozkoa
ahaztu-ZAIO-2	√	-	√	-	+	+	+	-	-	gaia [-biz?]_abs; esperimentatzailea [+giz]_dat	Entitate baten jarduera, erreakziozkoa
ahaztu-DU-3	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera, erreakziozkoa
ahaztu-DU-4	-	√	-	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera, erreakziozkoa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
aldata-DA-1	√	–	+	–	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntua_abl; helburua_ala	Entitate baten kokapen- edo egoera aldaketa
aldata-DA-2	√	–	+	–	+	√	+	–	–	gai ukitua_abs; kokapena/egoera_ins	Entitate baten kokapen- edo egoera aldaketa
aldata-DU-3	√	√	+	–	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntua_abl; helburua_ala	Entitate baten kokapen- edo egoera aldaketa
aldata-DU-4	√	√	+	–	+	√	+	–	–	gai ukitua_abs; kausa_erg; kokapena/egoera_ins	Entitate baten kokapen- edo egoera aldaketa
aldata-DU-5	√	√	+	–	+	√	+	–	–	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_ins	Entitate baten jarduera: entitate bat ordezkatzea
amaitu-DA-1	√	–	+	–	+	+	+	–	–	gai ukitua? [-biz]_abs	Entitate baten egoera-aldaketa: iraupena agortzea
amaitu-DU-2	√	√	+	–	+	+	+	+	+	gai ukitua? [-biz]_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa: iraupena agortzea
amaitu-DU-3	–	√	–	–	+	+	√	–	–	kausa_erg; gai ukitu?_soz	Entitate baten egoera-aldaketa: iraupena agortzea
amaitu-DU-4	–	√	–	–	√	+	+	–	–	gai ukitua_erg; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
argitu-DU-1	√	√	+	–	+	+	+	+	–	gai ukitua_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
argitu-DU-2	–	√	+	√	+	+	+	+	–	kausa_erg; gai ukitua_konp-ela	Entitate baten egoera-aldaketa
argitu-DU-3	√	–	–	–	+	+	+	–	–	gai ukitua: egun_abs; [kausa: eguzki_erg]	Entitate baten egoera-aldaketa
argitu-DU-4	–	–	–	–	+	+	+	–	–	[gai ukitua: egun_abs]; [kausa: eguzki_erg]	Entitate baten egoera-aldaketa
aritu-DA-1	√	–	+	–	√	+	+	+	–	esperimentatzailea [+biz]_abs; jarduera_ine	Entitate baten jarduera
aritu-DA-2	√	–	+	–	+	+	+	+	–	esperimentatzailea [+biz]_abs	Entitate baten jarduera

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
asmatu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-konkr]_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
asmatu-DU-2	-	√	+	-	+	+	√	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
asmatu-DU-3	-	√	-	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia konp-ela	Entitate baten jarduera
atera-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
atera-DA-2	√	-	-	-	+	+	+	√	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria [-biz]_abl	Entitate baten sortzea
atera-ZAIO-3	√	-	√	-	+	+	+	+	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena_dat; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
atera-ZAIO-4	√	-	√	-	+	+	+	+	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria [+giz]_dat	Entitate baten sortzea
atera-DU-5	√	√	+	-	+	+	+	√	√	kausa_erg; gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
atera-DU-6	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria [+biz]_erg	Entitate baten sortzea
atera-DU-7	√	-	-	-	+	+	+	-	-	gai sortua: haize_abs; [iturria: ?_erg]	Entitate baten sortzea
atera-DIO-8	√	√	√	-	+	+	+	+	√	kausa_erg; gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena [+biz]_dat; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
aurkitu-DA-1	√	-	-	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
aurkitu-DU-2	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg; kokapena_ine	Entitate baten kokapena, eta horren esperimentazioa
aurkitu-DU-3	√√	√	-	-	+	-	-	-	-	gaia_abs; egoera_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten egoera, eta horren esperimentazioa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
baieztatu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz; -konkr]_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
baieztatu-DU-2	-	√	+	√	+	+	+	+	-	gaia konp-ela; esperientatzailea_erg	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
banandu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	-	gai ukitua_abs; gai ukitua_abl	Entitate batzuen egoera-aldaketa
banandu-DA-2	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_ine	Entitate batzuen helburuko egoera
banandu-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	√	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; gai ukitua_abl	Entitate batzuen egoera-aldaketa
banandu-DU-4	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko egoera_ine	Entitate batzuen helburuko egoera
barkatu-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]_erg; helburua [+giz]_abs	Entitate baten elkarraldatzea
barkatu-DIO-2	-	√	√	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]_erg; helburua [+giz]_dat	Entitate baten elkarraldatzea
barkatu-DIO-3	√	√	√	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]_erg; gaia [-biz]_abs; helburua [+giz]_dat	Entitate baten elkarraldatzea
bazkaldu-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia [-biz; +konkr]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
bazkaldu-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
besarkatu-DA-1	√	-	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea+esperimentatzailea [+giz]_abs	Entitate batzuen jarduera (erreziprokoa)
besarkatu-DU-2	√	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; esperimentatzailea [+biz]_abs	Entitate batzuen jarduera (erreziprokoa)
bilakatu-DA-1	√√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
bilakatu-DU-2	√√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
bete-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	helburuko kokapena_abs; gai ukitua_ins	Entitate baten kokapen-aldaketa.

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
bete-DA-2	√	–	+	–	+	+	+	–	–	gaia/gai ukitua [-konkr]_abs	Entitate baten jarduera
bete-DU-3	√	√	+	–	√	+	+	–	–	kausa_erg; helburuko kokapena_abs; gai ukitua_ins	Entitate baten kokapen-aldaketa
bete-DU-4	√	√	–	–	+	+	+	–	–	kausa/esperimentatzailea [+giz]_erg; gai ukitua/gaia [-konkr]_abs	Entitate baten jarduera
bete-DU-5	√	√	–	–	+	+	+	–	–	kausa+ gai ukitua_erg; helburuko kokapena_abs	Entitate baten kokapen-aldaketa [+holist]
bete-DU-6	–	√	–	–	+	+	+	–	–	kausa/esperimentatzailea [+giz]_erg; [gai ukitua/gaia: behar_abs]	Entitate baten jarduera
bisitatu-DU-0	√	√	–	–	+	+	+	–	–	helburuko kokapena [+giz/+lek]_abs; gai ukitua [+giz]_erg	Entitate baten kokapen-aldaketa
dedikatu-DIO-0	√	√	√	–	+	+	+	+	–	gaia [-biz]_abs; abiapuntua [+giz]_erg; helburua [+biz]_dat	Entitate baten elkarraldatzea
deitu-DU-1	√	√	–	–	+	+	+	+	√	helburua [+giz]_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg; jarduera_ala	Entitate baten jarduera (norbaiti zuzendua)
deitu-DU-2	√	√	–	–	+	+	+	–	–	jarduera_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera (norbaiti zuzendua)
deitu-DU-3	–	√	–	–	+	+	+	–	√	esperimentatzailea [+giz]_erg; jarduera_ala	Entitate baten jarduera (norbaiti zuzendua)
deitu-DU-4	√	√	–	–	+	+	+	–	–	abiapuntua [+giz]_erg; helburua_abs; ezaugarria_abs	Entitate bati ezaugarria esleitzea
deitu-DIO-5	–	√	–	–	+	+	+	√	√	abiapuntua [+giz]_erg; helburua [+giz]_dat; kokapena_abl; kokapena_ala	Entitate baten jarduera (norbaiti zuzendua), bi entitateen kokapenak azpimarratuta
deitu-DIO-6	√	√	√	–	+	+	+	–	–	abiapuntua [+giz]_erg; helburua_dat; ezaugarria_abs	Entitate bati ezaugarria esleitzea
edan-DU-1	√	√	+	–	+	+	+	+	–	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
edan-DU-2	–	√	–	–	+	+	+	+	–	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
egin-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria [+biz]_erg	Entitate baten sortzea
egokitu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	+	√	gai ukitua_abs; helburuko egoera_ala	Entitate baten egoera-aldaketa
egokitu-DA-2	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gaia_abs	Ezuste gertakizuna
egokitu-ZAIO-3	√	-	√	-				-	-	ezaugarria_abs; helburua_dat	Entitate bati ezaugarria esleitzea
egokitu-DU-4	√	√	+	-	+	+	+	+	√	kausa_erg; gai ukitua_abs; helburuko egoera_ala	Entitate baten egoera-aldaketa
egokitu-DIO-5	√	√	√	-	+	+	+	-	-	abiapuntua_erg; ezaugarria_abs; helburua_dat	Entitate bati ezaugarria esleitzea
egon-DA-1	√	-	-	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
egon-DA-2	√√	-	-	-	-	+	+	-	-	gaia_abs; egoera_abs	Entitate baten egoera
ehizatu-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia [+biz]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
ehizatu-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
ekarri-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena	Entitate baten kokapen-aldaketa (hona=deiktikoa)
ekarri-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria_erg	Entitate baten sortzea
ekarri-DU-3	√	√	-	-	√	+	+	-	-	edukia_abs; edukitzailea_erg; kokapena_ine	Entitate baten edukitzea
ekarri-DU-4	√	√	-	-	+	+	+	-	√	gai ukitua_abs; kausa [+giz]_erg; helburuko egoera_ala	Entitate baten egoera -aldaketa
elkartu-DA-1	√	-	-	-	+	+	√	+	-	gai ukitua_abs; gai ukitua_soz	Entitate batzuen egoera-aldaketa
elkartu-DA-2	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_ine	Entitate batzuen helburuko egoera
elkartu-ZAIO-3	√	-	√	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; gai ukitua_dat	Entitate batzuen egoera-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
elkartu-DU-4	√	√	+	-	+	+	√	+	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; gai ukitua_soz	Entitate batzuen egoera-aldaketa
elkartu-DU-5	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko egoera_ine	Entitate batzuen helburuko egoera
eman-DU-1	√	√	√	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; abiapuntua_erg; helburua_dat	Entitate baten elkarraldatzea
eman-DU-2	√	√	-	-	√	+	+	-	-	denbora_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg; jarduera_ine	Entitate baten jarduera; denbora-epe mugatu baten barruan
eman-DU-3	-	-	-	√	-	-	-	-	-	gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera; gertakizun baten inguruko ustea adierazten duena.
entzun-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_abs	Entitate baten jarduera
entzun-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
entzun-DU-3	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_ela-konp	Entitate baten jarduera
erabili-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
eragin-DU-1	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria_erg; kokapena_ine	Entitate baten sortzea
eragin-DIO-2	-	√	√	-	+	+	+	-	-	iturri bitartekoa?_erg; [gai sortua: sentipen bat?_abs]; iturria [+biz]?_dat	Entitate baten sortzea
eraman-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
eraman-DU-2	√	√	-	-	√	+	+	-	-	edukia [-biz]_abs; edukitzailea_erg; kokapena_ine	Entitate bat edukitzea
eraman-DU-3	√	√	-	-	√	+	+	-	-	denbora_abs; esperimentatzailea_erg; jarduera_ine	Entitate baten jarduera; denbora-epe baten barruan
erantzun-DU-1	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea_erg; gaia_konp-ela;	Entitate baten jarduera

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
erantzun-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea_erg; helburua_dat	Entitate baten jarduera
erre-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
erre-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
erre-DU-3	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; [tabako_abs]	Entitate baten jarduera
erreparatu-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia [-biz]_abs;	Entitate baten jarduera; esfortzuaz
erreparatu-DU-2	-	√	-	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera; esfortzuaz
erreparatu-DU-3	-	√	-	-	√	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia [-biz]_ine	Entitate baten jarduera; esfortzuaz?
erreparatu-DIO-4	-	√	√	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_dat	Entitate baten jarduera; esfortzuaz?
esan-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia [-konkr]_abs	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
esan-DU-2	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_ela-konp	Entitate baten jarduera, adierazpenezkoa
esan-DIO-3	√	√	√	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]_erg; helburua_dat; ezaugarria_abs	Entitate bati ezaugarria esleitzea
eskaini-DU-0	√	√	√	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; abiapuntua_erg; helburua_dat	Entitate baten elkarraldatzea
eskatu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
eskatu-DU-2	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
etorri-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa (hona=deiktikoa)
etorri-DA-2	√	-	-	-	+	+	+	√	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria [-biz]_abl	Entitate baten sortzea
etorri-DA-3	√	-	-	-	√	+	+	-	-	edukia [-biz]_abs; edukitzailea [-biz]_ine	Entitate bat edukitzea

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
etorri-DA-4	√√	-	-	-	+	-	-	-	-	gaia_abs; ezaugarria_abs	Entitate baten deskribapena
etorri-ZAIO-5	√	-	√	-	+	+	+	+	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria [+biz]_dat	Entitate baten sortzea
eutsi-DU-1	√	√	-	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera; esfortzuzkoa
eutsi-DIO-2	-	√	√	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea_erg; gaia_dat	Entitate baten jarduera; esfortzuzkoa
existitu-DA-1	√	-	-	-	+	-	-	-	-	gaia_abs	Entitate baten izatea/existitzea
existitu-DU-2	-	√	-	-	+	-	-	-	-	gaia_erg	Entitate baten izatea/existitzea
ezkondu-DA-1	√	-	+	-	+	+	√	-	+	gai ukitua [+giz]_abs; gai ukitua [+giz]_soz	Bi entitateren egoera-aldaketa
ezkondu-DU-2	√	√	+	-	+	+	√	-	-	gai ukitua [+giz]_abs; kausa [+giz]_erg; gai ukitua [+giz]_soz	Bi entitateren egoera-aldaketa
flotatu-DU-0	-	√	-	-	√	+	+	-	-	gaia_erg; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
gainditu-DU-0	√	√	-	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
gertatu-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
gertatu-DA-2	√√	-	+	-	+	+	+	-	-	gaia [-konkr]_abs; egoera_abs	Entitate baten egoera
gosaldu-DU-0	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
grabatu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	+	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
grabatu-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	+	+	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
hartu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai_ukitua_abs; kausa [+giz]_erg; abiapuntuko kokapena_abl	Entitate baten kokapen-aldaketa
hartu-DU-2	√	√	-	-	√	+	+	-	-	edukia_abs; edukitzailea_erg; kokapena_ine	Entitate bat edukitzea

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
haserretu-DA-1	√	-	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [+biz]_abs; kausa_soz	Entitate baten egoera (psikologikoa)ren aldaketa
haserretu-DU-2	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [+biz]_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera (psikologikoa)ren aldaketa
hasi-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua [-biz, -konkr]_abs	Entitate baten egoera-aldaketa; iraupenaren hasiera
hasi-DA-2	√	-	-	-	√	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; jarduera_ine	Entitate baten jardueraren hasiera
hasi-DA-3	√	-	-	-	+	+	√	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; jarduera_soz	Entitate baten jardueraren hasiera
hasi-DU-4	√	√	-	-	+	+	+	+	-	gai ukitua [-biz, -konkr]_abs; kausa [+giz]_erg	Entitate baten egoera-aldaketa; iraupenaren hasiera
hautatu-DU-0	√	√	-	+	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
hautsi-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua [-biz]_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
hautsi-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua [-biz]_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
hazi-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
hazi-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
hil-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [+biz]_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
hil-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	kausa_erg; gai ukitua [+biz]_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
hornitu-DA-1	√	-	+	-	+	√	+	+	-	abiapuntuko kokapena_abs; gai ukitua_ins	Entitate baten kokapen-aldaketa
hornitu-DU-2	√	√	+	-	+	√	+	-	-	abiapuntuko kokapena_abs; kausa [+giz]_erg; gai ukitua_ins	Entitate baten kokapen-aldaketa
hornitu-DU-3	√	√	-	-	+	+	+	-	-	abiapuntuko kokapena_abs; kausa+gai ukitua_erg	Entitate baten kokapen-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
hustu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	-	-	helburuko kokapena_abs	Entitate baten kokapen-aldaketa
hustu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	helburuko kokapena_abs; kausa_erg	Entitate baten kokapen-aldaketa
hustu-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	+	+	gai ukitua [-biz; +konkr]_abs; kausa [+giz]_erg	Entitate baten kokapen-aldaketa
igo-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntua / bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
igo-DA-2	√√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; neurria_abs	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
igo-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntua / bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
igo-DU-4	√√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; neurria_abs	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
igo-DU-5	√	√	-	-	+	+	+	+	-	bidea_abs; gai ukitua [+biz]_erg	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
ikasi-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	jarduera_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
ikasi-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	-	-	[jarduera:batxillergo/ikasgai_abs]; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
ikasi-DU-3	-	√	-	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+biz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
ikasi-DU-4	-	√	-	-	√	+	+	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg; jarduera_ine	Entitate baten jarduera
ikusi-DU-1	√	-	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_abs	Entitate baten jarduera
ikusi-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
ikusi-DU-3	-	√	-	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_ela-konp	Entitate baten jarduera
irakin-DU-0	-	√	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [-biz, +konkr]_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
irakurri-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
irakurri-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
irakurri-DU-3	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
iraun-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	-	-	denbora_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera; epe batean
iraun-DU-2	-	√	+	-	√	+	+	-	-	esperimentatzailea_erg; denbora_ine	Entitate baten jarduera; epe batean
iraun-DU-3	-	√	+	-	+	√	+	-	-	esperimentatzailea_erg; denbora_ins	Entitate baten jarduera; epe batean
iritzi-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
iritzi-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gai ukitua_erg; helburua_abs	Entitate baten kokapen-aldaketa
isildu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
isildu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
isuri-DA-1	√	-	-	-	+	+	+	√	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria [-biz]_abl	Entitate baten sortzea
isuri-DA-2	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua [-biz]_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
isuri-DU-3	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gai sortua [-biz]_abs; iturria_erg	Entitate baten sortzea
isuri-DU-4	√	√	+	-	+	+	+	+	√	gai ukitua [-biz]_abs; kausa [+biz]_erg; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
izan-DA-1	√	-	-	-	√	+	+	-	-	gaia_abs; kokapena_ine	Entitate baten kokapena
izan-DA-2	√√	-	-	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; ezaugarria_abs	Entitate baten deskribapena
izan-DA-3	-	-	-	√	+	+	+	-	-	gaia_ela-konp; ezaugarria_abs	Entitate baten deskribapena
izan-DU-4	√	√	-	-	+	+	+	-	-	edukitzailea_erg; edukia_abs	Entitate bat edukitzea
jaitsi-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntua/bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jaitsi-DA-2	√√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; neurria_abs	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jaitsi-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntua/bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jaitsi-DU-4	√√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; neurria_abs	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jaitsi-DU-5	√	√	-	-	+	+	+	+	-	bidea_abs; gai ukitua_erg	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jan-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
jan-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+biz]_erg	Entitate baten jarduera
jarri-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
jarri-DA-2	√√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_abs	Entitate baten egoera-aldaketa
jarri-ZAIO-3	√	-	√	-	+	+	+	-	-	gai sortua [-konkr]_abs; iturria [+giz]_dat	Entitate baten sortzea
jarri-DU-4	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
jarri-DU-5	√√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko egoera_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa
jarri-DIO-6	√	√	√	-	+	+	+	-	-	ezaugarria_abs; abiapuntua [+giz]_erg; helburua_dat	Entitate bati ezaugarria esleitzea
jasan-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
jaso-DU-1	√	√	+	+	+	+	+	√	√	kausa_erg; gai ukitua_abs; helburua_ala; abiapuntua/bidea_abl	Entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa (norabide batean)
jaso-DU-2	√	√	+	+	+	+	+	√	-	helburua [+giz]_erg; gaia [-biz]_abs; abiapuntua_abl	Entitate baten elkarraldatzea
jaso-DU-3	√	√	-	+	√	+	+	-	-	edukitzailea_erg; edukia_abs; kokapena_ine	Entitate bat edukitzea
jo-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera: doinu bat ekoiztea
jo-DU-2	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [-giz]_erg	Entitate baten jarduera: doinu bat ekoiztea
jo-DU-3	-	√	+	-	+	+	+	-	-	[gaia: musika_abs]; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera: doinu bat ekoiztea
jo-DU-4	-	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia [-konkr]_abs; [esperimentatzailea: kanpai_erg]	Entitate baten jarduera: doinu bat ekoiztea
jo-DU-5	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera: kolpekatze-jarduera
jo-DU-6	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera: kolpekatze-jarduera
jo-DU-7	-	√	+	-	√	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia [+konkr]_ine	Entitate baten jarduera: kolpekatze-jarduera
jo-DU-8	-	√	-	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs, abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
jo-DU-9	√√	-	-	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]; ezaugarria_abs; helburua_dat	Entitate bati ezaugarria esleitzea
jo-DIO-10	√	√	√	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz: kolpea]_abs; esperimentatzailea_erg; gaia/helburua?_dat	Entitate baten jarduera: kolpekatze-jarduera

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
joan-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
joan-ZAIO-2	√	-	√	-	+	-	-	+	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena [+biz]_dat; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
joan-ZAIO-3	√	-	√	-	+	+	+	+	-	edukia [-biz, -konkr]_abs; edukitzailea_dat	Entitate baten ezaugarri-agortzea, desagertzea, ez-edukitzea
joan-ZAIO-4	√√	-	√	-	+	+	+	-	-	ezaugarria_abs; gaia/helburua?_dat	Entitate bati ezaugarria esleitzea
jokatu-DA-1	√	-	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz] + esperimentatzailea [+giz]_abs	Entitate batzuen jarduera
jokatu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; jarduera_abs	Entitate baten jarduera
jokatu-DU-3	-	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; [jarduera: partida_abs]	Entitate baten jarduera
jokatu-DU-4	-	√	-	-	√	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; jarduera_ine	Entitate baten jarduera
jokatu-DU-5	√	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; modua_abs	Entitate baten jarrera
jokatu-DU-6	-	√	-	-	+	√	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; modua_ins	Entitate baten jarrera
jolastu-DA-1	√	-	-	-	√	+	√	-	-	esperimentatzailea [+biz]_abs; jarduera_ine; esperimentatzailea [+biz]_soz	Entitate batzuen jarduera
jolastu-DU-2	-	√	-	-	√	+	√	-	-	esperimentatzailea [+biz]_erg; jarduera_ine; esperimentatzailea [+biz]_soz	Entitate batzuen jarduera
kezkatu-DA-1	√	-	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [+giz]_abs; kausa_ins	Entitate baten egoera (psikologikoa)ren aldaketa
kezkatu-DU-2	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua [+giz]_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera (psikologikoa)ren aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
kokatu-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
kokatu-DU-2	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
konparatu-DU-0	√	√	-	-	+	+	√	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_soz	Entitate baten jarduera beste entitate batzuekiko
konturatu-DA-1	√	-	-	-	+	√	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia [-konkr]_ins	Entitate baten jarduera; erreakziozkoa
konturatu-DA-2	√	-	-	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera; erreakziozkoa
landatu-DU-1	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa [+giz]_erg; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
landatu-DU-2	√	√	+	-	+	√	+	-	-	helburuko kokapena_abs; kausa [+giz]_erg; gai ukitua_ins	Entitate baten kokapen-aldaketa.
landu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
laztandu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
loratu-DA-0	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai sortua [-konkr]_abs	Entitate baten sortzea
lortu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
mintzatu-DA-1	√	-	-	-	+	√	√	+	-	abiapuntua [+giz]_abs; gaia_ins; helburua [+giz]_soz	Entitate baten elkarraldatzea; adierazpenezkoa
mintzatu-ZAIO-2	√	-	√	-	+	√	+	+	-	abiapuntua [+giz]_abs; gaia_ins; helburua [+giz]_dat	Entitate baten elkarraldatzea; adierazpenezkoa
moztu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia [-biz]_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
mugitu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
mugitu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntuko kokapena / bidea_abl; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
nahastu-DA-1	√	-	+	-	+	+	√	-	-	gai ukitua_abs; gai ukitua_soz	Entitate batzuen egoera-aldaketa
nahastu-DA-2	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs	Entitate baten egoera-aldaketa (bere baitan)
nahastu-DU-3	√	√	+	-	+	+	√	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; gai ukitua_soz	Entitate batzuen egoera-aldaketa
nahastu-DU-4	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg	Entitate baten egoera-aldaketa (bere baitan)
onartu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
onartu-DU-2	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
oroitu-DA-1	√	-	-	-	+	√	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia_ins	Entitate baten jarduera
oroitu-DA-2	√	-	-	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
oroitu-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	-	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
oroitu-DU-4	-	√	+	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
otu-ZAIO-0	-	-	√	√	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_dat; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
pasatu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntua/bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten kokapen- nahiz egoera-aldaketa
pasatu-DA-2	√	-	+	-	+	+	+	-	-	gaia [-konkr]_abs	Entitate baten jarduera, denbora epe baten barruan
pasatu-DU-3	√	√	+	-	+	+	+	√	√	kausa_erg; gai ukitua_abs; abiapuntua/bidea_abl; helburua_ala	Entitate baten kokapen- nahiz egoera-aldaketa

ADITZA bere bssekin	abs	erg	dat	ela	ine	ins	soz	abl	ala	KASU AZPIKATEGORIZATUEN OSAGAI SEMANTIKOAK ETA HAUTAPEN- MURRIZTAPENAK	BSSAREN BALIO SEMANTIKOA
pasatu-DU-4	√	√	-	-	+	+	+	-	-	gai ukitua_erg; bidea_abs	Entitate baten kokapen-aldaketa
pasatu-DU-5	√	√	-	-	+	+	+	-	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia [-konkr]_abs	Entitate baten jarduera, denbora epe baten barruan
pasatu-DIO-6	√	√	√	-	+	+	+	-	-	abiapuntua [+giz]_erg; gaia [-biz]_abs; helburua [+giz]_dat	Entitate baten elkarraldatzea
sartu-DA-1	√	-	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
sartu-DA-2	√	-	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; abiapuntuko kokapena / bidea; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
sartu-DU-3	√	√	+	-	√	+	+	-	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko kokapena_ine	Entitate baten kokapen-aldaketa
sartu-DU-4	√	√	+	-	+	+	+	√	√	gai ukitua_abs; kausa_erg; abiapuntuko kokapena / bidea; helburuko kokapena_ala	Entitate baten kokapen-aldaketa
topatu-DA-1	√	-	-	-	+	+	√	+	-	esperimentatzailea [+giz]_abs; gaia_soz	Entitate baten jarduera
topatu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_abs;	Entitate baten jarduera
ukitu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea_erg	Entitate baten jarduera
ulertu-DU-1	√	√	+	-	+	+	+	+	-	gaia_abs; esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
ulertu-DU-2	-	√	+	-	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg	Entitate baten jarduera
ulertu-DU-3	-	√	+	√	+	+	+	+	-	esperimentatzailea [+giz]_erg; gaia_konp-ela	Entitate baten jarduera
zeharkatu-DU-0	√	√	+	-	+	+	+	+	-	bidea_abs; gai ukitua_erg	Entitate baten kokapen-aldaketa
zintzilikatu-DA-1	√	-	+	-	+	+	+	√	-	gai ukitua_abs; helburuko kokapena_abl	Entitate baten kokapen-aldaketa
zintzilikatu-DU-2	√	√	+	-	+	+	+	√	-	gai ukitua_abs; kausa_erg; helburuko kokapena_abl	Entitate baten kokapen-aldaketa

B ERANSKINA:

Euskarri elektronikoan sortu ditugun baliabideak
lortzeko modua

- Aditzekin egindako datu-basea.

Interneten atzigarri dagoenean, ondoko helbidean egongo da:

http://ixa.si.ehu.es/datu-baseak/aditzen_datu-basea.html

- *Adibide mehategia: Euskaldunon Egunkariko* esaldietan aditzak eta inguruko Kasuak kontsultatzeko aplikazioa:

<http://sisx03.si.ehu.es/tresnak/sx/ebakie.html>

- Hitz edo lema batek corpusean dituen agerraldiak automatikoki bistaratzeko eta modu grafiko erosoan ikusteko aplikazioa:

<http://ixa2.si.ehu.es/~jiaalari/cgi-bin/swish-kwic.cgi>

- C eranskina: 100 aditzen azterketa zehatza

http://ixa.si.ehu.es/jibalroi/100_aditzen_azterketa_zehatza.html

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL FILOLOGIA SAILA

**Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi
partzialetik sintaxi osorako bidean.**

100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta
metodo automatikoak baliatuz.

**C ERANSKINA:
100 aditzen azterketa zehatza**

Izaskun Aldezabal Roteta

Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkezturiko

TESIA

Donostia, 2004ko urtarrila



EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean.

100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta
metodo automatikoak baliatuz.

C ERANSKINA: 100 aditzen azterketa zehatza

Izaskun Aldezabal Rotetak Patxi
Goenaga Mendizabalen eta Kepa
Sarasola Gabiolaren zuzendaritzapean
egindako tesia, Euskal Herriko
Unibertsitatean Euskal Filologian
Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2004ko urtarrila

Eranskin honetan aurkezten duguna aditzak lantzeko eraiki dugun datu-basearen parafrasia da. Datu-base batek ematen dituen abantaileri esker, aukera dago eremu desberdinen arabera edozein galdera egiteko; nahi den eremuaren arabera multzoak egiteko eta abar. Ordea, idatzizko parafrasia egiterakoan, aukera bat egitea ezinbestekoa da, eta guk horietako bat dakargu hona.

Hala, aditzak multzo zabalagotan aztertzearen eta erabili ohi den sailkapen-ereduari jarraiki, aditzek onartzen dituzten aditz laguntzailearen araberrako sail nagusiak egin ditugu hasteko. Sail horiek proposatzeko, tesiko VI.4.1 puntuan ematen diren datu orokorretan oinarritu gara.

Multzo horien barruan, aditz laguntzaile bakoitzeko *bss* bat dutenak batetik, eta aditz laguntzaile bakoitzeko *bss* bat baino gehiago dutenak bestetik bereizi ditugu (hala dagokionean beti ere). *Bss* bat baino gehiago dituzten aditzen artean, bi multzo bereizi ditugu: A multzoan, *bss* guztiak elkarren artean alternantziak osatzen dituzten aditzak sailkatu digutu, eta B multzoan, orotariko *bss*ak dituztenak. Gerta daiteke zenbait kasutan multzo bakarra egotea (hots A edo B), *bss* guztiak direlako edo alternantzien aldaerak, edo orotariko *bss*ak. A multzoan, batzuetan, azpimultzo txikiagoak egin ditugu, orokortzeko moduko ezaugarriak dituztelako; gainontzean, banan-banan azertu ditugu.¹

Hauxe izango da aditz-*bss* bakoitza azaltzeko erabiliko dugun eskema:

- Kasu azpikategorizatuak.
- Kasu onartugabeak.
- Kasu onartuak.
- Hauek aipatu ostean, azalpen luze bat emango dugu, *bss* bakoitza modu horretan markatzeko arrazoiak emanez; hots, *bss*ari eman diogun balio semantikoa eta Kasu bakoitzari lotu diogun osagai semantikoa arrazoitzeko. Zeregin honetan, sintagmen guneetan ageri diren entitateen tasun semantikoak aipatuko ditugu, askotan horiek baldintzatzen dutelako zenbait Kasuren presentzia (alternantzien azterketan ikusi dugun bezala), aditzaren balio semantikoa eta, honenbestez, Kasuen osagai semantikoak. Azalpen hauetan adibideak tartekatuko ditugu², eta gehienetan azalpenen aurretik jarriko ditugu.

¹ Nahiz eta aditz bakoitzaren *bss*ak datu-basean ekarri-1, ekarri-2... bezala agertu, gure azalpenetan laguntzailea erantsiko diogu etiketa horri, *bss*aren jokaera errazago irudikatuzko. Bestalde, elkarren artean alternantzia diren *bss*ak batzuetan batera aipatzen ditugu, eta horrelakoetan ‘/’ batez elkartu ditugu. Adib.: hautsi-DA-1/hautsi-DU-2.

² XX. mendeko euskararen corpus estatistikoko adibideak bereizteko EusCor laburtzapena erabili dugu, eta *Egunkari*koak bereizteko, EG. Esan behar dugu, ez ditugula aditz bakoitzeko agerpen guzti-guztiak kontuan izan. Aditz jakin bakoitzerako adierazgarria iruditu zaigun adibide kopurua erabili dugu. Hala, 1667 adibide baliatu ditugu tesi-lanean; eskuartean, berriz, askozaz gehiago izan ditugu. Hala ere, esan dugun bezala, aditz batzuetan adibide gutxi aurkitu ditugu.

- Azalpenaren ostean, aztertutako *bssen* balio semantikoari buruzko laburpentxo bat egingo dugu. Gainontzeko testutik bereiztearren, fondo grisa jarriko diogu.
- Horren ondoren, *bss*etako Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak emango ditugu laburki: Kasu azpikategorizatu bakoitza osagai semantikoari lotuta, eta beltzez nabarmenduta.
- Azkenik, aditz bakoitzaren bukaeran, VI.3 puntuan aurkeztutako datu estatistikoak emango ditugu. Hots: aditz bakoitzarekin agertu diren laguntzaile moten ehunekoa —grafiko biribil batean—; guk aztergai hartu ditugun Kasuek aditz bakoitzarekin izan duten maiztasuna —zutabez osatutako grafiko batean—; eta azkenik, laguntzaile bakoitzarekin agertu diren Kasuen maiztasuna —koadro batean—. VI.3 puntuan ohartarazi dugun bezala, maiztasun hauek ez dira zehazki *bss* bakoitzerako proposatu diren eskema sintaktikoei dagokiena.

Bestalde, erabiliko dugun terminologiari buruzko zenbait ohar egin beharrean gaude: tesian zehar ikusi dugu *argumentu* kontzeptua ez dela kontu guztiz argia, eta batez ere Kasu gramatikalekin lotu ohi dela. Ondorioz, *bss*ak azaltzerakoan *beharrezko osagaiez*, *osagai azpikategorizatuez*, *parte-hartzaile nagusiez* edota *Kasu azpikategorizatuez* mintzatuko gara. Funtzio sintaktikoei ere gutxitan egingo diegu erreferentzia (hau da, subjektu, objektu, zehar objektu eta abarri), gure interesa Kasuen gauzapenean baitago. Izatez, funtzioen gaia guztiz zedarrituta ez dagoela uste dugu, batez ere, subjektu eta objektu (zuzen) ez diren elementuen kasuan. Subjektu eta objektuak normalean Kasu eta rol semantiko/tematiko jakinekin lotzen dira, eta orduan kontzeptu bata edo bestea (funtzio sintaktikoa, Kasua edo rola) berdin erabili ohi da osagai sintagmatiko bati erreferentzia egiteko. Ordea, ikusiko dugu, erlazio hori ez dela beti hain zuzena, eta orduan sortzen direla funtzio sintaktikoen, rol tematikoen eta Kasuen arteko nahasteak, eta ondorioz, bereizteko beharra. Bestetik, datu estatistikoen iruzkinak egin ditugunean, *nabarmen* adjektiboa askotan erabili dugu, maiztasun handienarekin agertu diren Kasuei erreferentzia egiteko.

Azkenik, tesi-txosteneko zenbait ataletan egin dugun bezala, testua ez korapilatzearen, Kasuak laburduren bidez adieraziko ditugu. Eta bestalde, askotan sintagmen guneko entitateei erreferentzia egingo diegunez, hemen ere “ABS entitatea” gisako aposizioak erabiliko ditugu. Gogoratzeko, hauexek dira erabiliko ditugun laburdurak: ABS, ERG, DAT, ELA_KONP, INE, INS, SOZ, ABL, ALA eta LOK.

ERANSKINAREN ESKEMA

1 DU laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak	5
1.1 <i>Bss</i> bakarrekoak.....	5
<i>bisitatu, egin, erabili, eskaini, flotatu, gaintitu, gosaldtu, hautatu, irakin, jasan, konparatu,</i> <i>landu, laztandu, lortu, moztu, ukitu, zeharkatu</i>	5
1.2 <i>Bss</i> bat baino gehiago duten aditzak.....	40
1.2.1 Bi <i>bss</i> dituztenak.....	41
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia.....	41
A.1 Objektu inespezifikoaren alternantzia dutenak.....	41
<i>abestu, afaldu, bazkaldu, edan, ehizatu, grabatu, jan</i>	41
A.2 ABSren eta ELA_KONPen arteko alternantzia dutenak <i>gai</i> osagaian.....	48
<i>adierazi, baieztatu, eskatu, onartu</i>	49
A.3 ELA_KONPen inespezifikazioaren alternantzia.....	55
<i>erantzun</i>	55
A.4 <i>Spray/load</i> alternantzia dutenak.....	58
<i>landatu</i>	58
B taldea: <i>bssak</i> balio semantiko desberdinak.....	60
<i>hartu</i>	60
1.2.2 Hiru <i>bss</i> dituztenak.....	66
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia.....	66
A.1 Objektu inespezifikoaren alternantzia, eta ABSren eta ELA_KONPen arteko alternantzia dutenak.....	66
<i>entzun, ikusi, irakurri, ulertu</i>	66
A.2 ABSren, INSen eta INEren arteko alternantzia dutenak <i>denbora</i> osagaian..	73
<i>iraun</i>	73
A.3 ABSren eta ELA_KONPen arteko alternantzia, eta <i>jarduera</i> osagaiaren inespezifikazio-alternantzia dutenak.....	76
<i>asmatu</i>	76
B multzoa: <i>bssak</i> balio semantiko desberdinak.....	79
<i>eman, eraman, jaso</i>	79
1.2.3 Lau <i>bss</i> dituztenak.....	94
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia.....	94
<i>argitu, ikasi</i>	94
B multzoa: <i>bssak</i> balio semantiko desberdinak.....	101
<i>ekarri</i>	101
2 DA laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak	108
2.1 <i>Bss</i> bakarrekoak.....	108
<i>loratu</i>	109
2.2 <i>Bss</i> bat baino gehiago duten aditzak.....	111
A multzoa: <i>bss</i> guztiak elkarren artean alternantzia.....	111
<i>aritu (2), konturatu (2)</i>	111
B multzoa: <i>bssak</i> balio semantiko desberdinak.....	117
<i>egon (2), gertatu (2)</i>	117
3 ZAIO laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak	125
<i>otu</i>	125
4 DIO laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak	127
<i>dedikatu</i>	127

5 DA eta DU aditz laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak	129
5.1 Bi <i>bss</i> dituztenak	129
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia	129
A.1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa dutenak	130
A.1.1 Osagai lokatiborik azpikategorizatzen ez dutenak	130
<i>hautsi, hazi, hil, isildu</i>	130
A.1.2 Osagai lokatibo bat azpikategorizatzen dutenak	135
<i>kokatu, mugitu, zintzilikatu</i>	135
A.2 Alternantzia kausatibo/inkoatibo arrunta ez dutenak	142
<i>kezkatu, haserretu</i>	142
A.3 ERGen eta ABSren arteko alternantzia dutenak	147
<i>existitu, jolastu</i>	147
A.4 Bestelakoak	152
<i>besarkatu, bilakatu, ezkondu, iritsi, topatu</i>	152
5.2 Bi <i>bss</i> baino gehiago dituzten aditzak	166
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia	166
<i>erre (3), hornitu (3), hustu (3), igo (5), jaitsi (5), oroitu (4), sartu (4)</i>	166
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	189
<i>agertu (6), aldatu (5), amaitu (4), aurkitu (3), banandu (4), bete (6), hasi (4) isuri (4), izan (4), jokatu (6), nahastu (4)</i>	189
6 DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak	238
6.1 Bi <i>bss</i> dituztenak	238
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia	238
<i>eragin, eutsi</i>	238
6.2 Bi <i>bss</i> baino gehiago dituzten aditzak	244
A multzoa: <i>bss</i> guztiak elkarren artean alternantzia	244
<i>barkatu (3), erreparatu (4)</i>	244
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	249
<i>deitu (6), esan (3), jo (10)</i>	249
7 DA eta ZAIIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak	269
7.1 Bi <i>bss</i> dituztenak	269
A multzoa: <i>bssak</i> elkarren artean alternantzia	269
<i>mintzatu</i>	269
7.2 Bi <i>bss</i> baino gehiago dituztenak	272
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	272
<i>etorri (5), joan (4)</i>	272
8 DA, DU eta ZAIIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak	291
A multzoa: <i>bss</i> guztiak elkarren artean alternantzia	291
<i>ahaztu (4)</i>	291
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	294
<i>elkartu (5)</i>	294
9 DA, DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak	298
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	298
<i>pasatu (6)</i>	298
10 DA, DU, ZAIIO eta DIO laguntzaileak onartzen dituzten aditzak	307
B multzoa: orotariko <i>bssak</i> dituztenak	307
<i>atera (8), egokitu (5), jarri (6)</i>	307
Aditzen indizea	328

1 DU laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak

1.1 Bss bakarrekoak

bisitatu, egin, erabili, eskaini, flotatu, gainditu, gosaldtu, hautatu, irakin, jasan, konparatu, landu, laztandu, lortu, moztu, ukitu, zeharkatu

Bisitatu

bisitatu-DU-0³

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (1) Halere, noizean behin, ama bisititzen jarraitu zuen. [HARK] (EusCor)
- (2) Horietan ohi diren erosketak egin, ezinbesteko argazkiak atera eta Times Square, Dorre Bizkiak, Askatasunaren Estatua eta Wall Street bisitatuko ditu. [HARK] (EusCor)
- (3) - Zure asmatuak guztiek halako fundamentua baldin badute, psikiatra bat bisitatu beharko zenuke. [ZUK] (EusCor)
- (4) - Kukuak, bere arrautzak jartzeko asmotan denean, beste txorien habiak bisititzen ditu eta goxoenak iruditzen zaizkionetan uzten ditu bere arrautzak. (EusCor)
- (5) Baina lehenago, muga pasatu bezain laster, Pirinioen bestaldean, Donibane Garazin, bere adiskide Alejandro Zaballaren etxea bisititzen du [HARK], non Tomas Meabe aurkitzen den egun batzuk pasatzen. (EusCor)

Adibideetan ikus daitekeenez, **ERG**ek ekintza burutzen duen izaki bizidun —ia gehienetan gizakia— adierazten du. **ABS**k, izaki bizidun horrek “bisititzen” duen gizakia edota lekua, adierazten du, nolabait *helburuko kokapen* modura ikus litekeena. Halakoxetzat joz gero, berezko objektua (alegia, semantikoki legokioketena) aditzaren barruan txertatuta dagoela pentsatu behar genuke (*bisita*, hain zuzen). Hala, ekintzaren egile den hori lekuz aldatzen den entitate gisa ikus dezakegu; gai desplazatu gisa, alegia.

³ Aditzek *bss* bakarrik dutenean 0 homografoa erabiliko dugu. Aditz batek *bss* bat baino gehiago duenean, berriz, 1 homografotik hasiko gara, eta horrek esan nahiko du aditzak *bss* bat baino gehiago dituela. Adierazpide hau jarraitzen dugu EDBLn sarrerak identifikatzeko, eta horregatik segitu dugu hemen bide bera.

INEk, ekintza gertatzen den lekuari egiten dio erreferentzia (5). Hala ere, ABSk *helburuko kokapena* adierazten duenez, INE agertzea ez da oso ohikoa. Horretaz gain, adibideetan agertu ez bazaigu ere, INEk, ERG entitatea ekintza egiterakoan dagoen modua ere adieraz dezake (adibide asmatua: *aldarte txarrean bisitatu zuen ama*).

INSek eta SOZek ere modua adieraziko lukete, baina honakoan modu hori izaera desberdinekoa izan daiteke. INSek, ERG entitateak ekintza egitekorakoan erabiltzen duen baliabidea adieraz dezake (hemen ere ez dugu adibiderik aurkitu, baina asmatuetara joaz: *trenez/kotxez... bisitatu*). Baina horretaz gain, INEk bezalaxe, ERG entitateak ekintza egiteko modua ere adieraz dezake (adibide asmatuak: *amorru biziz / gogoz... bisitatu*). SOZek, berriz, badirudi aditz honetan ERG entitatea egoteko modua adierazteko joera handiagoa duela (INSekin erabilitako adibide beretara joaz: *amorru biziarekin / gogoarekin bisitatu*), askotan modu hau “konpainiazkoa” dela (adibide asmatua: *amarekin bisitatu* → “amarekin dagoela bisitatu”).


Bisitatuak, beraz, semantikoki, entitate batek norabait egiten duen desplazamendua adierazten duela esango dugu.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

bisitatu-DU-0: helburuko kokapena [+giz/+lek]_ABS; gai ukitua [+giz]_ERG

Datu estatistikoak:

Datuek agerian jartzen dutenez, ERG eta ABS dira maiztasun handienekoak aditz honetan:



DA	14,14%	DA-ala	10,40%	DA-abl	1,33%	DA-abs	100,00%	DA-komp	4,00%	DA-ine	20,80%						
DU	78,74%	DU-ins	1,63%	DU-ala	2,92%	DU-abl	1,29%	DU-abs	65,28%	DU-komp	5,51%	DU-ine	7,47%	DU-erg	100,00%		
DIO	7,21%	DIO-ins	18,02%	DIO-ala	1,06%	DIO-abl	1,06%	DIO-abs	32,16%	DIO-komp	3,18%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	20,14%	DIO-erg	100,00%

egin-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (6) Bien bitartean, kanalaren bestaldean, 1799an, Chaussier frantsesak —honek ere **egiten** zituen eta bere ikerketa fotokimikoak— argazki-finkadura erdietsi zuen sosa hiposulfitoaren bitartez, honekin zilar erreduzitua ez zen oro eliminatzea lortzen zuen eta. (EusCor)
- (7) Baina oraindik hogeit hamar urte itxoin beharko zen Historiako lehen argazkia **egingo** zuen gizonak —eta momentu hartan gerra egiten okupatua zegoenak— argazki garaikidearen oinarriak ezarriko zituen behin-betiko urratsa emango zuenerako. (EusCor)
- (8) Zergatik identitate-obsesio hori hemen **egiten** dugun guztiarekin [GUK]? (EusCor)
- (9) Wedgwood eta Schulze-ren lanak ezagutzen ditu eta, bere litografiako ezagupenen bidezko prozesu kimikoekin familiarizatuta, bere lehen saiokak **egiten** ditu Judeako betunez estalitako eztainu-lamina leunduetan. [HARK] (EusCor)
- (10) Egia da ikerketa hori behar den zorrotasunarekin [NORBAITEK] **egiteko** behar hainbateko perspektiba historikoa falta dela. (EusCor)
- (11) Hemen bai, bere lehen obra honetan, arras geroago ez bezalako interpretazio eta balorazio bat **egiten** dio Erreformari, Luterori: “Hosin horretatik (jeinu alemanaren barne-barneko indar ezkutuen hondotik alegia) erne da Erreforma alemana: haren koralean soinugin zuen lehen aldiz musika alemanaren etorkizuneko aireak. (EusCor)
- (12) Zer nahi zuen berarengandik? Seguru hark [HARI] **egin** behar zion proposamenak ez zuela bere ohiko bezeroek [HARI] **egiten** zizkiotenekin zerikusirik. (EusCor)
- (13) Aspertua nengoen ohearen erdia hutsik sentitzen; nekatua, gau erdian iluntasunari begira, loarekin adiskidetu ezinik, mamuak inguruan, bakardadea hausnartzen; gogaitua, mahaikiderik gabe bazkaltzen; galdua nuen dei eta gutun irrikituen zain egoteko ohitura; ez nuen aspaldian argazkirik poltsikoan erabiltzen; ez nintzen norbaiti loreak bidali edo opariren bat [NIK] [NORBAITI] **egitearren** dendaz denda ibiltzen, ezta inori maiteminez poemarik [NIK] **egiten** ere. (EusCor)

ERG entitatea gehienetan biziduna da —edota izaki bizidunen multzo bat errepresentatzen duen zer bat—. **ABS** entitatea, berriz, gehien-gehienetan izaki bizigabe bat da (konkretua nahiz abstraktua); ERG entitateak sortutakoa, ekoizitakoa, eragindakoa. Hori dela eta, ERGek *iturria* eta ABSk *gai sortua* adierazten duela esango dugu. Oso kasu bakanetan gertatzen da entitate biziduna agertzea ABSn: *haurra egin* dugu horren lekuko. Baina izatez hitz anitzeko unitate lexikal gisa du bere sarrera hiztegietan. Kasuen aldetik, gainera, berezitasun horrek DAT ez onartzea eragiten du, *eginek* arrunta duen Kasua, hain zuzen. Guk ABSko *gai sortuari* ez diogu bizidun izateko aukera eman, Hitz Anitzeko Unitate gisako berezitasuna dela uste baitugu. Bestalde, ageri dira “sortzen” ez diren gaiak; hots, dagoeneko sortuak daudenak. Halakoak direnean ere, gure ustez Hitz Anitzeko Unitateen bidean daude, esanahi “literaletik” kanpo gelditzen baitira. (13) adibideko *oparia egin* dugu

horrelakoa, baita adibideetan agertu ez diren *ohea egin, janaria egin, maleta egin...* ere. Izan ere, hauetan ez da berez objektu gisa ageri dena “sortzen”, baizik eta “prestatzen” edo “egokitzen”. Horrelakoetan, gainera, aldaera inkoatiboa onargarria dela ematen du (*oilaskoa egin da dagoeneko*). Sortzezko ekintza gehiago ere markatu ditugu beste zenbait aditzetan; beraz, ez da kasu isolatua. Vázquez et al.-ek ere (2000) ideia bera erakusten dute:

Del mismo modo, disentimos de la propuesta de Jackendoff 1990 y excluimos de esta clase [de cambio] aquellos verbos que expresan un proceso que culmina en la creación de un objeto, como *construir* o *crear*. Desde nuestro punto de vista, estos predicados son similares a los verbos de creación anteriormente mencionados (*brotar*), ya que en ambos casos el componente entidad es de tipo afectuado [de nueva creación]. En este sentido, también nos alejamos de la propuesta de Levin 1993, según la cual *crear* y *brotar* pertenecen a grupos diferentes.

Vázquez et al., 2000: 163

INEri dagokionez, ekintzaren kokapena adierazten du; baina batzuetan ABS entitatearen kokapenari bakarrik egiten dio erreferentzia. Horretaz gain, goian bezalaxe, ERG entitateak ekintza egiteko modua ere adieraz dezake. Ez dugu, ordea, aipatutako balio guztietarako adibiderik aurkitu.

INSek eta **SO**Zek goiko aditzean bezalaxe modua adieraz dezakete: ERG entitatearen egoera nahiz ekintza egiteko modua. Esan behar da, bi kasuok, batzuetan “kausa” eiteko modua adieraz dezaketela, hau da, ERG entitatea ekintza egitera bultzatu duen kausa.

DATek ekintza zuzentzen zaion entitatea adierazten du; hots, *helburua*. Hala, **DA**Ten presentzian, ERGek, ekintzaren *iturria* ez ezik, *abiapuntu* gisa ere jokutzen du. Hala ere, **DA**T ez dugunez azpikategorizatutzat jo aditz honetan, ez dugu aukera hau markatu osagai semantikoetan.

ABLk azkenik, agertzekotan, ERG entitatearen kokapena adierazten du; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

ALAri dagokionez, bere agerpena posible dela ikusiko dugu, baina ez modu orokorrean. Esan dugun bezala, aditz honek esaldiko beste elementu batekin batera —gehienetan objektu gisa jokutzen duenarekin batera— osagai bat baino gehiagoko unitate lexikalak osatzeko joera du. Hori bereiztea, ordea, ez da batere erraza, baina gure ustez, **AL**Aren presentzia horren baitan dago. Alegia, ABS entitatearen izaeraren arabera, **AL**A zilegi izango da ala ez. Ikus, esaterako, adibide hau:

(14) ... eta Artikotik Tropikora bidaia **egin** zuen (EG)

Aldiz, goiko adibide guztietan **AL**Arik onartzen ez dela dirudi. Hala, Kasu hori agertzea lotuago dago ABS entitatearekin, aditzarekin baino. Orduan, *bidai*a eginek nolabait aparteko tratamendua behar duela esan daiteke.

ABS entitatearen izaerarekin jarraituz, badira DATik onartzen ez dituzten erabilerak ere (*bidaia egin* ere horrelakoxea genuke):

(15) Zu, unibertsitatetik etorri berria, mokauren bat egiten ari zinen, egunkaria irakurriz. (EusCor)

Honelakoek ere ez dituzte *eginek* oro har onartzen dituen Kasu guztiak onartzen, eta aparteko tratamendua behar dutela dirudi.


Nolanahi ere, gauza garbia da *eginekin* osaturiko hitz anitzeko unitate lexikalen multzoa handia dela, eta horrek erabilera arrunta zedarrizteko mugak jartzen dituela. Izan ere, zein den hartzen den irizpidea, jarrera bat edo bestea hauta daiteke: edo Kasu bat *eginerako* ontzat ematen da esaldi gutxi batzuetan agertu delako, edo horixe bera balia daiteke Kasu hori *eginek* berezkoa ez duela esateko. Guk hemen problematika horren berri eman nahi izan dugu, aditz baten egitura sintaktiko orokorraren bila jotzen dugunean aurkitzen diren zailtasunak agerian uzteko. Seguruenez, adibide bakoitza banan-banan sakonki aztertuz gero, *eginek* bere erabilera guztietan erakusten duen Kasuekiko joera oso anitza da. Hemen markatu ditugun Kasuak eta osagai semantikoak, orduan, gure ustez erabilera orokorrenari egokitu dakizkiokeenak dira. Argi dago, bestalde, ERG eta ABS direla adierazten den ekintzan inportanteenak.

Eginek, beraz, semantikoki, sortze-prozesu bat adierazten duela esango dugu, non *iturri* batek eta *gai sortu* batek parte hartzen duten.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egin-DU-0: iturria _ERG; gai sortua [-biz]_ABS

Datu estatistikoetan ABS eta ERG ageri zaizkigu nabarmen; gainontzekoan, INE eta DATek ere badute presentzia:



DA	22,34%	DA-ins	3,71%	DA-ala	3,11%	DA-abl	1,83%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,08%	DA-soz	5,26%	DA-ine	31,81%				
DU	62,69%	DU-ins	4,42%	DU-ala	5,47%	DU-abl	3,19%	DU-abs	60,01%	DU-komp	3,17%	DU-soz	5,52%	DU-ine	23,06%	DU-erg	100,00%		
DIO	13,09%	DIO-ins	2,57%	DIO-ala	2,45%	DIO-abl	2,60%	DIO-abs	50,94%	DIO-komp	2,11%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	2,17%	DIO-ine	15,53%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	1,88%	ZAIO-ins	1,50%	ZAIO-ala	1,83%	ZAIO-abl	4,22%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	3,53%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	4,34%	ZAIO-ine	14,45%		

Erabili

erabili-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (16) Dirudienez, isilgailua **erabili** zuten [HAIEK], tirorik inork entzun ez zuelako. (EusCor)
- (17) Horrela adibidez, yadnikek eta eskaintzaileek, gramatikarik ez badakite ere, hitzik egokienak **erabiltzen** dituzte [HAIEK] jainkoengana jotzean nahiz eta ez jakin nola idazten diren. (EusCor)
- (18) Aspertua nengoen ohearen erdia hutsik sentitzen; nekatua, gau erdian iluntasunari begira, loarekin adiskidetu ezinik, mamuak inguruan, bakardadea hausnartzen; gogaitua, mahaikiderik gabe bazkaltzen; galdua nuen dei eta gutun irrikituen zain egoteko ohitura; ez nuen aspaldian argazkirik poltsikoan **erabiltzen** [NIK]; ez nintzen norbaiti loreak bidali edo opariren bat egitearren denez denda ibiltzen, ezta inori maiteminez poemarik egiten ere. (EusCor)
- (19) Bestetik, NATOk dio erakuts dezakeela serbiarrek zibil albaniarrek **erabili** dituztela UCK gerrillatik babesteko. (EG)
- (20) EAEko euskaldunek familian, gertuko komunitatean eta zenbait eremu formalagotan, euskara gehiago **erabiltzen** dute gaztelania baino. (EG)
- (21) Bi teknika horiexek dira Kantaurialdeko kobazuloetan [HAIEK] **erabili** dituztenak. (EG)
- (22) Bi kolore baizik ez ditut **erabili** [NIK]: (EG)
- (23) Foruzainek nahiko lan izan zuten bisitariak bertatik kanporatzen, eta batzuetan bortizkeria ere **erabili** zuten [HAIEK] solidarioak aurre egiten saiatu zirenean. (EG)

Adibideetan ikus daitekeenez, **ERG** entitatea normalean gizakia da, eta ekintza burutzen du.

ABS ekintzan beharrezkoa den beste entitatea adierazten du, eta orotarikoa izan daiteke.

INE goiko aditzetan agertu zaigun bezalaxe, modua eta kokapena adieraz dezake; hala ere, aztergai izan ditugun adibide guztietan kokapena adierazten du. Bestalde, kokaleku horrek gertakizunari nahiz ABS entitateari egin diezaioke erreferentzia. INE entitatea izaki bizigabe konkretu bat denean eta edukierazko zentzua izan badezake, aditzak nolabait “edutezko zentzua” hartzen du ((18): ...ez nuen aspaldian argazkirik poltsikoan **erabiltzen**). Hau da, “ABS entitatea INEk adierazten duen kokagunean edukitzea”-edo adieraziz. Hala ere, horrelakoetan ERG entitatearen izaera ez da aldatzen erabilera orokorrarekiko, eta ABS entitatea ere erabilera orokorrean agertzen denetakoa da. Orduan, ez dugu beste balio semantiko bat —ez eta beste *bss* bat— bereizi.

INSi eta SOZi dagokienez, goiko aditzetan agertu zaizkigun balioak izan ditzakeela esango dugu: ekintza egiteko modua edota ekintzaren egilearen modua. Hala ere, ez dugu bat ere adibiderik topatu hauetarako.


DATEk, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harreman bat adierazten duela dirudi, besterik gabe. Ez dugu, gainera, adibiderik aurkitu DATEkin. Hala ere, ABS entitatea biziduna denean, DAT ez da bat ere ohikoa.

Honebestez, esango dugu *erabilik jarduera bat* adierazten duela, eta hala izanik, parte hartzaile nagusi bezala osagai *esperimentatzaile* bat eta *gai* bat dituela. Objektu inespezifikoa alternantzia esan dugunez, guk jardueratzen hartuko ditugu alternantzia hau erakutsi gabe ere gure ustez jarduera bat adierazten duten aditzak ere. Jardueratzen hartzeko, gogora dezagun, ekintza burutzen duen entitateak ekintza hori esperimentatu behar duela. Ikusiko dugun bezala, beste zenbait aditzek jarduera bat adieraziko dute, baina bere semantikan bestelako ezaugarri batzuk dituztenez eta sintaxian ere beste aukera batzuk ere erakusten dituztenez, esperimentatzen jo beharrean, bestelako osagai semantiko batzuen beharra izango dugu.

Bss-aren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

erabili-DU-0: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS

Datu estatistikoek erakusten digute garrantzitsuak ERG eta ABS direla; gainontzekoan, guk aztergai ez ditugun Kasuak gailentzen dira.



DA	26,09%	DA-ins	2,08%	DA-ala	0,52%	DA-abl	0,59%	DA-abs	100,00%	DA-komp	1,77%	DA-soz	0,77%	DA-ine	22,32%		
DU	71,75%	DU-ins	1,32%	DU-ala	2,17%	DU-abl	0,90%	DU-abs	65,10%	DU-komp	1,85%	DU-soz	0,70%	DU-ine	12,83%	DU-erg	100,00%
DIO	1,63%	DIO-ins	0,53%	DIO-ala	0,29%	DIO-abl	0,12%	DIO-abs	74,67%	DIO-komp	0,59%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	8,53%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	0,53%	ZAI0-ins	0,54%	ZAI0-ala	0,30%	ZAI0-abl	0,12%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	0,36%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-ine	8,28%		

eskaini-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Adibideak:

- (24) Gizon bizardun batek bibolina jotzen zuen bitartean beste batek ze ikuskizun mota eta ze emanaldi klase egongo diren ematen zuen aditzera: astebetetz geratuko direla Vetierro-n esan dute eta egunero hiru espektakulo eskainiko dituztela. [HAIEK] (EusCor)
- (25) Indaleziok zioenez, Atlantidako inguruetan bizi ziren animaliak oro —bai itsastarrak, bai airetarrak, baita lurtarrak ere, gizonak barne— landarejaleak ziren, lurrak eskaintzen zizkien fruitu, hazi eta belarrez elikatzen bait ziren. (EusCor)
- (26) Arrasatearrok gasaz disfrutatzen ginen aukeraz eta honek eskaintzen zizkigun abantailerekin aritu ginen orduan. (EusCor)
- (27) Gasaren banaketa egiterakoan, Naturgas enpresak tarifa ezberdinak eskaintzen ditu, gasaren kontsumoaren arabera; beti ere kontutan izanik, gasa kontratatzen duena enpresa, komertzio edota etxebizitza izan, desberdinak izango direla eskaintzen diren tarifak. (EusCor)
- (28) Biologiaren historiak, idealismoaren ausiabantzen segida etengabea eskaini digu [GURI] eta zientziaren garapenaren segida etengabea ere bai, zeintzuek biziaren kognosizibilitate betea frogatzen bait dute. (EusCor)
- (29) Beraz, koazerbatuek materiaren antolamenduaren nolabaiteko hastapen-forma eskaintzen digutela [GURI] ikusten dugu, nahiz eta antolamendu hau oraindik oso primitiboa eta erabat ezezagokorra izan. (EusCor)
- (30) Gure aldizkaria kaleratzen hasi eta ale gutxira gas-naturalari erreportaia eskaini genion. [GUK] (EusCor)
- (31) Frustazio hori gizartera hel ez dadin, Ibarretzek bere burua eskaini du "zubiak irekitzeko". (EG)
- (32) Hala ere, prestaketa aldetik ez dutela deus aldatu adierazi zuen leitzarrak atzo Lekunberrin [HARK] eskainitako prentsaurrekoan: (EusCor)
- (33) Proba ikustea dohan izango da eta Euskal Telebistak ez du zuzenean **eskainiko**. (EusCor)
- (34) Hori dela eta, kalean dagoen Mahai Nazionaleko kide guztiek prentsaurrekoa eskaini zuten atzo Donostian, Konstituzionalak hartzen duen erabakia "berriro ere Espainiako Botere Exekutiboaren erabakia" izango dela salatzeko. (EusCor)

Adibideetan ikus dezakegunez, ERG entitatea orotarikoa izan daiteke, eta ekintza burutzen edo eragiten duena da. Askotan, halere, gizakia da, edota honen ordezkari gisa jokatzeko duen entitate bat (*telebista, Naturgas enpresa*).

ABS entitatea ere orotarikoa izan daiteke, baina beharbada izaki bizidunak dira gutxiengoen agertzen direnak; adibideetan aurkitutako kasu bakarra balio erreflexiboa duena da ((31): adibidea: *Ibarretzek bere burua eskaini du*); eta hain zuzen ABS entitatea bizigabea da.

DATek ekintza zuzentzen zaion entitatea adierazten du —*helburua*—, eta askotan izaki biziduna da; baina ez beti ((30): adibidea: ...*gas-naturalari*...). DATek *helburua* adierazten duenez, ERGek ekintza burutzeaz gain, *abiapuntu* gisa ere joka dezakeela esan daiteke. DAT Kasu azpikategorizatuen artean jarri dugula kontuan hartuz, ERG ekintzaren egilea bai, baina batez ere *abiapuntua* dela esango dugu. Ondorioz, aditz honek jarduera bat adieraziko du, baina *helburu* bat beharrezkoa duen jarduera. Hauek bi argumentuko jardueretatik bereiztearren, *elkarraldatze* kotzat jo ditugu. Hala, parte hartzaile nagusi bezala *abiapuntua*, *gaia* eta ekintza zuzentzen zaion *helburua* izango ditu.

Osagai beharrezko bezala *abiapuntu*- eta *helburu*- elementuak izateak, horrelako aditzak sailkatzeko ikuspegi desberdinak proposatzea ekarri du. Zenbait autorek *trayectoria* kontzeptu orokorraren baitan entitateen desplazamendu fisikoak nahiz abstraktuak sartzen dituzte, eta horren ondorioz, entitateen desplazamendua, jabetzaren elkarraldatzea (*cambio de posesión*) eta komunikazio-elkarraldatzea (*intercambios de comunicación*) sail berekotzat hartzen dituzte; esaterako, Vázquez et al.-ek (2000). Beste zenbait autorek horixe bera proposatzen dute, baina *trayectoriaren* ordez *transferencia* terminoa darabilte, eta horren azpian desplazamendua, jabetzaren elkarraldetzea eta komunikazio-elkarraldatzea bereizten dituzte; esaterako, Shank-ek (1975). Hala ere, ikusten dugunez, nahiz eta kontzeptu orokor bat proposatu, honen barruan azpisailak proposatzen dituzte, besteak beste azpimultzo hauek erakusten dituzten ezaugarri sintaktikoengatik. Gure ikuspegiaren arabera —hau da, erakusten dituzten Kasu azpikategorizatuei eta onartzen dituzten Kasu azpikategorizatuen konbinazioei dagokienez—, edozein motatako elkarraldatzea (hau da, jabetzazkoa nahiz komunikaziozkoa) adierazten duten aditzak eta desplazamendua adierazten duten aditz gehienak elkarren artean nahiko desberdinak dira. Hasteko, elkarraldatze kotzat jo ohi direnetan, ez da ALA ageri ohi. Bestetik, ez dute alternantzia kausatiboa/inkoatiboa erakusten (eta alternantzia aztertu dugunean esan dugunez, desplazamenduzko aditz askok ageri dute alternantzia hau). Eta azkenik, batzuetan gerta daiteke elkarraldatzen den *gai* hori ERG entitateak sortua izatea⁴ (ABS entitatearen arabera, eta testuinguruaren arabera); eta gure ustez, entitate desplazatu batek ez du horretarako gaitasunik.

Adibideetan ikus dezakegunez, hala ere, DAT ez da agertzen beti. Horrelakoetan, orduan, elipsiaren edo inespezifikazioaren aurrean gaudela esan beharko genuke, osagai hori beharrezkoa jotzen dugun neurrian. Vázquez et al.-ek (2000), esaterako, besterik gabe, elipsi bat dagoela proposatzen dute:

⁴ Gogora dezagun *egin* aditzeko *gai* guztiak jo ditugula *gai sortutzat*, gure ustez *eginen* semantikak sortze bat adierazten duelako bere erabilera orokorrean. *Eskainik*, ordea, horretarako aukera badu, baina ez da funtsezkoa bere semantikan, ABS entitatearen eta testuinguru zabal baten baitan dagoelako. Hain zuzen, horregatik kontsideratu dugu *gaitzat*, balio orokor horren adierazle.

Cabe decir, que con este tipo de verbos [*vender, regalar, decir...*] la omisión del constituyente [destino] puede interpretarse como un caso de elipsis: *Ha dicho que vendrá (a los que estábamos presentes)*.

Vázquez et al., 2000:196

Gure ustez, zalantzazkoa da elipsiaren edo inpersonal moduko baten aurrean gauden. Horregatik uste dugu inpersonalasuna ez dela mugatu behar ERG gisa gauzatzen diren osagaietara.


Gainontzeko Kasuekin adibide gutxi dauzkagu. **INE** ageri zaigu bi adibidetan, batean ekintza egiteko modua adieraziz ((33)) eta bestean ekintzaren kokapenari erreferentzia eginez ((32)). Baina esango genuke orain arte landutako aditzetan agertu diren balioak adieraz ditzaketela, bai INEk, bai **SOZ**ek, bai **INSE**k ere. **ABL**k, azkenik, ERG entitatearen kokapena adieraziko luke.

Honebestez, esango dugu *eskainik elkarraldatzea* adierazten duela, parte hartzaile nagusi bezala *abiapuntua, gaia* eta ekintza zuzentzen zaion *helburua* dituela, ERGez, ABSz eta DATEz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eskaini-DU-0: abiapuntua_ERG; gaia_ABS; helburua_DAT

Datu estatistikoek agerian jartzen dute ERG, ABS eta DAT direla gehien nabarmentzen diren Kasuak:



DA	8,58%	DA-ins	8,44%	DA-abl	4,84%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,93%	DA-soz	4,98%	DA-ine	33,09%						
DU	57,67%	DU-ins	4,97%	DU-ala	0,72%	DU-abl	1,30%	DU-abs	77,38%	DU-komp	2,19%	DU-soz	1,11%	DU-ine	23,48%	DU-erg	100,00%		
DIO	28,33%	DIO-ins	3,12%	DIO-ala	0,49%	DIO-abl	1,74%	DIO-abs	71,47%	DIO-komp	3,03%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,61%	DIO-ine	11,58%	DIO-erg	100,00%
ZAI	5,42%	ZAI-ins	4,22%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	3,15%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	0,12%	ZAI-ine	12,36%						

Flotatu

flotatu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Adibideak:

(35) Udaran, ur azalean [HAIEK] **flotatz** bizi dira baina negua iristeaz bat hondoratu egiten dira eta azalean gangorra baino ez da ikusten. (EusCor)

(36) Uretan **flotatz** duen ura (EusCor)

Azpimarratu behar dugu hemen ABSrik ez agertzea ez dela Levinen alternantziak aztertzerakoan ikusitako balio inespezifikoa, izan ere honek ez du objektudun pareko egiturarik, eta ez dago jakintzat eman daitekeen objektu hiperonimorik. Izatez, aditz hau mailegatua da, eta badirudi horrek zerikusia duela hautatzen duen laguntzailea azaltzeko garaian.

Alberdik ikerketa sakona egin du euskaraz mailegatu diren erdaratiko aditzen erregimenaren inguruan (Alberdi, 2003). Lan honetan, Levin & Rappaport (1992b) eta Mendikotetxea (1999) ikerlariak aditzak sailkatzerakoan hartzen duten ikuspegia ontzat ematen du, eta euskaraz aditzak DU laguntzaileaz geureganatzerakoan jokoan diren baldintzak azaltzen ditu. Alberdik dioenez, albo-erdaretan jokaera ez-ergatiboa erakusten duten aditzak “se” klitikorik gabeak eta aditz egiledunak dira gehien bat (*viajar, esquiar, descansar, bailar, correr...*), eta horren ondorioz, euskaraz ere horrelakoak ez-ergatibo gisa erabiltzera jo dela dirudi, tradizioko erabilera ez-akusatiboari bizkarra emanez (*saltatu da* → *saltatu du*, *deskantsatu da* → *deskantsatu du*, *dantzatu da* → *dantzatu du*, *olgatu da* → *olgatu du...*). Badira ere albo erdaretan egiletasuna ez baizik eta barne-kausaltatea ere “se” klitikorik gabe eta ez-ergatibo gisa adierazten duten aditzak (*funcionar, cotizar, circular...*). Ondorioz, hauek ere euskaraz ez-ergatibo gisa bereganatzeko joera dago. Aldiz, jokaera ez-ergatiboa pentsaezina da albo-erdaretan klitiko berezkoa duten aditzak mailegatzean (*amotinarsen, atreverse, quejarse...*), edota aditzaren adieretako bat klitikoduna denean (*amotinarsen, fiarse, portarse, descuidarse, divertirse...*). Flotaturen objekturik gabeko jokaera iragankor hau, orduan, Alberdik dioenean oinarrituz, barne-kausaltatezko gertakizuna klitikorik gabe adierazten duen aditz batetik mailegatua izatearen ondorioa dela pentsa dezakegu.

Esandakoak gorabehera, aipatu beharra dago aditz hau ez dela *Hiztegi Batuan* (Euskaltzaindia, 2000) onartzen, eta horretaz gain gure corpusean ez duela maiztasun handirik.

Kasu azpikategorizatuei dagokionez, **ERG**ek flotatu dezakeen orotariko izakiak hartzen ditu gunean; eta **INE**k, ERG entitatearen kokapenaren berri ematen du, bederen agertu zaizkigun adibide guztietan. **INSE**k eta **SOZE**k, goiko aditzetan erakusten duten balio berak dituztela esango dugu, nahiz eta ez oso arruntak izan.

Adibide batean erabilera hedatutzat jo dezakeguna aurkitu dugu, eta kasu honetan ERG entitatea abstraktua da; hain zuzen, horixe da guk hedatutzat jotzeko arrazoia. Hala ere, erabilera hau ez zaigu iruditzen oso zuzena:

(37) Errealitatea, fotografikoki, jadanik agortu eta erreportajea`hil dela`ko sentimenduak **flotatzen** du. (EusCor)

Honenbestez, gure ustez, flotatuk entitate bat —gaia—, nonbait kokatuta egotea —kokapena— adierazten du, barne-kausaltatea gorabehera; eta kokatze hori modu jakin batean gertatzen da (gainazal likido batean). *Gaia* ERGez eta *kokapena* INEz gauzatzen dira. Hemen ez dagoenez leku-aldaketarik ez dugu *gai* ukitutzat jo.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

flotatu-DU-0: gaia_ERG; kokapena_INE

Datu estatistikoei dagokienez, ez dugu daturik eskura, antza daukagun *Egunkari*ko corpusean ez delako agertu.

Gainditu

gainditu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Adibideak:

(38) Teresak **gainditu** ditu "panteismo amesak". (EusCor)

(39) Pieza bat tentsio baten pean dagoenean, tentsio horrek balio kritiko bat **gainditu** ondoren, mikroegiturazko elementu batean (inklusio batean, fase hauskor batean, adibidez) mikropitzadura bat sor daiteke (ikus 3. irudiaren eskema). (EusCor)

(40) ... han maila izpiritual guztiak **gainditu** izan zituen [HARK] Zen-aren bidean eta mila gaitasun lortu kundalini eta chakrei esker, mendebaldeko zientzari ezezagunak oraino, pentsamenduak leitu eta bidaltzea, hogeita hamar zentimetroko altueran lebitatzea eta abar ... (EusCor)

- (41) Seinale, nazio honetako euskal belaunaldirik zaharrenak komunitate txikiaren mugak gainditzen zituena. (EusCor)
- (42) Jonek azterketa gainditu du eta poz-pez dago. (EusCor)
- (43) Bitarte horretan Joxeren zaletasunak osasun arazoak gainditu ahal izan zituen eta, desinteresatuki, aipaturiko talde horrekin batera silbotari bezala eskuhartu ohi zuen lehiaketa desberdinetan. (EusCor)
- (44) Egarbeek (teilatuari hormatik kanpora ateratzen zaion azpiko aldea, horma euritatik babesteko) ez dute hormarekiko 1,5 m-ko luzera gaindituko. (EusCor)
- (45) Nik neure aldetik horren kontra nago, eta gainera ausartuko nintzateke esatera sormen eta arrisku piska batekin inertzia hori gainditzen ahal dela, baina bistan da, gaur egun ez dugu lortuko argaltasunaren balore soziokulturala alda dadin, beraz, publizitatea ez da aurrelaria izango adostasunik eta emaitzik gabe, horren helburu bakarra da saltzea, kosturik txikienarekin eta efikazia handienarekin. (EusCor)
- (46) Prozesu horiek erditze edo etendura baten bitartez gainditzen direnean "mundura" bueltatzea dator (Esteban 1993a: (EusCor)
- (47) Jokabide posible honen berri gaixoari aurrez emanaz eta sumatzen duen kritika horri inolako garrantzirik ez emateko eskatuz **gaindi** daiteke eragozpen hori. (EusCor)

Adibideetan ikus dezakegunez, ERG entitatea orotarikoa izan daiteke, eta oro bat **ABS** entitateari gagozkiola. Esan behar da, hala ere, ERG entitatea gehienetan gizakia dela eta ABS entitatea izaki bizigabe abstraktu bat.

INSek eta **SO**Zek ekintza egiteko modua adierazten dute ((45)), eta modu hori batzuetan kausa eitekoa da; adibideetan INSekin bakarrik aurkitu dugu balio hori ((46), (47)). Hala ere, kausa eiteko balio hau aztergai ez ditugun mendeko perpausaz edota postposizio konplexuez adierazten da gehienetan ((47)). Gainera, esan behar dugu aurkitu ditugun adibide guztiak erabilera inbertsonalekoak direla (ez dugu uste, ordea, bakarrik halakoetan ager daitezkeenik kausa eiteko modua).

INEK gertakizunaren kokalekua adierazten du.

ABL onartu dugu, baina esan behar da ABS entitatearen arabera dela onargarri. Corpusean adibiderik aurkitu ez badugu ere, ABS entitatea fisikoa izan daiteke. Adib.:

- (48) Oñatiko eskalatzailleak **gainditu** zuen horma

ABLk, orduan, entitate fisiko hori nondik gainditzen den adieraz dezake:

- (49) Oñatiko eskalatzailleak horma bide zailenetik gainditu zuen

Hori dela eta, ABL onartu egin dugu *bssan*.

Esan dezagun bide batez, horrelakoetan *gaindituk* desplazamenduzko adiera hartzen duela; alegia, aditz honek oro har jarduera adierazten du, baina hemen jarduera zehatzago bat adierazten du: desplazamendua. Nolanahi ere, desplazamendu balio honek corpusean ez du islarik⁵.


⁵ Bestalde, ikusten dugunez, ez zaigu agertu objektu jakineko inespezifikazioan aipatu dugun balioa ([ikasgaia/azterketa] gainditu).

Gure ustez, hortaz, *gaindituk* jarduera bat adierazten du, partaide nagusitzat *esperimentatzailea* eta *gaia* dituela, ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

gainditu-DU-0: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS

Datu estatikoei begira jarrita, ERG eta ABS ageri dira nabarmen: _



DA	31,05%	DA-ins	2,56%	DA-ala	1,63%	DA-abl	0,92%	DA-abs	100,00%	DA-konp	4,82%	DA-soz	0,70%	DA-ine	6,22%		
DU	66,62%	DU-ins	1,41%	DU-ala	0,22%	DU-abl	1,51%	DU-abs	85,31%	DU-konp	5,19%	DU-ine	8,13%	DU-erg	100,00%		
DIO	2,34%	DIO-ins	0,27%	DIO-ala	0,14%	DIO-abl	0,74%	DIO-abs	94,07%	DIO-konp	11,76%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	11,96%	DIO-erg	100,00%

Gosaldu

gosaldu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Adibideak (ez dugu, hala ere, adibide argi asko topatu):

(50) "Eta orain **gosal** ezazue agudo zuek biok", esan zuen Tobiren amak. (EusCor)

(51) Poliki-poliki **gosald**u [HARK] eta lan egiteko gela edo estudioira iragan zen. (EusCor)

(52) **Gosaldu** egin bear genduala. [GUK] (EusCor)

Adibideotan **ERG** entitatea beti gizakia dela ikus dezakegu; gainontzeko Kasuen agerpenik, ordea, ez dugu. Hala ere, onartu gisa markatutako Kasuek orain arte aipatu ditugun balioak izateko gaitasuna dute. Eta aditz honetan SOZek, askotan "konpainia" adierazten du.

Esan behar da, *flotatu* aditzean ez bezala, hemen ABS ez agertzea inespezifikazio-fenomenoetan ikusi dugunarekin lotu behar dela. Izan ere, ez dugu objektudun pareko adibiderik aurkitu, baina gerta liteke inespezifikatzen den objektua hain mugatua izanda, ez egotea joerarik objektu espezifikoagoa azalertzeko (ikusiko dugun bezala, *afaldu* eta *bazkaldu* aditzetan jokamolde bikoitz hori agertzen da, seguruenez, inespezifikatzen den objektua ez delako hain mugatua)⁶.


Ordea, badira hiztunak bata eta bestea desberdintzat jotzen dituztenak. Guk, hala ere, euskalki mailako sail-aldaketatzat joko dugu, eta hortaz, ez dugu beste *bss* bat bezala landu.

Hala, esango dugu *gosaldu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusi gisa *esperimentatzaile* bat dugularik. Objektudun —*gaidun*— aldaera, esan bezala, ez dugu aurkitu.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

gosaldu-DU-0: esperimentatzailea [+biz]_ERG

Datu estatistikoek argi jartzen dute ERGez gain, INEk maiztasun handi samarra duela:



DU:100,00% DU-ine:42,86% DU-erg:100,00%

Hautatu

hautatu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

⁶ Hemen aipatu behar dugu, jakin badakigula aditz hauek Iparraldean (batez ere) erabilera iragangaitza dutela. Guk erabilitako corpusak, ordea, ez digu horren presentziarik eskaini. Bestetik, tesiaren sarreran esan dugun bezala, euskalki mailako berezitasunak saihesten saiatu gara, eta hau beharbada, garbientako bat dugu. Euskalki mailako sail-aldaketatzat jotzeko erreferentzia garbia ikusten dugu Euskaltzaindiaren gramatikan (1993). Honelaxe diote aipatua dugun 9.2.2. Sail-aldaketak ataleko 9.2.2.5 azpiatalean (213. or.): “Aditz batzuekin gertatzen da euskalki batzuetan mota batekoak direla eta beste batzuetan, berriz, bestekoak. [...]. Zubereraz eta behe-nafarreraz *bazkaldu niz* esaten da, beste euskalkietan *bazkaldu dut* esaten den bitartean.

Azalpena

Adibideak:

- (53) Udaberrian gaude, eguzkiaren izpiak behar ditugu eta komunikabideek planeta honetako tokirik beroenak hautatzen dituzte. (EusCor)
- (54) Iztuetak Iturriagaren eginkizunean paper eragilea hautatu zuela, partaide, lankide bihurtu zela. (EusCor)
- (55) 1980. urtetik gure ustez gaztelaniaz argitaratu edo berrargitaratu den bibliografiarik garrantzitsuena hautatu dugu [GUK], berriki argitaratu denari lehentasuna emanaz. (EusCor)
- (56) Toulouse-Lautrec-en heldutasun aroko lan hori ez da artista frantsesaren kuadririk ezagunena, baina horrexegatik hautatu zuten Pilarrek eta Martinek posterra: (EusCor)
- (57) Lehiaketara aurkeztutako proiektuetatik Rafael Moneo arkitektu tuterarrarena hautatzeak ere bazterrak harrotu zituen, ingurua bortxatzen zuelakoan. (EG)
- (58) "Lanik zailena nobelak dituen trama ugarietatik nagusi bat hautatzea izan zen. (EG)
- (59) Iparraldean ia erdiak (% elebiduna edo euskara hutsezkoa hautatu du; (EusCor)
- (60) "Eta hautatu ninduten". [HAIEK] [NI] (EusCor)
- (61) Beraz, niri txori maltzur batek esan didana ez da egia, hau da, hautatu bazaituzte [HAIEK] [ZU] hein handi batean Euskaltzaindian lege-teknikari bat behar izan dutelako izan dela? (EusCor)
- (62) Gazteak ziren nagusi eta Burukoa hautatu zuten [HAIEK] idazkari nagusi bezela, hautsi maustiak egiteko gai zela iduriturik. (EusCor)
- (63) Eugenio Arraiza Nafarroako lehendakariorde hautatu dute [HAIEK] (EusCor)
- (64) Martxoaren 23an egingo diren Lehendakarietzarako hauteskundeak inguratzen ari diren heinean, gero eta zalantza handiagoak daude Txinak hartuko dituen neurriei buruz, baldin eta berriro Li Teng Hui lehendakari hautatzen baldin badute. [HAIEK] (EusCor)

Adibideetan ikus dezakegunez, ERG entitatea gizakia da, edo bestela honen ordezkoko gisa jokatzeko duen entitatea. **ABS** entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke; baina esan behar da, gizakia denean, askotan honi buruz predikatzen duen osagai sintaktiko batekin ageri dela ((63),(64)).


INEk, **SOZek** eta **INSek** orain arte ikusi ditugun balioak izan ditzaketela dirudi, nahiz eta adibiderik ia ez agertu. **ABLk**, *abiapuntu* moduko zerbait adierazten duela esan genezake, **ABS** entitatea nondik hautatzen den zehazten duen aldetik. Ikuspegi honetatik, ekintza gauzatzen duena *helburu* gisa ere ikus genezake. Hala ere, **ABL** ez da askotan agertzen eta ez zaigu iruditzen Kasu azpikategorizatua. Hori dela eta *helburu* izatearen aukera ez dugu osagai semantikoetan jarri, eta, besterik gabe, entitate batek egiten duen *jardueratza* hartu dugu.

Hala, esango dugu, *hautatu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzaile* bat eta *gai* bat dituela, ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bss-aren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

hautatu-DU-0: esperimentatzailea [+giz]_ERG, gaia_ABS

Datu estatistikoek ERG eta ABSren presentzia nabarmena erakusten digute:



DA	10,47%	DA-ins	5,17%	DA-ala	0,51%	DA-abl	5,68%	DA-abs	100,00%	DA-konp	7,11%	DA-soz	0,51%	DA-ine	17,54%				
DU	87,07%	DU-ins	2,17%	DU-ala	2,73%	DU-abl	3,22%	DU-abs	60,74%	DU-konp	7,39%	DU-soz	1,05%	DU-ine	12,94%	DU-erg	100,00%		
DIO	2,47%	DIO-ins	0,39%	DIO-ala	0,39%	DIO-abl	0,78%	DIO-abs	59,96%	DIO-konp	5,48%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,39%	DIO-ine	22,52%	DIO-erg	100,00%

Irakin

irakin-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Adibideak (laguntzailea agerian duten adibide gutxi aurkitu ditugula esan behar da):

(65) Zein tenperaturatan irakiten du? [HARK] (EusCor)

(66) Itsasertzean 100-tan irakiten du. [HARK] (EusCor)

(67) Kazola batean, esnea eta gurina egos itzazu [HAIEK] irakin arte. (EusCor)

Adibideotan ikus dezakegunez, **ERGen** gunean egoera likido batetik gasera pasa daitekeen izaki bizigabeak ageri dira.

INEk, kokapena nahiz modua adieraz ditzake.

INSen eta **SOZen** adibiderik ez dugu, baina ekintza egiteko modua adieraz dezaketela uste dugu (*indar handiz, indar handiarekin*); eta batzuetan, gainera, modu hau kausa eitekoa izan daiteke (*beroarekin*).

Aditz honen ABSrik eza ez da fenomeno argia. Izan ere, nekez uler daiteke inespezifikazio-fenomenoei lotuta, ez baitirudi azpian ulertutzat ematen den elementurik dagoenik. Vázquez eta beste (2000) balio antikausatiboaz (inkoatiboaz) ari direla (zehazki *aldaketa-aditzak* aztertzerakoan), aditzok antikausatibitatea normalean *se* pronominalaren (klitikoaren) bidez egiten dutela diote. Baina, badirela beste joera ez hain arruntak: alde batetik badira *se* pronominala onartzen ez duten *aldaketa-aditzak*; eta bestetik, bi jokaerok (klitikoduna eta klitikorik gabea) onartzen duten *aldaketa-aditzak*. Klitikoa onartzen ez duten aditzen artean aipatzen dute, hain zuzen, *hervir* aditza, aztergai dugun euskarazkoaren ordaina:

En cuanto a la expresión de la construcción anticausativa, la forma más habitual es la pronominal:

(211) Su madre se ha enfadado

Cabe señalar que algunos verbos, muy pocos en realidad, no admiten la presencia del pronombre. Los verbos *variar*, *disminuir* o *hervir* constituyen algunos ejemplos. Fijémonos que, cuando estos verbos presentan una forma pronominal en una construcción en que no se expresa el iniciador (212b), no están participando en una anticausativa sino en una pasiva refleja, ya que no se puede suponer la presencia de un iniciador causativo sino agentivo:

(212) a. El curso del río ha variado
b. Se ha variado el curso del río

Otras construcciones admiten el clítico opcionalmente. Este es el caso de verbos como *envejecer*, que pueden participar en diátesis anticausativas con o sin pronombre, sin que por ello varíe el significado de la frase (Vázquez 1997):

(213) a. María envejeció rápidamente a causa de su enfermedad
b. María se envejeció rápidamente a causa de su enfermedad

Vázquez eta beste, 2000:170

Euskaraz, beharbada, gauza bera esan genezake *irakin* aditzarentzat, antikausatibitatea abs-DA bidez ez baizik eta erg-DU bidez gauza daitekeela. Alegia, euskarazko balio inkoatibo edo antikausatiboa normalean DA laguntzaileaz eta ABSz egiten da, baina badira aditz berezi batzuk, *irakin* kasu, ez dutenak balio antikausatiboaren forma arrunta erakusten. Nolanahi ere, “*egoste* aditzak” bezala ezagun diren aditzetan beste aditzetan aurkitzen ez diren fenomenoak agertzen direla garbi dago.

Esan behar da, hedaduraz, ABS entitateen artean likido ez denik ere topa dezakegula; hain zuzen ere hedaduraren, metaforaren zentzu hori likido izate ezaugarri horretatik aldentzen denean jartzen da agerian:

(68) Bateko toki eskasa, besteko unearen intentsitatea, gauza da buruek hitza hartuz batera plazak irakiten hasi behar zuela, hain zen itzela bertan bildutakoen kirioen zoramena. (EusCor)

(69) Egin zuten eguerdiko saio hori eta jendea txoratzen, **irakiten** gelditu zen. (EusCor)

Vázquez et al.-en ildoari jarraituta, esango dugu aditz honek egoera-aldaketa adierazten duela, partaide bezala egoera-aldaketa hori jasaten duen *gai ukitua* duela, ERGez gauzatua.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

irakin-DU-0: gai ukitua [-biz, +konkr]_ERG

Aditz honentzat ez dugu datu estatistikorik.

Jasan

jasan-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (70) Substantzia organikoek zelula bizian **jasaten** dituzten eraldaketa kimikoek, funtsezko hiru erreakzio-mota dauzkate oinarritzat. (EusCor)
- (71) Koazertatuek **jasaten** dituzten alterazioak kanpo-baldintzen aldaketen ondorioz edota barne-eraldaketa kimikoen eraginez gerta daitezke. (EusCor)
- (72) Maiz **jasan** izan ditu herri honek otso beltzaren orro eta atzaparkadak; baina ordura arte, beti hegoaldeetik bakarrik bideratu izan zen eraso, eta gaitzerdi izaten zen, gorantz ihesi joateko aukera bazegoen eta. (EusCor)
- (73) BIHOTZAK BAPAINUAN (III) Iluntzeak herri gainera nagusitzeko duen era izango da, dudarik gabe, Belandian urte tusto hauetan aldaketarik jasan ez duen eeeee gauza bakarra, esango nuke, bai, hobe horrela "fenomenu bakarra" jartzea baino. (EusCor)
- (74) Frantziako komunisten buruak lehen ere **jasan** zituen bihotzeko gaitzak baina bizirik irten da beti. (EusCor)
- (75) Kalte gehiago **jasan** dituzte Ebrotik gertuko lurraldeetan (Lapueblan, kasu) Toloñoko mendien ondokoetan baino (Biasterin, adibidez). (EG)
- (76) Tasa honek ez du **jasan** aldaketarik lau urtetan. (EG)

Adibideetan ikus dezakegunez, ERG entitatea orotarikoa izan daiteke: gizakia (edo honen pareko entitate bat: (72) *herri honek*); gizakia izan gabe berezko bizia duen entitea ((70): *substantzia organikoek*); nahiz izaki bizigabea ((76): *tasa honek*). ABS entitatea, berriz, ia beti izaki bizigabe abstraktu bat da; corpuseko adibideetan, bederen, ez dugu bestelakorik aurkitu. Hala ere, biziduna ere izan daitekeela uste dugu.

INERI dagokionez, ohiko balioak —modua eta kokapena, alegia— adieraz ditzake. Hala ere, kokapena da gehienetan agertzen dena. Batzuetan gertatzen da INE entitatea ERG

entitatearen parte bat dela, eta orduan INEk, kokapena adierazteaz gain, ukikutasun zentzu bat hartzen du ((70)).

INSek eta SOZek modua adieraz dezaketela esango dugu, nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu.


DATekin ere ez zaigu adibiderik azaldu, baina ABS entitatea abstraktua denean *iturri* modukoa adierazten du; ABS entitatearen *iturria*, alegia. Halakoetan *iturri* hau, gure ustez, beti gizakia da, eta baita ERG entitatea ere. DAT ABSren iturri den aldetik, bere jabe ere badela esan daiteke. ABS entitatea konkretua denean, berriz, jabetza-erlazioa bakarrik adierazten da.

Hala, esango dugu *jasan* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzaile* bat eta *gai* bat dituela, ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jasan-DU-0: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS

Datu estatistikoetan ERG eta ABS dira nabarmen gailentzen direnak, baina INE ere nahiko maiztasunez ageri da:



DA	6,60%	DA-ins	0,76%	DA-abl	0,76%	DA-abs	100,00%	DA-komp	18,22%	DA-ine	17,22%				
DU	92,91%	DU-ins	2,71%	DU-abl	5,48%	DU-abs	62,88%	DU-komp	4,24%	DU-soz	0,40%	DU-ine		DU-erg	
DIO	0,49%	DIO-ins	0,73%	DIO-abl	0,73%	DIO-abs	92,56%	DIO-komp	76,65%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	7,44%	DIO-erg	100,00%

Konparatu

konparatu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS

Azalpena

Adibideak:

- (77) Milosevic Hitlerrekin konparatzen zuen pankartarik ez zen falta, baina gehienak UCK gerrillaren aldekoak ziren. (EG)
- (78) Erakundeak argudiatu duenez, epaileak fiskala "aintzat hartu gabe" agindu zuen Pinochet atxilotzeko Entzutegi Nazionaleko fiskalak diktadore ohia eta Espainiako erregea konparatu dituela ukatu du Estatuko fiskalburuak Pinocheten alde egitean "diktadura eta demokrazia nahastea" egotzi diote Pedro Rubira fiskalari Agentziak / Madrid. (EG)
- (79) Gisa horretan argiki **konparatzen** ahalko ditugu prezioak. [GUK] (EG)
- (80) Norbaitekin alderatzekotan, Adolfo Aldanarekin konparatuko nuke. [NIK] [HURA](EG)
- (81) **Konparatu** nionean [NIK] [HARI] Kosovoko egoera Kroaziako eta Bosniako gerrarekin, hark azpimarratu zidan Serbian ez zegoela hainbesteko boluntariorik Kosovoko gerran parte hartzeko. (EG)
- (82) "Gaurko datuak duela lau urteko emaitzekin ez ezik autonomia hauteskundeetakoekin ere konparatu behar ditugu [GUK]", esan zuen EHko ordezkariak. (EG)
- (83) Aliantza prest dago erasoak gogortzeko, eta Kosovoko egoera Kanputxeako genozidioarekin konparatu du. [HARK] (EG)
- (84) Borrellen eta Josep Pique Industria ministroaren kasuak konparatu zituen. [HARK] (EG)
- (85) Besteak beste, mugaz bi aldeetako egiturek larrialdietako zerbitzuak konparatu dituzte. (EG)

Adibideetan ikus dezakegunez, **ERG** entitatea gizakia edota honen ordezkari gisa jokatzeko duen entitatea da, eta ekintza burutzen du.

SOZek honakoan ez du adierazten gainontzeko aditzekin ikusi ditugun modu desberdinak (nahiz eta berez horretarako gaitasuna ere baduen). *Konparatu* aditzarekin ageri duen balio honetan, nolabait ere **ABS**ren pareko zerbait adierazten du **SOZ**ek, ekintzan modu berean parte hartuko balu bezala. Hain zuzen, **SOZ**ik ageri ez denean esaldian, **ABS** plurala da, eta pluraltasun horretan adierazten dira bi osagaiak. Fenomeno hau da **V.2.3.1** puntuan azaldutako Alternantzia erreziproko sinplean (*L 2.5.1*) ikusi duguna. Hangoa gogora ekarriz, alde batetik badaude esaldiak $IS_1 IS_2 [PS P IS_3] A$ egitura dutenak eta bestetik $IS_1 [IS IS_2 eta IS_3] A$ nahiz $IS_1 IS_{kolektiboa} A$ dutenak, antzeko balio semantikoa adierazteko. Berrikus ditzagun **SOZ**ik gabeko adibide batzuk:

- (78) Erakundeak argudiatu duenez, epaileak fiskala "aintzat hartu gabe" agindu zuen Pinochet atxilotzeko Entzutegi Nazionaleko fiskalak diktadore ohia eta Espainiako erregea konparatu dituela ukatu du Estatuko fiskalburuak Pinocheten alde egitean "diktadura eta demokrazia nahastea" egotzi diote Pedro Rubira fiskalari Agentziak / Madrid. (EG)
- (79) Gisa horretan argiki **konparatzen** ahalko ditugu prezioak. (EG)
- (84) Borrellen eta Josep Pique Industria ministroaren kasuak konparatu zituen. [HARK=NORBAITEK] (EG)
- (85) Besteak beste, mugaz bi aldeetako egiturek larrialdietako zerbitzuak konparatu dituzte. (EG)

Jakina, ABS plurala izanik, SOZek ere lekurik izan dezake, baina kasutan ez lirateke ABSn dauden entitateak “elkarren artean” konparatzen direnak, baizik eta horiek beste zerbaitekin. Horrek esan nahi du, ABS pluralean agertu eta esaldian SOZik ez badago, besterik ezean *elkarren artean* ulertutzat eman behar dela. Hain zuzen *elkarren artean* perpausean agertzea zilegi da.

Gainontzeko Kasuetara iraganez, INEren eta INSen adibiderik ez zaigu agertu, baina goiko aditzetan esan dugun bezalaxe, INEk kokapena edo modua, eta INSek modua adierazteko gaitasuna dute. Modu hau, ekintza egiteko modua nahiz ERG entitatea dagoen modua izan daiteke.


ABL Kasu onatugabeen artean jarri dugu, baina zerbait zeren arabera konparatzen den adierazteko ager daitekeela dirudi (*izaeraren ikuspuntutik, prezioaren aldetik...*) edota nolabaiteko modua (*azaletik, gainetik*) adieraziz. Dena den, iruditzen zaigu ABL hauek oso zehatzak direla. Hots, *ikuspuntua* edota *alde* salbu (azken hau, gainera, hemen tratatzen ez dugun postposizio konposatua litzateke), besterik nekez azalduko zaigula dirudi. *Azaletik* eta *gainetik* modukoak, berriz, adberbio eginen zantzu handiago dute, hain zuzen, ABLk ohikoa ez duen balio (modua) adierazten dutelako. Zentzu horretan, eta VI.2.3 puntuan esan dugunari jarraiki, ABL ez dugu Kasu onartuen jarri.

Hala, esango dugu *konparatuk jarduera* adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *bi gai* dituela; *esprimentatzailea* ERGez, *gai* bat ABSz eta bestea SOZez gauzatuak.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

konparatu-DU-0: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS; gaia_SOZ

Datu estatistikoek SOZen garrantzia agerian jartzen dute, ERG eta ABSrekin batera:



DA	15,97%	DA-abs	100,00%	DA-komp	34,78%	DA-soz	34,78%				
DU	84,03%	DU-abs	38,02%	DU-komp	8,26%	DU-soz	87,60%	DU-ine	4,96%	DU-erg	100,00%

landu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, ABL

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (86) Euskal herri-administrazioek landutako babes zibilerako planen, egitarauen eta ekintzen garapenean parte hartzen duten boluntarioen erakundeetarako ezargarrria izango da atalburu honetan aurrikusitako araubide juridikoa. (EusCor)
- (87) Honelako paketeak hizkuntzaren arlo konkretuak (adibidez, turismoa) eta idazketa teknikak lantzen [HAIEK] dituzten ikastaroetan gehien bat izan daitezke aproposak. (EusCor)
- (88) "Gure presentzia landu behar dugu kanpoaldean". [GUK] (EG)
- (89) Lurraren barnealdetik sortutako indarrei zor zaizkienak dira, eta beste atal batean **landuko** ditugu. [GUK] [HAIEK] (EusCor)
- (90) [HAIEK] Lurrazala lantzen dutenak dira eta lehen aipatutako uraren zikloarekin zuzenean erlazionaturik daude: (EusCor)
- (91) "Hezitako" (hau da, etxeari estu lotutako) baliabide naturalak gertuagotik lantzeko [HAIEK], zuberotarrek bere ondora ekarri ditu: (EusCor)
- (92) Oraingoan, testuari irudia jarri zitzaion eta forma aldetik azalpen modura [HAIEK] [HURA] **landuta** zegoen. (EusCor)
- (93) Inolako errepertorioz baztertu barik, Beethoven, Mozart, Mendelssohn edota Schubert [HARK] lantzeko asmoa agertu zuen, "egile horien lanek orkestra barrutik [NORBAITEK] lantzeko aukera ematen baitute". (EG)
- (94) Alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak euren aldetik landu dituzten lan egitasmoak aurkeztuko dituzte bertan, gero denak bildu eta egitasmo bateratua zehazteko. (EG)
- (95) Zientzia alorrean, adibidez, lehendakariari proposatu nion xede berri bat, hau da, Soleil deitu proiektua elkarrekin [GUK?] **lantzea**. (EG)
- (96) Askatasuna lortzeko bide antzuan galdutako baloreekin, jasangarritasun, errespetu, ulerkuntza eta lagunkidetasun baloreak **landuz**. [NORBAITEK] (EusCor)
- (97) 1909. Urtarril-otsailen, "Heriotzaren" gaia lantzen du [HARK], hamabi figurekin, "Bizkaiko Kaperako erdiko arkurako". (EusCor)
- (98) Astean bi egunetan 5 eta 6 urtekoekin musikako arlo desberdinak lantzen ditu [HARK], beti ere, joku eta adin bakoitzerako egokia den metodologiarekin. (EusCor)
- (99) Erritmoa esaterako gorputzez lantzen da, eskuekin, hankekin ... (EusCor)
- (100) Ez zen izan dialektologia sakontasun handienaz [HARK] **landu** zuen alorra, baina baditu honetan ere nabarmendu beharreko ekarpenak. (EusCor)

Adibideotan ikus dezakegunez, **ERG** entitatea beti da gizakia edo honen ordezkotzat jo daitekeen entitatea, eta ekintza burutzen du. **ABS** entitatea orotarikoa izan daiteke, baina

gehienetan izaki bizigabe konkretu nahiz abstraktua da. Kasu bakanen batean ageri zaigu izaki biziduna —gizakia gainera ((93): *Beethoven, Mozart, Mendelssohn edota Schubert*). Hala ere, azken batean ez dira izaki bizidun hauek lantzen direnak, baizik eta hauek egindako lana; izaki bizigabe abstraktua, alegia.

INEk, orain arte bezala, ekintza egiteko modua eta ekintza egiten den lekua adierazten du. Modu honek, batzuetan, ERG entitatearen egoerari egiten dio erreferentzia. Kokapenari dagokionez, ekintzarena adierazteaz gain, ABS entitatearen kokapena ere ager dezake, baina hala gertatzeko INE entitateak konkretua izan behar duela dirudi (*izena landu harrian*); ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

SOZek orotariko modua adieraz dezake: konpainia edo bateratasuna ((95) *elkarrekin*), baliabidea ((96): *askatasuna lortzeko bide antzuan galdutako baloreekin*; (99): *eskuekin, hankekin*; (98): *5 eta 6 urtekoekin*; (97): *hamabi figurekin...*). Ikusten dugun bezala, konpainia izateko izaki bizidun bati egin behar zaio erreferentzia.

INSek ere ekintza egiteko modua adierazten du ((100): *sakontasun handienaz*); modu hori baliabidea izan daiteke ((99): *gorputzez*).

ABL ez dugula onartzen esan dugu, baina goiko *konparatu* aditzean ikusi dugunaren antzera, ager daiteke forma zehatz batzuetan, nolabaiteko modua adieraziz: *alde* postposizioaz osaturikoen bidez ((92): *forma aldetik*), ABS entitateari erreferentzia egiten dioten hitzen bidez ((93): *orquestra barrutik*)... Kasu hauetan, hortaz, *konparatu*n bezalaxe, adberbio eginen zantzu handiagoa dute. Bada adibiderik nolabait ere ERG entitatearen kokapenari erreferentzia egiten dionik, baina honek ere, azken batean, modua adierazten duen adberbio eginaren kutsua du, adierazten duen posizioa zentzu figuratiboan ulertzen delarik ((91): *baliabide naturalak gertuagotik landu*). Horrexegatik jarri dugu ABL Kasu onartu gabeen artean.


DATi, dagokionez, adibideek argi erakusten digute bere presentzia ez dela oso arrunta, ez baitzaigu bat ere agertu. Agertuz gero, ekintza zuzentzen zaion entitatea edota ABS entitatearekiko jabetzako harremana duen entitatea adieraziko luke. Nolanahi ere, bi kasuetan ABS entitatea izaki bizigabe konkretua izatea dirudi beharrezkoa. *DAT helburua* denean, ERGek *abiapuntu* bezala ere jokatu luke; baina DATek beti ez duenez hori adierazten, eta ez denez oso arrunta, aukera hori ez dugu bere osagai semantikoetan aurreikusi.

Hortaz, esango dugu *landu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusitzat *esperimentatzailea* eta *gaia* dituela, kasu ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

landu-DU-0: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS

Datu estatistikoetan, ERG eta ABS dira nabarmenki gailentzen direnak:



DA	33,19%	DA-ins	2,97%	DA-abl	0,38%	DA-abs	100,00%	DA-konp	4,02%	DA-soz	2,93%	DA-ine	10,01%						
DU	66,45%	DU-ins	2,32%	DU-ala	0,54%	DU-abl	3,61%	DU-abs	75,73%	DU-konp	0,71%	DU-soz	4,51%	DU-ine	17,27%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,18%	DIO-abs	100,00%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%												
ZAI0	0,18%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-dat	100,00%														

Laztandu

laztandu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (101) Masturbatzeko nork bere gorputza **laztanten** du gauza politik pentsatuz eta sentipen atseginak lortuz. (EusCor)
- (102) Komiki bat, bertan pertsonaia nagusi bi, bata txikia eta azkarra da, besteak basurdeak maite ditu, basurdeak maite, baina ez [HARK] [HURA] **laztantzeko**, baizik eta erreta jateko. (EusCor)
- (103) Mujikak poliki **laztandu** zuen bizarra. (EusCor)
- (104) Salto txiki bat egin, hegalak luzatu eta, sabelarekin lurra [HARK] **laztanduz**, guk oraindik ikusi ez dugun zomorro edo mamarruren baten bila abiatu da.) (EusCor)
- (105) Behin batean, **laztandu** nuelarik [NIKI] [HURA], haztarna digitalak ohostu zizkidan. (EusCor)
- (106) Eta ez da asko falta izan jaun serio batek **laztandu** nindezan [NI]. (EusCor)
- (107) (...) bere ile beltz leuna, bere azal iluna **laztanten** zuen [HARK], eta irrifar eder bat ikusten nuen, ezpain gorri batzuen atzetik. (EusCor)

Adibideok agerian jartzen dutenez, **ERG** entitatea beti gizakia da, eta ekintza burutzen du. **ABS** entitatea, izaki biziduna da askotan, edo bestela izaki bizidun baten gorputz-atala; gorputz-atal hau askotan ERG entitatearena da (eta hortaz, ekintza erreflexibo bat adierazten da); bakanka, ordea, horrelakoa ez den izaki bizigabe konkreturik ere ageri da ((104): *lurra*).

INE zilegi dela esan dugu, baina ez dugu adibiderik aurkitu. Hala ere, ekintza non edo nola gertatzen den adieraziko luke.

SOZek eta **INSE**k modua adierazteko gaitasuna dute, nahiz eta adibide bakarra aukitu dugun; zehazki SOZ duena, eta horretan baliabidea adierazten du ((104): *sabelarekin*). SOZek konpainia ezin dezakela adierazi ematen du.

ABLk, adibiderik agertu ez bazaigu ere, ERG entitatearen kokalekuari erreferentzia egin diezaioke (*aulkitik lastandu*), edo ABS entitateari dagokion atalen bati (*gainetik...*). Nolanahi ere ez da bat ere arrunta.

Azkenik, **DAT**i dagokionez, esan behar da hau azaltzen denean, ABS entitatearekiko jabetzako harreman baten berri ematen duela beti. Jabetza hau berariazkoa da ABS entitatea gorputz-atala denean. Gorputz-atala ez denean, ABS entitatea DAT entitatearen jabea da besterik gabe, hau da, jabetza besterengarria da⁷. Beraz, horrelakoetan, ekintza zuzentzen zaion entitatea baino gehiago, gure ustez jabetzako harreman hori da azpimarratu nahi dena.

Hala, esango dugu, *lastanduk jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *gaia* dituen; ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bss-aren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

lastandu-DU-0: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS

Ez dugu datu estatistikorik aditz honentzat.

Lortu

lortu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

⁷ *Berariazko jabetza* eta *jabetza besterengarria* terminoak erabiliko ditugu bi jabetza motak —alegia, berezkoa eta berezkoa ez dena— bereizteko; hau da, *inalienable* eta *alienable* kontzeptuen baliokide gisa.

Azalpena

Adibideak:

- (108) Ondorioz, Naturgas aukera hau ematen hasi zenean, propanokoek denuntzia jarri zuten eta erantzuna jaso bitartean, Naturgas-ek gasa era honetan **lortzeko** aukera ez du ematen; dena dela, azalpen hau ziurtatu gabe dago. (EusCor)
- (109) Zalantza horiek ezusteko bidetik lortu zuten argia, kanpora ematen zuen atetik Rollin komisaria sartzen ikusi zuenean. (EusCor)
- (110) Izaera horrek ejertzitoan sartzera eraman zuen, bertan teniente gradua lortuz [HARK]. (EusCor)
- (111) Animaliek, ondoek, bakterioek eta berde ez diren gainerantzeko organismoek, animalia edo landare biziez elikatuz eta, behin hauek hilda daudenean, deskonposatuz **lortzen** dituzte beharrezko substantzia organikoak [HAIEK]. (EusCor)
- (112) Lehenbiziko plaka 1823an **lortu** zuen Niépcé-k, eta "mahai zerbitzatua" izenarekin bataiatu zuen. (EusCor)
- (113) Gero plaka hura hozten uzten zuen eta horrela emultsioa lortzen zuen. [HARK] (EusCor)
- (114) [HAIEK] **Lortuko** balute babesik egoera pixka bat baretu arte!. (EusCor)
- (115) 2. Zuhaitzera igoera deituriko besarkada gertatzen da emakume batek bere hanka bat amorantearenaren gainean jarririk eta bestea iztarretako batean, besoetako bat giltzurdinaren gainetik pasa eta bestea bizkarretik, ahapeka abesten badu besoetako haurra balu bezala, eta zuhaitzean gora igotzeko zeinua egiten badu gizonarengandik musu bat lortzeko. [HARK] (EusCor)
- (116) b. Ondorio berdinak lortzen ditu aker baten edo ahari baten barrabilean irakindako azukrez nahasturiko esneak. (EusCor)
- (117) Jada Villavesa konpainiako autobus zahar bat lortu dute [HAIEK] merkantzia garraiatzeko, eta beste bat eskuratzeko ahaleginetan ari dira. (EG)
- (118) Alemaniak Balkanetan oreka lortzeko plana prestatu du. (EG)
- (119) ETBk 1998 urtean **lortutako kontsumoa** 48 minutukoa izan zen pertsona eta eguneko, hain zuzen ere, 1997. urtean baino minutu bat gehiago. (EG)

Adibideotan ikus dezakegunez, **ERG** entitatea ia beti gizakia da, edota honen ordezkotza jokatzeko duen entitatea ((118): *Alemania*; (119): *ETB*); baina bakanki izaki bizigabeei — konkretu ((116): *esnea*) nahiz abstraktuei ((109): *zalantza horiek*)— ere egin diezaieke erreferentzia. Badira, azkenik, berezko bizia duten izakiak, nolabait ere izaki biziduntzat jo daitezkeenak ((111): *onddo, bakterio, berde ez diren organismo*). **ABS** entitatea, berriz, izaki biziduna nahiz izaki abstraktua izan ohi da; halakoak dira, bederen, adibideetan agertu zaizkigunak.

INEk ekintza egiteko modua nahiz ekintzaren kokapena adierazten du, ez dirudi, ordea, **ABS** entitatearen kokapena adieraz dezakeenik.

SOZek eta **INSek** aurreko aditzetan azaldu diren ohiko balioak izan ditzakete, kasu honetan orotarikoa izan daitekeelarik modu hori. **INS**, hala ere, mendeko esaldi bat osatuz ageri da gehienetan.

ABLk, ABS entitatearen *abiapuntuko kokapena* adierazten du. Orduan, *hautatu* aditzean gertatzen den bezala, ERGek *helburu* gisa ere joka dezake; baina ABL Kasu azpikategorizatu gisa jarri ez dugunez, ez dugu aukera hau eman osagai semantikoetan. Besterik gabe, *jarduera* bat adierazten duela esango dugu. *Abiapuntuko* balio horretaz gain, moduzko zentzu bat hartuz, baliabidea ere adieraz dezake ABLk ((109): *ezusteko bidetik*). Hala izanik, adberbio eginaren itxura handiagoa du kasu honetan.


Azkenik —adibideetan agertu ez bazaigu ere—, **DAT**ek ekintza zuzentzen zaion entitatea —alegia, *helburua*— adierazten du. Horrelakoetan, orduan, ERGi *helburu* izateko aukera hori eragozten zaio; edo hobeto esanda, badirudi, bi *helburu* daudela jokoan, bata —ERG— bitarteko gisa jokatu duena, nolabait esatearren, eta bestea —DAT— ekintzaren azken *helburua* litzatekeena. DATik agertzen ez denean, berriz, *helburu* bakarra genuke. Hala ere, ez DAT ez ABL ez ditugunez Kasu azpikategorizatu gisa jarri, ERGen *helburuaren* aukera hori ez dugu osagai semantikoetan adierazi.

Beraz, *lor*tu aditzak *jarduera* bat adierazten duela esango dugu, partaide nagusiztat *esperimentatzailea* eta *gaia* dituen; ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

lortu-DU-0: *esperimentatzailea* _ERG; *gaia* _ABS

Datu estatistikoek erakusten digute ERG eta ABS ondoren INE dela maiztasun handienekoa:



DA	19,27%	DA-ins	1,88%	DA-ala	0,55%	DA-abl	6,08%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,15%	DA-soz	3,81%	DA-ine	21,72%				
DU	78,86%	DU-ins	2,10%	DU-ala	0,74%	DU-abl	2,76%	DU-abs	70,05%	DU-komp	4,33%	DU-mod	0,65%	DU-soz	3,57%	DU-ine	15,75%	DU-erg	100,00%
DIO	1,13%	DIO-ins	0,43%	DIO-ala	2,98%	DIO-abl	3,32%	DIO-abs	89,79%	DIO-komp	0,40%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	5,75%	DIO-ine	14,25%	DIO-erg	100,00%
ZAI	0,74%	ZAI-ins	0,44%	ZAI-ala	3,03%	ZAI-abl	3,35%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	0,66%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	8,10%	ZAI-ine	9,29%		

Moztu

moztu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (120) Maiz helduek parte-hartzaileen ekimen eta sormena **moztu** egiten dute (espezialitate-mota, haur jakin batenganako interes berezia, txapelketa antolatzerakoan manipulazioa, estatus bereziak ...) eta hau izan daiteke neurri batean animatzaileerik handienak pilotaren esparrutik aldegitaren arrazoirik argiena. (EusCor)
- (121) d) **Moztu** [ZUK] hexagono hori erditik lehen marraztu dituzun bi triangeluren aldeetan zehar eta lot itzazu bi zati horiek erronboide bat eratzeko moduan. (EusCor)
- (122) Segatzea (segalariek belarra mozten dute segaz), txinga-eroatea (pisu astunak bi eskuetan hartuta joan-etorri asko egiten dituzte plazan zehar), artaburu biltzea, ... (EusCor)
- (123) Horrela, etsaiaren burua mozten zuen gerlariak, haren baitan ezkututzen zen botere magikoa beretzat eta bere herriskarentzat eskuratzen zuen, bere taldeko pertsonak, animaliak eta lurraldea emankorrango bihurtuz. (EusCor)
- (124) Beste anaie Joxek berriz bizkarrezurre autsi zun, ta besoa moztu [HARK]; (EusCor)
- (125) Honelako zurrumurruak ahal zen neurrian **mozteko** [GUK], bi erabaki hartu genituen: (EusCor)
- (126) (...) bananondo batetik [HARK] **moztutako** makilaz kolpatzen ditu. (EusCor)
- (127) Emankortasuna arbola emankor batetik [HARK] **moztutako** makilan datzala, eta bananondo gazteei ukituz kutsatzen zaiela. (EusCor)
- (128) Independentziaren aldeko saio guztiak sustraitik bertatik **moztu** behar dira. (EusCor)
- (129) Gero, galtza beltzak baino ez zituela jantzita, bularralde sendoa biluzik, bizarra [HARK] **mozteko** lanak hasi zituenean, ispiluko bere irudiak itzuli egin zion keinu hura, hemeretzi mende lehenago hildako judu hark erronka onartu balio bezala; (EusCor)
- (130) ... kolpe batez **moztu** [NIK] [HURA] eta neureganatu nuenetik. (EusCor)
- (131) Asteaz sei egunez egurra mozten zuen [HARK], eta larunbatetan elizara joaten zen. (EusCor)
- (132) Baina jadanik bukatu da zurrunbiloa, aurkitu diot bizitzari zentzua, larrosa gazte honi ez dizkiot arantzak moztuko [NIK], utzi egingo diot, utzi kolpatzen, utzi zapaltzen, utzi gaitzitzen. (EusCor)
- (133) Berba egiten ez baduzu, borreroak, ezelako errukirik gabe, lepoa moztuko dizu. [ZURI] (EusCor)
- (134) -Horretaz hitz egiten jarraitzen baduzue, **moztu** egin beharko dut elkarrizketa [NIK] —esan zuen bisita zaintzen ari zen jagoleak —. (EusCor)
- (135) Lepoak moztu [HAIEK] [HAIEI], besoak atera, hankak xehetu, zer ez omen zieten egin. (EusCor)
- (136) Bi lore berde moztuko dituzu [ZUK], kuian kolatzeko. (EusCor)
- (137) (...) jakinduria oso lodia da, labana batekin [HURA] [NORBAITEK] **mozteko** modukoa. (EusCor)

(138) Aurkako aldean, kartoian karratu bat moztu behar da eta hor margotzeko paper fina jarri, ahalik eta paper finena. (EG)

(139) Ondoren, auditoriorantz joko dute, eta eskailera nagusiaren hasieran lbarretxek zinta zuri urdina moztuko du. (EG)

ERG entitatea, oro har, gizakia da; horixe da adibideek erakusten digutena. **ABS** entitatea, berriz, izaki bizigabe konkretu edo abstraktua izan daiteke. Konkretua denean, INSek eta SOZek ekintza burutzerakoan erabilitako tresna edo baliabidea adierazten dute, baliabideak kausa eitea duelarik (*kolpe batez*). Abstraktua denean, berriz, ekintza egiteko modua adierazten dute besterik gabe. Adibideek erakusten digutenez, izaki konkretu hau askotan gorputz-atal bat da, eta uste dugu horrelakoetan ERG entitatearena dela beti; hau da, ekintza erreflexibo bat adierazten dela. Gorputz-atala ERG entitatearena ez dela adierazteko, DAT sartzen da perpausean, gorputz-atal horren jabea adierazteko ((133): *lepoa moztuko dizu*), edota izen sintagma baten barruko izenlagunaren bidez adierazten da ((123) *etsaiaren burua*). Parte-oso harreman hori ez da bakarrik gizakia eta bere atalen artean gertatzen, izaki bizigabe konkretuen eta bereb zatien artean ere ageri zaigu ((132): *larrosa gazte honi ez dizkiot arantzak moztu*).

INEk, gutxitan agertzen bada ere, bere ohiko balioak adierazten ditu: ekintza egiteko modua ((125): *ahal zen neurrian*); ABS entitatearen kokapena ((138): *kartoian karratua*); ekintzaren kokapena ((139): *eskailera nagusiaren hasieran*).

ABLk, azkenik, batzuetan ABS entitatearen hasiera bateko kokapena eta izaera materiala adierazten du, beti ere entitate hau konkretua denean ((126) *bananondo batetik*; (127) *arbola emankor batetik*); hala izanik, ABL eta ABS entitateen artean parte-oso harremana dagoela esan daiteke (*bananondoa / arbola → makila*). Aldiz, ABS entitatea abstraktua denean, kokapen hau modu metaforikoan ulertzen da, modutik hurbilago jarritz ((128): *independentziaren aldeko saio guztiak sustraitik bertatik moztu*). Baina horretaz gain, ABS entitatea azalera gisa hartuta, ABLk honen mozte-kokagunea ((121): *erditik*) adieraz dezake. Horretarako, ABL entitateak edo posizioen bat adierazi behar du (*erdi, goi, eskuin...*), edo ABS entitatearen parteren bat izan behar da (*punta, ertz, lepo...*). Horretaz gain, seguruenez, adibiderik aurkitu ez badugu ere, ERG entitatearen kokapena ere adieraz lezake (adibide asmatua: *pankartaren soka balkoitik moztu*). Nolanahi ere ez dirudi oso arrunta denik.

Aipatu behar dugu, bestalde, aurkitu ditugula inespezifikazio jakintzat jo daitezkeen adibideak:

(140) -**Moztu** zion andreak tinko [HARI] -. Modu honetako erabileratan agian "mintzaldia"-edo ulertu behar genuke objektu inespezifikoa jakin bezala. (EusCor)

(141) Honezkero, Samoako morroiak eta aita bereak eta bi izan dituzte etxean (imajina ezazue ehun kiloko morrosko bi elkarri lepoa bihurritu nahian), eta neskak moztea erabaki du. (EusCor)

Ikus dezakegunez, inespezifikatzen den elementua oso jakina da bi adibideetan. Lehenengoan *elkarrizketa* edo *berbaldi* moduko bat ezkututzen dela dirudi, eta bestean *erlazio* moduko zerbait. Hau da, ez da zer edo zer orokorra edo ezeren hiperonimoa, eta


testuinguru jakin bati (testuinguru pragmatiko bati) lotuta daude. Hori dela eta, berez, aparteko sarrera eman beharko genieke: Bata DIO laguntzailea harturik, *elkarrizketa/berbaldia* inespezifikatzen duen balio gisa, eta bestea DU laguntzailea harturik *erlazioa* inespezifikatzen duen balio gisa. Ordea, ez dugu hori egin; lehendabiziko kasuan oso testu mota zehatzari lotuta dagoela uste baitugu (elkarrizketak eta horrelakoak), eta bigarrenean, erdaratiko kalko ez-jatorra iruditzen zaigulako.

Berez, *moztu* aditzak jarduera bat adierazten duela esango dugu, partaide nagusitzat *esperimentatzailea* eta *gaia* dituela; ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren. Esan behar da, *moztu* aditza egoera-aldaketa aditzen artean eztabaidatua izan ohi dela, berez objektu gisa agertzen den gaiak aldaketa bat jasaten duela ageria baita (hasieran osoa-edo zegoena, gero zatika-edo dago). Horretaz gain, *gaia* objektu material “mozgarria” ez denean (*bidea, ura...*), ERG entitatea gizakia nahiz bestelakoa izan daiteke, eta *gaiaren* egoera-aldaketa zentzua ez da oso garbi gertatzen; nolabait ere abstraktuki ulertu behar litzateke. Gauza da, irudiz *moztu* aditzak ez duela alternantzia kausatibo-inkoatiboa onartzen, eta horrek egoera-aldaketako aditzat hartzeko mugak ezartzen ditu. Hhala ere, alternantzia aztertzerakoan esan dugun bezala, ez dugu uste alternantzia hau ez onartzea egoera-aldaketazkotzat ez jotzeko nahikoa arrazoia denik. Guk *moztu* aditza jardueratzat hartu dugu, berez egilearen esperimendazioak garrantzia duela ematen baitu. Nolanahi ere, axolako zaiguna da bere oinarriko elementuak bi direla eta ERGez eta ABSz gauzatzen direla.

Bessaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

moztu-DU-0: esperimentatzailea_ERG; gaia [-biz]_ABS

Datu estatistikoei dagokienez, ERG eta ABS dira gailentzen direnak:



DA	10.44%	DA-ins	1.77%	DA-abl	0.89%	DA-abs	100.00%	DA-komp	1.77%	DA-soz	9.73%	DA-ine	18.29%						
DU	71.02%	DU-ins	4.16%	DU-abl	2.08%	DU-abs	94.10%	DU-komp	3.96%	DU-soz	11.97%	DU-ine	5.38%	DU-erg	100.00%				
DIO	14.89%	DIO-ins	1.65%	DIO-ala	5.79%	DIO-abl	0.83%	DIO-abs	90.90%	DIO-komp	8.41%	DIO-dat	100.00%	DIO-soz	9.10%	DIO-ine	1.65%	DIO-erg	100.00%
ZAIO	3.65%	ZAIO-ins	1.69%	ZAIO-abl	0.84%	ZAIO-abs	100.00%	ZAIO-komp	1.69%	ZAIO-dat	100.00%	ZAIO-soz	9.27%	ZAIO-ine	25.30%				

ukitu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (142) Beraz, irakasle euskaldunberrien sail hau sartzearen ondorioz, aldaketa garrantzitsua gertatzen da hizkuntzari buruzko gizarte irudikapenen arloan, euskararen NORi (gizabanakoa edo berezko taldeak edo nazio komunitatea) eta NONi (familia edo kalea edo ikaskuntza-gunea —euskaltegia, barnetegia—) atxekitzen zaien zentzua **ukitzen** duen aldaketa, hain zuzen: (EusCor)
- (143) Erdal azaleko Michelenaren langintzaren gihia **ukitzen** [HAIEK] dutelakoan nago. (EusCor)
- (144) Bi pertsonak elkarri begiratu, muxuak eman, gorputza **ukitzen** diote denbora puska batez, edo batzuetan oso azkar, elkarren behar handia dutelako. (EusCor)
- (145) Leku batetik zintzilikatuta eta oinekin lurra **ukitu** [NORBAITEK] gabe gorputza mugitzea da. (EusCor)
- (146) Hodeiak oso behetik doazenean, lurra **ukitzen** dute [HODEIEK] eta ez digute uzten aurrean dagoena ikusten. (EusCor)
- (147) Alderdi bat bakarra **ukituko** dut [NIK] gutxitan aintzat hartzen dena baina oso inportantea. (EusCor)
- (148) Gaur egun orkestra-gizon bihurtuta dago eta zaila da bere eskuek atondutako platerren bat dastatzea, baina horrela izaten da hori behin sukaldariak zerua **ukitu** duenean. (EusCor)
- (149) 10 edo 15 sg.tan zenbat alditan **ikutzen** duen [HARK] [HURA] ere ikusi dezakegu. (EusCor)
- (150) [HARK] Han zabalago **ukitzen** duen kontu hau, jadanik Larramendi dela eta erabili zuen "Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan" (ASJU 1985-1) lanean, batez ere 41-45. (EusCor)
- (151) Arazo unibertsala, giza kulturaren izaera eta garapenerako aparteko garrantzia duen problema **ukitu** dugu hemen. [GUK] (EusCor)
- (152) Bekesko lurraldean, Hungarian, emakume antzuak emankortzeko, zakurrak ernaltze-lanetan ari zirelarik bereizteko erabilitako makilaz **ukitzen** dituzte. [HAIEK] [HAIEK] (EusCor)
- (153) Uzki inguruan [NORBAITEK] [NORBAIT] **ukituz** bizkarrezurrean gora azkura sortzen... (EusCor)
- (154) Palaren hortzek garabia ari den aldeko murrua ere **ukitu** dute azken nean... (EusCor)
- (155) Bere behatz indizeak beste norbaiten behatz indizea **ukitu** zuen bete-betean, bera izutuz noski, zeren eta ustegabea izugarria izaten baita estraineko nean..) (EusCor)
- (156) Bekokiaz Iñaki Abaituaren bekokia **ukitu** ondoren [HARK], albo batera irristatzen da eta "oso ondo, mutikote, oso ondo" esaten du, bi aldiz, dioena azpimarratzeko, irribarrez. (EusCor)
- (157) Zihoaneko lagunartea aurrean zuelarik, atzetik inguratu eta —hatz puntekin bizkarrean **ukituz**... [HARK] [HURA] (EusCor)

(158) Irribarre egiten zuen orduan, eta ezpata kirtena [HARK] **ukitzen** bere hatz mamiez. (EusCor)

Adibidetan ikus dezakegunez, ERG entitatea gehienetan gizakia da, baina bestelakorik ere ageri zaigu ((146): *hodeiek*; (154): *palaren hortzek*; (155): *bere behatz indizeak*). **ABS** orotarikoa izan daiteke, baina dirudienez, izaki abstraktua denean, ERG entitatea beti biziduna da. *Moztu* aditzean gertatzen zen bezala, ABS entitatea gorputz-atala denean, ERG entitatearena dela uste dugu, ondorioz ekintza erreflexibo bat adieraziz. ERG entitatearena ez dela adierazteko, **DAT** sartzen da, edota bestela ABS barruko izenlagun baten bidez adierazten da. ABS entitatea partea ez denean ere, DATek honekiko jabetza-harremana adierazten du.

Hala ere, bada beste modurik bi entitateren parte-oso harremana adierazteko, **INE**ren bitartez, alegia. Gorputz-atal osagaiaren igoera alternantzia (*L 2.12*) ikusitakoa genuke hau. INEk gunean gorputz-atal bat duenean, ABS entitateari dagokiola ulertu behar da. Horrelakoetan, orduan, ABS entitatearekiko jabetza erlazioa da aditzera eman nahi dena. Izatez, INE agerten den gehienetan hori adierazten du ((153): *Uzki inguruan* [NORBAITEK] [NORBAIT] **ukituz**; (157): *bizkarrean* **ukituz** [HARK] [HURA].).

Alternantzia esan dugun bezala, guk INE hauek Kasu onartu gisa markatuko ditugu; azpikategorizazioaren parte izan gabe, baina argumentu azpikategorizatu batekin erlazioa duela azpimarratuz.

Gainontzean, **INE**k ekintzaren kokalekua ere adierazten du ((151), (152)). ABS entitatearen kokapena adierazten duen adibiderik, berriz, ez zaigu azaldu.

SOZi eta **INS**i dagokionez, *moztu* aditzean esan duguna errepika dezakegu. ABS entitatea konkretua denean, **IN**Sek eta **SO**Zek ekintza burutzerakoan erabilitako tresna edo baliabidea adierazten dute ((145): *oinekin*; (152): *zakurrak ernaltze-lanetan ari zirelarik bereizteko erabilitako makilaz*; (157): *hatz puntekin*; (158): *bere hatz mamiez*). Abstraktua denean, berriz, ekintza egiteko modua adieraziko lukete besterik gabe; ez dugu horrelakorik aurkitu, hala ere.


Azkenik, **ABL**k, inongo adibiderik aurkitu ez dugun arren, ERG entitatearen kokapena adierazteko gaitasuna duela dirudi; nolana ere ez da arrunta.

Beraz, esango dugu, *ukitu* aditzak jarduera bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *gaia* dituela; ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

ukitu-DU-0: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS

Datu estatistikoek Kasurik nabarmenenak ERG eta ABS direla erakusten digute. Baina DATek ere badu presentzia beste Kasuekin parekatuta:



DA	8,33%	DA-abs	100,00%				
DU	70,83%	DU-abs	93,10%	DU-ine	4,87%	DU-erg	100,00%
DIO	20,83%	DIO-abs	43,45%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%

Zeharkatu

zeharkatu-DU-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (159) Zein ibaik **zeharkatzen** du Paris? (EusCor)
- (160) Bere ondora heldu nintzanean, bere begi urdinek burua **zeharkatu** eta garezurrean ziztadea emon eusten; (EusCor)
- (161) Mikropitzadura (partikularen hausturaren bidez sortuta) inguratzen duten matrizearen { 100 } esfoliazio-planoak ez baldin badaude ondo orientaturik, mikropitzadurak muga **zeharkatzea** askoz zailagoa izango da. (EusCor)
- (162) Zu, ba, Alaska oinez [GUK] **zeharkatzen** ari bagina izango genukeen hotzarekin pentsatzean oilo-larrua jartzen zait eta (EusCor)
- (163) Oschimisú izeneko tunelak 22 kilometro **zeharkatzen** ditu lur azpitik. (EusCor)
- (164) Intentsitateak diodoa **zeharkatuko** du eta sarrerako tentsioa irteeran agertuko da. (EusCor)
- (165) Txintxetek, elektrodoa, paper eroalea eta kortxozko oinarria **zeharkatu** beharko dute, lotura zurruna izan dadin. (EusCor)
- (166) Ez zuen burua jaso, eta ezer eskatu gabe, begiratu ere egin barik, erreka gainera egurrezko zubi zaharra [HARK] **zeharkatu** eta aurrera jarraitu zuen ozta-ozta. (EusCor)
- (167) Horretarako, urtean birritan **zeharkatu** behar dute Atlantikoa. [HAIEKI] (EusCor)
- (168) Klara oihuka ari zaio, baina haren hitzen soinuak **zeharkatu** behar dituen hormetako bakoitzak gardentasuna kentzen dio esanari. (EusCor)

- (169) Eurite-sasoian, hainbat astetan, ez zen zerurik ikusten, halako laino uniforme batek estaltzen zuen, ilargiaren izpiek ere **zeharkatzen** ez zutena. (EusCor)
- (170) Gorputzeko atal bakoitzetik indarrak atereaz, sentitu gabe mugitzen zaizkion hankek eraman dezaten utziz, aurreneko lekuan **zeharkatu** du helmuga. (EusCor)
- (171) ...korrejitu zion Tobik eta zorian sentimendu batek gorputza nola **zeharkatzen** zion [HARI] somatu zuen. (EusCor)

ERG entitatea askotan gizakia da, baina bestelakorik ere ageri da. **ABS**n, berriz, ez da gizakirik agertzen, baina, gainontzean orotarikoa izan daiteke. Hala ere, **Preposizio lokatiboaren galeran (L 1.4.1)** alternantzia esan dugun bezala, izaki hori zeharkaldi bat, bide bat errepresenta dezakeen entitate bat izan behar du: *lurra, Alaska, Paris, Atlantikoa, 22 kilometro, kalea, ibaia...* Gerta daiteke izaki horrek zeharkaldi oso laburra adieraztea. Orduan **ABS** entitatea “barrutik” zeharkatzen dela dirudi (besterik espezifikatu ezean, bederen): *burua, kortxozko oinarria, hormak, paper eroalea...* ; edota “gainetik” (berriz ere, besterik espezifikatu ezean): *helmuga, muga...* Nolanahi ere izaki bizidunik ez da agertu. **ERG** entitatea biziduna denean, honek desplazamendu bat egiten du zeharkaldi horretatik. Bizigabe konkretua denean ((163)), berriz, entitate horrek duen kokapen espaziala adierazten da, inongo desplazamenduri erreferentziarik egin gabe. Ikusiko dugu hori bera gertatzen dela *joan* aditzean ere. Azkenik, abstraktua denean, desplazamendu abstraktu bat ulertu behar da.

ABLk, hain zuzen, zeharkaldi hori nondik egiten den adierazten du, eta horregatik honek ere *bide* moduko bat adierazten duela esango dugu; bederen, ez du inongo entitatearen *abiapuntuko kokapenik* adierazten.

INEk modua eta kokapena adieraz dezake. Moduaren adibiderik ez dugu aurkitu, baina bai kokapenezkorik. Aditz honen kasuan, esan behar da, **INE**k beti **ERG** entitatearen kokapenari egiten diola erreferentzia. Adibideetan agertu zaiguna ez da beharbada garbiena ((170): *Gorputzeko atal bakoitzetik indarrak atereaz, sentitu gabe mugitzen zaizkion hankek eraman dezaten utziz, aurreneko lekuan **zeharkatu** du helmuga*). Baina are garbiago ikus dezakegu corpusean agertu ez zaigun kasu honetan: *Pellok ibaia piraguan zeharkatu zuen. Alegia, Pellok, piraguaren barruan kokatuta, ibaia zeharkatu zuen.*

INSek eta **SOZ**ek euren ohiko balioak erakuts ditzaketela dirudi.

DATek, azkenik, **ABS** entitateak zeharkaldi oso laburra adierazten duenean, entitate honekiko jabetzazko harremana adierazten du; gehienetan **ABS** entitate hau gorputz-atala da, hain zuzen. Beraz, **DAT**ek gure ustez, jabetzazko erlazio baten berri ematen du gehienbat. Gainontzean, ez da oso arrunta; izatez, adibiderik ez dugu aurkitu. Esan behar da, **DAT** ageri den kasu hauetan, desplazamenduzko balioak garrantzia galtzen duela, eta **ERG** entitateak egiten duen jarduerak hartzen duela indarra.


Honenbestez, esango dugu *zeharkatu* aditzak oro har entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, beharrezko osagai gisa *gai ukitua* eta *bidea* dituela, **ERGez** eta **ABSz** gauzatuak, hurrenez hurren. Baina kontuan izan behar da, **ERG** entitatea zein den, aditzak

gehiago azpimarratzen duela entitate horren kokapen estatikoa (izaki bizigabea denean), edo ERG entitateak egiten duen jarduera (bidea oso laburra izan eta DAT dagoenean jokoan).

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

zeharkatu-DU-1: gai ukitua _ERG; bidea [-biz]_ABS

Datu estatistikoek ERG eta ABSren gailentzea adierazten digute:



DA	5,21%	DA-abl	20,65%	DA-abs	100,00%	DA-ine	22,83%								
DU	91,28%	DU-ins	2,36%	DU-ala	3,53%	DU-abl	3,53%	DU-abs	90,93%	DU-komp	1,18%	DU-ine	8,04%	DU-erg	100,00%
DIO	3,51%	DIO-abs	95,64%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	2,15%	DIO-erg	100,00%						

1.2 Bss bat baino gehiago duten aditzak

abestu (2), adierazi (2), afaldu (2), argitu (4), asmatu (3), baieztatu (2), bazkaldu (2), edan (2), ehizatu (2), ekarri (4), eman (4), entzun (3), eraman (3), erantzun (2), esan (3), eskatu (2), grabatu (2), hartu (2), ikasi (3), irakurri (3), irautu (3), jan (2), jaso (3), landatu (2), onartu (2), ulertu (3)

DU laguntzailea bakarrik erakusten duten 43 aditzetatik 26k dute balio bat baino gehiago.

Aurreko sortan ez bezala, hemen aditzak multzoka aztertuko ditugu ahal den neurrian, askotan ezaugarri berak erakusten dituztelako Kasuen —batez ere Kasu azpikategorizatuen— balioei eta konbinazioei dagokienez. Hala ere, desberdintasunak agertzen direnean, azalduko ditugu. Sail honetako aditz ia guztien bssek alternantziak osatzen dituzte euren artean; zenbaitetan, ordea, ez dira gauzak hain argiak.

1.2.1 Bi *bss* dituztenak

A multzoa: *bss*ak elkarren artean alternantzia

abestu, adierazi, afaldu, baieztatu, bazkaldu, edan ehizatu, erantzun, eskatu, grabatu, jan, landatu, onartu

A.1 Objektu inespezifikoaren alternantzia dutenak

Bi *bss* dituztenetatik hasita, *bss* batean ABS onartzen ez dutenetatik hasiko gara. Hots, Objektu inespezifikoaren alternantzia erakusten dutenetatik. Beraz, alternantzia honetan azaldu ditugunak izan behar dira kontuan beren Kasu azpikategorizatuak eta hauen osagai semantikoak ulertzeko.

Sorta honetan sartzen ditugu ondoko zazpiak:

abestu, afaldu, bazkaldu, edan, ehizatu, grabatu, jan

Aditz hauek DU-1 eta DU-2 *bssetan* ondoko Kasu azpikategorizatuak eta kasu baztertuak dituzte:

DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Onartzen ez dituzten kasuak: ELA_KONP, ABS, ALA

Kasuen onartuen artean, berriz, diferentzia txiki batzuk badaude:

Denek onartzen dituzte INE, SOZ eta INS bi *bssetan*.

Laurek (*abestu, edan, grabatu* eta *janek*) ABL eta DAT ere onartzen dituzte. Baina *edan* eta *jan* aditzetan, inespezifikazioaren *bssan* DAT ez dugu Kasu onartuen artean jarri. *Afaldu, bazkaldu* eta *ehizaturi*, berriz, ez dizkiegu ez ABL ez DAT onartu.

Azalpena

Bss bakoitzeko adibide bana:

(172) Gaztetxe bakoitzeko partaide batek bertso bat **abestu** eta txiste bat kontatu zuen. (EusCor)

(173) Zenbaitzuek ongi **abesten** dute, baina beste batzuek ez —adierazi zuen Alexanderrek—. (EusCor)

(174) Beraientzako astebeteko jana zena, guri **afaltzeko** eskaintzen ziguten: (EusCor)

- (175) Elkarrekin **afaldu** genuen hirurok. (EusCor)
- (176) Gero eta gehiago protestatu, gero eta arroz integral eta era guztietako fruitu gehiago aurkitzen nituen mahaian [HAIEK] [NIK] **bazkaltzeko** (EusCor)
- (177) Eskolan **bazkaltzen** du [HARK] eta gehien gustatzen zaion janaria saltxitxak dira. (EusCor)
- (178) - Bai, **edango** dugu ardo pixka bat [GUK]. (EusCor)
- (179) Guk **edaten** dugu! (EusCor)
- (180) Beren bizitza eta [HAIEK] **ehizatzen** zituzten animaliena gizakien unibertso bakarra zela uste zuten. (EusCor)
- (181) Gainera lekuz aldatzen direnean emaztearen lurraldean [HAIEK] **ehizatze**ko eskubidea dute. (EusCor)
- (182) Jonasek, bien bitartean, guztia **grabatzen** zuen. (EusCor)
- (183) Irakasle honek **grabatzeari** utz ziezaion eskatu zion aipatu funtzionariari behin eta berriz. (EusCor)
- (184) Ondoren Urgutxi iturburura joango dira oinez eta bertan atsedena hartu eta hamaiкетakoa egiteko duten otartekoa **jango** dute [HAIEK]. (EusCor)
- (185) - Hainbat eta gogo gehiagoz **jango** dut eta. [NIK] [HURA] (EusCor)

Batzuetan, esan behar da, ez dela erraza bat edo bestea den esatea. *Janen* adibide honetan, esaterako:

- (186) - Zergatik ez dugu, ba, **jango**? (EusCor)

ZERBAIT ZEHATZA? EDO BESTETIK GABE “JAN”?

ERG entitatea biziduna da guztietan; **ABS** entitatea, berriz, *ehizatu* aditzean izan ezik, bizigabea da. *Ehizatun*, hain zuzen bizia galduko duen izaki biziduna behar du izan.

INEk guztietan adieraz dezake ekintzaren kokapena, bai ABSdun erabileran bai gabean. Hona zenbait adibide:

- (187) Gazteek berriz, ez dute lehen bezala, beren festa eta bileratxotan **abesten**; (EusCor)
- (188) Batzuk partikular eginak eta osatuak ziren, eta besteak, sinagogan **abesteko** edo jauretxeko funtzio argienetan kantatzeko. (EusCor)
- (189) Gabonetan denek etxean **afaltzea**, iragarkietan agertzen den moduan. (EusCor)
- (177) Eskolan **bazkaltzen** du eta gehien gustatzen zaion janaria saltxitxak dira. (EusCor)
- (190) Txapelketa egunean goizeko 10etan altxatu zen ohetik, hamar ordu luze lo egin ondoren, eta goizean ziklo-krossa ikustera joan zen adiskideekin, etxean **bazkaldu** eta Jokin Sorozabalekin batean Anoetara joateko. (EusCor)
- (191) - Zaldiek ez diate urik hemen **edaten**, nik nahi izan ezik. (EusCor)
- (192) Arteagako dorretxera eraman nahi omen dute hartza, bertako nagusiaren basoan **ehizatu** baitute. (EusCor)
- (193) Mikelek entzun zigun eta guri deitzeko geratu zen, single bat **grabatzeko** bere estudioan,... (EusCor)

- (194) Illunabarrean, egun guzian aurreratutako iriñak bizkarrean artu ta alde egiten zuan, etxean taloak **jateko** iriñarekin. (EusCor)

INEk ABS entitatearen kokapena ere adierazten du batzuetan. Horixe gertatzen da nabarmenki *grabaturen* kasuan. Adib.:

- (195) Kontzertuan bere 25. urtemuga eguneko kontzertuan, Getxon, disko batean **grabatu** kantak — 25 kantu urte — eskainiko dituzte. (EusCor) KANTAK → DISKOAN
- (196) Bertso hori, Miren Irurtiak egina, hantxe dago erori zeneko mendeurrenean plaka batean **grabatua**, Leitzalarreko "Aritz Aundi" haren ipurdiaren neurrira inguruz inguru para ziren harrietako batean. (EusCor) BESTSO HORI → PLAKA BATEAN

Gainera, esan behar da, *grabatu* aditzean maizago ageri dela ABS entitatearen kokalekua adierazten ekintzarena baino.

INEk, bestetik, bere beste ohiko balioa ere, modua, alegia, adieraz dezake. Ondoko adibidean, zehazki, egilea ekintza egiterakoan dagoen moduari egiten dio erreferentzia. Adib:

- (197) Aspertutako garaian, jerlektatik altxa eta bakoitza bere etxera joango da, "Biar arte guztioi, jaunak" esanda, umore ederrean **bazkaltzera**. (EusCor)

INEk ABS entitatearen moduari zehazki erreferentzia egin diezaioke; hona, berriz ere, *grabaturen* adibide bat:

- (198) Bere ahotsa era digitalean **grabatzeko** aukera izango du eta antzezpena bere ahots **grabatua** tartean delarik entzun. (EusCor) BERE AHOTSA → ERA DIGITALEAN (ETA EZ EKINTZA EGITERAKOAN EGILEA DAGOEN MODUA)
- (199) Testuak, edozein prozesatzailetan idatziz eta ASCII kodean **grabatuz** prestatu ahal dira, eragiketa berezirik egin gabe. (EusCor) TESTUAK → ASCII KODEAN (ETA EZ "NORBAIT" ASCII KODEAN DAGOELA)

SOZek eta **INSek** ere adieraz dezakete moduzko balio hauek. Alde batetik ekintzari dagokiona; esaterako:

- (200) Gustuz eta debozioz **abesten**, aise, erreztasunez, urduritasunik gabe, bakeoso-bakeoso, patxada emanez, otoitz eginez, bestela, kasu honetan, apenas balio duen. (EusCor) DENA DELAKO PERTSONAK → GUSTUZ ETA DEBOZIOZ EGIN

Eta bestetik, ABS entitateari dagokiona:

- (201) "Markesaren alaba", esate baterako, nola **abestuko** dugu Gernikako Arbolaren doinuarekin? (EusCor). "MARKESAREN ALABA" → GERNIKAKO ARBOLAREN DOINUAREKIN

Batzuetan modu hori zehazki "baliabidezkoa" da. Adib.:

- (202) Beste batean, guk geuk **grabatu** genuen maketa bat baliabide gutxirekin. (EusCor)

Eta baita —SOZen kasuan bakarrik— "konpainiazkoa" ere:

- (175) Elkarrekin **afaldu** genuen hirurok. (EusCor)
- (203) Azkenean, Pulane, Lefa eta Leratok elkarrekin **afaldu** zuten, baina ez-oso gustora. (EusCor)

Konpainiazko balio hau, ABS entitatearekikoa ere izan daiteke :

- (204) Pago guztiak ateraz gero, zer ezkur edo zer arraio **jango** diaguk ba txerriekin aurtan? (EusCor)

Esan dugu *abestu*, *edan*, *grabatu* eta *janek* **ABL** onartzen dutela, baina zentzua guztietan ez da bera.

Abesturen kasuan **ABLk** **ERG** entitatearen kokapena adierazten du. Adibiderik aurkitu ez dugun arren, ondorengo adibide asmatuak zilegi dela erakusten digu:

(205) Bertsolariak Udaletxeko balkoitik **abestu** zituen bertsoak

Edan, *grabatu* eta *janen* kasuan, berriz, ohikoagoa da **ABS** entitatearen kokapena adieraztea:

(206) - Noiztik behar du abereak baimenik eskatu ibai honetatik ur **edateko**? (EusCor)

(207) Telebistatik **grabatu** dut filma (asmatutako adibidea)

(208) Behiek belardi honetatik **jaten** dute belarra (asmatutako adibidea)

Seguruenez ez genuke arazorik izango gauza bera inespezifikazioaren *bssan* aurkitzeko:

(209) Noiztik behar du abereak baimenik eskatu ibai honetatik **edateko**? (asmatutako adibidea)

(210) Telebistatik **grabatzen** dut normalean (asmatutako adibidea)

(211) Behiek belardi honetatik **jaten** dute belarra (asmatutako adibidea)

Baina *edan* eta *janen* kasuan bada **ABLren** beste balio bat, hasiera batean *iturria* edo *jatorria* ematen duena, baina beharbada inespezifikatua den elementuaren espezifikazio gisa ere ikus daitekeena. Hona adibide batzuk:

(212) - Ez noski, baiña onetik bi igoal **edango** nituzke, ordea. (EusCor)

(213) Imanolek irlandarren umore horretatik ere **edan** du dagoeneko. (EusCor)

(214) Bera bezalakoak izan ez gaitezen debekatu digu frutu horretatik **jatea**. (EusCor)

Edanen lehenengo adibidean, *ardoaz* ari direla ematen badugu, **ABLk** esaten diguna da “ardoen artetik onak direnak” edaten dituela **ERG** entitateak, ez edozein ardo. (212) adibidean, ageri da **ABS**, baina izenordain bat da, zeinek “kopurua” “espezifikatzen” duen, ez *ardo* bera. Hain zuzen ere, bi elementu hauek (*onetik* eta *bi*) sintagma berekotzat jo ohi direla uste dugu (VI.2.3 puntuan esan dugunaren ildotik). *Janen* adibideari dagokionez ere, orobat esan dezakegu, fruitu jakin batez ari delako (*frutu “horretatik”*) eta ez fruituaz oro har. *Edanen* bigarren adibidean ((210)), erabilera hedatua delarik ere (**ABS** entitatea ez delako izaki “edangarri” bat), **ABLk** “umore jakin bat” (*umore horretatik*), adierazten du, ez umorea oro har. Adibide honetan, bestalde, ez dago **ABSrik**.

ALA, batek ere ez duela onartzen esan dugu. Hala ere, gure ustez *grabaturen* kasu jakin batzuetan zilegi da. Kasu jakin hauetan, **ALA** honek **ABS** entitatearen *helburuko kokapena* adierazten du (horren aldean, **ABLk** *abiapuntuko kokapena* adieraziko luke). Corpusean adibiderik aurkitu ez dugun arren, ondoko hau onargarria dela uste dugu, nahiz eta ez oso arrunta izan:

(215) (Diskotik) zintara **grabatu** ditut lp zaharrak

Kontua da, gure ustez, hori zilegi egiten duena ABS entitatea dela.

Hala, orokortasunari begira, ALA ez dugu onartu ezta *grabatu* aditzean ere.

Azkenik, DATi gagozkiola, honek ere aditzaren arabera balio desberdinak dituela ikusten dugu.

Edan eta *janen* kasuan, DATek ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du. *Janen* adibiderik aurkitu dugu; ez, ordea, *edanenik*.

(216) - Uste diat Txerrenek arima **jan** diola [HARI]. (EusCor)

Esan dugun bezala, *jan* eta *edanen* kasuan, inespezifikazioaren *bssan* ez dugu DAT onartu, hain zuzen ABS entitatearekiko duen jabetzazko harremana dela eta, ABSrik gabe ez dagoelako jabetzazko erlazio horren berri ematerik, gure ustez.

Abestu eta *grabatu* aditzetan, azkenik, ekintza nori zuzentzen zaion adierazten du DATek. Aditz hauen kasuan, ABSdun erabileran nahiz gabekoan agertzea zilegi dirudi; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

Honenbestez, guztiek jarduera bat adierazten dutela esango dugu, partaide bezala *esperimentatzailea* eta *gaia* dituztela, ERGez eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren. Objektu inespezifikokoaren *bssan gai* hau desagertu egiten da.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

abestu/grabatu/jan/edan-DU-1: esperimentatzailea [+biz]_ERG, gaia [-biz]_ABS


afaldu/bazkaldu-DU-1: esperimentatzailea [+biz]_ERG, gaia [-biz, +konkr]_ABS

ehizatu-DU-1: : esperimentatzailea [+biz]_ERG, gaia [+biz]_ABS

DU-2: esperimentatzailea [+biz]_ERG


Datu estatistikoak:

Abestu: datuek erakusten digutenez, ez dago DIO erabilerarik, eta INEk presentzia nahiko nabarmena du:




DA	3,41%	DA-ins	2,56%	DA-ine	2,56%	DA-abs	100,00%		
DU	88,64%	DU-ins	4,93%	DU-ine	20,32%	DU-erg	100,00%	DU-abs	57,59%
ZAIO	7,95%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ins	1,10%	ZAIO-ine	1,10%	ZAIO-abs	100,00%

Afaldu: datu estatistikoek laguntzaile iragankor eta iragangaitzaren erabilera jartzen digute agerian, nahiz eta proportzioan erabilera iragankorra azaldu gehien. Gainontzekoan, INEk eta SOZek presentzia handia dute. Hala ere, esan behar dugu proportzio hauek oso adibide gutxiren gainean daudela atereak⁸:



DA	37,50%	DA-abs	100,00%	DA-soz	5,88%	DA-ine	33,33%		
DU	62,50%	DU-abs	24,71%	DU-ine	27,06%	DU-soz	43,53%	DU-erg	100,00%


Bazkaldu: hemen ere erabilera iragangaitzaren isla badugu, baina aditz honetan are garbiagoa da iragankorrekiko joera. INEk eta SOZek ere presentzia nabarmena dute, baina, goian esan dugun bezalaxe, proportzio hauek oso adibide gutxiren gainean daude atereak :



DA	10,00%	DA-ala	50,00%	DA-abs	100,00%	DA-soz	5,00%	DA-ine	10,00%		
DU	90,00%	DU-abl	5,56%	DU-abs	11,11%	DU-soz	21,67%	DU-ine	32,22%	DU-erg	100,00%


⁸ Ikus *gosaldu* aditzaren azalpenean, *afaldu* nahiz *bazkaldu* aditzen DA/DU erabilera bikoitzari buruz esan ditugunak (19. or.). Ikusten denez, bi aditzotan erabilera iragangaitzak badu presentziarik corpusean.

Edan: Aditz honetan ere adibide gutxi bildu ditugu, eta estatistikek nahiko maiztasuna ematen die azpikategorizatu gabeko Kasuei ere.




DA	26,67%	DA-ins	10,14%	DA-abl	12,84%	DA-abs	100,00%	DA-konp	2,70%	DA-ine	22,97%
DU	73,33%	DU-abl	10,07%	DU-abs	26,29%	DU-konp	2,70%	DU-ine	13,76%	DU-erg	100,00%

Ehizatu aditzerako orobat esan dezakegu. Gure eskuzko azterketarekin parekatuta, gainera, ez zaigu DU erabilerarik agertzen.




DA	100,00%	DA-abs	100,00%	DA-ine	25,00%
----	---------	--------	---------	--------	--------

Grabatu: ez du DATik erakutsi, eta, ERG eta ABSz gain, INEk eta SOZek presentzia nabarmena dute.



DA	21,90%	DA-ins	3,13%	DA-abl	1,56%	DA-abs	100,00%	DA-soz	7,81%	DA-ine	35,49%						
DU	78,10%	DU-ins	6,88%	DU-abl	1,50%	DU-abs	51,19%	DU-soz	17,21%	DU-ine	17,21%	DU-erg	100,00%				

Jan: aditz honetan, ERG eta ABSz gain, DAT da maiztasun nabarmena agertzen duena.



DA	12,18%	DA-ala	1,33%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,67%	DA-soz	2,67%	DA-ine	4,00%						
DU	66,91%	DU-ins	1,48%	DU-ala	1,29%	DU-abl	1,94%	DU-abs	54,34%	DU-komp	2,59%	DU-soz	2,59%	DU-ine	5,36%	DU-erg	100,00%
DIO	20,91%	DIO-ins	1,48%	DIO-ala	1,29%	DIO-abs	58,23%	DIO-komp	2,59%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	2,59%	DIO-ine	11,57%	DIO-erg	100,00%

A.2 ABSren eta ELA_KONPen arteko alternantzia dutenak *gai* osagaien

Bi *bss* bakarrik erakusten dituzten beste aditz sorta bat, *bss* batean ABS eta bestean honen ordez ELA_KONP ageri dutenak dira. Gainontzerakoan, bi aldaeretan ERG da beste Kasu azpikategorizatua.

Horrelakoxeak dira ondoko lau aditzak:

adierazi, baieztatu, eskatu, onartu

Aditz hauek DU-1 *bs*sean ondoko Kasu azpikategorizatuak, Kasu onartugabeak eta Kasu onartuak dituzte:

DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko adibide bana:

- (217) Emakume batek bere maitasuna edo nahia zeinu edo gorputzaren mugimendu bidez **adierazi** bazuen eta... (EusCor)
- (218) Corcuera ministroak berak, Barcelona 92ko plangintzen egoera eta bere ustezko akatsak aipatze hutsak, segurtasun olinpikoaren eta Estatuaren arrakasta eraso terrorista posible batzuen aurrean oztopatzen duela **adierazi** du zenbait kasutan. (EusCor)
- (219) NATOK **baieztatu** egin zuen erasoa, baina bonbak soil-soilik konboi militar baten kontra jaurti zituela agertu zuen. (EG)
- (220) Euskal Herriko selekzioan Nafarroa eta Iparraldeko jokalariek ere lekua izango dutela **baieztatu** zuen atzo Araguesek. (EG)
- (221) Baldintza ekonomiko eta sozial hobeak **eskatzen** dituzte [HAIEK]. (EusCor)
- (222) Gauzak horrela, Barrenak **eskatu** zion gizarteari "apustu argia egin dezala bortizkeriarik gabeko eszenatokira eramanen gaituen prozesuaren alde". (EG)
- (223) Nire mezua **onartzen** duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko. (EG)
- (224) Hala eta guztiz ere, Pilotaren barruan dauden lan-talde espezializatu desberdinek **onartu** egin dute oinarrrian garatutako lan sendo eta serio batek baizik ez duela gailurra arrakastaz lortzea ahalbidetuko. (EusCor)

ERG entitateari dagokionez, bi *bs*setan gizakia da oro har ((217), (218), (220), (222), (223)); edota giza talde bat ordezkatzeko duen entitatea ((219)) nahiz izen kolektiboa ((224)).

Horretaz gain, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez, gizakiak baliatzen duen bitarteko bat ere izan daiteke, eta gutxiagotan kausa:

- (225) Indusketak oso esanguratsua den ondorio bat **baieztatzen** du: (EG)
- (226) Autopsiak **baieztatu** zuen tiroa oso hurbiletik egin ziotela Urigoitiari. (EG)
- (227) Txostena ezagutzen duten iturriek **baieztatu** ahal izan dute emaitzak "oso onak" direla, alegia, ondorioztatzen dela galdetutako talde gehienen artean begi onez ikusiko litzatekeela plangintza. (EG)
- (228) Datuek **adierazten** dutenez, langileek hartu dute beren gain kanpainaren zamarik handiena. (EG)
- (229) Mediku txostenek **adierazten** dute gaixotasun larri eta sendaezina duela. (EG)
- (230) Forentsearen txostenak eta Puertoko espetxeko mediku zerbitzuen txostenek ere larritasun hori **adierazten** dutela dio. (EG)
- (231) Euskal Herrian (ber) piztu ilusioak **baieztatu** zuen ekimenaren aurretik eginiko irakurketa politikoa eta euskal gizarteak bere baitan duen indarra. (EG)
- (232) Agintaldiaren hasieran helburutzat jarri zuen alderdien arteko foroa aldarrikatu zuen berriro, egoerak hala **eskatzen** duela konbentziturik baitago. (EG)
- (233) Izan ere, eragile politiko eta sozialek ardura handiagoa dute, eta horiei egoeraren garrantziak **eskatzen** duen ausardiaz egin behar diete aurre ". (EG)
- (234) Du motako aditz askok **onartzen** dute da laguntzailea, subjektu jakinik adierazten ez denean, hau da, inpersonala adierazteko. (EusCor)

Hortaz, gizakia ez ezik, izaki bizigabe —gehienetan abstraktua— izan daiteke.

ABS entitateari dagokionez, DU-1 *bssan* ia gehienetan zerbait abstraktua da. Ikus goiko adibideak eta ondorengoak:

- (235) Era berean, amoroski mintzatzean berehala maitasun handia **adierazten** duten hitzekin erantzuten duen emakume likitsa aurrez irabazitzat jo daiteke. (EusCor)
- (236) Euskal Herriaren kasuan Elkarrik garrantzitsu jo zuen gizarteak prozesuan parte hartzea eta konpromisoa **adieraztea**. (EG)
- (237) Kamenica hirian (Ipar Albania) serbiarrek UCK-ko gerrillarien jazarpenean egindako ustezko erasoak Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeak **baieztatu** zuen. (EG)
- (238) AFP berri agentzia frantsesak ere zibilen triskantza **baieztatu** zuen atzo arratsaldean. (EG)
- (239) Ez dute, beraz, aurkikuntza **baieztatzen**. (EG)
- (240) Ez dugu ixiltasuna **eskatzen**, hori ezinezkoa bait da; bakarrik zarata gutxiago. (EusCor)
- (241) Ibai garbiak, aire osasuntsuak **eskatu** eta exijitzen ditugu ... zergatik ez dugu zarata gutxiago ere **eskatzen**?. (EusCor)
- (242) Arrasateko Udalarari beren alde jar dadin **eskatu** diote eta Eusko Jaurilaritza edota Estatuko gobernuari honen inguruko definizioa **eskatu** diote. (EusCor)
- (243) Ez dugu azterketa hau **onartzen** [GUK]. (EG)
- (244) Martinek ez zuen tongoa **onartu** eta, hiraz erotutik, etorritako bidetik bidali zuen trajeduna. (EG)

Ordea, izaki bizidunak eta konkretuak ere onar agertzen dira ABSn; esaterako *baieztatu*, *eskatu* eta *onarturen* adibide hauetan:

- (245) Oraingoz **baieztatu** gabe daude etorriko diren artistak, baina Miguel Angel Martin Jazzaldiko zuzendariak atzo esan zuenez, izarrek osaturiko egitarau "anbiziotsua" izango da, eta iazkoa baino "arriku handiagokoa". (EG)
- (246) Medikuen txostenaz gain, forentseen txostenak **eskatu** zituen fiskalak. (EG)
- (247) Ardoa edaten dute, azeitunarik **eskatu** gabe. (EusCor)
- (248) Senarrak haren haurra **onartu** zuen eta, bere garaian, beste hiru haur izateko zoriona izan zuten. (EG)

Baieztaturen kasuan, hala ere, izaki bizidunak direnean, izaki bizidun horien "etorrera/parte-hartzea" da baieztatzen dena. Hortaz, *baieztatuk*, berez, entitate abstraktuak onartzen dituela dirudi, eta halakoxeak ez direnean, halakoxetzat ulertu beharra dagoela.

Jakina, **DU-2** *bssan* ELA_KONPek berez zer abstraktu bat adierazten du, marka hau adierazpenezko perpausari edo subjuntibozko perpausari lotua ageri den aldetik (Euskaltzaindia, 1999).

Gainontzeko Kasuen azalpenak bi *bssei* dagozkie.

INEri dagokionez, modua edo kokapena adierazten duela esango dugu. Kokapen hau askotan abstraktua da, nolabait esateko; eta ekintzari nahiz zehazki ABS entitateari egin diezaioke erreferentzia. Ikus ekintzaren kokapeneko adibide batzuk:

- (249) Udal bulegoan **adierazi** digutenez, gasa instalatzeko orduan ere arazoak sortu izan dira. (EusCor)
- (250) Honela **adierazi** zuen zuen atzo German Kortabarria ELAko ordezkariak, Bilbon: (EG)
- (251) Horrela **adierazi** du Iñaki Zarraoa EITBko zuzendari nagusiak Legebiltzarrean egindako agerraldian, erakunde publikoak bere premiei buruz Eusko Jaurlaritzari helarazitako azterketak dioenari jarraiki. (EG)
- (252) Horrela **baieztatu** zuten senideek hedabide honi egindako adierazpenetan. (EG)
- (253) Eta horregatik, zenbatezina diren adierazpen instituzionaletan **baieztatu** den moduan, askatasunik gabeko euskal herritarrek beren zigorrak Euskal Herriko espetxeetan bete ditzaten exijitzen dugu. (EG)
- (254) 300 lagunek **eskatu** dute Tolosan Estebanen askatasuna. (EG)
- (255) Tren geltokiaren ondoko luxuzko etxebizitzaren lur sailaren enkantean Udalak metroko milioi bat pezeta **eskatu** duen hiriburuan bizitzea ez da eta samurra. (EG)
- (256) Pleno berezi hori maiatzaren 13an egin zen eta bertan **onartu** zen presoaren egoeraren jarraipen batzorde bat osatzea. (EusCor)

Hemen, berriz, ABS entitateari erreferentzia egiten dioten INE adibideak:

- (257) Ordez, zigorra tinkoa ez duen kausan behin-behineko askatasuna **eskatu** zuten, eta zigorra tinkoa duen beste bi kausatan zigorra bertan behera uzteko. (EG)
- (258) Osoko biluztasun nabarmenak atal zientifikoetan **onartzen** dira, eta baita arte-lanetan ere. (EusCor)
- (259) Ulerkaitza bada ere, Cannon-ek bere liburuaren itzulpen frantsesean bakarrik **onartzen** dio merezimendua Claude Bernard frantziar zientzialari ospetsuari. (EusCor)

Moduari dagozkion adibideak, berriz:

- (260) Idatzi hartan hatxearen erabilera neurri batean **onartzeko** prest dugu, adiskidantzako konpromezu batera iristeko asmoz. (EusCor)
- (261) Errekurtso hura zati batean **onartu** egin zen, Estatuko Kontseiluari eskatu beharreko irizpena omititu zelako, foru arauaren nulitatea deklaratu zen eta Foru Aldundiari derrigorrezkoa den irizpen hura eskatzea agindu zitzaion. (EusCor)

SOZek eta **INSE**k, ohiko balioa (modua, alegia) adieraz dezakete, eta modu hau askotan “baliabidezkoa” da:

- (262) AFP agentziak zabalduko berriarekin, Pierre Moscoviciren bulegoak **baieztatu** du azken asteotako zurrumurrua. (EG)
- (263) Presoa Puerto del Realeko ospitalean ingresatuta egon da, baina astelehenean alta **eskatu** zuen bere borondatez, bere inguruko erabakia aurreratu zezaten eragiteko. (EG)
- (264) Gonzalezek iragarri zuenez, litekeena da PSOEek telebista digitalaren legearen —PP, IU eta EAJren botoekin onartutakoa — aurkako errekurtsua jartzea Auzitegi Konstituzionalean. (EG)
- (265) Eusko Alkartasuna eta Herri Batasunako botoez onartutako mozioan azaltzen denez, Udalek daukate eta euki behar dabe Urdaibai babesteko eta jestionatzeko ardurarik handiena. (EG)

ABLk ERG entitatearen kokapena adierazten duela dirudi.

DATek, *adierazi* eta *baieztaturen* kasuan, ekintza zuzentzen zaion izaki biziduna (gizakia ia beti) adierazten du. Horrelakoetan, orduan, ERG, ekintza burutzen duena ez ezik, *abiapuntua* ere bada DATekiko. *Eskatu* eta *onarturenean*, berriz, DAT da ABS entitatearen *abiapuntua*; hala, kasuotan ERG *helburua* ere bada. DAT entitatea ere gizakia edo honen ordezkari entitate bat izan ohi da. Hala ere, DAT ez dugunez Kasu azpikategorizatuen artean jarri, ERGen aukera hauek ez ditugu osagai semantikoetan adierazi. DAT eta ABS entitateen arteko jabetza hori berariazkoa da batzuetan —DAT entitateak sortua baita ABS entitatea—, eta bestetan besterengarria —ABS entitatea eduki arren, ez delako nahitaez bere jabetzakoa—.

Hala, esango dugu aditz hauek jarduera bat adierazten dutela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *gaia* dituztela. *Bss* batean *gai* hori ABS da eta bestean ELA_KONP.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

**adierazi/baieztatu-DU-1: *esperimentatzailea*_ERG; *gaia* [-biz; -konkr]_ABS
eskatu/onartu-DU-1: *esperimentatzailea*_ERG; *gaia*_ABS**

DU-2: *esperimentatzailea*_ERG; *gaia*_ELA_KONP


- Datu estatistikoak:

Adierazi: Ikusten denez, ELA_KONP ABS baino maizago agertzen da. Gainontzean DAT da presentziarik handiena duena, ERGez gain.



DA	0,77%	DA-ins	0,04%	DA-abl	0,04%	DA-abs	100,00%	DA-komp	24,09%	DA-soz	5,69%	DA-ine	45,10%						
DU	89,14%	DU-ins	0,91%	DU-ala	0,43%	DU-abl	0,86%	DU-abs	20,48%	DU-komp	34,24%	DU-soz	0,52%	DU-ine	3,93%	DU-erg	100,00%		
DIO	9,94%	DIO-abs	38,11%	DIO-komp	20,34%	DIO-dat	100,00%	DIO-ins	0,51%	DIO-soz	0,55%	DIO-ine	7,08%	DIO-ala	0,86%	DIO-erg	100,00%	DIO-abl	1,34%
ZAIO	0,15%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	2,20%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ins	0,04%	ZAIO-soz	0,12%	ZAIO-ine	30,13%	ZAIO-ala	0,43%	ZAIO-abl	0,04%		

Baieztatu: baieztatu aditzean ABS eta ELA_KONP maiztasun paretsuz ageri dira, eta adierazin bezalaxe, DAT da ERGen, ABSren eta ELA_KONPen ondoren maiztasun handienekoa.



DA	9,05%	DA-abl	1,25%	DA-abs	100,00%	DA-komp	45,94%	DA-ine	21,72%						
DU	81,78%	DU-ins	1,51%	DU-ala	1,51%	DU-abl	3,50%	DU-abs	36,34%	DU-ine	3,50%	DU-erg	100,00%	DU-komp	34,29%
DIO	9,17%	DIO-abl	1,23%	DIO-abs	27,10%	DIO-komp	32,53%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	7,96%	DIO-erg	100,00%		

Eskatu: aditz honetan aipatzekoa da DU eta DIO erabilerek pareko portzentajea dutela. Bestetik, ABS ELA_KONP baino askoz maizago agertzen da.

A.3 ELA_KONPen inespezifikazioaren alternantzia dutenak

erantzun

Erantzun

Erantzunen kasuan, *bss* batean ELA_KONP dugu (erantzun-DU-1), eta beste *bss*an honen inespezifikaziotzat jo dugun dugu (erantzun-DU-2). Argi dago, beraz, aditz honetan inespezifikatzen dena zer abstraktu bat dela, goian esan dugun bezalaxe, *-ela* “adierazpenezko perpausei” (aditz honen kasuan ezin dugu esan subjuntiboazko perpausei) lotzen zaien aldetik. Bi balioetan, jakina, aipatutako osagaietaz gain, ERG dugu. Bestelako Kasuei dagokienez, Kasu onartugabeak eta Kasu onartuak berdinak dira bi *bss*etan. Honenbestez, horrelaxe geratuko lirатеke DU-1 eta DU-2 *bss*ak aditz honentzat:

erantzun-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ELA_KONP, ERG

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

erantzun-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko adibide bana:

(266) NATOK, bestetik, UCK gerrillaren aurkako erasoek jarraitzen duten probak badituela **erantzun** zuen. (EG)

(267) "Beste esku sartze edo erasorik bada, Albaniako herriak indar handiz **erantzungo** du", esan zuen Mejdanić. (EG)

Gainontzeko adibideetan, berriz, *bss*ak nahasirik eta bestelako osagaiak ere markatuta daudela erakusten ditugu:

(268) Era berean, amoroski mintzatzean berehala maitasun handia adierazten duten hitzekin **erantzuten** duen emakume likitsa aurrez irabazitzat jo daiteke. (EusCor)

(269) EAEko probintzietako merkatuak espero baino hobeki **erantzun** die Euskaltelek egindako eskaintzei, eta horri esker aurrikusitakoa baino galera urriagoak izan ditu euskal konpainiak. (EG)

(270) IUren aburuz, errealitateari **erantzuten** dio proposamenak. (EG)

(271) Hondarribitarra bera izan zen hegazkinetik aurrenetakoa jaisten, eta ondoren komunikabideen galderei **erantzun** zien. (HARK) (EG)

- (272) "Nor da?" galdetu baina inork ez dit **erantzun**. [NIRI] (EusCor)
- (273) Zureetako bakoitzari erantzuten nion nik, betiere animatzen saiatuz; baina ez zen aski zuretzat, eta hala erregutu zenidan: "Idatzidazu zerbait, baina zerbait benetakoa". (EusCor)
- (274) Gobernuaren ordezkariak erantzun du 49 herrietarako eskaera bakarra egiteak ez duela balio, kontzentrazio txikiek ere baimena behar dutela, eta kontzentrazio bakoitzeko baimen bat eskatu eta arduradun bat eduki behar dela. (EG)
- (275) Oso mundu txikian bizi ginela, eta zuk sen edo intuizioz bazenuela susmo sendorik erantzun zenidan. [NIRI] [ZUK](EusCor)
- (276) EITBko zuzendariak erantzun zion [HARI] berak onetsi zuela ematea, edukia ez zela aldeztu aurretik hitzartu, eta dena den, gainontzeko nondik norakoak zehazterik ez zuela. (EG)

ERG entitatea gizakia da oro har ((268), (271), (272), (273), (274), (275), (276)), baina horretaz gain, gizakiak baliatzen duen bitarteko bat ((269), (270)) edo gizatarbate bat errepresentatzen duen entitate bat ((266)) ere izan daiteke. Hortaz, gizakia ez ezik, izaki bizigabe —gehienetan abstraktua— izan daiteke ERG.

INE, **INS** eta **SOZ** beren ohiko balioetan dira onargarri. Hau da, INE kokapena nahiz modua adierazteko gai da (nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu), eta INSek eta SOZek, modua ((268): *maitasun handia adierazten duten hitzekin*, (267): *indar handiz*).

DATen presentzia, Kasu azpikategorizatuen artean jarri ez badugu ere, nahiko ohikoa dela esan daiteke. ELA_KONP dagoen *bssan* DATek beti izaki bizidun (oro har gizaki edo gizaki multzo bat errepresentatzen duen entitate) bati egiten dio erreferentzia ((275), (276)); ELA_KONPik gabeko *bssan*, berriz, DAT entitatea gizakia ((272), (273)), gizakiren batek egindako ekintza ((269)), nahiz gauza abstraktu bat ((270)) izan daiteke. Hauetan guztietan, ekintzaren *helburu* gisa jokatzeko duela dirudi.

ABLk ERG entitatearen kokapena adieraziko luke (nahiz eta adibiderik ez dugun aurkitu).


Honenbestez, esango dugu *erantzunek jarduera* bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *gaia* dituela. *Bssetako batean gai hori desagertu egiten da*.

Bssan Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

DU-1: esperimentatzailea_ERG; gaia_ELA_KONP

DU-2: esperimentatzailea_ERG

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute DATen presentzia nabarmena. Hau, agian, DAT Kasu azpikategorizatutzat jotzeko arrazoia izan liteke, azken batean. ELA_KONP, berriz, ez da maiztasun handiz ageri. Azkenik, ABS askotxotan ageri dela ikusten dugu. Beharbada guk gure laginean aurkitu ez dugun balio bat (ABS ageri duena — konpletiboaren lekuan—) jartzen du argitan.



DA	5,00%	DA-ins	3,12%	DA-ala	3,12%	DA-abl	13,16%	DA-abs	100,00%	DA-komp	10,21%	DA-soz	0,86%	DA-ine	23,20%				
DU	28,51%	DU-ins	4,92%	DU-abl	4,06%	DU-abs	34,62%	DU-komp	9,38%	DU-soz	4,80%	DU-ine	9,76%	DU-erg	100,00%				
DIO	64,06%	DIO-ins	4,83%	DIO-ala	0,48%	DIO-abl	1,51%	DIO-abs	23,34%	DIO-komp	6,65%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	10,80%	DIO-soz	6,00%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	2,43%	ZAIO-ins	7,35%	ZAIO-ala	0,24%	ZAIO-abl	0,79%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	1,40%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	20,85%	ZAIO-ine	1,81%		

A.4 Spray/load alternantzia dutenak

landatu

Landatu

Landatu aditzari bi *bss* markatu dizkiogu, biek elkarren artean *Spray/load* alternantzia (L 2.3.1) osatzen dutelako. Han genionaren arabera, alternantzia honetan haxe gertatzen da: aldaera batean preposizio sintagma batez —kasu honetan **INEz**— gauzatzen dena (*location* argumentua), beste aldaeran objektu gisa ageri da —**ABSz** gurean—; eta bestetik, objektu gisa —**ABSz** gurean— gauzatzen dena (*locatum* argumentua), beste aldaeran preposizio-sintagma batez —**INSez** gurean— gauzatzen da. Bi aldaeretan *kausaz* **ERGez** gauzatzen da. Alternantzia aztertu dugunean esan dugun bezala, osagai lokatiboa (*helburuko kokapena*) **ABSez** gauzatzen denean, efektu holistikoa delakoa gertatzen da, kokapen hau guztiz bete dela suposatzen baita. Ondorioz, osagai lokatiboa **INEz** gauzatzen denean baino “ukituagoa” dagoela esaten da. Hori dela eta, bi modutara aztertu izan dira aditz hauek: kokapen-aldaketa gisa, non kausa baten ondorioz entitate bat norabait desplazatzen den; edota egoera-aldaketa adierazten duten aditz gisa, non kokapen-aldaketaren ondoren kokalekua egoeraz aldatzen den balio holistikoa duelako. Guk, efektu holistikoa ukatu gabe, osagai semantikoak desplazamenduzkoak balira bezala planteatu ditugu. Izatez, efektu holistikoa hori egitura bati bakarrik dagokiola uste dugu; eta beraz, aditzaren osagai semantikoetan oro har eraginik ez duela. Honenbestez, horrelaxe geratuko lirateke *landatu-DU-1* eta *landatu-DU-2* *bss*ak:

landatu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

landatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko adibide batzuk:

(277) Laster plastikotik sustriak ikusiko ditugu, plastikopetik zurtoina ebaki eta lorapote batean landatu probena edo landare berria [GUK]. (EusCor)

(278) Sekula ez dugu honelako ontzian [HURA] [GUK] landatuko; (EusCor)

(279) Oihana munduko bazter guztietatik ekarritako askotariko espeziez landatu zuten [HAIEK] fraide belarziale haiek erabiltzen zuten bera, trufa puska eta guzti. (EusCor)

Esan behar da, hala ere, landatu-DU-1 *bssan* INErik gabeko adibideak ere badaudela:

(280) Landare nagusiaren inguruan sortzen diren landaretxoak askatu edo ebaki eta **landatu**. (EG)

(281) Garo-sail eta **landatutako** zuhaitzen ondoan borda ezarri du belardietan eta goimendiko basoen ondoan ola. (EusCor)

Bestalde, **DATEk**, INErekin batera agertuz gero, INE entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du; INErik agertzen ez denean, jabetzazko harreman hori ABS entitatearekikoa da. Ez dugu, ordea, DATEz osatutako egiturarik aurkitu.

Landatu-DU-2 *bssan*, berriz, ematen du ABS entitatearekiko jabetza dela beti adierazten duena DATEk. Horretaz gain, *bss* honetan INEk, agertzekotan, ekintzaren kokapena adieraziko luke; inoiz ere, jakina, ABS entitatearena.

Gainontzekoan, eta bi *bssei* gagozkiola, **SOZ** eta **INS** ohiko balioetan ager daitezke, modu desberdinak adierazten, alegia; adibideetan bat ere topatu ez dugun arren.

Esan behar da, landatu-DU-1eko ABS entitateak eta landatu-DU-2ko INE eta INS entitateak murriztuz samarra direla. Halere, erabilera hedatu baten ondorioz, badira *locatum* eta *location* bereziagoak. Ikus ondoko adibidea:

(282) Izan ere, baziren, hor nonbait, berak kanguruari jaurtitzen zizkionak baino dardo eraginkorragoak, ikustezinak izan arren itua bete-betean asmatzen zutenak ... eta berak halako bat baitzuen bihotzaren erdian landaturik eta ezin kendurik.

Adibide honetan *dardoa* da *locationa* eta *bihotzaren erdian locatuma*. Horrelako izaera berezikoak direnean, ez dugu uste landatu-DU-2ren moduko baliorik onargarri denik (**bihotzaren erdia dardoaz landatu*).

Aditz honetan, ikusten dugu *helburuko kokapena* adierazten duen osagaia badagoela, baina ez *abiapuntuko kokapena* adierazten duenik. Kasu hauetan (eta beste hainbat aditzetan ere ikusiko dugun bezala: *kokatu*, *zintzilikatu*, *bete*, *jarri*), badirudi ez duela axola zein den hasiera bateko kokapena —eta horregatik ezinezkoa dela agertzea— eta, besterik gabe, kokapen berria azpimarratu nahi dela. Beraz, aditz hau —eta aipatutakoak— salbuespen dira *helburuko kokapena* izanik *abiapuntuko kokapena* onartzen duten aditzen artean. *Bisitatu* aditzean ere horixe bera geratzen da, baina gainera, *gaia* aditzean txertatuta dago, eta horrek are gehiago mugatzen du *abiapuntuko kokapena* ez agertzea.


Beraz, esango dugu *landatu* aditzak kokapen-aldaketa adierazten duela, non *kausa*, *gai* *ukitua* eta *helburuko kokapena* diren osagai azpikategorizatuak. Kasuen gauzapena, berriz, *bssetan* ikusitakoak.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

landatu-DU-1: kausa_ERG; gai ukitua_ABS ; helburuko kokapena_INE

landatu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_INS; helburuko kokapena_ABS

- Datu estatistikoek INSen presentzia oso nabarmena ez dela ematen dute aditzera. Bestetik, badirudi erabilera inbertsonala nahiko arrunta dela.



DA	57,14%	landatu/DA-abs	100,00%	landatu/DA-ine	52,50%				
DU	42,86%	landatu/DU-ins	23,33%	landatu/DU-abs	80,00%	landatu/DU-soz	23,33%	landatu/DU-erg	100,00%

B taldea: bssak balio semantiko desberdinak

hartu

Hartu

*Hartu*ri markatutako bi *bssak* ez dira elkarren artean alternantzia. Hots, gure ustez, bi balio semantiko desberdin erakusten ditu aditz honek oro har. Hala ere, aditz honek Hitz Anitzeko Unitate Lexikalak osatzeko joera handia duela jakinik, *bssak* bereiztea ez da erraza.

hartu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (283) Bigarren, zerrenda hori hartu [GUK] eta egitura konkretu batzuen azterketan zentratu gara, hau da, ikasleen idazlanetatik —gogoratu material idatzira mugatu garela oraingoz— adibideak atera, aztertu eta saiatu arrazoiak bilatzen ikasleak honelako esaldiak egiteko. (EusCor)

- (284) Batuko grafia erabiltzen dute, hitz berriak Batutik hartzen dituzte [HAIEK]. (EusCor)
- (285) (...) horrek esan nahi du ikasle horiek denbora luzez ikasi dutela, eta ikasketa-plangintzarik gogorrenak hartu dituztela [HAIEK]. (EusCor)
- (286) Aurrekontu-ekitaldietatik hartu eta bertan gehitutako kredituak. (EusCor)
- (287) Bakoitzak upeletik zuzenean hartu behar du sagardoa. (EusCor)
- (288) Guzti hau egin eta gero, bi behatzekin muturretatik hartu [HARK] [HURA] eta beheko ezpainen kontra jarririk, haizea indarrez, zuloaren ertzaren kontra bota eta txistu ozen eta agudoa lortzen da. (EusCor)
- (289) Gasteizko gobernuan "ekimen politikoa kanpotik hartzen da" Rosa Diezen esanetan. (EG)

ERG entitatea guk aurkitutako adibide guztietan gizakia da. ABS entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke, eta ekintzaren ondorioz desplazatua den *gai ukitua* adierazten du. Hala, ERG *kausa* (gizakia) dela esango dugu. ABS entitatea abstraktua denean, desplazamendua ere abstraktuki ulertu behar da ((284), (285), (286)). Eta hori nahiko maiz gertatzen da.

ABLk, bestalde, gai desplazatu horren *abiapuntuko kokapena* adierazten du gehienetan; *bidea*, berriz, ezin du adierazi. Bestalde, ABS entitatearen hartze-kokagunea ((288): *muturretatik hartu*) ere adieraz dezake. *Landatu* aditzean gertatzen den antzera, *abiapuntuko kokapena* onartu arren, *helburuko kokapena* ez da agertzen; edo bederen, *helburuko kokapena* adierazi ohi duen ALA ez da onargarria. Beste modu batera ere ikus liteke hau: ekintzaren eragileak berak jokatu luke *helburuko kokapen gisa*. Baina *jarri*, *kokatu*, *zintzilikatu*, *bete* eta *landatu* aditzetan planteatu dugunaren ildotik, aukera hau ez dugu aintzat hartu. Kasu hauetan badirudi ez duela axola zein izango den kokagune berria —eta horregatik ezinezkoa da agertzea—, eta, besterik gabe, hasiera bateko kokapena da azpimarratu nahi dena. Beraz, aditz hau, salbuespena dela *abiapuntuko kokapena* onarturik *helburuko kokapena* ere onartzen duten aditzen artean.

Esan behar da, hala ere, ABL Kasu azpikategorizatuen artean jarri badugu ere, ez dela beti agertzen esaldian. Hori, batez ere gertatzen da ABS entitatea ez denean konkretua.

Fenomeno hauengatik guztiengatik, eta ABSn ager daitezkeen entitate anitzen ondorioz, aditz honen semantika elkarraldatzeetara hurbiltzen da askotan. Guk, ordea, desplazamendu abstraktu gisa hartuko ditugu kasu horiek.

Adibiderik aurkitu ez badugu ere, **DAT**ek gehienetan ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten du. Horrexegatik, DAT agertu eta ABLrik ez dagoenean esaldian, jabetza-aldaketa adierazten dela dirudi, leku-aldaketa baino areago. Izatez, ABL entitatea gizakia denean (alegia, *-gandik* dugunean), DATik ez da onartzen, eta ABS entitatea (normalean abstraktua) ABL entitatearen jabetzako da. Azken batean, DATen paper bera betetzen du; hortik euren arteko aldi berekotasun-ezintasunak. Guk, ordea, ez ditugu ABLren bi formak (*-tik*, *-gandik*) bereizten, eta ezin dugu honen berri eman. Ikus zenbait adibide:

- (290) Bere gurasoengandik hartutako esperientziaz baliatuko da Jaungoikoaren errukia eta maitasuna ezagutzeko. (EusCor)
- (291) Baina — esaterako— Iturriagaren ipuin bat Samaniegorengandik hartutako ereduarekin erkatzen duen edonori irudituko zaio komun duten gauza bakarra ipuinaren mamia baino ez dela: (EusCor)
- (292) Arlo honetan eragin handia dute klima eta herrialde bakoitzeko aberastasun naturalak, baina baita herrialde aberatsengandik har dezaketen laguntza teknologikoak ere. (EusCor)

Hala ere, DATekin batera ABL —ez-biziduna— ager daitekeenez hipotetikoki, desplazamenduzko balio orokor hori duela esango dugu, jabetzazko erlazio bat agerian dagoela. Hau da, ez ditugu bi kasuok osagai semantiko beraren alternantziatzat jo.

Gutxiagotan, DATek *helburuko kokapena* (biziduna) adieraz dezake. Honelakoetan ondokoa gertatzen da: ERG entitateak *kausa* adierazi ordez *abiapuntu* adierazten du, eta orduan elkarraldatzea adieraztea pasatzen da. Hori gertatze denean, ABL ez-ohikoa gertatzen da.

DATen balio bikoitz honek, *hartu* aditzean desplazamenduzko balioa eta elkarraldatzezkoa bereizi beharko genituzkeela iradokitzen digu (eta oro har ALA —*helburuko kokapena* adieraziz— onartzen ez duten aditzetan). *Pasatu* eta *jaso* aditzetan halaxe egin dugu, beroietan, aurkitu dugulako adibiderik. Hartu-ren kasuan, berriz, ez dugu aurkitu, eta *bssak* markatzeko garaian esan dugun bezala, ez dugu landu corpusean islarik ez duen *bssrik*. Bestetik, horixe da DAT Kasu azpikategorizatuen artean ez jartzeko arrazoi nagusietariko bat; hots, beti balio bera ez edukitzea eta horietako batek balio semantiko berri bat eragitea.

INSek, SOZek eta INEk beren ohiko balioak adieraz ditzakete ((287): *zuzenean*; (288): *bi behatzekin*; INEk ekintzaren kokapena adierazten duen adibide bakarrean erabilera pasiboa ageri zaigu ((289)).

ABS entitatearen kokapena adierazten duten adibideek, ordea, desplazamendua ez baizik eta desplazamendu horren ondoren ERGek duen edutezko zentzua azpimarratzen duela dirudi. Kasu hauetan, gainera, iruditzen zaigu ez ABL ez DAT ez direla zilegi, eta berriz, INE Kasu azpikategorizatua dela. Horregatik, beste osagai semantiko batzuk dituen beste *hartu* bat bezala landu dugu, bigarren *bssan* adierazten duguna hain zuzen (*hartu-DU-2*).

Honenbestez, *hartuk bss* honetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela esango dugu. Parte hartzaile nagusi gisa *kausa*, *gai ukitua* eta *abiapuntuko kokapena* ditu ERGez, ABSz, eta ABLez gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

hartu-DU-1: *kausa* [+giz]_ERG; *gai ukitua*_ABS; *abiapuntuko kokapena*_ABL

hartu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (293) Bere alaba lehen aldiz besoetan hartu zuenean [HARK] hark bost urte zituen. (EG)
- (294) Egunkariak galdekatutako beste erakunde batek, Sos Balkanesek, ez du hain garbi errefuxiatuak hemen ez hartzeko irizpide hori. (EG)
- (295) Ibarretxek Lehendakartzako aretoan hartu zuen Diez, lehendakaria bake foroa eratzeko eragile sozialekin egiten ari den elkarrizketa txandaren barruan. (EG)
- (296) Koldo Muruak jakinarazi digunez, eurengana jada familia asko joan dira etxean errefuxiatuak hartzeko prest daudela jakinarazteko. (EG)
- (297) Udalek bere gain hartuko dute zabortegiak egokitzeko gastuak. (EG)
- (298) Izan ere, BAM distrituaren eta Hazparneko Udalaren arteko 1994ko abenduaren 20ko hitzarmenaren arabera, Hazparneko zabortegiak kostaldeko lokatzak hartu behar ditu. (EG)
- (299) Ingalaterran eskola ulerkorrek hezkuntza publikoko ikasleen % 85 hartzen dituzte. (EusCor)
- (300) Gaur egun, Nazio Curriculumak ikastetxe publikoetako 16 urte bitarteko ikasle guztien hezkuntza hartzen du. (EusCor)
- (301) 3.-Nolanahi ere, Autonomi Elkarteko organo aginpidedunek beren gain hartuko dituzte ihardueren zuzendaritza eta koordinazioa honako kasu hauetan: (EusCor)
- (302) 3. - Azpialal honetako a) puntuan aurrikusitakoaren arabera ezarritako geografi eremuekin bat etorritz, suhiltzaileen zerbitzuaren edo etxearen iharduera-eremuak udalerrri bat baino gehiago hartzen dituzte, zerbitzua antolamendu juridikoak lankidetzarako onartzen duen edozein modutara eskaintzeko era beren artean hitzartu ahal izango dute zerbitzua eskaintzera behartuta dauden udalerriek eta, hala egokituz gero, dagokion foru-aldundiak. (EusCor)

Bss honetan, esan dugun bezala, **ERG** ekintzaren egilea da, baina ekintza horretan nolabaiteko jabeakuntza edo edukitzea adierazten da, eta ondorioz, *edukitzaile* gisa jokatu du; **ABSk**, berriz, *eduki* bezala; eta **INEk**, azkenik, ABS entitatearen *kokapen* zehatza adierazten du.

Hala ere, argi dagoenez, INE ez da beti agertzen. Horrelakoetan, gure ustez *bere baitan* edo *bere gain* moduko zerbait da ulertu behar dena; hau da, ERG entitatearen baitan. Hala ere, gerta daiteke esaldian ageri den INE ez izatea beti ABS entitatearen kokapena, ekintzaren kokapen orokorra baizik ((299): *Ingalaterran*). Halakoetan, oso ohikoa izaten da ERG ez agertzea⁹.

⁹ Horrelako egitura sintaktikoak (hau da, INEk gertakizunaren kokapena adierazten duenean eta ERGik ageri ez denean perpausean —ezta *pro* gisa ere—) inpersonala egiteko beste baliabide bat direla uste dugu. Nahiz eta laguntzailean eragotzailearen marka egon, esaldian esplizitu agertzen ez den elementua ez da elipsi prozesuaren bidez (hau da aurrekari baten bidez) berreskuratzen, baizik eta modu generiko batean (inpersonalen modura, gizaki bizidun erreferentzia zehatzik gabeko bat islatuz). Hau bat dator **V.2.2.1** puntuan inpersonala egiteko dauden moduez esandakoekin. Gure ustez, ordea, guk diogunean bada azpimarragarria deritzogun xehetasun bat: INEren presentzia; badirudi, ekintzaren kokapen orokorra adierazten duen elementu hori ere beharrezkoa dela.

Azpimarratu behar da, hala ere, edukierazko zentzu hau errazago ulertzen dela ABS entitatea abstraktua denean (halaxe izaten da gehienetan), eta ERG entitatea ez-biziduna denean. ERG entitatea biziduna denean, desplazamendutik gertuago sumatzen da aditzaren balioa, baina batez ere INErik agertzen ez denean esaldian. Beraz, esaldiko INEren presentziak pisu handi samarra du aditzarekin nabarmendu nahi den balioa zehazteko garaian.

Honenbestez, *hartuk bss* honetan entitate bat edukitzea adierazten duela esango dugu, oro har, horretarako *edukitzailea, edukia eta kokapenezko* elementu bat behar dituelarik, ERGez, ABSz eta INEz gauzatuak, hurrenez hurren.

Esandako guztiak argi jartzen du markatu ditugun *harturen* bi *bssen* arteko bereizketa ez dela garbia, batez ere ERG entitatea biziduna denean eta *bss* bakoitzean azpikategorizatutzat edo onartutzat jotako Kasuak esaldian agertzen ez direnean (DAT eta ABL hartu-DU-1en, eta INE hartu-DU-2n).

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

hartu-DU-2: edukitzailea_ERG; edukia_ABS; kokapena_INE

Gainontzekoan *harturekin* agertzen diren adibide asko eta asko Hitz Anitzeko Unitateetatik hurbilago daudela dirudi, hain zuzen hemen planteatu ditugun balio eta egituretatik kanpo daudelako, gure ustez. Askotan, ABS entitatea abstraktua izaten da, eta horrek ekartzen ditu zailtasunak inongo baliotan kokatzeko. Hitz Anitzeko Unitate Lexikal batzuek, hala ere, bigarren balioan planteatutako egituretan dute sorburua (*kontuan hartu, ahotan hartu...*); eta horrek, gure ustez, hartu-DU-2n planteatu dugun egitura orokorrari bermea ematen dio.

Adibide batzuk:

- (303) gorputz hartu: Unibertso osoa bere-bere oldar batek ibilarazita dabil, eta oldar hori da banako bakoitzean gorputz hartzen duena. (EusCor)
- (304) tokia hartu: c) Unibertsitatean hein bat mugatua da zubererak **har** dezakeen tokia, orokorki, idazle batzuen testuetan edeitan eta kokatzen baita, edo zuberotar xahar zenbaitez egiten diren grabaketetan. (EusCor)
- (305) **martxa** hartu: Beherago ere deitzekotan egon gara, baina goizegi zelako edo behin martxa hartuta gelditzea gogorra delako, gelditu garenean haize katramilatsuak pakean utzi ez gaituelako (EusCor)
- (306) eguzkia hartu: Eguzki apur bat **hartuko** lukete, baita nik neuk ere! (EusCor)
- (307) neurri hartu: 1991. eta 1994. urteetan zenbait neurri hartu zituzten Verak eta Argotek. (EG)
- (308) atsedenaldia hartu: Hala ere, ez zait asko geratzen atsedenaldi luze bat **hartzeko**, nahikoa nekatuta sumatzen dut neure burua dagoeneko. (EG)

- (309) **altuera hartu**: Zailena zutabeen inguruan kateatutako bi solidarioen atxiloketa izan zen, eskaladarako materialari esker **hartutako altuerarengatik** suhitzailen garabi bat erabili behar izan baitzuten. (EG)
- (310) **jai hartu**: ATZOKO etapari zer kendu handirik ez da, berriro ere (lagun bakan batzuen ahalegin goraiagarria salbu) pelotoiko gizonik indartsuenek **jai hartu** baitzuten; (EG)
- (311) **min hartu**: Nazioarteko Garapenerako ministro britainiar Clare Shortek Milosevic eta serbiar paramilitarrak egin zituen erantzule, errefuxiatuek **min hartzen** badute. (EG)
- (312) **ebazpena hartu**: Arratsaldeko 16:30etan atera zen Cadizko Puerto I kartzelatik, eta gauean heldu zen Euskal Herrira hegazkinez Entzutegi Nazionaleko lehenengo eta bigarren sekzioek Esteban askatzearen aldeko **ebazpena hartu** zuten Preso ohiak gibelesko minbizia du, oso aurreratua, eta aske utzi ezean gose eta egarri greba hasteko asmoa zuen. (EG)
- (313) **aterpea hartu**: Legazpin **aterpea hartu** zutenen artean, adibidez, familia bateko aita alkoholikoa zen; (EG)
- (314) **neurriak hartu**: Esperientzian oinarrituta diote, beraz, oraingo honetan Kosovoko albaniarrei aterpea eskaintzea erabakiz gero "orduak hartatik ikasbidea atera beharko luketela erakundeek", eta zenbaitek bizi izan zuten egoera larriak errepikatu ez daitezela **neurriak hartu** beharko lituzketela. (EG)
- (315) **bidea hartu**: PUERTO 1 espexeko euskal preso politikoez joan den astelehen gauerdian **hartutako bideari** jarraitu diote Granadako Albolote espexeko preso politikoez. (EG)
- (316) **jarrera hartu**: Gauzak doazen bezala, ni ez nintzateke batere harrutuko gerta daitezkeen indarkeria ekintzen inguruan **jarrera hartzeko** akordio bat lortu eta gobernu akordio bat itxiko balitz; (EG)
- (317) **aurrea hartu**: Tuterarrak 165 kilometro egin zituen tropelarren muturrari **aurrea harturik**, baina Zallako helmugara lehena iristeko ia aukerarik ez zuela jakinda. (EG)
- (318) **hitza hartu**: Bertan, Abertzaleen Batasuna eta Iparraldeko Eusko Alkartasuneko zein Euzko Alderdi Jeltzaleko kideek **hartuko** dute **hitza**. (EG)
- (319) **argazkiak hartu**: Fite fite aretoa bisitatu zuten, eta **argazki** batzuk **hartu**. (EG)
- (320) **ahotan hartu**: Arestian **ahotan hartu** egile-irakurleez —literaturaren, zeinahi literaturaren, funtsezko osagarriez — Mitxelenak duen ikusmoldea, laster xamarrean bada ere, adierazia dago.
- (321) **kontuan hartu**: Baina **kontuan hartu** behar dira Cossigak, Joan Pablo II Aita Sainduak, Nelson Mandelak edota John Humek egindako adierazpenak. (EG)

- **Datu estatistikoek** agerian jartzen dute DU erabilera dela nabarmenena; Kasuei dagokienez, INEk maiztasun handia duela ikusten dugu; gainontzekoan, ABL da hurrena maiztasunean:

DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Onartzen ez dituzten kasuak: ABS, ALA

Kasuen onartuen artean, berriz, alde txiki bat dago:

Lau aditzek hiru *bss*etan onartzen dituzte INE, INS, SOZ eta ABL. *Entzun*, *irakurri* eta *ulertu* aditzek *bss* guztietan onartzen dute DAT; *ikusik*, berriz, DU-1 *bss*an bakarrik onartzen du DAT.

Azalpena

Adibideak (*bss*ak, bereizten dituzten osagaiak azpimarratuta)

- (322) Azken esaldi hau entzun zuenean Vincent Baudot-en begiek bizitasun berezia hartu zuten. (EusCor)
- (323) Jende askok ez du **entzuten** ez ulertzen, baina, niretzat, hori da horretarako interes gutxi egon delako. (EG)
- (324) Zentralak sor ditzakeen kalteen ordain bidezkoa jasoko zutela entzun zuten [HAIEK]. (EG)
- (325) Ba, orduantxe bertan izan da den-dena ikusi dudanean [NIK]: hantxe zeuden, izkina batean, erdigordeta eliza ondoan musika kioskoak zertxobait ezkututzen zituela. (EusCor)
- (326) Zergatik esaten dizudan guzi hau? Liburu zahar bat ikusi dudalako [NIK] haur baten eskuetan. (EusCor)
- (327) Baina bakoitzak bere jeinuaren arabera (bere herriaren jeinuaren), desberdin **ikusten** du bakoitzak, eta horretan datza herri bakoitzaren jeinu espezifikoak, tradizioan eta mitologian bere espresioa ezezik, hurrengo desarroilorako bidea finkatuta daukala. (EusCor)
- (328) Beraz, izaki bizien gaurko mundu osoa deskribatu berri ditugun fotosintesi- eta kimiosintesi-prozesu analogoei esker mantentzen dela ikusten dugu. [GUK] (EusCor)
- (329) Ebanjelioak irakurtzen ditugunean [GUK], geografia eta historiarekin zerikusia duten toki, gertaera eta gizarte maila jakin batzuen aipamen zehatzak egiten dituzten adierazpenak aurkitzen ditugu. (EG)
- (330) Alabaren liburuan **irakurri** neban [NIK] [HURA]. (EusCor)
- (331) Liamine Zeroual lehendakariak mezu bat irakurri zion nazioari bart gauean telebistan eta irratan. (EG)
- (332) Hurrengo orrialdeko marrazkiei begirada bat botatzen badiezu eta arretaz **irakurtzen** baduzu [ZUK] alboan duten testua, erraz ulertuko duzu nola gertatzen den fosilizazioa. (EusCor)
- (333) Gehienek erdaraz samurrago **irakurten** dute. (EusCor)
- (334) Nik lehengo egunean egunkari batean papera eta kartoia birziklatu daitekezala irakurri neban. (EG)
- (335) Oraindik ere zalantzak badituzu eta gai honi buruzko guztia argi ez bazaizu geratu, ez kezkatu gehiegi, ondorengo jardueretan egindako lanekin ondo **ulertuko** baitituzu aipatutako kontzeptuak eta erabilitako metodoak. (EusCor)
- (336) Guztiarekin ere, "alderdi zaharrari" leial izaten jarraitu zuen, baina ez zuen [HARK] nazionalismo demokratikoaren krisia erabat **ulertu**. (EusCor)

- (337) Ez zuten batak bestea ondo **ulertzen**. (EusCor)
- (338) Horrela bada, azaldutako taularen bitartez egindako aldagai honen bilakaeraren azterketa osotasun baten barruan zentzua duen gerturatze moduan **ulertu** behar da; (EusCor)
- (339) Egin dezakeguna da bere horretan laga (baina hango ohituren berri ez duenak ez luke apika **ulertuko**) edo nolabait kulturalki moldatu. (EusCor)
- (340) Elkarri **ulertzen** ez dioten bi pertsonaren artean bitarteko gertatzen den itzultzailea. (EusCor)
- (341) -Ez dizut **ulertzen** [NIK] [ZURI]—erantzun zion berak balearen isats hezurrerantz urrunduz. (EusCor)
- (342) Oraintxe **ulertzen** dut. (EusCor)
- (343) "Kontxo, **ulertzen** dut ba, ez diozue Lobatoni deitu? (EusCor)
- (344) Clovisen kasuan, oreka bat gertatu zela **uler** dezakegu. (EusCor)

Adibideek erakusten digutenez, **ERG** entitatea beti da gizakia; edo baita gizatalde bat errepresentatzen duen entitatea, nahiz eta adibideetan ez agertu (adib. *herri, talde...*). ABS entitatea, berriz, ez da guztietan berdina.

Irakurri aditzean ez dirudi izaki biziduna izan daitekeenik; beti izaki bizigabea da (eta gizaki bat agertuz gero, berez horren “lana” da irakurtzen dena).

Entzunen kasuan, soinua adierazten duten espresabideak ((322): *esaldi; oihu* (asmatua); *hitz* (asmatua)) nahiz soinua ekoizten duen edozein entitate ager daiteke ABS entitate gisa (adibideetan agertu ez bazaizkigu ere, *kotxe, motor...* modukoak guztiz zilegi dira; baita izaki bizidunak ere: *aita entzun dut korredorean*). Beraz, soinu izaera hori aditzk berak ematen duela esan daiteke. *Esaldi* hitza bera “soinu”tzat hartzera eramaten gaituena *entzun* aditza da; bestelako aditz batzuekin —esaterako, *aztertu* edo *idatzirekin*—, soinu balio hori desagertu egiten da. ELA_KONP ageri zaigunean, hain zuzen, adierazpena bera da entzuten dena. Beraz, ezin esan daiteke soinua adierazten duten entitate abstraktuak bakarrik ageri direla ABSren gunean. *Ikusi* eta *ulertu* aditzetan, berriz, izaki bizigabeak ez ezik, bizidunak ere agertzen dira ABSn; *ulerturen* kasuan, izaki bizigabea beti da abstraktua.

Gogora dezagun, bestalde, *entzun* eta *ikusi* gisako hautematezko aditzek Agentearen ezaugarri arruntaren alternantzia (L 1.2.6.1)) onartzen dutela ekintzarekiko ezintasuna edo iaiotasuna adierazten duten neurrian.

Aditz hauek guztiek ELA_KONP erakusten dutenean, adierazpen perpaus bat —ekintza abstraktu bat, alegia— adierazten dute. Eta, beraz, alternantzia hau DU-1 *bssa* baino mugatuagoa da.

INEri, **IN**Seri eta **SO**Zi dagokienez, beren ohiko balioak adieraz ditzakete: modua (INS: (332), (333); INE: (338)); modua, baina baliabidea/bitartekari gisakoa (SOZ: (335)). *Ikusi* eta *Irakurri* aditzetan, INEk ABS entitatearen kokalekuari zehazki ere egin diezaioke erreferentzia ((326), (330)). Eta gure ustez, baita *entzunen* ere (*laguna entzun nuen irratian*).

Bada, ordea, INSen balio berezi bat, “zertaz” jarduten den adierazten duena. Adibideak *ulertu* aditzean aurkitu ditugu bakarrik:

- (345) Eta etnologia, herrialde anglo-saxoietan (haietan etnologia terminoa bazterturik geratzen ari baita) antropologia sozialaz eta kulturalaz **ulertzen** denari dagokio gutxi gora-behera (antropologia soziala batik bat instituzioak ordezkapen-sistema gisa kontsideraturik). (EusCor)
- (346) Munduaz dakiguna, **ulertzen** duguna, interpretatzen duguna, errealitate soziala alegia, neurri handienez komunikabideen eraginari buruz gauzatzen da. (EusCor)
- (347) Dirudinez bidali nahi dit bere partetik agurra, baina niretzat goiza dator oin beroa eta samurra, asko ez dakit entzundakoaz **ulertutako** apurra: (EusCor)

Baina gure ustez lau aditzek onar dezakete INSen balio hau.

Entzun eta *irakurri* aditzetan, INSen balio hau hiru *bssetan* da onargarri, nahiz eta ABSdun egituran arraragoa izan. Horretaz gain, inespezifikazioaren kasuan, neurriaren berri ematen duen elementuren bat agertzea oso arrunta da ((350)). Ikus adibide asmatu hauek:

- (348) (?) Esaldi hau **irakurri** dut Mikelez
- (349) Asperek ez duela oso ondo jokatu **irakurri** dut Mikelez
- (350) Autore horretaz ez dut (ezer) **entzun**.

Aldiz, *ikusiren* kasuan inespezifikazio-egituran ez dirudi lekurik duenik; INSen balio hau agertzeko objektua agertzea nahitaezkoa dela ematen du, INS horrek objektuari buruzko zehaztasunen bat emango balu bezala:

- (351) Maitasunaz ez dut filmik **ikusten**

Hain zuzen ere, arruntagoa da hori bera izenlagun batez gauzatua agertzea:

- (352) Maitasunezko filmik ez dut **ikusten**

ELA_KONPeKin ere antzekoa gertatzen da, mendeko perpausak adierazten duen ekintza INS entitateak egiten duela baitirudi.

Ulerturen kasuan, azkenik, alderantzizkoa gertatzen da: INSen balio hau inespezifikazio-kasuan bakarrik ageri da ((345), (346), (347)). Ondorioz, inespezifikazio-kasuetan objektuaren moduko zerbait adierazten duela dirudi. Hori dela eta, aditz honetan zalantza izan dugu inespezifikazio-balioaren barruan aztertu ala aparteko sarrera bat eman, INSi *gai* osagai semantikoa esleituz (alegia, DU-1 eta DU-3 *bssan* ABSk eta ELA_KONPeK duten osagai bera).

ABLri dagokionez, lau aditzetan balioa ez da berdina. Ez dugu corpusean adibiderik aurkitu, beraz, asmatuak erabiliko ditugu.

Entzunen kasuan, balio desberdinak izan ditzake. Batetik, ERG entitatearen kokapena adieraz dezake:

- (353) Irratia gelatik **entzuten** dut (ni gelan nagoela)

Bestetik, entzuteko erabiltzen den bitartekoa izan daiteke¹⁰:

(354) Berria irratitik/telebistatik **entzun** dut

Hala ere, ABLren zein balioen aurrean gauden, testuinguruak eta askotan ABL entitateak baldintzatuko du. Horretaz gain, DAT agertzen denean perpausean, bitarteko hau berez DAT entitatearen kokalekua da; eta normalean ez da objekturik azaltzen perpausean:

(355) Irratitik **entzun** nion

Kasu hauetan ere, ordea, testuinguruak esango digu DAT edota ERG entitatearen kokalekuari erreferentzia egiten dion, besterik ezean anbigua izan baitaiteke.

Azkenik, ERG entitatearen une bateko kokapenaren berri ere eman dezake (nahiz eta ez dirudien oso arrunta):

(356) Zurrumurrua tabernatik/herritik **entzun** dut

Irakurri aditzean ere ERG entitatearen kokalekua adieraz dezake:

(357) Manifestariak mezua udaletxeko balkoitik **irakurri** du

Ikusi aditzean ere ERG entitatearen kokalekua adieraz dezake:

(358) Partidua etxetik **ikusi** genuen

Eta horretaz gain, ABS entitatearen une jakin bateko kokapena ere adieraz dezake, (nahiz eta hau ere ez izan oso arrunta):

(359) Laguna kaletik **ikusi** dut

Ulerturen kausuan, berriz, baliabide moduko bat adierazten duela esan daiteke, baina ez da bat ere arrunta:

(360) Irakaslearen azalpenetik **ulertu** nuen irtenbidea

DAT dugu, azkenik.

Entzun eta *ulertu* aditzetako hiru *bssetan*, DATek beti izaki bizidun —ia beti gizaki— bati egiten dio erreferentzia, “entzuten” eta “ulertzen den” zer horren *iturriaren* balioa duelarik. *Entzunen* adibiderik ez dugu aurkitu, eta *ulerturen* guztiak inespezifikazio-kasuei dagozkie ((340), (341)).

Irakurri aditzean bi balio izan ditzake DATek: bata ERG entitateak irakurketa nori zuzentzen dion adierazten duena, eta arruntena dena ((331)), eta bestea ERG entitateak irakurketa norengandik egiten duen —eta beraz *iturria* nor den— adierazten duena; erabilera berriagoa hauxe, eta adibiderik ez duena corpusean. Baina beti gizaki bat dela esan liteke,

¹⁰Agentearen ezaugarri arruntaren alternantzia (L 1.2.6.1) esan dugun bezala, objekturik gabeko aldaeran, *entzun* eta *ikusi* aditzek, entzuteko eta ikusteko baliatzen diren gorputz-atalak (*belarriak* eta *begiak*) onartzen dituzte ABLren gunean (adib. *ez du entzuten ezkerreko belarritik; ez du ikusten ezkerreko begitik*). Beraz, hauek ere nolabaiteko baliabideak lirateke.

beste bi aditzetan bezalaxe. *Helburuaren* balioa kontuan hartuta eta beste aditz batzuetan esan duguna errepikatuz, ERG esperimantatzaile ez ezik *abiapuntua* ere izango litzatzeke. Hala ere, DAT ez dugunez Kasu azpikategorizatuen artean jarri, ez dugu aukera hau eman osagai semantikoetan. DATen *iturri* balioak ezinezkoa dirudi DU-2 *bssan*.

Ikusiren kasuan, esan dugun bezala, DAT DU-1 *bssan* bakarrik onartzen da. DAT entitatea biziduna denean, ABS entitatea aldean daramala adierazten da normalean; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu corpusean (*liburua ikusi diot eskuetan*). Aldiz, topatu dugu DAT entitatea bizigabea den adibide bat:

(361) Inork ez dio **ikusten** zentzurik horrelako gauza bati. (EusCor)

Honako adibidean, ABS entitatea abstraktua izaki, DAT entitatearen ezaugarri moduko bat bezala ikus daiteke. Dena den, ez da erabilerarik ohikoena, eta gehiago dirudi izen batez (*zentzua*) eta aditzaz (*ikusi*) osatutako Hitz Anitzeko Unitate Lexikala.

Aditz hauek, orduan, *jarduera* bat adierazten dutela esango dugu. Hiru *bssetan* ERGez gauzatzen den *esperimantatzailea* dago parte hartzaile nagusietako bat bezala. DU-1 *bssan* ABSz gauzatzen den *gaia* da beste parte hartzaile nagusia; DU-3 *bssan*, ELA_KONPez gauzatzen den *gaia*; eta DU-2 *bssan*, *gaia* ez da agertzen inespezifikatu egiten delako.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

entzun/ikusi/ulertu-DU-1: esperimantatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS


irakurri-DU-1: esperimantatzailea [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS

DU-2: esperimantatzailea [+giz]_ERG

DU-3: esperimantatzailea [+giz]_ERG; gaia_ELA_KONP


- Aditz bakoitzaren datu estatistikoak:

Entzun: aditz honetan argi eta garbi ERG eta ABS gailentzen dira. ELA_KONP, berriz, oso gutxitan agertzen da.




DA	40,56%	DA-ins	5,34%	DA-ala	1,08%	DA-abl	5,97%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,00%	DA-soz	0,32%	DA-ine	21,08%				
DU	51,94%	DU-ins	2,38%	DU-ala	0,31%	DU-abl	3,59%	DU-abs	64,61%	DU-komp	8,74%	DU-soz	6,27%	DU-ine	13,26%	DU-erg	100,00%		
DIO	6,97%	DIO-ala	0,29%	DIO-abl	0,59%	DIO-abs	34,25%	DIO-komp	12,12%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,29%	DIO-ine	13,59%	DIO-erg	100,00%		
ZAI0	0,52%	ZAI0-ala	0,30%	ZAI0-abl	0,60%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	3,32%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,30%	ZAI0-ine	4,83%				

Ikusi: aditz honetan, ELA_KONP maizago agertzen da, baina goian bezalaxe maiztasun handienekoak ERG eta ABS dira. Bestetik, ikusten dugu DA erabilera dezente dagoela; hori, seguruenez, erabilera inbertsonalaren isla izango da.




DA	27,35%	DA-ins	2,52%	DA-ala	4,73%	DA-abl	3,83%	DA-abs	100,00%	DA-komp	19,67%	DA-soz	1,41%	DA-ine	24,37%				
DU	70,91%	DU-ins	5,06%	DU-ala	0,89%	DU-abl	2,11%	DU-abs	56,95%	DU-komp	18,44%	DU-soz	0,81%	DU-ine	17,94%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,16%	DIO-ins	1,52%	DIO-ala	0,16%	DIO-abl	5,34%	DIO-abs	63,83%	DIO-komp	32,52%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,16%	DIO-ine	10,07%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	0,57%	ZAI0-ins	1,39%	ZAI0-ala	0,16%	ZAI0-abl	0,48%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	42,75%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,16%	ZAI0-ine	4,98%		

Irakurri: irakurriren kasuan ELA_KONPek apenas du presentziarik; eta goiko aditzetan bezalaxe ERG eta ABSk dute maiztasun handiena.



DA	19,63%	DA-ins	9,13%	DA-ala	0,74%	DA-abl	0,74%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,47%	DA-ine	26,21%						
DU	77,00%	DU-ins	7,24%	DU-ala	1,63%	DU-abl	0,71%	DU-abs	70,76%	DU-komp	3,16%	DU-ine	15,71%	DU-erg	100,00%				
DIO	3,36%	DIO-ins	3,17%	DIO-ala	0,63%	DIO-abl	0,63%	DIO-abs	64,26%	DIO-komp	1,58%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	26,94%	DIO-erg	100,00%		

Ulertu: ikusi aditzean esan ditugunak baliagarri dira hemen. Aipatzekoa, hala ere, DATen presentzia txikia.



DA	25,91%	DA-ins	2,46%	DA-ala	2,46%	DA-abl	3,12%	DA-komp	19,75%	DA-mod	1,23%	DA-soz	0,33%	DA-ine	9,02%		
DU	73,00%	DU-ins	4,36%	DU-ala	0,87%	DU-abl	1,94%	DU-abs	56,92%	DU-komp	13,92%	DU-soz	0,75%	DU-ine	8,13%	DU-erg	100,00%
ZAIO	1,09%	ZAIO-ins	29,18%	ZAIO-abl	0,27%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	0,55%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,14%	ZAIO-ine	0,68%		

A.2 ABSren, INSen eta INEren arteko alternantzia dutenak denbora osagaian

iraun

Iraun

Irauni markatutako hiru *bssak* alternantzia dira elkarren artean. Izan ere, aditz honen balio semantikoa definitzen duen *denbora* osagaia hiru Kasu desberdinez gauza daiteke. Denboraren iragatea espermentatzen duen entitatea, berriz, hiruretan Kasu beraz gauzatzen da: ERGez. Ikus ditzagun hirurak batera:

iraun-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

iraun-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

iraun-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INE, DAT

Azalpena

Adibideak (bssak desberdintzen dituzten osagaiak azpimarratuta):

- (362) Oso etsai eta uzkur ageri ohi dira beste komunitate batzuekin, baina noizean behin lagun dituzten herrixketakoekin biltzen dira, eta hainbat egun irauten duten jaiak antolatzen dituzte; (EusCor)
- (363) Dena dela, txapelketa faseak hiru hilabete baino gehiago irauten duenean (adibidez, talde kirolean)...(EusCor)
- (364) Elkarrekin parte-hartzeko diseinu bat sortzea eta esperientzia horrek pilota-iharduera osoan iraun dezan saiatzea (ez noizean behin). (EusCor)
- (365) Itsumendiko gure bizikera hark — nahiz eta tokiz aldatu— sei edo zazpi urtetan iraungo zuen. (EusCor)
- (366) Gerra urte hartako uztailan altxatu zen eta hiru urtez iraun zuen. [HARK] (EusCor)

Iraun-DU-1en ABS da denborazko epea adierazten duena; iraun-DU-2n INE; eta iraun-DU-3n INS. Guztietan ERG entitatearen existentziaren iraupena mugatzen da.

Kasu azpikategorizatuak INE edo INS direnean, ez da ohikoa izango bestelako balioak — normalean dituztenak (modua, denbora)— adieraztea.

Gainontzekoan, **SOZ** onartuen artean jarri dugu, baina ez dirudi oso arrunta; agertzekotan baliabide-izaerako modua adieraziko luke (adibide asmatu honek erakusten digunez: zorte apur batekin, bi egun iraun dezake pilak)

DATek ERG entitatearekiko jabetzazko erlazio baten berri ematen duela dirudi; baina ez da bat ere arrunta.

Gerta daiteke, ordea, denbora-iraupenari erreferentzia egiten dion elementua ez agertzea perpausean. Kasu hauetan, irautea bera da nabarmentzen dena, eta INE agertzea nahiko arrunta da, baina, honakoan, gertakizunaren kokalekua adieraziz:

- (367) Gainera, telebistak, etengabeko berrikuntzak behar izaten ditu programa bat mantendu ahal izateko, ez baita erraza izaten formatu eta protagonista berdinekin programa batek irautea. (EusCor)
- (368) Saia zaituz jakiten gaur egun zein herrixkatan irauten duen ikazkintzak lanbide bezala eta mapa batean adieraz ezazu non dauden herrixka horiek. (EusCor)
- (369) Arrunta zen buru-ehiza, haien ustez, garezurraren barruan gordetzen zen gizakiaren nortasunak bertan zirauelako, heriotzaren ondoren. (EusCor)

Hala izanik, kasu hauetan denborazko osagaia inespezifikatu egiten dela esan beharko genuke.

Beraz, esango dugu *iraun* aditzak entitate baten epe bateko iraualdia adierazten duela, parte-hartzaile bezala ERGez gauzatzen den *esperimentatzailea* eta *denbora* — alternantziaren arabera, ABS, INE edo INS dena— dituela.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

Iraun-DU-1: esperimentatzailea_ERG; denbora_ABS

Iraun-DU-2: esperimentatzailea_ERG; denbora_INE

Iraun-DU-3: esperimentatzailea_ERG; denbora_INS

- Datu estatistikoak: ERGen eta ABSren ondoren, INE ageri da maiztasun handienarekin. INSek, ordea, apenas du presentziarik.



DA	1,46%	DA-abl	29,06%	DA-abs	100,00%	DA-komp	0,43%	DA-soz	0,43%	DA-ine	60,26%
DU	98,54%	DU-ins	0,86%	DU-ala	3,44%	DU-abl	1,29%	DU-abs	59,23%	DU-komp	1,71%
								DU-soz	0,85%	DU-ine	16,31%
										DU-erg	100,00%

A.3 ABSren eta ELA_KONPen arteko alternantzia, eta *jarduera* osagaiaren inespezifikazio-alternantzia dutenak

asmatu

Asmatu

*Asmatu*ri markatutako hiru *bssak* balio semantiko beraren alternantzia dira. Asmatu-DU-1 eta asmatu-DU-3k elkarren artean ABS eta ELA_KONPen arteko alternantzia osatzen dute. Asmatu-DU-2k, berriz, asmatu-DU-1ekin *jarduera* osagaiaren inespezifikazio-alternantzia osatzen du. Hala ere, ikusiko dugu asmatu-DU-2n askotan SOZ eta INE agertzen direla, eta horrek egitura sintaktiko orokorra bihurtzeko bidean jarri dituela egiturek. Ikus ditzagun lehendabizi asmatu-DU-1 eta asmatu-DU-3 batera, eta ondoren, asmatu-DU-2.

asmatu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

asmatu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Bi baliotan kasu onartuak berdinak dira: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Azalpena

Adibideak (bi *bssak* bereizten dituzten elementuak azpimarratuta). Esan behar da ELA_KONPekin adibide bakarra aurkitu dugula.

- (370) Urte haietan, Alois Senefelder alemanak litografia **asmatu** zuen München-en eta hau ere berehalaxe hedatu zen Europa zehar. (EusCor)
- (371) Nagusiek **asmatu** ditugu umekeriak, ez haurrek. (EusCor)
- (372) Hau dena gutxi balitz, gainera orain Txinoaren Entierroa izeneko ideia berri eta izugarri orijinala **asmatu** dute, konpletatzeko. (EG)
- (373) Arazoen gaintik irtenbidea **asmatzeko** eskatzen dizue, hala ere, gizarteak, urratsak egitea alegia. (EG)
- (374) Ez da ikerketa sakonik egin eta horrelakoetan beti gertatzen da gauza bera, jendeak **asmatu** egiten dituela gauzak. (EG)
- (375) Epaietan esan zuenez, GAL erakundearen partaide zela **asmatu** egin zuen droga-trafikoagatik bizi osorako kartzela-zigorra betetzen ari zen Thailandiako espetxetik Espainiara eramateko — 1997ko urtarrilean estraditatu zuten Espainiara eta egun espetxean da —. (EG)

ERG entitatea beti gizakia da. **ABS** entitatea, hemen agertu zaizkigun adibide guztietan izaki bizigabe abstraktu bat da; hain zuzen, ELA_KONPek ere, dagoeneko esana duguna

errepikatuz, adierazpen-perpau bat —eta beraz, zer abstraktu bat— adierazten du. Hala ere, esan behar da adibideetan agertu ez bazaigu ere, berezko abstraktutasun hau zalantzarria izan daitekeela zenbait kasutan (esaterako, *txertoa*, *idazmakina...* asmatu). Kasu hauetan ematen du aditzak berak ematen diola entitate horri abstraktutasuna, *entzun* aditzean ikusi dugun bezalaxe.

Nolanahi ere, ematen du *asmatu* aditzean ABS entitatea ERG entitateak sortzen duela; eta, ondorioz, sortze-prozesu baten aurrean gaudela, ERG *iturri* eta ABS *gai sortua* direla.

Hala ere, adibideotan sortze-zentzu hori dagoela testuinguruari esker dakigu. Izan ere, beste testuinguren batean, eta seguruenez ABSn beste entitate batzuk izango bagenitu, ‘igarri’ moduko zerbait adieraz dezakeela badakigu. Eta balio honetan ezin dugu esan sortze-prozesu bat dagoenik. Horrelako desberdintasunak ezin ditugu hautatutako baliabideez adierazi, eta gainera batzuetan testuinguru pragmatikoaren baitan daude. Beraz, ezin dugu esan *asmaturik* orokorrean sortze-prozesu bat aditzera ematen duenik.

INEk, **INSe** eta **SOZe** beren ohiko balioak izan ditzakete. Modua, dena den, askotan baliabide eitekoa da.

ABL onartutzat jo dugu, baina izatez ez da oso arrunta; ez dugu, gainera, adibiderik aurkitu. Kasu bakan hauetan kausa edo baliabide moduko bat adierazten duela esan daiteke, *ulertu* aditzean esan dugunaren pareko (Adibide asmatu batera joaz: *azalpen horretatik asmatu genuen ariketaren soluzioa*).

DATek ez dirudi bat ere arrunta, eta agertzekotan ‘zerbait sortzea’ adierazten denean agertzen da, *helburua* adieraziz. Baina gerta daiteke ere DAT entitatea izatea ABS entitatearen sortzaile (adibiderik ez dugu aurkitu, ordea: *asmakiloa asmatu dio*), eta orduan, ERGek ezin du *iturria* izan. Gainontzean, hemen kontuan ez dugun datibo “etikoa”aren moduko zerbait adierazten duela dirudi; hau da, subjektuarekiko —ERG entitatearekiko— harreman berezi bat.

asmatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABS, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, SOZ, DAT

Azalpena

Adibideak:

(376) Saiatu, gogotik saiatu ziren, baina ez zuten **asmatu**, huts ugari egin zuten, eta hor egon zen bi taldeen arteko aldea. (EG)

(377) Fernandezek **asmatu** egin zuen eta zelairatutako hamaikakoak lan bikaina egin zuen lehen zatian. (EG)

- (378) Saketik hasi behar da horretarako, eta ea **asmatzen** dudan sakearekin. (EG)
- (379) Azken hamar urteotan Bayernek zazpi entrenatzaile izan ditu, eta Ottmar Hitzfeldekin **asmatu** egin du Beckenbauerrek. (EG)
- (380) Erabakietan **asmatuko** dugu edo huts eginen dugu, baina inork ezin izanen du esan ez garenik saiatu. (EG)
- (381) Lehenengo zatian Realekoek ez zuten **asmatzen** paseetan, eta ondorioz gora ez zen baloi garbirik iritsi. (EG)
- (382) Ez bikain aritu zirelako, nahiz eta uneka jokaldi dotoreak egin zituzten, Athleticeko jokalariek ezertan ere **asmatu** ez zutelako baizik. (EG)

ERG entitatea, goiko balioetan bezala, beti da gizaki bat.

Gainontzeko Kasuak, berriz, *aritu* aditzean esango dugunaren pareko, aditz honek azpian ezkututzen duen edo inespezifikatzen duen jarduera kontuan hartuta ulertu behar direla dirudi. Adibideek erakusten diguten bezala, jarduera hori ez dagoenean esplizitu, **INE** eta **SOZ** oso maiz ageri dira. Hala izanik, INEk eta SOZek jarduerazko balio hori “eskuratu” dutela eta nolabaiteko joera sintaktiko independentea urratzen hasi direla ematen du. Hau da, *sakearekin asmatu* esaterakoan/idazterakoan berez “sakearekin ondo moldatzen asmatu” edo horrelako zerbait genuke. Oro bat INEri dagokionez (*erabakietan, paseetan, ezertan [ondo moldatzen] asmatu*). Horregatik, Kasu hauek ageri direnean, zalantza izan dugu egitura sintaktiko independente gisa eman (eta euren artean *jarduera* osagaiaren alternantzia planteatu), edo besterik gabe asmatu-DU-1ekiko jarduera osagaiaren inespezifikoaren alternantzian landu. Azken honen alde egin dugu azkenean.

Bestalde, ez denean ABS, INE edo SOZik ageri perpausean, elementu jakineko inespezifikazio baten aurrean gaudela dirudi ((376), (377)); izan ere, testuinguruak ulerrazten digu *jokoarekin/jokoan [ondo moldatzen]* moduko bat dela ezkutuan dagoena. Beraz, ikus daitekeenez, inespezifikazio hori orokorragoa edo zehatzagoa izan daiteke testuinguruaren arabera. Nolanahi ere beti nahiko zehatza dela esan daiteke, agertzen diren Kasuak azpiko jarduerarenak direlako.

Azkenik, **INSEK**, ekintza egiteko modua adieraziko lukeela dirudi. Eta SOZek eta INEk beren ohiko balioak ere izan ditzakete.

Honenbestez, esango dugu orokorrean *asmatuk* hiru *bssetan* jarduera bat adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *gaia*, [-konkr] gainera, dituen. Hori adierazteko goian azaldutako *bssak* baliatzen ditu.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

asmatu-DU-1: **esperimentatzailea** [+giz]_ERG; **gaia** [-konkr]_ABS

asmatu-DU-2: **esperimentatzailea** [+giz]_ERG

asmatu-DU-3: **esperimentatzailea** [+giz]_ERG; **gaia**_ELA_KONP

- Datu estatistikoak: ikusten denez, ERG eta ABS dira maiztasun handiena dutenak. INE ere nahiko maiz ageri da; SOZen presentzia, berriz, oso txikia da.



DA	23,94%	DA-ala	0,89%	DA-abs	100,00%	DA-komp	7,08%	DA-ine	4,42%								
DU	74,72%	DU-ins	1,13%	DU-ala	0,84%	DU-abl	1,11%	DU-abs	36,07%	DU-komp	13,49%	DU-soz	2,27%	DU-ine	23,46%	DU-erg	100,00%
DIO	1,33%	DIO-ala	0,84%	DIO-abl	1,11%	DIO-abs	75,77%	DIO-komp	6,69%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	4,18%	DIO-erg	100,00%		

B multzoa: *bssak* balio semantiko desberdinak

Hiru dira hemen sailkatu ditugunak:

eman, eraman, jaso

Ikus dezagun bakoitza banan-banan.

Eman

Gure ustez, hiru balio semantiko erakusten ditu aditz honek oro har.

eman-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL

Azalpena

Adibideak:

- (383) Gizonak bidaiaren bat hasten badu, berehala itzultzeko zina esijituko dio eta, bere faltan, zerbait utziko du, jainkoak gurtzeko botoak eta zoriona **ematen** duten apaingarri haiek bakarrik jantziko ditu. (EusCor)

- (384) Horrez gain, hitzaldi ugari ematen ditu [HARK], Zorroagako unibertsitatean joan den astean azkena. (EusCor)
- (385) Gezurti halakoa! Ez al zaizu aurpegia gorritzen hori diozunean, dakizularik alde zureko erreklamazioak zeuri aurkeztu genizkizula eta hilabetean ez zenuela erantzunik eman [ZUK], eta horren ostean hasi behar izan genuela epailearen aurreko ekintza, zeure isiltasun administratiboa jasan eta gero?. (EusCor)
- (386) Gipuzkoako Caritasetik jakinarazi digutenez, kontu korranteetan diru dezente bildu da jada eta eskura ere askok eman dute laguntzatxoa. (EG)
- (387) Urte askoan kontzertu asko eman dut berarekin. [NIK] (EG)
- (388) kartzeleroak, medikuak, psikologoak, irakasleak ... Medikuen asistentzia ezin da deskribatu, lotsagarria da, edozer gauzarentzat pilulak ematen dituzte [HAIEK] eta kito. (EG)
- (389) Jakintsuak esanda, mozorroztea errutina hautsiz gure izaera adierazteko bide ezinobea dela uste dugu eta gainera horrela beste urte guztian betiko formak gordetzen jarraitzeko indarra ematen digu [HARK] [GURI]. Jon Sarasua (Bertsolaria). (EusCor)
- (390) Baina hala eta guztiz ere badago Euskal Herrian halako ezaugarri diferentzial sail bat, eta hauek gure argazkiari, oraindik oso gaztea delako, ez baldin badiote ere perfil propio bat eman, ez dago inongo dudarik **emango** diotela denborarekin. (EusCor)
- (391) (...); eta orduan izan zen Ixidro anaia txikia marruka hasi zenean, karraixi bizian, narrua kendu izan baliote bezala, amatxok azkenik muturreko eder bat eman zion arte. [HARI] (EusCor)
- (392) Marrazkiak maite dituen zerekin gero, paper zuria eta koloretako lapitz batzu eman dizkiot. [NIK] [HARI] (EusCor)
- (393) Gero Pistorius organista zaharrak paperezko pezeta, hogereko eta bosdurokoak eman zizkidan [NIRI] horiekin batera gordetzeko, baina mesede baten truke. (EusCor)
- (394) Gero, lehen zeuden lekuetan eseriko dira berriro, betel hostoak mastekatuko dituzte eta gizonak sandalo ukendua eta beste esentziak emango dizkio emakumearen gorputzari. (EusCor)
- (395) Beso ezkerrez besarkatuko du, gizonak berak eutsiko dion kopa batean emango dio edaria [HARK] [HARI] hitz goxoak murmuratzen dizkion bitartean. (EusCor)
- (396) Informazio guzti horiei sinesgarritasuna eman zien atzo Rudolf Scharping Alemaniako Defentsa ministroak, bere informazioen arabera ere Serbiak kontzentrazio eremuak sortu baititu Kosovon. (EG)
- (397) Alderdi politikoak asteartean bilduko dira berriro, deklarazioari baietza edo ezetza [HAIEK] **ematen** dioten azaltzeko. (EG)

Emanek balio honetan, elkarraldatzea adierazten du. Hori dela eta, *abiapuntu, gai eta helburu* osagaiak ditu osagai azpikategorizatu gisa, ERG, ABS eta DATez gauzatuak, *hurrenez hurren* (Jo bedi *eskaini* aditzera, 13. or., elkarraldatzei buruzko xehetasun gehiagotarako). **ERG** entitatea orotarikoa dela erakusten digute adibideek, baina askotan gizakia da. **ABS** entitatea ere orotarikoa izan daiteke (beharbada gutxienak gizakiak dira). **DAT**ek, normalean, gizaki bati egiten dio erreferentzia, baina bada izaki bizigabe konkreturik ere. Bide batez, esan dezagun DATik gabeko erabileretan ia gehienetan ABS entitatea zer abstraktua izan ohi dela, baina bestelakorik ere agertzen da bakanka.

Gainontzeko kasuei dagokienez, **IN**sek eta **SO**zek euren ohiko balioak onar ditzakete (adib. SOZ: (387)). **IN**ek ere bere ohiko balioak izan ditzake, alegia, gertakizunaren kokaleku orokorrari nahiz ABS entitatearen kokapenari zehazki egin diezaioke erreferentzia; azken hau gehienetan gertatzen da ABS entitatea konkretua denean ((395)).

ABLk, adibiderik ez bazaigu azaldu ere, **ERG** entitatearen kokapena adieraziko luke.

ALA Kasu onartugabeen artean jarri dugu. Esan behar da, hala ere, **ALAk** gorputz-atal bat duenean gunean, zehazki *esku* gorputz-atala (bestelakorik ezinezkoa dela baitirudi), onargarria dela; eta orduan **DAT** ere ageri ohi da. Horrexegatik jarri dugu (386) adibidea. Hain kasu espezifikoa izanik, ez dugu aparteko baliozat markatu, eta gainera gehiago ikusten dugu Hitz Anitzeko Unitate Lexikal izateko bidean dagoen egitura bat bezala.

Batzuetan, **ABS** entitatearen izaerak, hain maiz ageri den eta hain arrunta den **DAT**en agerpena eragozten du. Honakoetan ere, *emanekin* batera **ABS** entitateak Hitz Anitzeko Unitate Lexikal bat osatzen duela dirudi. Eta jakin badakigu, *emanek* horretarako joera handia duela. Ikus adibide batzuk:

- (398) "Bizi dugun prozesuaren barruan, euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzeko zein euskararen aldeko mobilizazioetan pauso garrantzitsuak **eman** ditugu, eta hau beste bat da", gaineratu zuen HBko mahaikideak. (EG)
- (399) Helburua ez zuen lortu, baina ez du amore **emateko** asmorik. (EG)
- (400) Euskal Herriak du hitza lemapean ospatu nahi dugun ekitaldiari begira, euskal gizartek aurrerapausoa **emango** duen konfiantza osoa dugu ". (EG)
- (401) Hala ere, gogorarazi zuen "PPk eta PSOEk bakegintzan urratsik **ematen** ez badute, gaur ezinbesteko direnak, bihar ez dutela zertan izan beharrik", eta haiekin edo haiek gabe, "bakegintzak aurrera egingo duela" gaineratu zuen. (EG)

Bessaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eman-DU-1: abiapuntua_ERG; gaia_ABS; helburua_DAT

eman-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (402) Minutu pare bat besterik ez dut horretan **eman**, baina atetik irten ondoren ez dut kalean Altdorfer jauna ikusi. (EusCor)
- (403) Ez zen damutzen Cafe zurail haietan **emandako** urteetaz. (EusCor)
- (404) Baina nik ez nuen hodei beltzik zure begietan edo haize hotzik gure harremanetan sumatu, ezta ohartu ere elkarrekin **emandako** azken gau haietakoren bat beilan pasatu zenuenik. (EusCor)

Emanen bigarren balio honetan **ERG** entitatea beti gizakia da, eta ekintza esperimentatzen du. **ABS**k *denbora* adierazten du. **INE**k, azkenik denbora horretan burutzen

den *jarduera* adierazten du. Batzuetan, halere, lekuari ere erreferentzia egin diezaioke ((403)), baina, berez, leku horretan egindako jarduera adierazi nahi dela dirudi. Kasu honetan ere, beste batzuetan esan duguna errepikatuko dugu: badirudi aditz bera dela jarduera izaera hori ematen diona INE entitateari.

INSEk eta SOZEK modua adieraz dezakete, baina beharbada SOZEK konpainia agertzea da arruntena ((404)).

Beraz, *emanen bss* honetan jarduera bat adierazten dela esango dugu, baina zehazki denbora-epe baten barruan egiten den jarduera, parte-hartzaile nagusi bezala ERGEz gauzatzen den *esperimentatzailea*, ABSz gauzatzen den *denbora* eta INEz gauzatzen den *jarduera* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eman-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; denbora_ABS; jarduera_INE

eman-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ELA_KONP.

Kasu onartugabeak: ABS, ABL, ALA, SOZ, DAT

Kasu onartuak: INE, INS

Azalpena

Adibide bakarra topatu dugu honakoan, beraz, ezin zehaztasun handiegirik eman:

(405) Delikadezak, sentiberatasunak, fineziak ... izaturik, hemendik ihes egin dutela ematen du.
(EusCor)

ELA_KONP, dagoeneko behin baino gehiagotan esan dugun bezala, adierazpenezko perpausei lotzen zaie. Hemen, hala ere, adierazpen hutsa baino ustezko adierazpena dela dirudi. *Emanek bss* honetan ezaugarri sintaktiko berezia erakusten du. Izan ere, aditzak DU laguntzailea erakutsi eta ELA_KONP badago ere, ez da ERGik agertzen. Badirudi subjektua berez konpletibo horretan bertan dagoela, eta batzuetan kanpora ateratzen dela (guk corpusean ez dugu aurkitu horrelakorik, ordea). Horrelako ariketa sintaktikoen inguruan asko idatzi da, eta “aditz goratzaile” gisa ezagutzen dira. Euskararen kasu zehatza, beste lan batzuen artean, Hualde & Ortiz de Urbina (2001) eta Zabalaren lanetan (Zabala, 1993) aurki dezakegu, besteak beste. Guk, besterik gabe, balio honetan agertzen diren aditz-laguntzaileei, Kasuei eta kasu hauen balio semantikoei dagozkionak interesatzen zaizkigu.


INE eta INS onargarriztat jo ditugu (beharbada modua adieraz dezaketelako), baina ez dira bat ere arruntak.

Honenbestez, *emanen* *bss* honetan, jarduera bat adierazten duela esango dugu, baina zehazki gertakizun baten inguruko ustea adierazten duen jarduera, bere parte-hartzaile nagusi bakar bezala, ustezko gertakizun hori adierazten duen ELA_KONP ageri zaigula. Gertakizun hori, orain arte egin dugun bezala, *gaia* modura ezarriko dugu osagai semantikoetan.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eman-DU-3: gaia ELA_KONP

- Hauexek ditugu *emanen* datu estatistikoak: Aipagarriena, beharbada, DATen presentzia nabarmena da; jakina, ERG eta ABSren atzetik.



DA	8,08%	DA-ins	1,27%	DA-ala	5,19%	DA-abl	3,15%	DA-abs	100,00%	DA-konp	1,90%	DA-soz	1,89%	DA-ine	27,47%				
DU	41,80%	DU-ins	2,08%	DU-ala	2,03%	DU-abl	1,95%	DU-abs	63,93%	DU-konp	6,68%	DU-soz	0,72%	DU-ine	17,14%	DU-erg	100,00%		
DIO	44,74%	DIO-ins	1,96%	DIO-ala	1,31%	DIO-abl	1,67%	DIO-abs	77,59%	DIO-konp	3,01%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,39%	DIO-ine	10,98%	DIO-erg	100,00%
ZAI	5,38%	ZAI-ins	2,36%	ZAI-ala	1,35%	ZAI-abl	0,31%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-konp	3,17%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	1,00%	ZAI-ine	12,87%		

Eraman

Gure ustez, aditz honek hiru balio semantiko erakusten ditu oro har.

eraman-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (406) Jakin omen zuen Julian konteak Florindatxo bere alaba Errodrigo Erregearekin nahasirik zebilela ..., ta, gorrotoz sutan, Zeutatik Toledora etorri, eta berekin **eraman** omen zuen neska. [HARK] (EusCor)
- (407) Andereñoak Kepa besoetan hartu eta autobuseko lehenengo eserlekura **eraman** zuen [HARK] [HURA], haizeak jotzeko. (EusCor)
- (408) Afaldu ostean etxetik [HAIEK] **eramandako ardo zuria** edatera gonbidatu ninduten, eta ibai ondoan aldi gozoa eman genuen, euren seme-alaba gazteekin batera, elkarri kontuak kontatzen, eta Izildenharen ipuin eta kantu ederrak entzuten. (EusCor)
- (409) Madrilera, Logroñora eta Burgosera [HAIEK] [HAIEK] **eramango** dituztela iragarri du Ministerioak. (EG)
- (410) Miner, Cacerestik Madrilgo Alcala-Meco espetxera **eramango** dute [HAIEK]. (EG)
- (411) Oso momentu berezian **eraman** ninduten [HAIEK] [NI], nire alaba jaio berria baitzen, eta nik ikusteko bisitara eramateko asmoa zuten. (EG)
- (412) Gogoratuko denez, duela 16 hilabete CDNk, HBk, IUk eta EAK Rekarterekin elkarrizketatzeko proposamena **eraman** zuten Parlamentura, baina PSNk eta UPNk atzera bota zuten. (EG)
- (413) Alderdi politikoaren artean dauden konpenezina gizartera ez [HARK] **eramaten** saiatuko dela ziurtatu du Ibarretxe lehendakariak. (EG)
- (414) Inolako zalantzarik gabe, Rafa Diez LABeko idazkari nagusiak ezetza eman zion 35 orduen alde PSE-EEk Legebiltzarrera **eraman** zuen proposamen mugatu eta moderatuari. (EG)
- (415) Gardentasunerantz izan zuen bilakaerak Carsongo biltegieta funtzionalismo nabarmenera **eraman** zuen [HURA] (1899), ia apaindurarik gabe. (EusCor)
- (416) Etaparen batetik bestera [GU] **garamatzana** ez da pentsamendu-krisi bat-batekoren bat, ezta sentimendu-iraultketaren bat ere. (EusCor)
- (417) Gainera, horrek ez ninduke [NI] **eramango** nik pretenditzen nuen ironia eta fartsa sasi-burleskoaren bidetik. (EG)
- (418) Hainbat arlotan aritutako idazlea da, besteak beste, irrati eta telebista gidoiak ere idatzi ditu, gutxi barru TV 3 telebista kateak berak idatzitako El Anjel cafido erdimitraia estreinatuko du, eta Dones, bere eleberririk arrakastatsuenak, zinemara [HARK] **eramateko** bidean dago. (EG)

Adibideek erakusten digutenez, **ERG** entitatea askotan gizakia da, edo gizatalde baten ordeko entitate bat ((412), (414)); baina entitate abstraktu bat ere izan daiteke ((415), (408)). **ABS** entitatea orotarikoa izan daiteke. Ekintza honetan oro har desplazamendu bat gertatzen dela dirudi, non ERG entitatea den eragilea eta ABS entitatea desplazatua dena. Desplazamenduaren adierazle gisa, berriz, *abiapuntuko kokapena* adierazten duen **ABL** eta *helburuko kokapena* adierazten duen **ALA** jarri ditugu. **ABLk abiapuntuko kokapenaz gain, bidea** ere adieraz dezake. Halere, **ABL ALA** baino askoz ere gutxiagotan ageri da corpusean.

Esan behar da **ABS** entitatea abstraktua denean kokapen-aldaketa hau ez dela fisikoa, baizik eta modu abstraktu batean ulertu behar dela ((415), (416), (417), (418)). Horretaz gain, **ABS** entitatea horrelakoxea denean, **ABL** agertzea ez da oso arrunta, eta bestalde, **ALA**

entitatea gizatalde bat errepresentatzen duen izen bat da askotan (*parlamentura; gizartera; legebiltzarrera*).

Gerta daiteke ere ALAren eta ABLren guneak abstraktuak izatea ((412), (413), (414)); hala, kasuotan ere, aldaketa modu abstraktuan ulertzen da.

INEk, INSek eta SOZek beren ohiko balioak adieraz ditzakete (adib. SOZ: (406)). Hala ere, esan behar da INE gutxitan agertzen dela; izan ere, ABS entitatearen kokapen-aldaketa adierazten denez, gertakizunaren kokapena zehazteak zentzua galtzen du. Agertzen denean, desplazamendu-prozesu horretan gai desplazatuaren kokapena adierazi ohi du; edo baita ERG edo ABS entitateak egoteko modua ere. Ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

DATek, ALAk bezalaxe, ABS entitatearen *helburuko kokapena* adierazten duela ematen du, eta beti izaki bizidun bat da. Baina hori ez da eragozpena ALArekin batera agertu ahal ez izateko perpaus berean. Horregatik, nahiz eta hasiera batean bi egiturak —DATEz osatua bata eta ALAz osatua bestea— *helburuko kokapen* osagai semantikoaren alternantziatzat jotzeko zalantza izan, ez ditugu halakoxetzat hartu. Izatez, uste dugu bi elementu hauek elkarrekin agertzen direnean, erlazio bat dagoela euren artean: ALAk entitate desplazatuaren kokapen berria adierazteaz gain, DAT entitatearen kokapena ere adierazten du, eta horretaz gain, ALA entitatea DAT entitatearen jabetzakoa dela ematen du; adib. *amari maleta etxera eraman* → *ama: maletaren helburua; etxea: amaren etxea + ama dagoen lekua*). Horretaz guztiaz gain, gerta daiteke osagai desplazatua DAT entitatearen jabetzakoa izatea (*maleta: amaren maleta*), baldin eta bestelakorik adierazten duen izenlagun posesiborik ez bada agertzen (*anaiaren maleta etxera eraman dio amari*). Corpusean, ordea, ez dugu ALA eta DAT batera ageri dituen adibiderik aukitu.

Hala ere, DATEz esan ditugunak osagai desplazatua eta *abiapuntuko kokapena* nahiz *helburuko kokapena* entitate konkretuak direnerako dirudite baliagarri; bestelako kasuetan DAT ezin dela agertu ematen du. Izatez, *parlamentu(ra), gizartera(ra), legebiltzarr(era)* eta gisa honetako entitateek, aipatu ditugun bi helburu motak batera dituztela ematen du (*helburuko kokapena*, eta kokapen horretan dagoen jendea).

Gauza da askosaz ere arruntagoa dela bata edo bestea (ALA edo DAT, alegia) agertzea esaldian. Hau gertatzen denean, desplazamenduzko balioa eta elkarraldatzekoa nahastu egiten dira (ikus, 13. or.an, *eskaini aditzean esan duguna bi balio semantiko hauei buruz*). Horregatik dira mota honetako aditzak desplazamendua eta elkarraldatzea sintaktikoki gutxien bereizten dituztenak. Guk, hala ere, *eraman* bezalako aditzen DATi beste ñabardura batzuk ikusten dizkiogu, eta berez aditzaren semantikan nabarmentzen dena ALA dela kontsideratuko dugu, DAT aukerazkotzat joz.

Hortaz, esango dugu *eraman* aditzak *bss* honetan leku-aldaketa bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez gauzatzen den *kausa*, ABSz gauzatzen den *gai ukitua*,

ALAz gauzatzen den *helburuko kokapena* eta ABLz gauzatzen den *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eraman-DU-1: kausa_ERG, gai ukitua_ABS, helburuko kokapena_ALA, abiapuntuko kokapena / bidea_ABL

eraman-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (419) EGLU IV liburuan esaten den bezala, ezkerrean izenlaguna **eramateak** asko errazten du izenak juntatzea, eta ez kasu-sintagmak. (EusCor)
- (420) Errekek zeramaten ur gehiena industrian eta etxeetan erabiltzeko hartu zen, arroak lehortuz, eta gelditzen zirenak zikinduz joan ziren, gure zakar eta zikinkeri guztiak batuz. (EusCor)
- (421) Futbol zale ia guztiek daramate bufanda. (EusCor)
- (422) Idiek herrestan eramaten dute harri handi bat (EusCor)
- (423) Gizon probetan, idien ordezt, gizonek eramaten dute harria. (EusCor)

Bigarren balio honetan, **INEk** indar handia hartzen du **ABS** entitatearen kokalekua adierazteko. Horrexegatik, INE gertakizunaren kokalekua adierazten agertzea ez da oso arrunta. INE ageri ez denean, badirudi *bere baitan* edo *aldean* ulertu beharra dagoela (ERG entitatearen baitan edo aldean esan nahi dugu), ABS entitateak beti kokaleku bat zehaztea beharko balu bezala. Goiko bi adibide berrerrabiliz:

- (420) Errekek [BERE BAITAN] zeramaten ur gehiena industrian eta etxeetan erabiltzeko hartu zen, arroak lehortuz, eta gelditzen zirenak zikinduz joan ziren, gure zakar eta zikinkeri guztiak batuz. (EusCor)
- (421) Futbol zale ia guztiek **daramate** bufanda. [ALDEAN] (EusCor)

Hala izanik, **ERGek** *edukitzaile* gisa jokutzen du, eta **ABS** *eduki* gisa. Bestalde, oso arrunta da ERG eta INE entitateen artean parte-oso harremana izatea, edo, bederen, jabetza-jabe harremana.

Ikusten dugunez, ERG entitatea oro har biziduna da, baina bestelakorik ere ageri da ((419), 420)). ABS entitateak, berriz, izaki bizigabe konketuak izan ohi dira, baina bestelakorik ere ageri da ((419), (420)). Egia da horrelako egitura bat agertzen zaigun kasu

askotan —ABS entitatea abstraktua denean, inoiz ez—, mugimendua ere badagoela batzuetan. Kasu honetan ERG entitateak jasaten du mugimendua, eta ez ABS entitateak; hau ez baita bere lekutik mugitzen, honen jabea edo *edukitzailea* da mugitzen dena. Horregatik perpausean bakarrik ERG eta ABS agertzen direnean, ezin izaten da jakin eraman-DU-1en aurrean edo eraman-DU-2ren aurrean gauden; goiko adibide batzuetan gertatzen zaigun bezalaxe:

(422) idiek herrestan **eramaten** dute harri handi bat; ALDEAN? ALDE BATETIK BESTERA? (EusCor)

(423) gizon probetan, idien ordeztu, gizonek **eramaten** dute harria. ALDEAN? ALDE BATETIK BESTERA? (EusCor)

Kasu hauetan seguruenez biak batera izan ditzakegu: harria *alde batetik bestera*, eta, gainera, *aldean* eraman.

Hala ere, batzuetan mugimenduzko ñabardura hau badagoen arren, edutezko balioa da azpimarratu nahi dena, eta hori aparetoko *bss* baten bidez adierazi dugu.

SOZ eta **INS** beren ohiko moduzko balioak adierazteko gai dira; SOZek askotan ERG nahiz ABS entitateen konpainia adierazten du.

Beraz, *bss* honetan, edukitze bat adierazten dela esango dugu, ERGez gauzturiko *edukitzailea*, ABSz gauzturiko *edukia* eta INEz gauzturiko *kokapena* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eraman-DU-2: edukitzailea_ERG, edukia [-biz]_ABS, kokapena_INE

eraman-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(424) Goiz osoa **darama** telefonoan, lagunekin hizketan. [HARK] (EusCor)

(425) Bestalde, Galileo zen Alaskan denbora gehien [HARK] **zeramana** eta hargatik, asko errespetatzen zuten denek; (EusCor)

(426) Hiriburuan egindako gestioek ibilbide ezin hobea **zeramaten**, eta zigarro-fabrikaren eraikuntzari ekiteko aukerarik onena orduantxe zuten, eguraldi lehorra aprobetxatu behar zutelako. (EusCor)

Hirugarren balio honetan, goiko balioan azpikategoriztzen, baztertzen eta onartzen diren Kasuak berdinak dira, baina honakoan **ABSk denborazko** tarte bat adierazten du, eta orduan jarduera edo lekua adierazten duen beste osagai bat ageri da, **INEz** gauzatua. Hala ere, lekua agertzen bada ere, leku horretan egiten den jarduerari egiten dio erreferentzia. Hala, **ERG** jarduera horren *esperimentatzailea* da. Oro har gizakia da, eta halakoxea ez denean ((426)), *jarduera* agertzea ezinezkoa dirudi, hain zuzen ERGek duelako jarduera izaera hori. Hori dela eta, beharbada, *esperimentatzailea* eta *jarduera* osagaiak osagai sintaktiko berean (ERGen) adierazten dituen egitura gisa proposatu beharko genuke¹¹.


ABSk denbora adierazten duenez, entitate abstraktu bat da beti. Hala ere, batzuetan aditzaren balio honek berak ematen dio denboratasuna, nolabait esateko ((426): *ibilbide ezin hobea*); fenomeno hau errepikatuz goaz aditz desberdinetan zehar. ERG entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke.

Beraz, *bss* honetan, denbora iragatezko jarduera bat adierazten dela esango dugu, partehartzaile nagusi bezala, denbora pasatze hau esperimentatzen duen *esperimentatzailea* —ERGez gauzatua—, *denbora* —ABSez gauzatua—, eta *jarduera* —INEz gauzatua— dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eraman-DU-3: esperimentatzailea_ERG, denbora_ABS, jarduera_INE

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute ERG eta ABSz gain, ALAk maiztasun handia duela; desplazamenduzko balioa nagusitzen den seinale. Bestalde, azpimarragarria iruditzen zaigu ABLk duen maiztasun txikia; datu estatistikoek garbi adierazten dute ABLk desplazamenduzko prozesuan garrantzitsua izan arren, ez dela sintaktikoki ALA bezainbeste gauzatzen. Horrek etorkizunean gure markaketa-sistema egokitzea beharrezkoa izan daitekeela iradokitzen digu, ez baitirudi zilegi ABL eta ALA maila berean jartzea.



¹¹ Bete eta hornitu aditzetan ikusiko dugu fenomeno hau.

DA	5,29%	DA-ins	0,34%	DA-ala	43,53%	DA-abl	4,80%	DA-abs	100,00%	DA-komp	6,14%	DA-soz	2,79%	DA-ine	21,09%				
DU	93,74%	DU-ins	2,73%	DU-ala	50,19%	DU-abl	2,72%	DU-abs	50,67%	DU-komp	5,61%	DU-soz	1,27%	DU-ine	10,52%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,97%	DIO-ins	0,22%	DIO-ala	44,09%	DIO-abl	0,37%	DIO-abs	92,69%	DIO-komp	2,65%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,44%	DIO-ine	24,53%	DIO-erg	100,00%

Jaso

Gure ustez, aditz honek hiru balio semantiko erakusten ditu oro har.

jaso-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (427) "Gizonezkoen botere hartze historikoa emakumeen gainean, zeinen eragilea ordena biologikoa izan baitzen, kategoria politiko eta ekonomikora [NORBAITEK] [HURA] jaso". (EusCor)
- (428) Klarak iritsi ahal duenera besoak jasota fregatzen ditu paretak (EusCor)
- (429) Oso bero zaude, ertz-ertzean, orain hartzazu nire eskua, hain gozo zakila ferekatzen ari zaizuna, azala estutuz, bere indarrari eutsi ezinik, **jaso** ezazu [ZUK] [HURA] enborretik buru aldera, eta eragin (...). (EusCor)
- (430) Eta beste errore estrategiko ez txikiagoa, bestearen korolariora edo "anphora" hautsiaren zatiak lurretik jaso eta haiek berritsatsi nahi izatean? (EusCor)
- (431) Palanka bezala, plano inklinatua ere makina sinplea da, eta makina hau ere indar gutxi erabiliz gauzak hondotik [NORBAITEK] jasotzeko oso baliagarria da. (EusCor)
- (432) Ikusmen horretan poetak berak jasotzen ditu bere besoak bigarren sinbolizazio gai bihurtzen direlarik beso horiek. (EusCor)

Balio honetan entitate batek beste entitate bat lekuz aldatzen du. Prozesu horretan **ERG**, **ABS**, **ABL** eta **ALA** jarri ditugu Kasu azpikategorizatu bezala. Batzuetan aldaketa hau abstraktuki ulertu behar da, ABS entitatea abstraktua delako hain zuzen. Baina gerta daiteke ALA eta ABL entitateak ere abstraktuak izatea, eta orduan, lekua gabe egoera aldatzen dela dirudi. Horregatik esango dugu, *aldatu*, *igo* eta *jaisik* bezalaxe, leku- nahiz egoera-aldaketa adieraz dezakeela *jasok* balio honetan.

Hala ere, *jasok* *bss* honetan badu berezitasun bat; hain zuzen *igok* eta *jaisik* ere badutena. Dirudienez, *norabideari* buruzko informazioa gordetzen du bere semantikaren baitan. Halaxe mintzo dira Vázquez et al. (2000) horrelako aditzei buruz:

La dirección puede expresarse sintácticamente a través de un SP introducido por la preposición *hacia* o la locución prepositiva *en dirección a* o puede presentarse también incorporado en la pieza léxica, como en el caso de los verbos *subir*, *avanzar* o *caer*, los cuales indican léxicamente la orientación del desplazamiento, que en este caso es vertical (v. Dervillez-Bastuji 1982, Boons 1987).

Vázquez et al., 2000: 187

Euskaraz ere norabidezko balioak adierazteko hainbat aukera ditugu: hemen aztergai ez dugun hurbiltze adlatiboa (-*rantz*) batetik, eta zenbait Kasu konplexu, bestetik (adib. (429)). Kasu konplexu hauek Kasu adlatiboa duten hitzez osatzen dira. Horregatik batzuetan *helburuko kokapena* eta *norabidea* nahasgarri gertatzen dira; baina izatez, horixe da, gure ustez, postposizio konplexuaren eta Kasu adlatibo sinplearen arteko desberdintasunetako bat (hots, postposizioek *norabidea* adierazten dute —besteak beste—, eta Kasu adlatibo sinpleak ez). Fenomeno honi egin diogu VI.2.3 puntuan. Aditz honetan, zehazki, *igo* eta *jaitsi* aditzetan bezalaxe, bertikalitatea da norabide horretan adierazten dena; eta are zehazkiago, behetik gorako bertikalitatea (*igon* bezalaxe). Hala, perpausean *gora* moduko bat agertzen zaigunean, gure ustez, ez da adierazten *helburuko kokapena*, baizik eta goitik beherako norabide bertikala; batzuetan abstraktua dena. Ikus aurkitutako zenbait adibide:

(433) Euskal herri-elertia oso gora jasotzen du [HARK], baita gure idazle ezagunenak. (EusCor)

(434) Gorputza estutu behar izan nion gora jasotzeko [NIK] [HURA]. (EusCor)

(435) Andrei kantatzen ari zen, eskuak bizkar atzean uztarturik eta [HARK] burua gora jasorik. (EusCor)

Esaldiotan ikus daitekeenez, norabide hau agertzen denean, *helburuko kokapena* adierazten duen ALArik ezinezkoa da. Badirudi hori gertatzen dela norbait norabait joaten denean norabide batean joaten dela suposatzen delako, eta bestalde, *norabidea* zenbaitetan *helburua* ere izan daitekeelako. Ikus Vázquez et al.-en (2000) hitzak berriz ere:

Esta incompatibilidad parece estar relacionada con el hecho de que la interpretación de estos dos subcomponentes, destino y direccionalidad, es muy cercana. Así, por un lado, el segundo suele estar incluido en el primero (si alguien va a un lugar suele implicar que va en dirección a ese lugar) y, por otro, el lugar que indica la dirección puede coincidir con el destino: si alguien se dirige hacia un lugar puede ser que éste sea su destino.

Vázquez et al., 2000: 185

Gauza da, aditz honek *bss* honetan *norabidea* osagaia bere semantikaren baitan duela onartzen badugu, osagai hau perpausean agertzen ez denean (askotan gertatzen dena), ERG entitateak ABS entitatea *gora* jasotzen duela ulertutzat eman behar dela, bai modu fisikoan bai abstraktuan.

ABLk, berriz, ABS entitatearen hasierako kokalekua (esan dugun bezala, batzuetan abstraktua) adierazten du, baina hau ere ez da oso maiz agertzen. Horretaz gain, *bidea* ezin duela adierazi ematen du.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSEk** eta **SOZek** ohiko balioak adieraz ditzakete. **INE**, aldiz, ez da ohikoa, *eraman* aditzean esan dugun bezala, entitate baten desplazamendua adierazten den ekintza batean ekintzaren kokapenari buruzko informazioa ematea ez delako oso arrunta. Eta agertzen denean, ABS entitatearen kokapena adierazten du. Ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

Azkenik **DATi** dagokionez, eta hemen ere adibiderik gabe, ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela ematen du.

Beraz, esango dugu *jaso* aditzak *bss* honetan norabide jakineko kokapen- nahiz egoera-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez gauzatzen den *kausa*, ABSz gauzatzen den *gai ukitua*, ALAz gauzatzen den *helburuko kokapena* eta ABLz gauzatzen den *abiapuntuko kokapena* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

jaso-DU-1: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburua_ALA; abiapuntua_ABL

jaso-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (436) Herriko oihua herritik jasotzen du [HARK] zuzen zuzenean eta herriari itzultzen dio berriz. (EusCor)
- (437) Jarrera horrek ba ote du, ordea, oihartzunik erakundeetatik finantziazio-gaietan unibertsitateak jasotzen duen laguntzetan? (EusCor)
- (438) Alardeko indarrei frakez eta adarbiko batez jantzitako batek agintzen die eta honek Alkatearen eskutik jasotzen du aginte zigorra. (EusCor)
- (439) Dena dela, horrenbesteko sofistikazioren beharrik gabe, test orokorretatik jaso dezakegun informazioa ere oso lagungarria izan daiteke kirol askotarako zehatzegia izan ez arren. (EusCor)

Bigarren balio honetan, elkarraldatzea adierazten du *jasok*. Hala izanik, ez dugu **AL**arik onartu. Izan ere, *helburua ERGek* adierazten du eta beti gizakia da (edo honen ordezkari den entitate bat: (437)). **AL**arik onartzen ez duenez, *eramanen* ez bezala, ezin dira bi helburu

motak batera agertu (ALA eta DAT, alegia); horrexegatik banatu ditugu goiko balioa eta hau. Ildo beretik, nahita jarri dugu *helburua* —eta ez *helburuko kokapena*—, *elkarraldatzeak desplazamenduetatik* bereiztearren, dagoeneko aipatu dugun bezala. Gainera, ALA onartzen ez den bezalaxe, honakoan ez da *gora* moduko norabidea ulertutzat eman behar, eta horretaz gain, ABSren gunea askotan izaki abstraktu bat da. ABS entitatearen *abiapuntu* gisa jokatzeko duena, berriz, **ABL** dugu.

Goiko balioan bezalaxe, **IN**Sek eta **SO**Zek euren ohiko balioak adieraz ditzakete, eta **INE**, zilegi bada ere, ez da arrunta.

DATi dagokionez, balio honetan ez dirudi oso ohikoa, eta agertzen denean, ekintza zuzentzen zaion entitatea —alegia, *helburua*— adierazten du. Horrelakoetan, orduan, badirudi, bi helburu daudela jokoan, bata —**ERG**— bitarteko gisa jokatu duena, nolabait esatearren, eta bestea —**DAT**— ekintzaren azken helburua litzatekeena. **DAT**ik agertzen ez denean, berriz, helburu bakarra genuke.

Beraz, esango dugu *jaso* aditzak *bss* honetan entitate baten elkarraldatzea adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, **ER**Gez gauzatzen den *helburua*, **ABS**z gauzatzen den *gaia* eta **ABL**z gauzatzen den *abiapuntua* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jaso-DU-2: helburua [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS; abiapuntua_ABL

jaso-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: **ERG**, **ABS**, **INE**

Kasu onartugabeak: **ELA_KONP**, **ABL**, **ALA**, **DAT**

Kasu onartuak: **INE**, **SOZ**, **INS**

Azalpena

Adibideak:

- (440) Dokumentuek ez dute gizon-emakume txiro landerren eguneroko ariketa apal "interesgaberik" **jaso**, eta bein edo bein jaso ba'dituzte ez ditu edestiak aintzakotzat artu, orain arteko edestiak beintzat. (EusCor)
- (441) Paraleloki, irakasleen lana jasotzeko datu base baten diseinua burutzen ari gara. (EusCor)
- (442) Datu base hau hasieran aipatutako hiru azpisistemen artean, Ezagutza Jasotzeko Azpisistemaren parte izango da. (EusCor)
- (443) Ostera, piska bat aurrerago, Txillardegiren hitzak jasotzen dituzte [**HAIEK**], beren erdara ederrera itzultzeko inongo oztoporik gabeak. (EusCor)
- (444) 305. orrialdean, hala ere, nonbaitetik ateratako panfleto batek dioena jasotzen dute [**HAIEK**], itzuli gabe, ulertezinak direlako, eta hala dira. (EusCor)

(445) Guk hemen [HURA] jaso ez badugu ere, bigarren ahapaldiko lehen zatian, eta horren parez, hirugarren estrofako erdigunean ageri den " beti lez" motibo hori, poetaren nahiaren adierazpide nabarmena da. (EusCor)

Hirugarren balio honetan **INE** jarri dugu Kasu azpikategorizatu bezala. **INE** honek **ABS** entitatearen kokalekua adierazten du —beti izaki bizigabe bat dena—, eta horretaz gainera, **ERG** entitatearen zati bat izan ohi da; alegia, **ERG** eta **INE** entitateen artean oso-parte harremana sortzen da. Hala izanik, aditzak edutezko balio bat hartzen du, eta horregatik ez dira goiko balioetan ikusi ditugun **ABL**, **ALA** eta **DAT** zilegi (nahiz eta edukitze horretara iristeko desplazamendu bat egitea beharrezkoa izan den). Esan behar da, **ERG** entitatea gehienetan izaki bizigabe bat dela, baina batzuetan gizakia ere bada. Orduan, **INE** eta **ERG** entitateen arteko harremana ez da oso-parte gisakoa, baizik eta jabetzakoa ((445)). Jakina, **INERik** agertzen denean, goiko balioekiko anbiguo izango da. Hala ere, badirudi, **INERik** agertu ez eta **ERG** entitatea gizakia denean, hartu-DU-2ren aurrean egongo garela gehienetan.


Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSEk** eta **SOZEK** beren ohiko balioak izan ditzakete.

Honenbestez, esango dugu, balio honetan, *jaso* aditzak entitate bat edukitzea adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala **ERGez** gauzatzen den *edukitzailea*, **ABSz** gauzatzen den *edukia* eta **INEz** gauzatzen den *kokapena* dituela..

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jaso-DU-3: edukitzailea_ERG; edukia_ABS; kokapena_INE

- Datu estatistikoak: Badirudi aditz honetan (*eraman* aditzean ikusi dugunaren antzera), **ABLk** eta, baita **ALAk** ere, desplazamenduzko prozesuan garrantzitsuak izan arren, ez direla sintaktikoki askotan gauzatzen. Edo bestela, pentsa daiteke *jaso* askozaz gehiagotan agertzen dela elkarraldatze edo edutezko aditz bezala desplazamenduzkoa baino.



DA	10,92%	DA-ins	3,25%	DA-ala	0,30%	DA-abl	6,71%	DA-abs	100,00%	DA-komp	4,34%	DA-denb	1,28%	DA-soz	1,08%	DA-ine	37,51%		
DU	88,55%	DU-ins	3,86%	DU-ala	0,95%	DU-abl	9,65%	DU-abs	77,13%	DU-komp	3,07%	DU-soz	0,63%	DU-ine	14,37%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,52%	DIO-ins	0,18%	DIO-ala	0,08%	DIO-abl	0,63%	DIO-abs	79,19%	DIO-komp	0,23%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,05%	DIO-ine	56,43%	DIO-erg	100,00%

1.2.3 Lau *bss* dituztenak

Argitu eta *ikasiren bssak* elkarren artean alternantziak osatzen dituzten aldaerak dira. *Ekarrire*nak, aldiz, balio semantiko desberdinei dagozkio.

A multzoa: *bssak* elkarren artean alternantzia

argitu, ikasi

Argitu

Argituri markatutako lau *bss*etatik bi elkarren artean alternantzia dira (ABS batean eta ELA_KONP bestean—, eta beste bi, inespezifikazio jakineko kasuak dira. Ikus ditzagun, bada, lehenengo alternantziak batera, eta gero inespezifikazio jakinekoak¹².

argitu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

argitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi balioetan: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (446) Linternaz argitzen du aurrekaldeko horma. [HARK] (EusCor)
- (447) Linternak argitzen du guzti hau. (EusCor)
- (448) lanparek gelak argitzen dituzte. (EusCor)
- (449) Argi motel dardarti batek argitzen du ehunaren atzealdea. (EusCor)

¹² Aditz honi ez diogu DA balio inkoatiborik jarri, aurkitu ditugun DA balio guztiak inpersonalak iruditu zaizkigulako. Hala ere, zenbaitetan zalantza izan dugula esan behar dugu. Adib.:
Honela, orain hilebete herritarrengan sortutako ardura argitu da (EusCor)
Atzo goizean argitu zen nahastea (EG)

- (450) Euskal Herri osorako balio duten gauzak ez ditugu hemen **argituko**. [GUK] (EusCor)
- (451) Nolanahi ere, hiztegiek **argitzen** dituzte horrelako zalantzak. (EusCor)
- (452) Hitzaldi labur baten bidez liburuaren gora-beherak azaldu zituen, irainen bilduma bat zela **argituz**. [HARK] (EusCor)
- (453) Frantziar argitarapenean, Cannon-ek **argitzen** du Bernard izan zela lehena barne-ingurunearen egitekoa azpimarratzen, organismoan egoera egonkorra ezarri eta mantentzeko. (EusCor)
- (454) - Eskolako lagun bat — erantzun nion nik, mutila ez baina neska zela **argitu** gabe [NIK], amak bere ohiko erretolika bati ekiten zion bitartean. (EusCor)

Bi balio hauetan entitate baten argitzea adierazten da: lehendik argitua ez zegoena ekintza burutzean argitua gertatzen da; egoera-aldaketa bat, azken batean. Horretarako, **ERG** — ekintza egiten edo eragiten duena— eta **ABS** edo **ELA_KONP** —argitua dena— ditu kasu azpikategorizatu bezala. Argitua den osagai hau azalera fisiko bat izan daiteke, baina baita gauza abstraktu bat ere. Hala, **IN**Sek eta **SO**Zek, ERG entitateak erabiltzen duen tresna edo baliabidea adieraz dezakete (adib. IN: (446)), baina baita ekintza egiteko modu orokorra ere. ABS entitatea fisikoa denean, askotan adierazten du tresna INSek. Esan behar da, bestetik, tresna ERGek berak ere adieraz dezakeela, eta jakina, orduan tresna/baliabide balio hauek ez dira beste kasuez agertzen. Gure ustez, tresna/baliabide hauek ERGez gauzatuak agertzea zilegi da, gizakiak asmatuak makinaria baten indarrez berezko funtzionamendua duten entitateak direlako. Gainontzerakoan, gehienetan gizakia da; edota bestela gizakiak sorturiko zerbait ((451): *hiztegiek*). ELA_KONP ageri zaigunean, jakina, “argitzen dena” abstraktua da ezinbestean.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **DA**Tek ekintza nori zuzentzen zaion adierazten du, *helburua*, alegia. Hala, ERGek *abiapuntu* gisa ere jokutzen du DAT horren presentzian.

INEK bere ohiko balioak adieraz ditzake. **AB**Lk ERG entitatearen kokalekua adieraziko luke, baina ez da oso arrunta (adibiderik ez dugu aurkitu), are gutxiago ABS entitatea abstraktua denean.

Beraz, esango dugu *argitu* aditzak bi *bss* hauetan egoera-aldaketa bat adierazten dutela parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez gauzaturiko *kausa* eta ABSz edo ELA_KONPez gauzaturiko *gai ukitua* dituztela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

argitu-DU-1: kausa_ERG; gai ukitua_ABS

argitu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ELAKONP

argitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS: *eguna*.

Kasu onartugabeak: ERG [*eguzkiak*], ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(455) Eguna **argitu** zuen. (EusCor)

(456) Eguna **argitzean** gutxitu egiten zitzaidan beldurra, ez zuen hain izugarria ematen heriotzak. (EusCor)

(457) Inguruko etxeetako ganbaretan etzan ziran, eguna **argitu** zuen arte. (EusCor)

Bss honetan ez zaigu ERGik agertzen. ABSn, berriz, guztietan **eguna** ageri da. Hortaz, argi dago oso erabilera murrizta dela hau, eguraldi kontuei dagokiona. Hain zuzen ere, agertzen ez den ERG horren azpian berez **eguzkia(k)** ulertutzat eman behar dela esan ohi da. Halaxe bada, hemen objektu jakineko inespezifikazio-kasuaren aurrean egon beharrean, subjektu jakineko inespezifikazioaren aurrean geundeke.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INS** eta **SOZ** gertaera gauzatzeko modua adieraz dezaketela dirudi (adibiderik ez badugu topatu ere). **INE** ere ager daitekeela esango dugu, gertaeraren kokalekua adieraziz, baina ez dirudi bat ere arrunta.

Beraz, balio honetan, berez, egoera-aldaketa bat gertatzen da, baina item edo hitz mailako zehaztapenak izanik, oso eremu mugatuetan erabiltzen den egoera-aldaketa: egunari

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

argitu-DU-3: [kausa: *eguzki*_ERG]; gai ukitua: *egun*_ABS

argitu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: bat ere ez.

Kasu onartugabeak: ERG [*eguzkiak*], ABS [*eguna*], ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(458) Goiz hontan, lo arin batetarik landa, Ailande jaiki da **argitu** beno lehen. (EusCor)

(459) Oihaneala heltu beno lehen, **argitzen** hasi badu, lanapea tinkago da eta goiza nabartzen du. (EusCor)

Laugarren *bss* honetan ez zaigu ez ERG ez ABS agertzen. Balio hau ere oso murrizta dugu eta eguraldi kontuei lotua dago. Kasu honetan, dirudienez, ez da bakarrik ERG entitatea ulertutzat eman behar, baita ABS entitatea ere; kasu hauetan, **eguzkiak** eta **eguna**, hurrenez hurren.

INE, INS eta SOZ oso gutxitan agertuko direla dirudi.

Adibide bat aurkitu dugu, hala ere, zalantzakoa iruditu zaiguna:

(460) Eman dezagun, hilargiak leihotik [HAI EK?] **argitua** haien gorputzen biluztasuna elurrorean andana bat baino ederragoa da. (EusCor)


Hemen *eguzkiren* ordeaz *hilargi* ageri zaigu, argi-indar naturala eman dezakeen izadiko elementu gisa. Kasu honetan, ordea, ez du ematen *eguna* eman behar denik ulertutzat, baizik eta “norbaitzuk” argitzen dituela dirudi. Ikusten dugu, gainera, bestelako elementurik ere agertzen dela: *leihotik*, argitze horren bidea edota ilargiaren kokaleku imaginarioa adieraziz. Hala izanik, argitu-DU-1en barruan lekutzeko moduko adibide eta balioa genuke.

Beraz, balio honetan ere, berez, egoera-aldaketa bat gertatzen dela esango dugu; hau ere oso eremu mugatueta erabiltzen dena: egunari dagokion eremura.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

argitu-DU-3: [kausa: *eguzki_ABS*]; [gai ukitua: *egun_ABS*]

- Datu estatistikoak: Maiztasun handienekoak ERG eta ABS dira. Ondoren, ELA_KONP.



DA	29,69%	DA-ala	3,17%	DA-abl	5,00%	DA-abs	100,00%	DA-konp	10,05%	DA-soz	0,58%	DA-ine	13,09%				
DU	65,33%	DU-ins	0,44%	DU-ala	1,16%	DU-abl	2,46%	DU-abs	53,14%	DU-konp	15,67%	DU-soz	1,45%	DU-ine	8,70%	DU-erg	100,00%
DIO	4,15%	DIO-ala	5,92%	DIO-abl	0,76%	DIO-abs	76,97%	DIO-konp	14,87%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	7,25%	DIO-ine	16,02%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	0,82%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-konp	14,95%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,38%	ZAI0-ine	2,29%	ZAI0-ala	5,95%	ZAI0-abl	0,76%		

Ikasi

Ikasi aditzari markatu dizkiogun bi bss *entzun, ikusi, irakurri eta ulertu* aditzetan ikusi ditugunen parekoak dira: batetik, ERG eta ABS duen egitura iragankorra (ikasi-DU-1), eta, bestetik, ABSren ordeztu, ELA_KONP duen egitura (ikasi-DU-3). Ikasi-DU-3, berriz, objektu jakineko inespezifikazio-kasua dugu. Laugarren balioan, ez zaigu ez ABSrik ez ELA_KONPik agertzen, INE baizik, aipatutakoen ordezkotzat jo daitekeena. Hori dela eta, hau ere alternantziatzat jo dugu. Ikus ditzagun, segidan, guztiak batera.

ikasi-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Ikasi-DU-2:

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS [*batxillergoa/ikasgaia*], ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Ikasi-DU-3:

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP.

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Ikasi-DU-4:

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: INS, SOZ

Azalpena

Ikusten denez, denak alternantzia izan arren, Kasu onartuen artean aldeak daude; batean onargarri dena, beste batean baztertu egiten da. Kasu berak onartzen dituztenak ikasi-DU-1 eta ikasi-DU-3 dira; beste biak, berriz, mugatuagoak dira.

Adibideak (*bssak* bereizten dituzten osagaiak azpimarratuta):

- (461) Bigarren mailako hezkuntzan zientziak, matematikak eta hizkuntzak ikasle gutxi **ikasten** zitzutela behatu zen, eta horretan ikusi zen beste herrialdeen aldean Ingalaterrak zeukan garapen ekonomiko urriaren kausa. (EusCor)
- (462) Lanestosako Herri Eskolan ere ikasle gehienak D ereduan **ikasten** dute, izan ere 15 ikasleetatik 11 eredu honetan daude. (EusCor)
- (463) Urte askotan, materia formaz alda daitekeela baina kantitateak, osotara, beti berean irauten zuela **ikasten** zuten ikasleek. (EusCor)
- (464) "Parrandan **ikasi** ere gurekin egingo dek". (EusCor)

Entzun, ikusi, irakurri eta ulertu aditzetan ikusi dugun bezala, aditz honetan bada entitate bat, **ERGez** gauzatua, ekintza egiten eta esperimendatzen duena; hiru *bss*etako hiru Kasu azpikategorizatuek esperimendazio horretan beharrezkoa den gaia adierazten du. Aditz honen kasuan ere adibide guztietan gizakia da ERG entitatea; hala ere, izaki bizidunak ere zilegi dira (animaliak batez ere). *Gaia*, entitate abstraktu bat da beti: **ABS**k eta **INE**k *jarduera* moduko zerbait adierazten dute; **ELA_KONP**ek adierazpen-perpau bat, eta honenbestez, *jarduerazko* ekintza bat. Ikasi-DU-2k, berriz, esan dugun bezala, zeozer jakina — **batxillergoa, ikasgaia**— adierazten du; hau ere, ezken batean, *jarduera* bat. Hala, esango dugu, ekintzan parte hartzen duen beste osagai hau entitate abstraktu bat izateaz gain, *jarduera* bat dela. *Jarduera* osagai semantiko hau erabili dugu eman-DU-2 eta eraman-DU-3 balioetan ere. Egia da, bestalde, ikasi-DU-1ko **ABS**ren eta ikasi-DU-4ko **INE**ren guneak ez direla hitz berak (eta, beharbada, esan beharko genuke ezin direla hitz berak izan); baina sintagma osoaren balioa kontsideratuta, biak *jarduera* bezala jartzea eta osagai semantiko horren bitartez biltzea zilegi dela iruditzen zaigu.

Gainontzeko kasuei dagokionez, **IN**Sek, **SO**Zek eta **INE**k —azken hau Kasu onartuen artean dagoenean— beren ohiko balioak izan ditzakete. Baina, **IN**Sek, horretaz gain, *entzun, ikusi, irakurri eta ulertu* aditzetan ikusi dugun bezala, *zertaz* adieraz dezake. Baina bere jokaera *ulerturen* parekoa dela dirudi. Hots, **IN**Sek balio hori erakusten du batez ere inespezifikazio kasuan eta neurriaren berri ematen duen elementuren bat ageri denean (adibiderik aurkitu ez dugun arren *Asko ikasi dut informatikaz* moduko esaldiak ditugu gogoan). Kasu hauetan, dena den, inespezifikazio jakinaren aurrean gauden (alegia, [ikasgaia/batxillergoa]) ez dago argi. Badirudi **IN**Sekin ageri den osagai hori dela *jarduera* adierazten duena, baina nolabait inespezifikatzen den *jarduera* orokorrago baten espezifikazio gisa. Fenomeno argia ez denez, aipatu baino ez dugu egin.

DAT, onargarria denetan, oso bakanki agertzen da. Azaltzekotan, beti gizaki bati egiten dio erreferentzia, eta “ikasten” den zer horren *iturria* adierazten du; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu. **ABL**rekin aurkitu dugun adibide bakarrean ere gizakia da oinarrian dagoen izena, eta hala izanik, **DAT**ek bezalaxe, ikasten denaren *iturria* adierazten du:

(465) Zer **ikasi** beharko lukete gaurko itzultzaileek gure literatura klasikoko itzultzaileengandik?
(EusCor)

Kasu honetan, orduan, **DAT**ekin batera ezin dela agertu dirudi, eta, hortaz, elkarren artean alternantzia bat osatzen dutela. Hala ere, **INE** entitatea izaki bizidun bat izan beharrean **DAT** entitatearen jabetzakoa edo sortzezkoa den zerbait (*liburu*, esaterako) bada, bi Kasu hauek batera agertzea zilegi da. Honenbestez, **ABL** eta **DAT**en arteko aldi berekotasun-murriztapen hauek gunea gizakia denean gertatzen da; alegia, *-gandik* Kasua dugunean. Eta guk bereizketa hori ez dugu egin.

Azkenik, aipatu behar dugu, ikasten denaren *iturri* balio hau **INE** ere adieraz dezakeela, gunearen arabera. Horrlakoetan, hortaz, **INE** ez du ekintza kokapena adierazten, baizik eta ikasten den zer horren kokalpena, eta orduan, *iturri* eitea hartzen du. Ikus adibidea:

(466) Sorginkeria zenbait liburutan **ikas** zitekeela ere uste zuten. (EusCor)

Beraz, argi dago ikasten denaren *iturria* hiru Kasuk —**DAT**, **ABL** eta **INE**— adieraz dezaketela, desberdintasuna gunearen agertzen den entitatearen izaera semantikoa dela: **DAT**en eta **ABL**n gizakia da, eta **INE**n leku fisikoa, nolabait esatearren.

Honenbestez, esango dugu *ikasi* aditzak jarduera bat adierazten duela. Parte-hartzaile bezala, *esperimentatzailea* eta *jarduera* osagaiak dituela; lehena **ERGez** gauzatzen da eta bigarrena batzuetan **ABSz**, beste batzuetan **ELA_KONPeZ**, eta beste batzuetan **INEz**. Balio batean ez da jarduerazko osagairik agertzen, inespezifikazio jakinez ulertutzat ematen baita.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


ikasi-DU-1: esperimentatzailea [+biz]_ERG, jarduera_ABS

ikasi-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG, [jarduera: batxillergolikasgai_ABS]

ikasi-DU-3: esperimentatzailea [+biz]_ERG, jarduera_ELA_KONP

ikasi-DU-4: esperimentatzailea [+biz]_ERG, jarduera_INE

- Datu estatistikoak: **ERG** eta **ABS** dira gailentzen direnak aditz honetan. **ELA_KONPeK** badu presentziarik, eta **INE** ere bai.



DA	19,11%	DA-ins	11,97%	DA-ala	2,04%	DA-abl	8,62%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,78%	DA-soz	1,24%	DA-ine	15,61%		
DU	79,74%	DU-ins	14,68%	DU-abl	4,77%	DU-abs	37,77%	DU-komp	9,85%	DU-soz	5,08%	DU-ine	19,71%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,15%	DIO-ins	6,13%	DIO-abl	1,53%	DIO-abs	80,58%	DIO-komp	2,30%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,77%	DIO-ine	4,28%	DIO-erg	100,00%

B multzoa: *bssak* balio semantiko desberdinak

ekarri

Ekarri

Ekarri aditzari markatu dizkiogun *bss* guztiak balio semantiko desberdinekoak dira.

ekarri-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (467) **Ekarri** dezagun hori Aretxabaletara: [GUK] (EusCor)
- (468) Esaten omen zuen: "Iadanik ez nau maite, ziudadetik beste andere bat **ekarri** du". [HARK] (EusCor)
- (469) Neronek ongi gogoan det, baserrietan garia jo ondoren, hoge bat kiloko zakueta n gurdiz nola **ekartzen** zuten Pantxikaenera ordain hori baserritarra. (EusCor)
- (470) Telefonoz bidali beharrean astoz [HAIEK] [HURA] **ekartzen** dutela uste baita. (EusCor)
- (471) Denen onespenarekin, paketeak [HAIEK] **ekartzeari** ekin zioten. (EusCor)
- (472) - Ez al dituk txerriak **ekarri**? [HIK] (EusCor)
- (473) Geroago arabiarrei iparrorrazaren funtzionamendua erakutsi zieten eta hau ek berri z, Erdi Aroan, mendebaldera **ekarri** zuten. (EusCor)

- (474) Amonak Urkiolako azokatik erroskilak dakarzkio etxeko haurrari? (EusCor)
- (475) Kainabera ez, kainabera eskuan dakart [NIK]. (EusCor)
- (476) Transportistaren faktura dakar esku artean [HARK]. (EusCor)
- (477) Melissaren gutun bat [HARI] ekarri zion postariak eta, ohi bezala, gutunazala eskuetan hartzean sentipen bero bat izan zuen. (EusCor)
- (478) "Ba nik ekarriko dizut" [HURA] [ZURI]. (EusCor)

Balio honetan entitate batek beste bat norabait desplazatzen du. Hori horrela izanik, ERGez eta ABSz gain, ALA eta ABL (hau gutxiagotan bada ere) ageri dira Kasu azpikategorizatu gisa. ALAk ABS entitatearen *helburuko kokapena* adierazten du, eta ABLk, *abiapuntuko kokapena*; baina horretaz gain, *bidea* ere adieraz dezake.

Esan behar da, ordea, aditz honek baduela berezitasun bat ALA esaldian agertzen ez denean. Bai Levinek (1993) bai Vázquez et al.-ek (2000) *deixiarekin* lotzen dute ALAren presentziarik ezean *helburuko kokapenari* buruzko informazio-berreskuratzea. Deixi-fenomenoen bidez, *helburuko kokapena* zein den jakin daiteke, hiztunak perpausa ekoizterakoan dagoen lekua dela suposatzen baita. Horregatik esaten da *hona* gisako elementu deiktiko bat dutela honelako aditzek bere semantikaren baitan. Berreskuratze-fenomeno hau elipsi mota bat bezala aztertzen da: elipsi deiktikoa. Ekar ditzagun Vázquez et al.-ek hitzak, zehazki *venir* aditzari erreferentzia egiten diotenak:

En el caso del verbo *venir* la elipsis es de tipo deíctico, ya que el referente del elemento omitido se corresponde con el lugar donde se encuentra el emisor en el momento de la enunciación.

Vázquez et al., 2000:194

Ondokoa diote, berriz, deixiari buruz:

Dentro del estudio de la elipsis deben incluirse también los casos de no expresión sintágmatica de los argumentos por deixis, ya que presentan la misma característica esencial: el elemento deíctico eliminado es siempre interpretado y asociado con un referente:

(164) Inés ha llegado (aquí)

En los casos de elipsis deíctica, el verbo, que típicamente pertenece al grupo de verbos llamado de desplazamiento o de cambio de posesión, incorpora en la pieza léxica la información para interpretar el argumento elidido a partir del contexto extralingüístico.

Vázquez et al., 2000:133

Levinek (1993) ere, *bring* eta *take* aditzak azaltzen dituenean, elementu deiktiko hau bi aditz hauen semantikaren baitan dagoela esaten du, eta hain zuzen hori dela bi aditz hauek beste antzeko aditzetatik bereizteko arrazoietakoa bat¹³:

These two verbs are set apart from other verbs of sending and carrying by the presence of the deictic component of meaning and the lack of a meaning component that specifies the manner in which the motion is brought about.

Levin, 1993:135

Hala, ALA agertzen den guztietan kokapen horren espezifikazio bat dela pentsa genezake¹⁴. Bestalde, *hona* bera ere ager daiteke perpausean:

- (479) - Hau leku segurua baldin bada, hona [ZUK] [HAIEK] **ekarri** beharko zenituzkeela pentsatzen dut. (EusCor)
- (480) Ez dut hona **ekarriko**, zera egin behar baduzu... (EusCor)
- (481) Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta **ekarri** hona behartsu, elbarri, itsu eta herrenak. (EusCor)

Jakina, ABS entitatea abstraktua denean, leku-aldatzea abstraktuki ulertu behar da:

- (482) Nik arazo lexikalak **ekarriko** ditut hona batik bat. (EusCor)
- (483) Oharrak hona **ekarri** baino lehen, bataila hari buruz zerbait kontatuko dut. (EusCor)

Gainontzeko kasuei dagokienez, INEk, ageri denean, gehienetan ABS entitatearen kokalekua adierazten du; hau da, ABS entitateak, alde batetik bestera aldatzen den bitarte horretan, duen kokalekua ((469), (475), (476)). *Ekarri*ren balio honetan entitate baten kokapen-aldaketa nabarmentzen denez, INEk gertakizunaren kokalekua adieraztea ez da oso arrunta. Modua (alegia, ERG entitateak ekintza egiten duen modua nahiz dagoen modua), ordea, adieraz dezake, INSek eta SOZek ((471)) bezalaxe.

INSek eta SOZek, bestalde, modu berezituagoak ere adieraz ditzakete, ohi bezala; alegia, INSek tresna/bitartekoa ((469), (470)), eta SOZek konpainia, bai ERG bai ABS entitatearena; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

DATek, ekintzaren *helburua* adierazten du, eta, zentzu horretan, *eraman* aditzean esan dugun bezala, helburu bizidun bat adierazten du ALAk adierazten duen helburu fisikoaren parean (Jo bedi *eraman* aditzera, 85. or., DAT eta ALAren arteko aldeak eta harremanak gogoratzeko). *Eraman* aditzean egin dugun bezala, guk *ekarri*ren balio hau kokapen-aldaketazkotzat jo dugu, eta, gainera, aditz honetan kontuan hartu behar da *hona* elementu deiktikoa pieza lexikalaren barruan dagoela.

¹³Bide batez, esan dezagun hemen argi geratzen dela Levin-ek aditz multzoak egiteko erabiltzen duen irizpidea ez dela alternantziaren bat konpartitzea. Kasu honetan aditz hauek bere semantikaren baitan duten elementu deiktiko hori izatea da besteetatik bereizten dituen.

¹⁴ Fillmore-k (1966, 1971, 1972, 1975) sakon aztertu du elipsi deiktikoaren fenomeno ingeleserako.

Honenbestez, esango dugu *ekarri* aditzak *bss* honetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, ERGez gauzaturiko *kausa*, ABSez gauzaturiko *gai ukitua*, ALAz gauzaturiko *helburuko kokapena* eta ABLz gauzaturiko *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* dituela. Horretaz gain, *hona* elementu deiktikoa duela kontuan izan behar da.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

**ekarri-DU-1: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_ALA;
abiapuntuko kokapena / bidea_ABL**

ekarri-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (484) Horrek nahitaezko ondorio bat **dakar**: (EusCor)
- (485) Eta horrek ze ondorio **dakar**? (EusCor)
- (486) Ekaitzak gaua zekarrela zirudien, baina eguzkiak izango zuen denbora eguna alaitzeko. (EusCor)
- (487) Aipatu Man Rayk eta surrealisten askatasuna **ekarri** zuten, Cocteau-k zinemarako idatzi zuen eta zuzendaritzaren nekeak hartu zituen, Maiakovski gidolari eta aktorea izan zen... (EusCor)
- (488) 20. Gehiegi edateak ondorio txarrak **ekar** ditzake. (EusCor)
- (489) Eta iritzi-desberdintasun horrek pertsonen arteko eztabaida **dakar**, hau da, ez-eta-bai aritzea: (EusCor)
- (490) Zigorak gogortasuna **dakar**. (EusCor)
- (491) Urratu den betekizun edo arau horrek ongi juridiko bat babesten zuen, eta urrapenak ongi juridiko horren galera **ekarri** du. (EusCor)
- (492) Goupil galeristak erosi zuen obra hori, eta horrek ere diru-sarrera ederrak **ekarri** zizkion. [HARI] (EusCor)
- (493) Berdintasunak beste zenbait aldaketa ere **ekartzen** dio, halaberharrez, lengoiari. (EusCor)
- (494) Eta euskaraz idatzi badu ere, euskaldunok elebidun izan behar gara erantsiz, eta erdarari begirune handia **ekarri** [GUK] behar diogula ohartaraziz. (EusCor)
- (495) Badirudi ikasketa plan berriak atzerakada **ekarri** diola euskarari. (EusCor)
- (496) Zein abantaila **ekarriko** dio erreformak Gizarte Segurantzari? (EusCor)

Batzuetan ez dirudi *ekarri* aditzak kokapen-aldaketa adierazten duenik. Goiko balioan esan dugun bezala, ABS entitatea abstraktua izan daiteke, eta orduan kokapen-aldaketa ere abstraktuki ulertu behar da. Horrelakoetan ABL agertzea ez da bat ere arrunta. Baina zenbait kasutan arrunta gabe, ezinezkoa da, izatez, sortze-prozesu bat adierazten delako berez, eta ez desplazamendua. ABS, nolabait esateko, *gai sortu* bat da, eta ERG horren *iturria*; gehienetan abstraktua eta bakanki gizakia dena. Hori horrela izanda, alegia, ERGek *iturria* adierazten duelarik, **ABL**k bere ohiko balioa —*abiapuntu*ko kokapena— adierazteko gaitasunik ez izatea ulergarri gertatzen da. Vázquez et al.-ek (2000) honen antzekoak diren aditzak sortzekotzat jotzen dituzte. Autore hauek dioten bezala, aditz hauek, normalean, kausatibotzat jotzen dira. Sorkuntzazko balio hau izanik, ordea, kausatasunak, gure ustez, garrantzia galtzen du, eta *sortze* zentzua gailentzen da. Ikus autore hauen hitzak:

Otros verbos que consideramos de creación son los llamados predicados causales, como por ejemplo *provocar* o *causar*.

Vázquez et al., 2000: 163

Substantzia/Iturria alternantzian esan dugunarekin bat gatoz, bestalde (L 1.1.3).

Horretaz gain, honakoan *helburua* beti DATEz gauzatzen da; hots, **ALA** ezin ager daitekeela ematen du. *Helburu* hau agertzen denean, *iturria* adierazten duen ERGek *abiapuntu* gisa ere jokutzen du, elkarraldatzeetan aurkitzen dugun egituraren parekoa suertatuz. Hala ere, guk ez dugu DAT Kasu azpikategorizatu gisa jarri eta ez dugu aukera hau eman osagai semantikoetan.

Gainontzerakoan, **IN**Sek eta **SO**Zek, modua adieraz dezakete, modu hau gehienik ere baliabide moduko bat izan daitekeela; baina, ez dira oso arruntak.

INE ere ez da oso arrunta. Alde batetik, ABS entitatearen kokapena nekez adieraziko du, hau abstraktua izanda. Bestetik, **INE** agertzen bada, DATEk ezin duela agertu dirudi, azken batean, biak pareko balioa adierazten dutelako (*galera ekarri du lantegian*; *galera ekarri dio lantegiari*).

Honenbestez, esango dugu *ekarri* aditzaren *bss* honetan sortze-prozesu bat adierazten dela, parte-hartzaile nagusi bezala ERGez gauzatzen den *iturria* eta ABSz gauzatzen den *gai sortua* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

ekarri-DU-2: iturria_ERG; gai sortua_ABS

ekarri-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (497) Lehen estrofan bezala hirugarrenean bi errealitateen aipamen iradokiorra dakar, sinbolizatzaile bikoitza alegia, lehen bi bertso lerroetan. (EusCor)
- (498) Data hori dakar behintzat Gure Herria-n 1975ean. (EusCor)
- (499) Idazlearen lan guzien izenen zerrenda, bukaeran dakar. (EusCor)
- (500) Nafarro-lapurterazko editorial bat dakar iparraldeko Berdeen hilabetekari xumeak, hiztegi nahiko zabalarekin. (EusCor)
- (501) Ikasketa-Programa horiek gaitasun eta kontzeptuen zerrenda bat dakarte, baina ez dira ikastordu edo ikas-ihardueretako sekuentziak. (EusCor)
- (502) ...liburu-hegalak ez zuen argitzen, fotorik ere ez zekarren. [HARK] (EusCor)

[Hartu-DU-2](#), [jaso-DU-3](#) eta [eraman-DU-2n](#) ikusi dugun bezalaxe, hirugarren *bss* honetan *ekarri* aditzak edutezko zentzu bat hartzen du. Balio honetan ez dira onartzen ez ABL, ez ALA, ez DAT. Aldiz, INE nabarmendu egiten da ABS entitatearen kokapen zehatza adieraziz.

ERGek, orduan, *edukitzaile* gisa jokatzeko du, eta askotan entitate bizigabe bat du gunean. **ABS**k, berriz, *eduki* gisa jokatzeko du eta gehienetan izaki bizigabe bat du gunean. Aipatutako aditzetan jadanik esan dugun bezala, ABS entitatearen kokagune zehatza adierazteaz gain, ERG entitatearen zati bat ere adierazten du INEk, parte-oso (jabetza-jabe) harremana osatuz euren artean. Hala izanik, batzuetan ERG eta INE entitateen izaerak nahasi egiten dira, ERG komunztadurarik gabe gelditzen delarik. Berrikus ditzagun goiko adibide batzuk:

- (497) Lehen estrofan bezala hirugarrenean bi errealitateen aipamen iradokiorra dakar, sinbolizatzaile bikoitza alegia, lehen bi bertso lerroetan. ZERK? (EusCor)
- (498) Data hori dakar behintzat Gure Herria-n 1975ean (324-327. or.). ZERK? (EusCor)
- (499) Idazlearen lan guzien izenen zerrenda, bukaeran dakar. LIBURUAK? (EusCor)

INE perpausean agertzen ez denean, ez da zatirik espezifikatzen jakina, eta orduan, osoki ERG entitaren *baitan* edo *aldean* ulertu behar da; hain zuzen horrexegatik jartzen diogu ERGi *edukitzaile* osagai semantikoa.

Corpusean aurkitu ditugun adibide guztietako ERG entitatea bizigabe da, baina esan dugun bezala, gizakia ere izan daiteke. Horrelakoetan, *ekarri-DU-1 bss*arekin nahasgarri suerta daiteke, hartan INEk entitate desplazatuaren kokapen zehatza ere adieraz baitezake,

desplazatzen den bitartean. Hala ere, desplazamendua ez da nahitaez gertatu behar, *eraman* aditzean ikusi dugun bezala. *Ekarri* aditzean beharbada arraroagoa gertatzen da, baina zenbait hizkeratan, Pasaiakoan esaterako, mugimendurik gabeko edute zentzu hori erabilera guztiz berezkoa da. Ikus *Pasaiako hizkera* (Agirretxe et al., 1998) liburutik hartutako ondoko adibidea (197. or.):

(503) Suk ez al dakisu arrandeya nun **tzekarren**?

Azkenik, **INS** eta **SOZ** ez dira arruntak, eta agertuz gero, ABS entitateari erreferentzia egiten diote bateratasun edo konpainia adieraziz ((500))

Beraz, esango dugu, *ekarrik* *bss* honetan edukitzea adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala ERGez gauzatzen den *edukitzailea*, ABSz gauzatzen den *edukia* eta honen *kokapena*, INEz gauzatua, dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

ekarri-DU-3: edukitzailea_ERG; edukia_ABS; kokapena_INE

ekarri-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(504) Hori eginda, ideiak paperera **ekartzea** da hurrengo urratsa. (EusCor)

(505) Sofrimen hutsaren sinbologi kristau negarti hori alaitu eta [HURA] bere zinezko neurrira **ekarritz** gero, euskal harria, haritza, edo burnia baino benazkoago eta neurrikoago iruditu izandu zait beti elorri erne zaildu hori. (EusCor)

Laugarren eta azken balioa **ALAk** erakusten duen balio bereziagatik markatu dugu. Badirudi, emaitza moduko zerbait adierazten duela, nolabait ABS entitatearen egoera berria aditzera emanez. Entitate honek ezin du biziduna izan. Kasu honetan ABL eta DAT ezinezkoak dira, eta **INE**, **INS** eta **SOZ** beren ohiko balioetan ageri dira. Erabilera hau, dena den, oso mugatua da, eta corpusean oso adibide gutxi aurkitu ditugu.


Beharbada azter zitekeen desplazamendu abstraktu bat bezala, baina gure ustez ABL eta DAT ezin onartzeak asko desberdintzen du hartatik. Bestalde, jo genitzakeen Hitz Anitzeko Unitate Lexikal gisa (*paperera ekarri*, *neurrira ekarri*), baina uste dugu egitura orokorragoa badela, eta *ekarrik* egoera-aldaketa adierazteko gaitasuna ere baduela, nolabait.

Horregatik esango dugu *ekarrik bss* honetan egoera-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez gauzatzen den *kausa*, ABSz gauzatzen den *gai ukitua* eta ALAz gauzatzen den *helburuko egoera* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

ekarri-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ALA

- Datu estatistikoak: Datu estatistikoek ERG eta ABSren maiztasuna jartzen digute agerian. Azpimarragarria da, ALA Kasu azpikategorizatua den arren, ez dela *eraman* aditzean bezain maiztasun handikoa. Honek, seguruenez, erlazio oso estua du elementu deiktikoa bere semantikaren baitan izatearekin, beti ere ekarri-DU-lez ari garelara. Gerta daiteke, bestela, gainontzeko *bssek* ere maiztasun handia izatea eta, ondorioz, ALA ez hainbestetan agertzea.



DA	3,91%	DA-ins	3,68%	DA-ala	21,81%	DA-abl	15,58%	DA-abs	100,00%	DA-komp	9,49%	DA-ine	7,51%				
DU	80,84%	DU-ins	0,53%	DU-ala	22,13%	DU-abl	3,72%	DU-abs	62,36%	DU-komp	15,73%	DU-soz	1,25%	DU-ine	8,88%	DU-erg	100,00%
DIO	15,25%	DIO-ala	9,39%	DIO-abl	1,77%	DIO-abs	75,75%	DIO-komp	9,62%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	5,81%	DIO-erg	100,00%		

2 DA laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak

2.1 Bss bakarrek

Aditz bakarra dugu sorta honetan:

Loratu

loratu-DA-0

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (506) Hori egiteko errefusaren mendean zegoen bere bizitza, eta Johnen bihotz ezkutua gaiztotasun hartan loratu zen, bekatu hark ezustean harrapatu zuen eguna arte. (EusCor)
- (507) Egia da, halaber, perfilez etzanda eta lo gozoan ikusi nuenetan nabari izan nituela nigan maitasun sentimendurik ederrenak, eta haren aurpegi naroan, bekainak, sudurra, ezpainak laztantzeko gogoari eutsi behar izaten nion, samurtasuna gainezka, begietan malkoak loratzen zitzaizkidala. [NIRI] (EusCor)
- (508) taupadak neurritsuagoak ziren eta, aleak lur oparo hezetuan eta sakon goldatuan bezala, pentsamendu sortak bizkor eta adorez hazten ziren bihotz barruan, gozo eta eder **loratzen** ziren hitzak, soinuen indarrak ernaldurik. (EusCor)
- (509) Baltasar, zirkua kangururik gabe geratu zelako, baita Zotzengan loratutako bere amets hark mutilarekin nola edo hala lotzen zuela uste zuelako ere... (EusCor)
- (510) - DATORREN urtean beteko dira 25 urte Gabriel Aresti hil zela, baina ez da ordura arte itxaron behar haren omenezko ekimenak loratzen hasten ikusteko. (EG)

Ikus dezakegunez, adibideok ez digute erakusten *loratu* aditzaren jatorrizko erabilera espero izatekoak diren elementuak; hau da, ‘landareak loratze’ zentzuan beharko genituzkeen horiek. Horren aldean, hedatutzat jo genezakeen beste balioaz ageri zaigu aditz hau adibide guztietan. Corpusak argi jartzen digu, beraz, aditz baten jatorrizko erabilera ez dela guk uste bezainbestetan agertzen. Jakina, honek zerikusi handia du hautatzen den corpusarekin. Argi dago aditz hau bere berezko balioan agertzeko corpusak orokorra baino gehiago arlo berezitu bati erreferentzia egin behar diola, botanikari, izadiarekin zerikusirik duen bati, esaterako. Hala, arlo horretako testu batean agertzen ez denean hartzen duen balio orokorra, bere berezko baliotik aldentzen dena dela dirudi.

Gauzak horrela, testuetan azaldu zaizkigun entitateak anitzagoak dira. **ABS** entitatea, gehienetan, izaki bizigabe abstraktu bat da ((508): *hitzak*, (509): *ametsak*, (510): *ekimenak*) baina badira izaki bizigabe konkretuak ((507): *malkoak*) edota konkretuak izanik ere modu abstraktuan erabiltzen direnak ((506): *bihotz ezkutua*). Argi dago *loraturen* berezko balioari begira jarrita, loratzen diren landareak bakarrrik izango liratekeela ABS entitateak.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk** badirudi, aditzaren balioa jatorrizkoa nahiz hedatua izan, antzeko joera erakusten duela. Izan ere, INEk ABS entitatearen kokapena

adierazten du, dela fisikoa dela abstraktua, eta gainera, nahiko maiztasunez ageri da. Jakina, landareak direnean loratzen direnak, lekua beti fisikoa izango da.

SOZek eta **IN**Sek ere, ohiko balioekin agertzeko arazorik ez dute, adibiderik aurkitu ez dugun arren.

Badago, hala ere, jatorrizko balioan osagai desberdina adieraziko lukeen Kasu bat: **DAT**. Erabilera hedatuan **DAT** agertzen denean ((507)), **ABS** entitatearen ekoizlea/iturria adierazten du; ekoizte hori nahigabezkoa delarik, normalean. Jatorrizko *loraturen* balioan **DAT**ek (bat ere arrunta ez denak), besterik gabe **ABS** entitatearekiko jabetzazko harremanaren berri ematen du (*landarea loratu zaio amari*). Beraz, balio hedatuan **DAT**en presentzian sortze-prozesu bat dugu. Berezko balioan, *loratuk* entitate baten izaera aldatzea adierazten du, landare baten loreak ireki/zabaldu egiten diren neurrian.

Baina, beharbada, sortze bezala ere ikus genezake: loreak ez zituen landare bati loreak ateratzen zaizkio. Hala ere, berezko balioan sortzen den entitatea pieza lexikalean txertatuta dago (*loreak*), eta orduan *iturria* **ABS**z gauzatzen den entitatea genuke. Vázquez et al.ek (2000) esaterako, *florecer* sorkuntzazko aditzat jotzen dute (ikus *egin* aditzean —8. or.— autore hauen zita).

Esan behar da, **INE** entitatea gizakia denean, **DAT**ekin ikusi dugun *iturri* balioa dugula ((509): [Zotzengan](#)), eta horrelakoetan ezingo luketela **DAT**ek eta **INE**k batera agertu. Aldi berekotasun-murriztapen hau bi elementu hauen biziduntasunari zor zaiola argi jartzen du (507) adibideak: *malkoak begietan loratu zaizkit*. Izan ere, hemen bi Kasuak —**INE** eta **DAT**— batera agertzen dira, baina **INE** **DAT** entitatearen parte bat (**ABS** entitatearen kokapena dena) adierazten du.

Azkenik, eta erabilera hedatuaren zailtasuna argitan jarriz, esan behar dugu (306) adibideko **INE** **ez duela ez kokapenik ez iturririk adierazten**; adibide honetan, entitateak loratu ondoren duen egoera berria adierazten da. Alegia, aldaketa espezifikatzen da. Balio hau, ordea, ez dugu kontuan izango, adibidea bera zuzena ote den zalantza dugulako; izan ere, horrelako egoera espezifikatzeak **INE**ren bidez ez baizik **ABS** mugagabeaz egin ohi dira.


INSek eta **SO**Zek, azkenik, beren ohiko balioak izan ditzakete, baina arruntena beharbada, kausa eiteko modua adieraztea dirudi (*eguzkiarekin, eguzkiaren energiaz, esandakoarekin, denborarekin...*); ez dugu, ordea, adibide errealik topatu.

Guk, hortaz, corpusean erabilera hedatua baino ez dugunez aurkitu, esango dugu *loratuk bss* honetan oro har sortze-prozesu bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala **ABS**z gauzatzen den *gai sortu* ez-konkretua duela. *Iturria*, berriz, ez dugu osagai azpikategorizatu gisa jarri, ez baitirudi nahitaez agertu behar denik; eta gainera, ez da oso osagai garbia.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

loratu-DA-0: gai sortua [-konkr]_ abs

- Datu estatistikoetan bada gauza aipagarri bat: DU erabileraren maiztasuna. Hau bi arrazoiengatik izan daiteke: batetik, guk aztertu ez ditugun adibideetan erabilera iragankorra ere agertu delako (*gai sortu* horren *iturria* agerian dagoela); eta, bestetik, gure tresna automatikoen ERG oker hartu dutelako. Erabilera iragankorreko adibideei begiratu bat eman ostean, ikusi dugu gure tresnen akatsak direla, *loratu* hitzaren desanbiguazioa oker egiteagatik (Adib.: *Martin Astudillok pase loratu bikain batekin Imanol Etxeberriaren aurrean bakarrik utzi zuen Salzedo gaztea.*)



DA	66,67%	DA-abs	100,00%	DA-ine	18,75%
DU	33,33%	DU-abs	75,00%	DU-erg	100,00%

2.2 Bss bat baino gehiago duten aditzak

Hiru aditz ditugu sorta honetan:

aritu (2), egon (2), gertatu (2), konturatu (2)

Aritu eta *konturatu* aditzetan bi *bssak* alternantzia dira elkarren artean. Besteetan, berriz, *bss* bakoitza balio semantiko bati dagokio. Azter ditzagun A multzoan guztiak elkarren artean alternantzia diren *bssak* dituztenak, eta B multzoan besteak.

A multzoa: *bss* guztiak elkarren artean alternantzia

aritu (2), konturatu (2)

Aritu

Aritu aditzari bi *bss* markatu dizkiogu. Aditz honek adierazten duen balio semantikoak, inespesifikazio orokorrerako ahalmena du. Hortik bi *bss* markatzea. Esan behar da

inespezifikazioa ez dela *gaia* osagaiarena, baizik eta *jarduera* osagaiarena (*asmatu* aditzean bezalaxe).

aritu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INS, SOZ, ABL, DAT

aritu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (511) Futbolean aritu ziren gehienak, baina Xalbak gogorik ez. (EusCor)
- (512) Gainontzekoak, batel, trainerilla eta traineru txapelketetan arituko dira. (EusCor)
- (513) Etengabeko borrokan arituko da [HURA] bere amarekin egin behar dizkion bisitei buruz eta, ... (EusCor)
- (514) MASSIMO Da ALEMA Italiako gobernuburua hizketan aritu zen atzo Boris Jeltsin Errusiako lehendakariarekin eta Eugeni Primakov lehen ministroarekin, lortu nahirik haiek bitartekari lana egin dezaten Jugoslaviak Nazio Batuen baldintzak onartzeko. (EG)
- (515) Ordudanik, Mitxelin, Kaiku, eta Zierbenako taldeetan aritu da [HURA] entrenatzaile-arraunlari gisa. (EusCor)
- (516) Txapelketei dagokienez, lehen postuetan aritzeko gai direnak joango dira soilik. (EusCor)
- (517) Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Laguntzarako ordezkariak, oraingoz, laguntza humanitarioan aritzen direnen iritzia jaso baino ez du egin, bai Kosovoko inguruetan lanean ari diren nazioarteko elkarreana eta baita hemen bertako gobernu kanpoko erakundeena. (EG)
- (518) Hainbat arlotan aritutako idazlea da, besteak beste, irati eta telebistako gidoiak ere idatzi ditu, gutxi barru TV 3 telebista kateak berak idatzitako El Anjel cafido erdimetraia estreinatuko du, eta Dones, bere eleberririk arrakastatsuen, zinemara eramateko bidean dago. (EG)
- (519) Jabetzen hasi ziren, handik gutxira, ez zituztela zuzen itzultzen euren esanak, modu interesatuan aritzen zirela. (EG)
- (520) Partitura berriak landu nahi ditudanean, etxean egiten dut lan, pianoarekin, baina gero parrokian aritzen naiz, organoarekin. (EG)
- (521) Lasai eta konfiantzaz aritu zen Arteakoa, presaka eta ideiarik gabe Errandonea. (EG)
- (522) Arrasatearrok gasaz disfrutatzeko genuen aukeraz eta honek eskaintzen zizkigun abantailez aritu ginen orduan. (EusCor)

Aditz honek entitate batek egiten duen jarduera adierazten du. Horretarako, jarduera egiten duen entitatea —**ABSz** gauzatua— eta jarduera adierazten duen entitatea —**INEz** gauzatua— ditu beharrezko.

Ikusten dugunez, ekintza burutzen duen entitatea entitate bizidun —askotan gizaki— bat da.

INEk adierazten duena *jarduera* bat izaki, nolabaiteko jarduera adierazten duten entitateak ditu gunean (*futbol, txapelketa, borroka, hizketa*).

Batzuetan, ordea, INE bestelako guneei ere lotuta ageri zaigu, baina horregatik ez du *jarduera* zentzua galtzen (*Mitxelín, Kaiku, eta Zierbenako taldeetan; lehen postuetan; laguntza humanitarioan; hainbat arlotan*).

Kasu hauetan guztietan, badirudi azpian jarduera hori markatuko lukeen mendeko perpaus bat dagoela (*Mitxelín, Kaiku, eta Zierbenako taldeetan arraun egiten; lehen postuetan jokatzen; laguntza humanitarioan lan egiten; hainbat arlotan lan egiten, adibide baterako), eta horregatik ez duela galtzen jarduera zentzua. Oro bat gertatzen da, INEk edo bestelako Kasuren batek jarduera edo jarduera antzeko baliorik agertzen ez duenean (*modu interesatuan; parrokian; konfiantzaz...*).*

Hain zuzen, *aritu* aditzak onartzen dituen osagaien artean *-t(z)en* bidezko mendekoa —hemen aztergai ez duguna— da gehien gailentzen dena, eta badirudi esplizituki agertzen ez denean, suposatutzat-edo eman behar dela; alegia, inespezifikatu egiten dela.

Horregatik jarri dugu inespezifikazio-kasu bezala.

Gainontzeko Kasu guztiei buruz hitz egiteko, ordea, INEk adierazten duen jarduerari begira jarri behar gara, Kasu askoren presentzia eta balioa jarduera mota horren baitan baitago.

Esaterako, **DATi** dagokionez, adibidean atera zaigun *hizketan* moduko jarduerazko elementu batekin *helburu* zentzua du, jarduera hori adierazpenezkoa baita (*hizketan aritu zitzaidan*).

SOZekin ere antzekoa gertatzen da jarduerazko hitz berarekin ((514): *MASSIMO Da ALEMA Italiako gobernuburua hizketan aritu zen atzo Boris Jeltsin Errusiako lehendakariarekin*). Beste jarduerekin SOZ jarriz gero (ez baitugu adibide errealik topatu), ez dugu helburuzko baliorik: *futbolean aritu zen gurekin; txapeletan aritu zen gurekin...* Kasu hauetan, ekintzan modu berean parte hartzen duen entitate bat da.

Gainontzean, SOZek bere ohiko balioak izan ditzakeela dirudi; DATEk, berriz, ekintza burutzen duenarekiko harreman berezi bat (familiarreko, lanekoa...) adieraziko lukeela dirudi. Eta horrelakoetan ez dugu kontuan hartzen, gainera.

ABLrekin beste hainbeste. Berriz ere *hizketan* moduko jarduera bat hartzen badugu ABL onargarria izan daiteke entitatearen kokapena adierazteko (*pulpitotik aritu zen hizketan*), edota jarduera hori egiteko baliatzen den tresna adierazteko (*telefonotik/mikrofonotik... aritu zen hizketan*). Beste jarduera batean, ordea —adibideetan ikusitako *futbolean*, *txapelketan*, *borrokan* kasu—, ez dirudi ABLk lekurik duenik.

INSek —eta INEk ere bai— beren ohiko balioak izan ditzakete.

Beraz, aditzaren baitan baino gahiago, jarduerazko elementuen baitan dagoenez Kasu hauen presentzia eta balioa, guk besterik gabe onartu egin ditugu. Esan daiteke ALA dela oro har onartzen ez dena.


Honenbestez, *aritu*k jarduera bat adierazten duela esango dugu, parte-hartzaile nagusi gisa *esperimentatzailea* eta *jarduera* dituela; ERGez eta INEz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

aritu-DA-1: esperimentatzailea [+biz]_ERG; jarduera_INE

aritu-DA-2: esperimentatzailea [+biz]_ERG

- Datu estatistikoek INEk maiztasun handia duela erakusten digute, ABSren ondoren.



DA	87,07%	DA-ins	8,19%	DA-ala	2,92%	DA-abl	3,85%	DA-soz	5,06%	DA-ine	39,86%								
DU	9,41%	DU-ins	10,79%	DU-ala	4,48%	DU-abl	4,62%	DU-abs	69,71%	DU-komp	12,34%	DU-soz	6,73%	DU-ine	51,32%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,89%	DIO-ins	12,76%	DIO-ala	0,31%	DIO-abl	0,93%	DIO-abs	66,08%	DIO-komp	14,58%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	2,30%	DIO-ine	42,81%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	2,62%	ZAI0-ins	7,04%	ZAI0-ala	0,32%	ZAI0-abl	0,50%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	8,95%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	4,27%	ZAI0-ine	27,86%		

Konturatu

Konturatu aditzari markatu dizkiogun bi *bssetan* bi osagai azpikategorizatzten dira; horietako bat bi aldaeretan ABSz gauzatzen da, eta bestea, aldaera batean INSez eta beste aldaeran ELA_KONPez.

konturatu-DA-1:

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

konturatu-DA-2:

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: eragatiboa, ABS, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

Azalpena

Bss bakoitzeko adibide batzuk, *bssetako* Kasu azpikategorizatuak azpimarratuta:

- (523) Maglia arrosa soinetik kendu eta eskuetan duenean **konturatu** da [HURA] bere garaipearen balioaz. (EG)
- (524) Noski, horretaz gero **konturatu** nintzen [N]. (EG)
- (525) Lidergo bat aurrera eramateko orduan lbarretxe **konturatzten** ote da daukan muga territorialaz? (EG)
- (526) **Konturatu** dira [HAIEK] guk aspaldian salatu genuenaz, alegia, epaia politikoa izateaz gain astakeria juridiko dela. (EG)
- (527) Okerrena da eguzkiari begira ari zarela eta ez zarela [ZU] **konturatzten** erretinari kalte egiten ari zarela. (EG)
- (528) Baina jende asko **konturatu** da ezin dela eskubideen aurka egin gehiengoaren izenean. (EG)
- (529) Ez dira [HAIEK] **konturatzten** Nafarroak arau propioak dituela, eta, PSE baztertzen dute. (EG)
- (530) Ez al zara [ZU] **konturatzten** adarra jo izan banizu ez zenuela salbatu zaituen adar hori aurkituko?. (EusCor)
- (531) Eta [HURA] **konturatzten** da azken minutuetan erabat ahazturik daukala. (EusCor)

ABS entitatea, agertu zaizkigun adibide guztietan gizakia da, eta halaxe izan behar duela dirudi. Ekintza baten ondorioz nolabaiteko erreakzioa esperimendatzen duen entitatea adierazten du. Hori hala izanik, *esperimentatzailetzat* hartu dugu. Bestetik, esperimendazio horretarako beharrezkoa den *gai* bat ageri zaigu; batzuetan INSez eta besteetan ELA_KONPeZ gauzatua. ABS ikusenez *kausa* gisa ere; azken batean, berak eragiten eta sentitzen du ekintza. Hala ere, *erreakzioa* adierazten duten aditzetan kausatasunak baino esperimendazioak garrantzi handiagoa duela uste dugu. Hala, orain arte ikusi ditugun egoera-aldaketetatik bereizten dugu erreakziozko balio hau; eta besterik gabe *jarduera* bat bezala hartu dugu.

INS entitatea abstraktua izan ohi da, hain zuzen bigarren balioiko ELA_KONP bezalaxe; jakina, ELA_KONPeZ kasuan zer abstraktu hori ekintza bat da. (526) adibideak erakusten digu argi bi *bss* hauen arteko parekotasuna.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INEk bere ohiko balioak adieraz ditzake. INSek eta SOZek, kausa eiteko zerbait ager dezakete (adibide asmatuetara joaz: *adierazpen horrekin*), baina bestelako moduak ere bai (adibide asmatak baliatuz berriz ere: *zailtasun handiekin, zailtasun handiz...*).


Beraz, esango dugu *konturatu* entitate baten erreakziozko *jarduera* adierazten duela, parte-hartzaile nagusi gisa ERGeZ gauzatzen den *esperimentatzailea* eta INSez nahiz ELA_KONPeZ gauzatzen den *gai* ez-konkretu bat dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

konturatu-DA-1: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia [-konkr]_ ins

konturatu-DA-2: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia ELA_KONP

- Datu estatistikoek agerian jartzen digute ELA_KONPeZ eta INSen presentzia. Baina argi dago maiztasun handiagoz agertzen dela ELA_KONP.



DA	96,55%	DA-ins	11,85%	DA-abs	100,00%	DA-konp	40,42%	DA-soz	1,45%	DA-ine	10,51%
DU	3,45%	DU-ins	4,35%	DU-abs	47,83%	DU-konp	44,93%	DU-soz	1,45%	DU-erg	100,00%

B multzoa: bssak balio semantiko desberdinak

egon (2), gertatu (2)

Egon

egon-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

- (532) Biharamun goizean, gosaldu ondoren, berriro jeitsi nintzen ezkaratzera: dena berdin zegoen, hantxe zegoen bezperako gari saldo bera mugitu gabe, baina ... bi kainabera luzeen mutur-puntak ezin nituen aurkitu, eginahalak egin ondoren ezin nezakeen deus ikusi ... Han ez zegoen inor!. (EusCor)
- (533) Edateari eman nion, otarteko triste bat jan, irakurriko ez nuen egunkari bat erosi eta han egon [NI](...). (EusCor)
- (534) Ez zuen denbora asko behar izan, ez zuen senitarteko askorekin hitzegin behar izan, guztien arretaren iturria non zegoen zehazki asmatzeko. (EusCor)
- (535) Ohean zegoen amona aurreko egunean Juttarekin telebista ikusten eta platera jaurtikitzen ari izana zen. (EusCor)
- (536) Gizon bizardun batek bibolina jotzen zuen bitartean beste batek ze ikuskizun mota eta ze emanaldi klase egongo diren ematen zuen aditzera: astebetez geratuko direla Vetierro-n esan dute eta egunero hiru espektakulo eskainiko dituztela. (EusCor)
- (537) Ai, horregatik zegoen usain hura, sendagaiarengatik. (EusCor)
- (538) Gure aldetik bederen ez da egon ez UPV/EHUren aurka eraturakorik, ez azalpen ezkuturik. (EusCor)
- (539) Honelako zentralismoaren moduak bide horretatik jarraitzeko arriskua egongo da. (EusCor)
- (540) Berarekin [GU] egoteko aukera aprobetxatu dugu eta bere bizitzaz, sikiatriari buruz dituen eritziez eta beste gauza askori buruz hitz egin ahal izan dugu. (EusCor)
- (541) Alkoholaren alde ona lagunekin edan eta egoteko aitzakia dela da. (EusCor)
- (542) Gizarte primitiboetan ez zegoen zororik. (EusCor)
- (543) Egon dira beste lanuzte batzuk, baina oraingoa beste guztietatik desberdin egiten duena da tardean hildakorik ez egotea ". (EG)

- (544) Espainian 26.781 herritarrek utzi diote martxoan INEMeko zerrendetan [HAIEK] egoteari, eta langabezi tasa %10,78ra jaitsi da. (EG)
- (545) Apustu honetan, lasterketa honetan oztopoak egon arren eutsi egin behar zaio erronkari. (EG)
- (546) Gatazka hau emankorragoa litzateke kalitatera bideratuta balego, liburu kaxkar asko egon baita gazte literaturan. (EG)
- (547) Halako bake prozesuetan kontrakoak beti egoten dira, baita gatazkaz baliatuta onura ateratzen saiatzen direnak ere. (EG)
- (548) Atzo Manuel Pimentel Espainiako Enplegu ministroa egon zen Gasteizen. (EG)
- (549) Kontuan izan pintaturiko irudi asko desagertu edo ezabatu egin direla edo ezin ikusi ditugula, baina aztarnak egon badaudela". (EG)

Egonek balio honetan entitate bat leku batean kokatuta egotea adierazten du. Adibideotan ikus dezakegunez, ABS entitatea orotarikoa izan daiteke: biziduna, bizigabea, konkretua, abstraktua..., eta aditzak adierazten duen ekintzan kokatzen den entitatea da. Horrexegatik du, hain zuzen, **INEk** presentzia hain nabarmena, berak adierazten baitu entitate horren *kokapena*, beste osagai azpikategorizatutzat hartu duguna. INEren presentzia oso nabarmena izan arren, esan behar da badirela adibideak INErik gabekoak, eta jakin badakigu, kasu hauetan ez zaiola erreferentzia egiten ABS entitatearen kokapenari, baizik eta egotea bera, existitzea da azpimarratu nahi dena. Kasu horietan, ordea, uste dugu beti “gizartean” edo horrelako zerbait ulertu beharra dagoela, edota testuinguruaren arabera uler daitekeela. Honenbestez, ez dugu bereiziko ‘nonbait egotea’ eta ‘egotea’ besterik gabe, gure ustez ‘egoteak’ beti eskatzen baitu ‘nonbait egotea’.

Bestalde, ikusten dugunez, INE entitatea ez denean konkretua, kokapena abstraktuki ulertu behar da ((542): *gizarte primitiboetan*; (547) *bake prozesuetan*). Orobat gertatzen da ABS entitatea izaki abstraktua denean ((545): *lasterketa honetan oztopoak*). Bestalde, gerta daiteke ABS entitatea biziduna izan arren, berez entitate horri dagokion ezaugarri bat izatea kokatzen dena. Adibidez, (544) adibidean (*herritarrak INEMeko zerrendetan egotea*) ez dira berez *herritarrak* baizik eta haien izenak *zerrendetan* daudenak.

Esan behar da, halere, badirela adibideak, INE entitatearen arabera, ez dutenak ez kokapen fisikoa ez abstraktua adierazten, baizik eta egoera moduko zerbait; normalean guneko hitz horiek iraupenezko ekintza bat adierazten dute. Horrelako asko eta asko, gure ustez, aditzarekin batera Unitate Lexikal bat osatzen dute. Ez ditugu, beraz, egoerazko balio honetan kontuan hartu. Adib.:

- (550) IUko buruzagiaren esanetan, "Justiziak, botere independentea den aldetik, ezin du treguan egon". (EG)
- (551) Apirila eta maiatzan 34 egun egon zen gose greban, horietatik azken bostak egarri greban ere. (EG)
- (552) Pinochet agintean egon zenean desagertutako senitartekoek bestalde, gustora jaso dute, barne ministro britaniarrak, Pinocheten estradizioa burutu dadin oztoporik jarri ez duelako. (EG)

Beste kasu bakan batzuetan, INE entitateak jarduera bat adierazten du, eta hala INEk ere *jarduera* adierazten du; alegia, hemen ere ez du adierazten ez kokapen fisikoa ez kokapen abstraktua. Ez dugu adibiderik aurkitu baina *hizketan*, esaterako, horrelakoxea genuke. Nolanahi ere, horrelako kasuak lekuztat hartzea ez litzateke gehiegikeria kontuan izanda jarduera bat beti leku batean egiten dela.

INeren gunea *egoera* hitza bera denean, zalantzarik ez da ABS entitatearen egoera dela adierazten dena.

(553) Esteban Nietok minbizia du, eta, oso egoera larrian **egon** arren, oraindik ez dute aske utzi. (EG)

(554) Urtebete **egon** nintzen egoera horretan, inolako komunikaziorik gabe. (EG)

Hain zuzen ere, orain arteko aditzetan ikusi dugun bezala, INEk adierazi ohi duen beste balio bat da egoera. Hurrengo *bssan* aztertuko dugunez, kokapenaren aldean, egoera da *egon* aditzak adieraz dezakeen beste balio semantiko bat. Hori horrela izanda, gunean *egoera* izena duten INEdun egiturak bigarren *bssaren* alternantzia lirateke. Kasu bakan hau dugunez, ordea, ez dugu egon-DA-1 *bssa* egon-DA-2rekiko alternantziatzat jo, hasieran esan dugun bezala.

SOZek ABS entitateari dagokion modu zehatz bat —konpainia, alegia— adierazten du gehienetan, eta horrelakoetan INErik ez agertzea nahiko arrunta da ((540), (541)). Jakina, INErekin batera ere ager daiteke. INE agertzen ez denetan, beraz, ulertutzat-edo eman beharko litzateke.

INSek, azkenik, ABS entitatea egoteko modua adieraziko luke, baina ez dirudi oso arrunta.

Bestetik, esan dugu **AL**Arik eta **ABL**rik ez direla onartzen. Hala ere, topatu dugu adibiderik bi kasuekin, baina gure ustez honakoan biek batera osagai bakarria osatzen dute, hain zuzen kokapen zehatz baten berri emateko. Horrelakoak, VI.2.3 puntuan aipatu ditugu, eta han esandakoaren arabera, Kasuek erabilera hau bakarrik erakusten dutenean ez onartzekotan geratu gara. Ikus adibidea:

(555) Guzti hau, noski, arrasatearrek entzuteko moduan eta inondik ere ez ezkutatze asmotan, zorioneko arrasatearren lehen hilara niregandik metro eskasera bait **zegoen**, ohi denez. (EusCor)

Azkenik, esan behar dugu balitekeela **ABL**k ABS entitatea denbora-epe batean kokatzen den eremu mugatu bat adieraztea. Ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu (asmatutako bat jartzearren *Bilbotik egon nintzen* gisakoren bat aipa genezakeen). Ez gaude ziur, gainera, hau onargarria den, izatez, *egon* aditzak ABS entitatearen egoera estatikoak bakarrik adieraz ditzakeela baitirudi; eta jarri dugun adibidean *egon* baino *ibili* legoke gure ustez hobeto. Horregatik ez dugu ontzat eman **ABL**, eta gainera, corpusak ez digu inongo argibiderik eskaini.

Hortaz, *egonek bss* honetan entitate bat leku batean kokatuta egotea adierazten duela esango dugu, parte-hartzaile nagusi bezala ABSz gauzatzen den *gaia* eta *kokapena* adierazten duen INE dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egon-DA-1: *gaia_ABS*; *kokapena_INE*

egon-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, INE, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(556) "Abertzaleak eroso egotea izan da Ibarretxeren gobernuaren helburua" Carlos Iturgaitzek adierazitakoaren arabera, "Ibarretxeren gobernuak pluraltasun eta kudeaketa mailan porrot egin du". (EG)

(557) Hala ere, jarrera dibergentea eta kontzientzia desberdina izateko eskubidea badagoela uste dut, hau da, zoro [NORBAIT] egoteko eskubidea. (EusCor)

Balio honetan bi ABS ageri zaizkigu Kasu azpikategorizatu gisa, eta horietako bat osagai predikatiboa da, *egoera* adierazten duena. Goian markatu dugun *bssan* ere zilegi da osagai predikatibo bat, baina ikusiko dugun bezala, ez da hemen jarri dugunaren parekoa. Zabalak bere tesian (Zabala, 1993) sakonki aztertzen ditu, *egonek* —beste aditz batzuen artean— hartzen dituen predikatu motak. Berton irakur dezakegunez, “nolabaiteko prozesuaren ondoriozko egoerak edo behin-behineko ezaugarriak adierazten dituztenak” joan ohi dira *egon* aditzarekin. Ordea, *egoera* edo behin-behineko ezaugarri hori adierazten duten predikatuen artean badira batzuk, Zabalari jarraituz, lanbidea edo kargua adierazten dutenak (*irakasle, neskame* esaterako), beharrezkoa dutenak lanbide edo kargu hori betetzen duten lekua esaldian. Hori dela eta, Zabalak ez ditu lehenengo mailako predikatutzat hartzen, eta, ondorioz, guk hemen aztergai dugun *bssaren* barruan ez lukete lekurik, baizik eta goiko *bssan*. Aldiz, beste predikatu batzuk sentimendu edo esperientziak adierazten dituzte (*haserre, beldur, hotz...*), eta hauek ez dute murriztapen hori ezartzen; areago, gure ustez, mota honetakoetan, kokalekua adierazten duen elementua agertzea ez da oso ohikoa. Horregatik jarri dugu *bss* honetan INE Kasu ez onartuen artean.¹⁵

¹⁵ *Egon* aditzaren predikazio moten berri sakonago nahi izanez gero, jo bedi Zabalaren tesiko 2.2.2.1 atalera. Zabalak bere tesi-lanean (Zabala, 1993) sakonki aztertzen ditu lehen mailako izenki-predikazioan parte har duten aditzak, horien artean orain aztergai dugun *egon* aditza. Bertatik, gure lanerako baliagarri zaizkigun ideiak hartu eta gurera moldatu ditugu, eta horixe bera egingo dugu izenki-predikazioan parte hartzen duten beste aditzekin ere. Hori dela eta, behin baino gehiagotan egingo diogu erreferentzia autore honen lanari. Argi utzi nahi dugu,

Bss honetan, gainera, beste Kasurik agertzea ez da oso arrunta; agian, **SOZ** eta **INS** konpainia edo kausa adieraziz.

Hala ere, jakin badakigu muga ezartzea ez dela bat ere erraza. Hain zuzen, elementu predikatibo horrek adierazten duen egoeraren izaeran egon daiteke muga horren giltza.


Hortaz, esango dugu *egonen bss* honetan, entitate baten egoera adierazten dela, parte-hartzaile nagusi bezala ABSz gauzatzen diren *gaia* eta *egoera* osagaiak dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egon-DA-2: *gaia_ABS*; *egoera_ABS*

Nolanahi ere, argi dago, *egonen* bi *bss*etan, aditzak berak baino, bere alboan ageri diren elementu sintagmatikoez eta hauen guneek zehazten dutela aditzak hartzen duen balio semantiko zehatza.

- Datu estatistikoez agerian jartzen dute INEren maiztasuna, ABSrenarekin batera:



DA	85,53%	DA-ins	3,89%	DA-ala	2,62%	DA-abl	5,03%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,72%	DA-soz	3,61%	DA-ine	33,92%				
DU	13,06%	DU-ins	1,55%	DU-ala	5,25%	DU-abl	4,89%	DU-abs	38,91%	DU-komp	6,40%	DU-soz	3,74%	DU-ine	40,82%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,24%	DIO-ins	4,97%	DIO-ala	4,86%	DIO-abl	0,78%	DIO-abs	26,28%	DIO-komp	14,25%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,87%	DIO-ine	38,02%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	0,17%	ZAIO-ins	0,40%	ZAIO-ala	4,66%	ZAIO-abl	0,59%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	10,01%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,68%	ZAIO-ine	57,38%		

horrelakoetan, tratatzen ari garen aditzak eta izenki-predikatua osatzen duen buruak, biek batera, osatzen dutela dena delako balioa (*egoerazkoa egonen* kasuan). Gu, besterik gabe, aditzaren ikuspuntua harturik eta osagai semantikoak baliatuz, aditzok izan dezaketen balioa errepresentatu nahi izan dugu.

Gertatu aditzean, *egonen* bezalaxe, balio batean INEk indar handia du (gertatu-DA-1), eta bestean, berriz, ABSz gauzatzen den izenki-predikatu batek (gertatu-DA-2).

gertatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

- (558) Organismo bizian **gertatzen** diren prozesu kimiko guztiek, oso gorputz desberdinak taiutzeraren daramaten eraldaketa guztiek, azken batean errakzio simple hauetara edo beren batuketara muga daitezke. (EusCor)
- (559) Baina behin fenomeno guzti hauek —protoplastaren konposizioa, ezaugarriak eta egitura— aurrean daudela, aldi berean, protoplastan **gertatzen** diren erreakzioen abiadura, norabidea eta kateamendua, eta, beraz protoplastaren konposizioa eta egitura horri jatorri eman zion ordena erregularra mugatzen duten faktore gisa funtzionatzen hasten dira. (EusCor)
- (560) Ajedrezean edo idazterakoan **gertatzen** den bezala, hainbat ahalbideren artean aukera bat egitean datza; argazkiaren kasuan, ordea, ahalbideen kopurua ez da mugatua, mugagabea baizik ". (EusCor)
- (561) Egibarren aburuz, "Orejak egoera astintzeko, xaxatzeko agindua jaso du, Euskal Herrian **gertatzen** ari den prozesua nondik lehertuko den zain". (EG)
- (562) 1999ko apirilaren 11. Eguneko kronika beltzean, ezbeharrik larrienak Araban eta Bizkaian **gertatutako** hiru istripu izan ziren. (EG)
- (563) A - 3622 errepidean **gertatu** zen ezbeharra, Aiarako parean. (EG)
- (564) Ez da erraza Augustako Mastersean **gertatu** dena lerro batzuetan laburbiltzea; (EG)
- (565) Arlo juridikoari dagokionez, horrelakorik ez da inoiz **gertatu** Aljerian. (EG)
- (566) Berdin **gertatzen** da Galindoren kasuan. (EG)
- (567) Eta hala **gertatu** zen, nahiz eta langileak presaka ibili azken xehetasunak konpontzeko. (EG)
- (568) Ibarretxeren ekimena "txalotu" zuen Alcarazek, "**gertatzen** ari denaren errealitate zehatzena" baita. (EG)
- (569) Oso gauza bitxiak **gertatzen** ari dira, zeren eta muga erabat itxita zela uste baikenuen, eta orain ohartzen baigara ez dela hala; (EG)
- (570) Antolakuntza politiko hori medio sortzen da aurrerapen ideologikoa, besteetan ETArekin eta UPGrekin **gertatzen** den antzera. (EusCor)
- (571) Egun Mumia Abu Jamalekin **gertatzen** den gauza bera **gertatu** zen, are gogorrago, Chessmanekin. (EG)
- (572) Eta naturarekin **gertatzen** zaigun gauza bera **gertatzen** zaigu Ekaingo pinturekin: (EG)

Corpusean aurkitu ditugun ABS entitate guztiak abstraktuak dira, “gertatzen dena” ekintza bat edota ekintza baten ondorio bat izaten baita: *prozesu kimiko, erreakzio, prozesu, ezbehar, gauza bitxi, gauza bera, zer, amaiera negoziatu, akats tekniko, indarkeria ekintza, krimena, gehiegikeria, etapak, eraso, akordio...* Hala ere, adibideetan agertu ez diren arren (erabilera urriaren seinale) gizakiak ere zilegi dira (*egoera larrian gertatu ginen aldi hartan*).

INEk ABS entitatearen kokalekua adierazten du (esan behar da, hala ere, askotan, gure azterketatik at utzi dugun denborazko balioa duela). Arestiko aditzean ikusi dugun bezalaxe, kokaleku hau batzuetan abstraktua da ((566)). Bestalde, INErik gabeko erabilerak ere ageri dira bakanka ((567), (568), (569)), eta askotan beste Kasuak agertzen dira; SOZ askotan ((570), (571), (572)). Horrelakoetan, orduan, kokapena suposatuzat-edo eman beharko litzateke.

Kasu honetan SOZen balioa zehaztea ez da batere erraza. Badirudi “gertatzen dena” SOZ entitateari dagokiola, nolabait esatearren.

DATek ekintza zuzentzen zaion entitate biziduna adierazten du. Baina balio honetan ez dagoenez ekintza burutzen duen entitaterik, *helburua* baino *esperimentatzaile* zentzua hartzen du. Hala, SOZekin ikusi dugun balioaren antza du, baina hori ez da eragozpena DAT eta SOZ batera agertzeko ((572)). Badirudi bi Kasu hauek batera agertzen direnean, bi entitateen arteko ekintza baten ondorioz gertatzen dela gertatu beharrekoa. Hala, SOZ eta DAT, biak, *esperimentatzaile* gisa ikus litezke (Kasuen artean alternantzia osatu gabe).

INS ez da oso arrunta; ohikoena moduzko mendeko esaldi batez gauzatzea izaten da gainera (hemen aztergai ez duguna).

Beraz, esango dugu *gertatu* aditzak *bss* honetan zerbait nonbait izatea (gertatzea) adierazten duela; alegia, nolabait entitate baten kokapena adierazten da, baina entitate hori beti abstraktua denez, kokapen abstraktu gisa ulertu behar da. Horretarako parte-hartzaile nagusi bezala ABSz gauzatzen den *gaia* eta INEz gauzatzen den *kokapena* ditu.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

gertatu-DA-1: gaia_ABS; kokapena_INE

gertatu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Adibideak:

(573) "Azken 20 urteotan horrelako zerbait egiten den lehen aldia da", adierazi zuen, eta antolaketa apala izan arren [HURA] arrakastatsu gertatuko den itzaropena azaldu zuen. (EG)

(574) Akordioaren ontasuna defendatu du, "bake prozesuaren lagungarri" **gertatuko** baita [HURA] inoren aurkakoa izan gabe". (EG)

Bigarren balio honetan, esan dugun bezala, **ABSz** gauzaturiko osagai predikatibo bat ageri zaigu. Eta Zabalarri jarraituz, zehazki, "egoera mailako" predikazioa adierazten duten izenki-predikatuak ditu gunean¹⁶. Beste ABS entitatea, berriz, ageri zaigun adibide apurretan, abstraktua da. Adibide guztietan izaki bizigabeak agertu zaizkigu, baina bizidunak ere onargarri dira.

Horrelako izenki-predikatua agertzen denean, bestelako Kasuetarako leku gutxi dagoela dirudi. Goiko egon-DA-2n bezalaxe, jakin badakigu balio honetan INEk ere izan dezake lekua. Baina, horrelakoetan, leku abstraktu bat, jarduera bat adierazten du gehienetan, eta ekintzaren kokapena adierazten du (ez entitatearena): *bake-prozesua lagungarri gertatu da ekonomian*.

DATek, gertatu-DA-1en bezalaxe, ekintza esperimentatzen duen entitatea adierazten du; gainera, maiz samar agertzeko joera du.

Beraz, esango dugu *gertatuk* balio honetan entitate baten egoera adierazten dela, osagai semantiko gisa *gaia* (ez-konkretua) eta *egoera* dituela, biak ABSz gauzatuak.


Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

gertatu-DA-2: gaia_ABS; egoera_ABS

Planteatutako bi balio hauen bereizketa, hala ere, oso irristakorra da aldi bereko Kasuen debeku mailan.

- Datu estatistikoek INEren presentzia agerian jartzen dute; DATek, berriz, ez du maiztasun handiegirik:

¹⁶ Hemen berriz ere Zabalarren (1993) tesiari egin behar diogu erreferentzia, bertan aurkitzen baititugu *gertaturi* buruzko xehetasun gehiago; zehazki, 2.2.4.3 atalean.



DA	88,07%	DA-ins	2,68%	DA-ala	1,25%	DA-abl	1,94%	DA-abs	100,00%	DA-komp	7,77%	DA-soz	6,06%	DA-ine	36,49%				
DU	5,85%	DU-ins	0,41%	DU-ala	5,68%	DU-abl	3,23%	DU-abs	53,17%	DU-komp	8,03%	DU-soz	5,22%	DU-ine	30,58%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,14%	DIO-ins	0,38%	DIO-ala	1,45%	DIO-abl	0,45%	DIO-abs	70,91%	DIO-komp	2,36%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,02%	DIO-ine	70,67%	DIO-erg	100,00%
ZAIIO	5,94%	ZAIIO-ins	0,45%	ZAIIO-ala	0,23%	ZAIIO-abl	1,88%	ZAIIO-abs	100,00%	ZAIIO-komp	6,85%	ZAIIO-dat	100,00%	ZAIIO-soz	1,20%	ZAIIO-ine	17,65%		

3 ZAIIO laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak

Aditz bakarra dugu sorta honetan:

otu

Otu

otu-ZAIIO-0

Kasu azpikategorizatuak: ELA_KONP, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Adibideak:

(575) Maitasun ezak bakarrik izorratu zuen pailaso triste bat bihurtzeraino eta maiz **otutzen** zitzaion bere bizitza umetan lagun batek urez betetako botila batean ile bat sartu eta urte bete ondoren suge bihurtzen zela esan eta gertaezinaren zai igaro zuen sasoi hura bezelakoa zela. [HARI] (EusCor)

(576) Eta kanpanlore batek, estaminak korolaren kontra astinduz, izadiaren edertasuna ddanddaka aldarrika zezakeela otu zitzaion lez [HARI], kanpandorreko ezkiak Elizaren edertasuna aldarrikatu zutela bururatu zitzaion, zazpi koloretako hotsetan. (EusCor)

Aditz honek corpuseko adibide guztietan (urrietan esan dezagun, bide batez) **ELA_KONP** da erakusten duena. Horrek esan nahi du, kasu honetan zer abstraktu bat, ekintza bat, dugula aditzaren parte-hartzaile nagusietako bat. **DAT**ek, bere gunea beti gizakia izanik, konpletiboak adierazten duen ekintza hori esperimendatzen du. Hasiera batean, *konturaturen* parekoa dirudi, baina gure ustez han badago bat bateko erreakzio bat, hemen ez dagoena nahitaez. Zalantza izan dugu **ELA_KONP** *gai sortu* gisa eta **DAT** *iturri* bezala proposatzeko, **ELA_KONP**ek adierazten duen ekintza hori, **DAT**ek ekoizten duen ideia bat baita. Hala ere, **ELA_KONP** onartzen duten beste aditzekin parekatzearen, ez dugu aukera honen alde egin; izatez, haietan ere (adib. *esan, adierazi...*) benetan sortzea dugun zalantzarikoa da.

Gainontzeko Kasuen adibiderik ez dugu aurkitu corpusean, baina esan genezake, **SOZ**, **INS** eta **INE** ager daitezkeela beren ohiko balioetan. **SOZ**ek eta **INSE**k, hala ere, gehienetan kausa zentzuzko modua agertuko lukete (**SOZ**: *entzundakoarekin, berak ere gauza bera egin zezakeela otu zitzaion*; **INS** (gehlenetan, gainera, mendeko perpausetz): *behin eta berriz pentsatuz azkenean otu zitzaion berak ere gauza bera egin zezakeela*); azkenik, **INE**k gertaeraren kokapena adieraziko luke (*autobusean, eleberri bat idatziko zuela otu zitzaion*¹⁷), eta baita modua ere, askotan **DAT** entitatearen egoteko modua adieraziz (*lasaitasun ederrean otu zitzaion berak era ekintza hanker ura egin zezakeela*). Dena den, bai **INE**z bai **INSE**z gauzatutako moduak ez dirudite bat ere arruntak.


Beraz, esango dugu *otuk jarduera bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi gisa DATez gauzatzen den esperimendatzaile* gizaki bat eta **ELA_KONP**ez gauzatutako *gaia* dituela.

Bss-aren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

otu-ZAIO-0: esperimendatzailea [+giz]_DAT; gaia_ELA_KONP

- Datu estatistikoek erakusten digute azpikategorizatutak jotako bi Kasuak nabarmenak direla. Hala ere, gure adibideetan agertzen ez den **ABS** ere badagoela ikusten dugu. Hori, seguruenez, analizatzaile automatikoaren akatsen baten ondorio izango da.

¹⁷ Nahita jarri dugu hemen koma (alegia, “autobusean,”); izan ere, komarik gabe *idatziri* legokiokeela emango luke, hau da, “autobusean idatzi” eta ez “autobusean otu”. Halere, gertakizunaren kokalekua, hanpaturik ez dagonenean bederen, beti komaz bereizita egon beharko lukeela uste dugu, anbiguotasunak gorabehera. Orobat gertatzen zaigu **SOZ**ekin jarri dugun adibidean; hor ere, hanpatua ez dagoelarik behintzat, koma beharrezkoa da (alegia, “entzundakoarekin,”).



ZAI0	100,00%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-konp	100,00%	ZAI0-dat	100,00%
------	---------	----------	---------	-----------	---------	----------	---------

4 DIO laguntzailea bakarrik onartzen duten aditzak

Sail honetan aditz bakarra dugu:

dedikatu

dedikatu

dedikatu-DIO-0

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL

Azalpena

Adibideak: adibide gutxi ditugu aditz honetarako:

(577) "Hiri **dedikatu**a [NIK] [HURA]" esan diok isilkiro, eta isilkiro ere, gainerakoek himnoari ekiten dioten bitartean, kantari hasi haiz: Gizona izateko / izan zaitez arra,/ eta gizonagoak,/ kopetan izarra /. (EusCor)

(578) Euskal Herriko bertsozale guztiei **dedikatu** zieten [HAIEK] [HURA]. (EG)

Aditz honetan, **ERG** entitatea gizakia izan ohi da —edo honen ordeko entitate bat—, eta ekintza burutzen du. **DAT** entitatea ere gizakia izan ohi da —edo bederen biziduna—, eta ekintzaren *helburua* adierazten du. Hala, ERGek *abiapuntu* gisa jokatzeko du. Horrek esan nahi du elkarraldatze bat adierazten dela aditz honen bidez. ABSk, orduan, elkarraldatzen den *gaita* adierazten du, eta nahiz eta adibideetan ez agertu esplizituki, entitate bizigabea (konkretua nahiz abstraktua) behar duela izan dirudi. Entitate bizigabe hau askotan ERG entitateak sortua da, eta ondorioz, *sortzezko* jarduera gisa ikus genezake. Ordea, biak, *abiapuntua* eta *helburua*, daudenez osagai nabarmen bezala, gure ustez elkarraldatzea da

azpimarratu nahi dena aditz honen bidez. Esan dugun bezala, gainera, gaia ez du nahaitaez ERG entitateak sortu behar¹⁸.

Ikusten denez, ez dago aztergai ditugun beste kasuen presentziarik, baina gure ustez, **INEk**, **INSe** eta **SOZek** euren ohiko balioak izan ditzakete.


Azkenik, **ABL**ri dagokionez, ERG entitatearen kokalekua adieraziko lukeela dirudi (*Udaletxeko balkoitik dedikatu zizkigun irabazleak bere poesiak*).

Hortaz, esango dugu *dedikatu* aditzak entitate baten elkarraldatzea adierazten duela, osagai nagusi bezala, *abiapuntua*, *helburua* eta *gaia* dituela, ERGez, DATEz eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

dedikatu-DIO-0: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua [+biz]_DAT; gaia_ABS

- Datu estatistikoek erakusten digutenez, guk aztertu ez ditugun beste zenbait adibideetan *dedikaturen* beste balio semantikoa (zerbaitetara dedikatzearena) agertu da, ALAren presentziak halaxe erakusten baitu.



DA	33,33%	DA-ala	100,00%	DA-abs	100,00%
DU	33,33%	DU-erg	100,00%		
DIO	33,33%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%

¹⁸ Ikusten dugunez, guk aztertutako esaldietan ez dugu aurkitu aditz honek hiztegiatan ageri duen ‘zerbaitetara dedikatu’ balio semantikoaren adibiderik. Jakina, balio honek bestelako aditz laguntzailea eta Kasu-konbinazioak izango lituzke.

5 DA eta DU aditz laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak

5.1 Bi *bss* dituztenak

DA eta DU aditz laguntzaileak onartzen dituzten 34 aditzetatik 16 dira bi *bss* bakarrik ageri dituztenak, eta balio semantiko beraren alternantzia osatzen dute. Beraz, 5.1 sail honetan A multzoa bakarrik dugu. Hona aditzak:

besarkatu, bilakatu, existitu, ezkondu, haserretu, hautsi, hazi, hil, iritsi, isildu, jolastu, kezkatu, kokatu, mugitu, topatu, zintzilikatu

A multzoa: *bss*ak elkarren artean alternantzia

Aditz hauetan bi egiturek alternantzia osatu arren, alternantziak ez dira berdinak, eta horren arabera multzotxoak egin daitezke.

Zenbait aditzek, alternantzia kausatibo/inkoatiboa (*L* 1.1.2.1) erakusten dute. Horrek esan nahi du, DA-1 eta DU-2 *bss*en arteko desberdintasun bakarra ERG ez agertzea dela. Horrela markatu ditugu A azpimultzoaren barruan aztertuko ditugun ondorengo zazpi aditzak: *hautsi* (hautsi-DA-1/hautsi-DU-2), *hazi* (hazi-DA-1/hazi-DU-2), *hil* (hil-DA-1/hil-DU-2), *isildu* (isildu-DA-1/isildu-DU-2), *kokatu* (kokatu-DA-1/kokatu-DU-2), *mugitu* (mugitu-DA-1/mugitu-DU-2) eta *zintzilikatu* (zintzilikatu-DA-1/ zintzilikatu-DU-2). Hauek A.1 azpimultzoan aztertuko ditugu.

Hauen artean badira batzuk ERG eta ABSz gain, Kasu lokatibo bat azpikategorizatzen dute bi *bss*etan. Hori da *kokatu*, *mugitu* eta *zintzilikatu* aditzean gertatzen zaiguna. Hala izanik, hiru aditz hauek besteetatik bereizita azalduko ditugu; beste laurak, A.1.1 azpimultzoan eta hiru hauek A.1.2 azpimultzoan.

Beste batzuek ez dute alternantzia kausatibo/inkoatibo arrunta erakusten. Izan ere, DA erabileran *kausa* ez da desagertzen eta beste Kasu batez azpimarratzen da. Horrela markatu ditugu ondorengo bi aditz hauek: *haserretu* (haserretu-DA-1/haserretu-DU-2), *kezkatu* (kezkatu-DA-1/kezkatu-DU-2). Hauek A.2 azpimultzoan aztertuko ditugu.

Beste batzuetan DA-1en ABSk eta DU-2ren ERGek balio semantiko bera dute; eta DU-2 balioan ez da ABSrik onartzen. Horrelaxe markatu ditugu A.3 azpimultzoan aztertuko ditugun ondorengo bi aditzak: *existitu* (existitu-DA-1/existitu-DU-2) eta *jolastu* (jolastu-DA-1/jolastu-DU-2)¹⁹.

¹⁹ Hemen aipatu behar dugu aditz hauek *Hiztegi Batuan* (Euskaltzaindia 2000) jokaera bakarrekotzat — irangangaitza alegia— jotzen dituztela. Guk, ordea, nabarmendu nahi izan dugu corpusak bestelakorik erakusten

Gainontzeran, beste aditzetan desberdina da aurkitzen dugun fenomenoa. A.4 azpimultzoan barruan aztertuko ditugu horiek guztiak banan-banan. Azpimultzo honetan sartu ditugu: *besarkatu* (besarkatu-DA-1/besarkatu-DU-2), *bilakatu* (bilakatu-DA-1/bilakatu-DU-2), *ezkondu* (ezkondu-DA-1/ezkondu-DU-2), *iritsi* (iritsi-DA-1) eta *topatu* (topatu-DA-1/topatu-DU-2).

Besarkatuk kasuan, DA-1 eta DU-2 *bssek* Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (L 1.2.4) erakusten du.

Bilakatu eta *ezkondu* aditzetan, ERG sartzeaz gain, gauza gehiago ere badira.

Iritsik Preposizio lokatiboaren galera (L 1.4.1) erakusten du, eta *topatuk* “With” preposizioaren galera (L 1.4.2). Horretaz gain, *topatuk* beste bi alternantzia ere erakusten ditu: Alternantzia erreziproko sinplea (L 2.5.4), eta Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (L 1.2.4). Baina gogoan izan behar da, kasu hauetan ez ditugula alternantziaren bi aldaerak *bss* gisa landu; aldaera bakarra baizik.

Azal ditzagun, bada, sail honetako aditzak aipatutako azpimultzoetan.

A.1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa dutenak

hautsi, hazi, hil, isildu, kokatu, mugitu, zintzilikatu

Esan dugun bezala, A.1 multzo honen barruan A.1.1 eta A.1.2 azpimultzoak bereiziko ditugu.

A.1.1 Osagai lokatiborik azpikategorizatzen ez dutenak

Ondorengo lau aditzak ditugu hemen:

hautsi, hazi, hil, isildu

Aditz hauek DU-1 eta DU-2 *bssetan* ondoko Kasu azpikategorizatuak eta Kasu onartugabeak dituzte:

DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Onartzen ez dituzten kasuak: ERG, ELA_KONP, ALA

duela. Horren arrazoiak zeintzuk diren gorabehera, guk jokaera bikoitza argitan jarri baino ez dugu nahi izan. Horren inguruan badira lanak, besteak beste jadanik aipatua dugun Alberdirena (2001).

DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Onartzen ez dituzten kasuak: ELA_KONP, ALA

Kasuen onartuen artean, ordea, badira diferentzia batzuk: denek onartzen dituzte INE, INS, SOZ eta DAT. ABL, berriz, *hautsik* bakarrik onartzen du; beraz, beste aditzetan ABL ez-onartuen artean jarri beharko genuke.

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (579) EAJri Eugene Goyhenechek zion leialtasuna inoiz ez zen **hautsi**; (EusCor)
- (580) Zigorra ezarriz lortu nahi da urratzailea edo beste urratzaile potentzialak ikaratzea araua berriz **hautsi** ez dezaten: [HAIEK] (EusCor)
- (581) Dycek ordea, inertzia hori [HARK] **hautsi** nahi izan du "konplexurik gabeko jendearentzat" esaldiarekin, eta hiru gizaseme aurkezten ditu, gantzez ederki asko hornituak. (EusCor)
- (582) Adibidez, misterioz betetako "Grito en el mar" ilun, ia goibel horretan, Kantauri itsasoko ura labarriko haitz beltzen aurka burrunbaz **hausten** eta, oldarraldi horretan, aparrezko hodei handiak jaurtitzen ikusteak, zera esatera bultzatzen du narratzailea. (EusCor)
- (583) Fruitu hauek, inguruko zuhaitzetan **hazten** dira. (EusCor)
- (584) Zernahi modutara, eta emeki-emeki, euskal-amerikar familia **hazi** zen. (EusCor)
- (585) Behiak, zerriak eta ahuntzak ere **hazten** zituzten. [HAIEK] (EusCor)
- (586) - Triste al hago [HURA] **hil** zelako?— galdetzen dio Juttak. (EusCor)
- (587) Bi tiroz hil zuten. [HAIEK] [HURA] (EusCor)
- (588) Kopuru horri **hildako** postak (ETAK Sabadellen **hildako** seiak ez daude datu horietan) eta eragozpen fisikoengatik jubilatutako zazpiak kendu behar zaizkio. (EusCor)
- (589) Eta gorputzak, bere zikloa betetzerakoan, **hil** behar bazuen ere, ez zen angustiaz **hiltzen** [HURA], guztia bait zen izadiaren makina perfektu horren osagarri. (EusCor)
- (590) Etengabeko borrokan arituko da bere amarekin egin behar dizkion bisitei buruz eta, amak derrigorrean eraman nahi badu beste leku batzuetara, pozoin hartzearekin, [HURA] gosez **hiltzearekin**, puinal bat sartzearekin edo urkatzearekin egingo du mehatxu. (EusCor)
- (591) "Agenda bi mila", "suntsipenaren bila" eta "Tratu bera guztientzat" moduko oihuak ez ziren **isildu** ibilbide osoan. (EusCor)
- (592) Eskailerak igo, itxuratik lekorerara irristatzen zen sokari tira eta atearen kirrika **isildu** zenean barruan zeuden. (EusCor)
- (593) Bidegabekeriak ezin isil dezake quintasunez mantentzen den euskal ahotsa. (EG)

Alternantzia kausatibo/inkoatiboa aztertu dugunean esan dugunari jarraiki, aditz hauetan ERGek *kausa* agentibo edo kausatiboa adierazten du. ABSk, berriz, bi *bssetan*, ekintza horren ondorioz *ukitua* den *gaia* adierazten du. ABS entitatea, *hautsi* aditzean izan ezik, askotan izaki biziduna da, baina badira izaki abstraktuak ere, batez ere *isildu* eta *hautsi* aditzetan ((591), (592), (593)). *Hautsi* aditzean, horretaz gain, izaki bizigabe konkretuak

ageri dira ((582)). *Hil* aditzean, berriz, izaki bizidunak izan behar direla dirudi. *Hazi* aditzean, azkenik, DU *bssan* normalean izaki bizidunak ditugu.

ERG entitatea gizakia denean, bestelako Kasuek modu desberdinak adieraz ditzakete; alegia, ekintza egiteko erabilitako tresna edo oro har bitartekoa ((587): *bi tiroz*; (581): "*konplexurik gabeko jendearentzat*" *esaldiarekin*). Ordea, ERG kausatiboa denean (Jabe-subjektua alternantzian (L 2.13.4) eta Kausa abstraktuzko subjektuaren alternantzian (L 3.4) ikusi dugun bezala), gizakia ez den bestelako entitateak onartzen ditu, eta orduan, beste Kasuek —esaterako, **INSEK** edo **SOZEK**— ezin dituzte moduak (baliabidea, tresna) adierazi. Berreskura ditzagun adibide batzuk:

(581) Dycek ordea, inertzia hori [HARK] **hautsi** nahi izan du " konplexurik gabeko jendearentzat " *esaldiarekin*, eta hiru gizaseme aurkezten ditu, gantzez ederki asko hornituak. MODUA: BALIABIDEA EDO BITARTEKOA, SOZ-EZ GAUZATUA (EusCor)

(589) Eta gorputzak, bere zikloa betetzerakoan, **hil** behar bazuen ere, ez zen angustiaz hiltzen, guztia bait zen izadiaren makina perfektu horren osagarri. MODUA: KAUSA, INS-EZ GAUZATUA (EusCor)

(590) Etengabeko borrokan arituko da bere amarekin egin behar dizkion bisitei buruz eta, amak derrigorrean eraman nahi badu beste leku batzuetara, pozoin hartzearekin, gosez hiltzearekin, puinal bat sartzearekin edo urkatzearekin egingo du mehatxu. MODUA: KAUSA, INS-EZ GAUZATUA (EusCor)

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE** ekintza egiteko modua eta ekintzaren (588), ((591)) nahiz ABS entitatearen kokapena ((583)) adieraz dezake. *Isildu* eta *hazi* aditzetan, hala ere, ABS entitatearen kokapen zehatza eta ekintzarena ez dira bereizten.

DATek ABS entitatearekiko jabetzazko harremanaren adierazten duela dirudi, nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu. Entitate hau gorputz-atal bat denean, jabetza berariazkoa da (*hanka/besoa hautsi zaio*; *oina hazi zaio*). *Hil* eta *isildu* aditzek, ordea, ABSn ezin dituzte horrelako entitateak izan.

Hala ere, jabetzazko harreman hau ez da bakarrik agertzen DATen presentzian. Izan ere, DU-2 *bssan*, ABS entitatea gorputz-atala denean, ERG entitatearekikoa da jabetza hori (*besoa hautsi du*). Jabetza ERG entitatearekikoa ez dela adierazteko normalena DAT erabiltzea da, edo gutxiagotan izenlagun posesibo bat (*mahaiaren hanka hautsi zuen*). Kasu hauetan, orduan, *gai ukitua* gorputz-atala denez, ERG ere — honen jabea izaki— nolabait *gai ukitu* bihurtzen da, eta *kausaa* balioa galtzen du. Bestela esanda, horrelakoetan *kausaa* perpausetik kanpo edo adierazi gabe geratzen dela dirudi (adib.: *hanka hautsi zuen* [beste pertsona batek bultzatu zuelako eta erori egin zelako]). Beraz, erabilera hauek DU-2 *bssaren* barruan salbuespen lirateke *kausaa* osagaiari buruz orokorrean esan dugunarekiko. Ikusi dugun bezala, hala ere, aditz guztiek ez dute gaitasuna gorputz-atalak onartzeko ABSn, eta aditz horiek, orduan, ez dirudi jabetza-erlazioa adieraz dezaketenik ERG eta ABS entitateen artean. *Hazi* aditzaren kasuan, DA-1 *bssan* gorputz-atalak onargarriak dira ABSn; ez, ordea, DU-2 *bssan*. Hain zuzen, esan dugun bezala, *hazik* normalean ez du onartzen biziduna ez den entitaterik ABSn.

Azkenik, **ABL**ri dagokionez, esan dugun bezala, *hautsik* bakarrik onar dezake, eta ABS entitatearen hauste-kokagunea adierazten du, nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu.

Sorta honetan aztertu ditugun aditz guztiek entitate baten egoera-aldaketa adierazten dute, parte-hartzaile nagusi bezala egoera-aldaketa jasaten duen *gai ukitua*, ABSz gauzatua, eta aldaketa horren *kausa*, ERGez gauzatua, dituela. Aldaeretako batean *kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

isildu/hazi-DA-1: gai ukitua_ABS


hautsi-DA-1: gai ukitua [-biz]_ABS

hil-DA-1: gai ukitua [+biz]_ABS

DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS (salbuespena: ABSren gunea gorputz-atala denean)


- Hona lau aditzon datu estatistikoak:

hautsi: datu estatistikoek erakusten dutenez, aditz honetan DU-2 *bssa* da maiztasun handienekoa.




DA	19,10%	DA-abs	100,00%	DA-komp	1,18%	DA-ine	10,65%	DA-soz	8,88%				
DU	79,84%	DU-abs	73,13%	DU-komp	2,52%	DIO-soz	6,28%	DU-soz	16,19%	DU-ine	11,55%	DU-erg	100,00%
DIO	1,06%	DIO-abs	87,99%	DIO-komp	1,82%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	4,47%	DIO-erg	100,00%		

Hazi: hemen, berriz, DA-1 *bssa* da maiztasun handienekoa, eta, bestetik, INE da ABSren ondoren gehien gailentzen den Kasua.




DA	83,87%	DA-ins	9,34%	DA-ala	1,92%	DA-abl	7,55%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,77%	DA-soz	1,92%	DA-ine	38,05%
DU	16,13%	DU-ins	1,43%	DU-ala	0,71%	DU-abl	32,86%	DU-ine	2,14%	DU-soz	10,00%	DU-erg	100,00%		

Hil: Aditz honetan bi *bs*sek antzeko maiztasuna dute, eta hemen ere INE nahiko maiz ageri da.



DA	56,26%	DA-ins	11,14%	DA-ala	3,16%	DA-abl	3,75%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,22%	DA-soz	0,54%	DA-ine	30,37%				
DU	41,74%	DU-ins	5,89%	DU-ala	0,72%	DU-abl	0,92%	DU-abs	49,88%	DU-komp	4,94%	DU-soz	1,59%	DU-ine	20,77%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,24%	DIO-ins	0,48%	DIO-ala	0,21%	DIO-abl	0,14%	DIO-abs	39,83%	DIO-komp	7,75%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,14%	DIO-ine	31,33%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	0,77%	ZAIO-ins	0,51%	ZAIO-ala	0,22%	ZAIO-abl	0,15%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	7,93%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,15%	ZAIO-ine	27,17%		

Isildu: Aditz honetan ere bi *bs*sek maiztasun paretsua dute.



DA	36,40%	DA-abs	100,00%	DA-ine	16,16%		
DU	57,54%	DU-abs	68,05%	DU-erg	100,00%		
ZAIO	6,07%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ine	48,48%

A.1.2 Osagai lokatibo bat azpikategorizatzen dutenak

kokatu, mugitu, zintzilikatu

Multzo honetan ageri diren hiru aditzetan Kasu lokatibo azpikategorizatua desberdina denez, banan-banan aztertuko ditugu.

Kokatu

kokatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

kokatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak bi bissetan: INS, SOZ, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (594) Bestalde, gizabanako edo indibiduoaren filosofia hau nolabait sustrai leibniztarretako munduaren ikuskera unibertsal batean kokatzen da: (EusCor)
- (595) Gure ustez, Pasaiako badian, aurreneko bizileku iraunkorrak badiaren bi muturretan kokatu ziren, Lezon eta Herreran, han egin zitezkeen eta itsasontzientzako babeslekurik seguruenak. (EusCor)
- (596) Arrautza bakoitza bere aldetik **kokatzen** da umetokian eta bi haurtxo hasten dira garatzen. (EusCor)
- (597) Maskorren %81.2 oinzoletan kokatu zen, eta gainontzeko % 18.8 oin-alboetan, % 37 anizkuna zelarrik. (EusCor)
- (598) Ikuspegi horretan kokatzen da Barthes-en lehen liburua Idazkuntzaren zero gradua (1953), 1947 eta 1950 bitartean Combat aldizkarian agertutako artikulu batzuk jasotzen dituenak. (EusCor)
- (599) Hurrengo orrialdean datorren Euskal Herriko mendien mapa horretan identifika eta **koka** itzazu mendiak, mendilerroak etab. [ZUK] (EusCor)
- (600) **Koka** itzazu zuzenean ibilbide honen puntuak: [ZUK] (EusCor)
- (601) Amsterdam-en edo Argentinan kokaturiko narrazio bat sinesgarria gerta balekigu ere, agian ez genuke sinestuko Euskal Herriko herri txiki batean kokatuko bagenu. [HURA] [GUK] (EusCor)

(602) Komunikabideak eta publizitatea, oro har, gauza bakar batean datoz bat, alegia, emakumezkoen estereotipo bat sobera erabiltzean, eta gehiegikeria hori ez da gertatzen modelo gizona edo argala aurkeztearekin, gehiegikeria gertatzen da neurritz kanpoko garrantzia ematen zaionean emakumearen gorputzari, ohiko rolean [HAIEK] [HURA] **kokatzen** dutenean, bigarren mailako gizakitzat hartzen dutenean, erabakiak hartzen dituzten taldeetatik eta esparru guztietan partaide izatek baztertuta aurkitzen denean eta bere pertsonarenganako errespetoa beti ere egoera zibilari eta amatasunari lotuta dagoenean. (EusCor)

Aditz honetan azpikategorizatzen den **INEk** ABS entitatearen *helburuko kokapena* adierazten du. Beste Kasu azpikategorizatuak, ERG eta ABS, desplazamenduaren *kausa* eta desplazatzen den *gai ukitua* adierazten dute.

Adibideek erakusten digutenez, ERG entitatea gizakia da; ABS entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke, baina adibideetan ez zaigu izaki bizidunik agertu. Bestalde, argi dago kokapena abstraktua izan daitekeela, batzuetan INEren gunea eta bestetan ABSrena baita abstraktua.

Ikusten denez, aditz honetan *helburuko kokapena* agertzen delarik, ezinezkoa da *abiapuntu*ko kokapena adierazten duen Kasurik agertzea. Hala izanik, pentsa daiteke *kausa* adierazten duen ERGek berak adierazten duela hori. Baina, gai desplazatua batzuetan *kausak* berak bere baitan izan badezake ere (eta, hortaz, bera delarik *abiapuntua*), normalena da beste leku batean egonik, handik hartua eta gero eramana izatea. Horregatik, aditz hau salbuespen litzateke *helburuko kokapena* egonik *abiapuntu*ko kokapena onar dezaketen aditzen artean. Gauza bera esan dugu *landatu* aditzean (eta baita *bisitature*nean ere).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSEk** eta **SOZEK** ohiko balioak onar ditzakete, nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu.

DATek, azkenik, INE entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela dirudi, baina esan behar dela ez da oso arrunta.


Honenbestez, esango dugu *kokatu* aditzak entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala kokapen-aldaketa jasaten duen *gai ukitua*, ABSz gauzatua, aldaketa horren *kausa*, ERGez gauzatua eta entitate desplazatuaren *helburuko kokapena* INEz gauzatua, dituela. Aldaerretako batean *kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

kokatu-DA-1: gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_INE

kokatu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_INE

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute aditz honetan INEk duen indarra.



DA	46,37%	DA-ins	0,33%	DA-ala	0,33%	DA-abl	7,59%	DA-abs	100,00%	DA-konp	1,39%	DA-ine	74,22%		
DU	53,63%	DU-ins	0,33%	DU-ala	0,95%	DU-abl	5,24%	DU-abs	42,88%	DU-konp	8,13%	DU-ine	74,43%	DU-erg	100,00%

Mugitu

mugitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

mugitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak bi *bssetan*: INS, SOZ, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (603) Izan ere, basamortuak eta lurralde izoztuak bezalako planetako zenbait lurralde oso berezi kenduta, grabitatearen eraginez **mugitzen** diren ur-korronteak dira erliebeko harrien, eta, beraz, erliebearen beraren, higatzaile nagusiak. (EusCor)
- (604) Ez gara egun osoan telefono-ondotik **mugituko** [GU], badaezpada ere (EusCor)
- (605) Kopernikoren hipotesia zuzena zela esan zuen Galileok, Lurra ere **mugitu** egiten dela, alegia, eta eguzkiaren inguruan jiraka dabilela. (EusCor)
- (606) Nahi izan ez bazenu, ez zinen **mugitu** ere egingo. [ZU] (EusCor)
- (607) Gure toraxa gora eta behera **mugitzen** da etengabe; (EusCor)
- (608) Alde batetik bestera **mugitzen** zen [HURA], marmarrean, eta noizean behin mahai baten zeukan botilatik zurrutada bat edaten zuen. (EusCor)
- (609) Eta artaldeak zainduz, kostaldetik barru aldeko mendietara **mugitu** ziren. [HAIEK] (EusCor)
- (610) Beti **mugitzen** [NORBAIT], inoiz ere ez toki berean. (EusCor)

- (611) Edo erlamando bat, edo txitxiburduntzi bat, edo marraskilo bat ... la **mugitzen** den guztia hel daiteke buztanzuri arruntaren mahaira. (EusCor)
- (612) Txabolan ontzen direneko garaian, gaztak egunero zentimetro batzuk desplazatzen dira eta arreta handiz konturatu naiz [HAI EK] ezkerretik eskuinera (erloju-orratzen norantz) eta beheko apaletik hurrengo gainekora **mugitzen** direla. (EusCor)
- (613) Proba ugari egin arren, han ez zen ezer **mugitzen**. (EusCor)
- (614) Ero batek bakarrik baieztatu zezakeen hain setati Alaskako horma-erlojuetako orratzak **mugitzen** zirela. (EusCor)
- (615) Sabaiko bonbilak pendulariki **mugitzen** ziren pasiloan norbait oinez ibiltzen zen bakoitzean. (EusCor)
- (616) Eskua luzatu eta zaldizkoa **mugitu** nuen [NIK]; (EusCor)
- (617) Hala, haizeak laborea **mugitzen** duenean, nekazariak esan ohi dute "otsoa dabil labore artean", "zekale otsoa lasterka doa soroan zehar", "otsoa labore artean dago", "zakur eroa laborean dago", "zakur handia han dago". (EusCor)
- (618) Beste gizonak ez bezala, hauek Lifengana hurbildu behar izaten baitzuten, Lifen begiek aretoa hiru aldiz kurritu zutenean, Lesego tinko mantendu zen, astiro-astiro burua **mugitu** zuen [HARK] eta atzeruntz bultzatu zuen, isilka zera aginduz: (EusCor)
- (619) Begi berdeak dauzkat, baina zu bezalako gizon baten premiaz kilikaturik nagoenean more bihurtzen zaizkit, orain zure zakiltzar horren burua more egongo den bezala, atera ezazu kanpora, kuttuntxo, orain bai, eta heldu eskuarekin barren-barreterekin, sendo, nire eskua da eta gora eta behera **mugituz** [NIK] [HURA] zure zakilari behar duen gustua ematen ari zaiona. (EusCor)
- (620) Artean oihaletako ume gorria, nik besoetan hartu orduko, esku txikiak **mugitzen** zituen [HARK] airean eta ez zuen etsitzen, harik eta bere hatzak nire lepoko urrezko katean korapilatu arte. (EusCor)
- (621) Adreiluei bueltak eman eta [HAI EK] ezker-eskumatarara **mugitu** (ZUK/ZUEK), ahalik eta egokien kokatzeko, ahal delarik lehenagotik eroritako adreiluekin behean sortzen diren hutsuneak estaliz. (EusCor)
- (622) Aparatu hau itsasuntzien atzeko aldean dago eta motoreek **mugitzen** dute [HURA]. (EusCor)
- (623) Beste gizonak ez bezala, hauek Lifengana hurbildu behar izaten baitzuten, Lifen begiek aretoa hiru aldiz kurritu zutenean, Lesego tinko mantendu zen, astiro-astiro burua **mugitu** zuen [HARK] eta atzeruntz bultzatu zuen, isilka zera aginduz: (EusCor)
- (624) Ezpainak **mugitu** zitzaizkion [HARI]. (EusCor)
- (625) Geldi hor, orratzak **mugitu** dizkidazue [ZUEK] [NIRI]. (EusCor)

Aditz honetan bi dira **ERGez** eta **ABSz** gain nabarmentzen diren Kasu lokatiboak: **ABL** eta **ALA**, eta aditzak adierazten duen ekintzan *abiapuntu*ko *kokapena* eta *helburuko kokapena* adierazten dute, hurrenez hurren. **ABLk**, oso arrunta ez bada ere, bidea ere adieraz dezake (adibideetan ez zaigu bat ere agertu). **ERGek**, berriz, ekintzaren *kausa* adierazten du, eta **ABSk** desplazatzen den gaia, *gai ukitua*, alegia.

Kontuan izan behar da, hala ere, *mugituk* bi mugitzeko era adierazten dituela: batetik, gaiaren kokapen-aldaketa —alegia, desplazamendua—, eta bestetik, gaiaren baitan gertatzen den mugimendua²⁰.

²⁰ Izatez, autoreek ez dituzte gauza beratzat jotzen mugimendua eta desplazamendua. Mugimenduaren eta desplazamenduaren arteko bereizketaz xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo bedi ondoko autoreen lanetara: Dervillez-Bastuji (1982), Vanderloise (1987), Jackendoff (1990), Cienfuentes (1999) eta Lamiroy (1991).

ABS entitatea biziduna denean, bi kontzeptu hauek ABLren edo/eta ALAren presentziak markatzen dituela dirudi. Hots, horrelakorik agertzen ez denean, mugimendua *bere baitan* gertatzen dela ematen du. Aldiz, ABS entitatea ez denean biziduna, askotan entitate horren izaeraren baitan dago bata edo bestea izatea. Izan ere, zenbait elementuk, mugimendu eta kokapen jakin bat dute berez. Esaterako, *orratzak* “puntu finko batetik eskuinetik ezkertera” mugitzen dira; *Lurra* ((605)) “bere baitan” mugitzen da, eta baita eguzkiaren inguruan (desplazatuz, alegia); *sabaiko bonbilak* ((615)) “alde batetik bestera”, alegia, adibidean ageri den moduan, *pendularki*; *toraxa* ((607)) “gora eta behera”, adibideak dioen bezala; eta abar. Beraz, *orratzek*, nahiz eta puntu finko batean helduta egon, nolabaiteko desplazamendua egiten dute (baina ez da ez ABL ez ALA agertu beharrik hori ulertzeko); *lurra* bere baitan nahiz eguzkiaren inguruan mugitzen da, beraz, bata edo bestea den zehazteko, testuinguruan esplizitu ageri behar dira “bere baitan” ala “eguzkiaren inguruan”. Inolako mugimendu jakinik ez duten entitateek, berriz, gizakien kasuan bezalaxe, bi kontzeptuak adieraz ditzakete, eta seguruenez, desplazamendua adierazteko ABL edo/eta ALA agertzea beharrezkoa izango da. Izatez mugimendu jakin bat duten entitateek beste mugimendu mota bat egiten dutenean, orduan esaldian esplizituki agertu behar da arrunta ez den mugimendu hori.

Beraz, esan daiteke kontzeptu bata edo bestea adieraztea, neurri handi batean ABS entitatearen izaeraren baitan dagoela. Baina, hala ere, badira esaldiko testuinguruaren bidez, edota, areago, ezagutza pragmatikoarekin bakarrik jakin daitezkeenak. Berrius ditzagun adibide batzuk:

(610) Beti **mugitzen** [NORBAIT], inoiz ere ez toki berean. “ALDE BATETIK BESTERA” (EusCor)

(611) Edo erlamando bat, edo txitxiburduntzi bat, edo marraskilo bat ... la **mugitzen** den guztia hel daiteke buztanzuri arruntaren mahaira. “ALDE BATETIK BESTERA” EDO BIAK, SEGURUENEZ. (EusCor)

(617) Hala, haizeak laborea **mugitzen** duenean, nekazariak esan ohi dute "otsoa dabil labore artean", "zekale otsoa lasterka doa soroan zehar", "otsoa labore artean dago", "zakur eroa laborean dago", "zakur handia han dago". LABOREA “BERE BAITAN” MUGITZEN DA, EZ DA DESPLAZATZEN, TESTUINGURU HONETAN BEDEREN (EusCor)

Orokortasunari begira, ABL edo/eta ALAren presentziak desplazamendua adierazten duela, eta hauek ageri ez direnean, elementuaren baitako mugimendua adierazten dela esango dugu. Hori adierazteko, hala ere, ez ditugu bi aparteko *bss* markatu, baizik eta ABL eta ALA Kasu azpikategorizatu diren *bss* bakarrean. Hauek agertzen ez direnean, orotariko fenomenoak jokoan direla ikusi dugu.

INSEk eta SOZEK ekintza egiteko/gertatzeko modua adieraz dezakete, modu hau, erabilera iragangaitzean, kausa eitekoa izan daitekeelarik ((603): *grabitatearen eraginez*). INEK, ABS entitatearen kokapena adierazten du askotan, eta mugimenduaren eremua

mugutzen du ((610)). Modua ere adieraz dezake, ohi bezala; (608) adibidean, zehazki ABS entitatea dagoen modua adierazten du.

DATEk, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten duela dirudi ((624), 625)).


Esan dugun bezala, *mugitu* aditzak entitate baten kokapen-aldaketa adierazten du, parte-hartzaile bezala mugimendua eragiten duen *kausa*, mugitzen den *gai ukitua*, eta *abiapuntuko kokapena / bidea* adierazten duen ABL eta *helburuko kokapena* adierazten duen ALA dituela. Bss batean *kausa* ergatiboa ez da ageri.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

mugitu-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

mugitu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

- Datu estatistikoek iradokitzen digutenez, ABL eta ALA ez dira oso maiz ageri.



DA	67,88%	DA-ins	6,81%	DA-ala	4,51%	DA-abl	5,66%	DA-abs	100,00%	DA-komp	0,84%	DA-ine	19,69%		
DU	27,52%	DU-ins	8,56%	DU-ala	2,88%	DU-abl	2,88%	DU-abs	57,82%	DU-komp	3,56%	DU-ine	10,73%	DU-erg	100,00%
ZAI	4,60%	ZAI-ins	1,08%	ZAI-ala	1,08%	ZAI-abl	18,06%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	0,27%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-ine	18,87%

Zintzilikatu

zintzilikatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

zintzilikatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak bi *bssetan*: INS, SOZ, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide (ez ditugu asko aurkitu, hala ere):

(626) Esaldi famatuko margarita horiek loreak direla uste du jende askok, baina garai batean emakumeek lepotik zintzilikatzen zuten perla-klase bati deitzen zitzaion margarita. (EusCor)

(627) Leku batetik [NORBAIT] zintzilikatuta eta oinekin lurra ukitu gabe gorputza mugitzea da. (EusCor)

(628) Amaitzeko garezurraren gainetik soka luze bat pasatzen zen, burua [NORBAITEK] zintzilikatzeko. (EusCor)

Zintzilikatu aditzean, **ERGez** eta **ABSz** gain, **ABL** azpikategorizatzen da. ABLk ABS entitatearen *helburuko kokapena* adierazten du; baina kokapen hori modu espezifiko batean gertatzen da: puntu jakin batetik “zintzilik”, hau da, oinarririk gabe dagoela. Kokapenaldaketa izanik, ERGez *kausa* eta ABSk *gai ukitua* adierazten dute. ERG entitatea gehienetan gizakia da, baina izaki bizigabeak ere (abstraktuak batez ere) onargarriak izan daitezke. ABS entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke, baina agian izaki abstraktuak dira ez-arruntenak. *Kokatu* aditzean ikusi dugun bezala, aditz honetan *helburuko kokapena* agertzen delarik, ezinezkoa da *abiapuntuko kokapena* adierazten duen Kasurik agertzea. Horregatik, aditz hartan esan dugunarekin bat, aditz hau beste salbuespen bat da *helburuko kokapena* onarturik *abiapuntuko kokapena* onartzen duten aditzekiko.

INEk ere ABS entitatearen kokapena adieraz dezake, baina honakoan beste modu batekoa da kokapen hori: entitatea oinarri batean-edo dagoela. Adibide asmatuetara joaz: *lanpara batzuk sabaitik zintzilikatu dituzte; Baloia sabaian zintzilikatu genuen; festan etxeko balkoitik zintzilikatu ginen*). Hala ere, batzuetan gauza bera adierazteko bata zein bestea erabiltzen da (*perla lepotik/lepoan zintzilikatu zuen*). Hala ere, bi Kasu hauen agerpena zintzilikatzen den entitatearen izaeraren baitan dago, eta ezin da orokorrean alternantzia bezala planteatu; kasuan kasu aztertzekoa litzateke.

Horretaz gain, **INEk**, ohi bezala, kokapen orokorrago bat ere adieraz dezake, (*festan, esaterako*).

INSi eta **SOZi** dagokionez, beren ohiko moduzko balioaz ager daitezke, nahiz eta ez dugun adibiderik aurkitu.

Azkenik, **DATi** dagokionez, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten duela dirudi.


Honenbestez, esango dugu *zintzilikatu* aditzak entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala kokapen-aldaketa jasaten duen *gai ukitua*, ABSz gauzatua, aldaketa horren *kausa*, ERGez gauzatua, eta entitate desplazatuaren *helburuko kokapena*, ABLz gauzatua, dituela. Aldaerretako batean *kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssan Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

zintzilikatu-DA-1: gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_ABL

zintzilikatu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_ABL

- Datu estatistikoetan argi geratzen da ABLk duen nagusitasuna.



DA	55,56%	DA-ins	2,94%	DA-abl	38,24%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,94%	DA-ine	35,88%		
DU	44,44%	DU-ins	2,94%	DU-abl	18,38%	DU-abs	48,53%	DU-komp	2,94%	DU-ine	21,32%	DU-erg	100,00%

A.2 Alternantzia kausatibo/inkoatibo arrunta ez dutenak

kezkatu, haserretu

Esan dugun bezala, aditz hauetan DU-2 bssan ERGez adierazten duen *kausa*, DA-1 bssan beste Kasu batek adierazten du. Bi aditzetan Kasua desberdina denez, aparte azalduko ditugu.

Kezkatu

kezkatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

kzkatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (629) Han ziren beste bi euskal presoak De Juanaren egoeraz kezkatu ziren, burua handitzen ari baitzitzaion, ez baitzuen ikusten eta ubeldurak nabarmenak baitziren. (EG)
- (630) Euskal Herrian bizi den egoera politikoak ez zaitu kezkatzen [ZU], edo beldurtzen hautetsi batzuk agertzen duten gisara? (EG)
- (631) [NI] Kezkatzen naute irenstailleek, horiek direlako arazoak sortzen dituztenak. (EG)
- (632) Metxa boluntario doa espetxeetara, "eta hori alde batetik bera harro sentitzeko moduko gauza da", baina bestalde [HORREK] kezkatu egiten du [HURA], gizarte honek horrelakorik ez duela merezi uste baitu, " eta gizarte honen produkturik onenak kartzelan daudela". (EG)
- (633) [GU] Asko kezkatzen gaitu gure erakunde subiranoek hartzen dituzten erabakiak auzitan jartzeak. (EG)
- (634) Konstituzioa eta Estatutua balio ez dutelakoan deskalifikatzeak kezkatu egingo ninduke [NI]. (EG)
- (635) Abertzaleen batasunak kezkatzen ditu [HAIEK], hain zuzen. (EG)

Kezkatu aditzean, INS da DA-1 *bssan kausa* adierazten duen Kasua²¹. INS entitatea normalean zer abstraktu bat da, baina izaki bizidunak —ia gehienetan gizakiak— ere onargarri dira. Orobat esan daiteke ERG entitateez. ABS entitatea, berriz, beti gizakia da. Hala, aditz honek gizaki batek jasaten duen egoera psikologikoaren aldaketa adierazten duela esan daiteke.

DA-1 *bssan* INSek *kausa* balio izanik, balio berori adieraz dezaketen beste Kasuak —SOZek, alegia— gaitasun hori galtzen du. Eta moduzko beste balioak —hala nola, tresna, bitartekoa, konpainia— ere oso arraroak dira.

INEk ekintzaren kokapena adieraziko luke.

DAT ez dugu aditz honetan onartu, baina berezitasun batengatik: badirudi DATek aditz honetan INSekin ikusi dugun balio antzeko duela, hau da, *kausarena*. Horregatik aldi berekotasunean arazoak sortzen dira:

*Ama nitaz kezkatu da / *Ama nitaz kezkatu zait / Ama kezkatu zait*

*Laguna nitaz kezkatu da / *Laguna nitaz kezkatu zait / Laguna kezkatu zait*

²¹ Jakin badakigu INSen ordez SOZ ager daitekeela. Hala ere, euskalki desberdinei zor zaion erabilera da; horregatik ez dugu kontuan hartu alternantzia bat planteatzeko garaian.

Honek DAT eta INSen artean alternantzia bat osatzera eramán gintzake. Baina, argi dago, DAT *kausa* izan ala ez, ABS entitatearekiko jabetzako harreman baten berri ematen duela, eta orduan bi gauzak —*kausa* eta jabetza-harremana— azpimarratu nahi direla. Hala ere, adibide gahiagoren aurrean aztertu beharreko kontua da; hemen, besterik gabe, gure intuizioak aipatu baino ez ditugu egin. Nolanahi ere, DAT ez onartzeko arrazoi nagusia da INS Kasu azpikategorizatuen artean jarri dugula, eta Kasu honekin batera agertzea ezinezkoa dela.

Esan behar da aurkitu ditugun adibideetan egitura iragankorra dela gailentzen dena; eta gainera, ERG aditz-izenez osatutako mendeko bat izan ohi da askotan (guk hemen aztergai ez duguna berez: (633), (634)).

Egitura iragangaitzekoak, berriz, *egon* aditzarekin eta partizipioz osatuak askozaz ere arruntagoak dira:

(636) Turkiak kanpoko diplomatikoak deitu zituen atzo, kanpoan dauden turkiarren segurtasunaz kezkatuta. (EG)

(637) Merkatuek behea jo dute, Hego Amerikako estatu handiko erreformen arrakastaz kezkaturik. (EG)


Honenbestez, esango dugu *kezkatu* aditzak entitate gizaki baten egoera psikologikoaren aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala *kausa* eta *gai ukitu* [+giz] dituela. Aldaera batean ERGek adierazten du *kausa*, eta bestean INSek.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

kezkatu-DA-1: gai ukitua [+giz]_ABS; kausa_INS

kezkatu-DU-2: gai ukitua [+giz]_ABS; kausa_ERG

- Datu estatistikoek, INS beste aditzekin baino maizago ageri dela jartzen digute agerian. Jakina maiztasun handiena DA-1 balioan du.



DA	18,58%	DA-ins	28,03%	DA-abs	100,00%	DA-konp	4,36%	DA-soz	3,47%	DA-ine	2,78%						
DU	77,31%	DU-ins	9,56%	DU-abl	0,84%	DU-abs	39,12%	DU-soz	4,29%	DU-ine	3,61%	DU-erg	100,00%				
DIO	4,12%	DIO-ins	7,98%	DIO-abl	0,70%	DIO-abs	17,23%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	2,28%	DIO-soz	2,85%	DIO-erg	100,00%		

Haserretu

haserretu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS

haserretu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (638) - Zaplastada bat emango banizu, **haserretu** egingo zinateke nirekin. [ZU] (EusCor)
- (639) Ez zuen bere aitarekin [HURA] **haserretu** nahi gartzelatik atera eta hain azkar. (EusCor)
- (640) Neurri batean harrokeriaz, galiziarrekin [HURA] **haserretu** ondoren ez zuelako haren eskaintzarik onartu nahi. (EusCor)
- (641) "**Haserretu** egin al zara nirekin? (EusCor)
- (642) Nahi dituzue Karmelita kartsuak bihotzak bildu, Jesus, zuen Maitearengana, egon beraz beti apal eta tipi, apaltasunak **haserretzen** baitu ifernua! (EusCor)
- (643) Egiaz, dexente motzago zegoen, eta horrek **haserretu** egin zuen. [HURA] (EusCor)

Haserretu aditzean SOZ da DA-1 *bssan kausa* adierazten duena. Gainontzean, *kezkatu* aditzean esandakoak balioko luke, jakina, SOZi aplikatuta. Hala ere, esan behar da agertu zaikigun adibide guztietan SOZ entitatea gizakia dela; baina ez dugu uste nahaitaez hala izan behar duenik. Bestetik, sintagma absolutioboaren gunea normalean gizakia bada ere, erabilera hedatu batean ageri da bestelakorik; batez ere DU-2 *bssan* ((642)). INSek, ekintza egiteko modua adierazteko gaitasuna luke. INEk bere ohiko balioak izan ditzake, nahiz eta oso arrunta ez izan.

Esan beharrekoa da ere, SOZ *haserreturekin* ez dela ageri INS *kezkatu*ekin agertzen den bezainbeste. Ikus SOZik gabeko zenbait adibide:

- (644) Etxeko nagusia biziki **haserretu** zen eta morroiari esan zion: (EusCor)

(645) Ama **haserretu** egin zen eta esan zien: (EusCor)

(646) Ikaragarri **haserretu** zitzaion Pilon. (EusCor)

Baina *kezkatu*ekin ere badira bakanka batzuk:

(647) Jendea butakatik altza da eta **kezkatzen** hasi da. (EG)

Kezkaturekin ikusi dugun bezala, *haserretu* aditzean **DAT**ek aldi berean *kausa* eta jabetza-harremana adierazten duela ematen du. Horregatik aditz honetan ere aldi berekotasunean arazoak sortzen dira:

Ama nirekin haserretu da / ?Ama nirekin haserretu zait / Ama haserretu zait

Haserreturen kasuan, hala ere, **SOZ**en eta **DAT**en aldi berekotasuna zalantzazkoagoa dirudi. *Kezkaturekin* bezala jokatzearren, **DAT** ez dugu ontzat eman **SOZ** azpikategorizatu dugun aldetik. Han esan dugun bezalaxe, adibide gehiagoren aurrean aztertu beharreko fenomeno da.


Honenbestez, esango dugu *haserretu* aditzak entitate gizaki baten egoera psikologikoaren aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala *kausa* eta *gai ukitu* [+giz] dituela. Aldaera batean **ERG**ek adierazten du *kausa*, eta bestean **SOZ**ek.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

haserretu-DA-1: gai ukitua [+giz]_ABS; kausa_SOZ

haserretu-DU-2: gai ukitua [+giz]_ABS; kausa_ERG

- Datu estatistikoek: balio iragangaitzaren erabilera handiagoa jartzen digute agerian. Bestalde, **SOZ** hain garrantzitsua ez dela ematen du, eta **DAT** are gehiagotan agertzen dela. Aztertzeoak lirateke estatistika hauen azpian dauden agerpenak.



DA	66,67%	DA-abs	100,00%	DA-soz	12,50%				
DU	16,67%	DU-abs	50,00%	DU-soz	12,50%	DU-erg	100,00%		
ZAIO	16,67%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	37,50%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	12,50%

A2 talde honetan ikusi dugunez, argi dago *kausa* osagaia garrantzitsua denean —edo aditzak adierazten duen ekitzan nabarmendu nahi denean— ez dela beti **ERG**ez gauzatu

behar. Honek esan nahi du, bi aditz hauetan ikusi ditugun DA-1eko egiturak *kausa* ergatiborik gabekoak direla; eta ez aldaera batetik bestera *kausa* galdu dutenak. Izatez, alternantzia kausatibo/inkoatiboaren aldaera inkoatiboan ere orobat gertatzen da azken batean. Izan ere, aldaera inkoatiboan ERG ez den bestelako Kasuez ere ager daiteke *kausa*. Gertatzen dena da aldaera inkoatiboan *kausa* osagaiak garrantzia galtzen duela, entitate ukituaren egoera berria azpimarratzeko (*kezkatu* eta *haserretu* aditzetan, berriz, DA-1 balioan *kausa* agertzea garrantzitsua dirudi). Hemen dioguna bat dator Vázquez et al.-ek (2000) alternantzia kausatiboa/inkoatiboaz diotenarekin:

Algunos autores, como Zubizarreta 1987, interpretan la construcción anticausativa prototípica como un tipo de oración en la que la causatividad está ausente, ya que consideran que la acción que denota se realiza de forma instantánea, sin la intervención de un elemento causante. Desde nuestro punto de vista, la posibilidad de expresar la causa del evento mediante un complemento adjunto (103b)²² es un argumento en contra de esta hipótesis. Así pues, no entendemos el concepto de anticausatividad como la ausencia del elemento causa sino como un cambio en la focalización de los participantes de la frase, cambio en el que la causa pierde relevancia en beneficio de la entidad que resulta afectada por la acción.

Vázquez et al., 2000:109

Ondorioz, Levinen alternantzien azterketa egin dugunean, alternantzia kausatibo/inkoatiboa aldaera batetik bestera balentzia aldatzen duten alternantzien artean sailkatzean, zehaztu beharko genukeela *kausa* osagaiak garrantzia galtzen duela baina ez duela horregatik desagertu beharrik. Berez zuzen-zuzenena litzatekeela esatea “aldiera batetik bestera *kausa* ergatiboa desagertzen den” alternantzia dela.

A.3 ERGen eta ABSren arteko alternantzia dutenak

existitu, jolastu

Ikus ditzagun banan-banan.

²² Hauxe da (103b) adibidea:
La pared se ha ennegrecido (a causa de la humedad)

Existitu

Aditz honi markatu dizkiogun bi *bssetan* orotariko gaia da bi kasu desberdinez gauzatu daitekeena; izan ere, bi *bssetan* entitate baten izatea —existitzea, alegia— adierazten da.

existitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

existitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (648) Ingelesarako **existitzen** diren CD-ROMak franko dira, eta, honengatik, iturri garrantzitsua dute eskoletan ikaskuntza materiala prestatzean. (EusCor)
- (649) Nahiz eta txikia izan, horrelako talde bat **existitzeak** esan nahi du irlandarazko sareek nolabaiteko gaitasuna badutela kide berriak biltzeko. (EusCor)
- (650) Hiria kale estu eta karrika meharrez beteta dago eta erromatarren garaian ere **esistitzen** zen. [HURA] (EusCor)
- (651) Gaztea zarenean aniztasuna ez da **existitzen**, ildo zehatz bati jarraitu behar izaten diozu. (EusCor)
- (652) Jende askok ez daki nesken txirrindularitza **existitzen** denik ere. (EusCor)
- (653) Hau idazten duena ebaluazioaren mundutik dator, eta era berean gogorarazten dizue gezur haundiak eta estatistikak **esistitzen** direla. (EusCor)
- (654) Baina estructures diametralei dagokienean, desberdintasun horrek ez du beti **existitzen** eta, edonola ere, elkarrekotasunez asebeterik dagoen haien naturatik ez da eratortzen. (EusCor)
- (655) Gaur bertan egutegian **esistitzen** zuela jakin dudan santu bat, eta hain zuzen ere, gaur bere eguna du. (EusCor)
- (656) Seguru Kenyak ez duela **esistitzen**. (EusCor)

Gainontzean, **SOZek**, **INSEk** eta **INEk** beren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi, baina normalean ez dira agertzen esaldian; beharbada INE da arruntena ((655)).


Beraz, esango dugu *existitu* aditzak entitate bat izatea/existitzea adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala *gaia* duena; aldaera batean ABSz gauzatua eta bestean ERGez.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

existitu-DA-1: gaia_ABS

existitu-DU-2: gaia_ERG

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute erabilera iragangaitzerako joera. DU-2 balioaren estatistikek, berriz, okerrak dirudite, ABS nabarmen agertzen baita.



DA	92,31%	DA-ins	3,33%	DA-abl	10,56%	DA-abs	100,00%	DA-ine	17,78%		
DU	7,69%	DU-ins	3,33%	DU-abl	3,33%	DU-abs	93,33%	DU-ine	3,33%	DU-erg	100,00%

jolastu

Aditz honetan, ekintza burutzen duen osagaia, goian bezalaxe, aldaera batean ABSz gauzatzen da eta bestean ERGez. Horretaz gain, bi bsetan SOZ eta INE askotan agertzen dira.

jolastu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INS

jolastu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE, SOZ

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(657) Gero etxeko lanak egin behar eta horrela ezin naiz [NI] lagunekin jolastu, ezta gustatzen zaizkidan istorioak irakurri ere. (EusCor)

- (658) ...han jolastu zela [HURA], han egin zuela negar, ihes, han erori zela, han zauritu zela ... berarengandik hain urruti zegoen garai hartan, inozentzia eta suminezko garai hartan. (EusCor)
- (659) - Edonon, baina ez gu futbolean [GU/GUK] jolasten ari garen tokian. (EusCor)
- (660) Bainuan, ahateak xaplatzen, untxiak hondoratzen eta Elixa urpean jolasten denean, aitak dio (EusCor)
- (661) Gure haurtzaroan, Nafarroako Larraun eta Sakanaldean jolasten genuen halako txulubitekin. [GUK] (EusCor)
- (662) Orduko Aretxabaletak ez zuen gaurkoak besteko zabalera, ondorioz herriko gazte gehienak elkarrekin jolasten zuten, lagun koadrila batean. (EusCor)
- (663) Talderatutako jokalaria berriak eta aurreko taldeetan jolasten zutenek osatzen duten taldea. (EusCor)
- (664) BURUAREKIN JOLASTU [ZU/ZUK-ZUEK]! (EusCor)
- (665) Egun osoa ezkutaketan eta saskibaloian [HAIEK] jolasten pasatuko lukete. (EusCor)
- (666) Bakarti samarrak bakarka, gurutzegramak edo hitz gezidunak egiten, eta taldezaleagoak taldeka, barkutan jolasten edo berriketan. (EusCor)
- (667) Hanka baten gainean salto egiteko marrak egiten aritu ziren bi neskek ere horretan [HAIEK] ez jolastea erabaki zuten eta handik alde egin zuten. (EusCor)

Aditz honi **ABSz** edo **ERGez** gain beste bi Kasu markatu dizkiogu azpikategorizatu gisa: **SOZ** eta **INE**. Izan ere, aditz honek entitate bizidun batek burutzen duen jarduera bat adierazten du, baina horretarako beharrezkoak ditu jarduera hori adierazten duen entitatea (INEz gauzatzen dena) eta jarduera hori burutu ahal izateko beste partaide bat, ABS/ERGen parekoa dena, azken batean. Horregatik, nahiz eta SOZek hasiera batean ohiko duen “konpainia” balioa adierazten duela irudi arren, konpainia baino gehiago ekintzan modu berean parte hartzen duen izaki bizidun bati erreferentzia egiten dio.

Adibideetan ikus dezakegunez, bi Kasu hauek —SOZ eta INE— ez dira beti agertzen, baina ohar bedi, SOZ agertzen ez den kasu askotan (ERG edo ABSren pareko balioa duenean, jakina), ABS/ERG plurala dela ((659), (661), (663), (664), (665), (666), (667)). Aipagarria da, hala ere, SOZ agertu ez eta sintagma singularra denetan, ABS ageri dela adibide guztietan (eta ez ERG).

Fenomeno hau Alternantzia erreziproko sinplean (*L* 2.5.4) ikusi dugu. Diferentzia bakarra han kopulazioz lotzen direla ekintza burutzeko beharrezkoak diren bi partaideak, eta hemen pluraltasunaren bidez adierazten dela gauza bera. Beraz, ekintza erreziproko baten aurrean gaudela dirudi. Izatez, elkarrekin izenordain erreziprokoa esplizituki agertzen da (662) adibidean. Honek esan nahi du, plurala agertzen zaigun bakoitzean *elkarrekin* moduko zerbait ulertu behar dugula.

Esan behar da INEk duen jarduerazko balioa **ALAk** ere adieraz dezakeela, eta orduantxe bakarrik da zilegi Kasu hau:

- (668) Sabah-ek izugarri maite du "gonbidatuetara" [HARK/HURA] jolastea bere ahizpaorde Zenab, Hind eta Badriah-ekin. (EusCor)

(669) Aukera ederra zeukaten Robinsonetara [HAIEK] jolasteko! (EusCor)

(670) Joku hontara gaurko gazte eta ez hain gazteek jolasten zuten. (EusCor)

Hala ere, ALAdun erabilera hau erdararen kalkoa da euskal erabilera jatorra baino, eta horregatik ez dugu ez Kasu onartuen artean jarri ez INErekiko alternantzia osatuko lukeen aldaeratzat jo.

SOZen eta INEren balioak aipatu ditugunak izan ohi diren arren, aditz honetan, beren ohiko balioak ere adieraz ditzakete (SOZek baliabidea: (661), (664); INEk kokapena: (658), (660), (661); modua?: (662), (663)). Hala gertatzen denean, ez dira ageri ez jarduera ez eta jarduera betetzeko beharrezkoa den beste partaidea.


Beraz, esango dugu *jolastu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala jarduera burutzen duten bi *esperimentatzaile* eta *jarduera* dituela. Bi aldaeretan *esperimentatzaile* bat SOZez gauzatzen da eta *jarduera* INEz; beste *esperimentatzailea*, DA-1 aldaeran, ABSz, eta DU-2 aldaeran ERGez gauzatzen da.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jolastu-DA-1: esperimentatzailea [+biz]_ABS; esperimentatzailea [+biz]_SOZ; jarduera_INE

jolastu-DU-2: esperimentatzailea [+biz]_ERG; esperimentatzailea [+biz]_SOZ; jarduera_INE

- Datu estatistikoetan ikus dezakegunez, SOZek indar handiago du INEk baino, eta bestetik balio iragangaitza da gailentzen dena.



DA	75,00%	DA-abs	100,00%	DA-soz	60,61%	DA-ine	9,09%		
DU	25,00%	DU-abs	45,45%	DU-ine	9,09%	DU-soz	72,73%	DU-erg	100,00%

A.4 Bestelakoak

besarkatu, bilakatu, ezkondu, iritsi, topatu

Azter ditzagun banan-banan.

Besarkatu

Aditz honetan, esan dugun bezala, Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (L 1.2.4) dugu. Aditz honetan bada gauza aipagarria: ABSk beti izan behar du plurala. Horrek esan nahi du, aditz honek beti adierazten duela ekintza erreziproko bat, eta hortaz, sintagma pluralaren azpian berez ekintzan beharrezkoak diren bi osagai daudela. Esan dugu bssetan ez genuela markatuko DA aldaera aparteko *bss* gisa. Hala ere, hemen salbuespen bat egin dugu. Izan ere, badirudi bai DU bai DA erabileran osagaien estatusa (tasun semantikoak) beti berdina izan behar dela, eta aditz honetan horrek garrantzia duela. DA erabileran osagai sintaktiko bakarra dugunez, bi osagai semantiko daudela adierazteko ondoko modua erabili dugu: osagai sintaktiko berean bi osagai semantiko berdin markatu ditugu. Beste baliabide bat ere erabil genezakeen, hala ere: iragangaitzaren laguntzaile gisa DA jarri ordez DIRA jarri.

besarkatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

besarkatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(671) Zer esan ez zekielarik, "hodei zoragarri horiek" esan zion Albertori, eskuaz seinalatuz, Pepe tabernako atean ikusitakoan, eta ozta-ozta eutsi zien malkoei **besarkatu** zirenean [HAIEK]. (EusCor)

(672) **Besarkatu** egin ginen [GU], eta itsasontzi handi batean sartu zen. (EusCor)

(673) 11.30etan Iñake Irastortzak **Besarka** gaitezen [GU] Folleville antzezlanaren berri emango du. (EusCor)

(674) Karelean jarriak zituen nebak ukondoak, emakumeak **besarkatu** egin zuen [NEBA] eta musu eman zioten elkarri. (EusCor)

(675) Ondoan du Xiana, irribarrez **besarkatzen** duela [HARK] [HURA]. (EusCor)

(676) Jakina, zerbitzariak une apropos hura aukeratu zuen ate-leihoetatik itzultzeko eta neska [NIK] nola **besarkatzen** nuen ikusteko. (EusCor)

Aditz honek jarduera bat adierazten du, bi entitateen elkarren artean burutzen duten jarduera bat. Beraz, DA-1 *bss*ean **ABS**k bi entitate horiek adierazten ditu aldi berean. DU-2 *bss*an, berriz, bi entitate horiek banandurik agertzen dira, bata **ERGez** eta bestea **ABSz** gauzatua. Jarduera bat dela esan dugu ez dugulako uste entitate hauek inongo afektaziorik jasaten dutenik (kokapen- nahiz egoera-aldatze mailan), baizik eta jarduera hori esperimendatzen dute.

Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzian (L 1.2.4) esan dugun bezala, badirudi DU-2 *bss*an entitateetako batek (ERG entitateak) abiatzen duela jarduera eta bestea jarduera horren *helburu* moduko bat dela. Hala izanik, *abiapuntu* eta *helburu* gisa ikus genitzake partaideak. Baina, *abiapuntua* eta *helburua* duten aditzak entitate baten elkarraldatzeko ezaugarritzat jo ditugunez eta hau ez dugunez horrelakoxetzat jotzen, jardueraren *esperimentatzailetzat* joko ditugu biak, bai DA-1en bai DU-2n. Azken batean, ERG entitateak jarduera abiatu arren, ABS entitateak ekintza berdin-berdin esperimendatzen baitu, ekintza hasi ala ez.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSeK** eta **SOZeK**, ohiko balioak adieraz ditzaketela (adib., INSeK modua: (675)).

ABS eta ERG entitateen estatusari dagokionez, gizakiak izan behar direla ematen du. Baina esan behar da erabilera iragankorrean, “hedatutzat” jo genezakeen balio bat askotan ageri dela; eta honakoan entitatea ez dela biziduna:

(677) Izan ere, Euskal Herriaz zuen ezagutza benetan entziklopedikoa zen eta garai guztiak eta probintzia guztiak **besarkatzen** zituen [HARK] (eta gehiago, Hego Amerikarako edo Californiarako euskal emigrazioari buruzko lanak kontuan hartuz gero). (EusCor)

(678) Huntzak inguratzen du zuhaitza, **besarkatzen** du, edoskitzen du. (EusCor)

(679) Jakina, eta lehen esplikatu dudanez, (irabaziak) hitzak ez du esan nahi hemen, legezko erregimenean bezala, ondasun-masa erreal bat, bere objektibotasunean identifikatua dagoena, eta printzipioz, kostubidez eskuratutako ondasunak **besarkatzen** dituena. [HARK] (EusCor)

Erabilera hedatu hau DA-1 *bss*an ezinezkoa da. Hain zuzen, hauxe izan daiteke (hau da, alternantziarik ez erakustea) erabilera hedatutzat jotzeko arrazoia. Lan-prozeduran erabakitakoari jarraiki, guk ez dugu erabilera hau aintzat hartuko.


Esango dugu, beraz, *besarkatu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, parte-hartzaile bezala bi *esperimentatzaile* dituela; DA-1 *bss*an ABSren barruan daude bi partaideak, eta DU-2 *bss*an ERGez eta ABSz gauzatzen dira.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

besarkatu-DA-1: esperimentatzailea + esperimentatzailea [+giz]_ABS

besarkatu-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; esperimentatzailea [+giz]_ABS

- Datu estatistikoek balio iragankorra maiztasun handiagokoa dela erakusten digute. Bestalde, DA-1 *bssan* SOZek presentzia nabarmena duela ikus dezakegu. Beharbada ekintza egiteko moduari erreferentzia maiz egiten diolako.



DA	25,00%	DA-abs	100,00%	DA-soz	57,14%
DU	75,00%	DU-abs	52,38%	DU-erg	100,00%

Bilakatu

Bilakatu aditzaren bi *bssek* alternantzia kausatiboa/inkoatiboa osatzen dute elkarren artean. Horretaz, gain, bi *bssetan* osagai predikatibo bat ageri zaigu, ABSz gauzatua. Baina ikusiko dugun bezala, DA-1 *bssan* elementu predikatibo hau batzuetan ez da agertzen; DU-2 *bssan*, berriz, beti agertzen da. Beraz, alde hori dago bi *bssen* artean.

bilakatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

bilakatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (680) Aire-korrante hotzak hodeiak osatzen dituzten ur-tantak harrapatzen dituenean, ur solido bilakatzen dira: [HAIEK] (EusCor)
- (681) Lianak suge bilakatu ziren; (EusCor)
- (682) Haizearen eraginez uretara erortzen ziren basa fruituak arrain bilakatzen ziren: (EusCor)
- (683) Bakarrik geratu zen eta nagusitan suge ikaragarria bilakatu zen. [HURA] (EusCor)
- (684) Ametsa, horrela ulertuz, edozein sorkari patologikoren eredu arrunta **bilakatzen** da. (EusCor)
- (685) Hitzak debaldekoak bilakatu zituen sentimenduen adierazpen larriak, eta anitz eszena elipsian ulertzen hasi ziren, solasak argituko baitzuen idurien arteko joskeraren zailtasuna. (EusCor)
- (686) Horregatik gorroto dut emakumeen sufrimendua ipuin bilakatzen dutenen iharduera (EusCor)
- (687) Bazuen irudi hark zerbait beldurgarri [HURA] bilakatzen zuena. (EusCor)
- (688) Mesanotxearen gainean beste bonbila biluzi bat, wolframio hariaren mugimendu bibrakorrek ekilibriorako kable arriskutsu bilakatzen zutelarik eltxoendako? (EusCor)

Aditz honek, entitate baten egoera-aldaketa adierazten du. Egoera-aldaketa adierazten duten orain arteko aditzen aldean, ordea, aditz honek egoera berria osagai sintaktiko batez gauzatzen du esplizituki, hain zuzen, osagai azpikategorizatutzat jo dugun elementu predikatiboaz. Elementu predikatibo honek *helburuko egoera* adierazten duen arren, *abiapuntuko egoera* adierazten duen osagairik ezin da agertu.

Esan dugun bezala, gerta daiteke DA-1 *bssan* osagai predikatibo hau ez agertzea. Halakoetan “bilakaera bera” azpimarratzen dela ematen du, eta, era berean, aldatzen den entitatearen aldaketa erabatekoa ez dela dirudi:

- (689) Autore paketeen bidez zenbait software bilakatu da, Estatu Batuetan batez ere, eta azken urteetan Britainia Handia eta beste zenbait herritan ere. (EusCor)
- (690) (...) etikan, euren juizio morala bilakatzeko prozesuan, besteonganako ardura eta arreta guztiz oinarrizkoak dira (EusCor)
- (691) Gizartearen baloreak bilakatuz doaz gizarte horren kontzeptuekin batera. (EusCor)

Bilakatze bera adierazi nahi den ala bilakatze horren ondoriozko egoera berria, elementu predikatiboaren presentziak berak emango du aditzera. Horrelakoetan, orduan, inespezifikazioa gertatzen dela ematen du. Hala ere, ez dugu bereizketarik egin printzipioz,

eta *bss* berean Kasu azpikategorizatutzat jo dugu osagai predikatiboa (*mugitun* ALArekin eta ABLrekin egin dugun bezala).

Gainontzerakoan, **INS**, **INE** eta **SOZ**ek ohiko balioak izan ditzakete, baina ez dira bat ere arruntak.

DAT, azkenik, ez da oso arrunta, eta agertzen denean, entitate aldatuarekiko jabetzazko harremana adieraziko du.


Beraz, esango dugu *bilakatu* aditzak entitate baten egoera-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ABSz gauzatzen den *gai ukitua*, ERGez gauzatzen den *kausa* eta ABSz gauzatzen den *helburuko egoera* dituela. DA-1 *bss*an *kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

bilakatu-DA-1: gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ABS

bilakatu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ABS

- Datu estatistikoak: datu estatistikoek ABSren maiztasun handia jartzen digute agerian. Argi dagoenez, erabilera iragangaitza arruntagoa da iragankorra baino.



DA	76,52%	DA-ala	0,88%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,30%	DA-ine	11,87%
DU	21,74%	DU-abs	92,21%	DU-komp	0,67%	DU-ine	10,60%	DU-erg	100,00%
ZAIO	1,74%	ZAIO-komp	0,67%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ine	1,34%	ZAIO-abs	100,00%

Ezkondu

Ezkondu aditzari dagokionez, bi dira erakusten dituen alternantziak: [Alternantzia kausatibo/inkoatiboa](#) (L 1.1.2.1) eta [Alternantzia erreziproko simple iragankor eta iragangaitza](#) ((L 2.5.1 eta (L 2.5.4)). Horrela izanik, alternantzia kausatibo/inkoatiboan agertzen den ABS askotan plurala da. Bestalde, badu berezitasun bat: DA-1 *bss*ean DU-2 *bss*an onartzen ez den kasu bat —ALA— onargarria da. ALA honek *helburuko kokapena*

adierazten duenez, balio berezi bat ematen dio *bss* horri. Hasiera batean *bss* honetan azpikategorizatutzat jo dugun SOZekin ezin ager daitekeela dirudi, baina adibideek erakutsiko digutenez, biak batera zilegi dira. Hori dela eta, ez dugu aparteko balio bezala hartu, baizik eta *bss* berean ALA kasu onartu gisa ezarriz. Horren bidez adierazi nahi dugu ALA erantsirik balio desberdina syntaxian hartzen duela aditzak (edo, bederen, Kasu hori ez dela bere semantikaren baitakoa).

ezkondu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ALA

ezkondu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (692) Berorietan ezagutu zuten elkar eta **ezkondu** ziren euskaldunak. (EusCor)
- (693) Ondoren, EEBBetan jaio zen belaunaldia hazi ahala, ezkontzak izan zituen oinarri euskal komunitateak, euskaldun horietarik ehuneko handia talde etniko berekoen artean ezkontzen baitzen. (EusCor)
- (694) Baina hala ere zaude oraindik (...) **ezkon** gaitezen biok. (EusCor)
- (695) - Ni zurekin ezkondu? (EusCor)
- (696) Emakume atsegina eta zintzo batekin [NI] ezkontzea gustatuko litzaidake. (EusCor)
- (697) Eduñezuri printzearekin ezkondu zenean, zazpi ipotxek edateari eman zioten. (EusCor)
- (698) Beste ahizpa militar batekin Doneztebera ezkondu zena, eta Barbara bera. (EusCor)
- (699) 1975ean, populazio ia osoa ezkondu zen, eta hogei urteren ostean gizonezkoen %52,5 baino ez dira ezkonduko, eta andrazkoen %60,1. Gero eta beranduago ezkondu. (EG)
- (700) Hainbat bikotek EHekeongana jo zuten, haiek [HAIEK] ezkontzea nahi zutelako edota euskarazko ezkontza nahi zutelako. (EG)
- (701) IRUÑEKO bikote euskaldun batek EGUNKARIAri adierazi dioenez , duela bi aste Juan Luis Sanchez de Muniain zinegotzi erregionalistak ezkondu zituen [HAIEK], euskaraz. (EG)
- (702) Interes arkeologikoa eta teknologia berriak arkeologiari aplikatzeko asmoa ezkondu ditu ekimen honetan. [HARK] (EG)

Dagoeneko esana dugun bezala, [Alternantzia erreziproko sinplean](#) SOZek ekintzan modu berean parte hartzen duen beste partaide bat adierazten du. SOZ agertzen ez denean, ABS plurala da askotan ((692), (693), (694)) edota plurala adierazten duen izena ((699)); horretaz gain, izenordain erreziprokoa ere ager daiteke ((693)). Aditz honen bidez, ekintzan partaide diren entitateek egoera-aldaketa bat jasaten dutela esan daiteke. Esan behar da, bestalde, DU-2 *bssan* ohikoagoa dela esaldian plurala agertzea —edo bestela singularra— SOZ agertzea baino.

Adibide ugariak ABS pluraldunak izan arren, badira, ABS singular hutsezko adibideak ere:

(703) ... "hemen lan egiten zuenean lagundu zidan, problema izugarriak nituen eta beno, orain **ezkondu** naiz [NI], aisian bizi, eta eskertu nahi diot" (EusCor)

(704) Artetak Donostiako martxa, Ume eder bat, Amak [NI] **ezkondu** ninduen, Goizeko eguzki eder, Las golondrinas, Rapsodia espainola, La valse eta El sueño de un balilarn abestu ditu, besteak beste. (EG)

(705) - Betaurreko barik, [NI] **ezkondu** nintzeneko gazte ederra ematen duzu. (EusCor)

(706) Areilza auzunera [HURA] **ezkondu** zen eta han bizi da. (EusCor)

(707) Orozkorra [HURA] **ezkondu** zen eta han bizi da. (EusCor)

Ikusten dugunez, adibide hauetan askotan ageri da ALA. Horrek iradokitzen du, *helburuko kokapena* adierazten denean, “norekin” ezkontzen den zehazteak garrantzia galtzen duela, eta gehiago axola duela ezkondu eta gero entitatea zein tokitan lekutuko den esateak. Baina bi aldaketa mota hauek aldi berean adieraz ditzake aditz honek (egoera- eta kokapen-aldaketa), SOZek eta ALAk aldi berean agertzeko eragozpenik ez baitute ((698)). Gertatzen dena da, egoera-aldaketa adieraztea aditzak berezkoa duela dirudiela; kokapen-aldaketa, berriz, esan dugun bezala, ALAren presentziaren baitan dagoela dirudi²³. Hala ere, erabilera iragangaitzean ahalmen hau galdu egiten du; eta, gainera, ALA ezinezkoa da bai aldi berean, bai bestela ere.

Adibide guztietan bai ERG bai ABS entitateak gehienetan gizakiak dira. Hala ere, erabilera hedatu edo metaforiko batean izaki abstraktuak ere onargarri dira ((702)). Esan dugun bezala, gure lanean erabilera hedatuak ez ditugu kontuan hartu aditzaren xehetasun semantikoak zehazteko garaian, beti ere ez bada erabilera hedatua bakarrik aditz batean azaltzen dena.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INEk, INSek eta SOZek beren ohiko balioak adieraz ditzakete.

²³ Fenomeno hau beste zenbait aditzekin ere aurkitzen dugu. Esaterako, *bildu* aditzarekin.

Elizara bildu (*Euskal Hiztegiko* adibidea)

Hala ere, aztertzekoa litzateke aditz honek bere semantikaren arabera azpikategorizatzen dituen kasuekiko aldi berekotasun-murritzapenak zeintzuk diren.

Esan dugu ABL ez duela onartzen. Gertatzen dena da kasu honen bitartez modua adieraziz lexikalizatu diren hitzak ager daitezkeela (adib. *zibiletik*, *elizatik*). Hitz lexikalizatuak diren aldetik, bada, ez dugu Kasua oro har ontzat eman.

DATEk, azkenik, badirudi ABS entitatearekiko jabetzako harreman baten berri ematen duela, baina ez da oso arrunta. Izatez, datibo etikoaren itxura handiagoa du gehienetan.


Honenbestez, esango dugu *ezkondu* aditzak egoera-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala egoera-aldaketa hori jasaten duten bi *gai ukitu* —bata ABSz eta bestea SOZez gauzatua— eta egoera-aldaketa hori eragiten duen *kausa* —ERGez gauzatua— dituela. DA-1 *bssan kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

ezkondu-DA-1: gai ukitua [+giz]_ABS; gai ukitua [+giz]_SOZ

ezkondu-DU-2: kausa [+giz]_ERG; gai ukitua [+giz]_ABS; gai ukitua [+giz]_SOZ

- Datu estatistikoek DA-1 balioa maiztasun handienekoa dela argitan jartzen dute, eta bertan SOZek eta INEk indarra erakusten dute.



DA	96,15%	DA-ins	4,00%	DA-ala	4,00%	DA-abs	100,00%	DA-soz	32,00%	DA-ine	12,00%
DU	1,92%	DU-erg	100,00%								
DIO	1,92%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%						

Iritsi

Esan dugun bezala, *Iritsik* Preposizio lokatiboaren galera (*L* 1.4.1) erakusten du; eta alternantzia horren aldaerak dira markatu dizkiogun bi *bssak*. Alternantzia hau aztertu dugunean, ez dugu *iritsi* aditza aipatu, baina corpusean aurkitutako adibideetan ikusi dugu aditz honek ere alternantzia hau onar dezakeela. Alternantzia honetan esaten genuen aldaera iragangaitzean norabidezko sintagma bat ageri dela, eta aldaera iragankorrean, berriz, *bidea*,

helburua edota batzuetan *iturria* adierazten duen objektu bat. *Iritsiren* kasuan *helburua* litzateke objektu hau. Hala ere, eta han esan dugunari lotuta, DU-2 balioa ez da DA-1 balioaren Kasu guztietan baliokide; hau da, DA-1en erabilera bakan batzuetara mugatzen da. Ikus dezagun, beraz, DA-1ek duen balioa lehendabizi, eta DU-2n ageri zaiguna ondoren.

iritsi-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Zenbait adibide:

- (708) Zenbat arima iritsiko liratekeen santutasunera, ongi zuzenduak balira! (EusCor)
- (709) Behetik ikusi dugun tontortxoaren azpira [GU] iritsi garenean hartu dugu walkia lehenengo aldiz. (EusCor)
- (710) Ilundu aurretik iritsi gara 6.400 metrotan genuen kanpamendura. [GU] (EusCor)
- (711) Arau horiek balidazio-prozesu batean kontrolatzen dira, ikasketa horiek egin dituzten ikasleak lizentzitura-mailara iritsi direla ziurtatzeko. (EusCor)
- (712) Urteak joan arau gainditu zen eragozpen hori, ordea, euskaldun emakumezkoa ere iritsi baitzen EEBBetara; (EusCor)
- (713) Anari esan diot Koldo iristear dagoela eta berri onak dakartzala. (EusCor)
- (714) Euskal Herriatik iritsitako gutunetan herria eta probintzia jartzen da. (EusCor)
- (715) Zortzi ordu inguru ematen ditu hegazkinak Madril edo Parisetik New Yorkera iristen. (EusCor)
- (716) Jantokiko jendearen isiltasun ia majikoa urratu egin da bat-batean eta mutilaren kontrako oihuak mahai gehienetatik iritsi dira, eskubiderik ez dago, auskalo noraino iritsiko garen eta tankerako komentarioen artean. (EusCor)
- (717) Lagunari esan zion, egun hartako itxaropenik handiena zuela senarra ezustean agertzea, nonbaitetik herrira iristea, eta beldurrik handiena zuela Thulo bizi zen lurraldeko nagusi zuriak harrapatu izana. (EusCor)
- (718) Noiz edo behin, nonbaitetik, pertsona arrotzak iristen ziren auzora. (EusCor)
- (719) Musulmanak itxasotik Andaluzi'ra sartu zitzaizkiolako mezua iritxi bait zitzaion [HARI]. (EusCor)
- (720) Bateko eta besteko puntu amankomunak ikusita, badirudi olerkia Elvira bezala bere senarraren desamodioa eraman ezinik suizidatzea-edo pentsatu duten emakumeei zuzendua dagoela, Elvirari berandu iritsi zaion arren [HURA]. (EusCor)
- (721) FUNAIn sartuta dauden indio askok, Alemaniatik laguntzak iristen direnean beraientzako hartzen dituzte eta herriari ez zaio ezer iristen. (EusCor)

Iritsik bss honetan entitate bat leku batetik bestera desplazatzea adierazten du; horregatik jarri ditugu Kasu azpikategorizatu bezala *abiapuntuko kokapena* / *bidea* adierazten duen **ABL** eta *helburuko kokapena* adierazten duen **ALA**. Entitate desplazatua —**ABSz**

gauzatua— orotarikoa izan daiteke, nahiz eta askotan biziduna den. Entitate hau, eta ABL nahiz ALA entitateak, abstraktuak direnean, desplazamendu hau abstraktuki ulertu behar da.

Levinek, *arrive* aditza ‘mugimenduaren norabidea’ bere semantikaren baitan duten aditzen artean saikatzen du, eta talde honetako zenbait aditzek osagai semantiko hori elipsi deiktikoaren bidez adieraz dezaketela dio:

The meaning of these verbs includes a specification of the direction of motion, even in the absence of an overt directional complement. For some verbs this specification is in deictic terms; for others it is nondeictic terms.

Levin, 1993: 264

Vázquez et al.-ek (2000), “mugimenduaren norabidea” gabe “ekintzaren amaiera-puntua” semantikaren barruan dutela diote. Autore hauek diotenez, azken batean Levinek norabidearen kontzeptua zentzu orokorragoan erabiltzen du eta kontzeptu horren barruan sartzen du ibilbideari dagokion *helburuko kokapena* ere:

Estas autoras [Levin & Rappaport] usan el concepto direccionalidad en un sentido amplio, que incluye el subcomponente destino.

Vázquez et al., 2000:188

Vázquez et al.-en ustez, amaierako puntua (gure azterketan, *helburuko kokapena*) da aditz honek berez semantikoki fokalizatzen duena, ez *norabidea*:

Entre los primeros [verbos de trayectoria), como hemos visto, existen verbos que focalizan el punto final, entre los cuales puede ser que sólo esté focalizado el límite (*llegar, poner, entrar*)...

Vázquez et al., 2000:191

Autore hauek diotenaren arabera, beraz, ALArik ez dagoenean esaldian, horri buruzko informazioa ulertutzat eman behar da testuinguruko erreferentziakidetasunez. Ikusi dugun bezala, *etorri* aditzean hori gertatzen da. *Iritsin*, ordea, ez da horrela izan beharrik. Beraz, *helburuko kokapena* badu bere semantikaren baitakotzat, baina ALArik ez dagoenean perpausean, berreskuratzea ez da deiktikoki egiten.

Gainontzeko kasuei dagokienez, **IN**Sek eta **SO**Zek ohiko balioak izan ditzakete. **IN**Ek ere bai, ohikoagoa da ABS entitatearen kokapena adierazten agertzea; izan ere entitate baten desplazamendua adierazten denez, ekintzaren kokapena adieraztea ez da arrunta.

DATi dagokionez, *eraman* eta *ekarri* aditzean ikusi dugun bezala, ALArekin batera agertzen denean, honekiko jabetzazko harreman bat adierazten duela dirudi; edota, bestela DAT entitatearen kokalekua da aditzera ematen dena. Horregatik, ALArik agertzen ez denean, DATek *helburua* dirudi; helburu biziduna, alegia. Eta horrek elkarraldatzezko

aditzetara hurbiltzen du ((720)). Aipatutako aditzetan esan duguna errepikatuz, gerta daiteke bi helburu mota hauek (lekua, gizakia) entitate bakarrak adieraztea ((721): *herriari*).

iritsi-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Zenbait adibide (gutxi aurkitu ditugu, dena den):

(722) ala ere zugandikako naitasan ixpi bat iritxi ezin det. [NIK] (EusCor)

(723) Pfister, Munchen 1978, 45-87 eredutzat har daiteke bitarte berberaz [NORBAITEK] **iritsitako aberasteaz**; (EusCor)²⁴

Adibideek erakusten digutenez, ABS entitatea abstraktua da, baina izaki konketuak ere onargarri dira (adibide asmatu batera joaz: *Gasteizko mendizaleek tontorra iritsi dute*). Beraz, aditz honetan *helburu* modukoak izan behar dira aldaera honetan ager daitezkeen elementuak.

ABLk, agertuz gero, *bidea* adierazten du. Abiapuntuko kokapena, berriz, ezin du adierazi.

Gainontzeko Kasuek, alegia, **INSeK**, **SOZek** eta **INEk**, beren ohiko balioak adieraz ditzakete, nahiz eta INE arraro samarra izan.

Honenbestez, esango dugu *iritsi* aditzak entitate baten kokapen-aldaketa —abstraktua nahiz fisikoa— adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala *gai ukitua*, *abiapuntuko kokapena* / *bidea* eta *helburuko kokapena* dituela. DA-1 bssan ABSk, ABLk eta ALAk adierazten dituzte osagai horiek, hurrenez hurren; DU-2 bssan ERGek *gai ukitua* adierazten du, eta ALAk *helburua*; *abiapuntuko kokapenerako* lekurik ez dago.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


iritsi-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

iritsi-DU-2: gai ukitua_ERG; helburua_ALA

- Datu estatistikoak: datu estatistikoek agerian jartzen dute DA-1en erabilera handiagoa. Bestalde, *eraman* aditzean genioen bezala, badirudi, ABL, desplazamenduzko prozesuan garrantzitsua izan arren, ez dela sintaktikoki askotan gauzatzen. Horrek etorkizunean gure markaketa-sistema egokitzea beharrezkoa izan daitekeela iradokitzen digu, ez

²⁴ Esan behar dugu adibide hau ez dela guztiz argia, erlatibozko perpaus bat izanik ezin baita berez jakin zein egitura dagoen azpian: X Yra iritsi ALA Xk Y iritsi.

baitirudi zilegi ABL eta ALA maila berean jartzea. Hain zuzen, *helburuko kokapena* lexikoki fokalizatua egoteak eragina izan dezake horretan.



DA	84,72%	DA-ins	0,86%	DA-ala	43,95%	DA-abl	4,87%	DA-abs	100,00%	DA-konp	2,29%	DA-ine	15,67%	DA-soz	1,91%				
DU	7,84%	DU-ins	0,37%	DU-ala	55,98%	DU-abl	7,01%	DU-abs	56,10%	DU-konp	2,66%	DU-ine	13,56%	DU-soz	0,50%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,56%	DIO-ins	0,29%	DIO-ala	34,93%	DIO-abl	2,89%	DIO-abs	53,57%	DIO-konp	42,51%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	27,87%	DIO-soz	0,39%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	6,88%	ZAIO-ins	0,31%	ZAIO-ala	32,86%	ZAIO-abl	7,42%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	20,13%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ine	8,51%	ZAIO-soz	2,30%		

Topatu

Esan dugun bezala, *Topatuk* “With” preposizioaren galera (*L* 1.4.2) erakusten du; eta alternantzia horren aldaerak dira markatu dizkiogun bi *bssak*. Onartzen dituen beste bi alternantzietatik —Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (*L* 1.2.4) eta Alternantzia erreziproko sinple iragangaitza (*L* 2.5.4)— IS kolektiboa duen aldaera ez dugu aparteko *bss* gisa jarri. Horretaz gain, alternantzia hauetako beste aldaera badago zehaztuta dagoeneko *L* 1.4.2ko DA aldaeran.

topatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, ABL, INS

topatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (724) Arrazoia, "bortitzkeria garaiotan haserre dagoen serbiarren batekin topatu zaitezke [ZU]". (EG)
- (725) Ez da batere kasu arraroa Ameriketara hogeita hamar urte eta gehiago egonda, beti mendian, edota, hirira etorriak bakarrik euskaldunekin mintzatzearen poderioz, ingelesez aurrera ateratzeko moduan ez dakien jendearekin [NORBAIT] topatzea. (EusCor)
- (726) Johan Van der Velde belgikarra igaro zen lehena goitik, alde handiarekin, baina beherakoan infernuarekin topatu zen [HURA]. (EG)
- (727) Esan nahi da, aise samar **topa** gaitzkeela [GU] beren euskarritzako material bezala pintura, argazkia edo are eskultura (baxuerliebean) daukaten obreakin. (EusCor)
- (728) Baina apaizgaitegira iritsi eta gelara sartu bezain azkar, aitak oparitutako El Grecoren koadroarekin [HURA] topatzerakoan, Rosaren irudia tartekatu zitzaion berriro, arteriak eta zainak adrenalinaz gainezkatzen zitzaizkiolarik. (EusCor)
- (729) Eskolan gaztelaraz irakurtzean hitz arrotz asko topatzen genituen [GUK] (EG)
- (730) [NIK] **topatu** ditudan hiztegi arazoak ezagutaraztea den arren, ezinbestekoa iruditzen zait lehenengo eta behin Bukowski eta berorren poesigintzaren gaineko zerbait esan eta ezaugarri nagusi batzuk agertzea. (EusCor)
- (731) Zuzenean joan naiz motelera eta ez dut inolako arazorik topatu [NIK]. (EusCor)
- (732) Ohartarazi ninduten giro unionista topatuko nuela hemen [NIK], eta bandera britainiarzaleak baino ez ikusteak ez nau harritu. (EusCor)
- (733) Tunelaren erdian, txori bat topatu zuten [HAIEK], bide erdian eroria. (EusCor)
- (734) Bazekien trabak besterik ez zituela **topatuko** [HARK] emango zuen pauso bakoitzean. (EusCor)
- (735) Nolanahi ere, iturri medikoek aurreratu zuten atzo Goikoetxearen gorpuari ez ziotela topatu heriotza eragin ziezaiokeen kanpoko ezereen aztarnarik [HAIEK] (EG)
- (736) Festibalak topatu ditu estatu batuar aitabitxiak. (EG)

Aditz honetan, **SOZ** da DA-1 *bssan* azpikategorizatzen den Kasua ABSz gain. SOZ hau *gai* bezala jarri dugu, hain zuzen DU-2 *bssan* **ABS**k adierazten duen gauza bera delako. *gai*a diogu inolako aldakeketerik jasaten ez duelako entitateak. Horregatik, ekintzaren burutzailea *esperimentatzailetzat* jo dugu, orain arteko jardueretan esandakoarekin bat etorritz. Jarduera hori burutzen duena DA-1en ABSz gauzatzen da eta DU-2n ERGez; eta beti gizakia da.

Hasiera batean irudi lezake bi balio hauen artean dagoen desberdintasuna ekintza nahita edo nahigabe egitean datzala. Hots, ekintza nahita egingo litzateke DU-2n eta nahigabe DA-1en. Beharbada baieztapen hori egia da DA-1en kasuan, baina DU-2n nahigabeko ekintzak

ere adierazten dira; eta, berez, borondateari dagokion zentzua esaldiaren testuinguru osoak baldintzatzen du.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE** eta **INS** ohiko balioez (kokapena eta modua) onargarriak dira. Baina esan behar da DU-2 balioan INE oso maiz agertzen dela. Kokapen hau batzuetan abstraktua da, INE entitatea ere abstraktua delako, edota topatua den entitatea ere abstraktua delako.

ABLk esperimentatzailearen kokapen zehaztugabea adieraz dezake, baina ez da oso arrunta, eta horrelakoetan INEk ez dirudi agertzeko gaitasuna duenik.

Azkenik, ikusten dugunez, **DAT** onargarria da DU-2 *bssan* bakarrik. Hala ere, DU-2 balioan posible izateko, ABS entitateak ezin du gizakia izan. DAT honen balioa zehaztea ere ez da erraza ((735)). Hasiera batean jardueraren *helburua* dela ematen du, baina hori horrelaxe da ERG entitate gizakiak ekintza nahita egiten duenean bakarrik. Ez dugu, hala ere, nahita egindako ekintzarik aurkitu corpusean DATekin (adibide asmatu batera joaz: *lana topatu nion*). Izatez erabilera jatorra den ere ez dago oso argi. Hori horrela izanda, badirudi DATek bestetik gabe ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten duela.

Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (*L 1.2.4*) eta Alternantzia erreziproko simple iragangaitzan (*L 2.5.4*) esan duguna berretsiz, ez da beharrezkoa ABS eta SOZ entitateak estatus berekoak (tasun semantiko berekoak, esango genuke) izatea. Alegia, *nik giro unionista topatu nuen* bai baina **ni eta giro unionista topatu ginen* ez da posible. Orobat *infernuarekin topatu nintzen* bai baina **infernua eta ni topatu ginen* ez.


Honenbestez, esango dugu *topatu* aditzak jarduera bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi gisa ekintza burutzen duen *esperimentatzailea* eta ekintza gertatzeko beharrezkoa den *gaia* dituela. DA-1 *bssan* SOZ da *gaia* eta DU-2n ABS.

Bssan Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

topatu-DA-1: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia_SOZ

topatu-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS

- Datu estatistikoek DU-2 balioa askozaz ere arruntagoa dela ematen dute aditzera, eta horrekin, SOZen maiztasuna ez oso handia izatea ere bai.



DA	7,56%	DA-ins	1,72%	DA-abs	100,00%	DA-konp	1,72%	DA-soz	3,45%	DA-ine	46,55%				
DU	90,74%	DU-ins	7,33%	DU-ala	1,87%	DU-abs	63,65%	DU-konp	1,72%	DU-soz	3,45%	DU-ine	9,20%	DU-erg	100,00%
DIO	0,85%	DIO-abs	100,00%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%								
ZAIO	0,85%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-dat	100,00%										

5.2 Bi *bss* baino gehiago dituzten aditzak

DA eta DU laguntzaileak onartzen dituzten aditzetatik 14ek dute bi balio baino gehiago.

agertu (6), aldatu (5), amaitu (4), aurkitu (3), banandu (4), bete (6), erre (3), hornitu (3), hustu (3), igo (5), isuri (4), izan (4), jaitsi (5), jokatu (6), nahastu (4), oroitu (4), sartu (4)

Aditz hauetan, zenbaitek elkarren artean alternantzia osatzen duten *bss*ak dituzte bakarrik. Beste zenbaitek, elkarren artean *bss*ak direnak eta ez direnak dituzte.

A multzoa: *bss*ak elkarren artean alternantzia

erre (3), hornitu (3), hustu (3), igo (5), jaitsi (5), oroitu (4), sartu (4)

Azter ditzagun, bada, aditzak banan-banan.

Erre

Erre aditzari, hiru *bss* markatu dizkiogu. Horietako bik (*erre-DA-1* eta *erre-DU-2k*) alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute elkarren artean, eta *erre-DU-3* inespezifikazio jakina dela esan daiteke. Ikus ditzagun, bada, hirurak elkarrekin:

erre-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, ABL, DAT

erre-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, ABL, DAT

erre-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS [*tabako*], ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

Azalpena

Ikus erre-DA-1 eta erre-DU-2 *bssen* zenbait adibide (*bssak* desberdintzen dituzten osagaiak azpimarratuta:

- (737) Alde batetik, piztu egin denez, bere barne-energia eman du pospoloak, eta bestetik **erre** egin denez [HURA], lehen pospoloa zena erretako zotz bihurtu da. (EusCor)
- (738) Substantzia organikoak **erretzen** direnean, karbono dioxidoa sortzen da eta hau atmosferan pila daiteke. (EusCor)
- (739) Leiho bat pizatu eta sare elektrikoko kable bat **erre** zen. (EG)
- (740) Urtez urte suak hainbat hektarea **erre** ohi ditu. (EusCor)
- (741) Halaber, Sheak esan zuen apirilaren 3tik serbiarrek 50 herri **erre** dituztela. (EG)
- (742) Termometroak zero azpiko hiru gradutik behera zeuden, eta bat-batean, egunak zabaldu zueneko eguzki izpi indartsuek kimu gazteak **erre** zituzten. (EG)

Eta ikus erre-DU-3ren adibideak:

- (743) Urduritasunik gabe **erre** zuen ordea: [HARK] (EG)
- (744) Ze errespeto gutxi behar zen alde hartan [HARK] **erretzeko** behean horretarako leku jakin bat egonda. (EusCor)
- (745) Eztulak hartua zeukan gizona, eta sendagileak gehiago ez [HARK] **erretzeko** agindu zion. (EusCor)

Aditz honek entitate baten egoera-aldaketa adierazten du. *Gai ukitua* **ABS**k adierazten du, eta orotarikoa izan daiteke. Ekintza **ER**Gez gauzaturiko *kausa* batek eragiten du. Hau gizakia izan daiteke ((737)); edo zer abstraktu bat ((738)), batzuetan naturazkoa delarik ((740)).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, eta adibiderik aurkitu ez badugu ere, **IN**Sek eta **SO**Zek euren ohiko balioak izango lituzkete, batzuetan kausa eitea ere ager dezaketelarik.

ABLk, ABS entitatearen baitako kokaguneari egingo lioke erreferentzia (*liburua izkinetik/albotik/erditik erre*); oso kasu konkretua beraz.

DATek, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harremanaren berri ematen du. Dagoeneko beste zenbait aditzetan aipatu dugun bezala, jabetzazko harreman hau **DA**TEkin ez baizik eta **ER**Geekin sor daiteke. Halakoetan, **ER**G *gai ukitu* bihurtzen da, **ABS** ere *gai ukitu* baita.

Bukatzeko, Objektu inespezifikoarean alternantzia esan dugun bezala, erre-DU-3 *bssan tabakoa* zerbait inespezifikatzen dela esan daiteke. Elementu jakineko inespezifikazioetan gertatu ohi den bezala, balio berezi bat agertzen zaigu aditzean. Aditz zehatz honetan, gainera, berez *gai ukitu* litzatekeen entitate bat da inespezifikatzen dena; eta *gai ukituei* buruz esan duguna kontuan hartuta, hori ez da ohikoa egoera-aldaketa adierazten duten aditzen kasuan. Hala izanik, erre-DU-3n **ABS** entitatearen aldaketa baino gehiago, **ER**G entitatearen esperimentatzeak hartzen du garrantzia; jardueretan gertatzen dena, alegia. Eta kasu honetan, gainera, **ER**G entitatea beti gizakia da. Hortaz, ikusten dugunez, *erre* aditzaren jatorrizko balioa nahiko urrun geratzen da, eta bestalde, *gai ukituak* inespezifikatzen ez direlako ideia nagusiak salbuespen bat du hemen. Nolanahi ere, balio semantiko berri bat (polisemia, alegia) sortu dela argi dago. Esan behar da, *tabakoa* bera, edo honen hiponimo nahiz espezifikazio bat dena ere ager daitekeela esplizituki perpausean (*Ez du tabako beltza erretzen*). Beraz, espezifikazio jakina da, baina hala ere, modu espezifikogotan ere gauza daiteke syntaxian.

Horretaz gain, **DA**Tik ez du onartzen (erabilera etikoa salbu, beti ere); eta **ABL**k, agertuz gero, **ER**G entitatearen kokapena adieraziko luke.

Beraz, esango dugu aditz honek oro har egoera-aldaketa adierazten duela, horretarako *gai ukitua* eta *kausa* dituela parte-hartzaile nagusi gisa, **ABS**z eta **ER**Gez gauzatuak, hurrenez hurren. Erre-DU-3, ordea, jarduera bat adieraztera pasatu da, parte-hartzaile nagusi bezala **ER**Gez gauzatzen den *esperimentatzailea* eta *tabakoa* *gai jakina* dituela.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

erre-DA-1: gai ukitua_ABS

erre-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua_ABS

erre-DU-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; [gaia: tabako_ABS]

- Datu estatistikoek ERG eta ABSren maiztasuna jartzen digute agerian. Horien ondoren, DATek du maiztasunik handiena; eta segidan, INEk.



DA	15,29%	DA-abl	7,98%	DA-abs	100,00%	DA-soz	1,30%	DA-ine	18,55%										
DU	69,69%	DU-ins	1,75%	DU-ala	1,75%	DU-abl	3,25%	DU-abs	68,00%	DU-komp	1,75%	DU-soz	1,22%	DU-ine	7,69%	DU-erg	100,00%		
DIO	12,63%	DIO-abl	1,38%	DIO-abs	75,40%	DIO-komp	9,65%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,12%	DIO-ine	11,90%	DIO-erg	100,00%				
ZAI	2,39%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	1,19%	ZAI-ine	53,47%										

Hornitu

Hornitu aditzari hiru *bss* markatu dizkiogu. Hornitu-DA-1 eta hornitu-DA-2k alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dutela esango dugu, baina berezitasun bat erakusten duela. Hornitu-DU-3k, bestalde, hornitu-DU-2rekiko alternantzia osatzen du.

hornitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, ABL, DAT

hornitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

hornitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus hornitu-DA-1 eta hornitu-DU-2 *bssen* zenbait adibide:

- (746) Bestalde, ez dugu ahaztu behar landare asko inguruko airetik, ontziko lurretik baino gehiago **hornitzen** direla urez. (EusCor)
- (747) Tarteka-marteka uztaitxo batzuez [HURA] **horniturik** doa, zura ez zartatzearren, eta apaingarri gisa. (EusCor)
- (748) Besteak zenbakiz **hornitu** ditugu. [GUK] (EusCor)
- (749) 1615garrenean esaterako, euskal arrantzaleek 3.680 upela sagardo eraman zituzten Atlantikoaz bestaldeko arrantzalekuetan zebiltzanak [HAIEK] **hornitzeko**. (EusCor)
- (750) "Santutegiak berriro eraiki, tenpluak jantzi eta era guztietako opari preziasuez **hornitu** nituen [NIK]". (EusCor)
- (751) Shamanak hizkera batez **hornitzen** du gaixoa, eta hizkera horretan adieraz daitezke zuzenean egoera formulatugabeak, eta beste inolako moduz formulaezinak. (EusCor)
- (752) Joan den udan idatziriko zutabearen titularrean Azkena delako hori galderako puntuaz **hornitu** nuen. [NI] (EusCor)
- (753) Instalazio tekniko hobez [HAIEK] [HURA] **hornitu** nahi dute, horrela "egunero zazpi ordu egiteko elkarrekin". (EusCor)

Ikus, bestalde, hornitu-DU-3 *bssaren* adibide bat:

- (754) Kasu batean eta bestean, eskulturak eta marrazkiak **hornitzen** dituzte bi espresio bide funtsezkoak; (EusCor)

Hornituk Spray/load alternantziako (L 2.3.1) aldaera baten egitura erakusten du hemen markatu dugun *bssan*. Baina, aditz honetan ez dira bakarrik substantziak entitate bat betetzen dutenak. Bestalde, aldaera honi ematen zaion balio semantikoa (efektu holistikoa) nahitaezkoa ez dela ematen du. Horrek, egoera-aldaketa adieraztetik urrundu egiten du.

Adibideetan ikus dezakegunez, **ABS** entitatea batzuetan gizakia da ((749), (751)), eta halakoetan edukierazko entitate bat baino gehiago *helburua* dela ematen du (eta ez *helburuko kokapena*). Orduan, ERGek *abiapuntu* gisa jokutzen duela dirudi (*kausa* gisa baino); areago

beti gizakia dela ikusita. Besteak beste *eskaini eta eraman* aditzetan esan duguna gogora ekartzen badugu (hau da, elkarraldatzea batetik eta kokapen-aldaketa bestetik bereizitzat eman ditugula kontuan hartzen badugu), hemen ere bi ekintza horiek nahastuta agertzen zaizkigula ikusten dugu. Horrek inondik ere bi ekintza hauen arteko antzekotasuna are nabarmenagoa jartzen du, berriz ere. Hala ere, *bete* aditzean egingo dugun moduan, ABS *helburuko kokapen* gisa hartuko dugu orokorki, eta elkarraldatzea baino gehiago kokapen-aldaketa adierazten dela esango dugu. Esan behar da, hala ere, *hornituren* kasua berezia dela, alde batetik adierazten duena adierazteko erabiltzen duen egitura sintaktikoagatik, eta bestetik, erabiltzen duen egitura erabilia, ez duelako zentzu holistikoa nahitaez adierazten.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk** eta **SOZek** euren ohiko balioak izango lituzkete.

ABLri dagokionez, ikusten dugu hornitu-DA-1en onartuen artean jarri dugula, baina hornitu-DU-2n ez. Izan ere, DA-1eko ABLk eta DU-2ko ERGek balio antzekoa dutela dirudi ((746)). Kontua da, orduan, balio iragangaitz honetan *kausaa* agertzen ez dela esan beharrean, *kausaa* ergatiboa agertzen ez dela esan beharko genukeela (beste aditz batzuk aztertu ditugunean esan dugun bezala —esaterako, *hil, haserretu*—).

DATek ez du oso arrunta ematen baina agertuz gero, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adieraziko lukeela dirudi.

Azkenik, esan behar da, erabilera iragangaitza askotan partizipio eta beste aditz batez agertzen dela ((747)); gutxi daude DA laguntzaileaz.

Hornitu-DU-3 *bssan*, berriz, ikusten dugu INS nabarmena ez izateaz gain, ezinezkotzat jo dugula. Izan ere, ERGek *kausaa* ez ezik *gai ukitua* ere adierazten du. Ohar bedi, fenomeno bera azalduko dugula *bete* aditzean.

Beraz, esango dugu aditz honek entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, horretarako ikusi ditugun hiru *bssak* baliatzen dituelarik.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

hornitu-DA-1: helburuko kokapena_ABS, gai ukitua_INS

hornitu-DU-4: kausa [+giz]_ERG; helburuko kokapena_ABS; gai ukitua_INS

hornitu-DU-3: kausa + gai ukitua_ERG; helburuko kokapena_ABS

- Datu estatistikoek INSen presentzia nabarmena agerian jartzen dute, ERG eta ABSrenarekin batera:



DA	55,56%	DA-ins	40,49%	DA-abl	33,17%	DA-abs	100,00%	DA-soz	4,88%	DA-ine	28,78%				
DU	38,89%	DU-ins	69,34%	DU-abl	2,44%	DU-abs	35,89%	DU-soz	4,88%	DU-ine	2,44%	DU-erg	100,00%		
DIO	5,56%	DIO-ins	31,71%	DIO-abl	2,44%	DIO-abs	60,98%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	4,88%	DIO-ine	46,34%	DIO-erg	100,00%

Hustu

Hustu aditzari hiru *bss* markatu dizkiogu. *Hustu-DA-1* eta *hustu-DU-2k* alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute, eta *hustu-DU-3k* *hustu-DU-2rekiko* Spray/Load moduko alternantzia erakusten du.

hustu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

hustu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

hustu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, ALA, DAT

Azalpena

Ikus hustu-DA-1 eta hustu-DU-2 *bssen* zenbait adibide:

- (755) Berez erakundeak etxe berriak egin edo etxeak **hustu** egin direnean malgutasuna izan du (EusCor)
- (756) Horixe gertatu da, hor ateratzerakoan behean ukitu dit, izterrean sartzea asko kostatu izan zait, **hustu** egin naiz [NI] eta ez zegoen aurrera egiteko indarririk ", nabarmendu zuen Mielek. (EusCor)
- (757) Ekonomia horrek, eta langabeziak etxeak **hustu** egiten ditu, eta neurri batean, jubilatuek, erretiratuek erosten dituzte, jendetza geroago eta ohi baino gehiago zahartuz. (EG)
- (758) Nork **hustuko** dizu limosnen kutxatila? (EG)
- (759) Arratsaldeko elurteak berriro **hustu** zuen parkea. (EG)
- (760) Kurpilak **hustu** zizkioten. (EG)

Ikus, bestalde, hornitu-DU-3 *bssaren* zenbait adibide:

- (761) UZEIko Biologia 1 lizendegia hiztegirako aldeztu aurretik landu zirenez, testuetatik ez ziren berriro **hustu** [HAIEK], gehienetan behintzat. (EusCor)
- (762) Kanalako agureak txakolina **hustu** digu, hiruroi edalontzi bete bana. (EusCor)

Aditz honek, goiko *hornituk* bezalaxe, entitate baten kokapen-aldaketa adierazten du, baina hartan ez bezala, hemen zentzu holistikoa dugula ematen du. Beraz, kokapen-aldaketa eta egoera-aldaketa adierazten dituela esan dezakegu. Kasu honetan *helburuko kokapena* izan beharrean, *abiapuntuko kokapena* genuke ABSz gauzatzen den osagaia. Adibideek erakusten digutenez, hemen ere *abiapuntuko kokapena* gizakia izan daiteke ((756)). Baina *hornitu* aditzean (*eta, ikusiko dugun bezala, bete* aditzean) ez bezala, hemen ez da INSik azpikategorizatzen.

Jakin badakigu, *betek* bezalaxe, *hustuk* onar dezakeela *gai ukitua* zehazten duen INSik, corpusean agertu ez zaigun arren (*etxea jendez hustu*, esaterako). Badirudi arrazoi nagusia dela *husturen* kasuan INS horrek adieraziko lukeena nolabait jakina dela esaldiko testuinguru nahiz testuinguru pragmatikoaren arabera. Alegia, *etxeak jendez* husten dira normalean

((755), (757)); *parkea* ere *jendez* husten da normalean (759)); *gurpila airez* ((760)), eta abar. Badirudi, INSen beharra, normalean esperoko genukeen elementu hori ez den neurrian sumatzen dela (esaterako *etxea altzariz*; *parkea landarez*; gurpilaren kasuan, berriz, ezinezkoa litzateke beste ezer). Bestalde, *hormituk* eta *betek* erakusten duen beste alternantzia, *gai ukitua* eta *kausa* batera ageri duena, ez du *hustuk* erakusten.

Esan behar dugu, **beste hainbat aditzetan ikusi dugun bezala**, hustu-DU-2 *bssan* ABS entitatea gizaki bati dagokion gorputz-atala (edo gorputzarekin loturiko entitateren bat) denean, ERG entitatearena izan ohi dela, eta orduan ERG honek *kausa* baino gehiago, *abiapuntuko kokapena* adierazten duela:

(763) Klandestinitate garaian lagun izan zuen Fernando Mujika, eta haren ehorzketan Enrique haren anaiarekin besarkada luze eta hunkigarri baten bidez adierazi bazuen ere, Auzitegi Konstituzionaleko lehendakari ohiaren hilketaren ondoren **barrua hustu** zuen: [HARK] (EG)

Gainontzeko Kasuei dagokienez, DA-1 eta DU-2n **ALA** eta **ABL** ezinezkotzat jo ditugu (izatez hauek adierazten dituztelako, normalean, *abiapuntuko* eta *helburuko kokapen* horiek), baina ABL kasu bakanetan —adibidez, ABS entitatearen parte adierazten duenean (*barrutik*)— zilegi dela dirudi. Hala ere, oso kasu zehatza denez, orokorrean ez kontuan hartzea erabaki dugu.

DATek ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela dirudi ((758), 760)). **IN**Sek eta **SOZ**ek orotariko modua (bitartekoa/baliabidea, tresna, konpainia) adieraziko lukete. Eta **INE**k, azkenik, gertakizunaren kokapena agertuko luke.

Hustu-DU-3 *bssan*, berriz, *helburuko* nahiz *abiapuntuko kokapenak* ohiko Kasuez ageri dira: **AL**Az eta **INE**Z *helburuko kokapena*, eta **ABL**Z *abiapuntukoa*. Orduan ABS honakoan bai da *gai ukitua*; hau da, esplizituki ageri da. Horregatik esaten dugu Spray/Load alternantziaren parekoa dela. Gertatzen dena da, aldaera bateko **INS** eta besteko **LOK** ere ez direla Kasu azpikategorizatu bezala ageri. Horretaz gain, **AL**Ak eta **INE**k balio bera duten neurrian, alternantzia gisa planteatu beharko genuke (*sartu* aditzean egingo dugun bezalaxe). Ordea, Kasu hauen garrantzia ez denez hain argia, ez dugu horrelakorik egin. Bestela ere, **INE**k gertakizunaren kokapen orokorra adieraz dezake. Azkenik, esan behar da, dirudienez, *kausak* beti gizakia izan behar duela *bss* honetan.

INSek eta **SOZ**ek euren ohiko balioak adierazteko gaitasuna dute.

DATek, azkenik, ekintza zuzentzen zaion entitatea adieraziko luke. Beraz, goiko bi *bss*etan ikusi dugunaren desberdina da. **DAT**ek *helburua* adierazteak, elkarraldatze eta kokapen-aldaketa balio semantikoen arteko nahastea sorrarazten du, bi balio hauen gertutasuna agerian utziz berriz ere. *Eraman* aditzean esan dugunarekin bat etorriz, ordea, argi dago (762) adibidean *edalontzira* moduko zerbait ulertu beharra dagoela, eta hala izanik, **DAT** entitateak bere jabetzan (jabetza besterengarrian) duen zerbaiti egiten zaiola erreferentzia berez. Alegia, **ALA** eta **DAT** entitateen artean sortzen da jabetzako harremana. Horregatik, **DAT** *helburua* da, baina *helburuko kokapena* bere baitan duen *helburua*.

Honenbestez, esango dugu *hustuk* entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela horretarako ikusi ditugun *bssak* baliatzen dituela.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

hustu-DA-1: abiapuntuko kokapena_ABS

hustu-DU-2: kausa_ERG; abiapuntuko kokapena_ABS

hustu-DU-3: kausa [giz]_ERG; gai ukitua_ABS

- Datu estatistikoek ERGen eta ABSren maiztasuna jartzen dute agerian:



DA	36,36%	DA-ins	4,55%	DA-abl	12,50%	DA-abs	100,00%	DA-komp	17,05%	DA-ine	4,55%		
DU	54,55%	DU-ins	12,88%	DU-abl	8,33%	DU-abs	81,82%	DU-komp	4,55%	DU-ine	4,55%	DU-erg	100,00%
DIO	9,09%	DIO-ins	4,55%	DIO-abs	81,82%	DIO-komp	4,55%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	4,55%	DIO-erg	100,00%

eta

Igo eta *jaitsi* aditzak batera landuko ditugu jokaera antzekoa erakusten dutelako euren *bss* guztietan.

Bi aditzoi *bss* markatu dizkiegu: *igo-DA-1/jaitsi-DA-1* *bssak* *igo-DU-3/jaitsi-DU-3* *bssarekin* aldaera kausatibo/inkoatiboa osatzen du. *Igo-DA-2/jaitsi-DA-2* *bssak* *igo-DA-1/jaitsi-DA-1* *bssarekin* alternantzia osatzen du, eta alternantzia bera geratzen da erabilera iragankorrean; hori dela eta *igo-DU-4/jaitsi-DU-4* *bssak* landu ditugu. Azkenik, *igo-DU-5/jaitsi-DU-5* *bssak*, *igo-DA-1/jaitsi-DA-1* ekiko alternantzia direla ikusiko dugu. Esan behar dugu *igori* ez diogula markatu Preposizio lokatiboaren galeraren alternantzia (L 1.4.1). Azken batean, han esandakoa berretsiz *mendi* hitzaren kasuan bakarrik aplikatu daitekeela dirudi. Horren aurrean, nahiago izan dugu alternantzia orokorrago bat proposatu, non bi Kasu lokatibok (ABLk eta ALAk) batera adierazten dutenak osatzen duen alternantzian (eta ez bakarrik ALAk); hori da hain zuzen, *igo-DU-5/jaitsi-DU-5* *bssan* planteatzen duguna.

igo-DA-1/jaitsi-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Onartzen ez dituzten kasuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

igo-DU-3/jaitsi-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Onartzen ez dituzten kasuak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

igo-DA-2/jaitsi-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Onartzen ez dituzten kasuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

igo-DU-4/igo-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Onartzen ez dituzten kasuak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

igo-DU-5/igo-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Onartzen ez dituzten kasuak: ELA_KONP, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus igo-DA-1/jaitsi-DA-1 eta igo-DU-3/jaitsi-DU-3 *bssen* zenbait adibide:

Igo:

(764) Hartz bihurtuko zarete eta zuhaitzetara **igoko** zarete [ZUEK], baina izeietara ez ". (EusCor)

(765) Uda garaian Kalamua, Aitzketa edo Urkora **igotzen** zaretenean [ZUEK], begiratu badaezpada ea han dabilen eta, zorte pixka batekin, aurkituko duzue. (EusCor)

(766) Polizia kezkatiez betetako auto bat **igo** zen Montereytik. (EusCor)

(767) Tximistaren pare gurutzatu zuen aretoa eskaileraren oineraino eta orein bat bezala **igo** zen handik [HURA]. (EG)

- (768) Azinbo belaunikatu zen eta Pigmeo ttikia **igo** zitaion bizkarrera [HARI]. (EG)
- (769) Detekzio sistemen hobekuntzei esker operazio portzentaia %60ra **igo** da azken urteotan, hau da, operazio mahaira joan behar izan gabe antzematen dira askoz lehenago gaitzaren benetako nondik norakoak, eta Iruñeko erietxean orain jarri den tresneriari esker ia %100era iritsiko dela adierazi zuen Gomezek. (EG)
- (770) - ANATOLIA prentsa agentziak jasotako datuen arabera, astelehen gaueko lurrikararen behin-behineko balantzea 3.700 hil eta 17.000 zaurituko kopurura **igo** zen atzo iluntzean. (EG)
- (771) **Igo** nuen kamioira [NIK] [HURA]. (EusCor)
- (772) Anoi ematearekin, eta ONCE lasaitu delako, Txente Garciak 6tik 10era **igo** du aldea. (EG)

Jaitsi:

- (773) Abere hauek, gaueko iluntasun eta bakardadearen babesean, mendiko belarretatik herri inguruetak soroetara [HAIEK] **jeisteko** joera dute eta hauetara etortzen badira, kalte handiak egiten dituzte, bertan aurkitzen dutena jan eta zapalduz. (EusCor)
- (774) 64 urtetik gorakoen artean galerak % 3,3koak dira eta 16-24 adin-taldean % 0,6ra **jaisten** dira [HAIEK]. (EusCor)
- (775) Esfortzu trinko baten ondoren, bai odolean eta bai giharrean aurkitu dezakegun azido laktikoaren kantitatea atsedeneko neurrietara **jaitsi** dadin, ordubete igaro behar du gutxienez. (EusCor)
- (776) Jan ondoren etxera **jaisten** da [HURA], eta neskato zegoena (artzain-mutil ere bazena) udaldiko bigarren etxekandere / artzain nagusi bihurtzen da. (EusCor)
- (777) Zaratak oso gora egiten zuenean, nazioarteko hiru ordezkariak gelara **jaisten** ziren zer gertatzen zen ikustera. (EusCor)
- (778) Soto andrea labana hartuta **jaitsi** zen oilategira. (EusCor)
- (779) - Bai, ikusi nuen zurekin batean autotik **jaitsi** zena. (EusCor)
- (780) Ilargia atera arte ez gara **jaitsiko** hemendik [GU]. (EusCor)
- (781) Horretaz jabetu nintzen mailadiko oholetatik arrapaladan [NI] **jaistean** izan zen oin-hotsa aditu nuelako. (EusCor)
- (782) Ibai bat txirrian **jaitsi** zen amaren begietatik eta Imanol harritu egin zen, ondo estutu zuelako amak bere beso zuri gurien artean; (EusCor)
- (783) Lehen 74 kurio isurtzea onartua zegoen eta egun muga 3ra **jaitsi** da. (EG)
- (784) Generoetan, pisu handiena narratibak du, nahiz eta 1996tik 1997ra %72,5etik %61,8ra **jaitsi** den narratibagintza. (EG)
- (785) Garateko gainean 5etik 20ra **jaitsi** da Txentek duen aldea. (EG)
- (786) Gero altxatu zaldia eta portxetik **jaitsi** zuen azkenengo aldiz. [HARK] [HURA] (EusCor)
- (787) Urte hartatik 1956 urtera arte, zenbat ikatz **jaitsi** ote zuen bertako nagusi Bitor Aiak, idi nabar koloreko haiekin, Billabonako ingurura? (EusCor)
- (788) Horregatik artzain gehienek abuztua baino lehen ez dituzte gaztak menditik **jaisten**. (EusCor)
- (789) Lehenengo bost kotxeak errenkadan jarri, orduko 10 kilometroko abiadara [HAIEK] [HAIEK] **jaitsi** eta dozena bat bandera irlandar dantzan jarri dituzte, bozina zaratatsuen doinuan. (EusCor)
- (790) Dударik gabe, neurri horiek inflazioa espero dugun mailara **jaitsiko** dute. (EG)

- (791) Espetxe zigorra urtebetera jaitsi zietenez [HAIEK] [HAIEI], Manuel Sanchez Corbi, Jose Maria de las Cuevas Carretero eta Antonio Lozano Garcia guardia zibilak ez ziren azkenean espexera joan. (EG)

Ikus, bestalde, igo-DA-2/ jaitsi-DA-2 eta igo-DU-4/ jaitsi-DU-4 *bssen zenbait adibide:*

Igo:

- (792) Gainerako herrialdeei dagokienez, Bizkaia eta Gipuzkoan inflazioa % 0,5 igo da eta Araban, berriz, % 0,3. Inflazioaren igoeraren eragile nagusiak hiru aldagai izan dira. (EG)
- (793) Nafarroan sektore horren indizea % 0,9 igo da uztailean, eta EAEn % 0,6. Aldiz, elikagai, medizina, jantzi eta kultura sektoreek nahikoa egonkor jarraitu dute, zenbait kasutan bere horretan geldituz, inolako hazkunderik gabe, jantzien multzoa kasu. (EG)
- (794) Inoiz izan duen preziorik altuenera iritsi da Urtarriletik hona bonbonaren prezioa 203 pezeta igo da, %18,3; (EG)
- (795) Erreserba Federalak puntu laurden igo ditu interes tipoak, espero zen bezala. (EG)

Jaitsi:

- (796) Azkenean, Dow Jones indizea % 0,15 jaitsi zen eta Nasdaq merkatu elektronikoa, berriz, % 1,20 igo. (EG)
- (797) Daewoo Motors filialaren datuen arabera, automobilien etxeko salmentak (Korea bertakoak) %43 jaitsi ziren. (EG)
- (798) Galerien elkarteko kide eta antolatzaileen arteko giro liskartsuarekin amaitu zen atzo ARCO azoka Madrilen Antolatzaileen ekimenez, bisitari kopurua % 8 jaitsi da, baina trukean galeristek iaz baino artelan gehiago saldu dituzte Azoka urtez urte hobetzen ari dela baieztatu da, ohiko lanak eta berritasun handikoak tartekatuta baitira erakusketetan. (EG)
- (799) EBZk puntu erdi jaitsi du interes tasa, % 2,5eraino, espero baino gehiago. (EG)
- (800) Sukarra gradu erdi jaitsi zitzaion eta medikuak alta eman zion. (EG)

Ikus, azkenik, igo-DU-5/ jaitsi-DU-5 *bssen zenbait adibide:*

Igo:

- (801) Tipi-tapa, tipi-tapa aldapak [NORBAITEK] igoz, Adarrako azken malda baino lehen dagoen lautada handirarte; (EusCor)
- (802) Neskak bira erdia egin eta atari-mailak igo zituen. [HARK] (EusCor)
- (803) Goimendia [NIK] igo nuen lehen aldian izan zen. (EusCor)

Jaitsi:

- (804) (...) Pito eta Poli lehenengoetakoak izaten ziren ikastetxe barruko harmailak [HAIEK] jaitsi eta atariko zolua gurutzatzen, batik-bat eguerdian non, arin ibili ezean, ate nagusiaren aurrean bildutako eskolier multzoarekin oztopatzen baitziren halabeharrez. (EusCor)
- (805) Abenturazale amorratua zen eta besteak beste mountain bike-ez Laponian ibili zen, Nilo ibaia piraguz [HARK] jeitsi zuen eta Artikotik Tropikora bidaiatu egin zuen. (EusCor)

Bss hauetan guztietan entitate baten kokapen- edo egoera-aldaketa adierazten da. DA-1, DA-2, DU-3 eta DU-4 balioetan ABSn gauzatzen da entitate hori, DU-5 *bssan*, ordea, ERGen, eta beti izaki biziduna behar duela izan dirudi. Beste *bss*etan anitzagoa izan daiteke.

DA-1 eta DU-3 *bssetan* ABS entitatea izaera anitzekoa izan daiteke. Batetik, izaki biziduna —askotan gizakia—; bestetik, mekanismoren baten bidez mugitzeko berezko gaitasuna izango balu bezala jokatzeko duen izaki bizigabe bat ((766)); eta, azkenik, zer abstraktu bat. **AL**Ak entitate horren *helburuko kokapena/egoera* adierazten du, eta **ABL**k *abiapuntuko kokapena/egoera* edo *bidea*. Hain zuzen, sintagma hauen guneko entitateak abstraktuak direnean adierazten da egoera-aldaketa. Bestetik, ABS entitatea abstraktua denean kokapena edo egoera modu abstraktuan ulertu behar dira (biak gauza bera suertatuz, azken batean).

Esan behar da, dena den, badirela adibideak non ez den ez ABLrik ez ALArrik agertzen. Fenomeno hau askozaz ere maizago aurkitzen dugu ABS entitatea abstraktua denean. Sintagma hauek agertu ezean, *gora/behera* moduko norabidezko osagai bat ulertutzat eman behar dela dirudi. Izan ere, *jaso* aditzean gertatzen den bezala, aditzok *norabidea* osagaia — zehazki bertikalitatea adierazten duela— bere semantikaren baitan dutela esaten baita. Horixe da Vázquez et al-ek (2000) esaten dutena (jo bedi *jaso aditzera —89-90 or.—* autore hauen hitzak berriz gogoratu nahi izanez gero). Jakina, ABS entitatea abstraktua denean, *behera* edo *gora* hori ere modu abstraktuan ulertu behar da. Norabidezko osagai hori sintaktikoki gauzatu ere ager daiteke. Ikus zenbait adibide, bai erabilera iragangaitzean bai iragankorrean:

Igo:

- (806) Ferritaren kasuan, ale- eta azpialemugek dislokazioen mugimendua oztopatzen dute, eta horren ondorioz, altzairuaren elastikotasun-muga eta trakzio-erresistentzia **igo** egiten dira. (EusCor)
- (807) Izan ere, ekainerako ibaia nahiko jaitsita zetorren, baina euri bortitzen sasoiari, abendutik maiatza arte, uraren maila asko **igotzen** zen, hamabost bat metroko gora-behera ere egon zitekeen, eta oholez oso modu txiroan eraikitako etxe haiek mehatxu hartatik salbu gorde behar ziren nola edo hala. (EusCor)
- (808) (...) karbono erradioaktiboz aztertuta eta material paleobotanikoek salatzen dutena kontutan hartuz, argi eta garbi esan daiteke glaziazioaren amaieran ozeanoko uren maila emeki emeki **igo** zela. (EusCor)
- (809) Bazkal orduan bertze paper batzuk **igo** ditugu [GUK]. (EusCor)
- (810) -Gerrako ekintzek moralak **igotzen** duten bezala, prozesu politikoak ere moralari euts diezaioke. (EusCor)
- (811) Mendizabalen txanda etorri zen eta honek **igo** zuen listoia gora. (EG)

Jaitsi:

- (812) -Drogen aurka nagusitzen diren ikuspuntu eta ereduak (drogen aurkako gerrak, "ez, ez, ez" dioten kanpainen, zantzetak, polizi neurriak, atxilotetek, ...) ez dituzte helburuak bete, hau da, kontsumitzaile-kopurua **jaitea** edo droga-menpekotasunerako arriskuak murriztea. (EG)
- (813) Pablo, beldurrak airean, **jaitsi** eta korralera atzera bueltatzeko esaten ari zitzaidan behin eta berriro, amona konturatuko zela eta demandan egingo zigula ziztua baino lehen igotzeagatik. (EG)
- (814) "Proiektua antisoziala da, eta, gainera, inbertsioen kopurua **jaitsi** egin du Jaurilaritzak", adierazi zuen. (EusCor)

- (815) Bertan egon ziren ia 13:00ak arte eta ordu horretan beren kabuz **jaitsi** ziren. [HAIEK] (EusCor)
- (816) -ESPERO bezala, interes tasak jaitsi egin zituen atzo Europako Banku Zentralak (EBZ). (EusCor)
- (817) Baina espero baino askoz gehiago **jaitsi** zuen diruaren prezioa Europako Batasuneko finantza erakundeak. (EusCor)
- (818) "Ikusgarriagoa izango zela uste genuen, temperatura jaitsi eta ilundu egingo zuela, baina eklipse osoa izango zen lekuetan gertatuko zela esan digute", zioen Valentziako Inmak. (EusCor)
- (819) Jon Krakauer kazetariak, ordea, Rob Hallen taldeko bezero gisa Everest igo zuenak, gertatutakoaren erruaren parte bat Boukreeven bizkar utzi du, bezeroak eta gidari lagunak goian utzi eta bera jaitsi egin zelako. (EusCor)
- (820) Ofieder S.A. proiektu berria kokatu nahi duen lekua ere guztiz desegokizat jo du Unanuek, baserri lurrez inguratuta dagoelako, eta justu aldamenean Urola ibaira doan erreka bat jaisten delako, ur emari handia izaten duena. (EG)
- (821) Behera jaitsi zuen. [HARK] [HURA] (EusCor)

Esan behar da aurkitu ditugula kasu bakan batzuk, non INEk ALAren balio bera adierazten duen. Halere, ez gaude ziur horrelako erabilera onargarria ote den; horregatik ez dugu ALA honekiko alternantzia gisa planteatu. Hona adibideok:

- (822) Aldi berean, beste lagun bat prentsaren txokoaren mahai batean igo, orriak banatu eta pankarta bat zabaldu zuen eta handik gutxira atxiloturik eraman zuten. (EG)
- (823) Bertako biztanleen artean sinesgarritasun handia hartu zuen kontakizun baten arabera, hiru hegazkin **jaitsi** ziren lbarrean, lur hartu eta, altxorrez beterik, leku ezezagun batera joan ziren. (EusCor)

DA-2 eta DU-4 balioetan, berriz, *gora* edo *behera* norabidezko balio hau espezifikatua ageri da, neurri bat adieraziz. Horregatik diogu ABLk eta ALAk batera adierazten duten norabidearen parekoa adierazten duela *bss* hauetan ageri den ABSk: *inflazioa % 0,5* igotzeak, nolabait esateko, bertikalitate abstraktu bat bezala ikus daitekeen neurri zehatza adierazten du. Honakoan, hortaz, *behera* edo *gora* horiek ezin dira sintaktikoki gauzatu (ez eta ALArik ezta ABLrik ere); gogoan izan *jaso* aditzean norabidearen eta *helburuko kokapenaren* inkompatibilitateaz esan duguna —90. or.—). *Bss* hauetan gertatzen dena da ABS entitatea gehienetan abstraktua dela; ez dirudi *Pello bi metro jaitsi zen* modukoak oso arruntak direnik; corpusean ez dugu bat ere aurkitu.

DU-5 *bssan*, berriz, DA-1 eta DA-2 *bssetan* ABLk (*abiapuntuko kokapena*) eta ALAk (*helburuko kokapena*) batera adierazten dutena —alegia, mugatutako bidea, horrexegatik zentzu holistikoa duena, gure ustez— ABSk adierazten du. Eta, berriz, *gai ukitua* ERGez gauzatzen da. Honenbestez, balio hauetan hasierako eta amaierako puntuek ez dute garrantzirik, baizik eta horiek mugatzen duten zeharkaldiak. Horregatik, balio honetan ALA ezinezkoa da, eta baita ABL ere, beti ere *abiapuntuko kokapena* adierazten; agertzekotan, nolabaiteko bidea adierazten du, ABSk adierazten duen bide hori zein tokitik egiten den zehazteko.

Gainontzean, INEk gertakizunaren kokapen orokorra adieraz dezake, eta baita, ABS entitatea konkretua denean, kokapen-aldaketa prozesuan honek duen behin-behineko kokapena ere. INSek eta SOZek ere beren ohiko balioak izango lituzteke (orotariko modua).

DAT, azkenik —kokapen-aldaketa adieraz dezaketan aditzetan dagoeneko aipatu dugun bezala—, ABS edo LOK entitateekiko jabetzazko harremana adierazten du. Horretaz gain, DAT entitatearen kokapena ALAk adierazten duen bera da. Igo-DU-5/jaitsi-DU-5en, hala ere, ez da onargarria Kasu hau.

Azkenik, aipatu baino ez dugu egin nahi —corpusean adibide bakarra aurkitu dugu-eta—, badela erabilera bat non DA-1 eta DU-3 bissetan ALAren eta ABLren bidez adierazten den egoera-aldaketa INSen bidez adierazten den. Ikus adibideak:

(824) Kategoriaz igotzeko gaitasuna kentzea hiru urte arterako epean; (EusCor)

Balio hau *aldatu aditzean* onargarri dela ikusiko dugu. Adibide gehiago izanez gero (aurkitu dugun bakarrean gainera aditza jokatu gabe dago), hemen dioguna baieztatu ahal izango genuke, eta orduan, beste balio gisa markatzea zilegi litzateke.

Beraz, esango dugu *igo* eta *jaitsi* aditzek egoera- nahiz kokapen-aldaketa adierazten dutela, horretarako ikusi ditugun *bssak* baliatzen dituztelarik. Horretaz gain, *igok gora* norabidezko balio du bere semantikaren baitan, eta *jaitsik behera*.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

igo-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA

igo-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA

igo-DA-2: gai ukitua_ABS; neurria_ABS

igo-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; neurria_ABS

igo-DU-5: gai ukitua_ERG; bidea_ABS

jatsi-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA

jaitsi-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA


jaitsi-DA-2: gai ukitua_ABS; neurria_ABS

jaitsi-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; neurria_ABS

jaitsi-DU-5: gai ukitua_ERG; bidea_ABS


- Datu estatistikoek erakusten digutenez, bai *igo* bai *jaitsi* aditzean ALAk maiztasun handi samarra du. *Jaitsi* aditzean, ABLk ere nahiko maiztasuna du; ez, ordea, *igo* aditzean. Bestalde, biotan egitura iragangaitza gehiagotan erabiltzen dela ageri da.

Igo:



DA	77,60%	DA-ins	1,30%	DA-ala	18,86%	DA-abl	4,58%	DA-abs	100,00%	DA-komp	1,08%	DA-soz	0,88%	DA-ine	17,62%		
DU	21,63%	DU-ins	6,40%	DU-ala	12,03%	DU-abl	2,00%	DU-abs	66,83%	DU-komp	1,02%	DU-soz	1,74%	DU-ine	14,13%	DU-erg	100,00%
ZAI0	0,78%	ZAI0-ins	0,27%	ZAI0-ala	6,18%	ZAI0-abl	0,81%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	1,08%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,54%	ZAI0-ine	3,23%

Jaitsi:



DA	82,14%	DA-ins	2,68%	DA-ala	26,17%	DA-abl	16,14%	DA-abs	100,00%	DA-komp	1,34%	DA-soz	1,81%	DA-ine	21,99%		
DU	16,82%	DU-ins	0,77%	DU-ala	24,64%	DU-abl	22,71%	DU-abs	65,80%	DU-komp	5,01%	DU-soz	0,38%	DU-ine	15,00%	DU-erg	100,00%
ZAI0	1,05%	ZAI0-ins	0,49%	ZAI0-ala	3,94%	ZAI0-abl	41,38%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	0,25%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,25%	ZAI0-ine	3,69%

Oroitu

Oroitu aditzari lau *bss* markatu dizkiogu. Aditz honetan gizaki batek entitate baten ideia ekoizten du, eta ideia horren ekoiztea esperimendatzen du. Ideia horren ekoizpena batzuetan nahigabekoa da, baina ez dirudi nahitaez modu horretan izan behar denik (*otun* bezalaxe; *konturatu* aditzean hori beti gertatzen dela ikusi dugu). *Otun* egin dugun bezala, objektua *gaitzat* jo dugu (eta ez *gai sortutzat*), orokorki jokatzearren. Aditz honek balio semantiko hau adierazteko, eskema sintaktiko desberdinak baliatzen ditu:

Oroitu-DA-1en, ekintzaren *esperimentatzailea* **ABS**k adierazten du eta gaia **IN**Sek.

Oroitu-DA-2n, *esperimentatzailea* **ABS**k adierazten du ere, baina gaia **ELA_KON**ek.

Oroitu-DU-3n, *esperimentatzailea* **ERG**ek adierazten du eta gaia **ABS**k.

Eta azkenik, oroitu-DU-4n *esperimentatzailea* **ERG**ek adierazten du, baina oroitu-DA-2n bezalaxe, gaia **ELA_KON**pek.

Ikus ditzagun.

oroitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

oroitu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ELA_KONP.

Kasu onartugabeak: ERG, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

oroitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

oroitu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide (*bbsak* bereizten dituzten osagaiak azpimarratuta):

- (825) Zergatik **oroitu** behar zuen nitaz [HURA], bere bizitzan zehar, gainean eta azpian izandako ehundaka haietariko beste bat gehiago ez banintz bezala?. (EusCor)
- (826) Hala ere, **oroitzen** naiz izeba batekin gertatutakoaz. (EG)
- (827) "Jendea nitaz oroitzen denean, profesional on bat izan nintzela esatea nahi dut, eta joaten naizenean egoera onean utzi nahi dut Athletic". (EG)
- (828) [NI] Oroitzen naiz hitzeman zigutela 2. artikulua ez zuela ondorio latzik ekarriko beste hizkuntzei. (EG)
- (829) Ziudade hartan gizonak, bere beste behar guziak eginda gero, emaztearen eskaria oroitu zuen eta, bapatean, hara non erreparatzen duen denda aurrekalde batetan ispilu bat, eta ispiluan ilargia. (EusCor)
- (830) ETAre menia eta Lizarra Garazi ere **oroituko** nituzke [NIK]. (EG)
- (831) Azkenik, Xalbadorren hitzetan **oroitu** zituen manifestaldiaren bi eskakizun nagusiak [NIK]: (EG)
- (832) Denek Jules Verne oroitu genuen lehenengo, alegia, ezinezkoa zena bat-batean posible bihurtu zela. (EG)
- (833) Herri Batasunako Mahai Nazionala espetxeratzeko agindua eman zutenean eginiko kritika oroitu zuen halaber [HARK]. (EG)
- (834) San Kristobalen hildakoak oroituz [HARK]. (EG)
- (835) Konstituzioa %92k alde bozkatu zutela oroitu zuen, eta egun abian den prozesuak muga berriak sor ditzakeela salatu. (EG)
- (836) Liburua kaleratu zenean, 1996an, hainbat zailtasun izan zituela merkatuan sartzeko oroitu zuen atzo Xabier Mendigurenek, Elkarlanean argitaletxeko kideak. (EG)
- (837) Kuartelera iritsi zenean jipoiak hasi zirela oroitu du [HARK]. (EG)
- (838) Duela urte pare bat erakusketa txiki bat osatu zuela oroitu zuen [HARK], baina oraingo erakusketa askoz handiagoa dela. (EG)

Elkarren arteko bereizketa, batetik, ekoizten den ideia hori adierazterakoan Kasu bakoitzarekin ageri den gunean datza. Ikusten dugunez, oroitu-DA-1en eta oroitu-DU-3n gaia batzuetan gizaki bat da, eta beste batzuetan zer abstraktu bat. Hala ere, gizakia denean ere, gizaki horrek egindako ekintza da berez oroitzen dena. Oroitu-DA-2n eta oroitu-DU-4n, berriz, adierazpen-perpau batez gauzaturik, nahitaez gertakari edo ekintza bat da adierazten dena. Beste bereizketa izan daiteke, *experimentatzailea* ERGez gauzatzen denean ekintza nahita egiten dela, eta ABSz gauzatzen denean nahigabe. Bereizketa hau, hala ere, ez dugu

uste orokortzekoa denik. Gehienez ere, badirudi esan daitekeela ABS erabiltzen dela ekintza nahigabe gertatu dela adierazi nahi denean.

Gainontzeko Kasuei dagokionez, **SOZ**ek eta **INSE**k (*gai* balioa ez dutenean jakina) modua adieraz dezakete, batzuetan kausa eitekoa ere izan daitekeelarik. **INE**k ere bere ohiko modu eta kokapenezko balioak izan ditzake.

DATi dagokionez, esan behar da oroitu-DU-4 *bssan* onargarria dela, eta aditzak erakusten duen ekintza nori zuzentzen zaion adierazten du. Kasu honetan, argi dago ekintza nahita egiten duela ERG entitateak. Hala, DAT agertzen denean esaldian, ERG *esperimentatzailea* ez ezik, *abiapuntu* ere bilakatzen da, eta honela elkarraldatze-zentzua hartzen du aditzak.

Beraz, esango dugu, *oroitu* aditzak *jarduera* bat adierazten duela, parte-hartzaile bezala ERGez nahiz ABSz gauza daitekeen *esperimentatzailea* (beti gizakia) eta INSez, ABSz nahiz ELA_KONPez gauza daitekeen *gai* bat dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


oroitu-DA-1: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia_INS

oroitu-DA-2: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia_ELA_KONP

oroitu-DU-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS

oroitu-DU-4: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ELA_KONP

- Datu estatistikoek azpikategorizatutzat jo ditugun lau Kasuek nahiko maiztasun dutela erakusten digute; nabarmenenak, hala ere, ERG eta ABS dira. Bestalde, ikusten denez, ez dago DIO laguntzailekun adibiderik.



DA	41,67%	DA-ins	14,78%	DA-ala	4,35%	DA-abs	100,00%	DA-komp	19,13%	DA-soz	10,43%		
DU	58,33%	DU-ins	11,80%	DU-ala	4,35%	DU-abs	64,60%	DU-komp	8,70%	DU-ine	7,45%	DU-erg	100,00%

Sartu aditzari lau *bss* markatu dizkiogu. Bi *bssek* ALAren eta INEren artean osatzen dute alternantzia. Aldaera hauek, era berean, alternantzia kausatibo/inkoatiboa dute, eta ondorioz beste bi *bss* markatu ditugu. Esan behar da, hala ere, ALAren eta INEren arteko alternantzian badagoela beste ezaugarri bat bi aldaerak bereizten dituena: ALA azpikategorizatzen den aldaeran ABL posible da, baina INE azpikategorizatzen den aldaeran ez dirudi. Hala ere, batzuetan zalantzarikoa gerta daiteke. Hona lau *bssak*:

sartu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

sartu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

sartu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

sartu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Sartu-DA-1 eta sartu-DU-3 *bssen* zenbait adibide:

(839) Xurgin eta Leireren gurasoak, Kosme eta Kandelari, tabernan sartzen dira (EusCor)

(840) Maila orretan bertan sartzen da Paulin'en lana. (EusCor)

(841) Hasieran, egia esan, itzulpena literaturaren suzedaneo bezala-edo hartu nuen eta horrela **sartu** nintzen kontu horretan. [N] (EusCor)

(842) Udaletxeetan-eta sartu den mania hori, ezta? (EusCor)

- (843) [HURA] **Sartu** da ostatu batean eta jatekoa eskatu du. (EusCor)
- (844) Fruitua biltzeko makurtu zenean, zulo sakon bat aurkitu zuen, begi harrituekin begiratu zuen, eskua barruan [HARK] **sartu** zuen eta bere gorputz pisutsua barrura jausi zen. (EusCor)
- (845) Daukagun espazioa nahikoa urria denez kapitulu bakoitzari orrialde bana eskaini beharrean markoetan **sartu** ditugu. [GUK] [HAIEK] (EusCor)
- (846) Lilak eskua **sartu** zuen poltsan. (EusCor)

Sartu-DA-2 eta sartu-DU-4 *bssen* zenbait adibide:

- (847) Beldurtzen denean, dortoka eskolaren barrura **sartzen** da. (EusCor)
- (848) Itsas edo ibai bazterreko toki honetara untxiak heltzen dira, han gelditu, [HAIEK] hara **sartu** edo handik irteteko. (EusCor)
- (849) Tropa musulmanak Ebro aldetik Arabara **sartu** ziren; (EusCor)
- (850) Migel **sartzen** da eskuiko bigarren atetik. (EusCor)
- (851) Nekazariak, arraina Espainiara **sartzen** duten mandazainak, noiz untxigintza babesten noiz untxiak bahitzen dituzten erregeak, erregeei eta marinelei pribilegioak eta dirua kendu nahi dizkieten burgesak, Eliza katolikoa bere erijioarekin eta dramaturgia mitiko-erritotzkoarekin — esker— iritsi zen herri honentzat, modernitatean sartzean, ezaugarri nagusi bilakatu zen elementuetako bat: (EusCor)
- (852) Belarri batetik **sartu** ta bestetik atera ta libre. (EusCor)
- (853) Henri Bergson, bere liburuan saiatzen da, saiatu, [HARK] guri burura **sartzen**, kontraktasun gaindiezina dagoela berak "erlijio estatikoa" eta "erlijio dinamikoa" deitzen dituenen artean. (EusCor)

Hemen, berriz, ABL eta INE batera ezinezkoa direlako baieztapena zalantzan jartzen duten adibide batzuk:

- (854) - Argi izan behar du eszenatokian nondik **sartu** eta nondik irten. (EusCor)
- (855) Airea sudurzuloetatik **sartzen** da zintzurrestean zehar bronkioetara iritsi eta handik biriketara zabaltzen da, birikak puztuz: (EusCor)

(854) adibidean, INE *sartu* aditzari edota *argi izan* aditzari dagokion zalantzagarrria da; eta (855) adibidean, berriz, ageri ez den *helburuko kokapena* ALAz edo INEz gauzatu behar den ez dago argi.

Hortaz, aditz honek entitate baten kokapen-aldaketa adierazten du, eta hori dela eta *helburuko kokapena* (ALAz edo INEz gauzatua) eta, batzuetan, *abiapuntu* *kokapena*, edo baita *bidea* ere, adierazten duen osagaiak (ABLz gauzatua) azpikategorizatzen ditu. Jakina, horrekin batera, aldaketa hori jasaten duen *gai ukitua* (ABSz gauzatua) behar du, eta zenbaitetan aldaketa hori eragiten duen *kausa* (ERGez gauzatua). ABLk gehienetan *bidea* adierazten du, eta halakoetan, gainera, ohikoena da esaldian ALArik ez agertzea. Bestalde, ABS, ALA edo ABL entitateak abstraktuak direnean, kokapen-aldaketa hau ere abstraktuki ulertu behar da.

INE eta ALA aldi berean ager daitezke ABS entitatea leku batetik bestera eramaterakoan duen behin-behineko kokalekua adierazteko bakarrik; ez dugu, ordea, horrelako adibiderik

aurkitu (asmatutako bat jartzearen, hauxe litzateke kasua: *Haurra aulkian sartu nuen etxera / Haurra bizikletan sartu zen etxera*). Horregatik jarri dugu INE kasu onargarri gisa sartu-DA-2 eta sartu-DU-4 *bssetan*.

DATek ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela dirudi. Baina INE edo ABL agertzen denean, jabetzakoa harreman hori bi osagai hauekikoa dela ematen du, desplazamenduzko beste zenbait aditzetan jada esan dugun bezala. Hain zuzen, DAT ageri den adibide bakarrean ((853)) gorputz-atal bat da ALArne gunean dagoena, eta, hala, DAT ere *helburuko kokapena* bihurtzen da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioetan (tresna, baliabidea, konpainia) ager daitezke.

Adibide guztietan ikusi dugunez, INErik edo ALArik gabeko adibideak badira. Horrelakoetan oso arrunta da ABL agertzea, baina INE/ABL nolabait testuingurutik ulertu behar dela ematen du. Alegia, testuan zehar aipatu den lekuren batean sartzen dela ABS entitatea.

Vázquez et. al.-ek (2000) erdarazko *meter llegar* aditzaren parekotzat jotzen dute, semantikoki fokalizatzen duten elementuarengatik; eta ikusi dugunez, *llegar* aditzak lexikoki amaiera-puntua fokalizatzen duela diote. Zentzu horretan, INE edo ABL agertzen ez direnean testuinguaren bidez berreskuragarri direla suposatu beharko genuke.

Beraz, esango dugu aditz honek kokapen-aldaketa —fisiko nahiz abstraktu— bat adierazten duela, horretarako goian ikusitako alternantziak balaitzen dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


sartu-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

sartu-DA-2: gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_ALA

sartu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

sartu-DU-4: kausa_ERG;, gai ukitua_ABS; helburuko kokapena_ALA

- Datu estatistikoek, alde batetik, INE askozaz arruntagoa dela adierazten dute; eta ondorioz espero den bezala, ABL eta ALAren maiztasuna ez da bat ere altua:



DA	59,01%	DA-ins	2,50%	DA-ala	10,58%	DA-abl	4,21%	DA-abs	100,00%	DA-komp	4,37%	DA-soz	3,47%	DA-ine	57,07%				
DU	33,31%	DU-ins	1,81%	DU-ala	6,34%	DU-abl	1,66%	DU-abs	47,91%	DU-komp	4,90%	DU-soz	3,47%	DU-ine	56,82%	DU-erg	100,00%		
DIO	6,16%	DIO-ins	1,18%	DIO-ala	6,58%	DIO-abl	2,04%	DIO-abs	41,10%	DIO-komp	4,10%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,67%	DIO-ine	48,07%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	1,53%	ZAIO-ins	1,22%	ZAIO-ala	5,27%	ZAIO-abl	0,71%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	2,51%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	1,74%	ZAIO-ine	64,59%		

B multzoa: orotariko bssak dituztenak

*agertu (6), aldatu (5), amaitu (4), aurkitu (3), banandu (4), bete (6), hasi (4)
isuri (4), izan (4), jokatu (6), nahastu (4)*

Agertu

Agerturi sei *bss* markatu dizkiogu. Bik, balio semantiko baten alternantzia osatzen dute, eta beste laurek beste balio semantiko batena. Hala ere, esan behar da zalantzak izan ditugula balio iragangaitzak markatzeko garaian.

agertu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

agertu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ELA_KONP, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: SOZ, INS, DAT

Azalpena

Ikus bi *bssen* Zenbait adibide:

- (856) Duela 350 milioi urte, Deboniar izeneko aldia, ibaietan eta itsas aintziretan benetako arrainak agertu ziren (gaurko marrazoen antzekoak eta hauen urruneko aintzindari zirenak), baina artean ez ziren gaurko arrain teleosteoak existitzen; perka, lutxoa edo brema, esaterako. (EusCor)
- (857) Beste ehun milioi urte igaro ziren, aldi karboniferoa ailegatu zen eta Lurrean baso trinkoak agertu ziren, zeinetan iratzeak, azeri-buztana eta likopodia hazten bait ziren. (EusCor)
- (858) Arian-arian gaurko koniferoen aitzindariak filizineoak ordezkatu zituzten; sago palmondoak agertu ziren. (EusCor)
- (859) "Musker izugarri" edo dinosauruen lehen asabak agertu ziren; ondorengo garaietan Lurrean gailendu ziren narrasti erraldoiak. (EusCor)
- (860) Baina artean ez zen ez hegazitirik eta ez ugaztunik agertu. (EusCor)
- (861) Biztanleak — bizizaleak — aspaldidanik agertu ziren Zuberoan:
- (862) Horregatik idazten ditudan poemetan agertzen da oroitzapenekiko obsesioa. (EusCor)
- (863) Joseba Egibar, Karmelo Sainz de la Maza eta Jurgi Sarasa prentsurrekoan agertu ziren atzo EAJren ekitaldi nagusia Bilboko Erakustazokan igande arratsaldeko 19:00etan izango dela iragartzeko, eta, gainera, testuaren zatirik esanguratsuenen berri emateko.
- (864) CARLOS URQUIJO parlamentario popularrak eskatuta, Zarraoa Eusko Legebiltzarreko EITBren kontrolerako batzordean agertu zen atzo goizean.
- (865) Epailearen esku utzitako txostenean ere zenbait datu nahasi eta oker agertzen dira.
- (866) Horretarako, hamar puntuko agiri bana aurkeztu dute bi aldeek, eta horietan agertzen diren proposamenak betetzea da bai Gobernuak, bai FARCEk negoziazioekin jarraitzeko ezarri duten baldintza.
- (867) Jojo salto batean erdian agertzen zaie. [HURA] [HAIEI] (EusCor)
- (868) Ilunpetatik poliki-poliki koloretako beira-gaztelua agertzen da munduaren gailurrean. (EusCor)
- (869) Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu: (EusCor)
- (870) hori egia dela Kristorengan eta zuengan agertzen da, desagertzen ari baita iluna eta argi egiten du jadanik egiazko argiak. (EusCor)
- (871) Indarberiturik, kopuru altuagoan eta beti ere Josu Zubia Segurtasun Buruaren agindupean (orain egun gutxi burutu den epaiketa batean enpresa barruan kargurik ez duela agertu den arren), Protecsako "guardiek" kurtsoko lehen ikastaroa eskaini dute dagoeneko. (EusCor)
- (872) Zonalde mixtoan gurasoetatik lautik batek (% euskarazko irakaskuntza (D eredu) hautatzen duela agertzen da bertan. (EusCor)

Balio honetan entitate bat leku batean kokatuta egotea adierazten da. Hala ere, batzuetan sortze-zentzu bat dagoela ematen du: lehen ez zegoen gauza bat orain badago, eta, gainera

leku jakin batean; leku hori da, hain zuzen, **INE**k adierazten duena. Kokatua den entitatea — **ABSz** gauzatua— orotarikoa izan daiteke. Agertu-DA-2n, berriz, perpaus osagarri bat dugunez, ekintza edo gertakari bat da entitate hori.

Ikusten dugunez, **INE** ez da beti agertzen ((858), (859), (860)), baina agertzen ez denean, nolabait ere testuinguruak argitan jartzen duen kokaleku ezaguna dela; **INE** ageri ez den adibideetan, esaterako, “Lurrean” moduko bat ulertzera ematen dela dirudi.

Esan behar da entitate baten kokapena adierazten den arrren, kokapen horretara iritsi aurretik entitate horrek zuen hasiera bateko kokapena ere adieraz daitekeela batzuetan — alegia, kokapen-aldaketa—; hain zuzen **ABL** ageri zaigunean esaldian ((868)). Hori horrela izanda, *sartu* aditzean ikusi dugun bezala, hemen ere **INE**ren eta **ALA**ren artean alternantzia bat osa liteke. Gauza da, ez zaigula *sartu* aditzean bezain orokorra iruditzen, eta alternantzia orokor gisa ez planteatzea erabaki dugula. Kokapen-aldaketazko balio horren berri emateko, beste balio semantiko bat planteatu dugu: agertu-DA-3. Hala, agertu-DA-1 *bssan* ez dugu **ALA** onartutzat jo, eta agertu-DA-3n, berriz, **INE** ez dugu onartutzat jo. **ABL**ri dagokionez, ontzat jo dugu agertu-DA-1en ere, izatez **INE**rekin agertzea zilegi delako ((868)). Hala ere, ez gaude bat ere ziur bereziketa honetaz.

Agertu-DA-1eko gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSE**k eta **SOZE**k beren ohiko balioak adieraz ditzakete, baina ez dira arruntak.

Eta, azkenik, **DAT**ek beste kokaleku moduko bat (gizakia) adierazten duela dirudi; baina askotan “balio etiko”tik hurbilago dago. Alegia, esatariak entzuleekiko duen harreman berezi bat-edo adierazten duela. Horregatik, zalantza izan dugu Kasu onartuen artean jarri edo ez, guk ez baitugu balio hori kontuan hartu gure markaketan.

Beraz, esango dugu agertu-DA-1ek entitate baten kokapena adierazten duela, horretarako kokatua den *gaia* —**ABSz** nahiz **ELA_KONP**ez gauzatzen dena— eta *kokapena* —**INEz** gauzatua— dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

agertu-DA-1: *gaia_ABS*; *kolapena_INE*

agertu-DA-2: *gaia_ELA_KONP*; *kolapena_INE*

agertu-DA-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, INE

Kasu onartuak: INS, SOZ, DAT

Azalpena

Zenbait adibide:

(873) Hemendik aurrera gauzak estutzen ari dira, eta bistan da aurrera egin nahi duenak ondo prestatuta **agertu** beharko duela plazara. (EusCor)

(874) Zabalera **agertzen** ziren lehen 3 Enbatakideak. (EusCor)

(875) Une hartan bertan, Kocum **agertu** zen sasi artetik eta, aiztoa eskuan zuela, John Smithen gainera oldartu zen. (EusCor)

(876) **Agertzen** dira ere debruen sarde batzuk, seroren gibeletik. (EusCor)

(877) Une hartan Maria Luisa **agertu** zen sukalde aldetik. (EusCor)

Goian esan dugunez, hemen entitate baten kokapen-aldaketa adierazten da, eta normalean gizaki bati dago loturik. Hori dela eta, **ABSz** gain, *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* eta *helburuko kokapena* adierazten duten **ABL** eta **ALA** azpikategorizatzen dira.

Hala ere, adibideetan ikus dezakegunez, nahiz eta balio hau gizaki baten ekintzari lotuta egon gehienetan, ABS entitatea ez da beti gizakia ((876)). Nolanahi ere gizaki batek eusten duen izaki bat da, eta gizaki honi esker mugitzen da, azken batean.

ABLri buruz, badago zer aipatu. Gehienetan Kasu konposatu bat osatzen ageri da (alegia, guk hemen, berez, aztertzen ez ditugun Kasuak). Eta jakina denez, Kasu konposatu hauek zehaztasun gehiago ematen dute kokapenari dagokioenez.

INSek eta **SOZ**ek beren ohiko balioak izan ditzakete.

Eta **DAT**, azkenik —kokapen-aldaketazko aditzetan esaten ari garenari jarraiki—, beste *helburu* moduko bat (gizakia dena) adierazten du, **ALAk** adierazten duen leku berean dagoena. Ondorioz, **ALARik** ez dagoenean, **DATek** dirudi helburu bakarra. Adib.:

(878) Herrira joan, ehuna erosi, makilak ebaki ... lanean ari zela astoa **agertu** zitzaion berriro **[HARI]**:
- Kaixo artzaina!. (EusCor)

Beraz, esango dugu *agertu* balio honetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, partaide nagusi gisa **ABSz** gauzatzen den *gai ukitua*, **ABLz** gauzatzen den *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* eta **ALAz** gauzatzen den *helburuko kokapena* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

agertu-DA-2: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

agertu-DA-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, INS

Kasu onartuak: SOZ, INE, DAT

Azalpena

Zenbait adibide:

- (879) Aldez aurretik ezer ez jakiteagatik kexu **agertu** zen. [HURA] (EusCor)
- (880) Hala ere, kezkatekorik egon daiteke, hitz-hartze ugari izanik ere, momentuko txostenetan Iparraldeak Lurralde Eskeman egin proposamenak uzkur baizik ez baitira **agertzen**. (EusCor)
- (881) Gandiaga kontenplazaile agertzeaz gainera, bere keinu eta mugimenduz ekintzaile **ageri** zaigu. [HURA] (EusCor)
- (882) Hala ere, esperientzia errepikatzeko prest **agertu** dira aurkezleak. (EusCor)
- (883) Horretan eszeptikoa **agertu** zen [HURA], lagun dezaketela uste duen arren, ez du uste hori denik bere helburu bakarra, eta, usu ez inportanteena. (EusCor)

Balio honetan, berriz, gizaki baten egoera da azpimarratzen dena. Hori adierazteko bi ABS ageri zaizkigu Kasu azpikategorizatu gisa: bata *egoera* adierazten eta bestea *gai*. Jakina, egoera adierazten duen ABS eta INE ager daitezke batera, baina horrelakoetan kokapena baino gehiago, INEk jarduerazko zentzua duela ematen du. Horregatik jarri dugu aparteko balio gisa. Hala ere, ez da arrunta INE agertzea. Are arraragoa da modua adieraz dezakeen Kasurik agertzea. Hori dela eta arrunki modua adierazten duen INS ez dugu kasu onartuen artean jarri.

Esan behar da, gizakiaren ordeiz izaki abstraktuak ere agertzen direla, baina, seguruenez, gizakiak sortutako zer abstraktuak dira beti ere ((880)).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **DAT**ek ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du, eta **SOZ** konpainiazko balioan bakarrik da onargarri.

Beraz, *agertuk* balio honetan entitate baten egoera adierazten du; horretarako ABSz gauzatzen den *gai* gizaki bat eta ABSz gauzatzen den *egoera* ditu parte-hartzaile nagusi gisa.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

agertu-DA-4: gaia [+giz]_ABS; egoera_ABS

agertu-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

agertu-DU-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Zenbait adibide:

- (884) Emakume guztiak, direla zuhurrak, sotilak edo fidakoiak, beren maitasuna **agertzen** badute [HAIEK], lorpen erreza gertatzen dira. (EusCor)
- (885) Susak bi narrazio liburu **agertuko** ditu: Edorta Jimenezen... (EusCor)
- (886) Pargadek bere deskonfiantza doi bat azaldu digu: "gobernuak printzipiozko baia eman digu baina prisa guti **agertzen** dute [HAIEK], eta astelehen honetako manifestaldia sindikatoaren presio egite bat bezala kontsideratu behar da". (EusCor)
- (887) Luzifer-ek sardearen puntan **agertzen** du pisu bat: (EusCor)
- (888) Hiribide nagusian barna abiatuta, hiri turistikoek neguan **agertzen** dutela beren benetako irudia pentsatu dut. (EusCor)
- (889) Gizonak ez zuen sastatuko bertan zuen gazelaren lepoa, leunki laztanduko baizik, eta gazelak, gero, zilipurdika erantzungo zion gizonari bere kideasuna **agertuz**. [HARK] (EusCor)
- (890) Haren anaia, ordea, aitaren besoartera hurbildu eta honi atsekabe emateaz damutzen dela diotso, maite duela eta hori horrela dela [HARK] **agertzeko**, aurrerantzean ona izango dela ". (EusCor)
- (891) ... eta gauza guztietan Jainkoaren zerbitzari garela **agertzen** dugu [GUK], jasaten dugun guztian eramanpen handia erakutsiz: (EusCor)
- (892) Bertsozale askok duten susmoa **agertzen** diot [NIK] [HARI], alegia, motzean, txapelketan beterano zenbaiten gainetik jartzen diren arren, gazteek ez dutela gero luzean, bertso-afari batean esate baterako, tamainarik ematen. (EusCor)

Esan behar dugu zalantza izan dugula balio iragankor hauek agertu-DA-1/agertu-DA-2ren alternantziatzat jo behar ote genituen. Ordea, agertu-DA-1/agertu-DA-2 *bssetan* INE jarri dugu Kasu azpikategorizatuen artean, eta hemen hala ez dela esan daiteke. Bss hauetan, ez da kokapena azpimarratzen. Besterik gabe, jarduera bat adierazten da, non **ERGez** gauzatzen den entitate bizidun gehienetan gizaki batek —edo honen ordezkari den entitate batek ((885),

(888)— burutzen duen ekintza hori. Horretarako **ABSz** gauzatzen den *gai* bat du beharrezko. Gai hau ez dirudi inoiz biziduna izan daitekeenik; adibideetan, bederen, ez zaigu bat ere agertu. Eta jakina, agertu-DU-6n ekintza edo gertakizun bat da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **ABLk** ERG entitatearen kokapena adieraz dezake, baina ez da bat ere arrunta. **INEk**, **SOZek** eta **INSEk** beren ohiko balioak adieraz ditzakete. Eta azkenik, **DATek** ekintza zuzentzen zaion entitatea, hau da, *helburua* adierazten du. Zentzu horretan ERG entitateak ekintza esperimentatu ez ezik, *abiapuntu* bezala ere jokutzen du, elkarraldatze-zentzua emanez ekintzari. Dena den, ez dugunez Kasu azpikategorizatuen artean jarri, osagai semantikoetan ez dugu aukera hori aurreikusi.


Hortaz, *agertuk bss* hauetan jarduera bat adierazten duela esango dugu, parte-hartzaile nagusi bezala ERGez gauzatzen den *esperimetatzailea* eta ABSz nahiz ELA_KONPeZ gauzatzen den *gaia* dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

agertu-DU-5: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS

agertu-DU-6: esperimentatzailea_ERG; gaia_ELA_KONP

- Datu estatistikoek ERGez eta ABSz gain INEk ere maiztasun handia duela erakusten dute. Bestalde, aztergai ez ditugun kasuek ere maiztasun handia dutela ikusten da; horren arrazoa, seguruenez, aditz honek kasu konposatuak erabiltzeko duen gaitasuna izango da.



DA	64,25%	DA-ins	1,89%	DA-ala	2,22%	DA-abl	1,75%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,85%	DA-soz	3,86%	DA-ine	37,70%				
DU	30,59%	DU-ins	2,08%	DU-ala	0,75%	DU-abl	1,53%	DU-abs	77,94%	DU-komp	10,72%	DU-soz	1,27%	DU-ine	14,85%	DU-erg	100,00%		
DIO	3,40%	DIO-abs	80,45%	DIO-komp	8,89%	DIO-dat	100,00%	DIO-ins	2,87%	DIO-soz	0,15%	DIO-ine	13,19%	DIO-ala	4,79%	DIO-erg	100,00%	DIO-abl	2,87%
ZAI	1,77%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	1,44%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-ins	0,15%	ZAI-soz	0,15%	ZAI-ine	14,52%	ZAI-ala	2,35%	ZAI-abl	0,15%		

Aldatu

Aldaturi bost *bss* markatu dzikiogu. Lau elkarren artean alternantzia dira, eta beste bat ez. Aldatu-DA-1 eta aldatu-DA-2 *bssek* elkarren artean alternantzia osatzen dute ALA eta ABLren, eta INSen artean. Aldaera hauek, era berean, alternantzia kausatibo/inkoatiboa dute, eta ondorioz beste bi *bss* markatu ditugu (aldatu-DU-3 eta aldatu-DU-4). Hona lau *bssak*:

aldatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INS, INE, SOZ, DAT

aldatu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

aldatu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INS, INE, SOZ, DAT

aldatu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

Azalpena

Ikus ditzagun aldatu-DA-1 eta aldatu-DU-2ko zenbait adibide:

(893) Tresnaren funtzioa ez da **aldatu**, baina tresna bera bai. (EusCor)

(894) Substantziaren izaera **aldatu** al da? (EusCor)

(895) Zein materia-sistema **aldatu** dira kasu bakoitzean? HAU INPERTSONALA ERE IZAN DAITEKE (EusCor)

(896) Sagardotegietako menua ere **aldatu** egin da. (EusCor)

(897) - Neska hori asko **aldatu** da. (EusCor)

- (898) Karga negatibo, edo elektroiak, gorputz batetik bestera aldatzen direnean korrante elektrikoa sortzen dela esaten dugu. (EusCor)
- (899) "Orduan bakarrik **alda** naiteke batetik bestera". [NI] (EusCor)
- (900) - Bi aste dela **aldatu** ginen hona [GU]. (EusCor)
- (901) Banitze-metodo hauek (beroa, argia, korrante elektrikoa ...) substantzia puru baten izaera aldatzen dute, beste substantzia berri batzuk bihurtuz, (66. jardueran ikusiko duzu). (EusCor)
- (902) Aldaketa horiek ez zuten **aldatu** jasotako informazioaren nolakotasuna. (EusCor)
- (903) Oñatiko ur-hoditeria Urretxuko ur-biltegitik sahiesbidera aldatzeko Proiektua eta lehendabiziko fasearen egite-lanak enkante bidez kontratatzeko baldintza (EusCor)
- (904) izan ere, autonomi edo probintzia-mailara aldatu nahi baditugu [GUK] [HAIEK], zatikaturiko inkestak ez dira lehen bezain adierazgarriak. (EusCor)
- (905) Amona 1941ean Rigara erbesteratu zutenean, etxea kendu ziguten eta Goppingen-go etxe juduetara aldatzera behartu gintuzten. (EusCor)

Adibideek erakusten digutenez, ABS entitatea biziduna denean (edo berezko bizia duen izaki gisa jo daitekeen naturazko izaki bat: (898)) **ABL**k eta **ALA**k entitate horren kokapen-nahiz egoera-aldaketa adieraz dezakete, gunean duten izenaren arabera. Ordea, ABS entitatea izaki bizigabe abstraktua denean, izaera da bakarrik aldatzen dena; edo bestela esanda, kokapen-aldaketa beti abstraktuki ulertu behar da, eta orduan beti egoera aldatzen dela esan daiteke. Izaki bizigabe konkretuek, dirudienez, leku gehiago dute kokapen-aldaketa adierazten denean. ERG entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke, baina izaki konkretu bizigabeek ez dira arruntak.

Esan behar da, halere, egoera-aldaketa adierazten denean, gehienetan ALA bakarrik agertzen dela esaldian, ABL nolabait suposatutzat ematen baita, honen aurkakoa-edo izateagatik. (904) adibidean, dauden mailatik (hain zuzen autonomi edo probintzia maila ez denetik) *autonomi edo probintzia-mailara* aldatzea da adierazten dena. Nolanahi ere, lekua edo egoera adierazi, ABL esaldian bakarrik agertzea ezinezkoa dela dirudi. Eta bestetik, ez bata ez bestea ez direnean agertzen esaldian, egoera da aldatzen dena. Hain zuzen, egoera hori zehazten duen kontzepturen bat ageri denean ABSren gunean ((894): *izaera*; (902): *nolakotasuna*), nekez agertzen dira ABL eta ALA.

Nolanahi ere, orokortasunari begira, ABLren eta ALAren faltan aldatzen dena egoera dela esango dugu. Berriz, ABL eta ALA ageri direnean, hauen guneko izenak (eta ikusi dugun bezala, baita batzuetan ABSrenak ere) zehaztuko du aldaketa egoerazkoa edo kokapenezkoa den.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**k, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko blaiok adieraz ditzakete.

DATek, berriz, ABS entitatearekiko jabetzazko harreman baten berri ematen duela dirudi, aldatzen den entitatea nori dagokion adierazten duelarik. Aldiz, jabetzazko harreman hori ERGekin ere sor daiteke, eta orduan ezinezkoa da **DA**T agertzea. Ikus zenbait adibide:

- (906) [HARK] Bere jarrera **aldatu** egin duela garbiro aitortzen du. (EusCor)
- (907) Animalia batzuek, ingurune konkretu batean ezkutatu ahal izateko, bere gorputza **aldatu** dute. (EusCor)
- (908) Ume aldizkari zahar batzuk desagertu egin dira, beste batzuek izena **aldatu** dute, eta banaka batzuk jaio egin dira beste barik. (EusCor)
- (909) Karakterearen mota probatzen dutenak eta bere mota **aldatzen** dutenak. (EusCor)
- (910) [HARK] doinua **aldatu** eta honela erantzun zion: (EusCor)

Hau ikusi dugu dagoeneko beste aditz batzuetan (*hazi, hautsi...*); azken batean, ekintza erreflexibo baten aurrean gaude. Desberdintasuna da hemen “parte” abstraktua ere izan daitekeela (*jarrera, izena, mota, doinua (ahotsarena)*). Aditz haietan esan duguna errepikatuz, kasu hauetan ERGek *kaus*a baino gehiago *gai ukitu*a adierazten due ABS entitatea bere jabetzakoa delako. Hala ere, izen abstraktuen “parte” izaera sakonki aztertu beharreko fenomeno da.

Ikus ditzagun orain aldatu-DA-2 eta aldatu-DU-4en adibideak:

- (911) - Zergatik **aldatzen** dira bizilekuz? [HAIEK] (EusCor)
- (912) Gainera lekuz [HAIEK] **aldatzen** direnean emaztearen lurraldean ehizatzeko eskubidea dute. (EusCor)
- (913) Nire amaren aurpegia formaz **aldatzen** hasia zen. (EusCor)
- (914) Nik hemen jarraitu nahi dut eta horrela izango da, entrenadorea bat-batean iritziz **aldatzen** ez bada behintzat. (EusCor)
- (915) Emakumeek etxolak bizpahiru ordutan egiten dituzte eta, ondorioz, kanpamendua lekuz erraz [HAIEK] **aldatzen** dute, ehizaren eskakizunen arabera. (EusCor)
- (916) BARNE MINISTERIOAK Kepa Miner, Luis Etxeberria eta Martin Perez presoak espetxez [HARK] **aldatuko** dituela iragarri du. (EusCor)
- (917) 1870eko ezkontza-legetik, senar-emazteen bananketako kausa legitimotzat kontsideratu izan ziren, bizitetxearen abandonua, adulterioa, gogorkeriak edo irain larriak, ezkontide batek bestea erlijioz **aldatzera** behartzea, gizonak bere andrea prostituitzeko proposamena egitea, ezkontzako umeak galbideratzeko edo prostituitzeko intentua egitea eta giltzape handia. (EusCor)

Adibideek erakusten digutenez, **IN**Sen gunean agertzen den izena, aldatzen den leku edo egoera horren zehaztapena da. Alegia, ABS entitateek hasiera batean *bizileku, leku, forma, iritzi, espetxe eta erlijio* jakin bat zuten, eta horixe da aldatzen dena. Lekuaren zehaztapena *bizileku, leku eta espetxe* genituzke; egoerarenak, berriz, *forma, iritzia, erlijioa*. Gauza da, irudiz, izaki bizidunik bederen ez dagoela tartean. INSek balio hau duenean, ABL eta ALA ez dira onargarriak. Esan dugun bezala, azken batean goiko *bssetan* Kasu hauek adierazten dutena adierazten du INSek; diferentzia bakarra da haiek aldaketa horren hasierako eta geroagoko egoera edo izaera zehazten dituztela; INSek, besterik gabe, aldakea hori lekua edo egoera den zehazten du.

Esan behar da, kasu hauetan, aldaera kausatiboak gehien-gehienetan kokapen-aldaketa adierazten duela; egoera-aldaketa agian arruntagoa da *-arazi* bidezko kausatibitate morfologikoaren bidez adieraztea.

Bestalde, hemen ere **DAT**ek ABS entitatearekiko jabetzazko harreman baten berri ematen duela dirudi (agertzea oso arrunta ez den arren), aldatzen den entitatea nori dagokion adierazten duelarik. Horretaz gain, hemen ere jabetzazko harreman hori ERGekin ere sor daiteke; hemen INS entitatearekikoa litzateke harreman hori. Horrelakoetan, DAT ezinezkoa da, eta batzuetan gertatzen da subjektu bezala ABS agertu beharrean, ERG agertzen dela. Corpusean aurkitutako hau izan daiteke horrelakoa:

(918) **-Aldatzen** nuen bakoitzean txartel bat bidaltzen nion, badaezpada, egunen batean hots egin nahi bazidan non nengoen jakin zezan. (EusCor)

Adibide asmatu argiagoak, berriz, ondokoak:

(919) Pellok etxez **aldatu** du

(920) Pellok iritziz **aldatu** du

Honek, beharbada, zerikusia du Alberdi-k (2003) aztertzen dituen fenomenoekin, non, esan bezala, euskaraz mailegatu diren erdaratiko aditzen erregimenaren inguruan jarduten duen. Hemen, ordea, ez litzateke aditza bera mailegatzeko dena, baizik eta erdaratiko aditzaren egitura.

Hortaz, esango dugu *aldatuk* *bss* hauetan kokapen- nahiz egoera-aldaketa adierazten dituela. Horixe adierazteko ikusitako *bssak* baliatzen ditu.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

aldatu-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntua_ABL; helburua_ALA

aldatu-DA-2: gai ukitua_ABS; kokapena/egoera_INS

aldatu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntua_ABL; helburua_ALA

aldatu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; kokapena/egoera_INS

aldatu-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

Azalpena

Adibide bakarra aurkitu dugu, hala ere:

(921) Ordurako, diru piska bat pilatu eta Kentuckyko zaldi haragi potoak, Kentuckyko haritzezko upeletan zaharturiko bourbonaz **aldatu** zituen. [HARK] (EusCor)

Ikusten dugunez, balio honetan aldatu-DU-4ren egitura bera dugu, baina honakoan INSen balioa desberdina da, ez baitio ABS entitatearen izaerari edo kokapenari erreferentziarik egiten, baizik eta ABS entitatearen ordezkotza izango den beste entitate bati. Hala, INS honek ABSren pareko osagai bat adierazten du.

Hain zuzen, hemen aztergai ez dugun *-gatik* Kasua ere ageri da gauza bera adierazteko:

(922) Inguru hura izugarri gustatu zait eta ez nuke ezerगतिक **aldatuko**. (EusCor)

Balio honetan, ABS eta INSen guneak konkretuak izan ohi dira, eta gehienetan bizigabeak. Esan dugun bezala, bi elementuen arteko ordezkotza gertatzen denez, ikus zitekeen kokapen-aldaketa bat bezala, baina gure ustez bi entitate egoteak ordezkotzeari ematen dio garrantzia. Hala, esango dugu *aldatuko bss* honetan ordezkotze-jarduera bat adierazten duela. Ondorioz, ERG *esperimentatzailea* izango da, eta beste bi elementuak *gaiak*. *Esperimentatzaile* hau, kasu honetan beti gizakia da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **SOZek** eta **INSe**k euren ohiko balioak adierazteko gaitasuna dute.

DATek, azkenik, hemen ere gure ustez jabetzako balioa du, baina honakoan jabetza DAT eta ABS entitateen artekoa edo DAT eta INS entitateen artekoa izan daiteke.

Esan behar da, bestalde, balio honetan ez dela beti INS ageri. Horrelakoetan, azpian *beste baten ordezkotza* moduko zerbait ulertu behar dela dirudi: Ikus zenbait adibide:

(923) Oraingoan erreaktoreko ontzi barnean dagoen kupeltxo bat **aldatuko** dute, zartatuta baitago. (EusCor)

(924) Haurtxoak **aldatzea**, hutsegitez zein nahitara eginik, ez da sarritan gertatzen ez Espainiako Estatuan ez gure Elkartean. (EusCor)

(925) Karelak, estriboak eta zoladura **aldatu** zituzten lan haietan. (EusCor)

(926) Perspektibaren efektuak **aldatu** zituen; (EusCor)

(927) Irratiaren sintonia **aldatu** du, Brahmsen zerbait iragartzen zuten programa utziz, eta lehen amaitu gabe utzi behar izandako egunkari zatia irakurtzera eseri da. (EusCor)

(928) Lehen fasean pilare zaharrak **aldatu** eta hormigoi estruktura berria eraiki dute. (EusCor)

Horrelakoetan, aldatu-DU-3 eta aldatu-DU-4 *bssekiko* nahasgarri gerta daiteke (jakina, hauek ABLrik, ALARik edota INSik agertzen ez dutenean).


Honenbestez, ERG eta ABS bakarrik agertzen diren egitura iragankorretan, testuinguruak eta ABS entitatearen izaerak baldintzatuko du balio semantiko bat edo bestea. Nolanahi ere, ez da batere kontu argia, eta guk hemen argi eta garbi bereizi baditugu ere, ez da beti horrela.

Hortaz, esango dugu *aldatuko bss* honetan ordezkotze-jarduera bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez gauzatzen den *esperimentatzailea*, eta ABSz eta INSez gauzatuak diren bi *gai* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

aldatu-DU-5: esperimentatzailea_ERG; gaia_ABS; gaia_INS

- Datu estatistikoek ERGen eta ABSren maiztasuna jartzen digute agerian. Guk azpikategorizatutzat jotako beste Kasuek nahiko maiztasun gutxi erakutsi dute. Seguraski hori gertatzen da gehienetan egoera-aldaketa delako adierazten dena.



DA	54,21%	DA-ins	7,20%	DA-ala	5,28%	DA-abl	4,33%	DA-abs	100,00%	DA-konp	4,58%	DA-soz	0,29%	DA-ine	13,33%				
DU	42,55%	DU-ins	10,25%	DU-ala	4,31%	DU-abl	2,21%	DU-abs	79,27%	DU-konp	8,47%	DU-soz	0,37%	DU-ine	8,05%	DU-erg	100,00%		
DIO	2,71%	DIO-abs	74,88%	DIO-konp	7,51%	DIO-dat	100,00%	DIO-ins	16,94%	DIO-ine	12,51%	DIO-erg	100,00%	DIO-ala	6,70%	DIO-abl	0,57%		
ZAIO	0,53%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	1,73%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ins	46,93%	ZAIO-ine	6,84%	ZAIO-ala	0,91%	ZAIO-abl	30,21%				

Amaitu

Amaitu aditzari lau *bss* markatu dizkiogu, baina esan behar dugu zalantza izan dugula askotan, aldi berekotasunak ez baitira beti argiak. Horietako bik (*amaitu-DA-1* eta *amaitu-DU-2k*) alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute euren artean; beste batek (*amaitu-DU-3k*) *amaitu-DU-2*rekiko alternantzia osatzen du, *SOZ*ek *amaitu-DU-3n* *ABS*k *amaitu-DU-2n* duen balio bera duelako. Azkenik, *amaitu-DU-4k* aparteko balio semantiko bat osatzen duela dirudi. Ikus ditzagun lehenik alternantzia osatzen dutenak.

amaitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

amaitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

amaitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS

Azalpena

Hiru *bssen* zenbait adibide (*bssak* desberdintzen dituzten osagaiak azpimarratuta):

- (929) Halaz ere, **amaitu** zen noizpait klasea eta atera ginen handikan azkenik. (EusCor)
- (930) Baina geroxeago amaituko da [HURA]. (EusCor)
- (931) Abisualdia amaitu aurretik esan du non kokatuta egongo diren: eliza atzeko plazatxoan. (EusCor)
- (932) Agiria irakurri ostean, Ikurrinari omenaldia egingo diote eta txistu doinuz **amaituko** da ekitaldia. (EusCor)
- (933) Dirudenez, zibilizatua da zure ustez, erabaki unilateralak hartzea, kontratuen interpretazio unilateralez kontratuak amaitu egiten direla (EusCor)
- (934) Ekitaldia Eusko gudariak abestuz amaitu zuten Forondan bildutakoek IEHko parlamentarioak, zinegotziak, preso ohiak eta abokatuak tartean I, baina atzoko ongi etorriak ez ziren Gasteizen **amaitu**, Tolosan hainbat jende baizegoen Estebanen zain. (EusCor)
- (935) Manifestazioa Arenalean **amaitu** zen, 18:25ak aldera. (EusCor)
- (936) Alderdien arteko elkarrizketak emaitzarik gabe **amaitu** dira Stormonteko gazteluan. (EusCor)
- (937) Han manifestu labur bat irakurriko dute euskaraz eta gaztelaniaz, eta horrekin **amaituko** da Lizarra Garazikoek deitutako manifestaldia. (EusCor)
- (938) 17:30etan hasi eta 19:00ak jota **amaitu** zuten mintzaldia. [HAIEK] (EusCor)
- (939) Kosovok indarkeria amaitzen badu, errefuxiatuen itzulera onartzen badu eta Rambouilleteko akordioak onartzen baditu, orduan ikusi ahal izango du bonbardaketen amaiera ". (EusCor)
- (940) Lehenengoa 41 egunekoa izan zen, eta **amaitu** genuen [GUK] [HURA] zuzendaritzak zenbait eskakizun onartu zituenean: (EusCor)
- (941) Epai guztiak taxuz amaitu zituen Etxarri-Aranazkoak, eta Senosiainek segundo asko galdu zituen aipaturiko oinbikoan epaia amaitzen [HARK], enberrari bira emanda. (EusCor)
- (942) Kosovo uzten ari den iheslari oldearen irudiarekin [NORBAITEK] **amaitu**, eta NATOren aire erasoetatik babesteko ezkutu gisa erabili. (EusCor)
- (943) Bestalde, gatazkarekin negoziaketa bidez **amaitzeko** eskatu dio Italiako lehen ministroak Annani. (EusCor)

(944) "Montenegrok Jugoslavia utziko du, Milosevic diktadoreak jarraitzen badu" Jugoslaviako presidentea "zigorra" da herrialde osoarentzat, Montenegroko lehendakariak esan duenez Milosevicek Montenegron "estatu kolpea" egitea litekeena da, eta hori arriskua litzateke Europa osoarentzat Djukanovicek nazioartearieskatu dio erasoen politikarekin amaitzeko, "errugabeakjotzen" dituelako. (EusCor)

Ikusten denez, *bss* hauetan entitate baten iraunaldia agortzea adierazten da, eta zenbaitetan agortze hori *kaus*a batek —**ERG**ez gauzatua— eragiten du. Entitate hori **ABS**z gauzatzen denean inoiz ez da izaki bizidun bat, eta **SOZ**ekin ere ez dirudi; bederen ez dugu adibiderik aurkitu. **ABS**z edo **SOZ**ez gauzatzearen arteko aldea, beharbada, jarduerari ekiteko dagoen arrazoa izan daiteke: *gai*a **ABS**z gauzatzen denean, ekintza hori besterik gabe amaitu egiten da; *gai*a **SOZ**ez gauzatzen denean, azpian "obligazio"/"betekizun" moduko bat dagoela dirudi. Hemen ez dugu bereizketa horren esanahian gehiago sakonduko.

Iraunaldi-agortzea entitate baten "aldaketa"tzat har badaiteke, aditz honek egoera-aldaketa bat adierazten duela esango dugu. Edota, bestela, aditz honek erakusten dituen aldaera iragangaitz eta iragankorrek ez direla kausatibo eta inkoatiboak esan beharko genuke.

Amaitu-DA-1 *bss*an askotan beste Kasu onartu bat ageri da esaldian; esaterako, **INS**, modua adieraziz ((932), (933)), edo **INE** ((934), (935), (936)). **INE**k batzuetan, **ABS** entitatearen *helburuko kokapena* adierazten du, eta honek ematen dio, azken batean, **ABS** entitateari amaiera ((935)). Baina beste batzuetan ekintzaren kokapen orokorra adierazten du ((934), (936)). **SOZ**ek ere bere ohiko balioak adieraz ditzake; eta modu hori kausa eitekoa ere izan daiteke ((937)).

DATek, nahiz eta ez zaigun adibiderik agertu, **ABS** entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du.

Beraz, esango dugu *amaituk* egoera-aldaketa adierazten duela entitate baten iraupenaren agortzea adierazten duen aldetik, parte-hartzaile bezala *gai ukitua* eta batzuetan *kaus*a dituen. *Gai ukitu* hau batzuetan **ABS**z gauzatzen da eta beste batzuetan **SOZ**ez.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

amaitu-DA-1: gai ukitua [-biz]_ABS

amaitu-DU-2: kausa_ERG; gai ukitua [-biz]_ABS

amaitu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_SOZ

amaitu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

Azalpena

Adibide bakarra aurkitu dugu, hala ere:

(945) Liskarra urrunago iritsi da azken egunetan, ordea, iragarki horietako batek, SGk eta Paribasek BNPrek aurka ateratakoa, auztegietan **amaitu** baitu [IRAGARKI HORREK]. (EusCor)

Balio honetan, **INE**k hartzen du indarra, ERG entitatearen kokaleku berriari erreferentzia egiteko; ERG hau biziduna da agertu zaigun adibidean, baina bestelakorik ere ager daiteke. Ikusten dugunez, ez dugu ABSrik aurkitu. *Aldatu aditzean* esan dugun antzera, nahiko bitxia da hori, hemen ABS bat espero izatekoa baita. Han esan duguna errepikatuz, gerta daiteke Alberdi-k (2003) aztertzen dituen fenomenoen ildotik, erdaratiko aditzaren egituraren mailegatzea izatea hemen.


Beste Kasuei dagokienez, **INSE**k eta **SOZE**k beren ohiko balioak adieraziko lituzkete.

Gauza da balio zehatza hartzen duela egitura honek: entitate baten kokapen-aldaketa adierazten du. Horretarako kokatua den *gai ukitua* ageri zaigu, ERGez gauzatua, eta *helburuko kokapena* adierazten duen INE.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

amaitu-DU-4: gai ukitua_ERG; helburuko_kokapena_INE

- Datu estatistikoek ERGen eta ABSren maiztasuna jartzen dute agerian. Horien ostean, INE eta SOZ dira maiztasun handienekoak.



DA	63,42%	DA-ins	1,48%	DA-ala	0,41%	DA-abl	0,83%	DA-abs	100,00%	DA-konp	2,79%	DA-soz	8,92%	DA-ine	18,78%				
DU	34,36%	DU-ins	4,66%	DU-ala	0,62%	DU-abl	0,78%	DU-abs	56,25%	DU-konp	3,12%	DU-ine	19,12%	DU-soz	8,88%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,33%	DIO-abs	84,42%	DIO-konp	1,60%	DIO-dat	100,00%	DIO-ins	0,87%	DIO-soz	3,93%	DIO-ine	3,92%	DIO-ala	0,57%	DIO-erg	100,00%	DIO-abl	0,29%
ZAI	1,89%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-konp	1,66%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-ins	0,91%	ZAI-soz	12,52%	ZAI-ine	12,07%	ZAI-ala	0,15%	ZAI-abl	0,30%		

Aurkitu

Aurkitu aditzari, hiru *bss* markatu dizkiogu. Horietako bik (*aurkitu-DA-1* eta *aurkitu-DU-2k*) alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute euren artean, baina esan behar dugu ez direla guztiz parekoak bi aldaerak. *Aurkitu-DU-3k* balio semantiko desberdin bat adierazten du. Ikus ditzagun, lehenengoz, alternantzia direnak.

aurkitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INS, SOZ

aurkitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INS, SOZ, DAT

Azalpena

Ikus *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

- (946) Huetan, disoluzioan aurkitzen diren substantzia desberdinak zurgatzeko gaitasuna nabarmentzen da batez ere. (EusCor)
- (947) Gaur egun, UNHCRk atzo arratsalde partean emandako datuen arabera, 129.000 errefuxiatu kosovar aurkitzen dira Mazedonian, eta bertan jarritako sei kanpamenduak gaudituta daude. (EG)
- (948) Gobernua baldintza guztiz ezberdinetan aurkitzen da: (EG)
- (949) Idatzidazu nahi edo beharra duzunean, edo poztu nahi nauzunean, edo erraietan ilusio berri bat loratzen sentitzean, edo ametsetan gau ilunean izartxo berri bat aurkitzen duzunean. [ZUK] (EusCor)
- (950) Nagusiaren gorpua hor aurkitu genuen [GUK], besaulkian eserita, goialdea mahaigainerantz jausita zuela. (EusCor)
- (951) Euskarazko prediku horren hiru folioak Koldo Mitxelena kultur gunean aurkitu zituen. [HARK] (EG)

Bss huetan **ABS**z gauzatzen den entitate baten kokalekua adierazten da. ABS entitate hau izaki bizidun edo honen ordezkio entitate bat izan ohi da *aurkitu-DA-1*en; edota bestela

nolabaiteko bizia duen naturazko izaki bat. Aurkitu-DU-2n, berriz, anitzagoa da. Kokapen hau abstraktua izan daiteke **INE** entitatea ere abstraktua delako ((948)).

Esan behar da, halare, badaudela INErik gabeko adibideak, batez ere erabilera iragangankorrean:

(952) Egun batean aitonarekin, taberna zaharra ni jaio aurretik itxia zegoena txukuntzen ari nintzela, dirutxoak, txanponak aurkitu nituen. [NIK] (EusCor)

(953) Cafetik kalera ilki zirenean portuko azken anima biziak ezkutatzen ari ziren behebarruetan, non mozkorrek ez zuten eskaratz muturrik ere igoko, katuek ez zuten bikoteen estasiaren sekretua argituko, pirata txainkuruek ez zuten tesororik aurkituko eta estraperlariak ez zuten heuren buruarekiko ordaririk ikusiko. (EusCor)

(954) Ez al zara konturatzen adarra jo izan banizu ez zenuela salbatu zaituen adar hori aurkituko? [ZUK] (EusCor)

(955) - Ikusten, ama, nola oraindik ez zuen **aurkitu**? [HARK] [HURA] (EusCor)

Honek, beharbada, erabilera hau INEdunetik bereiztera eraman gintzake, baina ez dugu hala egin honetan INE agertzea ere zilegi delako, eta besterik gabe “aurkitzearen ekintza” azpimarratu nahi dela dirudielako. Bestetik, badirudi, INE agertzen den gehienetan ABS entitatea izaki bizidun edo bizigabe konkretu bat dela. INErik gabekoetan, berriz, denetarik aurkitzen dugu.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioak adieraz ditzakete.

DATi dagokionez, aurkitu-DA-1en ezinezkoa da; aurkitu-DU-2n, berriz, zilegi da ekintza zuzentzen zaion entitateari erreferentzia eginez:

(956) Agentzia baten bidez (Interlang) familia bat **aurkitu** zioten, haren magalera joateko (EG)

Hemen ere, beraz, badugu beste desberdintasun bat aurkitu-DA-1 eta aurkitu-DU-2ren artean. Hala izanik DA-1 eta DU-2 balio hauek ez dira hain parekoak.

Esan behar dugu, bestalde, DATek batzuetan jabetzako harreman bat adierazten duela ABS entitatearekiko, eta orduan, *helburuaren* balioa desagertu egiten da:

(957) -Nik zuri orduan eta orain **aurkitu** dizut gazte zahartuaren begirata— erantzun zidan burua laztanduz. (EusCor)

Jabetzako harreman honen jakoa ABS entitatearen izaeraren baitan dago.

Beraz, esango dugu *aurkituk bss* hauetan entitate baten kokapena adierazten duela. Batzuetan beste entitate bat —**ER**Gez gauzatua eta gizakia dena— ager daiteke, ekintza horren *esperimentatzaile* gisa. Alegia, berez ez du kokapen-aldaketarik eragiten (ez du *kausa* gisa jokutzen). Alde horretatik, zaila da alternantzia kausatibo/inkoatibo gisa ulertzea. *Amaitun* esan dugun bezalaxe, aditz honek erakusten dituen aldaera iragangaitz eta iragankorrak kausatibo eta inkoatiboak ez direla pentsatu beharko genuke. Agian esan beharko genuke, aurkitu-DA-1en *entitate baten kokapena* adierazten dela, eta aurkitu-DU-2n entitate batek esperimentatzen duen *jarduera*.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

aurkitu-DA-1: gaia_ABS; kokapena_INE

aurkitu-DU-2: esperimantatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS; kokapena_INE

aurkitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, INS, SOZ, DAT

Kasu onartuak: INE

Azalpena

Adibide bakarra aurkitu dugu, hala ere:

(958) -Duela urtebete baino gazteagoa eta politagoa aurkitzen zaitut [NIK] [ZU]— esan nion.
(EusCor)

Balio honetan, **ERG** eta **ABSz** gain, ABS entitateari buruz predikatzen duen beste ABS bat aurkitzen dugu. Horrelakoetan, ABS entitatea gizakia da. ERG entitateak predikazio harreman hau esperimantatzen du, nolabait esateko.


Gainontzeko kasuei dagokienez, **INE** da onargarri gertatzen den bakarra, eta bere ohiko balioak izango lituzke.

Beraz, esango dugu balio honetan entitate baten egoera adierazten dela, eta, era berean, beste entitate batek horrek sentiarazten diona esperimantatzen duela. Horretarako, parte-hartzaile nagusi gisa egoera jakin batean dagoen *gaia*; *egoera* bera eta hori guztia esperimantatzen duen *esperimantatzailea* dituela; lehenengo biak ABSz gauzatuak eta hirugarrena ERGez.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

aurkitu-DU-3: esperimantatzailea_ERG; gaia_ABS; egoera_ABS

- Datu estatistikoek, ERG eta ABSz gain, INEren maiztasuna jartzen digute agerian.



DA	17,81%	DA-ins	3,03%	DA-abl	2,56%	DA-abs	100,00%	DA-konp	4,77%	DA-soz	2,56%	DA-ine	45,08%				
DU	77,21%	DU-ins	1,65%	DU-ala	2,07%	DU-abl	2,06%	DU-abs	66,31%	DU-konp	3,01%	DU-soz	0,30%	DU-ine	28,17%	DU-erg	100,00%
DIO	4,36%	DIO-ins	0,23%	DIO-abl	4,73%	DIO-abs	95,76%	DIO-konp	5,05%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	27,55%	DIO-erg	100,00%		
ZAI	0,62%	ZAI-ins	0,23%	ZAI-abl	4,62%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-konp	5,08%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-ine	11,93%				

Banandu

Banandu aditzari ere lau *bss* markatu dizkiogu. Aditz honek bi balio semantiko adierazten ditu, eta bi balio horiei lotuta alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen ditu. Banandu-DA-1 *bss*ak, horretaz gain, Alternantzia erreziproko simple iragankorra eta iragangaitza (L 2.5.1 eta L 2.5.4) onartzen ditu. Ikus ditzagun, bada, bi balio semantiko hauek banan-banan, beren alternantzia kausatibo/inkoatiboarekin batera.

banandu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

banandu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bss*etan: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(959) Baina gure bihotzak oraindik ez dira **banandu**, gu bion arteko maitasunaren garra ez du heriotzak itzaltzea lortu. (EusCor)

(960) Negar egiten zuen, etsiturik, **banandu** egin ziren ... [HAIEK], nork bere bidetik jo zuten (EusCor)

(961) Gero eta herritar gehiago dira Indonesiatik **banantzearen** aldekoak, eta maiz gertatzen dira istiluak herritarren eta soldaduen artean. (EusCor)

(962) Oinarriak dira, besteak beste, Kosovo Serbiatik **banantzeko** saioari uko egitea eta Jugoslaviaren (Serbia eta Montenegro) batasuna azpimarratzea, Kosovon su-etena indarrean jartzea, gatazkari irtenbidea elkarriketa bidez ematea, OSCE Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeak gainbegiratuta hauteskundeak egitea, gatazkarekin zerikusia dutenei amnistia ematea (ez, ordea, gerra kriminalentzako) eta akordioa aplikatzen den epean nazioarteko begiraleak egotea. (EusCor)

(963) Hauek ezin ditugu **banandu** metodo fisikoak erabiliz. [GUK] (EusCor)

Banandu aditzak, *bss* hauetan, entitate bat beste batengandik banatzean gertatzen den egoera-aldaketa adierazten du. Hori dela eta, Kasu azpikategorizatu gisa bi entitate hauek adierazten dituzten **ABS** eta **ABL** ditu. Ez denean **ABL**rik agertzen, **ABS** gehienetan plurala da (horrexegatik onartzen ditu Alternantzia erreziproko sinplea iragankorra eta iragangaitza). Aldaketa hau, batzuetan, **ERGez** gauzaten den *kausa* batek eragiten du.

ABS plurala izanik ere ager daiteke **ABL**, baina horrelakoetan ere **ABS** entitateak batera dira **ABL** entitateetik banantzen direnak. Adibideetan ikus daitekeenez, laguntzailea ez dago beti agerian eta ezin daiteke jakin erabilera iragankorra edo iragangaitzaren aurrean gauden.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSeK** eta **SOZek** beren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi. Kausa eitekoa modua ere izan daiteke. Adibiderik ez dugu aurkitu, ordea.

DATek, oso ohikoa ez dirudien arrren, **ABS** entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du.

Honenbestez, esango dugu *bananduk* *bss* hauetan egoera-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala aldaketa jasaten duten bi *gai ukitu* eta aldaketa eragiten duen *kausa* dituela. DU-3 *bssan* *kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

banandu-DA-1: gai ukitua_ABS; gai ukitua_ABL

banandu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; gai ukitua_ABL

banandu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

banandu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: SOZ, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(964) Almeriako euskal presoek 22 egun daramatzate gose greban, modulo ezberdinetan [HAIEK] [HAIEK] **banandu** dituztelako. (EusCor)

(965) Hegaztirik ere badago parke honetan, leku ezberdinetan [HAIEK] **banandurik**. (EusCor)

(966) Gainera, albaniarrak berak **banandurik** daude, bi talde nagusitan: (EusCor)

Bss hauetan, berriz, banandu ostean entitate bananduak duen egoera berria adierazten da, eta hori da INEk adierazten duena. Hala, dirudienez, bi gauzak (banantzea bera eta banandu osteko egoera) ezin dira aldi berean adierazi (*ezkondu*ren kasuan ez bezala; hark posible baitu balio desberdinak egitura berean adieraztea). Bestalde, **ABS** hemen ere beti da plurala, eta ekintza eragiten duen osagaia —**ERGez** gauzatua— agertzen da batzuetan.

Ikusten dugun bezala, DA bidezko egitura iragankorrik zehazki ez dugu aurkitu adibideetan (bai *egonekin* egindakorik, edo laguntzaile gabekorik). Izan ere, balio hau modu iragankorrean agertzea dirudi ohikoagoa.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, aurrekoan bezalaxe **INSeK** eta **SOZeK** ekintza egiteko modua adieraziko lukete.

DATek, oso ohikoa ez dirudien arren, ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela dirudi.


Beraz, esango dugu *banandu* aditzak *bss* hauetan entitate baten egoera berria adierazten duela. Horretarako parte-hartzaile nagusi bezala *gai ukitua* —ABSz gauzatua—, *helburuko egoera* —INEz gauzatua— eta aldaketa eragiten duen *kausa* —ERGez gauzatua— dituela. Banandu-DA-2 *bssan kausa* ergatiboa ez da agertzen.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

banandu-DA-2: gai ukitua_ABS; helburuko egoera_INE

banandu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_INE

- Datu estatistikoek balio iragankorrean nahiz iragangaitzean ABLk duen indarra erakusten dute; INEk ere badu presentziarik.



DA:65,00%	DA-abl:41,03%	DA-abs:100,00%	DA-ine: 10,26%
DU:35,00%	DU-abl:57,14%	DU-abs: 28,57%	DU-erg:100,00%

Bete

Bete aditzari, sei *bss* markatu dizkiogu. Sei *bss* horietan bi balio semantiko gauzatzen dira. Hala, *bete-DA-1* eta *bete-DU-3k* nahiz *bete-DA-2* eta *bete-DU-4k* alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute euren artean (nahiz eta azken bi hauen artekoa zalantzazkoa izan). *Bete-DU-5ek* *bete-DU-3rekiko* alternantzia osatzen du; eta azkenik, *bete-DU-6* *bete-DU-4rekiko* inespezifikazio jakineko kasu bat da. Ikus ditzagun, bada, lehenengoz *bete-DA-1*, *bete-DU-3* eta *bete-DU-5*.

bete-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

bete-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, DAT

bete-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus bete-DA-1 eta bete-DU-3 *bssen* zenbait adibide (*bssak* desberdintzen dituzten osagaiak azpimarratuta):

- (967) Eta amona berriro ere pozez eta itxaropenez **bete** zen. (EusCor)
- (968) Iskanbila, borroka eta ezin ikusiz **bete** da ume eta nagusien gogoetan. (EusCor)
- (969) Ez al gara euskaldunak arrai gosetuez **beteriko itsaso** honetan galdutako baleak? (EusCor)
- (970) Betiereko Aberria dugu hautetsiz **beteko**; [GUK] (EusCor)
- (971) Dinamakan mahats-pasez **betetzen** dituzte zerriak; [HAIEK] (EusCor)
- (972) Asearen ziurtasunak atsedenez **betetzen** zuen haien bihotza eta ez zuten ezer berrirako jakinminik.

Ikus bete-DU-5en zenbait adibide (osagai azpikategorizatuak azpimarratuta):

- (973) Guri patinatzea gustatzen zaigu, baina jolas-orduetan ezin dugu egin, futboleak dabiltzanek jolas-leku guztia **betetzen** dutelako: (EusCor)
- (974) Eta bertoko euskalari ikasi ezak agerian utzitako hutsunea atzerrikoek **bete** zuten oraingo epe honetan ere hein handi batean. (EusCor)

Bss hauetan, **ABS**k helburuko kokapena adierazten du. Gunean leku fisiko bat har dezake ((969): *itsaso*; (973): *jolas-leku*; (972): *haien bihotza* (?)); baina bestelakorik ere topa dezakegu: izaki abstraktuak ((968): *iskanbila*; (970): *Aberria* (?); (974): *hutsunea*), nahiz izaki bizidunak ((967): *amona*; (971): *zerriak*). Beraz, ezin esan daiteke *helburuko kokapen* hau beti leku fisiko bat denik.

INSek, berriz, helburuko kokapen horretara mugitzen den *gai ukitua* adierazten du. Gai ukitu hau ere orotarikoa izan daiteke (*pozez, itxaropenez, borroka ezin ikusiz, atsedenez, arrain gosetuez, hautetsiz, mahats-pasez*).

ERGek, ekintza eragiten duen *kausa* adierazten du, eta adibide gehienetan gizakia da. Bestelakorik ere ager daiteke, hala ere ((972): *asearen ziurtasunak*).

Hornitun esan dugun bezalaxe, Spray/load alternantziako (L 2.3.1) aldaera baten egitura erakusten du *betek* hemen markatu dugun *bss*etan. *Hornitun* bezalaxe, *beteren bss* hauetan gertatzen dena da ez direla bakarrik substantziak *helburuko kokapena* betetzen dutenak, baizik eta mota desberdineko entitateak. Bestetik, alternantzia honen aldaera bati egozten zaio zentzu holistiko/partitiboa badu bete-DU-5 *bssak*. Alegia, *helburuko kokapena* “guztiz” bete den balioa.

Esan behar da badirela **INS**ik gabeko adibideak:

- (975) Zakua **betetakoan**, besteak beretzat gorde. (EusCor)
- (976) Lehen ez zuten sarerik izaten eta kontu handiz ibili behar izaten zen botilak **betetzerakoan** eta baita erabiltzerakoan ere. (EusCor)
- (977) Horrela denbora, baliabide eta agirisorta estatistiko gutxiago erabiltzeko bidea eskaini nahi da, osasun-zentroek galdesortak **betetzerakoan** lan gutxiago izan dezaten. (EusCor)

Kasu hauetan jakina da **ABS** entitatea “zerbaitez” betetzen dela, baina ez da zehazten. Hori bi arrazoiengatik izan daiteke: batetik, kasuan kasu jakina delako, seguruenez, zertaz betetzen den (*zakua*: testuinguruan agertuko zen zerbaitez; *botilak*: testuinguruan agertuko zen zerbaitez; *galdesortak*: erantzunez; *bertsoa*: hitzez-edo). Eta bestetik, betetzea bera delako azpimarratu nahi dena. Honek, orduan, iradokitzen digu *gai ukitu* horri buruzko informazioa edo beti jakina dela (testuinguruak —esaldi mailakoak edo pragmatikoak— ematen duelarik aditzera) edo, besterik gabe, ez dela espezifikatzen.

Beste batzuetan, berriz, **INS** ezinezkoa da, hain zuzen **ERG**ek adierazten duelako hori, *kaus*a adierazteaz gain ((973), (974)). Horrexegatik markatu dugu beste *bss* bat bezala, non *kaus*a eta *gai ukitua* osagai sintaktiko berak adierazten dituen.

Jakina, bete-DU-4 eta bete-DU-3 anbiguoak dira, azken honek **INS**ik ez duenean esaldian. Bereizketa egiteko, beraz, **ERG** eta **ABS** entitateen arteko harremana aztertu behar da. Esaterako, *norbaitek* ezin du *zakua* bete, izatekotan *zakua zerbaitek* beteko du. Beste batzuetan, ezinbestean, **INS**en presentziak markatzen du diferentzia. Izan ere, *futbolean dabiltzanek jolas-leku guztia* bete dezakete, eta **INS**ik agertzen ez denean horixe da ulertzen dena. Horren parean, aldiz, *futbolean dabiltzanek jolas-leku guztia zerrikeriez* bete dezakete; honakoan, **INS**en presentziak jakitera ematen digu *futbolean dabiltzanak* ez direla *jolas-leku guztia* betetzen dutenak.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**k ekintzaren kokapen orokorra adieraz dezakeela esango dugu, nahiz eta ez den oso maiz ageri.

SOZek —eta **INS**ek ere aukera hori badu— bere ohiko balioak erakusten ditu (modua: baliabidea, tresna, konpainia). Hala ere, esan behar da **SOZ**ek **INS**ek adierazten duen gauza bera adieraz dezakeela; eta zentzu horretan, alternantzia gisa planteatu genezakeela. Ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

DATi dagokionez, **ABS** entitatearekiko jabetzazko harreman bat adierazten duela dirudi. Adibiderik, ordea, ez dugu aurkitu.

Honenbestez, *landatu*, *hornitu* eta *hustu* aditzetan egin dugun bezalaxe, **aditz** honek *bss* hauetan **kokapen-aldaketa** adierazten duela esango dugu.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauen osagai semantikoak:

bete-DA-1: helburuko kokapena_ABS; gai ukitua_INS

bete-DU-3: kausa_ERG; helburuko kokapena_ABS; gai ukitua_INS

bete-DU-5: kausa+gai ukitua_ERG; helburuko kokapena_ABS

bete-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

bete-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

bete-DU-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus bete-DA-2 eta bete-DU-4 *bssen* zenbait adibide:

(979) Haring-en susmoa **bete** zan. (EusCor)

(980) -Prozedura hau tramitatzekoan, legezko manamenduak **bete** dira. (EusCor) INPERTOSNALA OTE?

(981) Ez dut ez obeditzen, baina bortxaz **betetzen** ditut Jainkoaren aginduak. [NIK] (EusCor)

(982) Pakita Lopez Aldazabal alabak hartu zuen orduan amaren ardura eta Erriberan 1991ko iraila arte eta gero Plaza Barriko egoitza berrian honek, Ramon Hernandez senarraren laguntzarekin, **betetzen** du garbitzaile lana. (EusCor)

(983) Agindu hau **betetzen** badu [HARK], erreprimutako konplexuaren haztarnetara eramango gaituen materiala eskuratu ahal izanen dugu inolako zalantzarik gabe. (EusCor)

(984) Hala ere, beste funtzio batzuk ere **betetzen** ditu [HARK]: (EusCor)

Ikus, azkenik, bete-DU-6ren adibide bakarra:

(985) Eskolan **betetzea** nahiko erraza da, baina gero zer? (EusCor)

Bigarren balioko *bss* hauetan, ABS entitatea beti izaki abstraktu bat da. Zer abstraktu honek batzuetan denborari egiten dio erreferentzia, halako balio berezi bat emanez aditzari. Ez dugu bereizi nahi izan besteetatik, ordea, azken batean zer abstraktu gisa ikus daitekeelako:

(986) - Bueno, pasa ezazu egun ona zure laguntxoekin eta beste urte asko **bete** ditzazula. (EusCor)

(987) - Bai, joan den hogeian **bete** ziren 50 urte ezkondu ginela. (EusCor)

INSek ez du goiko baliorik; hemen bere ohiko balioak agertzen ditu ((981)), SOZek bezalaxe ((982)). Esan behar da, erabilera iragankorra askozaz arruntagoa dela iragangaitza baino, eta balio iragangaitzean, batzuetan zail dela zentzu inpersonala edo inkoatiboa duen esatea ((980)). ERG adibide guztietan gizakia da. Balio honetan, goikotik desberdinduz, jarduera bat adierazten da, eta jarduera hori ERG entitateak esperimendatzen du. Hori dela eta, *aurkitu* aditzean ikusi dugun bezala, zaila egiten da egitura iragangaitz eta iragankor hauek alternantzia kausatibo/inkoatibo gisa ulertzea. Izan ere, hala balitz, ERG *kausa* gisa ikusi beharko genuke, eta ABS *gai ukitu* gisa. Bestetik, kontuan izan behar da inespezifikazio jakineko *bss* bat dugula balio semantiko honi lotuta. Objektu inespezifikoarekin alternantzia (L 1.2.1) ikusi dugun bezala, inespezifikaziorako aukera duten objektuak ez dira *gai ukitu* izan ohi. *Beteren bss* hauetan ABS entitatea *gai ukitutzat* joko bagenu, *gai ukitu* baten inespezifikazioa ontzat emango genuke. Eta, azkenik, esan dugunez, erabilera iragangaitzeko adibideak inpersonalekin nahasten dira batzuetan.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INEk, ekintzaren kokapen orokorra adieraziko luke.

DAT onargarri ez dela esan dugu; baina zenbait kasutan (adibide asmatuetara joaz: *ametsa bete zitzaidan*) posible dela dirudi. Kasu hauetan, ordea, DAT entitateak berak sortutako zerbait izan behar da; horregatik ez dugu maila orokorrean onartu (**legea bete zitzaidan*).

Esan ditugunak kontuan hartuta, bi modutara planteatuko dugu *beteren bss* hauen semantika eta beren Kasu azpikategorizatuen osagai semantikoak: batetik, egoera-aldaketa adieraz dezaketela esango dugu, non *gai ukitu* bat eta batzuetan *kausa* bat egongo diren; bestetik, jarduera gisa, non batzuetan *esperimendatzaile* bat eta beti *gai* bat dauden. Bestetik, inespezifikatzen den elementu jakina *beharrak* moduko zerbait dela dirudi.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

bete-DA-2: gaia/gai ukitua [-konkr]_ABS

bete-DU-4: kausa/esperimentatzailea [+giz]_ERG; gai ukitua/gaia [-konkr]_ABS

bete-DU-6: kausa/esperimentatzailea [+giz]_ERG; [gai ukitua/gaia: behar]_ABS

- Datu estatistikoek ERGen eta ABSren maiztasuna jartzen dute agerian. Gainontzerakoan, INSek badu presentziarik, maiztasun handieneko hurrengo Kasua izanik.



DA	29,29%	DA-ins	13,89%	DA-ala	0,77%	DA-abl	0,97%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,68%	DA-soz	1,88%	DA-ine	14,50%				
DU	68,99%	DU-ins	12,15%	DU-ala	0,81%	DU-abl	1,86%	DU-abs	79,91%	DU-komp	3,66%	DU-soz	1,76%	DU-ine	11,00%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,24%	DIO-ins	6,42%	DIO-ala	0,06%	DIO-abl	0,38%	DIO-abs	91,81%	DIO-komp	25,30%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,13%	DIO-ine	2,00%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	0,49%	ZAIO-ins	26,41%	ZAIO-ala	0,07%	ZAIO-abl	0,20%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	1,31%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,13%	ZAIO-ine	2,04%		

Hasi

Hasi aditzari lau *bss* markatu dizkiogu. Bi *bss* elkarren artean alternantzia dira. Hala, hasi-DA-1 eta hasi-DU-4k alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute; eta hasi-DA-2k eta hasi-DU-3k INEren eta SOZen alternantzia *jarduera* osagaian.

hasi-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

hasi-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS, ABL, DAT

Azalpena

Ikus hasi-DA-1 eta hasi-DU-4 *bssen zenbait adibide*:

- (988) Eta dena kasualidadez hasi zen, bus hartako kristalean idatzi nuen esaldiarekin. (EusCor)
- (989) Hegoaldeko hiriburuei dagokienez, Gasteizen 13:00etan **hasiko** da ekitaldia, Plaza Berrian. (EG)
- (990) Kristau ortodoxoen Pazkoa hasten dela eta, atzo iluntzeko 20:00etatik etenik daude Serbiako Poliziaren eta Jugoslaviako Armadaren ekintzak UCK "erakunde terroristaren" aurka. (EG)
- (991) Prozesu hau hasi besterik ez baita egin. (EG)
- (992) Hemen ere, DBHrekin gutxiago irakurtzen dute gazteek, eta argitaletxeen arteko gatazka hasi da lehen zuten leku horretan jarraitzeko. (EG)
- (993) Horrela **hasi** zen bion harremana ". (EG)
- (994) Hain justu, Augustako Mastersa irabazi eta geroxeago **hasi** zitzaizkion eskuin hankako behatz potoloan minak. [HARI] (EG)
- (995) EAEko Legebiltzarrean ordezkari zuten alderdiekin bigarren elkarrizketa txanda bat **hasiko** du datorren astean. [NORBAITEK] (EG)
- (996) AABen eta Senideen koordinatzaileek eta beste hiru lagunek gose greba **hasi** dute. (EG)
- (997) Esteban Nietoren egoera lehenbailehen konpontzeko premia adierazteko, eta sakabanaketa betiko amai dadin **hasi** dute protestaldi hori. [HAIEK] (EG)
- (998) Bestetik, aipatu bost lagun horiek hasitako gose grebaz gain, Tolosan ere hiru lagunek baraualdia hasi zuten atzo Esteban Esteban Nietoren askapena eskatzeko. (EG)
- (999) Sei urterekin **hasi** zituen piano eta solfeo ikasketak oiartzuar honek, herrian bertan. (EG)
- (1000) Orain urtebete Ostiral Santuko Akordioa sinatu zuten alderdi politikoek berriro **hasi** dituzte elkarrizketak bake prozesua suspertzeko. (EG)
- (1001) Gizonak bidaiaren bat hasten badu, berehala itzultzeko zina esijituko dio eta, bere faltan, zerbait utziko du, jainkoak gurtzeko botoak eta zoriona ematen duten apaingarri haiek bakarrik jantziko ditu. (EusCor)

Balio honetan entitate baten iraupenaren hasiera adierazten da. Alternantzia kausatiboa/inkoatiboa markatu diogun arren, gauzak ez daude oso argi. Izan ere, *amaitu* aditzean gertatzen denaren pareko, entitate bat irauten hastea egoera-aldaketatzat har daitekeen zalantzazkoa da. Agian esan beharko genuke alternantzia honek ez dituela egoera-eta kokapen-aldaketa adierazten duten aditzek bakarrik erakusten. Orokortzearren, ordea, entitateen hastea eta amaitzea egoera-aldaketatzat hartu ditugu. Hasten den entitatea —**ABSz** gauzatua— beti da entitate bizigabe abstraktu bat, eta *kaus*a —**ERGez** gauzatua— agertzen denean, beti da gizaki bat, edo honen ordezkari entitate bat.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk** bere ohiko balioak adieraz ditzake. **INSe**k eta **SOZe**k ere beren ohiko moduzko balioak adieraz ditzakete, eta modu horrek kausa eitea izan dezake.

ABL ez da oso arrunta. Agertzen denean, ABS entitatearen haste-puntua adierazten du.

DATek ere kasu bakanetan dirudi onargarri, hain zuzen, prozesua nahigabe egiten duen izaki biziduna adierazten duenean ((994)).

Beraz, esango dugu, entitate baten egoera-aldaketa adierazten dela, entitatea irauten hasten den neurrian, parte-hartzaile nagusi bezala *gai ukitua* eta batzuetan *kausaa* dituen, kasu ABSz eta ERGez gauzatuak, hurrenez hurren.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

hasi-DA-1: gai ukitua [-biz]_ABS

hasi-DU-4: kausa [+giz]_ERG; gai ukitua [-biz]_ABS

hasi-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INS, SOZ

hasi-DA-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INS, INE

Azalpena

Ikus hasi-DA-2 eta hasi-DA-3 *bssen zenbait adibide:*

(1002) Zinemagintzan **hasi** zinenean [ZU] Frantziako emakume zuzendari bakanetakoa izango zinen, ala? (EG)

(1003) MO MOWLAM Ipar Irlandarako Estatu idazkari britainiarrek gidatuta, berriro hizketan **hasi** ziren atzo Ipar Irlandako alderdi politikoak, bake prozesua ez aurrera ez atzera duen desarmearen auziari irtenbidea bilatzeko. (EG)

(1004) Pare bat egunez atsedean hartuko dut, ordutegira egokitu, eta gero **hasiko** naiz berriro lanean" [NI]. (EG)

(1005) Urrian **hasi** ziren prestaketarekin [HAIEK], eta Eguberriak pasata heldu zion lehen aldiz harriari. (EG)

Balio honetan, berriz, entitate baten jardueraren hasiera adierazten dela dirudi, eta horren esperimenez nabarmentzen dela; horretarako, **ABSz** gauzatzen den *esperimentatzailea* eta

INEz edo SOZez gauzatzen den *jarduera* baliatzen ditu. *Esperimentatzaile* hau beti da gizakia.

Aldea, beharbada, *jarduera* horri ekiteko dagoen arrazoia izan daiteke. Hau da, *jarduera* INEz gauzatzen denean, ekintza hori besterik gabe hasi egiten da; *gaia* SOZez gauzatzen denean, azpian “obligazio”/“betekizun” moduko bat dagoela dirudi. Hemen, ordea, ez dugu bereizketa horren esanahian gehiago sakonduko.

Esan behar da, batzuetan oinarriko izenak *jarduera* ez baizik eta kokalekua adierazten badu ere, kokaleku horretan normalean egiten den *jarduerari* egiten zaiola erreferentzia:

(1006) Lagunak egin zituzten, umeez, eskolan [HAIEK] **hasi** eta euskaraz ikasi zuten ... Baina ondo moldatu zirenek bezala gaizki moldatu zirenek ere izan zuten arazo handi komun bat: (EG)

Beraz, *eskola* hitzak berez kasu hauetan *jarduera* zentzua duela nolabait adierazi beharko litzateke.


Gainontzeko kasuei dagokienez, **INEk** bere ohiko balioak adieraz ditzake. **INSEk** eta **SOZek** ere beren ohiko moduzko balioak adieraz ditzakete, eta modu horrek kausa eitea izan dezake.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

hasi-DA-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; *jarduera*_INE

hasi-DA-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; *jarduera*_SOZ

- Datu estatistikoetan azpimarratzekoa da aztergai ez ditugun beste kasuen maiztasuna; izan ere, aditz honek beste erabilera batean (ohikoenean, gainera) *-t(z)en* kasua eskatzen du, hain zuzen *jarduera* horren beste forma. Gainontzean, **INEk** ere nahiko maiztasuna du.



DA	74,95%	DA-ins	1,85%	DA-ala	1,36%	DA-abl	3,97%	DA-abs	100,00%	DA-konp	0,46%	DA-soz	5,62%	DA-ine	27,85%				
DU	24,17%	DU-ins	4,25%	DU-ala	0,77%	DU-abl	4,69%	DU-abs	52,11%	DU-konp	0,34%	DU-soz	7,09%	DU-ine	27,32%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,30%	DIO-ins	0,23%	DIO-ala	0,11%	DIO-abl	1,86%	DIO-abs	76,14%	DIO-konp	0,20%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,14%	DIO-ine	23,50%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	0,57%	ZAIO-ins	0,23%	ZAIO-ala	0,12%	ZAIO-abl	1,60%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	0,26%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	1,02%	ZAIO-ine	5,59%		

Isuri

Isuri aditzari lau *bss* markatu dizkiogu. Bi *bss* (isuri-DA-1 eta isuri-DU-3k), balio semantiko berari dagozkio, eta elkarren artean Substantzia/Iturria alternantzia osatzen dute. Beste biak (isuri-DA-2/isuri-DU-4) beste balio semantiko bati dagozkio, eta elkarren artean alternantzia kausatibo/inkoatiboa osatzen dute. Ikus ditzagun bada lehenengo isuri-DA-1 eta isuri-DU-2.

isuri-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

isuri-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Bi *bssen zenbait adibide* (Substantzia/Iturria alternantzian (L 1.1.3) esan dugun bezala, askozaz ere arruntagoa da erabilera iragankorra):

- (1007) Bertatik argi izpi indartsu batzuk isurtzen dira eta elkartzen diren puntuan izar bat osatzen dute. (EusCor)
- (1008) Pintura batzuek etengabe **isurtzen** dituzte sustantzia kutsakorrek (EusCor)
- (1009) Ahaztuta zeneukan zineman azkeneko ilaran eseri, eta eskutik helduta egote hutsak, parekoari begietatik miresmena dariola ikusteak, edo "egunen batean ez nauzu maiteko" esanez gero malkoak [HARK] isurtzen dituela konturatzeak eragiten duen poza. (EusCor)
- (1010) Aplikeak isurtzen zuen argiaren azpian, ia ez zituen bereizten kolore ilunak eta argiak, eta etsita zegoen berdeak janztera. (EusCor)
- (1011) Hori esatean, ahal baduzu, krokodilo malko batzuk isuri [ZUK], hitzok esateak min emango balizu bezala. (EusCor)

Alternantzia hartan genioena gogoratu, aditz honen balio honetan bada *iturri* bat (biziduna nahiz bizigabea izan daitekeen), substantziaren bat sortzen duena. Aldera batean

iturria ABLz gauzatzen da, eta bestean ERGez. Guk gai sortu deitu diogu substantzia honi. Izatez, badira zehazki substantzia ez diren gauzak ere ((1007): *argi izpiak*).

Ohar bedi DAT ez dugula Kasu onartuen artean jarri. Izan ere, ABLk isuri-DA-1en eta ERGek isuri-DU-3n adierazten duen gauza bera adierazten du: *iturria*. Diferentzia bakarra da ABLz gauzatzean entitatea bizigabea dela eta DATEz gauzatzean biziduna; ERGen, berriz, orotariko entitateak ditugu. Hori esana dugu alternantzia hau aztertu dugunean. DATEkin batera ABL agertzen denean, *bidea* edo bitartekoa izaten da, eta askotan gizaki horren parte da (adib.: *begietatik malkoak isuri zaizkio*). DATdun egitura honek, orduan, beste alternantzia bat osatuko luke *iturrizko* ablatibo edo ergatiboarekiko. Hala ere, corpusean ez zaigunez agertu, ez dugu halaxe egin; besterik gabe, DAT balio honetan ezinezkotzat jo dugu. Isuri-DU-2n, horretaz gain, ABL ez dugu Kasu onartuen artean jarri.

Era berean, ALArik ere ez dugu onartu. Izan ere, sortzezko prozesu honetan lekurik ez duela uste dugu. Izatez, ALA onargarria da dagoeneko sortuta dagoen entitate baten kokapen-aldaketa adierazi nahi denean. Hain zuzen, horixe da *isuriren* beste balio semantikotzat jo duguna.

Azkenik, SOZek, INSek eta INEk beren ohiko balioak adierazteko gaitasuna du. INSek eta SOZek kasua eiteko modua ere adieraz dezakete.

Honenbestez, esango dugu *isurik bss* hauetan sortzezko jarduera bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ERGez edo ABLz gauzatzen den *iturria*, eta ABSz gauzatzen den *gai sortua* dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

isuri-DA-1: gai sortua [-biz]_ABS; iturria [-biz]_ABL

isuri-DU-3: gai sortua [-biz]_ABS; iturria_ERG

isuri-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

isuri-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

Azalpena

Bi *bssen* zenbait adibide:

- (1012) Urkiaga mendian jαιο, Esteribartik eta Iruñeritik pasa eta Funesen Aragoara isurtzen da. [HURA] (EusCor)
- (1013) (...) amodio batez, orain arte, musika hura itsaso zabalera isuria izan zen unera arte ikusi ez zuen amodio batez. (EusCor)
- (1014) Entzutean, uhin epelak bularraren kontra jo eta bihotz barrenera [HAIEK] [HARI] isurtzen zitzaizkiola sentitzen zuen; (EusCor)
- (1015) Kamioitik, gainera, erregaia isuri zen errepidean.
- (1016) Norbaitek, nazka eta beldurra uxatuz, emakume baten esne-tanta batzuk munstroaren ahoan isuri, eta horren ondoren, aizto berri batez, buruan odola ateratzeko moduko zauri bat egin. (EusCor)
- (1017) Orea lortu duzunean, isur ezazu moldera. [ZUK] [HURA] (EusCor)

Esan dugun bezala, balio honetan entitate (bizigabe) baten kokapen-aldaketa adierazten da. Hala, *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* —**ABLz** gauzatua— nahiz *helburuko kokapena* —**ALAz** gauzatua— adierazten duten osagaiak azpikategorizatzen dira, **ABSz** eta **ERGez** gain.. ERG entitatea gehienetan biziduna da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk** bere ohiko balioak izan ditzake ((1012), (1015), (1016)). Eta ABS entitatearen kokapen zehatza adierazten duenean ((1015), (1016)), ALAren ordezkotza gisa jokatzeko duela dirudi. Zentzu honetan, *sartu* aditzean egin dugun bezala, agian beste alternantzia bat proposatu beharko genuke hemen ere; baina, gure ustez, ALA agertzea arruntagoa denez, ez dugu halaxe egin. Esan dugun bezala, alternantzia hau orokorragoa da *sartun*.

INSek eta **SOZe**k beren ohiko balioak adieraziko lituzkete.

Azkenik, **DATek**, dagoeneko aipatua dugun bezala, kokapen-aldaketa adierazten duten aditzetan, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana ere adierazten duela ematen du; edota bestela, ALA edo ABL entitateekikoa. Izatez oso ohikoa da DAT agertzen denean LOK entitateak gorputz-atalak izatea ((1014)); eta halakoetan DAT entitatearen eta beste hauen arteko jabetza-harremana berariazkoa da. LOK entitateak ez direnean gorputz-atalak, ABS entitatearekikoa da jabetzazko harreman hori, isuri-DA-2 balioan bederen. Isuri-DU-4 balioan, berriz, *helburu* zentzua du besterik gabe; alegia, biziduna den *helburuko kokapena*.


Honenbestez, esango dugu *isurik bss* hauetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, ABSz gauzatzen den *gai ukitua*, ERGez gauzatzen den *kausa*, ABLz gauzatzen den *abiapuntuko kokapena* edo *bidea*, eta ALAz gauzatzen den *helburuko kokapena* dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

isuri-DA-2: gai ukitua [-biz]_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

isuri-DU-4: kausa [+biz]_ERG; gai ukitua [-biz]_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

- Datu estatistikoek ERGez eta ABSz gain, ALAk ere maiztasun dezente duela erakusten digute. ABLk ere badu, baina gutxiago. DATek ere nahiko maiztasun ageri du. INEk ere bai.



DA	48,57%	DA-ala	47,06%	DA-abl	20,59%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,94%	DA-ine	17,65%		
DU	40,48%	DU-ala	21,18%	DU-abl	2,94%	DU-abs	62,94%	DU-komp	2,94%	DU-ine	14,12%	DU-erg	100,00%
DIO	10,95%	DIO-abl	2,17%	DIO-abs	93,48%	DIO-komp	2,17%	DIO-dat	100,00%	DIO-erg	100,00%		

Izan

Izan aditzari lau *bss* markatu dizkiogu. Horietako bat alternantzia baten aldaera da (izan-DA-3) beste *bss* batekiko (izan-DA-2): ABSren ordez ELA_KONP ageri den alternantzia. Gainontzean, beste guztiak balio semantiko desberdintzat jo ditugu. Hala ere, esan behar da balioak markatzeko garaian zalantza izan dugula.

izan-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Zenbait adibide:

- (1018) Hiztegietan eta geografia liburuetan sarritan grabatu batzu izaten dira, esate baterako baobab bat erakusten da eta, irakurleak zuhaitz moeta horren tamainuaz guti gorabeherako ideia ukan dezan, baobab alboan gizaseme bat grabatzen dute. (EusCor)
- (1019) - Leopoldo, zu idazlea zara, baina zure familian idazle ugari izan dira, horrek zuregan eraginik izan du?. (EusCor)
- (1020) Landesetako hiri nagusian, Mont de Marsanen, iragan astelehenean nekazari manifestaldi bat izan zen. (EusCor)
- (1021) -IKURRINA berriro Athleticen eta Realaren arteko derbian zelaian izango da. (EusCor)
- (1022) Ekitaldi ospetsua antolatu nahi zuelako, 800 kultur eta ekonomia arloko ordezkari, hautetsi edo eragile sozial izan ziren bertan. (EusCor)
- (1023) Donostian, berriz, Alderdi Ederren izango da ekitaldi bateratua, 12:30etan. (EusCor)

Balio honetan entitate baten kokapena adierazten da. Hori adierazteko, *gaia* adierazten duen **ABS** eta *kokapena* adierazten duen **INE** ageri dira Kasu azpikategorizatu gisa. ABS entitatea izaki bizidun nahiz bizigabea izan daiteke.

Ikusten denez, INE askotan ez da behin bakarrik azaltzen, eta horrelakoetan kokapen orokorrago eta zehatzago baten berri ematen du.

Gainontzean, **INSEK** eta **SOZEK** modua adierazteko gaitasuna dutela dirudi, baina hauen presentzia ABS entitatearen baitan dago (normalean arruntagoak izango dira entitatea biziduna denean).

INE ez da agertzen batzuetan, eta orduan “izatea” bera, “existitzea” bera aditzera eman nahi da; guk, hala ere, hau ez dugu beste balio bat bezala bereizi, kasu horietan INE agertzea ere zilegi delako eta berez suposatutzat ematen dela ulertzen dugulako. Berdin jokatu dugu, hain zuzen, *egon* aditzarekin. Ikus zenbait adibide:

- (1024) Gauzak horrela, **izan** zen, gertakari honekin, pinturaren heriotzean sinestu zuenik ere. (EusCor)
- (1025) Hasieran hitz bat izan zen: "Agur"; orain, keinu hotz bat ... eta bihar, auskalo (EusCor)
- (1026) 1990. urtean gutxien eskatutako lekua izan da eta Barcelonan lanean ari direnek 1992an liskerrak izango direla uste dute. (EusCor)

Horrelako kasuetan, askotan beste elementu bat ageri da esaldian; gehienetan guk hemen aztergai ez ditugun Kasu eta balioak (denborazkoa, alegia) izan ohi dira.

Honenbestez, balio honetan esango dugu *izanek entitate baten kokapena* adierazten duela, horretarako ABSz gauzatzen den *gaia* eta INEz gauzatzen den *kokapena* dituela parte-hartzaile nagusi gisa.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

izan-DA-1: *gaia_ABS; kokapena_INE*

izan-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, INE, SOZ, INS, DAT

izan-DA-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ERG, ABL, ALA, INE, SOZ, INS, DAT

Ez dago kasu onartuak *bss* hauetan

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1027) Orritxoen edukia, ordea, politegia **zen** benetakoa izateko, eta astelehen goizean Jose Etxeandia Gasteizko zinegotziak komunikabide guztiak bildu zituen egia beti bezain beltza dela gogorazteko, eta orritxoak gezurra zirela agertzeko. (EG)
- (1028) "Euskal festa **da** derbia, eta han izan behar du ikurrinak", "niri ongi iruditzen zait partidua hasi aurretik zelaira ikurrina ateratzea bi taldeok". (EG)
- (1029) Derbia **da** igandeko partidua, derbia euskal festa da, eta, hori dela eta, ikurrinak bertan, San Mamesen, izan behar du ". (EG)
- (1030) Egun seinalatua **da** igandekoa, Aberri Eguna baita, eta polita izango da ikurrina ateratzea ". (EG)
- (1031) "Hitzarmena **da** bidea" NAFARROAN langabezi kopuruak jaitsiera nabarmena izan du aurreko hilean (1.558 langabe gutxiago zenbatu ditu INEMek), eta hori emaitza " positiboa " da Miguel Sanz Foru Erkidegoko presidentearen ustez. (EG)
- (1032) Ez zen batere nahastea (hanka-sartze bakarra **izan** zen Udal Agentziako zenbakia ematean partikular batena agertu zela). (EG)

Bigarren balio honetan entitate baten izaera kalifikatzen da, alegia, atributu bat ematen zaio entitate bati. Hori adierazteko, entitate bat, eta horri buruz predikatzen duen osagai predikatu bat dira beharrezko. Izan-DA-1en kalifikatzen den entitatea ABSz gauzatzen da, eta izan-DA-3n ELA_KONPez. Osagai predikatiboa, berriz, bietan ABSz gauzatzen da. ABS entitatea orotarikoa izan daiteke; ELA_KONPek, jakina, entitate zehatzago bati egiten dio erreferentzia: ekintza edo gertakari bati.

Ikusten dugun bezala, ez dugu onartuzat eman bestelako Kasurik, baina horretarako badira baldintza batzuk. Elementu predikatiboak izakiek jatorriz dituzten ezaugarriak edo ezaugarri iraunkorren bat adierazi behar ditu. Hala izanik, aditzak normalean erabilera trinkoa erakutsi behar du, hain zuzen ezaugarri hau berezkoa dela eta denboraldi bati lotura ez dagoela adierazteko (gainontzean, INErako lekua egon daiteke, baina orduan, izan-DA-1 balioaren baitakotzat joko genuke). Ez denean ezaugarri iraunkorrik adierazten, predikazio horrek identifikazio hutsa adierazi behar du, eta hau ere gehienetan erabilera trinkoan agertuko da²⁵.

Hortaz, esango dugu *izanen bss* hauek deskribapen bat adierazten dutela, horretarako ABSz gauzatzen den *gaia* eta ABSz gauzatzen den *ezaugarria* dituela parte-hartzaile nagusi gisa.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

izan-DA-2: *gaia_ABS*; *ezaugarria_ABS*

izan-DA-3: *gaia_ELA_KONP*; *ezaugarria_ABS*

izan-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Zenbait adibide:

(1033) Problema gutxiago izan zuen zentsura frankistak. (EusCor)

(1034) -Izorra hadi— esan zion Xalbaren adinkidea zen Joxantonio Ollokiegik, zeinarekin bezperan burruka latz bat izan bait zuen [HARK]. (EusCor)

(1035) Argitaldariak eta IZ disketeak **izango** dute stand kopururik handiena, Zabaltzen distribuitzailearekin batera. (EusCor)

(1036) Urtero bezala, euskal liburuen argitaletxe eta diskete guztiek euren standak **izango** dituzte azken aldiko ekoizpen berriak erakusteko, orotara laurogeitabat argitaldari ehun eta hogeitasei standetan egokiturik. (EusCor)

(1037) Sarrera hitzaldiaz aparte, gaurko egitarauak disko aurkezpen bakar bat baino ez du **izango**, arratseko 21:00etan Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan Gontzal Mendibil eta Kepa Junkerak egingo dutena. (EusCor)

²⁵ Dagoeneko aipatu dugun bezala, Zabalaren (1993) lanari egin behar diogu erreferentzia hemen, han aurki badaitezke *izanen* egitura predikatiboei buruzko xehetasun gehiago (2.2.2 ataletik aurrera, zehazki).

- (1038) Jose Antonio Asiain, Nafarroako Ekonomia eta Hazienda Kontseilariak Madrilgo gobernuarekin **izan** dituen azken negoziaketan ondoren Nafar Foru Komunitatearen osasun transferentziak gaur onartuko dira. (EusCor)
- (1039) Pertsona hauek dena izan dezakete, baina errepresioaren bidez. (EusCor)
- (1040) Zergatik oroitzen behar zuen nitaz, bere bizitzan zehar, gainean eta azpian [HARK] **izandako ehundaka haieriko beste bat** gehiago ez banintz bezala?. (EusCor)
- (1041) [HARK] Kultur arloan izango duen eginbeharra goraiatu zuten. (EG)
- (1042) Eusko Alkartasunak Gernikan **izanen** du ekitaldi nagusia eta EAJk Bilbon. (EusCor)

Balio honetan entitate batek beste entitate bat edukitzea adierazten da. Horretarako, **ERGez** gauzaturiko *edukitzailea* eta **ABSz** gauzaturiko *edukia* ditu parte-hartzaile nagusi. *Eduki* hau fisikoa (izaki bizidun nahiz bizigabe) nahiz ezaugarri modukoa izan daiteke (*edukitzailearen* ezaugarriaren bat, alegia). Horregatik, batzuetan jabetza berariazkoa da eta beste batzuetan besterengarria. *Edukitzailea* ere orotarikoa da.


Honenbestez, *izanek* *bss* honetan edukitze bat adierazten duela esango dugu. Horretarako, ERGez gauzatzen den *edukitzailea* eta ABSz gauzatzen den *edukia* dituela parte-hartzaile nagusi gisa.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

izan-DU-4: edukitzailea _ERG; edukia _ABS

Argi dago, aditz honi markatu dizkiogun *bssak* oso orokorki hartu behar direla. Izatez, *izanen* balioak bere inguruan agertzen diren elementuek eta hauen arteko harremanek baldintzatzen dutela argi dago.

- Datu estatistikoek INEk maiztasun handia duela erakusten digute, ERG eta ABSren ondoren.



DA	53,48%	DA-ins	2,85%	DA-ala	1,24%	DA-abl	1,57%	DA-abs	100,00%	DA-komp	5,50%	DA-soz	1,66%	DA-ine	21,55%				
DU	44,62%	DU-ins	2,22%	DU-ala	2,61%	DU-abl	2,59%	DU-abs	69,04%	DU-komp	2,87%	DU-soz	5,04%	DU-ine	22,92%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,73%	DIO-ins	6,45%	DIO-ala	0,14%	DIO-abl	3,65%	DIO-abs	61,65%	DIO-komp	0,59%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	3,88%	DIO-ine	9,62%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	0,17%	ZAI0-ins	3,21%	ZAI0-ala	0,15%	ZAI0-abl	0,25%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	0,49%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	0,59%	ZAI0-ine	2,75%		

Jokatu

Jokatu aditzari sei *bss* markatu dizkiogu. Horietako lau, balio semantiko berari dagozkion alternantziak dira. Eta beste biak beste balio semantikoko alternantziaren aldaerak dira.²⁶ Lehenengo balioko alternantziak ondokoak dira: batetik jokatu-DU-2rekiko objektu inespezifiko jakineko aldaera bat dugu (jokatu-DU-3); bestetik jokatu-DU-3 honekiko aldaeratzat jo dugun jokatu-DA-1 dugu. Alternantzia honek alternantzia erreziproko simple iragangaitzeko (*L* 2.5.4) aldaeretako baten antza da. Jokatu-DU-4 ere jokatu-DU-1ekiko aldaera bat da, eta ABSren eta INEren artean osatzen dute alternantzia. Bigarren balioko alternantzian (jokatu-DU-5/jokatu-DU-6), ABSren eta INSen artean osatzen da alternantzia.

Ikus ditzagun, bada, lehenengo balioaren lau aldaerak.

jokatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

jokatu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

jokatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

²⁶ *Jolastu* eta *existitu* aditzak aztertzerakoan egindako ohar bera ekarri behar dugu hona. Izan ere, *Hiztegi Batuko* 1 adieran ez da onartzen erabilera iragangaitza. Guk, berriz ere, Euskaltzaindiak aurreikusi ez duen erabilera honek corpusean presentzia duela jarri nahi izan dugu agerian.

jokatu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus *bss* bakoitzeko zenbait adibide (jokatu-DA-1 en adibide bakarra dugu):

- (1043) -Zer paper jokatuko dute Katalunia eta Euskal Herria bezalako nazionalitateek Europa berri horren eraikuntzan?. (EusCor)
- (1044) Asunto guzti honetan emakumezkoek jokutzen duten papera pasibo samarra da; dantza-sokan mutilek ateratzen dituzte eta gero txokolatadara inbitatzen, bestalde plazan dantzak ikustean txalo egiteko aukera ere badute. (EusCor)
- (1045) Igandeetan, izan ere, errosarioa esan ondoren, kartetan asten giñan, diru asko jokatu ez arren. [GUK] (EusCor)
- (1046) Oroitaraz dezagun Muskildik beste pastorala bat jokatu zuela 1985ean, hau zela Allande Agergaraik idatzi zuen `Allande Oihenart`. (EusCor)
- (1047) -Amets batean ibili nahi ez duela agertzen bazait behorra, hurrengo egunean ez dut lasterketarik jokatuko. [NIK] (EusCor)
- (1048) Baina zazpi partidu jokatu ditugu [GUK] eta, gehienetan jokatu dut. (EusCor)
- (1049) Erakundeek zein rol jokatu dute Historiaren ulermen zatitu horretan? (EG)
- (1050) Eta Tormod Moldestad norvegiarrak azkeneko partidua jokatuko du Barakaldorekin. (EG)
- (1051) Partiduetan haurrek hartzen dute parte, ez helduek (haur pilotariak jokutzen du, inola ere ez monitoreak edo gurasoek). (EusCor)
- (1052) Bestalde, Iñigo Arriolak Almerian jokatu zuen eta gaur ere prest du Periko Alonsok Ipuruan zelairatzeko. (EusCor)
- (1053) Lehen taldea aurtan hasi denez, liga probintzian jokutzen du [HARK]. (EusCor)
- (1054) Auzitegi komunitarioak diktaminatu duenez, jokalarien traspasoak eta partidu bakoitzeko zenbat jokalaria atzeritarrek joka dezaketen erabakitzen duen araua Erromako Itunaren kontrakoak dira. (EusCor)
- (1055) Egia da, azkeneko partidua alde batera utzita, beti jokutzen nuen [NIK], hamabigarren jokalaria zela esaten zuten. (EusCor)
- (1056) Deialdian sartzen banaiz eta minutu batzuetan jokutzen badut [NIK] zerbaitegatik izango da eta ez bere semea naizelako. (EusCor)
- (1057) Greg Normanekin jokatu zuen Olazabalek azken egunean, eta australiarra "lagun mina" izan arren, zelaian "soilik aurkari bat bezala" ikusi zuela esan zuen hondarribiarrak: (EG)
- (1058) Azken jardunaldian elkarrekin jokatu zuten [HAIEK], eta Olazabalek "sofritu" egin zuela onartu zuten, Marrazo Zuriari Augustako garaipenak berriro ihes egiten ziola ikustean. (EG)
- (1059) Gaur egoardian jokatuko dira Donosti'ko Atano III'nean, Errandonea eta Arretxe, eta irabaztunak, Eugi'rekin azkena jokatu bearko du maiatzaren 12'an. (EusCor)
- (1060) Dena zikintzen ari zara eta pentsatzen duzu gimnasia edo eskubaloian [ZU/ZUK] jokutzen ari zinela egindako zerbaitegatik izan dela; (EusCor)

(1061) -Jontxu, bihar pilotan jokatuko dugu lehen ikusi dugun frontoian! (EusCor)

(1062) Inoiz baino jende gehiagok jokatzen du kirol gaelikoetan, sekula baino jarraitzaile gehiago ditu, komunikabideei inoiz baino arreta handiagoa jartzen diete. (EusCor)

(1063) Hemen egotea jaka berdea jantzita, berriro golfean [NIK] **jokatzeko** gauza ez nintzela izango ere pentsatu nuenean ... benetan, oso kilikagarria izan da. (EG)

Adibideek erakusten digutenez, *bss* hauetan guztietan gizaki batek (edo hau ordezkatzeko duen entitate batek: (1046), (1049)) orotariko jarduerak egiten ditu. Jarduerak izanik, beti entitate abstraktu bat dute gunean jarduera hori adierazten duten sintagmek. Jokatu-DU-2 orokorra izanik, mota askotako jarduerak onar ditzake. Hala ere, esan behar da badirela hitz batzuk jardueratik urrun samar daudenak ((1045): *diru asko*), eta gure irudiz horrexegatik egokiago litzateke beharbada Hitz Anitzeko Unitate Lexikal gisa aztertzea.

Jokatu-DU-3n, esan dugun bezala, esaldian agertzen ez den jarduera jakin bat ulertu behar da: *partida* moduko zerbait. Hain zuzen, hitz hau bera agertzen da jokatu-DU-2ko adibide batzuetan ((1048), (1050); baina biotan modifikatuta agertzen dela ikusten dugu).

Jokatu-DU-4n, berriz, jarduera mota bat bakarrik onartzen da (*eskubaloia, pilota, kirol gaeliko, golf*); badirudi jarduera hauek beti pertsona bat baino gehiagoren artean burutu behar direla eta elkarren arteko nolabaiteko lehia ulertu beharra dagoela. Kurioski jarduera mota hauexek berak ezinezko dirudite jokatu-DU-2 moduko egiturari. Beraz, jarduera kontzeptu orokorraren pean badira alternantzia, baina jarduera konkretu mailan, berez, ez.

Jokatu-DU-3n, bestalde, SOZek balio bikoitza duela esan daiteke. Izan ere, batzuetan konpainia hutsa da ((1058)?), jokatu-DU-2n bezalaxe, baina gehinetan jokoaren lehian sartzen den aurkako entitateari egiten dio erreferentzia ((1057)). Hain zuzen, badirudi honen parekoa adierazi nahi denean, jokatu-DA-1en moduko egiturak zilegi direla; horrexegatik jokatu-DA-1eko ABS normalean plurala da ((1059)). Ez dirudi singularrean agertzeko joera dagoenik. Hori horrela izanik, jokatu-DA-1en SOZ ez da agertzen jokatu-DU-3n izan dezakeen balio berezian. Dena den, hau adibide gehiagoren gainean aztertu beharreko kontua da.

Gainontzeko Kasuak aipatzerakoan, beraz, *bss* batek edo besteak muga gehiago jarriko ditu, zehatzagoa den neurrian. Hala, **INEk**, **SOZek** eta **INSek** beren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi, jakina *bssetan* ikusitako balio berezirik ez dutenean.

DAT, ikusten dugunez, bakarrik jokatu-DU-2 balioan onartu dugu, eta hala ere, jarduera motaren arabera da onargarria. Halakoetan, aurkari gisa arituko den entitatea dela dirudi; hots, jokatu-DU-3n SOZekin ikusi dugun balioaren pareko. Ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu (adibide asmatu bat: *partidu bat jokatuko genien herrikoei*).

Honenbestez, esango dugu *jokatu* *bss* hauetan jarduera bat adierazten duela, horretarako *esperimentatzailea* eta *jarduera* dituela parte-hartzaile nagusi. Bi osagai hauek ikusitako *bssetan* gauza daitezke.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jokatu-DA-1: esperimantatzailea [+giz] + esperimantatzailea [+giz]_ABS

jokatu-DU-2: esperimantatzailea [+giz]_ERG; jarduera_ABS

jokatu-DU-3: esperimantatzailea [+giz]_ERG; [jarduera: partida_ABS]

jokatu-DU-4: esperimantatzailea [+giz]_ERG; jarduera_INE

jokatu-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, INS, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

jokatu-DU-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INS

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

Ikus *bss* bakoitzeko zenbait adibide (jokatu-DU-5en adibide gutxi aurkitu dugu):

- (1064) Zuek badakizue nik beti zintzo **jokatu** dudala eta gure lurralde hauetan zuei lehiakide indartsu bat irten zaizuen arren —Olentzerori nagokio, noski— nik ez ditut haurtzaroko lagunak ahaztu. (EusCor)
- (1065) Orain arte zuhur **jokatu** du Ibarretxek eta ez ditu alderdien ikuspuntuak kritikatu. (EusCor)
- (1066) Eta egilearekin zintzo **jokatu** [HAIEK] dutenak txalotu bezala (EusCor)
- (1067) Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari premiazko bilera eskatzeko asmoa ere azaldu zuten, izan ere batzorde horrek "arduragabekeriak" **jokatu** duela iritzi diote. (EusCor)
- (1068) Frantziarra iaz ere indartsuena izan zen, baina gizalegez **jokatu** [HARK] eta taldekidearen lidergoa errespetatu zuen. (EusCor)
- (1069) Eta denbora honetan, nahiz eta euskal gizarte osoak etengabe konponbide demokratikorako urratsak eman eta eskatu dituen, gobernalariek zein frantziarrak arduragabekeria politiko nabarmenez **jokatu** dute, errepresioa eta sufrimendua erabiliz berriz ere. (EusCor)
- (1070) Nolanahi ere, idazlea eta irakurlea ezagunak badira malgutasunez **joka** dezakegu [GUK] eta tonu adiskidekorragoa erabili (agurrak, ahozko hizkerako esamoldeak ...). (EusCor)
- (1071) 2. Askatasun handiz **jokatu** du [HARK], berak dioenez hori / hoi, bai / ba, sobera / sobra, batere / batre eta antzekoak idazterakoan, bere ustez batzuek zein besteak erabiltzen baitira. (EusCor)

Balio semantiko honetan gizaki baten jarduteko modua adierazten da. Hori adierazteko, ERGez gauzatzen den osagai *esperimantatzaile* bat hartzen du, eta jokaera horren espezifikazioa adierazten duen moduzko osagai bat. Osagai hau batzuetan sintagma

predikatibo gisa ageri da, eta beste batzuetan INSez (bestelakorik ere ager daiteke, baina maiztasun handienarekin hau ageri denez, Kasu honekin bakarrik osatu dugu alternantzia). Ikusten dugunez, balio honetan ez dago objektu moduko ABSrik; eta fenomeno hau zaila da azaltzea inespezifikazio-fenomenoen bidez. Ez dugu hemen horren arrazoieta sakonduko, hala ere.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INEk ekintzaren kokapen orokorra adieraz dezake (kontuan izanik modua ezinezkoa litzatekeela hemen).

SOZek, agertzekotan, goian ikusitako balioa adierazten du. Hau da, konpainia edo modua ez den balio bat; nolabait ekintzaren *helburu* gisa har daitekeena (ohar gaitezen, normalean *helburua* adierazten duen DAT ezinezkoa dela *bss* hauetan). SOZek *modua* ere adieraz dezake; horrelakoetan, alternantzia osatuko luke ABS eta INSekin. Ordea, ez dugunez adibiderik aurkitu, ez dugu horrela landu.

Beraz, esango dugu *jokatu* *bss* hauetan gizaki baten jarrerazko jarduera adierazten duela, partaide nagusi bezala *esperimentatzailea* eta *modua* dituela. *Esperimentatzailea* ERGez gauzatzen da eta *modua* ABSz nahiz INSez.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jokatu-DU-5: esperimentatzailea [+giz]_ERG; modua_ABS

jokatu-DU-6: esperimentatzailea [+giz]_ERG; modua_INS


Bukatzeko, esan behar da guk azpikategorizatutzat eman ditugun Kasuak ez direla beti ageri perpausean. Horrelakoetan testuinguruak (askotan pragmatikoak) esango digu zein balioren aurrean gauden. Ikus, esaterako, ondoko adibide hauek:

(1072) Ikusgarri **jokatu** zuen atzo Raik. (EG)

(1073) Azkenengo 9 zuloetan, zailenetan, maisutasunez **jokatu** zuen: (EG)

Kasu hauetan guztietan jakin badakigu inespezifikazio-kasuen aurrean gaudela (*partida* bat jokatzeko baita), baina inespezifikazio-balio horretan ere osagai predikatibo (ez-nahitaezko) bat onargarri denez, anbigua suertatzen da sintaktikoki.

- Datu estatistikoak: Datu estatistikoek erakusten digute INE dela maiztasun handienekoa, ERG eta ABS eta gero.



DA	21,33%	DA-ins	12,48%	DA-ala	3,74%	DA-abl	4,53%	DA-abs	100,00%	DA-komp	3,79%	DA-soz	6,36%	DA-ine	34,78%				
DU	75,22%	DU-ins	11,02%	DU-ala	3,93%	DU-abl	1,97%	DU-abs	33,63%	DU-komp	4,04%	DU-soz	6,90%	DU-ine	28,69%	DU-erg	100,00%		
DIO	2,31%	DIO-ins	32,32%	DIO-ala	1,32%	DIO-abl	0,30%	DIO-abs	33,28%	DIO-komp	6,68%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	9,38%	DIO-ine	20,96%	DIO-erg	100,00%
ZAI	1,14%	ZAI-ins	22,85%	ZAI-ala	1,34%	ZAI-abl	10,05%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	1,69%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	4,62%	ZAI-ine	21,05%		

Nahastu

Nahastu aditzari lau balio markatu dizkiogu. Aditz honek bi balio semantiko adierazten ditu, eta balio horiei lotuta, alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen du. Nahastu-DA-1/nahastu-DU-3 *bssek*, Alternantzia erreziproko sinpleak onartzen dituzte (hain zuzen horregatik onartzen dira iragankorra eta iragangaitza ((L 2.5.1 eta L 2.5.4)). Nahasturen bi balio semantikoak bereizten dituen da alde batetik nahastu-DA-1/nahastu-DU-3n beharrezkoa den SOZ nahastu-DA-2n beharrezko ez dela. Horrek aldi berean, ondokoa inplikatzeko du: nahastu-DA-1en *elkarren artean* ulertutzat eman behar da SOZik ez dagoenean, eta nahastu-DA-2n *bere baitan*. Ikus ditzagun, bada, bi balio semantiko hauek banan-banan, beren alternantzia kausatibo/inkoatiboarekin batera.

nahastu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

nahastu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1074) Ur-lurrina airearekin nahasten den gas ikustezina da. (EusCor)
- (1075) Motorearen azkartzea kabinakoaren marmarrarekin nahasten da, eta garabiak beste palamurgiltze bat egiten du, erosoan zaion gunean, erdi paretsuan, sakon-sakon oraingoan. (EusCor)
- (1076) -Ez zaitetz jende horrekin nahastu [ZU], mesedez. (EusCor)
- (1077) Berak usu aipatzen zuen gauza bat da egiaren kontu hori, zintzotasun poetikoarekin nahastuko duena [HARK] [HORI], eta uste baino garrantzitsuagoa da, egia esatearena azken muturretararamango baitu, bere bizitza literatura bihurtu arte, (EusCor)
- (1078) Ondoren, kontu handiz [ZU/ZUEK] nahastu gorringoekin txokolate beroa, gurinarekin eta irinarekin batera. (EusCor)
- (1079) Nahi baduzu, esnegaina marrubizko mermeladarekin nahas dezakezu [ZUK], eta oraindik bero dagoenean gainetik bota. (EusCor)
- (1080) Horregatik, dei egin zion ez ditzan gauzak nahastu [HARK]. (EG)
- (1081) Itoizko Koordinakundeko kidearen esanetan, Gobernuak "nahastu egiten ditu ametsak eta errealitatea". (EG)
- (1082) Haien ustez, badirudi Europako Batasunak ez duela ezagutzen Kontzertu Ekonomikoa, eta berriz nahastu dituela euskal pizgarri fiskalak eta laguntza erregionalak [HARK]. (EG)
- (1083) NATOko bozeramaile Jamie Sheak esan zuenez, pilotuek enbaxada eta "legezko jomuga militar" bat nahastu zituzten. (EG)

Bss hauetan entitate batzuk elkarren artean nahastearen ondorioz gertatzen den egoeraldaketa adierazten da. Hori dela eta, bi entitate hauek adierazten dituzten **ABS** eta **SOZ** dira Kasu azpikategorizatuak. Ez denean SOZik agertzen, ABS gehienetan plurala da (horrexegatik onartzen ditu Alternantzia erreziproko siple iragankorra eta iragangaitza).

Esan behar da, hala ere, ABS eta SOZ entitatearen izaeraren arabera, nahasketa honen zentzua desberdina dela: substantziak nahasten direnean, nahastu ostean beste moduko substantzia bat lortzen da; izaki bizidunak nahasteko modua, berriz, "batera jartzearena" genuke, besterik gabe; izaki bizigabe abstraktuak direnean ((1075): *motorraren azkartzea, kabinakoaren marmarra*), nahasketa ere nolabait abstraktua da.

Ikusten dugunez, ez da oso arrunta ABS eta SOZ entitateak bizidunak direnean ERG agertzea, baina corpusean agertu ez zaigun arren *Irakasleak gurasoak haurrekin nahastu* ditu modukoak zilegi dira.

INEk, batzuetan, ABS entitatearen kokapena adierazten du. ABS entitatea substantziaren bat denean, kokaleku hori askotan leku fisikoa gabe nahasteko den beste substantzia bat da, arrunki likidoa:

- (1084) Eneko izeneko azti bat, belarren eta landareen esentziak eta sustantziak mila likidotan nahasten ibiltzen zena, betikotasunerako edabea halaxe eskuratuko zuelakoan. (EusCor)
- (1085) Horrela, batean, uretan nahastutako piku eta urki hostoak eman zizkion txori bati edatera, baina txoria ezer hartu ez balu bezala geratu zitzaion, ez piku ez miku: (EusCor)
- (1086) hurrengoan, ardoan nahastutako masustak eta berbena-belarrak eman zizkion sagu bati, baina aztiak sagua mozkortzea besterik ez zuen lortu, hankak batera eta bestera dantzarazten zizkiola, benetako berbena batean balego bezala; (EusCor)
- (1087) azkenik, ozpinean nahastutako astalarra eta astaperrexila eman zizkion untxi bati, eta tamaina hartako astakeriaren aurrean, untxia zerraldo erori zitzaion, jakina, handik gutxira. (EusCor)

Zentzu horretan, SOZen ordezkodirudi (honekiko alternantzia, alegia). Guk, ordea, ez dugu aparteko *bss* gisa hartu, ez baitzaigu iruditzen orokortzeko modukoa. Esan behar da, gainera, halako kasuak erabilera iragankorrean agertzen direla gehienbat, eta aurkitu ditugun adibideetan, ABS pluralean agertzen deneko egitura ageri da.

Nahasten direnak, substantzia gabe izaki bizidunak direnean, INEk aipatutako balio hau ere har dezake, Kasu honetan izaki bizidun multzo bat dagoen leku abstraktua adierazten delarik. Honakoetan, ordea, balio iragankorra da adibideetan aurkitu duguna; baina ageri den egitura, ABS pluralekoa da hemen ere.

- (1088) Beren artean egoten badira atso talde horretan ez dute irriskurik, baina neska gazte eta ederren artean nahasten badira, gostua berpiztuko zaie. (EusCor)
- (1089) Zuzen-zuzenean, udako giro eta eguraldia aprobetxatu, telebistako plato beroak alde batera utzi eta euskal biztanleen artean nahastu dira telebistako bi aurkezle ezagunak. (EusCor)
- (1090) Lance Armstrong, Jan Ullrich, Riis, Olano, Zulle, Txmil, Taffi, Van Petegem, Vandenbroucke, Boogerd, ... Tourreko izarrak eta Munduko Kopako lehian buru belarri sarturik daudenak nahastuko dira Klasikoko tropelean. (EG)

Gainontzean INEk bere ohiko balioak adieraz ditzake.

Balio honetan, esan dugun bezala, SOZik agertzen ez denean esaldian, *elkarren artean*, *elkarrekin* edo *elkar* gisako izenordain erreziproko bat eman behar da ulertutzat (eta hortaz, aditzak informazio hori bere baitan duela suposatuta behar da), nahasketa ‘bi elementu edo gehiagoren artean’ gertatzen baita. Hau beharrezkoa da beste baliotzat markatu dugunarekiko desberdina izateko. Izatez, izenordain hau agerian ere ager daiteke:

- (1091) Azken aldiko ikerketa batek, gainera, azaldu du Neanderthal gizona eta Cro-Magnongoa garaikide izan zirela urte askoan, eta harremanak izan zituztela eta [HAIEK] elkarrekin nahastu ere egin zirela. (EG)
- (1092) -Gure belarriek osotasunean entzuten duten soinua gauza konplexu bat da, baina errealitatean soinua bat, elkar nahasten diren zenbait nota ezberdinez osatzen da. (EusCor)

INSek, modua (bitartekoa, ekintza egiteko modua, tresna) adieraziko luke.

DATek, azkenik, nahiz eta ez oso arrunta izan, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du. ABS eta SOZ entitateak bizidunak direnean are bitxiago dirudi DATek.

Beraz, esango dugu *nahastu* aditzak balio honetan bi entitateen egoera-aldaketa adierazten duela, horretarako bi *gai ukitu* (bata ABSz eta bestea SOZez gauzatua) eta aldaketa eragiten duen *kausa* dituela parte-hartzaile nagusi bezala. DA-1 *bss*an ez da *kausa* ergatiborik agertzen. Horretaz gain, balio erreziprokoa du, ondorioz, *elkarren artean* ulertu behar da beti.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

nahastu-DA-1: gai ukitua_ABS; gai_ukitua_SOZ

nahastu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; gai_ukitua_SOZ

nahastu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

nahastu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bss*etan: SOZ, INE, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1093) Zerbitzaria azkenerako **nahastu** egin da eta ez du gogoratzen norentzako diren erretiluan dituen edariak. (EusCor)

(1094) Erdi aldeko eremua **nahasten** denean, gonadotropinen kontrola eta isuria nahasten da eta hortik amenorrea dator. (EusCor)

(1095) Espainiako bizitza politikoa **nahasten** ari zen unetik unera. (EusCor)

(1096) Hainbeste ordain izateak irakurlea **nahastu** baino ez du egiten. (EusCor)

(1097) Bakean gaudenak [HARK] **nahastera** gizatxar bat inguratu zaigu. (EusCor)

(1098) -Ondo gogoratzen naiz aurrelaria [ZUK] **nahasteko** egiten zenituen iskintxoetz. (EusCor)

(1099) ... jende honek gaitasun ikaragarria du itxura [HARK] **nahasteko**, horrek ez du ezer esan nahi ... ez, bere lehenengo nobela hark hunkitu ninduen, apartekoa zen, berarekin hizketan aritzea bezalakoa... bere heziketa izpirituala kontaktzen zuen, era garbi, bizi batean, gure gizarteko hezkuntza okerra saltzen zuen han" (EusCor)

(1100) Haize firinak aurpegia hoztu eta [HARK] ene ilea **nahasten** zuen. (EusCor)

(1101) Bigarrenarekin batera Kraussek aldaketak egin zituen, eta talde txuri-urdinak lehen zatiko sendotasuna galdu eta **nahastu** egin zen [HURA]. (EG)

(1102) Polemikoak, akademizismo berrien zain zeuden epigonoak ere **nahastu** zituelako sarritan [HARK]. (EG)

(1103) Eta euskaldunok baleak ehizatzerakoan erakutsitako balentriaz ... eta adorea ... eta horrelako gauzez harro-harro hitzegiten entzuten dudanean, barrua nahasten zait [NIRI], eta benetan pena handia sentitzen dut. (EusCor)

Balio honetan, beraz, entitate bakarraren egoera-aldaketa adierazten da. Entitate hau ABSz gauzatzen da, eta gizakia edo izaki abstraktu bat izaten da askotan (baina ez beti). Esan dugun bezala, markatutako beste balio semantikotik desberdintzen duena da honakoan *bere baitan* izenordain erreflexiboa ulertutzat eman behar dela. Ez dakigu, ordea, hau nahikoa arrazoiak den balio semantiko gisa bereizteko. Izatez, baliabide sintaktikoa desberdina da, argumentu kopurua desberdina delako, baina semantikoki gauza antzekoak adierazten direla esan daiteke.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INSek eta SOZek ekintza egiteko edo gertatzeko modua adieraziko lukete batez ere.

DATek ABS entitatearekiko jabetzako erlazioa adierazten du, jabetza hori askotan gorputz-atala (ez edozein gorputz-atal, gainera) delarik ((1103)).

Beraz, *nahastuk bss* hauetan entitate bakarraren egoera-aldaketa adierazten du, parte-hartzaile nagusi bezala ABSz gauzatzen den *gai ukitua* eta ERGez gauzatzen den *kausa* dituela. Nahastu-DA-3n *kausa* ergatiboa ez da ageri. Horretaz gain, balio erreflexioa du, ondorioz *bere baitan* ulertu behar da beti.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak :

nahastu-DA-2: gai ukitua_ABS

nahastu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS

Argi dago, markatu ditugun nahastu-DA-1/nahastu-DU-3 eta nahastu-DA-2/nahastu-DU-4 balioak nahastu egiten direla ABSz gain beste Kasu azpikategorizatuik agertzen ez denean esaldian (hala nola, SOZ, izenordain erreziprokoa edota erreflexiboa). Eta, jakina, kasu horietan testuinguruak argitzen du hori.

- Datu estatistikoek SOZen indarra agerian jartzen dute:



DA	41,75%	DA-ins	5,38%	DA-abl	5,68%	DA-abs	100,00%	DA-komp	1,14%	DA-soz	22,55%	DA-ine	27,93%		
DU	50,54%	DU-ins	2,22%	DU-abl	5,68%	DU-abs	66,21%	DU-komp	5,58%	DU-soz	29,10%	DU-ine	15,76%	DU-erg	100,00%
DIO	2,57%	DIO-abl	4,85%	DIO-abs	38,84%	DIO-komp	44,66%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	7,77%	DIO-ine	7,77%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	5,14%	ZAIO-abl	4,85%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	0,97%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	7,77%	ZAIO-ine	7,77%		

6 DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak

6.1 Bi *bss* dituztenak

Bi dira atal honetan aurkitzen ditugun aditzak:

eragin, eutsi

Biotan markatu ditugun *bss*ek alternantzia osatzen dute elkarren artean. Beraz, hemen A multzoa dugu bakarrik.

A multzoa: *bss*ak elkarren artean alternantzia

eragin, eutsi

Eragin

Eragin aditzak erakusten duen alternantziaren aldaeretako bat objektu jakineko inespezifikaziotzat jo dugu, objektu hori zehazterakoan zalantza izan badugu ere.

eragin-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

eragin-DIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, DAT

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1104) Serbiarren arabera, aliatuen bonbardaketek sekulako triskantza eragin dute Pristina erdialdean. (EG)
- (1105) -NATOREN hegazkinek zibilen kontrako orain arteko triskantza handiena eragin zuten atzo Hego Kosovon izandako aire eraso batean. (EG)
- (1106) Izan ere, jendaren bisitak, oxigenoa sartzeak edota argiak kalte larriak eragin ditzake pinturetan. (EG)
- (1107) Tanjug-en arabera, NATOk txikizioak eragin ditu Kursumlijako metal lantegi batean, zentro mediko batean. (EG)
- (1108) Informazio teknologiek aldaketa handiak eragin dituzte enpresetan. (EG)
- (1109) Atzo goizeko 04:00etan, misilek txikizio handiak eragin zituzten etxean. (EG)
- (1110) Teknikarien arabera, bonbek erabat txikituta utzi zuten telebistaren egoitza zaharrena, eta kalte handiak eragin zituen [HARK] berriago batean. (EG)
- (1111) Errefuxiatuen etorrerak eta bereziki muga igaro ahal izan zutela ohartzeak harridura apur bat eragin zien Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiko arduradunei (UNHCR). (EG)
- (1112) Atal horrek, batik bat, Sinn Feini eragiten dio, adar armatua eduki eta Gobernuan esertzeko adina boto dituen alderdi bakarra delako. (EG)
- (1113) Hutsegiteek ez zidaten eragin [NIRI], eta horregatik ematen nuen segurtasun itxura. (EG)

Aditz honek corpusean ageri dituen adibide guztietan entitate baten sortzea adierazten du. Hori dela eta, *iturria* eta gai sortua osagai azpikategorizatuen artean. Horretaz gain, sorkuntza hori non gertatzen den adierazten duen osagaia ere azpikategorizatzen du. Hiru osagai hauek normalean **ERGez**, **ABSz** eta **INEz** gauzatzen dira, hurrenez hurren.

ERG entitatea orotarikoa izan daiteke: biziduna (edo honen ordezkoko gisa jokatzen duen entitatea: (1107): *NATOk*); bizigabe konkretua ((1109): *misilek*, (1105): *NAToren hegazkinek*; (1112): *atal horrek*); naturari loturikoa ((1106): *argiak*); eta bizigabe abstraktua, gehienetan agertzen dena (1104): *aliatuen bonbardaketek*, (1108): *Informazio teknologiek*,

(1104) *Errefuxiatuen etorrerak*, (1111): *hutsegiteek*). Baina izaki bizigabe konketuak eta abstraktuak berez gizakiek eginak edo eragindakoak dira.

ABS entitatea abstraktua da beti.

INE entitatea ia beti leku fisiko geografiko bat da, baina izan daiteke izaki bizigabe konketu bat ((1106)) nahiz leku abstraktu bat ((1105)).

INE azpikategorizatutzat jo dugun arren, ez da beti agertzen:

(1114) Hemen dagoen sumindura ikusita eta argudio politiko eta sozialetan dagoen politizazioa kontuan hartuta, grebarako deiak bestelako gogoetak eragiten ditu ". (EG)

(1115) Errefuxiatuak zihoazen konboi bati eraso eta sarraskia eragin du NATOK. (EG)

(1116) Erabakiak kritikak eragin ditu. (EG)

(1117) Kotxe ilara luzeak eragin zituen, hala ere, A-8 Doan plataformakoen ekintzak, ordainlekuko argia berde ipini arte ez pasatzeko jarrera hartu baitzuten protesta egileek. (EG)

(1118) Batzuk beldurtzea lortu arren, [HAIEK] euskal herritar xehearen haserrea eragin zuten, eta bestela agian botoa ematera joango ez zirenek betebehartzat hartu zuten bozkatzea ". (EG)

Hori batzuetan gertatzen da, kokapen hori (dela leku fisikoa dela izaki biziduna) ABSren baitako izenlagunak adierazten duelako ((1118)). Edo besteetan testuinguruak suposatutzat ematen duelako:

(1117) Kotxe ilara luzeak eragin zituen, hala ere, A-8 Doan plataformakoen ekintzak, ordainlekuko argia berde ipini arte ez pasatzeko jarrera hartu baitzuten protesta egileek. (EG)-> *A-8 AUTOBIDEAN*, ALEGIA

Testuingurutik ulertzen ez denean, *gizartean* edo horrelako zerbait aditzera eman nahi dela dirudi.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **SOZ**ek eta **INSE**k ohiko balioak izan ditzakete, baina ez dira bat ere arruntak; gehienetan sortze-prozesu horretan erabilitako bitartekoak adieraziko lituzkete.

DATi buruz, ordea, bada zer aipaturik. Izan ere, DAT INErekin batera agertzen denean, badirudi INE entitatearekiko jabetzazko harremana adierazi nahi dela; eta orduan, bi kokapen mota (bizigabea eta gizakia) daudela. Ordea, INErik gabe agertzen denean, kokapen bakarra suertatzen da, eta halakoetan INEren ordezkot dela dirudi; hots, INErekin alternantzia bat osatuko lukeela. Hala ere, eta desplazamendua adierazten duten aditzetan egin dugunaren pareko, ez dugu halaxe planteatu. Besterik gabe, horrelakoetan gizakia den kokapena bakarrik izango genuke. Hala, DAT ez dugu Kasu azpikategorizatuen artean jarri.

Beste batzuetan, berriz, entitate sortuaren *iturri* da; eta hau ABS entitatearen izaerak baldintzatzen du. Izan ere, entitate honek sentipen bat adierazten duenean, DAT entitateak sortua da —nahigabe bada ere— ((1111): *harridura apur bat*). Horrelakoetan, orduanondokoa gertatzen da: ERG nolabait kausa/bitarteko bihurtzen da, eta *iturria*, berez,

eutsi-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, ABL, DAT

eutsi-DIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, DAT

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, ABL

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1119) Azkenean, emakumea bere guraria eta irrikia [HARK] **eutsi** ezinean jartzen denean, gizonak mundu guztia agurtuko du, eta bakoitzari loreak, ukenduak eta betel hostoak opari egingo dizkio. (EusCor)
- (1120) Argazkian, goikaldeko bobeda **eutsiko** duten hamabi zutabeak ikusten dira. (EusCor)
- (1121) Akordio hori sinatu zuten alderdiek PP deitzen badute ez direla joango aipatu du Carmelo Barriok, "Lizarra eusten duen hankarik garrantzitsuenetakoa EH delako". (EG)
- (1122) Filosofia horrekin ekin zion agintaldiari, eta ehun egun geroago bereari eusten dio. [HARK] (EG)
- (1123) Txosten horiek ikusita ere ezezkoari eutsi zion. [HARK] (EG)
- (1124) Martin Mc Guinness Sinn Feineko buruzagiak ildo horri eutsi zion atzo, eta deklarazioak Ostiral Santuko Akordioari aldaketak egiten dizkiola gaineratu. (EG)
- (1125) Errusia erakartzeko NBen oinarrituko den estrategia iragarri arren, bonbardaketei eutsi die Aliantzak. (EG)
- (1126) -NATOk estatuetako Atzerri ministroek Aliantza Atlantikoak Jugoslaviaren kontra egiten ari den erasoei eutsiko diela berretsi zuten atzo Bruselan egindako bileran. (EG)
- (1127) Zinegotziek eutsi zioten pankartari, eta alderdietako ordezkari ugari izan zen bertan: (EG)
- (1128) Oinbikoa botata —hirugarren egurra—, minutuko aldea kentzen zien Nazabali eta Senosiaini, eta berak duen maisutasunarekin aldeari [HARK] **eustea** lortu zuen amaiera arte, arratsaldeko denborarik onena eginez. (EG)
- (1129) Izan ere, Bonner edo Bennett nabarmen litezke, baina gakoa inoiz ez dago jokalariren batengan, baizik eta Baskonia honek eskuzabaltasun ikaragarritz **eusten** diola beti talde-lanari. (EG)

Aditz honek entitate batek egiten duen jarduera adierazten du. Horretaz gain, jarduera hori burutzeko “esfortzua” ulertu beharra dagoela dirudi. Horretarako, jardueraren *esperimentatzailea* eta *gaia* ditu osagai azpikategorizatu gisa. Bi *bss*etan *esperimentatzailea* **ERGez** gauzatzen da; *gaia*, berriz, eutsi-DU-1en **ABSz** eta eutsi-DIO-2n **DATez** gauzatzen da.

ERG entitatea orotarikoa da —biziduna, bizigabe konkretua nahiz abstraktua—. Baina adibideek erakusten dutenaren arabera, eutsi-DU-1en bizigabeak dira nagusi eta eutsi-DIO-2n gizakiak (edo hauen ordezkotako den entitaterekin bat). Hala ere, eutsi-DU-1eko entitate bizigabe konkretuak, askotan, gizakiak eginak dira.

ABS nahiz DAT entitateak, berriz, oro har izaki bizigabe konkretu edo abstraktuak izaten dira (edo horrela ulertu behar da ((1121): *Lizarra*, proposamen ideologiko gisa).

Esan behar da, hala ere, corpusean askozaz ere arruntagoa dela eutsi-DIO-2 *bssa*, eta seguruenik gune anitzagoak onartzen ditu.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSe** eta **SOZe** euren ohiko balioak izango lituzketela dirudi. Ohar bedi, bestalde, eutsi-DU-1en DAT onartu dugula, ABS entitatearen jabea adierazteko gaitasuna baitu.

ABL Kasu onartuen artean jarri dugu, *gaiaren* “euste-puntua” adieraz dezakeelako.


Honenbestez esango dugu *eutsi* aditzak esfortzuzko jarduera bat adierazten duela, horretarako ekintza burutzen duen *esperimentatzailea* —ERGez gauzatua— eta *gaia* —ABSz edo DATEz gauzatua— dituela osagai azpikategorizatu bezala.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

eutsi-DU-1: esperimentatzailea_ERG; gaia [-biz]_ABS

eutsi-DIO-2: esperimentatzailea_ERG; gaia_DAT

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute eutsi-DIO-2 dela maiztasun handienekoa.



DA	6,24%	DA-ins	3,92%	DA-abs	100,00%	DA-soz	3,64%	DA-ine	11,76%										
DU	2,97%	DU-ins	0,37%	DU-abs	49,98%	DU-ine	8,75%	DU-erg	100,00%										
DIO	87,91%	DIO-ins	1,24%	DIO-ala	1,02%	DIO-abl	2,04%	DIO-abs	18,83%	DIO-komp	2,01%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,03%	DIO-ine	10,61%	DIO-erg	100,00%
ZAI	2,88%	ZAI-ins	8,61%	ZAI-ala	8,39%	ZAI-abl	1,01%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	1,76%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	0,25%	ZAI-ine	20,47%		

6.2 Bi *bss* baino gehiago dituzten aditzak

barkatu (3), *deitu* (6), *erreparatu* (4), *esan* (3), *jo* (10)

Aditz hauetako batzuei markatutako *bss* guztiak alternantziak osatzen dituzte euren artean. Hori gertatzen da *barkatu* eta *erreparatu* aditzetan. Gainontzekoetan, berriz, orotariko *bss*ak daude. Azter ditzagun, bada, A multzoan *bss* guztiak alternantzien aldaerak dituztenak, eta B multzoan orotariko *bss*ak dituztenak.

A multzoa: *bss* guztiak elkarren artean alternantzia

barkatu (3), *erreparatu* (4)

Barkatu

Barkatu aditzak dituen alternantziak ondokoak dira: *barkatu-DIO-3k* *barkatu-DIO-2*rekiko objektu inespezifikoaren alternantzia osatzen du. *Barkatu-DU-1ek*, berriz, *barkatu-DIO-3*rekiko alternantzia osatzen du, DAT baliatzen duelako ABSren lekuan. Ikusiko dugun bezala, hala ere, DAT honen gunea gizakia —edo gutxienez, biziduna— denean bakarrik agertzen zaigu alternantzia hau²⁷.

barkatu-DIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

barkatu-DIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, DAT

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, INE

²⁷ Hemen ohar bat egitea beharrezkoa dela iruditzen zaigu: beste atal batean (DU laguntzailea bakarrik onartzen dituzten aditzen atalean) aztertu dugun *ulertu* aditza ere modu honetan azal zitekeen. Ordea, han DAT ez dugu azpikategorizatutzat *jo*, eta ondorioz, ez dugu proposatu DATEk eta beste Kasuren batek elkarren artean osa lezaketen alternantziarik. Horretaz gain, *barkaturen* *barkatu-DU-1* *bss*an, gizakiak bakarrik onartu ditugu ABSren gunean.

barkatu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, INE

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1130) Ez zioten zigorrik **barkatu**. [HAIEK] [HARI] (EG)

(1131) Irribarre triste labur bat marraztu zitzaion ezpain bazterretan, gezur hura **barkatzen** zidala [HARK] [NIRI] nolabait adieraziz bezala. (EusCor)

(1132) Azken batean, porrot egiten duen enpresa bati **barkatu** egiten diote [HAIEK], ezta? (EusCor)

(1133) "Ocalanek turkiarren eskuetan ez dubere biziaren gaineko segurtasunik", segitu du PKK-k, eta herri kurduak konplizeei inoiz ez diela **barkatuko** gaineratu. (EusCor)

(1134) "Ezingo dugu **barkatu** errua aitortzen ez duena", arrazoitu dute. (EusCor)

Aditz honek entitate baten elkarraldatze abstraktua adierazten du. Ondorioz, hiru osagai agertzen zaizkigu azpikategorizatu gisa: elkarraldatzearen *abiapuntua* —beti ERGez gauzatzen dena—, *gaia* —beti ABSz gauzatzen dena—, eta helburua —batzuetan DATez eta beste batzuetan ABSz gauzatzen dena—. Aditz honetan, hala ere, elkarraldatzea nahiko berezia da. Izan ere, aditzak *barkazio* moduko bat barneratura duela ematen du, eta syntaxian ageri den *gaia* horren espezifikazio bat da berez. Horrek are gehiago zailtzen du aditz honek erakusten dituen egituren azalpena. Gu, sakontasun horietan sartu gabe, elkarraldatze abstraktu bat adierazten dela esango dugu.

Hiru balioetan ERG entitatea beti gizakia da, edo honen ordezkotzat den entitate bat. ABS entitatea, berriz, izaki abstraktu bat da, eta askotan DAT entitateak berak sortua da ((1131): *gezur hura*); beraz, horrelako kasuetan, DAT, *helburua* ez ezik, *iturria* ere bada. Hori, dena den, elementu abstraktu horren izaeraren baitan dago, eta beraz, ez dugu osagai semantikoetan zehaztu.

Esan dugun bezala, batzuetan *gaia* ez da azaltzen inespezifikatua ageri delako. Eta beste batzuetan ekintzaren *helburua* ABSz ageri zaigu (barkatu-DU-1). Kasu honetan (barkatu-DU-1), orduan, esan daiteke gaiaren inespezifikazioa ere badugula, *helburua* ABSz gauzatzeaz gain. Horrek esan nahi du barkatu-DU-1en agertzen zaigun ABS ez dugula inoiz *gaitzat* —ez eta gizakitzat— hartuko.

Beraz, *barkatu* aditzak elkarraldatzezko jarduera bat adierazten duela esango dugu, horretarako *abiapuntua* —beti ERGez gauzatua— *gaia* eta *helburua* dituela osagai azpikategorizatu gisa. Azken bi osagai hauek, ikusitako *bssen* arabera gauzapean sintaktikoak dituzte.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

barkatu-DIO-2: abiapuntua [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS; helburua [+giz]_DAT

barkatu-DIO-3: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua [+giz]_DAT

barkatu-DU-1: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua [+giz]_ABS

- Datu estatistikoak bitxi samarrak direla argi dago. Seguruenez, analizatzaile automatikoek eragindako hutsen ondorio izango dira. Hala ere, DU eta DIO laguntzaileak pareko portzentajea dutela ikus dezakegu.



DA	3,02%	DA-abs	100,00%										
DU	51,35%	DU-abs	29,82%	DU-erg	100,00%								
DIO	45,63%	DIO-ala	60,27%	DIO-abs	86,30%	DIO-konp	12,45%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	13,98%	DIO-erg	100,00%

Erreparatu

Erreparatu aditzaren *bss* guztietan, *gaia* osagaiaren gauzpen sintaktikoa da aldatzen dena. Erreparatu-DU-1 *bss*an ABSz gauzatzen da; erreparatu-DU-2n ELA_KONPez; erreparatu-DU-3n INEz; eta, azkenik, erreparatu-DIO-4n DATEz. Gainontzean, ekintza burutzen duen entitatea, *esperimentatzailea*, guztietan ERGek adierazten du.

erreparatu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

erreparatu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

erreparatu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: SOZ, INS

erreparatu-DIO-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, DAT

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1135) Ziudade hartan gizonak, bere beste behar guziak eginda gero, emaztearen eskaria oroitu zuen eta, bapatean, hara non **erreparatzen** duen [HARK] denda aurrekalde batetan ispilu bat, eta ispiluan ilargia. (EusCor)
- (1136) Bere bila beldurrik gabe eta hotza, beroa edo euria [HARK] **erreparatu** gabe joango da. (EusCor)
- (1137) Aliantza militarren oharrak zehazten zuenez, Korisa base militar eta agindugune bat zela **erreparatu** genuen [GUK]; (EusCor)
- (1138) Orduantxe **erreparatu** dut [NIK] lehenengo aldiz gu biok jendeak inguratzen gintuela, eta batek edo bestek begiratu ere egiten zigula jakin-minez. (EusCor)
- (1139) Indonesiako Giza Eskubideen Aldeko elkarteak (TAPOL) agertu zuenez, beren aurkakoak izate hutsagatik tirokatu zuten jendea paramilitarrek, eta kasu batzuetan horretan ere ez zuten **erreparatu**; [HAIEK] (EusCor)
- (1140) Lur emate baten zeremoniak amaitu berri dituen TALDE batean **erreparatzen** du [HARK].
- (1141) Leihotik begiratu eta paisaian **erreparatzen** du, mendi lerroan. [HARK] (EusCor)
- (1142) Eta errepasso horretan Lizarra Garaziko hitzarmenari **erreparatu** zioten. [HAIEK] (EusCor)
- (1143) Atzo bertan elkarrizketa eskatu zioten bozen ostean kargua utziko duen presidente Liamine Zerouali kezka horiek agertarazteko, baina Zeroualek ez zion nahikari horri **erreparatu**. (EusCor)
- (1144) Euskal Herriaren eta herri kurduen arteko parekotasunei **erreparatu** zien Kayak. (EusCor)
- (1145) "Beti Brahms eta Beethoven izaten dituzte gogoan, eta orkestrek, entsegatzeko betarik badute, Mozarti ere **erreparatzen** diote [HAIEK], baina Monteverdi eta beste zenbait konpositore ia ezezagunak dira, beti autore berberen lanak jotzen baitituzte". (EusCor)
- (1146) Euskal Herriko egoerari **erreparatzen** al diozu? [ZUK] (EusCor)
- (1147) Herria aldizakariok, dena den, espazio bidaiari ez zioten gehiegi **erreparatu**. (EusCor)
- (1148) EHko bozeramaileak uste du erantzunak "heldutasun politikoa" agertzen duela, eta hortik, elkartutako sektoreen zabaltasunari **erreparatu** zion [HARK]: (EusCor)
- (1149) Aldi berean, lanera bidean zihozten beharginei **erreparatu** zien [HARK], eta haiengan antzeman zuen alaitasunaz hunkiturik, zera deliberatu zuen bere artean: (EusCor)

Aditz honek entitate batek esperimentatzen duen jarduera adierazten du. Entitate hau beti gizakia da. Badirudi jarduera honetan, *eutsi* aditzean bezalaxe, nolabaiteko esfortzua ere adierazten dela. Jardueretan esan ohi dugunez, parte-hartzaile bezala ekintza burutzen duen *esperimentatzailea* eta ekintza horretan beharrezkoa den *gaia* ditu osagai azpikategorizatu gisa.

Erreparatu-DU-1 *bssan*, ABS entitatea izaki bizigabea da aurkitu ditugun adibide guztietan. Bestalde, ekintza modu ezusteko batean egiten dela dirudi, horrek erreakzio kutsua ere emanten diolarik aditzaren semantikari.

Erreparatu-DU-2n, jakina, ekintza bat da *gaia*, eta hemen ere, ekintza modu ezustekoan gertatzen delarik, erreakzio kutsu bat ere badela esan daiteke.

Erreparatu-DU-3n ere INEren gunean izaki bizigabeak ageri zaizkigu. Erreakziozko zentzu hori, ordea, ez dirudi dagoenik; beti, bederen.

Erreparatu-DIO-4n, azkenik, DAT entitatea anitzagoa dela esan daiteke. Hala ere, aurkitu ditugun adibideetan gehiagotan agertzen dira izaki bizigabe abstraktuak, izaki bizidunak eta bizigabe konketuak baino. Hemen ere ez dirudi erreakziozko baliorik dagoenik. Corpusean gehien ageri den *bssa* da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioak izan ditzakete. INEk ere bai, jakina, hemen aztertu dugun balio berezia ez duenean.

Beraz, esango dugu *erreparatu* aditzak nolabaiteko esfortzua eskatzen duen jarduera bat adierazten duela, horretarako osagai *esperimentatzaile* bat eta *gai* bat behar dituela. Bi osagai hauek, *bssetan* ikusi ditugun egituratan gauza daitezke.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


erreparatu-DU-1: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS

erreparatu-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ELA_KONP

erreparatu-DU-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia [-biz]_INE

erreparatu-DIO-4: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_DAT

- Datu estatistikoek: erreparatu-DIO-4ren nagusitasuna agerian jartzen dute.



DA	6,15%	DA-abs	100,00%	DA-ine	52,17%						
DU	3,21%	DU-abs	91,67%	DU-ine	8,33%	DU-erg	100,00%				
DIO	60,43%	DIO-abl	3,24%	DIO-abs	17,85%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	7,52%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	30,21%	ZAIO-abl	3,24%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	9,73%	ZAIO-ine	2,65%

B multzoa: orotariko bssak dituztenak

deitu (6), esan (3), jo (10)

Deitu

Deitu aditzari sei *bss* markatu dizkiogu, eta hiru balio semantikoei dagozkie. Hiru *bss* balio semantiko bati dagozkio, *bss* bat beste bati, eta gainontzeko bi *bssak* beste bati. Hala ere, balio semantiko eta alternantzia hauek planteatzerakoan zalantzak eta arazoak izan ditugu, *deitu* aditza osatuta dagoen moduagatik, seguruenez.

deitu-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

deitu-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

deitu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ALA

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, ABL, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

- (1150) Horregatik, aurki Sabin Intxaurrega Eusko Jaurlaritzako Lan sailburua bilera batera deituko du Pimentel ministroak, gai hori jorratu eta transferentzien arazoari irtenbideren bat ematen saiatzeko. (EG)
- (1151) Adibidez, Floren Aoz ezin zuen deklaratzera deitu Garzonek. (EG)
- (1152) Mahai Nazional osotik Jon Idigoras bakarrik [HARK] deitu zuen deklaratzera (noski, espetxean sartzeko asmoz). (EG)
- (1153) Era berean, Iparraldeko nesken futbolak duen maila aztertu ondoren, bertatik jokalariren bat [HAIEK] deitzen duten edo ez ikusiko dutela nabarmendu zuen Araguesek. (EG)
- (1154) Dagestango Gobernuak, bere aldetik, alarma egoera ezarri zuen eta bere segurtasun indar guztiak deitu zituen. [HARK] (EG)
- (1155) Izan ere, ia guztiak defentsak deitu zituen, eta akusazioek interes gutxi azaldu zuten. (EG)
- (1156) -Lizarra Garaziko Akordioaren sinatzaileek, atzoko manifestazioaz gain, biharko lanuzteak deitu zituzten Euskal Herri osoan abiatutako prozesu politikoaren alde. (EG)
- (1157) Herri Batasunak kontzentrazioak deitu ditu gaurko Hegoaldeko lau kartzeletan. (EG)
- (1158) Horrezaz gainera, EHk ere bihar eskatu behar du aferari buruzko udal batzordea premiaz deitzeko. [HAIEK] (EG)
- (1159) Egunotan, Ekuador, Kolonbia eta Perun lanuzte handiak deitu dituzte sindikatu eta herri mugimenduek eta agintariak estuasunean jarri. (EG)
- (1160) Lanuztera deitu zuten sindikatuak euren balorazioa kaleratu zuten atzo, eta bertan oso baikor azaldu ziren. (EG)

(1161) EAEko UG Tk ere grebara **deitu** du, "erantzun sindikal bateratua eta tinkoa ematea beharrezkoa delako". (EG)

(1162) Guk modu begi onez hartu dugu UG Tk izan duen jarrera garbia, Confebasken jarrera salatu eta greba orokorrera **deitu** baitu [HARK]. (EG)

(1163) Prozesu demokratikoa hausteko "probokazioei" erantzuna emateko eta nazio eraikuntzaren bidean indarrak batzeko, manifestaziora **deitu** du HBk. (EG)

Balio honetan, gizaki batek (edo honen ordezkari den entitate batek) jarduera bat egiten du beste batekiko. Horretarako hiru osagai ageri zaizkigu: ekintza esperimendatzen duena —beti **ERGez** gauzatua—, ekintza burutzeko beharrezkoa den *jarduera*, eta ekintza zuzentzen zaion entitatea, hau ere beti gizakia edo honen ordezkari dena. Hemen *helburu* bat dugunez, ERG *abiapuntu* gisa ere jokutzen duela esan daiteke, eta, ondorioz, elkarraldatze bat adierazten dela. Baina ondoren ikusiko ditugun alternantzia eta fenomenoei erreparatuta, aukera hau ez dugu kontuan hartuko, elkarraldatze-balioa ilun samar geratzen delako, azken batean .

Deitu-DU-1en hiru osagai hauek ERGez (esperimendatzailea), ALAz (*jarduera*) eta ABSz (*helburua*) gauzatzen dira. *Helburua* ABSz (eta ez ohikoa den DATez) gauzatzeak zerikusia du *deitu* aditzak bere pieza lexikalean *dei* hitza txertatuta izatearekin. Horrek, badirudi, ABSri aukera ematen diola beste balio batez gauzatzeko (aditz honetan behintzat).

Hala ere, ikusten dugu *jarduera* osagaia ez dela beti esplizituki agertzen ((1153), (1154), (1155)), testuinguruan ulertutzat ematen delako seguruenez.

Deitu-DU-2n, ordea, *helburua* inespezifikazioz desagertu, eta *jarduera* ABSz gauzatzen da.

Deitu-DU-3n azkenik, *helburua* ere inespezifikazioz desagertzen da, baina *jarduera* ALAz gauzatzen da.

Honenbestez, deitu-DU-2 eta deitu-DU-3 berez *helburu* osagaiaren inespezifikazioak dira, baina hori bideratzeko bi modu desberdin erakusten ditu aditzak. Horregatik, nahiz eta deitu-DU-1ek batzuetan deitu-DU-2ren egitura sintaktikoa izan (*jarduera* testuingurutik ulertzen baita), ABS entitatea —eta, era berean, ABSren balioa— desberdina da: batean gizakia (*helburua*) eta bestean jarduerazko entitate abstraktu bat (*jarduera*).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **ABL** deitu-DU-1 *bss*an onargarria dela ikusten dugu ((1152), (1153)). Halakoetan, ABS entitatearen kokapena adierazten du; hots, aditzak adierazten duen *jarduera* egin aurretik entitate hori dagoen lekua.

Gainontzeko balioetan ezinezkoa dela dirudi.

INERi, **INSeri** eta **SOZi** dagokienez, euren ohiko balioak erakutsi ditzakete.

Ikusiko dugun bezala, *bss* hauen bidez planteatu dugun balio semantikoa hurrengotik oso hurbil dago. Izan ere, bertan ere *jarduera* bat adierazten da, baina egiten den *jarduerari* baino

jarduera egiten dutenek duten kokaleku estatikoari ematen zaio garrantzia. Nolanahi ere bi balio hauek bereizi behar izan ditugun ikustako *bss* hauetan agertu zaizkigun inespezifikazio-alternantziak azaldu ahal izateko.

Beraz, esango dugu *deituk* balio honetan norbaiti zuzenduriko jarduera adierazten duela. Horretarako, aztertutako *bssak* baliatzen ditu.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

deitu-DU-1: esperimentatzailea_ERG; helburua_ABS; jarduera_ALA

deitu-DU-2: esperimentatzailea_ERG; jarduera_ABS

deitu-DU-3: esperimentatzailea_ERG; jarduera_ALA

deitu-DIO-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1164) Gainera, etxera **deitu** nahi zuten. [HAIEK] (EG)

(1165) Espainiako enbaxadara **deitu** genuen. [GUK] (EG)

(1166) Hoteletik **deitu** digutenean [HAIEK] [GURI] berehala joan naiz hara eta gela egoera penagarrian ikusi dut. (EusCor)

(1167) Clintoni telefonoz **deitu** aurretik [HARK], Jeltsinek hitz hauek egin zituen: (EG)

(1168) Inguruko etxebizitza batetik, bizilagun batek ikusi zuen zer gertatzen ari zen eta Ertzaintzari **deitu** zion. [HARK] (EG)

(1169) Telefonoz **deitu** nion [NIK] [HARI] esateko bi kantuek arrakasta handia izan zutela, batez ere Baga-Biga - Higa k. (EG)

(1170) **Deitu** zidaten [HAIEK] [NIRI] esateko etorri nahi zutela kontzertua ikustera, eta interesa azaldu zuten kontzertua hara eramateko. (EG)

Goiko balio semantikoan aurreratu dugunez, hemen ere jarduera bat adierazten da, baina honakoan jarduera horretan parte-hartzen duten bi entitateen kokapena ere azpimarratzen da. Horretaz gain elkaraldatze-balioetik hurbilago dago, honakoan aditzean txertatuta dagoen *deia* baita “elkarraldatzen” dena. Bi entitateen kokapena adierazteko, ALA eta ABL Kasuak azpikategorizatzen dira: **ALAk** helburuaren kokapena adierazten du, eta **ABL**, abiapuntuaren kokapena.

Goiko balioan ez bezalaxe, *helburu* osagaia adibide guztietan **DATEz** gauzatzen da²⁸. *Abiapuntu* osagaia **ERGez** gauzatzen da, eta gizakia izan ohi da. DAT ere bai.

Gerta daiteke, hala ere, bi gauzak —*helburua* eta *kokapena*— batera adierazten dituen entitate bat agertzea ((1165): *Espainiako enbaxadara*). Kasu horietan helburu konkretua ez da azaltzen eta orduan DU laguntzailea agertzen zaigu. Aukera hau, ordea, entitate horrek baldintzatzen duenez, ez dugu alternantzia orokor gisa planteatu.

Esan behar da, hala ere, ALA eta ABL askotan ez direla esaldian agertzen. Kasu hauetan, orduan, badirudi azpian dagoen elkarraldatze-zentzua nabariagoa dela.

Guk, besterik gabe, esango dugu hemen elkarraldatze bat adierazten dela, ekintza horretan bi partaideen —*abiapuntuaren* eta *helburuaren*— *kokapena* azpimarratzen direlarik.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

**deitu-DIO-5: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua [+giz]_DAT; kokapena_ALA;
kokapena_ABL**

deitu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

deitu-DIO-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1171) Nouvelle vagueko amona deitu izan dute. [HAIEK] [HURA] (EG)

(1172) Orduetik hona, hamaika indusketa eta azterketa egin dira Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurre Departamentuko buru eta kobazuloaren inguruan aditu Jesus Altunak Saindutegi [HURA] deitu ohi duenean. (EG)

²⁸ Jakin badakigu, hala ere, helburua ABSez ere gauzatzen dutela zenbait euskalkitan. Izatez, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan deitu* aditza DIO eta DU laguntzaileak onartzen dituen aditz gisa ageri da, DU Iparraldeko eta Nafarroako erabilerei lotuta eta DIO Bizkaia eta Gipuzkoakoari. Gauza da, gure corpusean DIO erabilera baino ez dugula aurkitu. Honek iradokitzen digu, guk euskara batuztat-edo hartu dugun corpusean euskalki batzuetarako joera dagoela.

- (1173) Beste atal batean artistak lurrak **deitzen** dituen lanak daude, alabastroarekin egindako esperimentazio lanekin batera. (EG)
- (1174) Erresuma Batuko Atzerri ministro Robin Cookek "Jugoslaviaren hipokrisia" salatu zuen, NATOri hiltzaile [HARK] **deitzeagatik**, bere hitzetan tragediaren errua Belgradena baizik ez baita. (EG)
- (1175) "Gure aberria hartzea eta suntsitzea litzateke hori", esan zuten erradikalek, eta "traidore" **deitu** zioten Draskovici. [HAIEK] (EG)
- (1176) Milosevici "diktadore" **deitu** zion [HARK], eta "zigor" izendatu zuen, bai Jugoslaviako demokraziarentzat bai Jugoslavia osoarentzat. (EG)
- (1177) Pentsa, gure ahokularietako bat Yoyesen komandokide izan zen, eta behin bazkaltzen geundela Yoyes **deitu** zion Anari. [HARK] (EG)
- (1178) HBko buruzagiari "txatxua" **deitu** [HARK], eta EAJrekiko errespetua izateko eskatu zion. (EG)
- (1179) Museoaren ondoren eraiki asmo duten prestakuntza zentroa ere nazioartekoa izango litzateke (Diseinu Zentro Internazionala **deitu** diote egitasmoari [HAIEK]); (EG)

Balio honetan ezaugarri edo kalifikazio esleitze bat egiten da. Horretarako, hiru osagai nabarmenentzen dira: ekintza burutzen duen entitate gizakia —*abiapuntutzat* jo duguna—; kalifikazioa jasotzen duen entitatea —*helburutzat* jo duguna— eta kalifikazioa bera —*ezaugarri* gisa jarri duguna—. Honen bidez ezaugarri-esleitzeak elkarraldatzetatik bereizten ditugu; *gaia* osagaia izan beharrean *ezaugarria* dugulako.

Balio honetan corpusak erabilera bikoitza erakutsi digu; hau da, *helburua* **DAT**ez nahiz **ABS**z gauza daiteke. Gainontzean, bi balioetan *abiapuntua* eta *ezaugarria* **ERG**ez eta **ABS**z gauzatzen dira, hurrenez hurren. Horregatik markatu ditugu bi aparteko *bss*. ERG entitatea beti da gizakia, baina *helburua* orotarikoa izan daiteke, bai **ABS**z gauzatzen denean, bai **DAT**ez gauzatzen denean. Hala ere, esan behar da, **DAT**ez gauzatzen denean gehienetan izaki biziduna dela, eta **ABS**z gauzatzen denean izaki ez-biziduna.

Beraz, *deituk* balio honetan *ezaugarri-esleitze* bat adierazten duela esango dugu, goiko *bss*etan azaldutako osagaiak dituela parte-hartzaile nagusi gisa.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

deitu-DU-4: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua_ABS; ezaugarria_ABS

deitu-DIO-6: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua_DAT; ezaugarria_ABS

Argi dago **DAT**en eta **ABS**ren artean gertatzen den erabilera bikoitz hori *deitu* aditzak barneratua duen objektuari (dei) zor zaiola.

- Datu estatistikoen arabera, **DU** laguntzaileak dira maiztasun handiagokoak. Darabilgun corpusean, bestalde, ezaugarri-esleitze balioak, seguruenez, presentzia gutxiago du.



DA	9,55%	DA-ins	4,33%	DA-ala	13,19%	DA-abl	2,17%	DA-abs	100,00%	DA-konp	0,58%	DA-soz	2,74%	DA-ine	14,73%				
DU	68,92%	DU-ins	2,37%	DU-ala	22,42%	DU-abl	2,02%	DU-abs	49,16%	DU-konp	2,98%	DU-soz	1,35%	DU-ine	20,83%	DU-erg	100,00%		
DIO	19,18%	DIO-ins	5,22%	DIO-ala	4,61%	DIO-abl	3,04%	DIO-abs	47,70%	DIO-konp	6,14%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,76%	DIO-ine	13,03%	DIO-erg	100,00%
ZAI	2,35%	ZAI-ins	0,68%	ZAI-ala	11,17%	ZAI-abl	1,20%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-konp	12,07%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	0,85%	ZAI-ine	11,66%		

Esan

Esan aditzai, hiru *bss* markatu dizkiogu. Horietatik bi *bssk*, balio semantiko baten alternantzia osatzen dute. Beste *bssa* beste balio semantiko bati dagokio; goiko *deituren* kasuan ikusi dugun ezaugarri-esleitzeari, hain zuzen.

esan-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

esan-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ALA

Kasu onartuak bi *bssean* berdinak dira: INE, SOZ, INS, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1180) Igandeetan, izan ere, errosarioa **esan** ondoren [GUK], kartetan hasten ginan, diru asko jokatu ez arren. (EusCor)

(1181) Testua ondo **esan** [ZUEK]? (EusCor)

(1182) Gogoeta hauetan murgildua nengoela, irribarre xumez hurbildu eta [HARK] txintik **esan** gabe, besotik heldu zidan bere gelara bideratzeko. (EusCor)

- (1183) Dena dela ere, pentsa dezagun ea publizitateak dena esan behar al duen, baita txarra dena ere, edo egia osoa esateak [HARK] ez ote duen historia kolektiboa ekarriko osasuna eta forma fisikoa dela eta. (EusCor)
- (1184) Alegiazko ideia irreala esaten dugu [GUK], gertatzeko aukerarik apenas dagoelako. DEITURA MODUKOA? (EusCor)
- (1185) Ezagutzen ditugun estatuen alde txarrak hartuz sortu daiteke [HAIEK] esaten duten Europa berri hori. DEITURA MODUKOA? (EusCor)
- (1186) [HARI] esaten dioten guztia sinesten du (EusCor)
- (1187) -Ez diogu ezer esango aitari. (EusCor)
- (1188) -Ez diote egia esaten [HARI], bestela ... (EusCor)
- (1189) Nik esango nuke, ia gure egunotarainoxe,"Arte txiker" bat bezala kontsideratua izan dela, zenbait kasutan erabat ukatua izateraino ere iritsiz. (EusCor)
- (1190) Gizon bizardun batek bibolina jotzen zuen bitartean beste batek ze ikuskizun mota eta ze emanaldi klase egongo diren ematen zuen aditzera: astebetetz geratuko direla Vetierro-n esan dute [HAIEK] eta egunero hiru espektakulo eskainiko dituztela. (EusCor)
- (1191) Poetaren aberastasunik handiena bere baitan gordetako haurtzaroa dela esaten zuen Rainer Maria Rilke poetak. (EusCor)
- (1192) Maitasuna ere ez da ikusten, gure sustraien antzera, eta nork esango dizu [ZURI] maitasunik ez dela. (EusCor)
- (1193) Ezagutu zintudanean artean zapaldu gabeko elur zuria, inor murgildu gabeko ur gardena zinela esaten zenidan [ZUK] [NIRI] txantxetan; inozentziatzko jolasik baizik ez zenuela ezagutzen, malizia gabeko eskuetatik bakarrik zinela igaroa. (EusCor)
- (1194) Beso, belaunburu eta aurpegia urraturik ateratzen nintzen, kexu eta ulu, baina aitonak esaten zidan [NIRI] azala zarpaildu eta maskurtzea zela bide bakarra gripea gorputzean sar ez zedin, eta igarriko niola negu zakarrean. (EusCor)
- (1195) Beste bizitzaz hitzegiterakoan, han ere bere amorantea izango dela esango dio. [HARI] (EusCor)

Balio honetan *esan* aditzak adierazpenezko jarduera bat adierazten du. Horretarako bi osagai azpikategorizatu erakusten ditu: adierazpena egiten duen entitatea —beti gizakia dena eta **ERGez** gauzatzen dena—, eta adierazten den entitatea —batzuetan **ABSz** eta bestetan **ELA_KONPez** gauzatzen dena—. Adierazpen bat aditzera ematen denez, ABS entitatea ia beti gauza abstraktu bat da ((1182): *txintik*; (1188): *egia*). Baina batzuetan ageri dira soinu-ekoizpenarekin zerikusia duten entitateak ((1180): *errosarioa*, (1181): *testua*). Jakina, ELA_KONPeK beti adierazten du ekintza bat, eta beraz, zer abstraktu bat.

Esan behar da, hala ere, *deitura* edo *kalifikazio* modura uler daitezkeen kasuak badaudela (hau da, hurrengo baliokoak liratekeenak). Galdera-ikurrarekin jarri ditugun adibideetan ((1184, 1185)), zalantza sortzen da deitura baten aurrean gauden, edota, besterik gabe, “esaten” den gauza baten aurrean. Horrelako kasuak, hala ere, ez dira ohikoenak, eta ABS entitateak deitura modukoa adierazten duenean, askozaz ere arruntagoa da DAT agertzea (*deitu* aditzean askozaz ere argiagoa da erabilera bikoitz hori). Horregatik jarri dugu *bss* bakarra deitura- edo ezaugarri-esleitzea adierazten den baliorako.

Gainontzeko, Kasuei dagokienez, **ABL** onargarria da ERG entitatearen kokalekua adierazteko. **INEk**, **SOZek** eta **INSek** beren ohiko balioak izango lituzkete. Eta, azkenik, **DATek** ekintzaren *helburua* adieraziko luke. Hala izanik, ERG, ekintzaren *esperimentatzailea* ez ezik, *abiapuntu* ere bilakatzen da. Baina ez dugunez **DAT** Kasu azpikategorizatu gisa jarri, ez dugu osagai semantikoetan zahaztu.

Esan behar da, halere, **INSek** baduela balio berezi bat, esaten den hori “zertaz” edo “nortaz” esaten den adierazteko. Balio berau ikusia dugu dagoneneko beste hainbat aditzetan, hala nola, *entzun, irakurri, ikusi, ulertu eta ikasi* aditzetan. Adib.:

(1196) Honekin batera Merkatal Kodeak honetaz **esaten** duena ere kontutan hartu behar da: (EusCor)

(1197) Kebekez orrialde osoak betetzerako jakintsun diren horiek ez digute hitzik ere **erran puntu horretaz**. (EusCor)

(1198) De Kooning-ek **esango** du hartaz, "bidea ireki zuela". (EusCor)

Honenbestez, esango dugu *esanek* balio honetan adierazpenezko jarduera bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala, *esperimentatzailea* —ERGez gauzatua—, eta *gai* ez-konkretu bat —ABSz nahiz ELA_KONPez gauzatua— dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

esan-DU-1: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia [-konkr]_ABS

esan-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ELA_KONP

esan-DIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, SOZ, INS

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibide:

(1199) Honi ere amapontekoa **esaten** zion gure amak. (EusCor)

(1200) Ordizira urak eramateko, iturri bidea **esaten** genion [HARI], andik ibiltzen giñan. (EusCor)

(1201) Hauei bikiak edo bixkiak **esaten** diegu. (EusCor)

Esan dugun bezala, balio honetan ezaugarri-esleitze bat (*deitura* ezaugarria, alegia) adierazten da. Hori adierazteko, ezaugarria ezartzen duen gizakia —*abiapuntutzat* jo duguna—, ezaugarria esleitzen zaion entitatea —*helburutzat* jo duguna— eta ezartzen den entitatea —*ezaugarritzat* jo duguna— ditu parte-hartzaile nagusi bezala.

Esan behar da, balio honetan oso-oso arrunta dela inpersonala erabiltzea:

(1202) Biki hauek berdinak izaten dira eta unibitelinoak **esaten** zaie [HAIEI]. (EusCor)

(1203) Amonari amama ere **esaten** zaio. (EusCor)


(1204) animalien besoei eta zangoei hankak **esaten** zaie. (EusCor)

Bestelako Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSEk** eta **SOZek** euren balio arruntak adieraz ditzaketeela dirudi, nahiz eta ez izan oso arruntak.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

esan-DIO-3: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua_DAT; ezaugarria_ABS

- Datu estatistikoek DU laguntzaile baliok nagusitasuna dutela jartzen dute agerian:



DA	4,76%	DA-ins	1,86%	DA-ala	0,09%	DA-abl	5,62%	DA-abs	100,00%	DA-komp	38,16%	DA-soz	0,09%	DA-ine	28,53%				
DU	80,89%	DU-ins	1,26%	DU-ala	0,35%	DU-abl	1,14%	DU-abs	22,01%	DU-komp	33,41%	DU-soz	0,41%	DU-ine	5,98%	DU-erg	100,00%		
DIO	13,96%	DIO-ins	1,94%	DIO-ala	0,39%	DIO-abl	2,62%	DIO-abs	28,33%	DIO-komp	25,66%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,39%	DIO-ine	6,35%	DIO-erg	100,00%
ZAI	0,38%	ZAI-ins	0,04%	ZAI-ala	0,08%	ZAI-abl	0,78%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	15,02%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	0,08%	ZAI-ine	24,01%		

Jo

Jo aditzari hamar *bss* markatu dizkiogu. Aditz honen kasuan zaila da balio semantikoak bereiztea. Izan ere, gure ustez, batzuetan, sintaktikoki gauzatzen ez den entitate ez konkretu bat ulertu behar da aditz honen semantikaren barruan. Entitate honek “soinua”rekin du zerikusia. Hala, bere gauzaren sintaktiko desberdinetan, soinu-zko balio honek indar handiagoa edo txikiagoa duela dirudi. Ondorioz, azkenean, bi balio semantiko sortzen dira: bata doinuren bat ekoiztea, eta bestea kolpe baten ondoriozko soinua ekoiztea. Bi balio semantiko hauek objektu inespezifikazioaren alternantzia dute, era berean. Azken batean inespezifikazio hauetan oinarriturik markatu ditugu bi balio semantikoak. Doinu-ekoizte balioan, horretaz gain, objektu jakineko inespezifikazioa eta subjektu jakineko

inespezifikazioa ere baditugu. Kolpea-rekin zerikusia duen balioak, Alternantzia konatiboa (L 1.3) erakusten du alde batetik, eta bestetik, *kolpearen* espezifikazioa adierazten duten hitzak onartzen dituenek, bestelako egitura bat ere erakusten du. Honenbestez, balio semantiko hauen eta beren alternantziekin, hasteko, zortzi *bss* definitu ditugu: jo-DU-1, jo-DU-2, jo-DU-3, jo-DU-4, jo-DU-5, jo-DU-6, jo-DU-7, jo-DIO-10.

Balio hauetatik oso urrun, berriz, beste bi balio semantiko definitu ditugu. Batean nolabaiteko desplazamendua adierazten da, fisikoa nahiz abstraktua; balio honetan *bss* bakarra zehaztu dugu (jo-DU-8). Eta azkenik, hirugarren balio batean, ezaugarri-esleitze bat adierazten da (jo-DU-9).

Ikus dezagun, bada, balio semantiko bakoitza bere alternantziekin.

jo-DU-1

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

jo-DU-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

jo-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

jo-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus jo-DU-1 eta jo-DU-2 *bssen* zenbait adibide:

- (1205) Gizon bizardun batek bibolina jotzen zuen bitartean beste batek ze ikuskizun mota eta ze emanaldi klase egongo diren ematen zuen aditzera: astebetzez geratuko direla Vetierro-n esan dute eta egunero hiru espektakulo eskainiko dituztela. (EusCor)
- (1206) Bibolinzalearekin batera kanta luze bat jo dute [HAIEK] eta azkenean, karramotora sartu dira jendearen txalo eta oihuen artean. (EusCor)
- (1207) Matrailak ere saxoa [HARK] jotzeko kemenaren ondorioz puztuak zituen, eta pausokera ostruka eta pinguinoaren arteko sintesi balantzati bat zen. (EusCor)
- (1208) Gurdi guztiek batera jo zuten bozina, eta aldi berean auto gidariak taldeko emakumeei adore ematen zieten, bozinei erantzun eta, denek batera ulu egin zezaten. (EusCor)
- (1209) Gau hartan loak ez ninduen hartu kanpandorreko erlojuak bostetako dandanak jo zituen arte. (EusCor)
- (1210) Behin portuan, kaiaren bestekaldetik Bermeoko geltokira iristen ari zen trenak txistua jo zuen, niri deika balebil bezala. (EusCor)
- (1211) Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, bandak, besteak beste, J.V. der Roost, Mendelssohn, Hadermann eta Jose Franco konpositoreen piezak joko ditu. (EusCor)
- (1212) Halako batean telefonoak jo du. (EusCor)
- (1213) Goizeko zortziak puntuan jotzen du eskolako txirrinak, umeei sartzeko ordua dela adierazteko. (EusCor)
- (1214) Aparatu hau automobilean, dendan edo beste leku askotan jartzen da eta arriskurik dagoenean jo [HARK=APARATUAK] eta abisatu egiten du. (EusCor)
- (1215) Sirenak jo du. (EusCor)
- (1216) Jo zuen berriro elizdorreko erlojuak. (EusCor)
- (1217) Orduan kukuak berriro jo zuela uste dut, baina hots hura zenbait oin-hotsekin batera nahasturik datorkit burura. (EusCor)
- (1218) Une hartan tronpetak jo zuen berriro, eta mezularia azaldu zen, elefanteak bezalako zaldi marroi eta pikarta banatan zihoazen bi zaldun oso handik lagunduta. (EusCor)

Ikus, bestetik, jo-DU-3 eta jo-DU-4ren adibideak:

- (1219) Gure "Leon Txikik" bi edo hiru urtetan jo zuen. [MUSIKA] (EusCor)
- (1220) Behin batean Pasai Antxoko plazan jotzen geundelarik, ikus-entzuleen artean, aukien lehenengo lerroan bazegoen mutil bat bere zakurrarekin. [MUSIKA] (EusCor)
- (1221) Eta afalostean jotzen zuen, ondo asko baitzekien oso gogoko dudala. [MUSIKA] (EusCor)

- (1222) Toki askotatik deitu zieten, **jo** zezaten; [MUSIKA] (EusCor)
- (1223) Gaiarre antzokian **joko** du Oskorri taldeak, gaurko arratseko 10,30etan, Kukubiltxo antzerki taldea eta Kepa Junkera trikitilariarekin batera. [MUSIKA] (EusCor)
- (1224) Hirugarren urtez jarraian jira bat egingo dute Estatuan zehar eta gaur Bergaran **joko** dute, taldearen laguntzarekin. [MUSIKA] (EusCor)
- (1225) Beethoven-en bibolina eta orkestrarako Re Maior edo Nagusiko kontzertuaren musika gaia solfeatu eta flautak prestatuz **jo** egingo dugu. [MUSIKA] (EusCor)
- (1226) Kontua da goizeko hamaikak **jo** dizkigutela lehenengo bizi-seinalea eman orduko. [KANPAIEK?] (EusCor)
- (1227) -Orduan zain geratu zen zortziak **jo** arte. [KANPAIEK?] (EusCor)
- (1228) Bostak **jo** eta berehala, Fatima berriro irten zen etxetik. [KANPAIEK?] (EusCor)

Doinu-ekoizte balio honetan, bi Kasu dira azpikategorizatuak: **ERG**, jarduera burutzen duena, eta **ABS**, ekoizten den doinua adierazten duena. Jo-DU-1 izan ezik, besteak inespezifikazioak direnez, honi buruz mintzatuko gara, orokorra baita.

Ikus dezakegunez, ERGen gunean orotariko entitateak ditugu. Askotan gizakia da, edota gizaki multzo bat ordezkatzeko duen entitate bat da (*banda*). Batzuetan, gizakiak asmatutako makinaria bati esker bere baitako funtzionamendua duen entitatea da (*erlojua, tren, gurdia* esaterako), edota baita soinuaren iturria den tresna ere (*telefonoa, txirrina, tronpeta, sirena*, esaterako).

ABS entitateak, berriz, beti izaki abstraktuak nahiz konkretuak dira. Abstraktuek, doinua bera adierazten dute (*kanta luze bat, dandana...*); eta izaki konkretuek, doinua ekoizteko bitartekoa edo tresna (*bibolina, saxoa...*).

Jo-DU-2n, berriz, ekoizten den doinu hori ez da agertzen. Esan behar dugu, hala ere, kasu hauetan ERG entitatea ia beti ez-gizakia dela (*sirenak, erlojuak, tronpetak...*).

Jo-DU-3n, berriz, alderantziz gertatzen da: ERG beti da gizakia (*musika* delako beti inespezifikatzen dena). Eta musika, gizakiek bakarrik sor dezakete.

Beraz, jo-DU-2 objektu inespezifikoko orokor gisa hartu dugu. Baina berez “musika jotzea” ez du bere baitan hartzen. Aukera hori objektu jakineko inespezifikazioaren bidez gauzatzen da. Argi dago, orduan, objektu orokorreko inespezifikazioa ez dela azken batean hain orokorra. Beharbada objektu jakineko bi inespezifikazio-kasu gisa planteatu beharko genituzke: batean *musika* bakarrik ulertzen dela, eta bestean musika ez den edozein doinu.

Jo-DU-4ren kasuan, azkenik, argi dago doinu-ekoizlea oso zehatza dela. Badirudi, orduan doinua jotzeko erabiltzen den tresna (*kanpaia*) dela inespezifikatzen den ERG.

Gainontzeko Kasuei dagokionez, **INEk**, **INSe** eta **SOZe** euren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi. Dena den, jo-DU-4n ez dira bat ere arruntak. ERG tresna edo baliabide moduko zerbait denean, Kasu hauen bitartez ezin da horrelakorik adierazi.

ABL, berriz, onargarria da, ERG entitatea biziduna izanik, honen kokalekua adierazteko. Ez da, ordea, batere arrunta.

Azkenik, **DAT**ek, ekintza zuzentzen zaion entitatea adierazten du. Esan behar da jo-DU-4n agertu dela DATik esaldian ((1226)), baina gure ustez datibo etikoaren balioa du; horregatik ez dugu *bss* honetan onartu.

Beraz, balio honetan esango dugu *jok doinuren bat ekoizteko jarduera* adierazten duela. Balio hori, goian ikusi ditugun *bss*ez gauza dezake.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jo-DU-1: esperimentatzailea _ERG; gaia [-biz]_ABS

jo-DU-2: esperimentatzailea [-giz]_ERG;

jo-DU-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; [gaia: *musika*]_ABS]

jo-DU-4: [esperimentatzailea: *kanpai*]_ERG; gaia [-konkr]_ABS

jo-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

jo-DU-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

jo-DU-7

Kasu azpikategorizatuak: ERG, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INS, SOZ

jo-DIO-10

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Ikus jo-DU-5 eta jo-DU-6 *bssen* zenbait adibide:

- (1229) **Jo** nagizu [ZUK] [NI], nahi badozu, horregaitik ez zara ni baino gehiago izango. (EusCor)
- (1230) Lotsagarri eta higuigarri agertuko zara jendaurrean, gizaki bat, errurik gabe, baltza izategaitik bakarrik **jo** dozulako. [ZUK] (EusCor)
- (1231) Bai, eta nik zu makilaz **joko**. (EusCor)
- (1232) Jaun Goikoak apostolua argi distirant batez **joz**, Damaseko bidean zalditik bota zuelarik, Jondoni Pauloren gogo itxuraldatu zuen bezela, lehegailu batek Euskaldunak, briu brau, alda araziko balitu bezela! (EusCor)
- (1233) Eguraldi nahasia eta gorabera haundikoak egin omen zituen uda hartan Wuhun, eta horrez gainera, gaitz batek jo zuen Vicente: (EusCor)
- (1234) Harridurak jo ninduen. [NI] (EusCor)
- (1235) laz Erregeen Kabalkatan zaldiak bizkarrean **jo** ninduenetik [NI] burdinazko aulki honetatik jaiki ezinik nabil, eta ez nago oso ondo. (EusCor)
- (1236) Andereñoak Kepa besoetan hartu eta autobuseko lehenengo eserlekura eraman zuen, haizeak [HURA] jotzeko. (EusCor)
- (1237) Orduan, amua airean bueltan etorri zen eta, zoritxarrez, burdin zorrotz hark begian **jo** zuen gizona. (EusCor)
- (1238) Hegazkina Gasteizera zihoalarik, putre bat jo [HARK] eta hegal bat galdu zuen, lekuko baten arabera. (EusCor)
- (1239) Atea jo genduan [GUK] da Santa Ageda aizkolariaren semea, Timoteo, atera zitzaigun. (EusCor)
- (1240) Egunsenti hotzean **jo** dugu kanal handiaren barrenaldea [GUK] eta Ong Chu eta Alberto gogotsu hasi dira tiraka. (EusCor)
- (1241) Igeriketaren azken besarkadaz ertza jo eta guganantz abiatu zen. [HURA] (EusCor)
- (1242) Mugitu, euskailu bat ostikoz **jo** [ZU?] eta tramankulu guztia hankaz gora jaurtitzeko beldur zinen orduan. (EusCor)
- (1243) Era berean, Kaledonia Berrian, gizon batek abar batez **joko** ditu emeki bere taro landareak, hori egitean hauxe esaten duelarik: (EusCor)
- (1244) Bapatean, Amona Sahatsa agertu zen zuhaitz-azalean eta Smithek ia behea jo zuen ikaratuta. (EusCor)
- (1245) Korrika, ilean soilune itsusiak zituen zaldi zahar mehe bat igaro zen, fruta-saskiz beteriko gurdi kankailu batetik tiraka, zarata handia eginez gurpilen metalezko bandak galtzadako harzolak jotzean. (EusCor)
- (1246) Hankak baloia jo du, kanka! (EusCor)
- (1247) Lau granadek jo zuten kuartela, eta lehertzean garrantzizko kalte materialak eragin zituzten. (EusCor)

- (1248) Eguzkiak gogor **jotzen** duen garaian gizaki eta animaliek biaoa (gaila deitzen dutena) egiten dute itzalean, bestela deshidratatu egingo liratekeelako. (EusCor)
- (1249) Zaparradak bata bestearen ondoren heltzen ziren, tarteka eguzkiak labur **jotzen** bazuen ere. (EusCor)
- (1250) Eta haizeak hortik **jo** duelako alde horretara mintzatu dira. (EusCor)
- (1251) Indarrez **jotzen** zuten uhinek eta nahikoa lan genuen gure buruak uraren gainetik edukitzearekin, apar zuri hura irentsi gabe. (EusCor)
- (1252) Gauetan, ilargirik gabeko izarratua zegoenean, itsaso txarretan olatuek bortizki **jotzen** zutelako, konpontzea alferrikako eginez, beti argirik gabe egoten zen uhinurrategi muturrera joaten ginen. (EusCor)

Ikus jo-DU-7ren zenbait adibide:

- (1253) ... iturria bazen, txorrota bederen, lizun zahar bat ... pareko atarian **joko** genuen, badaezpada ere (EusCor)
- (1254) Landerretzek kontatzen duen usadio baten arabera, inork etxeko atean **jotzen** duenean, atea ireki ordez, zein da hor? (EusCor)
- (1255) - Atean **jo** dute, etxekoandre. (EusCor)

Ikus jo-DIO-10en adibide bat:

- (1256) -Jarri zuen soka lepoaren inguruan eta ostiko bat **jo** zion aulkiari. [HARK] (EusCor)

Esan dugun bezala, *jo* aditzak balio honetan kolpe baten ondoriozko soinu ekoiztea adierazten da. Goian bezalaxe, horretarako bi osagai ageri zaizkigu normalean: jarduera burutzen duena eta kolpekatua den entitatea. Esan dugun bezala, balio honetan soinu-ekoizte balioak garrantzia galtzen du, eta ondorioz kolpekatzearen zentzua hartzen du. Hala, ekintza burutzen duen entitatea eta kolpekatua dena orotarikoak izan daitezke; bederen goikoak baino anitzagoak.

Jo-DU-5en **ABS** eta **ERG** entitateak orotarikoak izan daitezke: izaki biziduna —askotan gizakia—, izaki bizigabe konkretua, eta baita abstraktua ere. Jakina, ERG entitatea izaki bizigabe abstraktua denean, “kolpea” ere abstraktuki ulertu beharra dago ((1234): *harridurak*). ABS entitatea izaki bizigabe konkretua denean (gizakia denean ez bezala), ekintza ia beti “nahigabekoa” dela dirudi. Behin baino gehiagotan aipatu dugu, ordea, nahigabekotasun kontu hau orokortzea zaila dela.

Jo-DU-6 jo-DU-5en inespezifikazio orokortzat jo dugun arren, ez dago hain argi zer den inespezifikatzen den hori. Argi dago aurkitu ditugun adibideetan fenomeno naturalei egiten zaiela erreferentzia, eta jakina da horrelakoek fenomeno linguistiko konplexuak erakutsi ohi dituztela. Nolanahi ere, “kolpe”ren inespezifikaziotzat har daitezke, kolpe hori abstraktuki ulertuta, bederen. Ez dago zalantzarik kontu irristakorraren aurrean gaudela. Hemen gure asmo nagusia izan da goiko balioan ikusi dugun inespezifikazioaren eta honen artean bereiztea, hartan garbiago azal baitaiteke jakintzat ematen den elementu orokorra.

Jo-DU-7n alternantzia konatiboa dugu (L 1.3). Izatez, ABS entitatea bizigabea denean, leku eitea hartzen du nolabait, eta horrek INE hartzeko aukera ematen diola dirudi. Bestetik, ERG entitateak gizakia izan behar duela ematen du. Beraz, zehaztu behar dugu, balio hau, alde batetik, ERG entitatea gizakia den kasuetara, eta bestetik, ABS entitatea bizigabe konkretua den kasuetara mugatuta dagoela.

Erreparatu dezagun, hala ere, adibide askotan INE entitatea gorputz-atala dela:

(1257) Sabelean jo, barnezulo txikituetan gora joan, trakea atrofiatuan barrena behartu eta azkenean indar betean eta amplifikaturik irtengo zen eztarri hil hartatik. (EusCor)

(1258) Horregatik, gizon bat gaixorik dagoenean, lagunek batzuetan hostoez **jozen** dute buruko kalparrean, landarearen arima indartsuaz haren arima ahula indartzeko. (EusCor)

Gorputz-atal hau, berez, esplizituki agertzen ez den izaki bizidun bati dagokio, eta, orduan, azpi-azpian “norbait jo” dagoela ulertu behar dugu. Izatez, goiko adibide batzuetan izaki bizidun hori esplizituki ageri da INErekin batera:

(1235) laz Erregeen Kabalkatan zaldia bizkarrean jo ninduenetik [NI] burdinazko aulki honetatik jaiki ezinik nabil, eta ez nago oso ondo. (EusCor)

(1237) Orduan, amua airean bueltan etorri zen eta, zoritxarrez, burdin zorrotz hark begian jo zuen gizona.(EusCor)

Honenbestez, ez da Alternantzia konatiboarekin nahastu behar. Gogoratuko dugunez, alternantzian esan dugun bezala, INE entitatea, topea egiten duen entitate solido bat izan behar da.

Jo-DIO-10en, azkenik, kolpea adierazten duen hitza objektu gisa espezifikatzen da, eta orduan kolpekatua den entitatea DATen ageri da (gainontzean ez da onargarria Kasu hau). Horren ondorioz, *helburu* gisa ulertu beharra dagoela dirudi. Horrek iradokitzen du, beharbada, ikusitako DU balio guztietan ABS berez *helburua* dela, eta *gaia* ezkutatuta dagoela aditzean. Corpusean, ordea, adibide bakarra aurkitu dugu, eta, ezin esan daiteke jo aditzaren erabilera jatorrena denik. Izan ere, horrelakoetan eman aditza da naturalena (*ostikada eman*).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSEK** eta **SOZEK**, modua adierazten dute, eta askotan tresna edota bitartekoa da modu hori (aurkitu ditugun adibide guztietan, INS ageri zaigu: *makilaz, argi distirant batez, ostikoz, abar batez*). **ABLri** dagokionez, ERG entitatearen kokalekua adierazten du, baina ez da oso arrunta ((1250)).

Beraz, esango dugu *jo* balio honetan kolpekatze-jarduera bat adierazten duela, osagai nagusi bezala ekintza burutzen duen entitatea —*esperimentatzailatzat* hartu duguna— eta kolpekatua den entitatea —*gaia/helburua* gisa ikus daitekeena— dituela. Balio hau ikusitako ditugun *bssetan* gauza daiteke.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jo-DU-5: esperimentatzailea_ERG; gaia/helburua?_ABS

jo-DU-6: esperimentatzailea_ERG;

jo-DU-7: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia/helburua? [+konkr]_INE

jo-DIO-10: esperimentatzailea_ERG; gaia [kolpe]_ABS; gaia/helburua?_DAT

Esan behar da, halere, badirela kasu batzuk markatutako bi balio semantikoei dagozkienak. Izan ere, badirudi *helburua* kolpekatzea eta doinuren bat ekoiztea adierazi nahi dela. Adib.:

- (1259) "Toberak" saioetara joateko, dei gisa, "zirtzilak" deitutako pertsonaia batzuek (Zuberoako Maskaradetako Bohamien antzekoak), eltzegorra **jotzen** zuten inguru osoan. (EusCor)
- (1260) Abeltzainek "Dula" delako horretan, atera behar zituzten herriko abereak biltzeko ere adarren orde zebait tokitan halako tresnak **jotzen** zituzten. (EusCor)
- (1261) Ituren-Zubietako Zarpantzar konpartaren zuzendariak, sistima honetako pita duen adar bat **jotzen** du, taldearen koreografia aldatetaz zuzentzeko. (EusCor)
- (1262) Baigorriko gure informatzaileak esan zigunez, garai batean mendian ere, zaldiak izutzeko eltzegorra **jotzen** omen zuten. (EusCor)

jo-DU-8

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ALA, ABL

Kasu onartugabeak: ABS, ELA_KONP, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Zenbait adibide:

- (1263) Gehienetan, baina, hurbileko situazioen bat deskribatzen duen zeinura **jo** dut. [NIK] (EusCor)
- (1264) Beraz, estatuak hezkuntz sistemara **jo** zuen irlandezaz mintzo zirenen kopurua handitzeko asmoz. (EusCor)
- (1265) Hasieran New York-era **jo** zuen [HARK] baina negozioak ez zitzaizkion uste bezain ongi gauzatu. (EusCor)
- (1266) Dena den, jauzi kronologiko bat eginez, **jo** dezagun 1970. urtera [GUK], biek kobratu behar zuten jubilazio pentsioa zela eta, agiria sinatzerakoan sortu zen gatazka koxkorra ikusteko. (EusCor)
- (1267) Leku-aldaketa bakoitzean batzuek alde batera **jotzen** dute eta besteek beste batera, familia gehiago ere etortzen dira eta, horregatik, kanpamendu berria lehengoarekiko zerbait desberdina izaten da. (EusCor)
- (1268) Halaz guztiz ere, lagun batzuk oso gora **jo** zuten ikaslan hartan. (EusCor)

- (1269) Ikasketa hauek jarri zuten ingelesaren arrastoan hasi zituenean, eta 1993ko udan **jo** zuen Nevadara [HARK], Estatu Batuetara, lehenengoz. (EusCor)
- (1270) Errata edo zalantzarako irakurketa zegoen guztietan eskuizkribura jo dugu [GUK] eta bertako irakurketari, noski, lehenetasuna eman diogu, oharrean aldaketaren kontu emanez (esk. (EusCor)
- (1271) Iruñeko udaletxeko hemerrotekara jo dut [NIK] (EusCor)
- (1272) Handik hil arteko egunetan, era bateko eta besteko botikak hartuarren, gero eta okerragora joko zuen haren osasunak. (EusCor)
- (1273) Arteari helburu erlijiosoa ukatzean, honek gizartera jo eta helburu "mundutarrak" bilatu beste erremediorik ez du. (EusCor)
- (1274) Adrianengana jo nuen. [NIK] (EusCor)
- (1275) Eskuak aurpegiaren parean jarri nituen doministiku egin behar banu bezala eta aurrera jo nuen adiskideekin [NIK], beste denda bateko leihoaren kristalean, izututa, bekokian beste bikor bat nuela ikusi nuen arte, aurrekoaren anaia bizkia bigarren hori. (EusCor)
- (1276) Autoak eskuinera jotzen du. (EusCor)
- (1277) Aro biren artean diren desberdintasunak ikusi nahian **jo** dugu bide horretatik. [GUK] (EusCor)
- (1278) Hala eta guztiz, materia hitzarekin zer esan nahi dugun ulertzen hasteko beste bide batetik joko dugu. [GUK] (EusCor)
- (1279) Bide horretatik joko dute Europar joeraren oinordekoek: (EusCor)
- (1280) Negar egiten zuen, etsiturik, banandu egin ziren ..., nork bere bidetik jo zuten (EusCor)
- (1281) Euskal Herriko ahozko tradizioa eta Europako tradizio idatzia elkarrizketan jartzea du helburuiaz sortutako kolezio honek, eta oraingoan ere bide horretatik jo du Lertxundik. (EusCor)
- (1282) -Guk hortik jo dugu, bide horretatik. (EusCor)
- (1283) Edota anekdota solte batetik betiko lekura jotzekoa.

Balio honetan, esan dugun bezala, entitate baten kokapen-aldaketa adierazten da, eta horretarako desplazatzen den *gai ukitua* —**ER**Gez gauzatua—, *abiapuntu*ko kokapena / *bidea* —**ABL**z gauzatua— eta *helburuko kokapena* —**ALA**z gauzatua— dira azpikategorizatzen diren osagaiak. Desplazamendu hau askotan abstraktua da, *helburuko kokapena* edo *abiapuntu*ko kokapena ere abstraktuak direlako; abstraktutasun honen barruan, zenbaitetan egoera ere adierazten dute, gunean den izenaren arabera. Aditz honetan, desplazatzen den gaia Kasu **ER**Gez gauzatzen da, eta ez dago **ABS**rik.

ERG entitatea orotarikoa da: askotan gizakia edo gizaki talde baten ordeko entitatea da; bestetan gizakiak sortutako makinaria baten bidez bere baitako funtzionamendua duen entitatea. Eta, azkenik zer abstraktu bat ere izan daiteke, baina beti ere izaki bizidun bati dagokion ezaugarriren bat dela ematen du ((1272): *haren osasunak*).

Ikus daitekeenez, adibide gehienetan ALA bakarrik edo ABL bakarrik ageri da gai desplazatuaz gain. ABLrekin agertu zaizkigun adibide gehienetan, ERG entitatea gizakia da, eta ABLk *bidea* adierazten du; hain zuzen ere, adibide ia gehienetan *bide* hitza da ageri dena ABLren gunean. Bestetik, nahiz eta ALA ez agertu, beti *aurrera* moduko zerbait ulertutzat ematen dela dirudi. Hala onartuz gero, osagai lokatiboen inespezifikazio jakina ere aurreikusit

beharko genuke (eta ez bakarrik *gai* osagaiarena). Momentuz, erabilera hauek *bss* berean (eta ez aparteko batean) sartu ditugu.

Gainontzekorakoan, **IN**Sek eta **SO**Zek modua adierazten dute, eta **SO**Zen kasuan konpainia da askotan ((1275): *adiskideekin*). **IN**Eri dagokionez, ez da askotan agertzen, entitate baten desplazamendua adierazten denez, gertakizunaren kokagunea adieraztea ez baita oso arrunta.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jo-DU-8: *gai* ukitua_ERG; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

jo-DU-9

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Zenbait adibide:

(1284) Euskaldun ala Frantses **jo**zen duzu *zure burua*? [ZUK] (EusCor)

(1285) Eta *bai* tripako mina eta *bai* begi ezkelak, *sorginen trikimailuen ondorio* **jo**zen dituzte Alemanian eta beste leku batzuetan [HAIEK]. (EusCor)

(1286) Askotan esan izan didate txikitan eguzkia hartu izanari egotzi behar niola, *indartsuegi* **jo**zen baitzuen, *niri gertatutakoa* [HARK]. (EusCor)

(1287) Jean Marc Bosman jokalaria, bestalde, futbol europarraren oinarri juridikoaren kontra bost urteko auzia irabazi duenak, *Europar Batasuneko Justizi Auzitegiak* *ilegal* **jo** dituen *arau deportiboen* kontra bat egiteko eskatu die jokalariei. (EusCor)

Ezaugarri-esleitze balio honetan, ekintza burutzen duen *abiapuntua* —**ER**Gez gauzatua—, ezaugarria esleitzen zaion *helburua* —**ABS**z gauzatua— eta *ezaugarria* —hau ere **ABS**z gauzatua— ditugu osagai azpikategorizatu bezala.


ERG entitatea beti gizaki bat da —edo giza talde bat ordezkatzeko duen entitate bat ((1287))—; ABS entitatea, berriz, orotarikoa izan daiteke.

Gainontzean, **IN**E, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioak adieraziko lituzkete, nahiz eta ez diren oso arruntak.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jo-DU-9: abiapuntua [+giz]_ERG; helburua_ABS; ezaugarria_ABS

- Datu estatistikoek, ERGen eta ABSren ostean, ALAk ere nahiko maiztasuna duela erakusten digute. Dena den, aztergai ez ditugun bestelako Kasuak dira maiztasun handienekoak; izan ere, balio predikatiboa duen Kasu prolatiboak, seguruenez, maiztasun handia du.



DA	8,40%	DA-ins	1,90%	DA-ala	17,45%	DA-abl	7,66%	DA-abs	100,00%	DA-komp	4,48%	DA-soz	5,37%	DA-ine	16,44%				
DU	90,28%	DU-ins	3,14%	DU-ala	14,74%	DU-abl	2,83%	DU-abs	46,73%	DU-komp	7,22%	DU-soz	1,60%	DU-ine	11,74%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,32%	DIO-ins	0,49%	DIO-ala	3,09%	DIO-abl	0,35%	DIO-abs	76,42%	DIO-komp	8,27%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,42%	DIO-ine	25,14%	DIO-erg	100,00%

7 DA eta ZAIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak

7.1 Bi *bss* dituztenak

Aditz bakarra dugu sail honetan, eta ageri dituen *bssak* alternantzia dira elkarren artean. Beraz, sail honetan A multzoa dugu bakarrik.

A multzoa: *bssak* elkarren artean alternantzia

mintzatu

mintzatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ, INS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, ABL

mintzatu-ZAIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ERG, DAT, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Ikus bi *bssen* zenbait adibide:

- (1288) PSOEren jarreraz ere **mintzatu** zen Egibar, eta "zenbait mugimendu sumatzen direla" azpimarratu zuen. (EG)
- (1289) "Gozatu egin dut aizkoran", garaipenaren pozarekin **mintzatu** zen Nazabal amaieran: (EG)
- (1290) Ibarretxe lehendakariarekin, batez ere, Arabaz eta egoera orokorrak **mintzatu** zen Arabako ahaldu nagusia. (EG)
- (1291) Aktoreek eszenak entsegatzen zituzten bitartean, egunkariarekin **mintzatu** zen Alkorta. (EG)
- (1292) Visoki Decain monasterioko kide da Sava Janjic, gurekin **mintzatu** den ordezkaria. (EG)
- (1293) Adierazpen horien ostean **mintzatu** zen Zabilia gaur Legebiltzarrean aztertuko den gaiak: (EG)
- (1294) Epaiketa amaitzear zela, Madrilen izandako nazioarteko ikuskatzaileak **mintzatu** ziren auziaz, eta akusazioek inolako oinarri juridikorik ez zutela azpimarratu zuten guztiek. (EG)
- (1295) PSOEtik berdin **mintzatu** zen Rafael Estrella diputatua. (EG)
- (1296) Luze **mintzatu** zaizkigu politikaz, gerraz, bake prozesuaz. [HAIEK] [GURI] (EusCor)
- (1297) Neskak lan kontuez **mintzatu** zitzaizkidan [NIRI]. (EusCor)
- (1298) Ene afrikar laguna elefanteaz **mintzatzen** zaidanean [NIRI] ene gogoia eskola egunetara doa. (EusCor)
- (1299) Peruren ama euskaldun berria izanik, euskara estandarrez **mintzatzen** zaio semeari. (EusCor)
- (1300) Honela **mintzatzen** zitzaion bere aurretik zihoan lehoia [HARI]: (EusCor)

Aditz honek adierazpenezko jarduera bat adierazten du. Horretarako ekintza burutzen duen entitatea, adierazpena hori nori/zeri dagokion adierazten duen osagaia, eta ekintza zuzentzen zaion osagaia dira beharrezko. Ohar bedi, aditz honetan, *helburua* osagai azpikategorizatutzat jo dugula (beste batzuetan, esaterako, *esanen*, ez dugu halaxe egin). Izan

ere, markatu dugun alternantzia elementu hau sartzen da jokoan; eta horrek, Levinen ildoari jarraituz, aditzaren argumentu edo beharrezko osagai izatea iradokitzen du²⁹. Alternantzia batean helburua **SOZ**ez gauzatzen da, eta bestean **DAT**ez. Ekintza burutzen duena, berriz, **ABS**z; eta hirugarren osagaia **INS**ez.

Adierazpenena ekoizten duena eta honen *helburua* beti gizakiak dira. Hala ez direnean, erabilera hedatu baten aurrean gaudela esan daiteke, gizaki ez izate hori izanik hedatutzat jotzeko arrazoia ((1300)). Hirugarren osagaia, berriz, ez da berez ekoizten den mintzoa, baizik eta mintzo hau zein entitateri dagokion zehazten du. Balio hauxe bera ikusi dugu *entzun*, *ikusi*, *irakurri*, *ulertu* eta *esan* aditzetan. Haietan, ordea, ekoizten dena objektu modura gauza daiteke. *Mintzatu* aditzean, dirudenez, “mintzoa” txertatuta dago lexikoki, eta orduan aukera hau ezinezkoa da. Guk, ordea, orokortzearen, *mintzaturen* kasuan INS hau ere *gaitzat* hartuko dugu, guztiz zuzena ez dela jakin arren.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**k, **SOZ**ek (*helburua* ez denean, jakina) eta **IN**Sek beren ohiko balioak onar ditzakete. **IN**Sek modua adierazten duenean, ekintza burutzen duen osagaia bakarrik ageri da esaldian askotan. **ABL**k, azkenik, **ABS** entitatearen kokalpena adierazten duela esan daiteke ((1295)).

Beraz, esango dugu *mintzaturik adierazpenezko elkarraldatzea* adierazten duela, osagai nagusi gisa *abiapuntua*, *gaia* eta *helburua* dituela. Osagai hauek, aztertutako bi *bssez* gauza daitezke.


Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

mintzatu-DA-1: abiapuntua [+giz]_ABS; gaia_INS; helburua [+giz]_SOZ

mintzatu-ZAIO-2: abiapuntua [+giz]_ABS; gaia_INS; helburua [+giz]_DAT

- Datu estatistikoek **INS**en presentzia nabarmena agerian jartzen dute; **DAT**ek eta **SOZ**ek, berriz, ez dute maiztasun handiegirik. Ikusten dugun bezala, *mintzatu-DA-1* *bssa* da erabiliena.

²⁹ Egia da, *helburuaren* inespezifikazioaren ildotik ere argumentu gisa justifika litekeela arazorik gabe; hain zuzen objektu absolutibo eta subjektu ergatiboarekin egiten den bezalaxe. Hori egingo bagenu, ordea, *helburuaren* bi zilegizko gauzapean ezingo genituzke adierazi.



DA	90,13%	DA-ins	34,85%	DA-ala	0,91%	DA-abl	3,65%	DA-abs	100,00%	DA-komp	0,86%	DA-soz	7,15%	DA-ine	33,94%
DU	3,43%	DU-ins	45,63%	DU-abs	25,66%	DU-komp	0,38%	DU-soz	17,11%	DU-ine	11,22%	DU-erg	100,00%		
ZAIO	6,44%	ZAIO-ins	28,25%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	0,46%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	5,65%	ZAIO-ine	25,23%		

7.2 Bi *bss* baino gehiago dituztenak

Atal honetan bi aditz dauzkagu:

etorri (5), joan (4)

Aditz hauen *bssetan* alternantziak eta balio semantiko desberdinak ditugu; alegia, orotariko *bssak*. Beraz, sail honetan bakarrik B multzoa dugu.

B multzoa: orotariko *bssak* dituztenak

etorri (5), joan (4)

Etorri

*Etorri*ri bost *bss* markatu dizkiogu. Ordea, lau dira aparteko balio semantikoak. Bost horietako bi *bssek*, beraz, alternantzia bat osatzen dute.

etorri-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, DAT

Azalpena

Ikus ditzagun lehendabizi ondoko adibideak:

- (1301) Itsasuntziak itsasotik lehorra etortzean, porturatu egiten dira, hau da, portura datoz. (EusCor)
- (1302) Euskal Herritik hona etorri ziren euskaldun haiek —esan dezagun duela bi belaunaldi— artzain moduan hasi, baina negozio-jende arrakastatsuak bilakatu dira gaur egun ". (EusCor)
- (1303) Eta handik, Tibetetik, mezu batekin etorri da gure Euskal Herri honetara. (EusCor)
- (1304) Texasetik etorri da astebete pasa lagunen etxera, baina jadanik ez dabil lagunekin, samoarrarekin baizik. (EusCor)
- (1305) Ni atzo presaka etorri nintzen menditik. (EusCor)
- (1306) 1930. urtean Iruñera [HURA] etorri zelarik hasi zen Zeruko Argian lanok argitaratzen. (EusCor)
- (1307) Eta [HURA] etorri zen bidetik abiatu zen atzera. (EusCor)
- (1308) Jon Goikoetxeak Euskera aldizkarian kontatzen duenez, sendagile bizkaitar bat etorri omen zen behin Gipuzkoako herri industrial batera, eta Charles Dickens-en nobeletako egoera gogorarazi zioten, antza, han ikusitako eri-itxurako hurrek: (EusCor)
- (1309) Eta zergatik ez zatoz Talgoan? [ZU] (EusCor)
- (1310) -Mikel, aspaldiko laguna, etorriko balitzait [NIRI], ezagutu egingo nuke. (EusCor)
- (1311) Egun batean bi emakume etorri zitzaizkion [HARI] elkarren artean zeukaten auzian epaile izateko eskatuz. (EusCor)
- (1312) Gero, handik egun batzuetara, Joxe etorri zitzaidan etxera. [NIRI] (EusCor)
- (1313) Soldaduzkatik etorri zenetik, goizero-goizero, tronpeta joka hasten duk zazpitan. (EusCor)
- (1314) Baina gerratik maingu etorri gero [HURA], non eroriko zitzaizkion emakume haiek guztiak? (EusCor)
- (1315) Abadinotik Urolaldeko erromerietara, dultzainero oso on eta ospetsu bat, etortzen omen zen, bere emazte, seme eta alabarekin. (EusCor)
- (1316) Orduan airetik esku bat etorri zen eta urrezko txarrantxa kendu egin zion. (EusCor)
- (1317) Erakundeak egoitza ugari izan ditzakeen arren, horietako batetik dator gutuna halaberharrez, eta horixe jartzen da. (EusCor)
- (1318) Gorriak ikusten hasita, hara non hasten zareten entzuten urrundik datorren trumoi-hotsa. (EusCor)
- (1319) Sabaitik eskegitako bonbila biluzitik zettorren argi ziztrin eta motelak hormapaper urratu eta bipildua erakutsi zion. (EusCor)
- (1320) Halako batean ordea, sekulako zarata etorri zen atetik. (EusCor)

(1321) Gainera, aurikularretatik **zetorkion** flautaren doinu grabeak areagotu egiten zion nagitasuna. (EusCor)

(1322) Ekialdeko muturretik **etorriko** zaigu lehen notizia. (EusCor)

(1323) Guri SOS deiatik **etortzen** zaizkigu abisuak. (EusCor)

Balio honetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten da. Horretarako, entitate desplazatua —**ABSz** gauzatua—, *abiapuntuko kokapena / bidea* —**ABLz** gauzatua— eta *helburuko kokapena* —**ALAz** osatua— dira beharrezko elementuak.

Adibideetan ikus dezakegunez, ABS entitatea orotarikoa izan daiteke: askotan izaki biziduna da ((1302-1315)); mekanismo jakin bati esker mugitzen den entitate bat ere izan daiteke ((1301)); izaki bizigabe konkretua ((1316), (1317)), nahiz eta gizakien ezaugarriekin eta zereginekin zerikusia duten entitateak izan; eta baita izaki bizigabe abstraktua ere, normalean zentzumenezko ekoizpenekin (soinua, argia...) zerikusirik dutenak ((1320-1323)).

ABL eta ALA entitateak, normalean, leku fisikoak izaten dira, baina badira jarduera moduko izen abstraktuak, zeintzuek bi gauzak, jarduera eta jarduera hori egiten den lekua, adierazten duten batera, azken batean ((1313), 1314)).

Goiko ia adibide guztietan ALA edo ABL ageri dira, baina badira batzuk ez dutenak ez bata ez bestea:

(1309) Eta zergatik ez **zatoz** Talgoan? [ZU] (EusCor)

(1310) -Mikel, aspaldiko laguna, **etorriko** balitzait [NIRI], ezagutu egingo nuke. (EusCor)

(1311) Egun batean bi emakume **etorri** zitzaizkion [HARI] elkarren artean zeukaten auzian epaile izateko eskatuz. (EusCor)

Edo beste hauek ere:

(1324) Medikuak **etorri** ziren baina alferrik; (EusCor)

(1325) -**Etorri** bazarete, nahi izan duzuelako izan da. (EusCor)

(1326) **Etorri** nintzen; (EusCor)

Horrelakoetan badirudi ALArik agertu ez arren, *helburuko kokapena* ulertutzat ematen dela. Vázquez et al.-ek (2000) *ir* eta *venir* aditzak amaiera-puntua lexikoki fokalizatzen duten aditzen artean sartzen dituzte, eta beren arrazoiketari jarraituz, lexikoki elementu bat fokalizatzen duten aditzek, elementu fokalizatu horri dagokion entitatea sintaktikoki gauzatzen ez dutenean, bestelako mekanismoak jartzen dira martxan informazio hori berreskuratzeko: elipsia eta testuinguru pragmatikoa; alegia, inespezifikazioa ez diren mekanismoak. Hona euren hitzak:

Cuando un verbo puede expresar sintagmáticamente diferentes subcomponentes de la trayectoria, hay restricciones sobre cuál de ellos puede infraespecificarse [...]. Inicialmente parece que el verbo *venir*, al contrario que *carretear*, admite todas las posibilidades de omisión. Ahora bien, si analizamos con detalle los ejemplos, observamos que, aunque en las oraciones

257c [*Claudia ha venido del gimnasio caminando*] y 257d [*Claudia ha venido caminando*] no se expresa el destino del recorrido, éste tiene un referente asociado. Según esto, para los verbos que focalizan el punto final de la trayectoria, como *venir*, la inexpressión de este subcomponente no se corresponde con una infraespecificación, sino que se trata de una omisión por elipsis (v. Ap. 5.1.2).

En el caso del verbo *venir* la elipsis es de tipo deíctico, ya que el referente del elemento omitido se corresponde con el lugar donde se encuentra el emisor en el momento de la enunciación.

Vázquez et al. 2000: 193-194

Beraz, aditz honen kasuan, *ekarri*ekin ikusi dugun bezalaxe, elipsi deiktikoa gertatzen dela dirudi. Hots, *helburuko kokapen* hori hiztuna dagoen lekua dela suposatzen da (Jo bedi *ekarri* aditzera fenomeno honen inguruko xehetasunak gogoratzeko: 102. or.). Izatez, badira *hona* sintaktikoki ageri duten adibideak ((1302)).

Hala ere, aipatu behar dira adibide batzuk, non ALAren bidez ez den *helburuko kokapena* adierazten:

- (1327) Hogeita hamaikagarren poema bete-betean **badator** ere elorriz gainerako sinboloen ikuskera honetara —sinbolizazio anitzen artean elorriarenari ere bai baitagokio—, halaz ere, jadanik sail horretan aurkeztua baitugu, ez diogu hemen beste begiraturik emango. (EusCor)
- (1328) Poemari bukaera emateko, berriz pagoen irudira **dator** olerkiaren amaieran. [HURA] (EusCor)
- (1329) Eta bertsolaritzaren kasura **etorritz** behintzat [GU], azterketa honetan zehar argi eta garbi ikusi ahal izan dugu oso heterogenoa dela. (EusCor)
- (1330) Edo sexualitatearen arlora etorritz [GU], nahi ez diren haurdunaldien arriskuak eta GIBaz sexu bidez kutsatzeko arriskuak eragozteko honakoa egingo genuke: (EusCor)
- (1331) Eta hasierara **gatoz** berriro. [GU] (EusCor)
- (1332) **Gatozen** harira ordea. [GU] (EusCor)
- (1333) Garbitu eta tratatu ondoren bere onera ez **badator** [HURA], inguruko beste landareak kutsatu baino lehen, landarea desegin eta erretzea hobea da. (EusCor)
- (1334) Sistema politiko jakin batzuk **etorri** dira behera, esan dezake norbaitek, ez komunismoaren ideia. (EusCor)

Horrelakoetan, gainera, ABLk ezinezkoa dirudi. Hala ere, oso kasu bakanak eta anitzak dira (alegia, ALAk ez du kasu guztietan balio bera). Gogora dezagun *ekarri* aditzean, gure irudiz egoera berri moduko bat adierazten dela beti (horrexegatik orokortu dugu *bss* gisa). Hala, *Etorri*ekin egiten direnak gehiago daude Hitz Anitzeko Unitate Lexikalen mugetan, balio orokor bat osatzen baino³⁰.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek, **IN**EK eta **SO**Zek beren ohiko balioak izan ditzakete.

³⁰ Esan behar da hauetako askok sarrera dutela hiztegietan (*Euskal Hiztegian*, esaterako), hala nola, *harira etorri*, *norbere onera etorri*. Gainera, ez datoz *etorri*ren azpian, baizik eta ALAren guneko izenaren edo adberbioaren azpian.

Eta **DAT**ek, dagoeneko hainbat desplazamenduzko aditzetan esana dugunez, ALA entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten duela dirudi, harekin batera azaltzen denean esaldian. Eta jabetza ez bada ALA entitatearekikoa, ABS entitatearekikoa dela dirudi. Nolanahi ere, ez dugu alternantzia gisa planteatu, dagoeneko esan dugun bezalaxe, bi osagaiak batera agertu ahal izateaz gain, bien artean nolabaiteko harremana dagoela iruditzen zaigulako (Jo bedi berriz ere *eraman* aditzera honen ingurukoak gogoratzeko (85 or.).

Beraz, esango dugu aditz honetan entitate baten desplazamendua adierazten dela, osagai nagusi bezala, desplazatzen den *gai ukitua, abiapuntuko kokapena / bidea* eta *helburuko kokapena* dituela, ABSz, ABLz eta ALAz gauzatuak, hurrenez hurren. Horretaz gain, *hona* deiktikoa bere baitakoa du.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

etorri-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ala

etorri-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

etorri-ZAIO-5

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, ALA

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko adibideak:

(1335) Konponbidea Nazio Curriculumuma ezartzearen bidetik **etorri** zen lehenik; (EusCor)

(1336) Oro har, iturri zaharra grekoa denean, amaierako -o gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez **datorrenean**. (EusCor)

(1337) Horrela, harrijasotzea, idi probak eta gizon probak harginen (harriaren langileen) lanetik **datoz**. (EusCor)

(1338) Hortik **dator**, hain zuzen ere, izena. (EusCor)

(1339) Hitz hori Matxin (Martin) hitzetik **dator**, hau da, olagizonen zaindariaren izenetik. (EusCor)

(1340) Tajinearen osagaiak haragia edo arraina eta barazkiak dira eta izena, prestatzeko erabiltzen den ontzitik **datorkio**. (EusCor)

- (1341) Zain edo erro berberetik datozela guztiak somatzen da, nahiz eta gero bakoitzaren bilakaera ezberdina izan eta batetik bestera ezberdintasunak sortzen joan. (EusCor)
- (1342) Hau idazten duena ebaluazioaren mundutik dator, eta era berean gogorarazten dizue gezur haundiak eta estatistikak esistitzen direla. (EusCor)
- (1343) Baina une horretan bertan inspirazioa etorri zaio [HARI] eta paper bat atereaz, notak idazten hasi da. (EusCor)
- (1344) Beherakoaz dagoena ere larri dago, ea kakagura [HARI] etorriko zaion zaparradaren erdian. (EusCor)
- (1345) Oso nagi eta desgogotuta sentitzen zen, korбата gorridunarekin izandako lehiaren nekea bapatean etorri izan balitzaio bezala [HARI], eta besoa luzatzea ere lan astuna iruditzen zitzaion. (EusCor)
- (1346) Hitza etorri zitzaion. [HARI] (EusCor)
- (1347) Horrelako idazlana egiteko ideia bestela etorri zitzaion Lertxundiri, dena den. (EusCor)
- (1348) -Hilekoa etorri [HARI] zaionetik handi-uste galantarekin dabil! (EusCor)

Bigarren balio semantikotzat jo dugun honetan, gure ustez sortze-prozesu bat adierazten da. Beharbada planteia zitekeen desplazamendu abstratu gisa, baina hori gehiegi orokortzea iruditzeaz gain, balio honetan ALAk agertzeko dituen mugak direla eta, goiko baliotik urruntzen dela uste dugu. Horretaz gain, aditzaren denbora gehienetan puntukaria dela ikusten dugu, nolabait denbora zehatzetik kanpo dagoen gertakizun bat adierazten den seinale.

Beraz, balio semantiko honetan *iturri* bat eta *gai sortu* bat ikusten ditugu. Etorri-DA-2n *iturria* ABLk adierazten du, eta etorri-ZAIO-5en DATEk; *gai sortua*, berriz, ABSz gauzatzen da bietan. Desberdintasuna, dirudienez, *iturri* hau biziduna edo bizigabea izatean datza: DATen gunea biziduna da eta ABLrena gehienetan abstraktua, edo horrela ulertu behar da.

Agertzen diren gaiak ere ez dira edonolakoak. Goiko balioarekin parekatuz, etorri-DA-2n beti entitate abstraktuak ditugu ABSren gunean. Eta berez abstraktua ez denean, zentzu abstraktuan ulertu behar da; hau da, erreferente zehatzik ez duen entitate bat bezala.

Etorri-ZAIO-5en, berriz, gorputz-prozesuak edo giza pentsamenduarekin zerikusia duten zer abstraktuak izan ohi dira; DAT entitate gizakiak nahi gabe edo naturaz sortzen dituenak, azken batean.

Esan dugun bezala, ALAren presentzia oso mugatua da; izan ere, gunean gizakiaren gorputz-atal bat adierazten duenean agertzen da bakarrik:

- (1349) -David ..., gogoratzen nola etorri zitzaizkigun hitzak ezpainetara: [GURI] (EusCor)
- (1350) Tarteka, Gabrielengan pentsatzen ari zela, Richard etortzen zitzaion gogora —haren ahotsa, haren hantsa, haren besoak— oinaze izugarriez; (EusCor)
- (1351) Seguraski ideia pila bat etorriko zaizkizu burura, baina guztiak nahasian, sailkatu gabe. (EusCor)

Hala ere, horrelako kasuak goiko balioekin nahasgarri gertatzen dira, ABS entitatearen izaeraren arabera.

Esan behar da, *burura* eta *gogoradun* adibide ugari topatu ditugula, eta fenomeno honek, Hitz Anitzeko Unitate Lexikalak izateko bidean jartzen dituela neurri handi batean:

- (1352) Zurezko zutoinez eginak dira eta horren harian euskaldunek eta indiarrek dituzten dantza zirkularrak **datozkigu gogora**. (EusCor)
- (1353) Eta orduan, behin Bartzelonako denda batean erositako posterra **etortzen** zait gogora, edo etxean banago, hari begira jartzen naiz. (EusCor)
- (1354) Eta bart entzundako plastikozko piloten hotsak **etorri** zaizkit gogora. (EusCor)
- (1355) ZIRT-ZART EGITEKOTAN nagoen honetan, nire osaba zenaren silueta lausoa **datorkit gogora**. (EusCor)
- (1356) Behin baino gehiagotan egon zen esateko, era hartan makinaren olio hotzarekin lehortu eta erlojua hondatzeko arriskua zegoela, eta halakoetan, eskuetatik kentzeko gogoaren kontra borrokatzen zelarik, esfera zuri hartan gauzaturiko orduen oroitzapena amesgaiztoek ohi duten zehaztasunez **zetorkion gogora**. (EusCor)
- (1357) Burura **datozkit** poemok itzultzen topatu ditudan aditz bi. (EusCor)
- (1358) Laguntza hauekin sinbolismoa erraz **datorkio burura** edonori: (EusCor)
- (1359) Seguraski ideia pila bat **etorriko** zaizkizu burura, baina guztiak nahasian, sailkatu gabe. (EusCor)
- (1360) Feliperi bazkal osteko zorioneko bataila **etorri** zitzaion burura eta atera begira hasi zen. (EusCor)

Adibide hauetan ikus daitekeenez, ABS entitatea batzuetan ez da abstraktua (*posterra*, adib.), baina horrelakoa izanik ere, gizakiak sorturiko irudizko ideia gisa (alegia, ez entitate fisiko gisa) ulertu beharra dago; hain zuzen horixe da *gogora* edo *burura* horiek adierazten dutena. Bestalde, euren unitate anitzeko izaera are gehiago berretsiz, mendeko perpausak ere onar ditzaketela ikusten dugu. Eta *etorrik* normalean ez du mendeko hori erakusten. Horretaz gain, ABL ere ez da onargarria. Adib:

- (1361) Julian kontea, noski, aita maitekorra izakita, ez bide zitzaion **gogora etorri** ere, egiazko erruduna, bere alaba izan zitekeanik.

Fenomeno hau aipatu dugu VI.1 puntuan, aditzen hautapenerako irizpideakaipatu ditugunean Han, zehazki, *gogora ekarri* aipatu dugu, baina *burura/gogora etorri*ekin ere berbera gertatzen dela ikusi dugu.

Etorri-ZAIO-5en **ABL** agertzen denean, *iturria* ez den beste zerbait adierazten du: sortze-prozesu horretan jokoan izan den bitartekaria edo kausa. Ikus adibideak:

- (1362) Lehenengo inpresioak, halere, usaimenetik **etorri** zitzaizkidan. [NIRI] (EusCor)
- (1363) Peruri elebitasun izatea jaiotzetik izan duen neska-zaintzaletik **datorkio**, berau gaztelaniadun hutsa baita. (EusCor)
- (1364) Ez dakit nondik **datorkidan** [HURA]. (EusCor)

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSek** eta **SOZek** beren ohiko balioak adieraz ditzakete; **INSek** eta **SOZek**, kausa eiteko zerbait ere adieraz dezakete.

Hala ere, badira **ABLrik** eta **DATik** gabeko adibideak:

- (1365) Ez da erraza, eskakizun hori ez baita ezinbestean bete beharrekoa eta, beraz, emaitzak oso poliki **etor** baitaitezke. (EusCor)
- (1366) Udako oporrak **zetozen**. (EusCor)
- (1367) Erantzunak berehala **datoz**. (EusCor)
- (1368) Berehala **datoz** musikalak, eta hauek iduriaren eta soinuaren sinkronizazioaren erabateko garaipena ezarriko dute. (EusCor)
- (1369) Mendizabalen txanda **etorri** zen eta honek igo zuen listoia gora. (EusCor)
- (1370) Gero **etorriko** dira irratiak, telebistak edo beste aldizkari batzuk. (EusCor)
- (1371) Eta horrela **etorri** da beste mito bat: (EusCor)

Adibide hauetan, denborazko elementu bat ageri da askotan. Kasuotan, badirudi, entitatearen sortzea bera dela azpimarratu nahi dena, zein iturritik datorren axola gabe. Hala ere, kasu hauek ere **etorri-DA-1** baliokotzat jo zitezkeen, *iturria* izan beharrean axola ez duena, *kausa* hipotetikoa litzatekeela. Izatez, **ABS** entitatea abstraktua denean sortzen dira zalantza hauek.

Beraz, esango dugu *etorrik bss* hauetan sortze-prozesu bat adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala *iturria* eta *gai sortua* dituela; aztertutako *bssez* gauzatua.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

etorri-DA-2: gai sortua [-konkr]_ABS; iturria [-biz]_ABL

etorri-ZAIO-5: gai sortua [-biz]_ABS; iturria [+biz]_DAT

etorri-DA-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko adibideak:

- (1372) Sinbolizatu hori, berriz, laugarren ahapaldian dator bete-betean: (EusCor)
- (1373) 2. Aurreko apartatuko g), h) eta i) letretan zerrenda batean datozen kreditu hedagarriak, hasieran aurrikusitako gain eskubide gehiago aitortzearen arabera finantzatu ahal izango dira, kreditu gehikuntzako erregimenaren bitartez. (EusCor)

- (1374) 1. Hurrengo orrialdean datorren Euskal Herriko mendien mapa horretan identifika eta koka itzazu mendiak, mendilerroak etab. (EusCor)
- (1375) Bigarren liburu honetan badatoz, gainera, aurrekoaren zuzenketak. (EusCor)
- (1376) Mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992) izenekoan, Orotarik sailean, 19. zenbakian, dakartza Saiakerazko lanak, beste gaiok ere bertan datozelarik: (EusCor)
- (1377) -Txartelean, erabiltzeko oharrak eta diagrama moduko bat datoz. (EusCor)
- (1378) Meza-Liburuan 734. orrialdean dator meza hori. (EusCor)
- (1379) Airearen kutsadurari buruzko informazioa datorkizu jarduera honetan. (EusCor)

Hartu-DU-2, jaso-DU-3, eraman-DU-2 eta ekarri-DU-3n ikusi dugun bezalaxe, hirugarren *bss* honetan *etorri* aditzak edutezko zentzu bat hartzen du. Balio honetan ez dira onartzen ez ABL, ez ALA, ez DAT. Aldiz, INE nabarmendu egiten da ABS entitatearen kokapen zehatza adieraziz.

INEk, orduan, *edukitzaile* gisa jokatzeko du, eta aditz honen kasuan beti da entitate bizigabe bat. ABSk, berriz, *eduki* gisa jokatzeko du eta hau ere izaki bizigabe bat da.

INE entitatea paperezko euskarriren bat izan ohi da, hain zuzen, ABS entitatea bere baitan duen edukierazko euskarria.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INSek eta SOZek euren ohiko balioak adieraziko lituzketela dirudi, nahiz eta ez oso arruntak izan.

Beraz, esango dugu, *etorri-DA-3k* entitate bat edukitzea adierazten duela, parte-hartzaile nagusi bezala ABSz gauzatzen den *edukia* eta INEz gauzatzen den *edukitzailea* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

etorri-DA-3: edukia [-biz]_ABS; edukitzailea [-biz]_INE

etorri-DA-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, INE, INS, SOZ

Kasu onartuak: DAT

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko adibideak (ez ditugu asko aurkitu, hala ere):

- (1380) Jose Inazio mutiko bizkor bihurri eta ekimen handikoa zettorren. (EusCor)
- (1381) Honen osagarri etorri zen geroagoko "XXX". (EusCor)
- (1382) -Amerika handi etorri zaio, ezta? (EusCor)

Balio honetan entitate baten izaerari buruzko deskribapena egiten da. Horretarako, entitatea —**ABSz** gauzatua— eta honi buruz predikatzen duen osagai bat —hau ere **ABSz** gauzatua— ageri dira osagai azpikategorizatu gisa.

Elementu predikatibo hau, ordea, ez dirudi edonolakoa izan daitekeenik. Izan ere, lehenengo balioan ere posible da elementu predikatiborik agertzea ABS entitatearen lagun gisa, baina hartan (beste zenbait aditzekin jada atera zaigun bezala), iraupen jakin bat duten ezaugarriak aditzera ematen direla dirudi. Hemen, berriz, esango genuke, denborari loturik ez dauden berezko ezaugarriei egiten zaiela erreferentzia. Dena dela, honelako baieztapenak egiteko, adibide gehiagoren aurrean sakondu beharra dago.


Gainontzeko Kasuei dagokienez, **DAT** bakarrik ager daitekeela dirudi; eta badirudi ekintzaren *helburua* adierazten duela. Hots, erlazio predikatibo hori nori dagokion adierazten du.

Beraz esango dugu *bss* honetan entitate baten deskribapena egiten dela, parte-hartzaile nagusi gisa ABSz gauzatzen den *gaia* eta ABSz gauzatzen den *ezaugarria* dituela.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

etorri-DA-4: gaia_ABS; ezaugarria_ABS

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute ABSren ostean ALA eta batez ere ABL direla maiztasunik handienekoak. Ondorengoa INE da:



DA	87,17%	DA-ins	4,00%	DA-ala	12,92%	DA-abl	23,38%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,37%	DA-soz	5,64%	DA-ine	12,91%				
DU	4,68%	DU-ins	0,35%	DU-ala	19,35%	DU-abl	26,50%	DU-abs	61,95%	DU-komp	0,71%	DU-soz	1,42%	DU-ine	6,01%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,90%	DIO-ins	22,22%	DIO-ala	32,60%	DIO-abl	9,52%	DIO-abs	29,15%	DIO-komp	0,69%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,39%	DIO-ine	27,76%	DIO-erg	100,00%
ZAI0	7,24%	ZAI0-ins	0,39%	ZAI0-ala	15,10%	ZAI0-abl	12,19%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-komp	3,48%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-soz	1,55%	ZAI0-ine	10,84%		

Joani lau *bss* markatu dizkiogu. Hiru dira aparteko balio semantikoak. Bi *bssk*, beraz, alternantzia osatzen dute euren artean.

joan-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

joan-ZAIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Ikus ditzagun lehendabizi ondoko adibideak:

Joan-DA-1:

- (1383) Hoteletik deitu digutenean berehala **joan** naiz [NI] hara eta gela egoera penagarrian ikusi dut... (EusCor)
- (1384) Kurt Altdorfer, "La gargote"tik irten ondoren, oinez eta azkar ibiliz, ia korrika, ospitalera **joan** zen. (EusCor)
- (1385) Orduan, kabinatik irten eta kalera **joan** naiz [NI]. (EusCor)
- (1386) Aitzurlariarengana berariaz **joan** zen [HURA] eta galde hau egin zion: (EusCor)
- (1387) "**Hoa** apaizarengana [HI]". (EusCor)
- (1388) Urnieta herritik, Adarra mendiaren magalean den Xoxotera **joan** ginen autoz [GU]. (EusCor)
- (1389) Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldetik **joaten** da jendea Gipuzkoako sagardotegietara. (EusCor)
- (1390) Greziatik Belgikara untzi bat **joan** zen bi zama artoaz beteta. (EusCor)
- (1391) Jojo batarengandik bestegana **doa**, baina guztiek uko egiten diote sinatzeari. (EusCor)
- (1392) Bilbotik Donostira **joan** naiz hegazkinez. [NI] (EusCor)
- (1393) Ez goaz hemendik, eta kito! [GU] (EusCor)
- (1394) Hortik **joan** da. [HURA] (EusCor)
- (1395) Hau gertatu dadin, biriketako albeoloen aireztapena handitu egiten da, eta aldi berean, proportzionalki giharretara **doan** odol fluxua ere bai. (EusCor)
- (1396) Esan dugunez B-E zuzenki polarizatua dagoenez (V), elektroiak Emisoretik Basera **doaz**, baina Basean hutsune gutxiago dagoenez (txikiagoa da eta gutxiago dopaturik dago) elektro asko

soberan geratzen dira, eta kolektorera konektaturiko pilaren polo positiboak erakartzen ditu, gehienak kolektorerraino heltzen direlarik. (EusCor)

(1397) Zorionez, komisariaren begirada mostradorera zihoan, aurrera eta ez alboetara. (EusCor)

(1398) Ez, gure ahaleginak bide apalagotik joan nahiko luke. (EusCor)

(1399) Mezua geldi egon eta diskurtsoa aurrera doanean deitzen zaio hitz jario bati ezprogresibo, aurrerapenik bakoa. (EusCor)

(1400) Bi hitzetan esateko, katalana nora doan jakiteko, gizarte-zientziak; (EusCor)

(1401) Ene afrikar laguna elefanteaz mintzatzen zaidanean ene gogoa eskola egunetara doa. (EusCor)

(1402) -(Arantxari) Denbora aurrera doa. (EusCor)

(1403) Madrilera joan zen [HURA] familiarekin. (EusCor)

(1404) (...) gainetik joaten nintzela erratza batean Biana eta Logroñoko akelarreetara edota Oca-ko mendietara. [NI] (EusCor)

(1405) -Mmuso, nora joan zara [ZU] nire semearekin? (EusCor)

(1406) Era berean, poza ematen zion gizarteko beste taldeetako lankideek aholkua eta laguntza eskatzen ziotenean batez ere zuriak joaten zitzaizkionean [HARI]. (EusCor)

(1407) Gainera joan zitzaion Pilon [HARI], baina Big Joe oso gizon handia zen, eta bere burua astintzea besterik ez zuen lortu. (EusCor)

(1408) Hala, pub-eko elkarrizketa berri zuen bere baitan, eta kopien gelakoa, gutunarekin [HURA] [HARI] joan zitzaionekoa, eta kopien gelako bigarrena, An-en erantzuna jakin zuenekoa. (EusCor)

Joan-ZAIO-2:

(1409) Joan zitzaion pentsamendua [HARI], eta orduan, etxeko txirrina jo eta kanpoko atean ikus zezanean, zer-nolako harrera egingo zion asmatzera jarri zen. (EusCor)

(1410) Lilak maratila bihurtu zuen, eta atea eskuetatik joan zitzaion [HARI]. (EusCor)

Balio honetan entitate baten desplazamendua adierazten da. Horretarako, entitate desplazatua, *helburuko kokapena* eta *abiapuntuko kokapena* / *bidea* adierazten duten osagaiak ditu osagai azpikategorizatu gisa. Bi *bssetan*, entitate desplazatua **ABSz** gauzatzen da, eta *helburuko kokapena* **ALAZ**. *Abiapuntuko kokapena*, berriz, joan-DA-1en **ABLz** gauzatzen da, eta joan-ZAIO-2n, **DATez**; eta diferentzia bakarra hauetan *abiapuntua* biziduna —eta ia gehienetan gizakia— dela da. Joan-ZAIO-2 *bssan* ABL ere zilegi da, baina beti adierazten du izaki bizidun horri dagokion parte bat, entitatea zehazki gorputzeko zein partetatik desplazatzen den esaten duena ((1410)). Entitate desplazatua abstraktua denean ((1409)), parte hau ez da ageri ohi, beti berbera (*burmuina*, *burua*) dela suposatzen delako, seguruenez.

Ikusten dugun bezala, joan-DA-1en ere DAT zilegi da ((1406-1408)), baina desplazamenduzko beste aditz batzuetan dagoeneko esan dugunari jarraituz, honakoetan bi helburu mota daudela dirudi, beraien artean jabetzazko harremana adierazten dela. Eta hala ez bada —edo horrekin batera— DAT entitatearen kokapena ere adierazten du, entitate desplazatuaren *helburuko kokapenez* gain. Horregatik, ALA agertzen ez denean, DATek

dirudi helburu bakarria (fenomeno hauek gogoratzeko, jo bedi *eraman* aditzera: 85. or.). Esan behar da, hala ere, ALA ager daitekeela gunea gizakia denean ere, *-gana* “gizakientzako” adlatiboa baitugu euskaraz. Horrelakoetan, orduan, ALA hau da fisikoa ez den bigarren kokapen mota hori; eta DATekin batera agertzen denean (adibide asmatu bat: *haurra medikuarengana joan zitzaien, kontsultara*), ABS eta DAT entitateen artean jabetza-harremana da bakar-bakarrik adierazi nahi dena. Helburu fisikoa, berriz, ez da ageri ohi. Guk, ordea, ez dugu gizakientzako adlatiboa eta bestea formalki bereizten; beraz, oro har, *helburuko kokapena* adierazten duen elementu gisa joko dugu ALA.

Adibideetan ikus dezakegunez, ABS entitatea orotarikoa izan daiteke joan-DA-1 *bssan*: ia gehienetan izaki bizidun —askotan gizakia— da. Batzuetan, mekanismo jakin bati esker berezko mugimendua duen entitatetzat jotzen den zerbait ((1390): *untzi*). Beste batzuetan berezko bizia duten izakiak dira, askotan giza gorputzarekin loturiko prozesu naturaletan parte hartzen dutenak ((1395): *odol fluxua*; (1396): *elektroiak*). Izaki abstraktuak ere badira ((1397-1402)). Halakoak direnean, ALA eta ABL entitateak murrizagoak dira. Esaterako, gune abstraktu honek iraupenezko prozesu bati erreferentzia egiten dionean ((1399): *diskurtsoa*; (1402): *denbora*), *helburuko kokapen* hori ere askotan denborazkoa da (*aurrera*). Joan-ZAIO-2n, berriz, badirudi ABS entitatea izaki bizigabe bat izan behar dela. Izan ere, biziduna denean, joan-DA-1en aurrean gaudela dirudi, DAT horrek besterik gabe ABS entitatearekiko harremana adierazten duelarik. *Abiapuntuko kokapena* eta jabetzako harremana jokoan diren *bssen* kasuistika, hala ere, kontu irristakorra da, eta askotan desberdintasuna markatzea beharrezkoa den zalantza ere sorrazten du.

Nahiz eta ALA eta ABL Kasu azpikategorizatuak izan, badira, horiek gabeko adibideak:

- (1411) **Joango** zela, noski ... [HURA] (EusCor)
- (1412) -Bazekien ni **joango** nintzela. (EusCor)
- (1413) Haritschelhar eta J.L. Lizundia **joan** dira. (EusCor)
- (1414) "Ez zaitez **joan**". (EusCor)
- (1415) Banekien bion arteko azken agurra zela hura, biharamun goizean familia osoa Bilbora **zihoan**-eta. (EusCor)
- (1416) Nire agindutara hago, eta hi ere **joan** egingo haiz! (EusCor)

Kasu hauetan, badirudi *helburuko kokapena*, behintzat, testuinguruan agertu dela, nonbait, eta ulertutzat eman behar dela. Esaterako, (1405) eta (1406) adibideak corpusean elkarren segidan zeudela kontuan izanda ("*Ez zaitez joan*". *Banekien bion arteko azken agurra zela hura, biharamun goizean familia osoa Bilbora zihoan-eta.*), lehenengo perpausoko *Ez zaitez joan* horretan seguruenez *Bilbora* ulertu beharko genuke.

Goiko *etorri*n esan duguna errepikatu behar dugu hemen. Alegia, *joan* aditzak amaiera-puntua lexikoki fokalizatuta duela (ikus berriz ere 277-278. orrietan Vázquez et al-en zita).

Hemen diferentzia da amaiera-puntu horren berreskuratzea ez litzatekeela elipsi deiktikoaren bidez egingo, baizik eta esaldiko testuinguaren bidez.

Hala ere, autore hauek diotenarekin oro har ados bagaude ere, ondorengo adibideetan uste dugu amaiera-puntu hori ere inespezifikatuta agertzen dela. Horren ondorioz, ematen du hemen beste balio semantiko moduko bat ('alde egin' edo 'zerbait utzi'-ren pareko zerbait) hartzen duela aditzak:

- (1417) -Zergatik bueltatu zara Orioko Arraun Taldera? JOSE LUIS KORTA .-Ni ez nintzen nere kabuz **joan**, bidali egin ninduten. (EusCor)
- (1418) Hala ere, **joan** nintzenean bezala orain ere lagunak eta etsaiak ditut, baina lehenak ugariagoak direla uste dut eta hori pozgarria da. (EusCor)
- (1419) Herriko jendea **joan** ondoren, lamia artzainaren hilobira joan zen eta bost egun igaro zituen artzainaren hilobiaren ondoan negar eta negar. (EusCor)
- (1420) "Ama ... une batez hitz egingo bazenu berarekin, ezer ez dakizula esango bazenio ... berehala **joango** litzateke". [HURA] (EusCor)
- (1421) "Ni **joaten** naizenean, neba, hobe duzu dardaraka hasi, ez bainaiz isilik joango". (EusCor)
- (1422) Halaere, geratzen garenean ez gara apur bat **joaten** [GU]? (EusCor)
- (1423) Eta [GU] **joaten** garenean ez gara geratu egiten? (EusCor)
- (1424) Bere kanoan **zihoan** indio bat ahate bihurtu zen; (EusCor)
- (1425) -Abiadura handiz [HURA] **doala** kontura gaitezen, zer egin du marrazkilariak? (EusCor)
- (1426) Euskal Herriko neskarik hoberenetakoak monja **zihoazen** ugari (orduan hala gertatzen zen, lehenago ere hemen esan dugun moduan. (EusCor)

Beraz, inespezifikazio-espezifikazio fenomeno hauek sakonki aztertu beharrekoak dira.

Bestalde, azpimarragarria iruditzen zaigu ABS entitate batzuekin aditz honek hartzen duen balioa. Ikus ondoko adibideak:

- (1427) Miloitik Oletara **doan** bide zabaletik, Armiña kobazulora orduko, begira ezazu ekialderantz eta hantxe, aurrez aurre, bi haitz-mokor zuriren erdian ikus daiteke Atxuriarte baserria, bi haitz zuriren artean dagoelako horrela deitua. (EusCor)
- (1428) Urdailetik irteerara **doan** zentimetroko hodia. (EusCor)
- (1429) Espezie hau ertaina da, bere txapelak 7 cm-ko diametroa izan dezake, koniko-kanpanulatua da, bere azala lehorra eta matea, kolore hori-laranjatua, dititik ertzera **doazen** kolore gorrikkako zuntzexka erradialez osatua. (EusCor)
- (1430) Dorre honetatik kontrolatzen ziren Llanteno eta Gordexolako ibarretatik Zuhatza eta Okondoko ibarretara **zihoazen** bideak. (EusCor)
- (1431) Hodiak etxeen fatxadetatik **joan** beharko dira.
- (1432) Kasu honetan subjektuek adierazi behar zuten batetik zazpira **zihoan** eskala batetan zer mailataraino zeuden erlazonaturik emozio hauek bakearekin: (EusCor)

Adibide hauetan nolabait zeharkaldi estatiko bat egiten duen izaki konkretu bat agertzen zaigu: *bide, hodi, zuntz, eskala*. Horrelakoetan, orduan, ez da mugimenduzko desplazamendu bat adierazten, baizik eta entitate bizigabe batek ibilbide jakin batean duen kokapena.

Batzuetan ibilbide estatiko hau abstraktuki ulertu behar da, ABS entitatea bera abstraktua delako (*eskala*). Horrelakoetan, badirudi ohikoena zeharkaldi hori mugatzen duten hasierako eta bukaerako puntuak agertzea dela ((1427-1430), (1432)). Ez badira hauek agertzen, *bidea* adierazten duen ABL bakarrik agertzea da arruntena ((1431)). Nolanahi ere, azpimarratzekoa da ABLk *abiapuntuko kokapena* adierazten duenean, beti agertu behar dela *helburuko kokapena*, edo alderantziz. Horretaz gain, ikus daitekeenez, aditzaren denbora puntukaria da gehienetan, aipatzen den fenomeno bat beti horrela dela eta denboratik kanpo dagoela adieraziz. Aditzak hartzen duen balio hau, hortaz, ABS entitatearen izaeraren baitan dago, eta desplazamendua adierazten deneko egitura berean adierazten da. Horregatik ez dugu *bss* gisa orokortu.

ALA entitatea, bestetik, leku fisiko bat izan beharrean jarduera bat izan daiteke. Horrelakoetan, orduan, bi gauza adierazten dira aldi berean, baina beti ere kokapenak duela garrantzia: jarduera jakin bat egiten den lekua. Hau gertatzen denean, normalean ALA bakarrik agertzen da esaldian (hau da, ABL ez da ageri ohi), eta jakina, desplazatzen den entitatea beti gizakia da. Hala ere, batzuetan jarduerazko helburu hau eta fisikoa batera ager daitezke. Ikus zenbait adibide:

- (1433) Ohiko egun arrunta zenez, don Jenaroren klase partikularra [NI] **joan** behar izan nuen beti bezala. (EusCor)
- (1434) -Bertso-saiotara [HAIEK] **joaten** direnean bertsoak entzunez gozatzeko, ongi pasatzeko izaten da, lagunarte giro berezian denean batez ere. (EusCor)
- (1435) Enkargutara doala [HURA] eta ea lagunduko diodan. (EusCor)
- (1436) 1. Goizero bakarrik esnatzen nintzen eta lanera joaten nintzen. [NI] (EusCor)
- (1437) Iluntzen zuenean, Norato, bere narrasti-larrua ibai ondoan utzita, herrisketako jaietara joaten zen. [HURA] (EusCor)
- (1438) Basurdetara joan ginen [GU], baina egun guztian alerik ikusi ez, eta etxera huts-hutsik ez bueltatzearren (EusCor)
- (1439) Etxe askotan omen zeuden antzina, eta bertatik irteten ziren sorginak, sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik, beren akelarretara joateko. [HAIEK] (EusCor)
- (1440) Iritsi zen urtearen bukaera, eta Pulanek denboraldi baterako aurkitu zuen lana etxe batean, oporretara joan zen lagun baten ordezkoko gisa. (EusCor)
- (1441) -Horrela jarraitu, Domingo, eta hik uste baino lehenago hasiko haiz berriro ahuntzetara joaten [HI]— eransten du Veronicak behialako denborak gogoraraziz —. (EusCor)
- (1442) Harremanak etxeak lotzen zituenenez, eta etxeak jendea hil eta kanpora lanera [HAIEK] **joaten** direlako gero eta gehiago husten direnez, 'lehen auzoen' erakundea kinka larrian da. (EusCor)
- (1443) Paulista zen, Sao Paulokoa, alegia, eta Rondoniara egun batzuetarako lanera [HURA] **joanda** zegoen, bere aseguru-bankuak bidalita. (EusCor)

Beste batzuetan, *etorri* aditzean ikusi dugunaren pareko, ALAk ez du *helburuko kokapena* adierazten, baizik eta egoera berri moduko bat, ABS entitatearen neurriarekin zerikusia duena gehienetan. Han genioen bezalaxe, horrelakoetan, ABLk ezinezkoa dirudi. Hala ere,

kasu bakanak dira eta gehiago daude Hitz Anitzeko Unitate lexikalen mugetan, balio orokor bat osatzen baino gehiago:

- (1444) Bestalde, osasun-adituen artean izugarritzko indarra hartzen ari da osasun-ohitura "ezkorrak" gora doazelako iritzia; (EusCor)
- (1445) Manausi buruz nituen azken berrien arabera, hiria gainbehera zihoan eta gero eta arriskutsuagoa zen bertako kaleetan ibiltzea. (EusCor)
- (1446) Hala esaten zidan aurreko zerrenda horretan azkena ageri den Mariaren alabarik gazteenak, Anttoni Silvanak, laroegi urtetara doala [HURA]: (EusCor)
- (1447) Urrutira iritsi zinen, izar ahaltsuenen artean ditziratu zenuen, gora joan zinen [ZU], eta bizitzako instant krudelenetan erori egin zara, kolpeka lortu zenuena kolpez amaitu da. (EusCor)
- (1448) Baina saiatu zaren bakoitzean ziurraski arazo berberarekin topo egingo zenuen, hau da, bizitza erdia —hitz egiteko modua baino ez da— deskribatu eta zerbait kontatzen pasatu beharrean zuzen-zuzenean harira joatea gustatuko litzaizuke. (EusCor)

Bukatzeko, gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**, **INS** eta **SOZ** beren ohiko balioetan ager daitezke (INS: (1386), (1388), (1392); SOZ: (1405), (1408); INE: (1424)). Esan behar da, INE ageri denean, ez dela ez ALA ez ABL ageri ohi, izatez ABS entitatearen behin behineko-kokapena (desplazamendu bitartean duena) adierazten duelako; baina ager daitezke aldi berean. SOZek, bestalde, adieraz ditzakeen modu guztien artetik “konpainiazkoa” da gehienetan aditzera ematen duena.

Argi dagoena da, ALA eta ABS entitateen izaerak zerikusi handia dutela guk hemen markatu ditugun bi *bssak* bereizteko.

Honenbestez, esango dugu *joan* aditzak *bss* hauetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela, horretarako parte-hartzaile nagusi bezala, *gai ukitua* —ABSz gauzatua—, *helburuko kokapena*—ALAz gauzatua— eta *abiapuntuko kokapena* edo *bidea* dituela. *Abiapuntuko kokapena* ABLz nahiz DATez gauza daiteke, ikusitako bi *bssen* arabera.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

joan-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

joan-ZAIO-2: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena [+biz]_DAT; helburuko kokapena_ALA

joan-ZAIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Ikus ditzagun lehendabizi ondoko adibideak:

- (1449) Antzinako suak eta garrak joan zaizkio [HARI], baina asko gustatzen zaizkio eguraldi ilunetan Bizkaiko Itsasoak hartzen duen kolore berdineko emaztearen begi berdeak. (EusCor)
- (1450) **Joan** zitzaion lotsa Piratari. (EusCor)
- (1451) Bolada batez hitz egiteko gogoa ere **joan** zitzaidan. (EusCor)
- (1452) Berez epaitegietako gela berezi bat da, eta mozkorraldia [ZURI?] **joan** arte edukitzen zaituzte bertan, gero aske utziz. (EusCor)
- (1453) Handik lasterrera, jaitsi zen olagizon handiki hori igonda zegoen mahaitik eta bere ola martxan botateko, antaparako uhatea zabaldu zuen ur-indarra joan zekion olari. (EusCor)

Balio honetan ez dago leku-aldaketarik; hemen entitate baten desagertzea, agortzea adierazten da. Desagertzen den entitate hori norbaiti/zerbaiti dagokion ezaugarri edo uneko egoera izan ohi da. Horretarako, entitate hori adierazten duen **ABS** eta entitate horren jabe den **DAT** ageri dira Kasu azpikategorizatu bezala. Balio honetan, hortaz, ezinezkoak dira *helburuko kokapena* eta *abiapuntu*ko *kokapena* adierazten duten osagaiak. Horregatik jarri dugu ALA onartzen ez diren kasuen artean. **ABL**, berriz, onargarria da, beti ere DAT entitatearen parte den zerbait adieraziz; alegia, agertuz gero, DATen pareko edutezko balioa izango du.

Adibideetan ikus dezakegunez, DAT entitatea askotan gizakia da, eta ABS entitatea, ezaugarria edo egoera adierazten duen aldetik, izaki abstraktu bat da.

Horrelakoak, joan-ZAIO-2n ikusitako kasuekiko anbiguo suertatzen dira, haietan ez denean ez ALArik ez ABLrik agertzen esaldian. Izan ere, testuan agertu ez baina suposatutzat eman behar den ALA baden ala ez, testuinguruak berak esaten digu. Ekar dezagun hango adibide bat hona:

- (1409) **Joan** zitzaion pentsemendua [HARI], eta orduan, etxeko txirrina jo eta kanpoko atean ikus zezanean, zer-nolako harrera egingo zion asmatzera jarri zen. (EusCor)

Adibide honetan, badakigu testuinguruaren arabera, pentsemendua ez dela “desagertu” baizik eta nonbaitera joan dela. Baina hori testuinguruagatik dakigu, eta baita seguruenez, pragmatikoki badakigulako “pentsemendua ez dela desagertzen”, normalean. Beraz, argi dago horrelakoetan testuinguruaren eta, seguruenez, ezagutza pragmatikoaren beharren gaudela.

Hala ere, badira kasuak non ez den elementu DATik agertzen. Adib.:

(1454) Bai baitaki amodio oro joan doala; (EusCor)

(1455) Noizbait ernetu ziren suharrak lanbro artean **badoaz**, nola goiza, hala arrats sentimenak nahas-nahas, esentziaren beharraz. (EusCor)

Adibide hauek, ordea, ez dugu uste arruntenak direnik, eta gizaki bat agertzen ez bada ere, azpian gizaki bati dagokiola suposatutzat ematen dela dirudi. Hau da, nolabait inperpersonal moduko batzuen aurrean gaudela dirudi.

Hala ere, ABSk denborari erreferentzia egiten dionean, DATik gabeko egitura arrunta da. Ikus adibideak:

(1456) Egun hura joan zen betirako. (EusCor)

(1457) -Nola **joaten** den denbora! (EusCor)

(1458) -Bai, denbora haizea bezala **joaten** da eta zahartu egiten gara- erantzun zion Pippik. (EusCor)

(1459) Goiz erdia joaten [ZURI] zaizu joan behar duzun lekuraino iristeko". (EusCor)

(1460) Egunak guk nahi baino azkarrago **zihoazkigun**. [GURI] (EusCor)

(1461) Batzuetan negarrez besteetan kantari honelaxe **joan** zaio urtea gure etxeko niniari. (EusCor)

Denbora ere, nolabait, gizakiari dagokion ezaugarritzat har genezake, eta DAT agetzen denean horixe bera da aditzera ematen dena. Hortaz, inperpersonalari buruz esandakoa ere balizkoa izan daiteke oro har.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **SOZek** eta **INSek** beren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi, eta azken hauek kausa eiteko balioa ere ager dezaketela esan daiteke.

Beraz, esango dugu balio honetan entitate baten ezaugarri-agortzea, desagertzea adierazten dela; horretarako ezaugarri hori galtzen duen osagai *edukitzailea* —DATez gauzatua— eta ezaugarri hori adierazten duen *edukia* —ABSz gauzatua— ditu parte-hartzaile nagusi gisa.

Bessaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

joan-ZAIO-3: edukitzailea_DAT; edukia [-biz, -konkr]_ABS

joan-ZAIO-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus ditzagun lehendabizi ondoko adibideak:

(1462) f) Diputatuaren Kontseiluak, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren proposamenez, eta [HAI] doakien Foru Departamentu edo Erakunde Autonomoaren ekimenez, kapitulu honetan aurrikusitako kreditu transferentziak egiteko baimena eman ahal izango du, hauek onartzea beste organoren bati esleitu izan ez zaionean. (EusCor)

(1463) Azkeneko honetan gehienetan, jaialdiari doakion seilu bat jarri bezala egiten dute. (EusCor)

(1464) Gainerako zigor-espedienteak egokitzen jotako ikerketek eta frogez hornituko dira, ofizioz edo [HARI] doakionaren eskariz. (EusCor)

Bss honetan, **ABS DAT** entitateari esleitzen zaion nolabaiteko ezaugarria da. Ezaugarri honek ez dio erreferentziarik egiten inongo egoerari (joan-ZAIO-3ren aldean), eta orotarikoa izan daiteke, DAT bezalaxe. Horretaz gain, aditzak beti denbora puntukaria du. Adibide gutxi aurkitu ditugu, hala ere.

Ezaugarri-esleitzeetan, normalena izaten da ezaugarria esleitzen duen entitatea beharrezkoa izatea. Aditz honetan argi dago ez dela horrela; horregatik DAT *helburu* bezala edo *gai* bezala hartu behar den zalantza sortzen zaigu.


Balio honetan gainontzeko Kasuek ez dirudi leku handirik dutenik. **INEk**, **INSek**, eta **SOZek**, seguruenez, beren ohiko balioak adieraz ditzakete.

Beraz, esan daiteke entitate bati ezaugarri bat esleitzea bat adierazten dela *bss* honetan, parte-hartzaile nagusi bezala ezaugarria esleitzen zaion *gaia* (*helburua?*), eta *ezaugarria* bera dituela; Kasu DATEz eta ABSz gauzatuak, hurrenez hurren.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

joan-ZAIO-4: gaia (helburua?)_DAT; ezaugarria_ABS

- Datu estatistikoek agerian jartzen dute ALAk duen indarra. ABL, berriz, ez da askotan agertzen. *Eraman* aditzean esan dugunaren antzera, horrek etorkizunean gure markaketa-sistema egokitzea beharrezkoa izan daitekeela iradokitzen digu, ez baitirudi zilegi ABL eta ALA maila berean jartzea.



DA	89,78%	DA-ins	2,04%	DA-ala	28,23%	DA-abl	5,46%	DA-abs	100,00%	DA-konp	5,89%	DA-soz	2,96%	DA-ine	10,05%				
DU	7,37%	DU-ins	2,10%	DU-ala	37,28%	DU-abl	14,99%	DU-abs	20,84%	DU-konp	9,08%	DU-soz	3,13%	DU-ine	6,96%	DU-erg	100,00%		
DIO	0,72%	DIO-ins	0,33%	DIO-ala	36,98%	DIO-abl	10,03%	DIO-abs	50,40%	DIO-konp	29,85%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,47%	DIO-ine	3,26%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	2,13%	ZAIO-ins	0,43%	ZAIO-ala	21,91%	ZAIO-abl	5,22%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	3,86%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,61%	ZAIO-ine	8,31%		

8 DA, DU eta ZAIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak

Bi dira sail honetan jarri ditugun aditzak:

ahaztu (4) elkartu (5)

Ahaztu aditzak dituen *bss* guztiak alternantzia dira elkarren artean. Aldiz, *elkarturen* kasuan bi balio semantiko adierazten dira, eta horretan hiru *bss* dira elkarren artean alternantzia.

Ikus dezagun, bada, lehendabizi *ahaztu* aditza A multzoan eta *elkartu* B multzoan.

A multzoa: *bss* guztiak elkarren artean alternantzia

ahaztu (4)

ahaztu

ahaztu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, SOZ

ahaztu-ZAIO-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

ahaztu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ERG eta ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

ahaztu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartugabeak: ABS, ERG, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus ditzagun lehendabizi ondoko adibideak:

- (1465) Izan ere, beste askotan bezala, giroaren beroa itzali orduko **ahaztu** baikinen denak haietaz. (EG)
- (1466) Ilustratzaileez beti **ahaztu** egiten gara [GU]. (EG)
- (1467) Binaka egotea, irrati bat izateko eskubidea, irakurtzeko eskubidea, hilean behin etxera deitzeko eskubidea ... baina berehala **ahaztu** zitzaien [HAIEI] [HURA]. (EG)
- (1468) Autoan utzi eta hantxe **ahaztu** egin zitzaigun hainbat egunez [GURI] [HURA], eta nik eraman behar izan nion Jorgeri Zarauzko bere etxerea, Oteizak soinean duen Londresetik ekarritako bufanda, Bergarenean egindako solasaldia, ... Estudiotik ondoko gelara eraman gaitu Ana Mari Marinek; (EG)
- (1469) "[GURI] **Ahaztu** egiten zaigun gauza hori zen liburu honen printzipioa, hiritar bernizaren azpian badirela animalia batzuk. (EG)
- (1470) Hilzorian, [HARI] inoiz **ahaztu** ez zaion lana bete zuen: (EG)
- (1471) Nekez **ahaztuko** dituzte askok egun haiek. (EusCor)
- (1472) Zuek badakizue nik beti zintzo jokatu dudala eta gure lurralde hauetan zuei lehiakide indartsu bat irten zaizuen arren —Olentzerori nagokio, noski— nik ez ditut haurtzaroko lagunak ahaztu. (EusCor)
- (1473) Lorpenarekin batera, estuasiun dezente ahaztuko du Oiarzabalek. (EG)
- (1474) "Udan egonda ere, [GUK] senitartekoak ez ditugula **ahazten** jakinarazi nahi dugu", adierazi du Senideak elkarteak. (EG)
- (1475) [GUK] Ez dezagun **ahaztu** Rodolfo Martin Villa Endesako lehendakaria dela, BBVren altxorra Iberdrola dela, eta interes ekonomiko eta politikoak oso nahastuta (EG)

(1476) [ZU/ZUEK] "Ez **ahaztu**", esan zuen, "izan direlako garela eta garelako izango direla". (EG)

(1477) [GUK] Ezin dugu **ahaztu** turismoan egindako inbertsioek industrian baino lanpostu gehiago sortzen dutela". (EG)

(1478) EAJk dio ez duela [HARK] **ahaztuko** ELA ez dela Kontzertuaren aldeko ekitaldian izan. (EG)

Aditz honek zerbaiten oroimena galdu ondoren horri dagokion erreakziozko jarduera adierazten du. Horretarako, *esperimentatzaile* bat eta oroimenetik desgertzen den *gaia* ditu parte-hartzaile nagusi. Jarri ditugun *bss* bakoitzean bi osagai horiek modu desberdinetan gauzatzen dira: ekintza esperimentatzen duena **ABSz** gauzatzen da ahaztu-DA-1en; **DATez** ahaztu-ZAIO-2n; eta **ERGez** ahaztu-DU-3 eta ahaztu-DU-4n. *Gaia* **INSez** gauzatzen da ahaztu-DA-1en, **ABSz** ahaztu-ZAIO-2 eta ahaztu-DU-3n, eta **ELA_KONPez** ahaztu-DU-4n.

Esperimentatzailea beti da gizakia aditz honetan. Ahazten den osagaia, berriz, orotarikoa da. Ahaztu-DA-1en aurkitu ditugun adibideetan beti da gizakia ahazten den entitatea; ahaztu-ZAIO-2n, berriz, alderantziz: izaki bizigabeak bakarrik agertu zaizkigu. Ahaztu-DU-3n orotarikoak daude; eta ahaztu-DU-4n, jakina, ahazten dena gertakizun bat da, eta, beraz, zer abstraktu bat.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **SOZek** eta **INSek** (azkeneko honek objektu eiteko balioa ez duenenan, jakina) beren ohiko balioak izan ditzaketela dirudi. Modua, batzuetan, kausa eitekoa da. INE agertzea normalagoa da entitate ahaztua izaki bizigabe konkretu bat denean, hain zuzen honen kokapen zehatza adieraziz (adibide asmatua: *liburua etxean ahaztu dut*).

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:


ahaztu-DA-1: esperimentatzailea [+giz]_ABS; gaia [+giz?]_INS

ahaztu-ZAIO-2: esperimentatzailea [+giz]_DAT; gaia [-biz?]_ABS

ahaztu-DU-2: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ABS

ahaztu-DU-3: esperimentatzailea [+giz]_ERG; gaia_ELA_KONP

- Datu estatistikoek erakusten digutenez, ahaztu-DU-3 eta ahaztu-DU-4 moduko *bssak* dira maiztasun handienekoak, ERG, ABS eta ELA_KONP direlako maiztasun handienekoak. Ez oso logikoki, DA laguntzaileak nahiko maiztasuna duela ikusten dugu. Hori gerta daiteke balioen bat ez dugulako gure laginean aurkitu; edo bestela, gure analizatzaile automatikoek errorea sartzen dutelako.



DA	30,05%	DA-ins	2,40%	DA-abs	100,00%	DA-konp	16,48%	DA-ine	7,52%				
DU	64,68%	DU-ins	3,48%	DU-abl	2,38%	DU-abs	62,01%	DU-konp	19,09%	DU-ine	10,61%	DU-erg	100,00%
ZAI0	5,28%	ZAI0-abs	100,00%	ZAI0-konp	22,10%	ZAI0-dat	100,00%	ZAI0-ins	16,63%	ZAI0-ine	2,05%		

B multzoa: orotariko bssak dituztenak

elkartu (5)

elkartu

Aditz honek parekotasun handia du *banandu* aditzarekin, hark dituen balio semantiko berak dituelako: entitate baten egoera-aldaketa batetik, eta entitate horrek egoera-aldaketa horren ondoren duen egoera berria. Diferentzia da *elkartu* balio semantiko batean (egoera-aldaketakoan) aldaera bat gehiago duela (elkartu-DA-1, elkartu-ZAI0-3, elkartu-DU-4). Horretaz gain, *bananduk* bezalaxe, elkartu-DA-1/elkartu-DU-4k alternantzia erreziproko sinplea onartzen dute (iragankorra eta iragangaitza hain zuzen (*L* 2.5.1 eta *L* 2.5.4)). Hala, *elkarturi* bost *bss* markatu dizkiogu.

Ikus dezagun balio semantiko bakoitza bere alternantziekin.

elkartu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, ABL, DAT

elkartu-ZAI0-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

elkartu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, SOZ

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, ABL, DAT

Azalpena

Bss bakoitzeko zenbait adibideak:

- (1479) Noizean behin, lankideekin **elkartzen** zen hizketaldiren bat izateko [HURA], eta hirurek orduak, eta baita ibilaldiren bat edo beste ere, elkarrekin egiten zituzten. (EusCor)
- (1480) Emakumeak bi obulutegi dituen, umetokiaren alde banatan, hilabete batean gerta liteke bi obulu sortzea, eta obulu hauetako bakoitza espermatozoide banarekin **elkartzen** bada, bi ernalketa horietatik bikiak jaiko dira. (EusCor)
- (1481) Bi espermatozoide bi obulurekin **elkartu** eta bi arrautza sortzen dira. (EusCor)
- (1482) Parte hartzen duen jendearen uniformeak beti armak honekin **elkartu** dituen iruditeria militarren ondorio logikoa da. (EusCor)
- (1483) Halaz ere, hitz berrion kontu honek ez du ezer adierazten, gutxienez beste bi gertakirekin **elkartzen** ez badugu [HURA]: (EusCor)
- (1484) Bertatik argi izpi indartsu batzuk isurtzen dira eta [HAIEK] **elkartzen** diren puntuan izar bat osatzen dute. (EusCor)
- (1485) Jende frango **elkartzen** ginen han, nik harrapatzen dut ez orain bezainbat. (EusCor)
- (1486) Kontzeptuez gainera, kapitalaren erkaketa gordinaren eta ordaindutako kapital-transferentzien batuketaren aldaketa eta 2.2 apartatuko taularen seriean azaltzen diren udal-zerga nagusiak eta udal-tasak **elkartzen** dituen zerga-dirusareren aldaketa berria ematen dira. (EusCor)
- (1487) Etxeak egin eta **elkartuz** [HAIEK] [HAIEK], herriskak osatzen zituzten. (EusCor)
- (1488) Zoritxarreko igerleek ez zuten hura ongi eraman, eta gero eta ezinegon larriagoa izan zuten haurrak, neskak eta mutilak, bere garaiari iritsi zirela ikusi zutenean, familia berriaren bizimoduaren ezaugarria poza eta alaitasuna zela, eta familia eta gainontzeko sendikoak maitasunak eta adiskidetasunak **elkartzen** zituela. (EusCor)
- (1489) Iruñeko eta Pirineotako euskaldunen taldeak **elkartu** egin ziren eta Eneko Aritza izendatu zuten buruzagi, "errege, errege, errege! (EusCor)
- (1490) Gazte laguntalde bat **elkartu** zen euskal literatura surpertzeko, indartzeko eta ildo berriak ereiteko. (EusCor)
- (1491) Orratz laburrak omega maiuskularen konkabotasuna seinatzen zuen, eta artean oinazea distira heze bat baino ez zen begietan, orratz luzea omega gurutzatuz **elkartu** zitzaionean [HARI=ORRATZ MOTZARI]. (EusCor)
- (1492) Bertan utziko zituela pentsatu zuen, emakume harekin alde egingo zuela, baina ez, Frantziara iristean berriro **elkartu** zitzaien.[HURA] [HAIEI] (EusCor)

Esan dugun bezala, *bss* hauetan entitate baten egoera-aldaketa moduko bat adierazten da, baina egoera-aldaketa hori gertatzeko beste entitate bat da beharrezko, horrekiko ulertu behar baita aldaketa. Hortik, aipatutako alternantzia erreziproko sinpleak onartzea **aditz** honek. Ondorioz, azken batean, bi entitateen egoera-aldaketa gertatzen dela esan daiteke. Aldaketa

honek batzuetan ERGez gauzatzen den *kaus*a onartzen du, eta horrexegatik onartzen du alternantzia kausatibo/inkoatiboa. Nahasten diren entitateei dagokienez, elkartu-DA-1 eta elkartu-DU-4n, **ABS**z eta **SOZ**ez gauzatzen dira; elkartu-ZAIO-3n, berriz, SOZen ordez **DAT** agertzen zaigu. Kasu honetan, hala ere, ezin esan daiteke biziduntasunean dagoenik desberdintasuna (SOZ: bizigabea; DAT: biziduna), bietan orotariko guneak aurkitzen baititugu. Hala ere, elkartu-ZAIO-3 askozaz gutxiagotan ageri da.

Adibideetan ikus dezakegunez, eta alternantzia erreziproko sinpleak adierazten duen fenomeno birgogoratu, SOZ ez denean esaldian agertzen, ABS plurala izan ohi da ((1484-1488)); edota, pluraltasuna bere baitan duen entitatearen bat ((1989), (1490)). Hala, horrelakoetan, *elkarren artean* edo *elkarrekin* ulertu behar litzateke azpian.

ERG entitatea askotan gizakia da, baina bestelakorik ere aurkitzen dugu ((1486), (1489)).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INE**k eta **INSE**k beren ohiko balioak erakuts ditzakete (SOZek ere, aipatu dugunaz gain, bere beste ohiko balioak ager ditzake).

ABLk elkartze-puntua adierazten duela dirudi, adibiderik aurkitu ez dugun arren.

DAT, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten du.

Beraz, esango dugu balio honetan bi entitateen egoera-aldaketa gertatzen dela; ikusitako *bs*sez gauzaturik.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

elkartu-DA-1: gai ukitua_ABS; gai ukitua_SOZ

elkartu-ZAIO-3: gai ukitua_ABS; gai ukitua_DAT

elkartu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; gai ukitua_SOZ

elkartu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

elkartu-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: SOZ, INS, DAT

Azalpena

Ikus bi *bssen* adibideak (oso gutxi auritu baditugu ere):

(1493) 1991ko biztanleen zentsuaren kopuruaren arabera, Udalen ordena ezarri da eta 6 talde ezberdinetan **elkartu** dira [HAIEK=UDALAK], udal bakoitza talde horietako batean sartu delarik. (EusCor)

(1494) 1. Landareak multzo batean **elkartu** [ZUEK]. (EusCor)

Bss hauetan, entitate batek baino gehiago **elkartu** ostean duten egoera berria adierazten da; eta egoera berri hori **INEk** adierazten du. Elkartzen diren entitateak, goiko *bss*etan bezalaxe, **ABSz** gauzatzen dira, eta horregatik sintagmak pluraltasuna erakutsi behar du. Esan dugun bezala, ez dira asko topatu ditugun adibideak, baina *banandu* aditzean ikusi dugunaren antzeko fenomenoak izanik (hau da, bi ekintzak —elkartzea eta **elkartu** osteko egoera berria adieraztea— aldi berean adierazi ezin izana), hemen ere aparteko *bss* gisa landu behar izan ditugu. *Bss* hauetan ere *abiapuntuko egoera* esaldian agertzea ezinezkoa da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSEk** eta **SOZEk** euren ohiko balioak izan ditzaketela dirudi, modua kausa eitekoa izan daitekeelarik.


DATek, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adieraziko luke.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

elkartu-DA-2: gai ukitua_ABS; helburuko egoera_INE

elkartu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_INE

- Datu estatistikoek SOZen presentzia nabarmena agerian jartzen dute; INE ere maiztasun handiz agertzen da. Bestalde, erabilera iragangaitza gailentzen dela argi dago.



DA	79,57%	DA-ins	2,40%	DA-abl	1,60%	DA-abs	100,00%	DA-konp	1,46%	DA-soz	16,12%	DA-ine	33,84%		
DU	17,41%	DU-abs	49,02%	DU-konp	0,57%	DU-soz	10,14%	DU-ine	23,94%	DU-erg	100,00%				
ZAIO	3,02%	ZAIO-ins	21,07%	ZAIO-ala	21,07%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	0,38%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	1,92%	ZAIO-ine	3,83%

9 DA, DU eta DIO laguntzaileak bakarrik onartzen dituzten aditzak

Sorta honetan aditz bakarra dugu, eta orotariko *bssak* ditu. Beraz, B multzoa bakarrik dugu sail honetan.

B multzoa: orotariko *bssak* dituztenak

pasatu (6)

pasatu

Aditz honi sei balio markatu dizkiogu, eta balio semantikoak berez lau dira. Beraz, horietatik lau *bss* alternantzia osatzen duten aldaerak dira. Ikus ditzagun balio semantiko hauek beren alternantziekin.

pasatu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

pasatu-DU-3

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

pasatu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

Pasatu-DA-1 eta pasatu-DU-3:

- (1495) Gure biriketatik egunean 12.000 litro inguru aire **pasatzen** da. (EusCor)
- (1496) Mende hasierako foru milizietako kasaketan erabiltzen zutela dioten datuak badaude (Maria Amalia de Sajonia Probintziatik [HURA] **pasatzen** zenerako Diputazioko komisionatuei emandako agindu bat dago kolore hori edo bere faltan beltza, erabiltzea gomendatuz). (EusCor)
- (1497) Arratsalde partean, tabernaren albotik aurreko egunean Castanhoko baltsan ikusitako arlote beltz ibiltaria **pasatu** zen. (EusCor)
- (1498) (...) arbola biren artean eskegi nuen hamaka eta arratsaldea handik **pasatzen** ziren turistez inguratuta eman nuen. (EusCor)
- (1499) Urkiaga mendian jaio, Esteribartik eta Iruñeritik **pasa [HURA]** eta Funesen Aragoara isurtzen da. (EusCor)
- (1500) -Geratze-puntuak ezartzea programan zehar, programa puntu horretatik **pasatzen** denean edo baldintzaren bat betetzen denean gera dadin. (EusCor)
- (1501) Zentru honetatik urtean zehar 300 bat animalia **pasatzen** dira. (EusCor)
- (1502) (...) Nire ustez, elebiduna baldin bazara, ez duzu arazorik eduki behar talde batetik bestera [ZU] **pasatzeko**. (EusCor)
- (1503) Denborarekin, ordea, deiturak finkatu egin dira eta gurasoengandik seme-alabengana **pasatzen** hasi dira [HAIEK], aldatu gabe. (EusCor)
- (1504) Parte hartzen duen kideetako bat hiltzean, sozietatea ez da desegiten, ez eta hildakoaren eskubideak bere oinordekoei pasatzen ere, baizik eta eskubide guztiak hildakoaren alargunarengana **pasatzen** dira alargun-egoeran jarraitzen duen bitartean. (EusCor)
- (1505) Metalak igurtzitzen ditugunean, ordea, nahiz eta kargen bereizketa berdin gertatu, sortzen den partikulen mugimendua oso erraza da material hauetan (eroankortasun elektriko handia dute) eta kargatzen diren momentuan bertan berehala deskargatzen dira guregana **pasatuz [HAIEK]**. (EusCor)
- (1506) Baina, urte baterako Zabalonetxikira **pasako** zen familia, eta han jaioko zitzaizkion gainerako seme alaba guztiak. (EusCor)

- (1507) Hodi baten apurketaren ondorioz lurpera ur kutsatua **pasa** zen eta lurra ontziratu zuten. (EusCor)
- (1508) Dakigunez bi egoera egonkor ditu, batetik bestera inpultsu batez **pasatzen** delarik. [HURA] (EusCor)
- (1509) Bata, lehen esan bezala, gaztelaniadunen ghettoetik gure gizarte katalanera **pasatuko** direla pertsona batzuk, gazteak bereziki; (EusCor)
- (1510) Badirudi Kanadako ekialdeko indiar algonkinen hizkuntzakoa dela eta hortik frantsesera **pasatu** zela. [HURA] (EusCor)
- (1511) Sentsazioak berak ez du espazio edo denborarik okupatzen, baina denbora edo espazioa hutsetik sentsaziora **pasatzea** denboran bakarrik da posible; (EusCor)
- (1512) 'Lana lehorra' baldin bada, berotik hotzera [HURA] **pasatzeak** (su handian kuzinatu eta haizea hotzetara irteteak adibidez) hilekoaren odolari eta besteari ez die eragiten. (EusCor)
- (1513) Erran diot juristak errandakoa, eta berak oso argi utzi nahi izan dit ni 3. gradura **pasatzeko** fax-a heltzeko denbora materialik ez dela izan. (EusCor)
- (1514) Ikasle batek bi urte behar ditu maila batetik bestera **pasatzeko**. (EusCor)
- (1515) Nik ezagutu nuenean bolada txar batetik **pasatzen** ari zen [HURA] (EusCor)
- (1516) Gainera, balio horiek saiakuntzarekin erlazionatutako zenbait parametroren menpe direnez (probeta-mota, probetaren dimentsioak, ...), emaitzak laborategitik industriara, hau da, diseinu-mailara, [NORBAITEK] **pasatzea** ez da batere erraza izaten. (EusCor)
- (1517) Gero, batere hutsunerik ez duenean, zuen koadernoetara **pasatuko** duzue. [ZUEK] [HURA] (EusCor)
- (1518) 7. **PASA ONDOKO ESALDIAK ORAINALDI ' LEUNERA'** [ZU/ZUEK] (EusCor)
- (1519) **Pasa ezezkotik baiezkoa** edo alderantziz: [ZU/ZUEK] (EusCor)
- (1520) 5. Garbira **pasa** ezazu [ZUK] [HURA], kapitulu bakoitza orri banatan idatziz. (EusCor)
- (1521) Faktore hau aintzakotzat hartzeak autore bakoitzaren sorkuntza-lana bere garaian kokatzea lehenestera eta argitalpen-data bigarren mailara [GUK] [HURA] **pasatzera** eraman gaitu. (EusCor)

Pasatu-DU-4:

- (1522) Ibaiaren lehenengo errebueltak **pasatu** ondoren [HAI EK], esklabuek ezin izan zioten tentazioari eutsi, eta barruan zer ote zegoen begiratzea erabaki zuten. (EusCor)
- (1523) [NIK] Bidea **pasa** aurretik zuri begiratzen nizun eta! (EusCor)
- (1524) - Muga **pasa** al dugu? [GUK] (EusCor)
- (1525) Momentu batean hor zirenek amerikanoak iristean muga **pasa** eta Franco boteretik egotziko zutela uste zuten ezta? (EusCor)

Pasatu-DA-1 eta pasatu-DU-3n entitate baten kokapen- nahiz egoera-aldaketa adierazten da.

Pasatu-DU-4 aldaerak, ordea, kokapen-aldaketari bakarrik egiten dio erreferentzia; beraz, ez da besteak bezain zabala. *Igo* eta *jaitsi* aditzetan esan dugun bezala, pasatu-DU-4 bssan, **ABSk** adierazten du pasatu-DA-1 eta pasatu-DU-3 bssetan **ABLk** (*abiapuntuko kokapena*) eta **ALAk** (*helburuko kokapena*) batera adierazten dutena; hots, mugatutako bidea, horrexegatik zentzu holistikoa duena. Eta, entitate desplazatua Kasu **ERGez** gauzatzen da.

Horregatik, pasatu-DU-4 *bssan* zeharkaldiak du garrantzia, eta ez hasierako eta amaierako puntuak zehazteak. Hori dela eta, balio honetan ALA ezinezkoa da, eta baita ABL ere, beti ere *abiapuntuko kokapena* adierazten; agertzekotan, nolabaiteko bidea adierazten du, ABSk adierazten duen bide hori zein tokitik egiten den zehazteko.

Pasatu-DA-1 eta pasatu-DU-3n ere ABLk *bidea* adieraz dezake, eta gainera askotan adierazten du horixe. Esan behar da, bi kasuak (ABL eta ALA, alegia) batera ez direla askotan agertzen, eta batera agertu diren adibideetan ABLk *abiapuntuko kokapena* (eta ez *bidea*) adierazten du. Gainera, badirudi ABLk *abiapuntuko kokapena* adierazten duenean beharrezkoa dela *helburuko kokapena* ere agertzea. Boons-ek (1987) egina du ikerketarik kasuen arteko dependentzien inguruan. *Abiapuntu* eta *helburu* osagaien portaera asimetrikoaz jabeturik, autore honek dio askotan *abiapuntua* adierazi ahal izateko beharrezkoa dela *helburua* ere adieraztea, baina ez alderantziz. Boon-ek fenomeno honi *concepto de origen dependiente* deritzo.

Pasatu-DA-1 eta pasatu-DU-3n, *gai ukitua* ABSk adierazten du, eta pasatu-DU-3n, horretaz gainera, kokapen- edo egoera-aldaketa hori eragiten duen *kaus*a ergatiboak du lekua. ABS entitatea biziduna da askotan, baina bizigabea ere izan daiteke: batzuetan naturazko izaki bat da ((1495), (1507)), eta beste batzuetan zer abstraktu bat ((1500), (1503), (1504)).

Egoera edo kokapena aldatzen den ALA eta ABL entitateek baldintzatzen du ((1495-1598), (1518-1521): egoera; (1511-1515), (1517): kokapena; zenbaitzuk zalantzazkoak dira: (1509), (1510), (1516)). Jakina, ABS entitatea abstraktua denean, kokapen-aldaketa ere abstraktuki ulertu behar da.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioak adierazten dituzte (INS: (1508)). **IN**EK ez dirudi oso arrunta, bederen gertakizunaren kokapen orokorra adieraziz. Izan ere, ABS entitatea lekuz aldatzen denean, kokapen orokorra adierazteak garrantzia galtzen du. Kokapen-aldaketa horretan duen behin-behineko kokapena adieraz lezake (ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu).

DATek ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adierazten duela dirudi, eta horretaz gain, —desplazamenduzko beste aditzetan esan duguna errepikatuz— ALArekiko harreman berezi bat ere adierazten du (jo bedi *eraman* aditzera —85. or.— fenomeno honen xehetasunak gogoratzeko). Aditz honek, hala ere, badu elkarraldatze balioa, eta hau beste *bss* bat bezala jarri dugu (pasatu-DIO-6), non ALA ez den onargarria.

Batzuetan ABS entitatea gizakiari dagokion edo gizaki batek sortzen duen zer abstraktu bat da, eta orduan oso normala da ABLen gizaki horren gorputz-atal bat agertzea, *bide* gisa; normalean, gorputz-atal zehatz bat: *buru*. Gainera, arruntena izaten da gizakia ere esplizituki agertzea DATez gauzatua. Kasu hauetan, orduan, DAT *iturri* moduko bat da. Horrelako kasu zehatzak Hitz Anitzeko Unitateetatik gertuago daude, hala ere. Ikus ondoko adibideak:

(1526) -Egia esan, ez zen gure artean ezer gertatu, denak fantasiak ziren, burutik pasatzen ziren gogoeta eta gogo hutsak. (EusCor)

(1527) Eta bazenekizkien burutik pasatzen zitzaizkidan ideia guzti horiek, ezta? (EusCor)

Beste batzuetan, joan-DA-1 *bssan* ikusi dugunaren antzera, zeharkaldi estatiko bat egiten duen izaki konkretu bat da ABS entitatea:

(1528) Metrorako egindako zulorik handiena, London azpitik pasatzen dena da. (EusCor)

Joan-DA-1en esaten genuen bezalaxe, horrelakoetan ez da mugimenduzko desplazamendu bat adierazten, baizik eta entitate bizigabe batek ibilbide jakin batean duen kokapena. Pasatu-DA-1en (aipagai dugun balio zehatz honetan), joan-DA-1en ez bezala, zeharkaldi hori mugatzen duten hasierako eta bukaerako puntuak esaldian ezin dira agertu. Aldiz, ohikoena da *bidea* adierazten duen ABL bakarrik agertzea; zeharkaldi hori nondik zehar egiten den zehaztuz. Horretaz gain, ikus daitekeenez, hemen ere aditzaren denbora puntukaria da, aipatzen den fenomenoa beti horrela dela eta denboratik kanpo dagoela adieraziz. Aditzak hartzen duen balio hau, hortaz, ABS entitatearen baitan dago, eta pasatu-DA-1en egitura sintaktikoa erabilzten da. Horregatik ez dugu *bss* gisa orokortu.

Eta beste balio semantiko berezi bat ere bada, bakarrik pasatu-DU-4n duena lekua. Kasu honetan, ABS eta ABL guneetan gorputz-atalak sartzen dira jokoan:

(1529) amorantearenaren gainean jarririk eta bestea iztarretako batean, besoetako bat giltzurdinen gainetik pasa [HARK] eta bestea bizkarretik, ahapeka abesten badu besoetako haurra balu bezala, eta zuhaitzean gora igotzeko zeinua egiten badu gizonarengandik musu bat lortzeko. (EusCor)

(1530) Kopeteko izerdi ilintiak gabardinarekin besoarekin xukatu eta hatzak azalaren gainetik pasatzean arrain baten ezkatat bezain zakarra sumatu zuen kopeta. (EusCor)

(1531) Artega, urduri zegoenean, oraintxe bezala, erpurua eta hatz erakuslea belarrietatik pasatzen zituen [HARK] eta eskubiko gingila zulatuta zuten zilarrezko hiru uztaiei jirarazten zien. (EusCor)

Ikus daitekeenez, hemen entitate baten desplazamendua adierazten da, baina entitate hori, desplazamendua gertatzen den bitartean, azalera bat ukitzen dago uneoro. Horrelakoetan, *abiapuntuko kokapena* eta *helburuko kokapena* agertzea ezinezkoa da, azken batean kontaktu horrek baitu garrantzia aditzak adierazi nahi duen ekintzan. Hasiera batean erabilera zehatz samarra dela eta gune jakin batzuen baldintzapean dagoela dirudi, baina bestelako zenbait kasutan ere ager daiteke (*erratza pasatu nuen sukaldetik*). Hori dela eta, aparteko baliotzat jotzeko zalantza izan dugu. Corpusean ez dugunez bestelakorik aurkitu, ez diogu, azkenean, aparteko baliorik eman.

Beraz, esango dugu markatutako *bss* hauetan, *pasatu* aditzak entitate baten egoera- edo kokapen-aldaketa adierazten duela oro har; horretarako ikusitako *bssak* baliatzen dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

pasatu-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA

pasatu-DU-3: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntua/bidea_ABL; helburua_ALA

pasatu-DU-4: gai ukitua_ERG; bidea_ABS

pasatu-DIO-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena:

Adibideak:

(1532) ... taberna honetan ikusi nuen lehenengo aldiz ... ez, ez dakit non aurki daitekeen orain ... bere eskuizkribua pasatu nahi zidan [HARK] [NIRI] (EusCor)

(1533) Horregatik, eta kontuan izanik aitak ez daukala beste dirubiderik eta bere soldatetik bizi dela, seme-alaben mantenu gisa, [HARK] [HURA] bere emazteari pasatzeko eskaintzen du, ... pezetako pentsio bat. (EusCor)

(1534) Plaztikazko botoila pasatzen dio [HARK] [HARI], besteak edaten du eta berriz botatzen (EusCor)

(1535) -Norbaiti abisua pasako diogu. [GUK] (EusCor)

(1536) Zurrumurru horiei "komunetako elkarrizketak" deitzen zitzairen, atxilotuek hor pasatzen baitzizkioten berriak elkarri. (EusCor)

(1537) Antza, epaimahaiko apez horiek bertso batzuk moldatu zituzten, bere lagun ziren beste apez batzuei pasa zizkieten [HAIEK] [HAIEK], eta haiek gero saria erdietsi zuten. (EusCor)

Esan dugun bezala, hemen entitate baten elkarraldatzea da aditzera ematen dena. Hori dela eta, *abiapuntua* —**ERGez** gauzatua—, *helburua* —**DATEz** gauzatua— eta elkarraldatzen den *gaia* —**ABSz** gauzatua— ditu osagai azpikategorizati gisa. Hala izanik, ez ABLk ez ALAk ez dute agertzeko ahalamenik.

ABS entitatea izaki ez-biziduna da adibide guztietan, batzuetan konkretua eta beste batzuetan abstraktua. *Abiapuntua* eta *helburua*, berriz, beti dira gizakiak.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INSeK**, **SOZeK** eta **INeK** euren ohiko balioak adierazteko gaitasuna dute. Hala ere, goiko balioetik bereiztea ez da erraza, eta azken batean ALA edo ABL Kasuen presentziaren baitan dagoela esan daiteke.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

pasatu-DIO-6: abiapuntua [+giz]_ERG; gaia [-biz]_ABS; helburua [+giz]_DAT

pasatu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

pasatu-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

pasatu-DA-2:

- (1538) Ezustekoa **pasa** eta itzultzen hasi nintzen (EusCor)
- (1539) 10. Zer **pasatuko** zen mutila hil izan balitz? (EusCor)
- (1540) -Horixe **pasatzen** da pertsona zahartzen denean. (EusCor)
- (1541) Orduan, lasaitzea eta egoera ikaragarri hura **pasatu** arte itzarotea erabaki zuen Enekok. (EusCor)
- (1542) Baina hasierako susmo txarra berehala **pasatu** zitzaidan. [NIRI] (EusCor)
- (1543) Baina banekien jakin aitari berehala **pasatuko** zitzaiola haserrea. (EusCor)
- (1544) Baina, tira, nirearena **pasatuko** zaio [HARI], erraz, aitarena pasatu zitzaion bezala. (EusCor)
- (1545) Martari gauza asko **pasatzen** zaizkio Ingalaterran dagoen bitartean eta denboraldi hori ez du inoiz ahaztuko. (EusCor)
- (1546) Urte asko **pasatu** ondoren, gizona konturatu zala andreak gauean alde egiten ziola, eta goizean noiz oeratzen zan etzan akordatzen. (EusCor)
- (1547) -Bai, baina ... Ikasturtea hain arin **pasatu** da (EusCor)
- (1548) Denbora dexente **pasa** zen; (EusCor)

pasatu-DU-5:

- (1549) Kontua da beti edo gehienez oso tarte handiarekin ibiltzen ohitua dagoela, eta hotza botinarengatik ingurura arrimatu zaionerako kakalarritu dela (hala ere gero serio-serio esan digu kristoren hotza pasatu duela! [HARK] (EusCor)

- (1550) Orain, Bilbora joaten zaren bakoitzean kalbarioa pasatu behar duzu [ZUK]: (EusCor)
- (1551) –[GUK] Ekaitz bat pasatzeko adina indar badugu - zioen Nereak -. (EusCor)
- (1552) Gosete endemikoaren haur zahartuek bai, baina guk ez genuen goserik pasatzen, haur zuriak ginen gu, guk bagenuen lotsarik, saldu egiten genituen geure altzariak, baina ez genuen goserik pasatzen. (EusCor)
- (1553) Ze sustoa pasa genuen, ezta? (EusCor)
- (1554) -Ez, keba — esan nion nik ausartarena eginez, baina egia esan behar badut beldurra pasatu nuen—. [NIK] (EusCor)
- (1555) Baina "elkar jotzera" joaten denean ere oso [HARK] une goxoak pasatzeko aukera izaten du: (EusCor)
- (1556) -Bueno, pasa ezazu egun ona [ZUK] zure laguntxoekin eta beste urte asko bete ditzazula. (EusCor)
- (1557) Ordu erdi bat pasatzen genduan bertara iristen. [GUK] (EusCor)
- (1558) Cho Oyu eta Everesti ere, bide guztian bizkarra emanda izan baititugu, eman diegu errepasoa, eta beste hainbat tontor txikiago, glaziare eta laku ezagutu guran pasatu ditugu minuturen batzuk. [GUK] (EusCor)
- (1559) 14. Lan handirik ez dugunez, kolperik jo gabe pasa dezakegu egun osoa. [ZUK] (EusCor)
- (1560) Nahi izanez gero, Italian pasa ditzakete jubilatuek oporrak. (EusCor)
- (1561) Han, orduak eta orduak pasatzen zituzten bertsotan [HAIEK], sagardoarekin batera sardinarrak, arrautza egosiak eta gaztainak janez. (EusCor)
- (1562) Gutxinaka, indarra hartzen doazenean, hegaldi hauek gero eta luzeago egiten dira eta askoz denbora gutxiago pasatzen dute etxean. [HAIEK] (EusCor)
- (1563) (...) gurasoekin, familian pasako dute udaberri eta uda gehiena. [HAIEK] (EusCor)
- (1564) Negua buztanzuri arruntek Afrika tropikalean pasatzen dute. (EusCor)

Balio honetan, **ABS**k prozesu abstraktu bat, egoera moduko bat, edo denbora iragate bat adierazten du. Denbora adierazten duenean, denbora hori pasatu eta agortu egin dela adierazten du. Une bateko egoera adierazten duenean ere oro bat esan dezakegu, hori pasatu eta amaitu ere egin dela. Aldiz, gertakizun edo prozesu bat adierazten denean, besterik gabe pasatzen, gertatzen dela adierazten da.

Beraz, oro har iraupen mugatuko prozesu bat gertatzea adierazten dela dirudi. Batzuetan prozesu hori gizaki batek esperimintatzen du, eta beste batzuetan, besterik gabe, gertatu egiten da. Eta hain zuzen entitate honen gauzapean sintaktiko desberdinek eratzen dituzte bi aldaerak: pasatu-DA-1en, **DAT**ez gauzatzen da esperimintatzaile hori, eta pasatu-DU-5en, **ERGez**. Dena den, pasatu-DU-5 *bssa* murriztagoa da. Pasatu-DA-2en ere DAT ez da beti beharrezkoa; alderantziz, askotan ez da agertzen. Horregatik ez dugu jarri Kasu azpikategorizatu bezala. Bestalde, pasatu-DA-1en *esperimintatzaileak* gertakizuna beti nahi gabe jasaten du; pasatu-5en, berriz, nahita nahiz nahigabe.

ABS entitateak denborari erreferentzia egiten dionean bakarrik, ELA_KONP ager daiteke. Baina ELA_KONP honek ere denborazko balioa duela dirudi:

(1565) Denboraldi luze bat pasako da fenomeno horiek kuriositatez behatuko dituztela. (EusCor)

Hala ere, erabilera hau zuzena ote den zalantza dugu; izan ere, egokiago dirudi *-ela*-ren ordeztze *-netik* edo *'-n arte'* gisako Kasuren bat —benetan denbora adieraz dezakeena— agertzea. Guk ez diegunez bereziki erraparatzen denbora adierazten duten sintagmei, ez dugu gahiago sakonduko honetan.

Gainontzekoan, **IN**SeK eta **SO**Zek beren ohiko balioak dituzte. **IN**Ek, gertakizunaren kokapena adieraziko luke, nahiz eta **ABS**k denbora adierazten duenean ez den ageri ohi.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

pasatu-DA-2: gaia [-konkr]_ABS

pasatu-DU-5: esperimantatzailea [+giz]_ERG; gaia [-konkr]_ABS

Bukatzeko, eta *pasatu* aditzaren aniztasuna are ageriago jarritz, esan behar dugu, badirela hainbat eta hainbat adibide hemen aurkeztutako balioetan lekurik ez dutenak. Horrelakoetan esaten dugunari jarraiki, Hitz Anitzeko Unitate izateko bidean daudela dirudi. Ikus zenbait adibide:


(1566) (...) hura alboan zuela, egunkariaren orriak **pasa** zituen, harik eta pilota-kronikaren orrialdera heldu zen arte. (EusCor)

(1567) Etxera itzultzean, Annikak makinaz **pasatzen** zuen grabatutako testua. (EusCor)

(1568) Eta bertso klase hori ez da inoiz modatik **pasatzen**. (EusCor)

(1569) Proba **pasatu** ostean kurtso teoriko eta praktikoak egin ditugu. (EusCor)

- Datu estatistikoek, **ABL**k eta **AL**Ak nahikoa maiztasuna dutela erakusten dute; maiztasun handienekoak, berriz, **ERG** eta **ABS** dira.



DA	57,30%	DA-ins	2,40%	DA-ala	22,90%	DA-abl	27,07%	DA-abs	100,00%	DA-konp	2,02%	DA-soz	1,39%	DA-ine	10,10%				
DU	36,91%	DU-ins	1,08%	DU-ala	12,80%	DU-abl	14,00%	DU-abs	63,57%	DU-konp	7,61%	DU-ine	15,24%	DU-soz	1,70%	DU-erg	100,00%		
DIO	1,97%	DIO-ins	0,75%	DIO-ala	18,42%	DIO-abl	13,12%	DIO-abs	50,87%	DIO-konp	0,50%	DIO-dat	100,00%	DIO-ine	3,74%	DIO-soz	0,50%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	3,82%	ZAIO-ins	0,77%	ZAIO-ala	27,90%	ZAIO-abl	32,62%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-konp	0,52%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ine	3,86%	ZAIO-soz	0,52%		

10 DA, DU, ZAIO eta DIO laguntzaileak onartzen dituzten aditzak

Hiru aditz ditugu sail honetan:

atera (8), egokitu (5), jarri (6)

Hiru aditzek orotariko *bssak* dituzte. Beraz, hemen ere B multzoa dugu soilik.

B multzoa: orotariko *bssak* dituztenak

atera (8), egokitu (5), jarri (6)

atera

Aditz honi zortzi *bss* markatu dizkiogu, baina berez bi balio semantiko dira adierazten dituenak. Balio bakoitzeko lau *bss* daude alternantziak osatzen.

atera-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

atera-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABL, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

atera-ZAIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

atera-DIO-8

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

atera-DA-1:

- (1570) Horrela **ateratzen** da iluntze alferra elizdorretik, herri gainera zabaltzen da ezarian, pauso bakoitza nabarmentzeko moduan, eta hori da Belandiako biztanleok tabernetara ateratzen garen orena, (...). (EusCor)
- (1571) Halaz ere, amaitu zen noizpait klasea eta **atera** ginen handik azkenik. [GUJ] (EusCor)
- (1572) Noiznahi ikusiko zenuen egun txinta alderarte jokoan, eta apika hamazazpi egunetan ez zen, kalera aterako. [HURA] (EusCor)
- (1573) Orduan, Galtzagorri atera zen motxilatik, eta Jontxuren tripa gainera igo eta saltoka hasi zen, kili-kili egiten ... (EusCor)
- (1574) Gero korridorera atera da [HURA], Klararen oihuak garrastu egin baitira. (EusCor)
- (1575) Jaimito etxetik kanpora kromo pila batekin **ateratzen** da, eta itzultzen denean ez dauka bat ere. (EusCor)
- (1576) – [NI] Eskolatik atera naizenean inguratu eta zera esan dit: (EusCor)
- (1577) Istorioa ondo ikasi ondoren, diktatu egingo diozue arbelera aterako den lagunari. (EusCor)
- (1578) Atea jo genuen eta Santa Ageda aizkolariaren semea, Timoteo, atera zitzaigun [GURI]. (EusCor)

atera-DU-5:

- (1579) Nhamdi-ri hurbildu eta hura besotik hartuz gelatik atera zuen [HARK] [HURA]. (EusCor)
- (1580) Ondoko gaumahari zapaletik cognac botila erdi hustua atera zuen [HARK], eta kopa bakarra biontzat. (EusCor)
- (1581) Baina une horretan bertan inspirazioa etorri zaio eta paper bat [HARK] **atereaz**, notak idazten hasi da. (EusCor)
- (1582) Zuhaitzak sustrai eta guzti **ateratzen** dituzte [HAIEK]. (EusCor)
- (1583) Rositak eta senideek "mendiko tipulak" **ateratzen** dituzte jateko. (EusCor)

(1584) Ondoren, nagusiaren ustez pianista batek erabili behar duen jazkera atera zidaten pertxa batetik. (EusCor)

atera-ZAIO-3:

(1585) Txintxoak izan eta horrelako zozokeriak esaten zizkigun, belarri batetik sartu eta beste[BELARRI]tik ateratzen zitzaizkigunak. [GURI] (EusCor)

(1586) Oharkabean, seinale bat baillitza, ebaki luze bat egin zuen ezkerreko masailean, odola isurian ateratzen hasi zitzaion zauritik eta tantaka erortzen okotzetik behera, mantxa gorriak iltzatuz azpileko ur gardenean, berehala zabaltzen eta desagertzen zirenak urpeko hodei baten antzera. (EusCor)

(1587) Egarbeek (teilatuari hormatik kanpora³¹ ateratzen zaion azpiko aldea, horma euritatik babesteko) ez dute hormarekiko 1,5 m-ko luzera gaindituko. (EusCor)

atera-DIO-1:

(1588) ... ahotik atera didazu [ZUK] [NIRI] [HURA] (EusCor)

(1589) Animalia larrutu eta tripak atera ondoren [ZUK?] [HARI], ondo garbitu (EusCor)

Balio honetan entitate baten desplazamendua adierazten da. Entitate hori beti **ABS**z gauzatzen da. Bestetik, desplazamendua adierazten duen elementuetako bat —*helburuko kokapena*— ere beti **AL**Az gauzatzen da. Ordea, *abiapuntuko kokapena* **ABL**z edo **DAT**ez gauza daiteke; honen arrazoa batzuetan biziduntasuna da (ABLn entitate bizigabeak; DATen bizidunak), baina kasu bakan batzuetan ez da horrela. Horretaz gain, desplazamendua beste entitateren batek eragina izan daiteke, eta horrexegatik bi kasuetan —*abiapuntuko kokapena* **ABL** edo **DAT** denean, alegia— alternantzia kausatibo/inkoatiboa dugu. Hortik ateratzen dira lau *bssak*.

Adibideek erakusten digutenez, **ABS** entitatea orotarikoa izan daiteke. Hala ere, esan behar dugu atera-DA-1en gehienetan gizakia dela (bakarra dago gizakia ez dena, eta naturazko izaki bati egiten dio erreferentzia: (1570): *iluntze alferra*); atera-DU-5en, berriz, ia gehienetan izaki bizigabe bat da (biziduna den bakarra: (1579)). Eta atera-ZAIO-3 eta atera-DIO-8n, berriz, beti da izaki bizigabe bat (batzuetan, hala ere, berezko bizia duen entitate bezala jokatzeko duen izakia da: (1586): *odola*).

Esan dugun bezala, *abiapuntuko kokapena* **ABL** denean, sintagma honen gunea bizigabea da, leku fisiko bat, azken batean. **DAT** denean, berriz, gizakia. Baina (1587) adibideak argitan jartzen duenez, izaki bizigabeek badute lekua. Horren arrazoa da, gure ustez, **DAT** eta **ABS** entitatearen artean parte-oso harremana dagoela. Horrek esan nahi du **DAT** entitatea gizakia denean ere halako zerbait dugula; izatez, *odola*, *tripak*... izaki bizidun baten atalak dira. Bederen, jabe-jabetza harremana badago, eta hori parte-oso harremana izan daiteke zenbait kasuetan.

³¹ Adibide honetan ageri den *hormatik kanpora* (eta baita beharbada (1570) adibidean ageri den *etxetik kanpora*), zalantzarik gertatzen dira. Izan ere, ez dago argi *-tik kanpora* osotasunean ulertu behar den —hau da, espazioan norabide bat zehaztuz— edo bi osagai aparteko gisa —*etxetik: abiapuntuko kokapena* eta *kanpora: helburuko kokapena*—.

Bestalde, badakigu ABLk *bidea* ere adieraz dezakeela; DATek, berriz, ez. Hori adiearazteko, ABLz gauzatzen den osagai bat beharrezkoa du (horregatik jarri dugu ABL Kasu onartuen artean). DAT entitatea biziduna denean, ia beti gorputz-atala da ABLren gunea (*belarritik*, *ahotik*); edo bestela, gorputzean dagoen zerbait (*zauritik*). Bizigabea denean, berriz, entitate oso batetiko atala ageri zaigu ABL gunean (*hormatik*). Hala ere, bada diferentzia nabarmen bat: entitatea bizigabea denean, ez da desplazamendurik adierazten, baizik eta, *abiapuntu* horri loturik, espazio bat beteaz modu jakin batean egotea. Bestela ere ikus genezake: desplazamendua abstraktuki ulertu beharra dago. Esandako guztia atera-ZAIO-3 *bss*rako da baliagarri. Izan ere, atera-DIO-8n nahitaezkoa da DAT entitatea biziduna izatea; eta orduan, bai, kasu hauetan esan daiteke desberdintasuna biziduntasunean dagoela.

ERG entitata, adibide guztietan, gizakia da.

Bss hauetan azpikategorizatutzat jo ditugun *abiapuntuko kokapena / bidea* eta *helburuko kokapena* osagaiak ez dira beti agertzen esaldian: batzuetan horietako bat bakarra agertzen da (atera-ZAIO-3 eta atera-DIO-8n, jakina, *abiapuntua* beti agertzen da); oso kasu gutxitan biak agertzen dira; eta, azkenik, gerta daiteke bat ere ez azaltzea (hau maizago gertatzen da erabilera iragankorrean). Nolanahi ere, agertzen ez direnean suposatutzat eman behar direla dirudi. Izan ere “zerbait nonbaitetik ateratzen denean” “nonbaitera ateratzen da”. Horren ondorioz, ematen du elementu hauek agertzen ez direnean, testuinguruan adierazita daudela lehenagotik.

Vázquez et al.-ek (2000) *salir* eta *sacar* aditzak *abiapuntuko kokapena* lexikoki fokalizatua duten aditzen artean sailkatzen dituzte (195. or.). Hala izanik, *abiapuntuko kokapen* hau beti jakina dela suposatzen da; *helburuko kokapena*, berriz, inespezifikatuta gelditzen dela:

Al igual que los verbos que focalizan el destino, los verbos que focalizan el origen no admiten la infraespecificación del componente incorporado. Así, en el caso de que éste no se exprese, el procedimiento utilizado es de nuevo la elipsis:

- (260) a. Andrea se aleja (de la casa)
b. El profesor ha sacado un libro (de la maleta)

Vázquez et al., 2000: 195.

Hala ere, goiko adibideak berrerabiliz saio bat egin dugu, eta jakintzat ematen den elementu hau elipsiaren bidez gertatzen denentz —edo bederen zein elipsi motaz gertatzen den— ez da beti hain argia:

(1572) Noiznahi ikusiko zenuen egun txinta alderarte jokoan, eta apika hamazazpi egunetan ez zen, kalera **aterako** → ETXETIK

(1574) Gero korridorera **atera** da, Klararen oihuak garraztu egin baitira. → GELATIK?

(1577) Istorioa ondo ikasi ondoren, diktatu egingo diozue arbelera **aterako** den lagunari. → ?

- (1578) Atea jo genuen eta Santa Ageda aizkolariaren semea, Timoteo, **atera** zitzaigun. → ETXETIK?
- (1581) Baina une horretan bertan inspirazioa etorri zaio eta paper bat atereaz, notak idazten hasi da. → TIRADERATIK?
- (1582) Zuhaitzak sustrai eta guzti **ateratzen** dituzte... → LURRETIK
- (1583) Rositak eta senideek "mendiko tipulak" **ateratzen** dituzte jateko. → TIRADERATIK?

Zenbait adibideetan ezin da ziur jakin, testuinguru gehiagoren beharra dagoelako, seguruenez ((1574), (1578)). Beste zenbaitetan ez da testu barruko testuingurua, baizik eta testutik kanpoko testuinguru pragmatikoa horren berri eman diezagukeena: (1581) eta (1583) adibideetan, jakin badakigu aipatzen diren entitateak normalean tiraderetan gordeak egoten direla, eta hori dela, seguruenez, *abiapuntuko kokapena*. (1577) adibidea, berriz, kasu berezia da; izan ere, hemen entitatea ez da espazio txikiago batetik handiago batera mugitzen. Eta dirudienez, hori beharrezkoa da aditz honen balio semantiko honen kasuan. Hain zuzen, Vázquez et al.-ek ezaugarri hori jartzen dute *sacar* eta *salir* aditzen murriztapen gisa:

²⁴Ahora bien, ambos verbos [*sacar*, *salir*] presentan restricciones en estas construcciones³²y así, requieren que el punto final de la trayectoria sea un lugar menos delimitado o más abierto que el lugar de origen: **El niño ha sacado los bolígrafos al estuche*; **El alumno ha salido a la biblioteca*.

Vázquez et al., 2000: 195. 24. oin-oharra.

Honek iradokitzen digu *arbelera atera* Hitz Anitzeko Unitate izateko bidean egon daitekeela, erabilera arruntatik urruntzen delako.

Nolanahi ere, argi dago ez dela bat ere erraza esatea osagai eliditu horiek zeintzuk diren testuinguru zabalik gabe; eta, gainera, gauzak ez dira beti hain argiak. Lehen ere esana dugun bezala, inespezifikazio-espezifikazio fenomeno hauek sakonki aztertu beharra dago.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSek** eta **SOZek** euren ohiko balioak adieraz ditzakete; INSek edo SOZek adierazten duten modu hori kausa eitekoa izan daiteke. INEk, ABS entitatearen kokapen zehatza adierazten duenean (hau da, “ateratze-prozesu horretan” entitateak duen kokapena), horixe bera adierazteak garrantzia hartzen duela dirudi, eta orduan ez da ez ABLrik ez ALArrik ageri ohi; baina horren arrazoia da berez jakinak direlako bi puntu horiek. Ikus zenbait adibide:

- (1590) Uda-udazkenean **ateratzen** da [HURA], mendiko koniferoen basoetan (Nafarroako Pirinioak), gehienetan lur azidoetan. (EusCor) LURRETIK KANPORA.
- (1591) Hostozabalpean ere **ateratzen** da batzuetan; [HURA] (EusCor)) LURRETIK KANPORA
- (1592) [HURA] Uda-udazken aldean **atera** ohi da lur beran edo humus-ean, hosto zabal eta konifero-basoetan. (EusCor) LURRETIK KANPORA

³² *Abiapuntua* eta *helburua* esaldi berean ageri diren kasuez ari dira.

Kasu hauek, nahiko mugatuak direla dirudi, ABSren gunean naturazko izakiak bakarrik aurkitzen baititugu. Horretaz gain, badirudi *abiapuntuko* eta *helburuko kokapen* jakineko inespezifikazio-kasu baten aurrean gaudela. Honek —objektu jakineko kasuetan ikusi dugun bezala— aditzak beste balio bat izatea dakar (alegia, polisemia sorrarazten du): entitateak ez du berez desplazamendu bat jasaten, mugimendu oso motel bat (haztearen ondorioz gertatzen dena). Bestalde, aditzaren denbora beti ohikoa dela ikusten dugu. Beraz, erabilera hau bereizteko aparteko *bss* gisa landu beharko genuke. Baldintza asko daudenez jokoan, ordea, aipatu baino ez dugu egin. Orokorrean, badirudi ABS entitatearen kokapen zehatza azaltzen denean esaldian, ABL eta ALA ez direla ageri ohi (ager litezkeen arren) eta desplazamedurik ez dela gertatzen, baizik eta puntu horretan egiten duen mugimendu motel bat.

DATi dagokionez, eta desplazamendua adierazten duten aditzetan dagoneneko esana dugun bezala, beste helburu mota bat (fisiko bizigabea gabe gizakia dena, alegia) adierazten du. Horrelakoetan, ALAk ABS entitatearen *helburuko kokapena* adierazteaz gain, DAT entitatearen kokapena ere adierazten du (jo bedi *eraman* aditzera —85. or.— fenomeno hauei buruzko xeheetasunak gogoratzeko).

Honenbestez, esango dugu *aterak bss* hauetan entitate baten kokapen-aldaketa adierazten duela oro har (mugimendua bakarrik adieraz baitezake kasu bakanetan), horretarako goian ikusi ditugun *bssak* baliatzen dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

atera-DA-1: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

atera-DU-5: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena / bidea_ABL; helburuko kokapena_ALA

atera-ZAIO-3: gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena_DAT; helburuko kokapena_ALA

atera-DIO-8: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; abiapuntuko kokapena [+biz]_DAT; helburuko kokapena_ALA

atera-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABL

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

atera-ZAIO-4

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL

atera-DU-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

atera-DU-7

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA, DAT

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

Atera-DA-2:

- (1593) Ganbelu baten hezur bat eclipta prastata landarearen uretan sartzen da, gero erre, eta hortik ateratzen den margogaia ganbelu hezurrez egindako kutxa batean gordetzen da. (EusCor)
- (1594) Emakume elkarrizketatuen esanetatik atera diren aspektu garrantzitsuenekin amaitzeko, gaitzaren beste bizipen maila bati buruz zerbait idatzi nahi genuke. (EusCor)
- (1595) Horiexek izaten dira preziatuenak, beraien gibel handietatik ateratzen baita foie-a, munduan dauden jakien artean finenetako bat. INPERTSONALA? (EusCor)
- (1596) 1.11 apartatuko taulak 1.10 apartatukotik atera dira. INPERTSONALA? (EusCor)
- (1597) Era berean, 1.12 apartatuko taulak 1.11 apartatukoetatik atera dira. INPERTSONALA? (EusCor)

Atera-ZAIO-4:

- (1598) Usaina berezi nahian luzaz egon eta gero, garaipen-oihua atera zaio amonari: (EusCor)
- (1599) Horregatik hilekoa duen emakumeari maionesak ez zaizkio ateratzen. (EusCor)
- (1600) "Ustel atera zait"[HURA] [NIRI]. (EusCor)
- (1601) **-Atera** zitzaion arrapaladan egun osoan entsaiatutako esaldia [HARI]. (EusCor)
- (1602) Ia hankaz gora erori nintzen maisuak idatzitakoa denon aurrean irakurtzeko agindu zidanean, oso polita atera zitzaidalako idazlan hura. (EusCor)
- (1603) Hiru bertsoak borobilak atera zitzaizkion. (EusCor)

Atera-DU-6:

- (1604) Dena den, hurbilketa estrukturalak, etnometodologiatik (Garfinkel 1967) eratorritakoak hain zuzen ere, antolaketa eta eraikuntza sozialari buruz ondorioak **ateratzen** ditu, elkarrekintzaren soziolinguistikak bezala. (EusCor)
- (1605) Idatzi egindako behaketa guztiak, horien emaitzak eta [ZUK] **atera** dituzun ondorioak. (EusCor)
- (1606) Piratak hogeita bost xentimo ateratzen ditu egunero. (EusCor)
- (1607) Danonek ez du korrante soziokulturala sortzen, baina handik etekina **ateratzen** [HARK] duenez sustatu egiten du. (EusCor)
- (1608) -Nondik ateratzen duzu hainbeste diru? [ZUK] (EusCor)
- (1609) Emazteak dioenez behin ere ez zion xentimorik ere **atera** Sternwood zaharrari [HARK], oheaz eta janaz aparte eta emazteak berak eman zion Packard 120 batez aparte. (EusCor)
- (1610) Inork ez du zalantzarik faktore horiek garrantzi handikoak direla enpresari etekinik onenak **ateratzeko**. (EusCor)
- (1611) Liburu honi probetxu osoa **atera** nahi badiozu, irakurri ondoren datozen puntuok: (EusCor)

Atera-DU-7:

- (1612) Haizea **atera** du gora-bidea hartu eta berehala, elur hautsa harrotu eta hotza gordinduz. (EusCor)

Balio honetan sortze-prozesu bat adierazten da. Hori dela eta, sortzen den entitatea —beti **ABSz** gauzatua— eta sortze hori burutzen duen *iturria* dira beharrezkoak. Sortze-prozesua nabarmentzen denez, *helburuko kokapena* adierazten duen osagairik ezinezkoa gertatzen da (horregatik jarri dugu ALA *bss* guztietan Kasu onartugabe bezala). Honi segituta, bestalde, *abiapuntuko kokapena* adierazten duen osagairik ere ez da agertzen; bai, ordea, dena delako entitatea sortzeko beharrezkoa izan den baliabidea —ABLz gauzatzen dena gehienetan—. *Bss* bakoitzaren arteko desberdintasuna *iturri* hori adierazten duen Kasuetan datza.

Esan behar da zalantza izan dugula sortzeko balio honi DA *bssa* eman ala ez eman. Izan ere, aurkitu ditugun adibideetan batzuetan balio inpersonala baino ez dagoela dirudi. Hau da, esaldi horien azpian berez agertzen ez den gizaki bat ulertu behar dela beti. Ez gaudenez ziur, *bss* gisa landu dugu.

Hori horrela izanik, atera-DA-2n **ABL** jo dugu *iturritzat*; atera-ZAIO-4n **DAT**; eta atera-DU-6n **ERG**. Atera-DA-2 eta atera-ZAIO-4ren arteko desberdintasuna ABL eta DAT entitatearen biziduntasunean dago (ABL dugunean: bizigabea; DAT dugunean: biziduna). Atera-ZAIO-4 eta atera-DU-6ren arteko desberdintasuna, berriz, izaki bizidun horrek ekintza burutzen duenean erakusten duen borondatean datza; nahigabe DATEz; nahita ERGez; eta baita ezustean gertatu izanarekin: DAT agertzen denean, ezustean dela dirudi eta ERGez agertzen denean, edonola.

Aditz honen *bss* hauek dira borondatetasuna garbien bereizten dutenak. Hiru *bss*etako ABS entitateak, berriz, izaki bizigabeak dira. Atera-DA-2n izaki abstraktuak dira, orohar, eta konkreituak direnean ere zentzu abstraktuan ulertu behar dira (erreferente zehatzik ez duten

aldetik; etorri-ZAIO-2n gauza bera esan dugu). Atera-ZAIO-4n eta atera-DU-6n, berriz, sortzeko gizakiaren beharra duten entitate abstraktu nahiz konkretuak agertzen dira. Horretaz gain, atera-ZAIO-4n askotan *gai sortuari* loturiko izenki predikatu bat agertzen da ((1600), (1602), (1603)).

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **INEk**, **INSeK** eta **SOZek** beren ohiko balioak izan ditzake, eta modua batzuetan kausa eitekoa da.

ABLri dagokionez, atera-DU-6n, bitarteko gisa jokatzen duela dirudi; ekoizteko prozesu horretan beharrezkoa izan dena. Atera-DA-2n ere berez antzeko zerbait dela ematen du (guztiak inpersonaltzat hartu beharko balira, halaxe litzateke); baina ABL honetako entitateei berezko gaitasuna aitortzen diegunez, ez dugu bitartekotzat jo. Atera-ZAIO-4n, berriz, sortze-prozesu horretan egiten den *bidea* adieraziko luke.

Azkenik, **DAT** atera-DU-6n bakarrik jarri dugu Kasu onartuen artean. ABLren antzera, bitarteko gisa ikus genezakeen ((1609), (1610), (1611): *Sternwood zaharrari / enpresari / liburuari* —bitartekoa— *xentimorik / etekinik onenak / probetxu osoa* —gai sortua—, *hark / norbaitek / zuk* —iturria—). Hala ere, ABS entitatearen arabera DAT da berez *iturria* eta ERG bitarteko modukoa (adibide asmatua: *ez diot hitzik atera*). Nolanahi ere, sortze-prozesu honetan DAT agertzen denean, ez da erraza bere balioa zehaztea.

Azkenik, atera-DU-7n iturri jakineko inespezifikazioa dugula dirudi; ordea, eguraldiko fenomenoetan gertatzen den bezala, iturri zehatz hori benetan zein den ez dago argi.

Beraz, esango dugu *aterak* balio honetan sortze-prozesu bat adierazten duela, horretarako goian ikusitako *bssak* baliatzen dituela.

Bss-en Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

atera-DA-2: gai sortua [-konkr]_ABS; iturria [-biz]_ABL


atera-DU-6: gai sortua [-biz]_ABS; iturria [+biz]_ERG

atera-ZAIO-4: gai sortua [-biz]_ABS; iturria [+biz]_DAT

atera-DU-7: gai sortua: *haize*_ABS; [iturria: ?_ERG]

Hala ere, planteatutako bi balio semantikoak garbiki banatzen saiatu bagara ere, argi dago *atera* aditzak aurkezten duen kasuistika anitzaren aurrean, zenbaitetan zailatasunak daudela batean edo bestean kokatzeko; batez ere entitate hauek bizigabeak eta abstraktuak direnean. Eta argi dago ere, ABS entitatearen izaerak berebiziko garrantzia duela gauza bat edo bestea aditzera emateko.

- Datu estatistikoek ABLren eta ALAren maiztasuna agerian jartzen dute, ABSren eta ERGen ondoren. INE eta DAT dira hurrengoak.



DA	47,63%	DA-ins	2,63%	DA-ala	17,82%	DA-abl	34,47%	DA-abs	100,00%	DA-komp	2,99%	DA-soz	2,28%	DA-ine	15,70%				
DU	37,81%	DU-ins	1,22%	DU-ala	19,21%	DU-abl	31,26%	DU-abs	61,21%	DU-komp	3,68%	DU-soz	0,42%	DU-ine	14,63%	DU-erg	100,00%		
DIO	9,68%	DIO-ins	0,80%	DIO-ala	10,26%	DIO-abl	16,81%	DIO-abs	71,17%	DIO-komp	2,28%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,10%	DIO-ine	15,35%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	4,88%	ZAIO-ins	0,83%	ZAIO-ala	8,93%	ZAIO-abl	14,81%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	1,14%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-soz	0,10%	ZAIO-ine	10,46%		

Egokitu

Aditz honi bost balio markatu dizkiogu, eta hiru balio semantiko adierazten ditu. Hala, balio batean bi *bssk* alternantzia osatzen dute elkarren artean eta beste balio batean beste bik.

egokitu-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ALA

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP

egokitu-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ALA

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: INE, INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

(1613) Haatik, bi baino gehiago baziren, jolastokira eta helburu amankomunetara **egokitu** ohi ziren [HAIEK]. (EusCor)

(1614) Beraz, neskak eredu horretara **egokitzen** badira irakasleen onespena jasoko dute. (EusCor)

(1615) -Balio-taula honetako 4.1. atalean jasotako irakasleen hobekuntzarako ihardueretarako, eta horietan ordu-iraupenik agertzen ez bada, ordu-baliokidetzari dagokionean, horretarako Pedagogi Berrikuntzarako zuzendariak ematen duen erabakian xedatutakora egokituko gara [GU]. (EusCor)

(1616) Lehen gazteek beraiek **egokitzen** zituzten euren arauak unean uneko egoerara. (EusCor)

(1617) Emakume prentsak bere burua egokitu du merkatu ekonomiara eta egokitu egin da kompetentzia sisteman lan egitera. (EusCor)

Balio honetan entitate baten egoera-aldaketa adierazten da. Horretarako, aldatzen den *gai ukitua* —**ABS**z gauzatua—, entitate horren *helburuko egoera* —**AL**Az gauzatua— eta ekintzaren *kausa* —**ER**Gez gauzatua— ditu osagai azpikategorizatu gisa. Kausa hau batzuetan agertzen ez denez, alternantzia kausatibo/inkoatiboa erakusten du. Egoera berri bat adierazten denez, hasierako edo *abiapuntuko egoera* ere batzuetan agertzen da —**AB**Lz gauzatua—, baina ez da oso arrunta. Horregatik ez dugu ABL Kasu azpikategorizatuen artean jarri, baizik eta Kasu onartuen artean.

Esan behar da, halere, erabilera iragankorrean ALArik gabeko adibideak ere ugariak direla. Horrelakoetan, *helburuko egoera* hori, dena delakoa izanda, “egokia” dela adierazten da. ALA agertzen denean, berriz, egoera “egoki” hori zein den espezifikatzen da. Beraz, *objektu barneratuarekin* ikusi dugun bezala, hemen ere ematen du *egoera* barneratua dagoela, eta batzuetan espezifikatu egiten dela. Bestelako egoera-aldaketa aditzetan ez dugu horrelakorik aurkitu.

Hori gertatzen denean, beharbada arruntagoa da ABL ere agertzea. Ikus zenbait adibide:

(1618) Betaurrekoak **egokitu** zituen. [HARK] (EusCor)

(1619) Hala bada, egunkari moduan idatzirik diren oharrak, nik neuk deskodifikatu, transkribatu eta **egokitu** ditut. (EusCor)

(1620) "Abartxoak", "Kattalin Erauso" edota ipuinen batetik zeuek egokitutako besteren bat. (EusCor)

Bilakatu eta *Mugitu* aditzean egin dugunarekin bat etorritik, ALA Kasu azpikategorizatu gisa jarri dugu, jakinik hori esaldian agertzen ez denean, balio berezi bat hartzen duela aditzak.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek, **SO**Zek eta **IN**EK beren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi.

DATek, azkenik, ABS entitatearekiko jabetzazko harremana adieraziko luke; ez dugu, ordea, adibiderik aurkitu.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egokitu-DA-1: gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ALA

egokitu-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ALA

egokitu-ZAIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

egokitu-DIO-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak berdinak dira bi *bssetan*: INE, INS, SOZ

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide (adibide gutxi aurkitu ditugu):

(1621) Garbiñe lehengusinak erabiltzen zuen "ez adiorik" hura ere gogoko zuen amaieratzat, baina ez zitzaion "Aberria ala hil" bezalako esaldi gogorrari egokitzen. [HURA] (EusCor)

(1622) Gregorio Monrealek trantsizio alditzat jotzen du oraingo hau, "elkartea berritzeko eta mende amaierako Euskal Herriari egokitzeko lerroa sendotzea helburu duena". (EusCor)

(1623) Kostaldeko inguru honetarako proiektuaren idazketa martxan dago aurkeztu ziren enpresetatik Udalak Basoinsari egokitu deitsonetan lanaren diseinua. (EusCor)

Balio honetan badirudi ezaugarri-esleitze bat adierazten dela. Aditz honetan bitxia da balio semantiko hau. Izan ere, ezaugarri-esleitzeek normalean beti eskatzen dute ezaugarria esleitzen duen gizakia. Honakoan, ikusten dugu, ez dela hala, eta osagai hori —**ERGez** gauzatzen dena— aukerakoa dela. Ezaugarriaren *helburua*, eta, jakina *ezaugarria* jasotzen duen entitatea, berriz, beti ageri dira, **ABSz** eta **DATez**, hurrenez hurren. Bestalde, egokitu-DIO-5 *bssa* arrunta edo zuzena den ez dugu argi, eta honakoan *ezaugarria* baino zeregina dela dirudi. Horregatik gogorxea izan daiteke atera-ZAIO-3ren pareko iragankorra dela esatea. Nolanahi ere, badirudi, *bss* hauetan ezaugarri-esleitze hori ez dela intentzioz edo borondatez egiten, baizik eta, nolabait, ausaz, edo *helburuak* nahi ez duela. Hala ere, zaila da *egokituren* balio hau definitzea. Gu besterik gabe, orokortzen saiatu gara.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, oso arruntak ez diren arren, **INEk**, **INSek** eta **SOZek** beren ohiko balioak izango lituzketela dirudi.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egokitu-ZAIO-3: ezaugarria_ABS; helburua_DAT

egokitu-DIO-5: abiapuntua [+giz]_ERG; ezaugarria_ABS; helburua_DAT

egokitu-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

Zenbait adibide:

(1624) Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro **egokituko**, baina, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren alderdirik baliagarrienak berreskuratzen saiatu beharko genuke. (EusCor)

(1625) Orain guri **egokitzen** zitzaigun txanda. (EusCor)

(1626) 5aren ondoko ostirala gomendatzen digu (tenporetako 2. eguna bezalaxe), eta 5a ostiralez **egokituko** balitz, urriaren 6an, nahiz hurrengo asteko edozein egunetan. (EusCor)

(1627) Errefortzua edo laguntza ematera mugatuko dira, oro har, eta, hala **egokituz** gero, profesionalek eta funtzionarioek osatutako zerbitzu publikoen ordezkotza subsidiarioa egingo dute. (EusCor)

(1628) Eta, bide batez, han **egokitu** nintzenez [NI], bere liburua erosiko nuen.

Balio honetan ezusteko gertakizun baten berri ematen da. Horretarako, osagai azpikategorizatu bezala gertakizun horretan parte hartzen duen entitatea —*gaitzat hartu duguna*— du, kasu **ABSz** gauzatua.

ABS entitatea gehienetan entitate abstraktu bat da, baina gizakia ere izan daiteke ((1628)). Horrelakoetan, askotan, gizaki horren kokapena adierazten **INE** agertzen zaigu. ABS entitatea abstraktua denean, nahiko arrunta da **DAT** agertzea gertakizun horren *esperimentatzaile* gisa. Ordea, ABS entitatea gizakia denean, ezinezkoa da, eta ematen du berau dela gertakizun horren *esperimentatzailea*. Nolanahi ere, ABS entitatea gizakia den kasuetan kokapena halabeharrez agertu behar dela dirudi; eta horrek murriztu egiten du markatzen ari garen balioa, gizakiei bakarrik lotuta dagoela baitirudi.

Goiko balioan esan dugun bezala, hala ere, zaila da *bss* honetako balio semantikoa zehaztea. Guk besterik gabe nolabait orokortu nahi izan dugu.

Gainontzekoan **IN**Sek eta **SO**Zek beren ohiko balioak adieraz ditzaketela esango dugu, nahiz eta ez izan bat ere arruntak.

ALA, ikus daitekeenez, ez dugu Kasu onartuen artean jarri balio honetan, baina adibide bat aurkitu dugu.

(1629) (...) idazlanen xerka bazterrak korritu ostean, prosagintza izan zen eskuartera **egokitu** zitzaidana (prosa lanei dagokienean espainieraz zein frantsesez kasik osorik baitugu Bukowski eta argitaletxei esker, hurrenez hurren). (EusCor)


Hala ere, oso kasu zehatza dela dirudi; izan ere DAT entitatearen jabetzazkoa den zerbait adierazten du —gorputz-atal bat zehazki—, eta, gainera, nahiko zentzu metaforikoan erabilia dago. Beraz, gehiago dirudi Hitz Anitzeko Unitatearen bidean den espresio bat.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

egokitu-DA-2: gaia_ABS

Nolanahi ere, *egokitu*-rentzat markatu ditugun balioak sakonkiago aztertu beharko lirateke, eta adibide gehiagoren bermea beharko lukete.

- Datu estatistikoek DATEk maiztasun handia duela erakusten dute, ABSren atzetik. ALAk ere badu nahiko maiztasuna. ERG, berriz, gutxitan ageri da, erabilera irangangaitzak arruntagoak diren seinale.



DA	31,64%	DA-ins	5,69%	DA-ala	30,01%	DA-abs	100,00%	DA-komp	4,76%	DA-soz	0,48%	DA-ine	18,07%		
DU	18,48%	DU-ins	2,44%	DU-ala	30,46%	DU-abs	45,18%	DU-komp	1,98%	DU-soz	0,50%	DU-ine	8,85%	DU-erg	100,00%
DIO	1,95%	DIO-ala	11,02%	DIO-abs	66,55%	DIO-komp	2,52%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	0,41%	DIO-ine	3,27%	DIO-erg	100,00%
ZAIO	47,93%	ZAIO-ala	11,23%	ZAIO-abs	100,00%	ZAIO-komp	13,85%	ZAIO-dat	100,00%	ZAIO-ine	8,03%	ZAIO-soz	0,42%		

Jarri

Aditz honi sei balio markatu dizkiogu, eta lau balio semantiko adierazten ditu. Balio batean bi *bssk* alternantzia osatzen dute elkarren artean, eta beste balio batean beste bik. Alternantzia hau alternantzia kausatibo/inkoatiboa da bi balio semantikoetan.

jarri-DA-1

Kasu azpikategorizatuak: ABS, INE

Kasu onartugabeak: ERG eta ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INS, SOZ, DAT

jarri-DU-4

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, INE

Kasu onartugabeak: ELA_KONP

Kasu onartuak: INS, SOZ, ABL, DAT

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

- (1630) Dirk gelara sartu eta ohearen ondoan jartzen da. (EusCor)
- (1631) Eta atzeko parrilean jarri zinen [ZU] niri gerritik oso estu eultzirik, eta nik ez nuen etxera inoiz ailegatu nahi, ordurako orduak minutu bihurtzen bait zitzaizkidan zurekin nengoenean. (EusCor)
- (1632) -Non jarri da argazkilaria, gozotegiaren barruan ala kanpoan? (EusCor)
- (1633) Dirudenez, zibilizatu da zure ustez, erabaki unilateralak hartzea, kontratuen interpretazio unilateralez kontratuak amaitu egiten direla erabakitzea, eta ehun lagun kalean jartzea. (EusCor)
- (1634) Gu dutxaren azpian jartzen gara, gorputza garbitzeko. (EusCor)
- (1635) Paper bakoitza bere tokian jartzen zuen. [HARK] (EusCor)
- (1636) Zigarroa piztu eta aldizka nire ezpainetan jartzen zuen [HARK], biok elkarbanatzen genuen sakonagoko zerbaiten (etsipenaren?) ikurra bailitzan. (EusCor)
- (1637) "Tolaretik sagarra jotzerakoan txalaparta jotzeko aukeratzen genuen ohola bustia egoten zen, hezea, eta teilatuan [GUK] [HURA] jartzen genuen lehertzeko, hots hobea eman zezan". (EusCor)
- (1638) Lurrean herrestan bazeraman, atzetik joan eta eskerrak ematen zizkieten onura zekarkielako, are jaki gozoak ere jartzen zizkieten aurrean. [HAIEK] [HARI] (EusCor)
- (1639) Izan ere, normalean, gutunak eta instantzien erantzunak banatzeko izen zerrenda bat jartzen dute lehiarrean. [HAIEK] (EusCor)
- (1640) Era teknologikoari lotutako bizimodu berriak gauza asko galbidean jarriko baditu ere, "olerkiak zerbait salbatzeko aukera emango digula" uste du Urepelen jaiotako idazleak. (EusCor)
- (1641) Europa ekialdeko inportazioek azken denbora hauetan, arrisku larrian jarri dute laborantzako sektore oso bat. (EusCor)

Balio honetan entitate baten desplazamendua adierazten da, eta horretarako entitate desplazatua —**ABS**z gauzatua—, *helburuko kokapena* —**INE**z gauzatua— eta ekintzaren eragilea —**ERG**z gauzatua— ditu osagai azpikategorizatu gisa. Kasu honetan, nahiz eta *helburuko kokapena* agertu, *abiapuntuko kokapena* ezinezkoa da. Horregatik jarri-DA-1 *bss*an **ABL** ez dugu Kasu onartutzat jo. Jarri-DU-4n, berriz, Kasu onartuen artean jarri dugu ekintza egiten duen entitatearen kokapen zehatza adieraz dezakeelako (ez, jakina, *abiapuntuko kokapena*); ez da, ordea, bat ere arrunta. Beraz, *jarri* aditza balio honetan salbuespena da *helburuko kokapena* egonik *abiapuntuko kokapena* duten aditzekiko.

ABS entitatea orotarikoa izan daiteke, baina izaki bizidunak batez ere jarri-DA-1 *bss*an agertzen dira. ERG entitatea gehienetan gizakia da, baina izaki abstraktuak ere ageri dira ((1640), (1641)).

INE entitatea, berriz, ez da beti leku fisiko bat ((1640), (1641)), eta, halakoetan, kokapen-aldaketa hori zentzu abstraktuan ulertu behar da. Askotan, gainera, balio abstraktu hau ABS entitatea ere abstraktua denean azaltzen da.

Gainerako Kasuei dagokienez, **IN**Sek, **SO**Zek eta **IN**Ek euren ohiko balioak adieraz ditzake.

DATi dagokionez, desplazamendua adierazten duten aditzetan esan dugunari jarraiki (ikus *eraman* aditza —85. or.—), bigarren helburu mota bat adierazten duela dirudi (gizakia den helburua). Ordea, INErekin batera ager daiteke, eta, orduan, bion artean —INE eta DAT entitateen artean— harreman bat sortzen dela ematen du.

Vázquez et al.-ek (2000) *poner* aditza amaiera-puntua (*helburuko kokapena* gure terminoetan) lexikoki fokalizatuta duen aditzen artean sailkatzen dute (Ikus autore hauen zita —Vázquez et al., 2000:191— *iritsi* aditzean (161. or.)). Honek esan nahi du, osagai hau espezifikatuta agertzen ez denean (hau da, esaldian agertzen ez denean) elipsi prozesuen bidez ulertu behar dela, eta ez inespezifikazioz. Beraz, pentsa genezake, DAT bakarrik agertzen denean, horixe gertatzen zaigula (adibide asmatu batera joaz: *txapela jarri zion* → buruan; txapela buruan jartzen dela jakina baita).

Beraz, esango dugu *jarrik* balio honetan entitate baten kokapen-aldaketa fisiko nahiz abstraktua adierazten duela; horretarako goian aipatu ditugu *bssak* baliatzen dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jarri-DA-1: gai ukitua_ABS; helburuko kopapena_INE

jarri-DU-4: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko kopapena_INE

jarri-DA-2

Kasu azpikategorizatuak: ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

jarri-DU-5

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, ABS

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ, DAT

Azalpena

Ikus ditzagun *bss* bakoitzeko zenbait adibide:

- (1642) Hizkuntzaren autonomia gordetzen saiatzen zaren neurrian, eta itsu-itsuan bestearen morroi jartzen ez garen neurrian [GU]. (EusCor)
- (1643) Halako batean, txuri-txuri jarri da Ana. (EusCor)
- (1644) Baina gero berriz ere oso triste jarriko nindukek. [NI] (EusCor)
- (1645) Anttonen ahots etenak urduri jarri hinduen. [NI] (EusCor)
- (1646) -Oporrek triste jartzen naute— esan zuen Jontxuk— (EusCor)
- (1647) Laino artean bidea ezin aurkiturik, begiak zabal-zabalik eta belarriak erne [GUK] jarri, eta beherantz abiatu ginen. (EusCor)
- (1648) Dendan sartu eta bakoitza bere lekuan etzan ondoren, orduan konturatu zarete zein txarto jarri duzuen denda goizean [ZUEK]. (EusCor)
- (1649) Askoren artean adibide bat ekartzearren, Bereterretxeren kantoria poemak kantari asko jarri ditu arras minbera: (EusCor)

Bigarren balio honetan entitate baten egoera-aldaketa adierazten da. Horretarako, aldatzen den entitatea —**ABSz** gauzatua—, *helburuko egoera* —**ABSz** gauzatua— eta ekintza eragiten duen entitatea —**ERGez** gauzatua— ditu osagai azpikategorizatu gisa. Azken osagai hau batzuetan ez denez agertzen, alternantzia kausatibo/inkoatiboa onartzen du. Zabalak (1993) dioen moduan, *jarri* aditzak “aldaketa mota zehatz bat” adierazten du, alegia “jarrera edo itxura-aldaketa”. Hala izanik, “koloreak, itxura edo pertsonen osasun edo gogoaren egoerak” adierazten ditu predikatu honek (Zabala, 1993: 220-221)³³. Abiapuntuko egoera agertzea, berriz, ezinezkoa da.

Balio hau adierazten denean, ez dirudi **INEk** ABS entitatearen kokalekua adierazteko gaitasunik duenik. Agertzekotan, ekintzaren kokaleku orokorra adierazten du, eta kokaleku hau askotan abstraktua da.

ABS entitatea orotarikoa izan daiteke, eta ERG entitatea ere bai. *Egoera*, berriz, iraupen jakin bateko egoera da; hau da, ez berezkoa.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **SOZek** eta **INSek** beren ohiko balioak adieraz ditzakete, batzuetan kausa eiteko modua delarik adierazten dutena. Baina gerta daiteke Kasu hauek

³³ *Jarri* aditzaren predikazio moten berri sakonago nahi izanez gero, jo bedi Zabalaren tesiko 2.2.4.1 atalera.

ABS entitatea egoteko modua ere adieraztea; zehazki INSek eta INEk. Kasu horietan badirudi elementu predikatiboaren ordezkotza gisa jokatzeko dutela:

(1650) Ezagutzen dut nolako ospea duzun Nigeria-n, eta zure izena entzuteak bakarrik, gobernuaren etsaiak dardaraz jartzen dituela. (EusCor)

(1651) Gaitz berri honek, izan ere, gure bizimoduko alderdi asko kolokan jarri ditu; (EusCor)

Guk, ordea, horrelakoak edo kokapen abstraktu gisa joko ditugu (INEren kasuan), edo adberbio egin gisa (INSen kasuan). Adibide hauetakoak, gainera, Hitz Anitzeko Unitate izateko bidean direla ematen du.

DATek, ABS entitatearekiko jabetzako harremana adierazten duela dirudi; horixe gertatzen da ABS entitatea gorputz-atala denean (adibide asmatu batera joaz: *ilea tente jarri zaio*). Ohartarazi behar dugu, hala ere, parte-oso jabetzako harreman hau ERG eta ABS entitateen artean ere gerta daitekeela (hain zuzen DATik agertzen ez denean). Beste egoera-aldaketazko aditzetan esan dugunari jarraiki, kasu hauetan ERGek kausatasuna, nolabait, galdu eta *gai ukitu* bilakatzen da. Beraz, salbuespena da ERGen kausalitateari begira.

Gerta daiteke, hala ere, ez agertzea ez INE, ez osagai predikatiboa esaldian; ia gehienetan erabilera iragankorrean. Horrelakoetan ez dago argi zein balioren (kokapen- edo egoera-aldaketaren) aurrean aurkitzen garen, batez ere ABS entitatea ez denean izaki bizigabe konkretu bat. Izan ere, izaki bizigabe konkretu bat denean, gure ustez INE, edo bestela esanda, izaki horren kokalekua suposatuta behar da. Ikus zenbait adibide:

(1652) Iluntzeak herri gainera nagusitzeko duen era izango da, dudarik gabe, Belandian urte tusto hauetan aldaketarik jasan ez duen eeeee gauza bakarra, esango nuke, bai, hobe horrela "fenomenu bakarra" **jartzea** baino. (EusCor)

(1653) Gas-naturalaren tarifa Estatuko Ministrari Kontseiluak **jartzen** ditu, Estatuko monopolioa diren beste produktuenak bezalaxe, gasolinarenak, esaterako. (EusCor)

(1654) Haur bati adibide gehiago jarri beharko diozu hobeto uler dezan. (EusCor)

(1655) Olerkiko zenbait esalditan agertzen diren hitz batzuk beltzez **jarri** dizkizuegu, kontrakoak jar ditzazuen. (EusCor)

(1656) Iraultzaren ondoren, erregetza baztertu eta errepublika jarri zen. (EusCor)

(1657) Euria ari ez duenean, kalean hotzegi ez badago, bideoen bat jartzen dute kanpotik ikusteko moduan; lagunen eritziz, gehiago saltzeko asmotan, baina nik osorik ikusten dut. (EusCor)

(1658) Bakalao musika hori jartzen dute eta ni aluzinatuta geratzen naiz, lur jota. (EusCor)

Horrelakoetan seguruenez, ABS entitatearen izaerak zer esan handia du, batzuetan izaki batzuk leku jakin batean jartzen direlako (adib., *bideoa*, bideo ikusteko gailuan; *musika*, musika entzuteko gailuan...). Ez dago, ordea, beti hain argi azpian kokalekuren bat ulertutzat eman behar izate hori.

Beraz, esango dugu *jarri* balio honetan entitate baten egoera-aldaketa adierazten duela, horretarako goiko *bssak* baliatzen dituela.

Bssen Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jarri-DA-2: gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ABS

jarri-DU-5: kausa_ERG; gai ukitua_ABS; helburuko egoera_ABS

jarri-ZAIO-3

Kasu azpikategorizatuak: ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ERG, ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Azalpena

Ikus aurkitutako adibide bakarra:

(1659) Zu, ba, Alaska oinez zeharkatzen ari bagina izango genukeen hotzarekin pentsatzean oilolarrua jartzen zait eta ... [NIRI] (EusCor)

Balio honetan entitate baten sortzea adierazten da. Hori dela eta, *gai sortua* —ABSz gauzatua— eta *iturria* —DATez gauzatua— ditu Kasu azpikategorizatu bezala. *Iturria* beti gizakia da, eta *gai sortua* gizaki bati dagokion sentipenezko zer abstraktu bat (adibide bakarra dugun arren, horrelakoak lirateke *buruko mina, goragalea...*). Dena den, sorkuntza-prozesu hau nahigabe gertatzen da; alegia, DAT entitateak nahigabe ekoizten du.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, INEk, INSek eta SOZek euren ohiko balioak adieraz ditzaketela dirudi; eta INSek eta SOZek adierazten duten modua kasua eitekoa izan daiteke.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jarri-ZAIO-3: gai sortua [-konkr]_ABS; iturria [+giz]_DAT

jarri-DIO-6

Kasu azpikategorizatuak: ERG, ABS, DAT

Kasu onartugabeak: ELA_KONP, ABL, ALA

Kasu onartuak: INE, INS, SOZ

Ikus aurkitutako adibide bakarra:

(1660) Prestatzaileak, monitoreak edo entrenatzaileak —persona honi jartzen diogun titulua edozein izanik ere— garrantzi handiko funtzioa betetzen du adin hauetako pilotari gazteen eremuan, gero eta haur gehiago hurbiltzen baita pilota-eskoletara. (EusCor)

(1661) Azkenik, diskurtsuari diskurtsu mailan ezin diogu helburu zehatzik jarri. (EusCor)

- (1662) Dena den, honek ez du esan nahi diskurtsuari metahelburu batzuk ezin dizkiogula **jarri**, Gricek inplikaturak azaltzeko asmatu zituen printzipio orokorren antzera. (EusCor)
- (1663) Gurasoek asko pentsatu dutenez haur horretaz, jaio aurretik ere bazekiten zein izen jarri. [HARI] (EusCor)
- (1664) Hasieran, irakurtzeko ataza bat jarri zien (Willis, 1991&&) [HAIEI], AOlren printzipio batzuk aurkezten zituena. (EusCor)
- (1665) Asmatutako praka berri horiei poltsiku ugari jarri zizkien mineral mostrak eta lanerako tresnak bertan gordetzeko premia zutela konturatuta. (EusCor)
- (1666) Hori egitean, ez ahaztu subjektuari -k jartzea behar den kasuetan. (EusCor)
- (1667) Legearen zenbait atali konstituziotasun-errekurtsua jarri zion Herriaren Defendatzaileak: (EusCor)

Azken balio honetan, ezaugarri-esleitze bat adierazten da. Horretarako, *abiapuntua* — **ER**Gez gauzatua—, *ezaugarria* —**ABS**z gauzatua— eta ezaugarri horren *helburua* — **DA**Tez gauzatua— ditu osagai azpikategoruzatu gisa.


ABS entitatea, izaki abstraktua da askotan, baina entitate baten ezaugarriak ez du zertan beti abstraktua izan ((1665)). Abstraktua ez denean, ezaugarri hori, aldi berean, DAT entitatearen parte bat izaten da, eta horrelakoetan DAT entitateak ez du nahitaez gizakia izan behar. Esan behar da, horrelako kasuak goiko jarri-DU-4ren barrukotzat jo genitzakeela, DAT berez *helburuko kokapena* besterik ez litzatekeelarik; eta DAT agertzeko arrazoia parte-oso harreman batean parte hartzea litzatekeela. Hala ere, balio honetan orokortzearen, ez dugu goikoaren alternantziatzat jo (ALArekiko). Gainera, berez, ABS entitatea DAT entitatearen ezaugarri gisa nabarmendu nahi dela uste dugu. ERG entitatea beti gizakia dela dirudi.

Gainontzeko Kasuei dagokienez, **IN**Sek, **SO**Zek eta **IN**EK euren ohiko balioak adieraz ditzaketeela dirudi.

Bssaren Kasu azpikategorizatuak eta hauei loturiko osagai semantikoak:

jarri-DIO-6: abiapuntua [+giz]_ERG; ezaugarria_ABS; helburua_DAT

- Datu estatistikoek INEren indarra jartzen dute agerian, ERG eta ABSren ondoren. DAT ere nahiko maiz agertzen da.



DA	28,50%	DA-ins	1,34%	DA-ala	1,91%	DA-abl	3,09%	DA-abs	100,00%	DA-komp	6,05%	DA-soz	3,21%	DA-ine	46,96%				
DU	56,24%	DU-ins	2,07%	DU-ala	2,06%	DU-abl	2,86%	DU-abs	68,86%	DU-komp	6,13%	DU-soz	1,84%	DU-ine	46,61%	DU-erg	100,00%		
DIO	12,85%	DIO-ins	1,86%	DIO-ala	1,04%	DIO-abl	2,55%	DIO-abs	74,18%	DIO-komp	4,87%	DIO-dat	100,00%	DIO-soz	1,28%	DIO-ine	25,90%	DIO-erg	100,00%
ZAI	2,41%	ZAI-ins	2,68%	ZAI-ala	0,63%	ZAI-abl	1,24%	ZAI-abs	100,00%	ZAI-komp	3,70%	ZAI-dat	100,00%	ZAI-soz	2,84%	ZAI-ine	21,74%		

Aditzen indizea

- abestu, 41, 42, 43, 44, 45
adierazi, 49, 50, 51, 52, 53, 54
afaldu, 41, 42, 43, 44, 45, 46
agertu, 189, 190, 191, 192, 193, 194
ahaztu, 291, 292, 293, 294
aldatu, 196, 197, 198, 199, 200, 201
amaitu, 201, 202, 203, 204, 205
argitu, 94, 95, 96, 97, 98
aritu, 111, 112, 113, 114, 115
asmatu, 76, 77, 78, 79
atera, 307, 308, 309, 310, 311, 312, 313,
314, 315, 316
aurkitu, 205, 206, 207, 208
baieztatu, 49, 50, 51, 52, 53
banandu, 208, 209, 210, 211
barkatu, 244, 245, 246
bazkaldu, 41, 42, 43, 44, 45, 46
besarkatu, 152, 153, 154
bete, 211, 212, 213, 214, 215, 216
bilakatu, 154, 155, 156
bisitatu, 5, 6
dedikatu, 127, 128
deitu, 249, 250, 251, 252, 253, 254, 255
edan, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47
egin, 7, 8, 9
egokitu, 316, 317, 318, 319, 320
egon, 117, 118, 119, 120, 121
ehizatu, 41, 43, 44, 45, 46, 47
ekarri, 101, 102, 103, 104, 105, 106, 107,
108
elkartu, 294, 295, 296, 297, 298
eman, 79, 80, 81, 82, 83
entzun, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72
erabili, 10, 11
eragin, 238, 239, 240, 241
eraman, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89
erantzun, 55, 56, 57
erre, 166, 167, 168, 169
erreparatu, 246, 247, 248, 249
esan, 255, 256, 257, 258
eskaini, 12, 13, 14
eskatu, 49, 50, 51, 52, 53
etorri, 272, 273, 274, 275, 276, 277, 278,
279, 280, 281
eutsi, 241, 242, 243
existitu, 148, 149
ezkondu, 156, 157, 158, 159
flotatu, 15, 16
gainditu, 16, 17, 18
gertatu, 122, 123, 124, 125
gosaldu, 18, 19
grabatu, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47
hartu, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66
haserretu, 145, 146
hasi, 216, 217, 218, 219, 220
hautatu, 19, 20, 21
hautsi, 130, 131, 132, 133
hazi, 130, 131, 132, 133
hil, 130, 131, 132, 133, 134
hornitu, 169, 170, 171, 172
hustu, 172, 173, 174, 175
igo, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181, 182
ikasi, 98, 99, 100, 101
ikusi, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72
irakin, 21, 22, 23
irakurri, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72
iraun, 73, 74, 75
iritzi, 159, 160, 162, 163
isildu, 130, 131, 132, 133, 134
isuri, 220, 221, 222, 223
izan, 223, 224, 225, 226, 227, 228
jaitsi, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181,
182
jan, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48
jarri, 320, 321, 322, 323, 324, 325, 326,
327
jasan, 23, 24
jaso, 89, 90, 91, 92, 93, 94
jo, 258, 259, 260, 261, 262, 263, 264, 265,
266, 267, 268, 269
joan, 282, 283, 284, 285, 286, 287, 288,
289, 290, 291
jokatu, 228, 229, 230, 231, 232, 233
jolastu, 149, 150, 151
kezkatu, 142, 143, 144, 145
kokatu, 135, 136, 137
konparatu, 24, 25, 26
konturatu, 115, 116, 117
landatu, 58, 59, 60
landu, 27, 28, 29
laztandu, 29, 30
loratu, 109, 110, 111
lortu, 30, 31, 32
mintzatu, 269, 270, 271, 272
moztu, 33, 34, 35
mugitu, 137, 138, 139, 140
nahastu, 233, 234, 235, 236, 237, 238
onartu, 49, 50, 51, 52, 53, 54
oroitu, 183, 184, 185
otu, 125, 126, 127
pasatu, 298, 299, 300, 301, 303, 304, 305,
306, 307

sartu, 186, 187, 188, 189
topatu, 163, 164, 165, 166
ukitu, 36, 37, 38

ulertu, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73
zeharkatu, 38, 39, 40
zintzilikatu, 140, 141, 142